

2025eko **DOSIERREN SINOPSIAK**



Euskararen
telefonoa.eus




AURKIBIDEA

1. KEXAK SEKTORE PUBLIKOA	3		
* <u>Espainiako Estatua</u>	4		
* <u>Frantziako Estatua</u>	15		
* <u>Eusko Jaurlaritza</u>	16		
* <u>Nafarroako Gobernua</u>	69		
* <u>Euskal Hirigune Elkargoa</u>	90		
* <u>Foru Aldundiak</u>	91		
* <u>Udalak eta herriko etxeak</u>	103		
* <u>Mankomunitateak / Herri elkargoak</u>	151		
* <u>Nafarroako Parlamentua</u>	155		
* <u>Bizkaiko Garraio Partzuergoa</u>	156		
* <u>Besterik</u>	157		
2. KEXAK SEKTORE PRIBATUA	159		
* <u>Aisialdia / Kultura / Kirola</u>	160		
* <u>Alderdi politikoak / Sindikatuak</u>	168		
* <u>Ekonomia / Enplegua / Lan mundua</u>	169		
* <u>Elikadura / Ostalaritza / Merkataritza txikia</u>	170		
* <u>Energia hornitzaileak</u>	178		
* <u>Eragileak / Mundu asoziatiboa</u>	181		
* <u>Finantzak / Aseguru etxeak</u>	182		
* <u>Garraio zerbitzuak</u>	186		
* <u>Hedabideak</u>	188		
		* <u>Hezkuntza</u>	191
		* <u>Merkataritza gune handiak / Kateak</u>	192
		* <u>Osasun zerbitzuak</u>	203
		* <u>Profesionalak / Zerbitzuak</u>	206
		* <u>Telekomunikazio enpresak</u>	210
		* <u>Besterik</u>	213
		3. <u>ZORIONTZEAK ETA ESKER ONAK</u>	216
		4. <u>IRADOKIZUNAK ETA OHARTARAZPENAK</u>	224
		5. <u>KONTSULTAK</u>	230

KEXAK

SEKTORE
PUBLIKOA



1

ESPAINIAKO ESTATUA

Administrazio orokorra (1)

Dosierra: 662-2025

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - MINISTERIO DE TRANSFORMACION DIGITAL Y FUNCIÓN PÚBLICA

Arrazoia: Jakinarazpen elektroniko baten berri emanez eposta bidali dit Espainiako Gobernuak, mezua gaztelaniaz baino ez dago.

Ekonomia, enplegua (3)

Dosierra: 762-2025

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - SEPE - Servicio Público de Empleo Estatal - BIZKAIKO HERRIALDE ZUZENDARITZA

Arrazoia: Urriaren 6aren 12:45ean hitzordua neukan Basuariko SEPE bulegoan. Kartel guztiak gaztelera hutsan zeuden (“para Lanbide coge ticket aquí”, “para SEPE coge ticket aquí”, edo horrelako zerbait). Txanda heldzean, langileak gaztelera hitz egiten zidan eta nik, aldiz, euskaraz (kaixo, bai, ez, barkatu, mesedez) galdera bat egin arte. Erantzun zidan “si me hablas en euskera no voy a poder atenderte” eta hortik aurrera gure elkarrizketa osoa gaztelera izan zen. Amaitzean, atean zegoenarengana joan nintzen kexa bat jartzeko, baina berriro bidali ninduen langile berarekin kexa izapidetzeko. Kexa jartzeko orria ere gaztelera bakarrik. Erantsita bidaltzen dut orriaren kopia. Urriaren 9an SEPEren erantzuna jaso nuen, eta, barkamena eskatu beharrean, haien burua justifikatu zuten. Gainera, ematen du errua erabiltzaileak duela, euskara hizkuntza atzeritartzat hartzen duen sistema korapilatsu horretan itzultzaile telefonikoa ez eskatzeagatik, nahiz eta “zerbitzu” horren berri ez eman. Dokumentu hau ere erantsita bidaltzen dut.

Erantzuna:

SEPEren Probintzia zuzendaria: Erakunde honek beharrezko neurriak hartu ditu eta hizkuntza eskubideak pixkanaka egikaritzen joango dela bermatzeko beharrezko baliabideak erabaki ditu. Horren lekuko ditugu euskaraz erabilgarri dauden zerbitzu ugariak: SEPEren webgune elebiduna, bai eta inprimaki, liburuxka eta informazio gida elebidunak ere. Informazioa zabaltzeko material hori guztia gaztelaniaz zein euskaraz eskaintzen diegu herritarrei, hala eskatzen duenean, Halaber, telefono Arretarako Bulegoan nahiz bulego gehienetan, bada, gutxienez, pertsona bat euskara hitz egiten duena, nahiz eta gerta daitekeen zure idatzian azaltzen duzun egoeraren bat gertatu izana pertsona hori une jakin batean libre ez zegoenean edo inork euskaraz hitz egiten ez duen bulego bat izan ahal da. Bestalde, lankidetzaren prozedura bat ere ezarria dugu bulegoen artean, erabiltzaileak eskatuz gero, kudeatzaile elebidun batekin telefono bidez harremanetan jartzeko. Ezinezkoa zaigu, Probintziako Zuzendaritza honen kudeaketakoak ez diren arrazoiengatik,

langileen ehuneko ehunak euskaraz arreta eskaintzeko gaitasun osoa izatea (dela ulertzeko, dela mintzatzeko), baina, gure gaitasunen baitan, langile guztiak motibatuta daude elebitasunari dagokionez. Bestalde, egungo egoera konplexuaren datu guztiak zure esku jartzeko asmo bakarrarekin, espero dugu ulertuko duzula zaila dela administrazio batean, Estatuko Administrazio Orokorrean kasurako, araudia bi hizkuntzetan erabat menperatzea. Hain zuzen, administrazio hori autonomia erkidego desberdinetako biztanle guztiei irekitako lan eskaintza publikoez hornitzen da, eta estatu edozein puntu izan daiteke norakoa ausazko.

Dosierra: 885-2025

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - SEPE - Unidad de Quejas y Sugerencias de Servicios Centrales Subdirección General de Recursos y Organización

Arrazoa: Azaroaren 13an joan nintzen Tolosako S.E.P.E.ren egoitza, partekatuta dago LANBIDEkin. Hasteko, sarrerako zaintzaleak ez du euskaraz artatzen (Enpresa pribatu bateko langilea, suposatzen dut). S.E.P.E.ko bi langile zeuden, ez dakit biak gaztelaniako elebakarrak ziren, ni artatu ninduen behintzat euskara ez zuela menperatzen eta harrera gaztelaniaz izan zen. Estatistikarako bakarrik balioko du baina behintzat ager dadila nonbaiten administrazioak ez duela harrera euskaraz ziurtatzen.

Erantzuna:

Gipuzkoako Zuzendaritza Probintziala: Gaur egun ezinezkoa da lanpostuen %100ean erabiltzaileei arreta bi hizkuntza koofizialetan eskaintzea, baina gure bulego-sare osoan behar bezala prestatutako hainbat pertsona daude. Horregatik, hala eskatzen bada, beti saiatuko gara komunikazioa nahi dugun hizkuntzan ziurtatuko duten aukerak bilatzen. Ahalegina egiten ari gara pixkanaka aukera handiagoa izan dezagun zerbitzua euskaraz eta gaztelaniaz emateko lanpostu guztietan eta bereizketarik gabe. Bidean, logikoa denez, mugak egongo dira, nahiz eta gero eta txikiagoak izango diren. Segurtasuneko langileak emandako arretari dagokionez, Lanbide-EEZak du arreta horren gaineko eskumena, zeinarengatik zure kexa administrazio horretara bidaliko dugun.

Dosierra: 906-2025

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - Gizarte Segurantzak - INSS - DIRECCIÓN GENERAL

Arrazoa: bihar dudak hitzordua gogoraraziz mezua bidali dit Gizarte Segurantzak. Euskara ofiziala den Nafarroako zonaldean bizi naiz, baina, mezuan hitz bakar bat ere ez euskaraz.

Garraioa, mugikortasuna (17)

Dosierra: 30-2025

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - ADIF - BEZEROEN ARRETA - DONOSTIA

Arrazoa: Berriz ere Donostiako tren geltokiko eskaileretan kartel berbera erdara hutsean. Euskal hiztunak eseri beharko gara protestan!

Dosierra: 184-2025

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - RENFE - ALDIRIETAKO DONOSTIAKO GERENTZIA

Arrazoa: Goizaldeko 1:20an Donostiarako trena hartzea pentsatu genuen eta 1etan gerturatu ginen Tolosako tren geltokira (estazio printzipala ferien aurrean dagoena). Han ginela segurtasuneko batek esan zigun trena beterik zegoela, ordu bat itxaron beharko genuela, baina hurbiltzeko trenaren aurreko aldera, ea atea irekitzen ziren eta tokirik aurkitzen genuen probatzera. Estazioa ia hutsik zegoen nire laguna eta biok eta kuadrilla pare bat, denok atean botoia sakatzen genbiltzan sartzeko intentzioekin. Horretan ari ginela segurtasuneko pertsona azaldu zan, garraxika “que cojones estais haciendo que el tren está completo; ahora os jodeis haber venido antes!” oso modu txarrean. Nire eta nire lagunaren erreakzioa lasaitzeko eta euskeraz hitz egiteko izan zen. Euskera hitza entzun bezain pronto berriz garraxika hasi zen “que euskera? Estas en España y te hablo en español y me respondes en español, si no te gusta te aguantas y te jodes!” Nik ez nuen sinisten horrelako erantzun bat entzun izana, esan nion ez zeukala hori esateko eskubiderik eta eztabaidatzen hasi ginen. Zaintzaileak, garrasika, errefuertzak eskatu zituen, beste agente bat lasai-lasai agertu zen ikusi zuelako ez zegoela tentsiorik eta ezer. Gogoratzen dut buelta hartu nuela nire lagunari lasai egoteko esateko eta segurtasunekoak lepotik, atzetik, eutsi eta lurrera bota ninduen inongo zentzu eta beharrik gabe. Nik ez nion kontra egin eta lurrean geratu nintzen lasai egoteko esanez, askatzeko eta zutik hitz egiteko eta ea erotuta zegoen galdetuz. Lurrean eta segurtasunekoak nire gainean segitzen zuen, altxatzeko ahalegina egiten nuen bakoitzean, agenteak bultzatzen zidan. Horrela, bere lankidea gerturatu zitzaion kristona montatzen ari zela eta lasaitzeko esanez. Ni agobiatzen hasi nintzen 3 minutu zaramatzalako nire bular gainean exeria eta, nahiz eta askotan eskatu altxatzen uzteko, ez zidan kasurik egin eta nire kabuz altxatu nintzen, haserre, indarkeria zentzu gabe erabiltzen ari zelako. Bere lankidearekin hitz egiten aritu

ginen eta, agente honek gertatutakoa ikustean, bere lankidea hartu eta eraman egin zuten estazioaren beste aldera. Ondoan zeuden kuadrillak gerturatu ziren babesa ematera eta lasai egoteko dena ikusi zutela esanez. Minutu gutxiren buruan Ertzaintzaren kotxe bat iritxi zen estaziora, segurtasunekoekin hitz egin eta gero joan egin ziren guri ezer galdetu gabe. Hortik aurrera ordu bat itxoiten geratu ginen estazioan eta ezer gertatu ez balitz bezala jokatu zuten segurtasunekoek. Istilua eduki genuen pertsona ez genuen berriro ikusi, desagertu egin zen. Ni eta nire lagunak ez genuen sinisten gertatutakoa.

Erantzuna:

Salmenta osteko zerbitzua: Lehenik eta behin, segurtasun-langileekin izan zenuen esperientzia negatiboa sentitzen dugu. Renfen, gure bezero guztiei kalitatezko eta errespetuzko zerbitzua eskaintzen ahalegintzen gara, eta oso serio hartzen dugu tratatu txarraren edo heziketa faltaren salaketa oro. Zure hizkuntza-eskubideei dagokionez, jakinarazi nahi dizugu, komunikazioa euskaraz errazteko ahalegin guztiak egiten ditugun arren, ez dagoela legezko betebeharririk gure kontratatutako langileek euskara hitz egin dezaten. Renfek, Trenbide Sektorearen 38/2015 irailaren 29ko legeari dagokionez, hizkuntza koofizialen erabilera babesten ditu. Lege honek Espainian trenbide-zerbitzuak emateko xedapen orokorrak ezartzen ditu, bezeroarentzako komunikazio eta arretarekin zerikusia duten alderdiak barne. Beste aldetik, Renfek seinaleztapen eta dokumentazio guztietan gaztelania eta autonomía-erkidegoetan dauden hizkuntza koofizialak ahal den guztietan erabiltzen ditu, hizkuntza koofizialen arloan aplikatu beharreko legeria betetzen. Alderdi honen garrantzia ulertzen dugu eta arlo honetan hobetzeko lanean jarraitzen dugu. Eskertzen dugu ulertu izana, era ziurtatzen dizugu behar diren neurriak hartuko ditugula horrelako egoerak etorkizunean errepika ez daitezen.

Dosierra: 214-2025

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - RENFE - ALDIRIETAKO BILBOKO GERENTZIA

Arrazoa: Martxoaren 14an Bilboko Renferen geltokiko txarteldegira hurbildu nintzen txartela eroatera. Bi txarteldegi daude eta ez batean eta ez bestean ez zegoen arreta euskaraz eskainiko zuen inor.

Erantzuna:

Renfe: Renfe Aldiriak Euskal Autonomia Erkidegoko Zerbitzu Publikoaren Gerentziak zorrotz betetzen du hizkuntza koofizialen arloan aplikatu beharreko

legedia. Gaztelaniarekin batera, Renfek euskara erabiltzen du oro har Autonomia Erkidego honetan. Kudeatu behar dituen estazioetan (azpikontratutako langile guztiak elebidunak dira), bezeroari ematen zaion informazio guztia bi hizkuntzetan (euskaraz eta gaztelaniaz) ematen da. Ildo horretan, nahiz eta Renfe Viajerosi ez zaion aplikagarria Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutua, Euskal Autonomia Erkidegoan Zerbitzua Emateko Gerentziak behin eta berriz adierazi izan ditu euskararen erabilerari buruzko jarraibideak. Nahiz eta egia den zure bezeroak jarritako kexa “pertsonengan” gauzatzen dela, argi utzi nahi dugu Renfeko langileak ez daudela behartuta hizkuntza koofizial guztiak ezagutzera, nazio mailako mugikortasuna dela eta. Hala ere, hizkuntza koofizialak dituzten lurraldeetan, hala nola Euskal Autonomia Erkidegoan, Katalunian edo Galizian, lanpostu zehatz batzuetarako lan-deialdietan, dagokion hizkuntza koofiziala jakitea baloratzen da, eta, kasu batzuetan, derrigorrezkoa da (Katalunian bakarrik). Beraz, informazio hori behin eta berriz helarazi dugunez, eta Renferen funtzionamendua arautzen duen legea ezagutzen duzue, ez gaitzazie berriro interpelatu lege babesturik dauden kasu hauen inguruan eta zuek zuzenean erantzun diezaiezula beren eskubideak urratu zaizkiela uste duten bezeroei.

Dosierra: 322-2025

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - AENA - BILBO-LOIUKO AIREPORTUA

Arrazoa: AENAK Bilboko aireportuan duen Nervion VIP aretoan prentsa zerbitzua dute. Bertan, egunkari eta aldizkari desberdinak dituzte eskuragai bertara sartzen direnontzat. Horien artean, prentsa mota desberdina dago, baina dena gaztelaraz. Ingeleseko aukerak ere badira. Euskaldunontzat BERRIA edo ARGIA bezalako prentsa eskuragai jarri beharko lukete.

Erantzuna:

Erreklamazio-bulegoa: Bilboko Aireportuan bi areto VIP ditugu, eta egia da, herritarrak esan duen bezala, momentu horretan ez zegoela euskaraz idatziriko egunkaririk eskuragarri. Hala ere, egoeraren berri genuen eta horregatik, jadanik BERRIA egunkaria areto bietan dago bertaratzen den edozein bidaiarik irakurri ahal dezan. Sentitzen dugu herritarrak jaso duen ondorezagatik.

Dosierra: 476-2025

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - DGT - NAFARROAKO HERRIALDE ZUZENDARITZA

Arrazoa: Ekainaren 23an gidatzeko karnet berria heldu zitzaidan, horrekin batera ondorengo gutuna. Berritzera joaterakoan inork ez zidan hizkuntza hautua galdetu eta beraz ulertzen dut elebitan bidali beharko zidala DGT-k gutuna. Euskara ofiziala den Nafarroako herri batetara bidali dute gutuna eta beraz euskaraz informatzeko eskubidea bermatua izan beharko lukeen herritarra naiz.

Dosierra: 519-2025

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - AENA - ZUZENDARI NAGUSIA

Arrazoa: AENAK Programazio eta eragiketarako teknikaria eta Mugimendu Arloko eragiketarako teknikari lanpostuetarako lan-poltsen deialdia ireki du. Deialdian euskararen ezagutza ez da nahitaezkoa ez eta merezimendua. <https://empleo.aena.es/empleo/PFSrv?accion=inicio>

Erantzuna:

Kanpoko Zerbitzuen zuzendaritza: Euskarak hizkuntza koofizial gisa eta Euskal Herriko kultura- eta hizkuntza-ondarearen funtsezko zati gisa duen garrantzia sakonki ulertzen eta baloratzen dugu. Badakigu pertsona askorentzat hizkuntza ezagutzea funtsezko elementua dela nortasunerako eta konpromisorako. Hala ere, jakinarazi nahi dizugu Aenak bere enplegu-deialdiak maila nazionalen antolatzen dituela, berdintasun, merezimendu eta gaitasun-irizpideei jarraituz eta indarrean dagoen araudiari jarraiki. Esparru horretan, oro har eskatzen den hizkuntza ofiziala gaztelania da, Estatuko hizkuntza komuna den aldetik. Gure deialdietan ez da derrigorrezko betekizuntzat edo merezimendutzat hartzen hizkuntza koofizialik jakitea, lanpostuaren ezaugarriengatik edo egoera jakin batzuetan aplikagarria den araudi autonomikoagatik justifikatuta egon daitezkeen kasu espezifikoetan izan ezik. Sentitzen dugu egoera horrek ezinegona sortu izana, eta benetan eskertzen dizugu zure iritzia helarazi izana, zalantzarik gabe kontuan hartuko baitugu Aenak aniztasunarekin eta etengabeko hobekuntzarekin duen konpromisoaren zati gisa.

Dosierra: 565-2025

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - RENFE - ALDIRIETAKO BILBOKO GERENTZIA

Arrazoa: Renfek Bilboko Abando geltokian duen bulegora joan nintzen gestio bat egitera, itxaron bitartean hormetako karteiei erreparatu nien eta konturatu nintzen euskaraz idatzitakoetan hainbat akats zeudela, nire txanda heldu zenean

langileari jakinarazi nion eta bere erantzuna izan zen berak nahikoa zuela bere lanarekin horrelako tontakeriei erreparatzeko. Honi erantsita argazki bi.

Dosierra: 569-2025

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - ADIF Bilbo

Arrazoa: Gaurko Corroen Adif-ek eta Garraio ministerio espainolak erdara hutsean argitaratu dute iragarkia. Erantsita doakizue argazkia.

Erantzuna:

Desjabetzeen zuzendariordetza: Adifek, administrazio zentralari atxikita dagoenez eta egoitza Madrilen duenez, ez du dokumentua itzultzeko betebeharririk, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 15.1 artikuluan ezarritakoaren arabera. Zehazki, izapide horri dagozkion argitalpenak prentsan (gaztelaniaz), BOEn (gaztelaniaz) eta Bizkaiko EHAA (elebitan) egiten dira, eta dokumentazioa interesdun guztientzat eskuragarri dago Gobernuaren Bizkaiko Ordezkariordeztan, Alonsotegiko Udalean ADIFeko Gainegitura Proiektuen Zuzendariordetzan eta Adif-en webguneko Gardentasun Atarian (www.adif.es). Ildo horretan, azpimarratu behar da Adifek bete egin dituela legeriak horri buruz ezartzen dituen betebeharrak. Halaber, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuari buruzko abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoak 6.1 artikuluan ezartzen duenez, euskara, Euskal Herriaren berezko hizkuntza, hizkuntza ofiziala izango da Euskadin, gaztelania bezala, eta bertako biztanle guztiek dute bi hizkuntzak ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea. Beraz, gaztelania Euskadin ere hizkuntza ofiziala denez, zuzenbidearen arabera da prentsako jendaurreko erakusketa hizkuntza horretan egitea.

Dosierra: 585-2025

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - ADIF - DIRECCIÓN DE COMPRAS Y CONTRATACIÓN

Arrazoa: Adifek eta Espainiako Erresuma deritzon estatuko Garraio eta Mugikortasun Iraunkorreko ministerioak erdara hutsean argitaratu dute iragarkia abuztuaren 8ko (barikua) Corroen, "Proyecto Constructivo de plataforma de la Variante Sur Ferroviaria de Bilbao. Fase 1: Tramo: Durañona - Burtxako* [sic]" *Burtzako da Trapagarango auzoaren izena.

Erantzuna:

Desjabetzeen Zuzendariordetza: Adierazi behar da Adifek, Madrilen egoitza duen administrazio zentralari atxikitako erakundea denez, ez duela dokumentua itzultzeko betebeharririk, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 15.1 artikuluan ezarritakoaren arabera. Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuari buruzko 4/2023 Legeari egindako aipamenari dagokionez, zehaztu behar da jendaurrean jartzeko izapideari buruzko iragarkia prentsan argitaratzea ez dela kontsumitzaileei zuzendutako ondasun eta zerbitzuen eskaintza, sustapen edo publizitatetzat hartzen; aitzitik, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legeak eta haren Erregelamenduak araututako desjabetze-prozedura batean txertatutako administrazio-egintza da. Beraz, aplikatzekoa den araubide juridikoa araudi berezi honetan ezarritakoa da, eta ez aipatutako 4/2023 Legean ezarritakoa, zeinaren helburua kontsumo-harremanetara mugatzen baita. Halaber, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuari buruzko abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoak 6.1 artikuluan ezartzen duenez, euskara, Euskal Herriaren berezko hizkuntza, hizkuntza ofiziala izango da Euskadin, gaztelania bezala, eta bertako biztanle guztiek dute bi hizkuntzak ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea. Beraz, gaztelania Euskadin ere hizkuntza ofiziala denez, zuzenbidearen arabera da prentsako jendaurreko erakusketa hizkuntza horretan egitea.

Dosierra: 612-2025

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - DGT - DIRECCIÓN GENERAL DE TRÁFICO

Arrazoa: DGTren webgunean ezin dira isunak euskaraz ordaindu, sistemak berak akats bat duelako. Isunaren ordainketa sisteman kopuruak xxx,yy moduan eman behar da derrigor, hau da, dezimalak komarekin bereizi behar dira. Baina sistemak hori automatizatuta du eta euskaraz egiten baduzu, puntu bat jartzen du xxx.yy moduan. Horrela, euskaraz jarraitzea ezinezkoa da, sistemak berak bi akats egiten dituelako: euskaraz puntu bat jarri (ez dena zuzena) eta berak jarritako kopurua ez balidatu.

Dosierra: 616-2025

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - RENFE - KANTABRIA, EAE, NAFARROA ETA ERRIOXAKO ORDEZKARITZA

Arrazoa: Tafallako tren geltokian gaur bozgorailuetatik gaztelaniaz baino ez.

Dosierra: 623-2025

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - RENFE - KANTABRIA, EAE, NAFARROA ETA ERRIOXAKO ORDEZKARITZA

Arrazoa: Tafallako tren geltokiko bozgorailuetatik gaztelaniaz baino ez da informazioa zabaltzen.

Dosierra: 711-2025

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - AENA - BILBO-LOIUKO AIREPORTUA

Arrazoa: Bizkaiko aireportuko P4 aparkalekutik Irteeretara noala, ikusi dut ez aparkatzeko bide-seinale batek erdara hutsean duela testua: "Excepto taxi". Erantsita doakizue argazkia.

Erantzuna:

Erreklamazio bulegoa: Inguru horretan daukagun informazioa euskeraz eta gaztelaraz ematen dugu, herritarrek esaten duen bezala, taxiaren seinalean izan ezik, nahi gabea izan da. Idatzia kontuan hartuko dugu eta seinale horren informazioa zuzenduko dugu, euskeraz ere ageri dadin.

Dosierra: 802-2025

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - RENFE - ALDIRIETAKO BILBOKO GERENTZIA

Arrazoa: RENFEren aldirietako trenak euskaldunon hizkuntza eskubideak urratuak dira. Ez dugu euskeraz artatuak izateko aukerarik, ez lehiatiletan, ez trenetan. Hori gutxi balitz, makinetako eduki asko espainieraz dago, edota gaizki itzulia, euskara hautatu arren hizkuntza gisa.

Dosierra: 806-2025

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - RENFE egoitza nagusia

Arrazoa: Txartelak erosteko Renferen makinetako euskarazko bertsioa ezin traketsagoa da, ulertezina. Ahalik eta azkarren zuzentzea eskatzen diet.

Erantzuna:

Renfe: Esaten diguzun akatsa sentitzen dugu, eta hobetzeko alderdiak adierazten diguzun idazkera eskertzen dugu. Zure iruzkinak oso garrantzitsuak dira guretzako, horren ondorioz, zure adierazpena baloratzeko, sail arduradunari bidali diogu.

Eskerrik asko gure esperientzian konfiantza jartzeagatik.

Dosierra: 888-2025

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - DGT - BIZKAIKO HERRIALDE ZUZENDARITZA

Arrazoa: Atzo eguerdian gidabaimena berritzen Bilboko DGTko bulegora joan nintzen. Berritzeko tokatu zitzaidan neskak euskaraz atenditu ninduen, baina konturatu nintzen bertan dauden panel biak (zita zenbakiarena eta DGTaren informazioarena) gaztelania hutsean daudela. Euskaraz ere idatzita egotea eskatzen dut.

Erantzuna:

Trafikoko Bizkaiko Burua: Informazio-panel elektronikoen funtzionamendua berrikusi da eta egiaztatu da programatutako mezuak ez direla euskaraz agertzen. Gailu horien berrikusketari ekin zaio, akats informatiko hori konpontzeko. Eskerrak eman nahi dizkizut gorabehera horren berri emateagatik eta Buruzagitza honek zerbitzua hobeto eman dezan laguntzeko emandako denboragatik.

Dosierra: 959-2025

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - AENA - BILBO-LOIUKO AIREPORTUA

Arrazoa: Bizkaiko aireportuan megafonian erdara hutsean dihardute. Gaur bertan izan naizen bitartean gaztelania hutsa ---segurtasun kontrolekoekin hartu-emanetan ipini dadin pertsona bat, adibidez; eta litekeena da izenagatik hispanoa ez izatea pertsona hori---; edo gaztelania eta ingelesa, azkeneko deia bat egiteko, hegazkineratze batean; edo gaztelania, ingelesa eta frantsesa ---identifikazioa eta hegazkineratze-txartelak aldean eskura izateko eskea---. Gainera, berretsi egiten dut lehenago ere salatutakoa: ez aparkatzeko bide-seinalea, "Llegadas", "Salidas" eta beste seinalizazio horizontala erdara hutsean (hiru argazki erantsi ditut). Ezin arrotzago sentitzen gara euskaldun bidaiariak bertan, establezimenduetako tratuagatik, hizkuntza-paisaiagatik. Ez gara ongi etorriak geure hizkuntzan. Uko egin behar diogu arazorik ez izateko.

Erantzuna:

Erreklamazio-bulegoa: Megafoniako ahotsei dagokienez, jakinarazten dizugu aipatutako adierazpen horiek hegazkin-konpainiek hegazkineratze atean egindako iragarkiei dagozkiela. Zure idatzia konpainia horiei helaraziko diegu,

aintzat har dezaten. Aireportuko sarrerako seinale horizontalei dagokienez, aireportua egoera hori zuzentzeko proiektua lantzen ari dela jakinarazten dizuegu.

Gizarte gaiak/politikak (2)

Dosierra: 69-2025

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - DEFENSOR DEL PUEBLO

Arrazoia: Espainiako Estatuko herritarren defendatzailearen webgunean euskara hautatzeko aukera dagoen arren, ez daude eduki guztiak behar bezala euskaratuak eta ez da informazio berdina agertzen euskaraz. Gainera, euskara hautatzerakoan kexa jartzeko edo kontsultatzeko gunea desagertu egiten da eta gaztelaniazko formularioa soilik agertzen da (irudiak txertatzen ditut).

Dosierra: 682-2025

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - MINISTERIO PARA LA TRANSICION ECOLOGICA Y EL RETO DEMOGRAFICO

Arrazoia: Eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria lortzeko erabili behar den CE3X programa informatikoa, ez dago erabilgarri euskaraz.

Erantzuna:

Energiaren Eraginkortasun eta Sarbiderako Zuzendariordetza Nagusia: Jakinarazten dizugu aitortutako CE3x dokumentua gaztelaniazko bertsio ofizialean garatu zela, tresna bateratu hori lurralde nazional osoan erabiltzeko sortu zelako, eta gaztelania Estatuko hizkuntza komuna eta ofiziala delako, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 15.1 artikularen arabera. Hala ere, aipatutako legearen 15.2 artikulua ezartzen duenez, hizkuntza koofiziala duten autonomia-erkidegoetan, hala nola Euskal Autonomia Erkidegoan, Administrazioak hizkuntza ofizialen erabilerari buruzko legeria autonomikoa bete behar du. Horrek esan nahi du administrazio autonomikoak herritarrak euskaraz artatzeko betebeharra duela, eta izapideak euskaraz egitea erraztu behar duela, interesdunak hala eskatzen badu. CE3x tresna eraikinen eraginkortasun energetikoa ziurtatzeko prozeduran erabiltzen denez, eta horren emaitza eraikina kokatuta dagoen autonomia-erkidegoko organo eskudunean erregistratzen denez, 390/2021 Errege Dekretuaren 6.6 artikularen arabera, organo horri dagokio hizkuntza-eskubidea bermatzea bere lurraldean. Horren barruan sartzen da prozedura euskaraz egin ahal izateko behar diren dokumentuen itzulpena, herritarrak hala nahi badu. Beraz, gomendatzen dizugu Euskal Autonomia

Erkidegoko organo eskudunarengana jotzea administrazio-prozedura honetan euskara erabiltzeko eskubidea egikaritzeko, 39/2015 Legearen 15. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Justizia (7)

Dosierra: 35-2025

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - JUSTIZIA MINISTERIOA - ZIGOR ARLOKO EPAITEGIA - NAFARROA

Arrazoia: Etxarri Aranazko bake epaitegitik deitu zidaten zitazio bat jasotzeko, Iruñeko 5. zenbakiko Zigor Epaitegitik zitazio hori gaztelania hutsean jaso dut euskara ofiziala den eremuko herritarra izan arren.

Dosierra: 62-2025

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - BASAURIKO BAKE EPAITEGIA -

Arrazoia: Basauriko Bake Epaitegiko sarreran jarritako bi afixa erdara hutsean daude: arretari nori emango zaion azaltzen duena eta ziurtagiriak eskuratzearena.

Erantzuna:

Idazkaritza: Eskatutakoa bete da eta horren adierazle ondoko irudietan jasota dago

Dosierra: 68-2025

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO NOTARIOEN ELKARGOA - Bilboko ordezkartza

Arrazoia: Abenduaren 17an Zarauzko “Félix María González de Echávarri” notarioaren bulegoarekin jarri nintzen harremanetan dokumentazio bat formalizatzeko asmoz. Gestioa bera eta dokumentazioa euskaraz egin nahi nituela aipatu nion eta beraiek ez dutela euskaraz lan egiten erantzun zidan. Notaritzan bertoko hizkuntza eta ofiziala dena erabiltzeko aukera genuela uste nuen, are gehiago zerbitzu publiko bat izanik.

Erantzunak:

Kontsumitzaileari Arreta Emateko Notario-Zerbitzua: Adierazi nahi dizugu bi hizkuntza koofizialetan, hots, euskaraz eta gaztelaniaz idatzitako agiriekin eraginkortasun eta balio berberak dituztela, notario- edo erregistro-ondorioetarako, besteak beste. Euskaraz idatzitako agiriekin, beraz, ez dute inolako «trabarik edo atzerapenik» izan behar euskaraz idatzita egoteagatik soilik, eta, ondorioz, eskriturak egiteko aukeratzen den hizkuntza koofizialaren arabera ez da bereizkeriazko tratamendurik gertatu behar. Hori dela eta, Notarioak euskaraz

badaki, eskritura euskaraz egingo da zuzenean, eta horri ez zaio itzulpenik erantsi beharko. Notarioak, aldiz, euskaraz ez badaki, euskaraz idatzitako agiria Notario Elkargoak ezarritako zerbitzuek itzuli egingo dute. Eta itzulpen horrek ez du ez zeharkako ez zuzeneko kosturik izango eskatzailearentzat. Aurrekoarekin bat etorritik, adierazi nahi dizugu Elkargoak Euskal Herriko lurralde-esparruan kokatutako Notariotza guztiei jarraibideak eman ohi dizkiela erabiltzaileen hizkuntz eskubideak bermatzeko, eta elebidun langile kopuru nahikoa izan dezatela gomendatu ohi diela, erabiltzaileei bulegoen ohiko ordutegian arreta emateko moduan, logikoa denez, Notariotzen eskualdeetako gizarte- eta hizkuntza-egoeraren arabera. Itzulpen-zerbitzuei dagokienez, Elkargoak badu zerbitzu zentralizatua, euskaraz nahiz gaztelaniaz aurkeztu diren agiri guztiak bi hizkuntza koofizialekin itzul ditzan. Zerbitzu horren eskutik, hortaz, alde batetik, eskriturak eta gainerako agiriak berme juridiko osoz zuzen itzultzen dira eta, bestetik, Notarioek euskara juridikoa bateratzeko beharrezko zereginean buru-belarri parte hartzen dute. Erabiltzaileak erabat doan erabil dezake zerbitzu hori eta, eskariaren eta agiri-motaren (luzapena, izaera...) arabera, eskatutako itzulpenaren batez besteko denbora hiru egun baliodunekoa izango da, agiriaren tamainaren arabera. Kontuan hartu beharko da banketxeek eta higiezin enpresa sustatzaileek egindako agiriak badira edo Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuari buruzko apirilaren 27ko 4/2023 Legearen 80.2. artikulua aplikatzearen ondorioz ele bitan itzuli behar diren agiriak badira, erakunde horiei egokituko zaiela itzultzea, kontsumitzaileak edo erabiltzaileak bi hizkuntza ofizialeko bat erabiltzea berariaz aukeratzen ez badu behintzat.

Herriaren Defendatzailearen lehen albokoa: Zure kexa aztertu ondoren, jakinarazten dizugu notariotza publikoaren bulegoetako jarduketekiko desadostasuna Segurtasun Juridikoaren eta Fede Publikoaren Zuzendaritza Nagusiaren aurrean lege aurreikusitako errekursoen bitartez bideratu behar dela eta, egoki baderitzozu, eskatutako kasuetan eta baldintzekin gauza daiteke.

Dosierra: 98-2025

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - JUSTIZIA MINISTERIOA - BILBOKO DEKANOTZA (Bilbo)

Arrazoia: Barroeta Aldamar kaleko Justizia Jauregiko 7. solairuan dagoen Epaitegi Dekanoko erregistroko kartel gehienak gaztelania hutsean daude. Berdina gertatzen da eraikineko beste epaitegietako eta zerbitzuetako zenbait karteekin.

Erantzuna:

Gobernu Idazkaria: Jakinarazi behar da euskarazko kartelak falta izatea nahigabeko akatsa izan dela, asmo txarrik gabea. Izan ere, kartelak aldatzean eta berritzean zaharkituta zeudenak nahigabeko despiste baten ondorioz hondatuta geratu zirenak berriro gabe geratuko ei ziren, baina gaur egun akats hori konponduta dago, eta zerbitzuko kartel guztiak bi hizkuntzetan daude, herritarrek duten eskubidea bermatuz.

Dosierra: 351-2025

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - BILBOKO LEHEN INSTANTZIAKO 7. EPAITEGIA

Arrazoia: Bilboko VII epaitegira deitu dut. Gaztelaniaz egin behar izan dut telefonoa hartu duenak euskaraz ez dakielako. Ez dit euskaldun batekin jarduteko aukerarik eman.

Dosierra: 717-2025

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - DONOSTIAKO ZIGOR-ARLOKO 1. ZIKLO EPAITEGIA

Arrazoia: Donostiako Zigor Arloko 1 zenbakiko epaitegitik zitazio bat jaso nuen, lekuko moduan epaiketara batera joateko. Eskutitza gaztelara hutsean jaso nuen.

Dosierra: 902-2025

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO NOTARIOEN ELKARGOA - Donostiako ordezkaria

Arrazoia: Euskal Herriko Notarioen elkarteak Donostian duen egoitzan arreta euskaraz eskaini arren, karteldegia guztia gaztelara hutsez dute, salbuespenik gabe. Email bidalketa guztia ere gaztelara hutsez da.

Lehendakaritza (1)

Dosierra: 170-2025

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - MINISTERIO DE LA PRESIDENCIA, JUSTICIA Y RELACIONES CON LAS CORTES

Arrazoia: Sexu-izaerako deliturik ez izatearen ziurtagiria eskatu behar izan dut lan-poltsa batean parte hartu ahal izateko. Ziurtagiri hori Espainiako Gobernuak egin behar du baina ez du ziurtagiria euskaraz jasotzeko aukerarik eskaintzen.

Posta (6)

Dosierra: 130-2025

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - CORREOS - Gerencia de Productos y Servicios (Area Norte - José Pablo García Junco)

Arrazoia: Posta elektronikoko bat jaso dut Correos zerbitzutik eta gaztelania hutsean dago. Baina ez dakit aukerarik eskaintzen ote duten euskarazko komunikazioak lehenesteko.

Dosierra: 526-2025

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - CORREOS EXPRESS PAQUETERIA URGENTE, S.A

Arrazoia: Correos Expressek bidaltzen dituen mezuak gaztelaniaz baino ez daude. Asko gara euskaraz bizi nahi dugunok eta asko eskertuko genuke zuen enpresaren zerbitzuak euskaraz ere erabili ahal izatea, adibidez, zuen mezuak euskaraz irakurri ahal izatea. Gainera, Correos sozietate publikoaren mendekoa izanik, hizkuntz arloko betebeharrak dituzue, hala nola, euskaldunoi euskarazko informazioa eskaintzea eta euskarazko arreta bermatzea.

Dosierra: 575-2025

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - CORREOS - Gerencia de Productos y Servicios (Area Norte - José Pablo García Junco)

Arrazoia: Ondarroako Correosen lokalaren barruan dagoen CityPaq kutxatiletan, testu guztiak gaztelania hutsean daude.

Dosierra: 778-2025

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - CORREOS - Gerencia de Productos y Servicios (Area Norte - José Pablo García Junco)

Arrazoia: Aurreko asteazkenean urriaren 15an Mazarredo kalean dagoen Correos bulegora hurbildu nintzen. Bulego horretan ez zegoen inor arreta emateko euskaraz. Bulegoan agertzen diren iragarriak ez daude euskaraz, gehienak bakarrik gaztelaniaz. Ez da legea betetzen. Formulario eskatu nuen kexa bat jartzeko eta ezta formulario hori ere zegoen euskaraz. Hau ezin da onartu zerbitzu publiko batean, euskaldunok zergak ordaintzen ditugu zerbitzu gure hizkuntzan ere

jasotzeko. Gainera, gaur langile batek nire emazteari deitu dio euskaraz egiten diodalako kexatzeko.

Dosierra: 853-2025

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - CORREOS EXPRESS PAQUETERIA URGENTE, S.A

Arrazoia: Gaur Correos Expresseko banatzaile batek pakete bat ekarri digu etxeraino (Donostia). Nahiz eta zerbitzua beti oso ona izan, gaur gertaera oso deserosoa sortu du banatzaileak. Honako hau esan digu paketea eman eta gero: "Para la siguiente ocasión, escribe la dirección en castellano porque yo no entiendo euskera y, de los repartidores, casi nadie lo entiende. He pensado que "eskuina" era izquierda y, por eso, primero le he llamado a tu vecino". Mutu utzi gaitu. Uste dugu ez dela onargarria Gipuzkoako hizkuntza ofizialetako batean (kasu honetan, euskaraz) ez idazteko eskatzea nork eta erakunde publiko bateko langileak. Nahiz eta guk helbidea osorik euskaraz jarri, gaur egun edonork kontsultatu dezake itzulpena momentuan, online, itzultzaile neuronalean. Ez dugu eskatzen banatzaileak elebidunak izatea, baizik eta gutxienez guk aukera edukitzea helbidea gure hizkuntza ofizialetako batean idazteko, hau da, euskaraz. Eskerrik asko eta ondo izan.

Dosierra: 918-2025

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - CORREOS - Gerencia de Productos y Servicios (Area Norte - José Pablo García Junco)

Arrazoia: Posta-bulegotik bi sms jaso nituen, gaztelania hutsean: "Tu envío de XXX no ha podido entregarse. +info: XXX. Protección de datos: correos.es/pd/es". "Tu envío XXX de XXX está a tu disposición en la oficina de KAL TORRENE 6 ALGORTA hasta el 07/10/2025. Protección de datos: correos.es/pd/es". Kontua da baditudala haiek bidalitako mezu zaharrago batzuk, aurtengo urtarrilaren 31koak eta otsailaren 3koak, eta zahar horiek euskaraz ere bidali zizkidaten.

Segurtasuna (3)

Dosierra: 87-2025

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - DNI TRAMITATZEKO BULEGOA Iruñea

Arrazoia: Lagun bat eta biok Gasteizera joan ginen bere NANA elebiz berritu ahal izateko. Izan ere Nafarroan ez dugu aukera hori eta ez dugu funtsezkoa den agiri ofizial hori gaztelania hutsez izan nahi.

Dosierra: 190-2025

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - DNI TRAMITATZEKO BULEGOA - Eibar

Arrazoia: Nire alabaren pasaportea ateratzera joan naiz Eibarko bulegora. Umearen jaiotze-agiri literala euskaraz eraman dut eta ez didate onartu, gaztelaniaz edo elebitan behar duela Madrilera bidali behar dutelako. Agiria euskaraz onartzea nahi baldin badut Donostiara joan behar dudala, hain itzulpen zerbitzua daukatelako.

Erantzuna:

Arloko burua: Jakinarazten dizugu Eibarko Dokumentazio Unitateko funtzionarioak legezko manua bete zuela euskaraz aurkeztutako dokumentazioa onartuz, nahiz eta horren berri ez jakiteak itzulpena eskatzera eraman zuen, pasaportea lehenengoz ateratzea bezain garrantzitsua den prozedura batean akatsak ez egiteko. Hala ere, herritarrenganako zerbitzua hobetzeko, Zuzendaritza Atal honek egoera horietan jaulkipen-prozesua atzeratuko ez duen mekanismo eraginkor bat ezartzeko jarraibideak emango ditu

Dosierra: 297-2025

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - DNI TRAMITATZEKO BULEGOA Iruñea **Arrazoia:** Gaur Espainiako nortasun agiria berritu behar izan dut, eta ezin izan dut egin ez euskaraz, ezta ele bitan ere. Esan didate Euskal Autonomia Erkidegoan bakarrik egin daitekeela hori. "Nafarroa" ere ezin izan dut jarri. Soilik "Iruña" jarri ahal izan dut. Gobernuen kolorea gorabehara, arlo honetan, dena beti bezala.

FRANTZIAKO ESTATUA

Guztiak (2)

Dosierra: 22-2025

Nori: FRANTZIAKO ESTATUA - MINISTÈRE DU TRAVAIL, DE LA SANTÉ ET DES SOLIDARITÉS

Arrazoa: Pazienteen osasun arloko informazioa trukatzeko baliatzen den eta Gizarte Segurantzari lotua den www.monespacesante.fr webgunea osoki frantsesez da. Horrez gain, handik igorri mezuak ere osoki frantsesez idatziak dira. Horrek euskaldunon eta gaskoinen hizkuntza eskubideak urratzen ditu.

Dosierra: 582-2025

Nori: FRANTZIAKO ESTATUA - EUSKARAREN ERAKUNDE PUBLIKOA - EEP

Arrazoa: Euskaraldian parte hartu dudala-eta galdetegi bat bidali dit (Madrilgo!) enpresa batek. Enpresa zein ote den begiratzera sartu eta gaztelania hutsean dauka webgunea (SIGMADOS.COM). Euskararekiko batere ajolarik ez duen enpresa bat kontratatu dute Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak eta Euskararen Erakunde Publikoak, zer eta euskaldunon hizkuntza ohituren gaineko ariketa bat ikertzeko? Ez nago halakoekin batere ados eta salatzeko modukoak iruditzen zaizkit. Gainera, ahalik eta parte-hartzaile gehien erantzunak jasotzea bada helburua, kontrako emaitza lortzea sustatzen dela iruditzen zait. Nik ez dut galdetegia erantzungo, adibidez. Bidenabar, esan dezadan, gisa horretako galdetegia edozein euskal erakundek bideratzea zeukakeela. Horra jasotako mezua (euskarazko bertsioa): Adiskide hori: 2025 eko EUSKARALDIA bukatuta, ikerketa bat abian jartzera goaz, norbanakoen parte-hartzea ezagutu eta euskararen erabileran zer emaitza lortzen den neurtzeko. Aurtengo edizioan parte hartu duzuen ahobizi eta belarriprest guztietatik, aukeratutako partaideetako bat zara zu, eta ikerketa honetan parte hartzea eskatzen dizugu. Galdetegi labur honi erantzutea da eskatzen zaizuna. Oso garrantzitsua da zuk galdetegiari erantzutea, ikerketaren kalitatea bermatzeko. SIGMADOS enpresak egingo du azterlan hau eta, TAUPArekin elkarlanean, ondorengo erakunde publikoek sustatu dute: Eusko

Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua eta Euskararen Erakunde Publikoa. Galdetegiarekin zalantzarik baduzu, SIGMADO Sera jo dezakezu: 900670910 telefono zenbakia edo euskaraldia@sigmados.com helbide elektronikoa. Eusko Jaurlaritzaren 945019297 telefonoan eta j-aizpurua@euskadi.eus helbide elektronikoa ere behar duzun informazio osagarria emango dizute. Eskerrik asko, EUSKARALDIari buruzko ikerketa honetan parte hartzeagatik.

EUSKO JAURLARITZA

Administrazio orokorra (21)

Dosierra: 76-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITALA ETA AUTOGOBERNUA- Gobernu Irekia eta Gobernu Onaren Zuzendaria-

Arrazoiak: Eusko Jaurlaritzaren Irekia webgunearen euskarazko bertsioan albisteak gaztelaniaz argitaratu dute.

Dosierra: 154-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - GOBERNANTZA PUBLIKOA ETA AUTOGOBERNUA - Herriarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletako zuzendaria

Arrazoiak: Nik Patrika Digitala appa zabaltzean astakeria hau azaltzen da. Ohi bezala, ezer berririk ez eguzkipean. Euskaldun herritarrok izorra gaitzen, nahinon eta noiznahi eta betiko. Eta, gainera, entzun eta irakurri dezagun pribilegiadunak gabela eta supremazistak, etengabe eta modu sistematikoan baztertzen gaituztenen aldetik.

Erantzuna:

Herriarrak Artatzeko eta Administrazioa Berritzeko zuzendaria: Jakin arazi nahi dizugu berehala jarri dugula martxan akats horren zuzenketa. Bertsio berri bat egiten ari gara (1.9.7), eta datozen bi asteetan kaleratuko dugu aplikazio-dendetan.

Dosierra: 269-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - ONGIZATEA, GAZTERIA ETA ERRONKA DEMOGRAFIKOA

Arrazoiak: Eusko Jaurlaritzaren Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailaren inkesta bat egiteko gutuna bidali didate etxera. Inkesta egiteko ardura Demometrika enpresari eman diote eta galdetegia telefonoz egiteko jarritako telefonora deitzean ez naute euskaraz artatu. Telefonoz 1 tekla sakatuz euskaraz artatua izateko aukera eskaintzen dute berez, baina euskaraz zekien inor ez zegoenez momentuan gaztelaraz egin behar izan dut.

Erantzuna:

Zerbitzu Zuzendaria: Sailean egiten diren inkesta guztiak Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntzetan garatuta daude, et landa lanak egiteko kontratuetan zerbitzua bi hizkuntzetan eman behar dela eskatzen dugu. Demometrika enpresarekin kontaktuan jarri gara eta honakoa erantzun digute: "sentitzen dugu gertatutakoa, eta barkamena eskatzen dugu egoera honek eragin ahal izan dituen eragozpenengatik. Telefono sistemak, operadore batek dei bati erantzun ezin diola detektatzean, erabilgarri dagoen hurrengo operadore automatikoki bideratzeko protokolo bat aktibatzen du. Mekanismo horrek, lehenik eta behin, euskarazko arreta-postu guztiak zeharkatzen ditu; hala ere, lehen, lanpostu guztiak beteta egonez gero, deia gaztelaniazko operadore hitzun bati bideratzeko aukera zegoen. Funtzionamendu hori zuzendu egin da. Gaur egun, euskaraz komunikatzea aukeratzen dutenei langile euskaldunek bakarrik emanto diete arreta."

Dosierra: 302-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - IZENPE S.A.

Arrazoiak: Izenpe ziurtagiri digitala, Bakq txartela, laster iraungituko zaidala dioen mezua jaso dut. Berriztea ezinezkoa izan da euskara hutsean. Euskara aukeratu arren etengabe gaztelaniaz azaltzen da.

Erantzuna:

Pertsonal eta Administrazio Arduraduna: Gure teknikoak portaera hau aztertzen ari dira berriro gerta ez dadin.(Kookien errua delakoan daude) Bukatzeko, eskertu nahi dizuegu bidali diguzun intzidentziaren berri emateagatik, gure zerbitzua hobetzen laguntzen diguzue eta.

Dosierra: 348-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - TURISMOA, MERKATARITZA ETA KONTSUMOA (Merkataritza zuzendaritza)

Arrazoiak: Maiatzaren 10ean, sari batzuk banatu zenituen Donostiako San Telmo museoan, eta ez zenuen euskara erabili, nahiz eta EAEko erakunde publiko gorenaren departamentu bat ordezkatzuz banatu zenituen sari horiek. Ez zenuen esan "Arratsalde on"+ esalditxo pare bat; ez zenuen esan "Eusko Jaurlaritzan", ez zenuen behin bakarrik ere esan "Donostia"... Ez zuk eta ezta zure ingurukoek ere. Ez zinen arduratu euskarak ere presentzia izan zezan. Azkeneko segundoan, "zorionak+eskerrik asko" korrika batean bota zenituen, zerbait konponduko balu

bezala. Diru publikoz ordaindutako kargu bat duzu, bertako hizkuntza bat daukan eta gainera ofiziala den lurralde batean. Pertsonalki, euskara maitatzea edo estimatzea nahiko nuke, baina, hizkuntza hau gutako edozein baino askoz ere lehenago dagoenez lurralde honetan, dagokion tokia ematea besterik ez dugu espero. Halaber, zerga-ordaintzaile bezala eskatzen dizudana da, zaren instituzioaren ordezkari zaren heinean, guk ordaindutako kargu publikoa baliatzen duzun bitartean, hizkuntza-legedia betetzea edota zure erakundearen eta zoazen tokiaren hizkuntza-irizpideak betetzea. Ezagutzen ez badituzu, galdetu. Lan egiten duzun erakunde publikoaren hizkuntza politikako sailburuordetzako edozein langilek azalduko dizkizu.

Dosierra: 380-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - ONGIZATEA, GAZTERIA ETA ERRONKA DEMOGRAFIKOAK

Arrazoa: Jaurlaritzak kartelak atera ditu, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailaren gida baten berri zabaltzeko. Gaztelaniazko testua behar bezalakoa da; euskarazkoa, oster, itzulpen txar-txarra ("Euskadi anitz bat"). Euskaldun herritarrok ez dugu eskubiderik administrazio publikoen euskarazko testuak ganoraz idatzita egon daitezen?

Dosierra: 381-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - ETXEBIZITZA ETA HIRI AGENDA -

Arrazoa: Eusko Jaurlaritzaren Bizilagun zerbitzuarekin jarri nintzen harremanetan alokairuaren inguruko zalantza bat argitzeko. Telefono bidezko hitzordua eman zidaten, eta horren berri emateko mezua jaso nuen telefono mugikorrean. Mezua erdera hutsean iritsi zitzaidan. Euskararen arrastorik ez. Jaso nuen mezua pantaila-irudia atxikita bidaltzen dizuet. Bestalde, telefonoz eskaini zidaten arreta paregabea izan zen, artatu ninduen langileak euskara maila paregabea baitzuen, bere lanpostuaren testuinguruari zegokiona: euskara jaso, euskarazko hizkuntza tekniko eta erdal makulurik ez.

Erantzuna:

Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritza: Benetan sentitzen dugu idatzizko komunikazioak euskarazko bertsioa ere ez jasotzea, gure jarduera arautzen duten arreta elebiduneko irizpideei dagokien bezala. Gertakaria kontuan

hartzen dugu, eta konpromisoa hartzen dugu gure komunikazioek hizkuntzako ofizialtasunaren eta zerbitzuaren kalitatearen printzipioak bete ditzaten beharrezkoak diren prozedurak berrikusteko eta zuzentzeko. Hala ere, pozik gaude jasotako telefono bidezko arreta ona izan delako eta langileek euskaraz arreta egokia, profesionala eta kalitatezkoa eskaini dutelako, zerbitzuaren edozein erabiltzailek merezi duen bezala. Berriz ere barkamena eskatzen dizugu gertatutakoagatik, eta eskertzen dizugu zure esperientzia partekatu izana, hobetzen jarraitzeko aukera ematen baitigu.

Dosierra: 394-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - ONGIZATEA, GAZTERIA ETA ERRONKA DEMOGRAFIKOAK

Arrazoa: Erakundea: Eusko Jaurlaritzako Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren saila
Pertsona: Maria Antonia Olabarrieta ibarrondo
Kargua: Bizitza Beterako Laguntzen zuzendaria
Jakinarazpenak espainieraz, 2025eko Euskaraldiaren amaieran, Eusko Jaurlaritzako bi alderdiek Euskaraldiaren aldeko jarrerak eta argazkiak argitaratu dituztenean eta European euskara ofiziala izateko eskaera bideratu duten egunetan. Hau mesprezu baztertzailerik handiena da euskaldunontzat. Portaera hau dutenek ez dute 1982ko Euskararen Legerik betetzen, trufa egiten digute aurrez aurre eta geure lurrian, hizkuntza ofiziala omen dugun lekuan bertan, iritsi berri diren etorkin asko baino baztertuago jartzen gaituzte bertako euskaldunok. Atxikita doaz gutunak.

Erantzuna:

Ongiz., Gazte., eta Erronk. Demogr.: Lehen, gure ebazpenak bi hizkuntz ofizialetan bidaltzen genituen, baina orain aplikazio berri bat daukagu eta honetan aukeratzen dugu hizkuntza, herritarrek eskaeran aukeratu duen arabera. Herritar honek zerbitzua euskaraz jasotzea aukeratu zuen, eta horrela jaso dugu, baina badaukagu beste atal bat aukeratzeko jakinarazpenen hizkuntza, eta hor okertu ginen eta gazteleraz utzi genuen. Horregatik ebazpena gazteleraz heldu zaio. Barkamena eskatzen diogu eta bermatuko diogu zerbitzua euskaraz emango diogula, eta horrela ez balitz, berriro idatzi horren berri emateko.

Dosierra: 495-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - ELIKADURA, LANDA GARAPEN, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA - Arrantzako eta Itsasertzaren Garapeneko Sailburuordetza

Arrazoa: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Departamentura deia egin dut kostaren inguruko baimen baten inguruan galdera egiteko. Telefonoz gaztelaniaz erantzun didate, eta euskaraz dakien norbaitekin jartzeko eskatu diodanean, une horretan euskaraz dakien inor ez dagoela erantzun didate. Segidan, departamentuko arduraduna jarri da telefonoan, eta azaldu dit kostako eskumena eskuratu duela Jaurlaritzak, baina haiek langile subrogatuak direla eta 45 urtetik gora dituztenez, ez dutela euskaraz ikasteko edo jakiteko betebeharririk.

Erantzuna:

Itsasertzaren Garapenaren, Portuen eta Itsas Gaietako Zuzendaria: Lehenik eta behin, barkamena eskatu nahi dugu gure Zuzendaritzaren izenean, jasotako arreta ez delako izan herritar guztiek, eta bereziki euskaraz artatu nahi dutenek, merezi dutenaren parekoa. Egia da aipatutako egunean deia jaso zuen langilea Estatutik subrogatutako langilea zela eta, tamalez, ez dakiela euskaraz. Hala ere, argitu nahi dugu gure Zuzendaritzan euskaraz dakiten beste teknikari eta administrari batzuk ere baditugula, eta, beraz, ahalmena dugula herritarrek euskaraz artatzeko. Horrenbestez, egoera horren aurrean gure barne-prozedurak berrikusi ditugu eta dagoeneko argibide zehatzak eman dizkiegu subrogatutako langileei: hemendik aurrera, herritar batek arreta euskaraz eskatzen badu eta beraiek ez badakite euskaraz, deia euskarazko arreta eman dezakeen teknikari batera bideratuko dutela bermatuko da.

Dosierra: 520-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - EJI - Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartea -

Arrazoa: Osakidetzako langilea naiz eta Osakidetzan bertan izandako intzidentzia baten harira idazten dut. Osakidetzan CAU zerbitzua arduratzen da arazo informatikoen kudeaketaz. Gaur, CAU zerbitzura bitan deitu dut arazo informatiko baten berri emateko. Erantzungailuak galdetu egiten du zein hizkuntzatan nahi dugun zerbitzua jaso. Euskara aukeratu dut egin ditudan bi deietan. Ondoren, pertsona batek erantzun dio nire deiari, eta agurra gaztelaniaz izan da bi kasuetan (bi pertsona desberdin izan dira). Arazoa azalduta, biek euskaraz erantzun didate, baina hasieran zalantza izan dut langile horiek euskaraz bazekiten. Ez da lehenengo

aldia hauxe bera gertatzen zaidala CAUra deitu eta harremanetarako hizkuntza euskara aukeratzen dudanean.

Erantzuna:

EJI: Gorabehera hori kontuan hartuko dugu. Arazoa euskaraz konpondu bazen ere, ulertzen dugu lehen harremanaren garrantzia. Horregatik, CAUko gure langileen prestakuntza indartuko dugu, hasierako agurra eta interakzio guztia erabiltzaileak aukeratutako hizkuntzan egiten direla ziurtatzeko. Eskerrik asko zure oharrengatik, gure arreta elebiduna hobetzen eta herritarren hizkuntza-eskubideak erabat bermatzen laguntzen baitigute.

Dosierra: 528-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - ELIKADURA, LANDA GARAPEN, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA

Arrazoa: 2025/07/18ko EHAA argitaratu dute honakoa: 139/2025 DEKRETUA, uztailaren 1ekoa, Euskadin erlezaintza antolatzekoa. Bertan, hizkuntzari dagokionez, kontsumitzaileentzako informazioa derrigorrez gaztelaniaz idatzi behar dela xedatzen du 11.3 artikulua, eta euskarazkoa guztiz borondatezkoa eta gaztelaniaren osagarria beti ere: 3.– Gainera, honako derrigorrezko aipamen hau gehituko da gaztelaniaz: – «La miel no es recomendable para niños/as menores de 1 año». Aukeran, aipamena euskarazko itzulpenarekin osatu ahalko da: – «Eztia ez da urtebete baino gutxiagoko haurrentzat gomendagarria». Aurrekoaz gain, etiketetako informazioa euskaraz egotea ezartzeko aukera ez du erabili Jaurlaritzak 11.2 artikuluan: 2.– Ustiatégian erauzi eta ontziratutako erle-produktuek Abeltzaintza Ustiatégien Erregistro Orokorreko (REGA) zenbakia izan beharko dute, honako derrigorrezko aipu honen bidez, etiketaren hizkuntzaren arabera: – «Producido, extraído y envasado en la explotación ES*****». – «ES***** ustiatégian ekoitzi, erauzi eta ontziratutako produktua». Gainera, erlauntzen seinalizazioan euskara bigarren maila jartzea xedatzen du Dekretuaren 8.2 artikulua: «Atención Abejas / Kontuz erleak» edo «Abejas trabajando / Erleak lanean». Hurrenkera hori Jaurlaritzaren Kontseiluak onartutako hizkuntz irizpideen aurkakoa da, gainera.

Dosierra: 559-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITALA ETA AUTOGOBERNUA- Gobernu Irekia eta Gobernu Onaren Zuzendaria-

Arrazoa: Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordeak ebazpen bat (32/2025) bidali zigun Aulestiko Udalera gaztelera hutsez. Administrazio Publikoa da eta bere betebeharra da euskaraz jardutea; are gehiago gure herria euskararen arnagunea izanda. Expediente zenbakia 2025/000086.

Dosierra: 562-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITALA ETA AUTOGOBERNUA - Baliabide Orokorren Zuzendaritza

Arrazoa: Atzo (ekainak 29), Eusko Jaurlaritzaren egoitzan egon nintzen Bilbon, Hezkuntza Departamenduan nire finkapen kontratua sinatzeko. Goizeko 8:00tan neukan hitzordua. Sarreran, identifikatu behar zaituen pertsonak nahiz eta nik euskaraz egin, berak dena erdaraz egin zidan. Berdin bertan zegoen segurtasuneko pertsonak. Horren iraingarriak egiten jataz gertakizun hauek!

Erantzuna:

Baliabide Orokorren Zuzendaria: Baieztatu da herritarrek hasiera batean euskaraz zuzendu zela segurtasuneko langileari, eta une horretan, lanpostuari esleitutako pertsona, euskaraz arreta emateko gaitasun egiaztatua duena, ez zegoela bertan. Nabarmendu nahi dugu erabat kontziente garela segurtasun langileak bi hizkuntza ofizialetan moldatzearen garrantziaz. Horregatik, langileek euskararen erabileran duten prestakuntza indartzeko beharrezko neurriak hartzen ari dira gaur egun.

Dosierra: 638-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - ONDARROAKO PORTU AGINTARITZA -

Arrazoa: Ondarroako porturako sarreran, honekin batera doan idazkian azaltzen den egunean, kontrolean dagoen langilearen aldetik, irekitzeko eskaerari "espainolez" berba egiteko erantzun desegokia jaso genuen senarrak eta biok. Kontrol horretan aritzen diren langile guztiek gutxienez euskaraz ulertzea eta euskaldunoi hizkuntza ez aldaraztea eskatzea legezkoa denez gero, are gehiago Eusko Jaurlaritzaren eskumeneko instalazioa izanik, kexa idatziz aurkeztu genuen. Esan behar da ez dutela kexak idazteko inprimaki ofizialik eta idazkia abuztuaren 12an aurkeztu genuen arren, 28ra arte ez diotela sarrerarik eman.

Erantzuna:

Itsasertzaren Garapenaren, Portuen eta Itsas Gaien zuzendaria: Kexa jaso bezain pronto, Zuzendaritza honek Ondarroako portuan kontratatuta daukan segurtasun-enpresari helarazi dio gertatuko gertaera. Argi utziz, enpresaren langileren batek euskaraz ez badaki, protokolo bat bideratu beharko duela eta, inondik inora, ezingo direla euskal hiritarren eskubideak urratuko.

Dosierra: 663-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - EJIE - Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarteak -

Arrazoa: Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarteak "analisi teknikari" lanpostuan kontratu mugagabe bat betetzeko deialdia argitaratu du, euskaraz jakitea baldintza baloragarria da baina ez nahitaezkoa. Erakunde eta elkarte publikoek egindako kontratazioetan euskararen ezagutza nahitaezkoa beharko luke, are gehiago sektore publikoaren digitalizazioan lan egingo badu.
https://www.ivap.euskadi.eus/webivap00-a3lanesk/eu/contenidos/empleo_publico/tec_analisis_012025/eu_def/index.shtml

Erantzuna:

Ejiei: 01-2025 hautaketa prozesuaren xede den analisi-teknikariaren lanpostuak ikuspegi teknikoa eta barne-izaera ditu nagusiki, eta bere eginkizunen artean ez dago herritarrei arreta ematea.

Dosierra: 706-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - GIPUZKOAKO LURRALDE ORDEZKARITZA

Arrazoa: Gaur goizean 10:40 aldera Donostiako Andia kaleko Eusko Jaurlaritzaren Zuzenean zerbitzura bertaratu naiz. Sarreran harrera egiten dagoen pertsona egun on esan ostean gaztelaniaz hitz egiten hasi zait, euskaraz egin diot baina ez ninduen ulertzen eta berak gaztelaniaz jarraitzen zuen. Horrelako lanpostu baten euskara ulertu eta behar bezala euskarazko arreta eskaintzeko gaitasuna izan beharko luke. Eusko Jaurlaritzari neurriak har ditzan eskatu nahiko nioke.

Dosierra: 767-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - EJIE - Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarteak -

Arrazoa: Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarteak beste deialdi bat ere egin du hilabete honetan, oraingoan Sistemen Kontsultore lanposturako. Aurrekoan salatu

nuen Sistemetako Teknikarirako lanpostuaren kasuan bezala, hemen ere ez da lanpostuaren hizkuntza eskakizuna ezartzen eta euskara baloragarria dela bakarrik aipatzen da ingelesarekin batera. Kasu honetan laguntza tekniko eskaintzea ere badago bere zereginen artean eta, beraz, beste langile edo erabiltzaile batzuekin harremana izan dezake. Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera erregulatzen duen dekretua ez dira behar bezala betetzen ari.

Erantzuna:

Ejje: 03-2025 hautaketa-prozesuaren xede den sistema-aholkulariaren lanpostuak ikuspegi tekniko eta barne-izaera du nagusiki, eta bere eginkizunen artean ez dago herritarrei arreta ematea.

Dosierra: 786-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - EKOETXEA - Euskadiko Ingurugiro Zentroen Sarea - (TXINGUDI)

Arrazoa: Irunen kokatzen den Ekoetxean "EZAGUTU TXINGUDI: San Lorentzo urmaela, oreka berreskuratuz" aktibitatea egin da gaur goizeko 10:30 eta 12:00 ak bitartean. Hizkuntza elebiduna zen eta gida lanak egiten zituen pertsonak ere bi hizkuntzak ederki menperatzen zituen. Aktibitatean aurkezpena egitean, hizkuntza perfilak galdetu ditue ta erdi eta erdi izango ginen euskeraz genekienok eta etzekitenak. Egoera hau ikusita gida lanak egin behar dituen pertsonak erabaki du aktibitatea erderaz egingo zela eta galderak euskeraz egin nahi izanez gero berak euskaraz erantzungo zituela. Aktibitatea amaitzean berari eta Ekoetxeko inkestari jakinarazi diegu egin duten hizkuntzan kudeaketa ez datorrela bat beraiek eskainitakoarekin. Ea Behatokiaren laguntzaz hurrengotarako egoera hau bideratzea lortzen duzuen.

Dosierra: 886-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - EMAKUNDE

Arrazoa: Azaroaren 25aren kontura Emakundek sare sozialetan zabaltzen duen ordaindutako publizitatea gaztelera hutsean jarri du. Bai mugikorra bai Instagrama euskaraz konfiguratuta datur, beraz gaztelera hutsezkoa dispositibo guztietara zuzenduta bidali dute.

Erantzuna:

Aholkularitza Juridikoa: Emakundeko sare sozialetako profiletan promozionatzen diren publikazioak euskarazkoak zein gaztelaniazkoak dira. Algoritmoak, baina, batzuk eta besteak nori erakutsi erabakitzen du eta hori ez dago gure esku. Adituen arabera, mugikorra eta programa ezberdinak euskaraz konfiguratuta edukitzeak ez omen du bermatzen algoritmoak euskarazko edukiak aukeratzea beti profil horietan erakusteko. Hala ere, kontutan izango dugu aipatutakoa eta gure esku dauden funtzioetan, behintzat, euskarazko edukiak promozionatzen jarraituko dugu.

Dosierra: 894-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - GIPUZKOAKO LURRALDE ORDEZKARITZA

Arrazoa: Donostiako Zuzenean, Eusko Jaurlaritzaren zerbitzura joan naiz gaur goizean. Harreran dagoen pertsona, NA agiria eta beste eskatzen duena, ez da euskalduna eta gaztelaniaz aritu behar izan dut berarekin. Nola liteke herritarrei lehenengo arreta eskaintzen dien pertsona euskalduna ez izatea? Eskubide linguistikoekin betetzen zaigu ahoa, baina, hau da euskal hiztunok bizi dugun egoera.

Dosierra: 945-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITALA ETA AUTOGOBERNUA - Enplegu Publikoko

Arrazoa: Abenduaren 1ean Enplegu Publikoko Sailburuordeak administrazio guztiko lan poltsetan gauden pertsonen zerrendak berrantolatu eta argitaratu zituen 125/2025 ebazpenaren bidez. Horrekin batera, urriaren 15eko 107/2025 Ebazpenk azaltzen du xehetasun bat gehituz burutu direla berrantolatzeak puntuazioak, hau da, EPEko kontutan hartutako zerrendatako azken puntuazioari Euskararen ezagutza "meritoari" dagozkion puntuak kentzea. EPEko zerrendaren azken puntuazioaren baitan beste hizkuntza batzuen ezagutza meritu bezala kontutan hartu da eta dagozkioen puntuak eman, mantendu direnak, euskararenak ez bezala. Ondorioz, lan-poltsetako hautagaioi euskararen ezagutzaren ziurtagiriari zegozkion puntuak kendu zaizkigu eta gure zerrendetako hurrenkeran atzera joan gara. Euskal Autonomia Erkidegoko edozein lan-postu betetzeko, euskararen derrigortasuna ez duten lanpostuak betetzeko ere euskara merezimendu izan behar da eta, beraz, puntuazio hori zerrendetan kontuan hartzea eskatzen dut.

Erantzunak:

Enplegu Publikoko zuzendaria: Aldi baterako hautaketa-prozesu hau bereizi egiten da karrerako funtzionario izateko hautaketa prozesuetatik (11/2022 Legearen 76. artikuluan aurreikusiak), bai, halaber, lanpostuak behin betiko hornitzeko prozesuetatik (lehiaketa eta izendapen askea, 94.2. artikuluan aurreikusiak) eta zerbitzu eginkizunen bidez lanpostuak aldi baterako betetzeko prozesuetatik. Karrerako funtzionario izateko deialdietan, hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuak zenbat diren eta zer derrigortasun-data duten zehazten da, eta hornitze-prozesuetako deialdietan, berriz, zer lanpostu diren adierazten da, zer hizkuntza-eskakizun eta derrigortasun-data duten ere zehaztuta. Hartara, modua dago deialdian euskararen ezagutzaren puntuazioa merezimendu modura ezartzeko, araudiarekin bat eta deialdian jasotako lanpostuen hizkuntza-eskakizunaren arabera. Alabaina, lan-poltsen bidezko eskaintzak lanpostuak aldi batez betetzeko egiten dira, eta ase beharreko beharrianen arabera zehazten da zein diren lanpostu horiek. Gerta daiteke, bada, lanpostu horiek derrigortasun-data igarota edukitzea eta, beraz, euskara lanpostua betetzeko betekizuna izatea (alegia, lanpostuari dagokion hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta daukatenek bakarrik bete dezakete lanpostu hori), eta, ondorioz, lanpostu horietan, euskararen ezagutza ez da merezimendutzat baloratzen; beste lanpostu batzuetan, berriz, derrigortasun-data ez dago igarota, eta, beraz, edonork bete ahal izango du, lanpostuko betekizunak betetzen dituen heinean. Are, ezinezkoa da aldeztu aurretik jakitea zein diren lan-poltsetan eskainiko diren lanpostuen hizkuntza-eskakizunak; izan ere, lanpostu horiek hornitzeko beharra lanpostua betetzen duten pertsonen nondik norakoen arabera da eta kasu zehatz bakoitzaren nondik norakoen arabera (bajagatiko absentziak, zerbitzu-eginkizunak, eszedentziak...); hortaz, azaldu den moduan, ezinezkoa da aldeztu aurretik zehaztea ea euskara dena delako lanposturako betekizuna den, ala merezimendua den eta, beraz, puntuazioa ezarriko zaion. Lan-poltsak sortzeko eta langileak integratzeko prozesuetan, ezin da aurrez jakin zer hizkuntza-eskakizun izango duten eguneroko jardunaren kudeaketan eskainiko diren lanpostuek; horrela, bada, aldeztu aurretik ezin da euskararen ezagutza merezimendutzat baloratu eta lan-poltsan dauden pertsonen euskararen ezagutza kontuan hartu, lan-poltsa horretako puntuazioa eta ordena ezartzeko.

Aisialdia, Kultura, kirola (3)

Dosierra: 59-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - EITB MEDIA S.A.U - PRIMERAN -**Arrazoia:** Primeran plataforman MrBean telesaila hautatu eta audioa gaztelera jarri zaigu. Euskara lehenetsita dugun arren, gaztelera hautatu digu eta euskarara aldatu arren, audioak gaztelera jarraitzen du. Hau al da euskarazko ikus-entzunekoak bultzatzeko plataforma?

Erantzuna:

Primeran taldea: Primeran plataforman pertsona honek duen profilaren doakuntzetan egon daitekela gakoa uste dugu. Primeran plataforman “profila editatu” atalean, batetik Hizkuntza aukera dago, Bertan erabiltzaileak plataformaren testuak, menuak etab zein hizkuntzatan ikusi nahi dituen aukeratzen du. Behekaldean berriz “Erreproduktzio-doakuntzak” agertzen dira. Bertan edukien audioa nahiz azpidatziak zein hizkuntzatan lehenetsi nahi diren aukera daiteke. Kexan aipatzen den Mr Bean telesailaren edukiaren audioa eta azpidatziak zuzen daudela frogatu dugu.

Dosierra: 105-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - EUSKADIKO FILMATEGIA

Arrazoia: Zinema eta Zientzia zikloan, azpitoluak eta aurkezpen osoa gaztelera egin zen Donostian. Ziklo osoa gaztelera hutsean dala esango nuke, beste hiriburuetan ere bai. Antolatzaileak: Euskadiko filmategia, DIPC eta Zinemaldia.

Erantzuna:

Zuzendaria: Euskadiko Filmategiak eta Donostia International Physics Centerrek (DIPC) euskararekiko sentsibilitate berezia partekatzen dugu, eta gure hizkuntza programazioan presente egon dadin lan egiten dugu. Zentzu horretan, euskararekin dugun konpromisoari buruzko zenbait datu zurekin partekatzea gustatuko litzazuke. Filmategiak jatorrizko bertsioan proiektatzen ditu filmak Gasteizen, Bilbon eta Donostian (horietatik batzuk, baita Iruñean eta Donibane Lohitzunen ere). Azpidatziak gaztelaniz eta euskaraz dira (Donibane Lohitzuneren kasuan, frantsesez), eta euskarazkoak 2024ko programazioaren % 37,50 suposatzen zuten. Pelikulak euskarazko azpidatziekin badira, aurkezpenak eta solasaldiak euskara hutsean dira. Aurtengo Zinema eta Zientzia zikloan hamalau pelikula

proiektatuko dira. Horietatik, bostek izango dituzte euskarazko azpitoluak (The Time Machine -George Pal, 1960-; Erin Brockovich -Steven Soderbergh, 2000-; The Thing -John Carpenter, 1982-; Gravity -Alfonso Cuarón, 2013-; eta Everything Everywhere All at Once -Daniel Kwan, Daniel Scheinert, 2022-). Azpian Zinema eta Zientzia zikloko aurtengo programa: https://filmoteka.eus/media/uploads/ciclos/programa_zzientzia_25_ok_urtarrila_baja.pdf laz, Zinema eta Zientzia zikloko filmen % 36,36 euskarazko azpitoluekin proiektatu ziren. Gainera, ikastetxeentzako proiektatzen diren pelikulek beti dituzte euskarazko azpitoluak. Bestalde, DIPCekin eta Donostia Zinemaldiarekin batera antolatzen dugun Ikastetxeak Belodromoan ekimenean, ia 13.000 hurrek euskarara bikoiztutako pelikula bat ikusten dute urtero. Hala ere, badakigu hizkuntzaren erabilera hobetu dezakegula jarduera zehatz batzuetan. Horregatik egin diguzun iruzkina eskertu nahi dizugu, eta espero dugu hurrengo batean Euskadiko Filmategiak eta DIPCk antolatzen dugun ekimen batera etorri eta euskararen presentziari dagokionez beste sentsazio batekin ateratzea. Esan bezala, gure aldetik horrela izan dadin lan egiten jarraituko dugu.

Dosierra: 667-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA

Arrazoia: Bilbon ospatzen den Bime Bilbao festibalak, sare sozialean %98a (ez dut datua kalkulatu) gaztelera kudeatzen ditu, nahiz eta eusko Jaurlaritzatik, Bizkaia Aldundiaren eta Bilboko Udalaren diru publikoarekin finantziatua egon. Hori gutxi balitz, artista euskaldunak, Espainiar gisa aurkezten ditu.

Erantzuna:

Herritarrentzako Arreta Zerbitzua: BIME Bilbao festibalaren sare sozialetako euskararen erabilerari buruz jasotako erreklamazioaren harira, eta ekitaldi hori Eusko Jaurlaritzaren, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Bilboko Udalaren diru publikoarekin finantzatu izanik, honako hau jakinarazten da: BIME Bilbao nazioarteko musika-industriaren topaketa da, 2013tik Bilbon urtero ospatzen dena. Bere programazioak jardura profesionalak (BIME Pro), kontzertuak (BIME Live), networking guneak, prestakuntza eta Iberoamerikako artista berrien showcase-ak biltzen ditu. Kulturaren eta musikaren arloan nazioarteko proiektazioa duen ekitaldi erreferentea da. Euskararen erabilerari dagokionez, egiaztatu da BIMEren webgunea euskaraz, gaztelaniz eta ingelesez dagoela eskuragarri, eta sare

sozialetan argitalpenen %98 inguru euskaraz egiten direla. Datu horrek hizkuntza-normalizazioarekin eta indarrean dagoen araudiak ezarritako koofizialtasun-printzipioekin konpromiso argia erakusten du. 2024ko otsailaren 22ko 19/2024 Dekretuak, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzekoak, 15. artikuluan ezartzen du dirulaguntza-prozedurek hizkuntza-irizpideak jaso behar dituztela, finantzaketa jasotzen duten proiektuetan euskararen erabilera bermatzeko. Era berean, 7. artikulua dio erakunde onuradunek hizkuntza-koofizialtasunaren, oreka, ikusgarritasun eta funtzionaltasunaren printzipioak errespetatu behar dituztela. Hala ere, araudiak ez du ezartzen argitalpen guztiak (%100) euskaraz izateko betebeharra. Eskakizun horrek ez du oinarri juridikorik. Araudiak dioena da euskarak presentzia esanguratsua eta proportzionala izan behar duela, bereziki herritarrentzako zuzendutako komunikazio-kanaletan. BIME Bilbao festibalaren profil publikoak (Instagram, X/Twitter, Facebook) zuzenean aztertuta, honako hauek egiaztatu dira: Argitalpen gehienak euskaraz idatzita daude, presentzia nabarmen eta etengabearekin. Eduki askok formatu elebiduna dute (euskara eta gaztelania), edo soilik euskaraz argitaratzen dira. Euskararen erabilera %90etik gorakoa da azken argitalpenetan, hizkuntza-normalizazioarekin konpromiso sendoa erakutsiz. Beraz, kasu honetan, BIME Bilbao festibalak sobera betetzen ditu araudiak ezarritako hizkuntza-irizpideak, bai bere webgunean bai sare sozialetan. Eskertzen dugu zure inplikazioa eta gure hiriko hizkuntza-bizikidetzaren hobetzeko erakutsitako interesa. Beste iradokizun edo komentario bat izanez gero, zure eskura gaude.

Ekonomia, enplegua (9)

Dosierra: 13-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - LANBIDE - Zerbitzu Zentralak -Zuzendari nagusia

Arrazoia: Gaur Lanbidetik mezu hau heldu zait. Euskarazko bertsioa erabat traketsa da eta berehala zuzentzeko eskatu nahi diet arduradunei. Horrela adierazten du mezuak: "Diru-sarrerak bermatzeko eta Gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legeak arauturiko Diru-sarrera bermatzeko Errentaren pertsona onuradun giza, legeak Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak zehazturiko ekintzetan parte hartzeko konpromisoa ezartzen da gogorarazten dizkizuegu". Zenbat denbora darama Lanbidek mezueta txertatutako testu hori horrela bidaltzen?

Dosierra: 19-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - EKONOMIA, LANA ETA ENPLEGU SAILBURUORDETZA

Arrazoia: Eusko Jaurlaritzaren gutun bat jaso nuen etxebizitza eta lan-baldintzei buruzko inkesta ofizial bat erantzun behar nuela adieraziz. Horretarako Ikertalde enpresaren telefono batetara deitu behar nuela adierazten zidaten. Bada, gaur urtarrilak 9a 10:30 aldera deitu dut, telefonoaren bestaldean zegoenak gaztelaniaz agurtu nau, inkesta euskaraz erantzun nahi nuela adierazi diot eta berak "hablame en castellano" erantzun dit, une horretan ez zegoela euskaraz dakien langilerik esanez. Nik tinko jarraitu dut inkesta euskaraz erantzuteko eskubidea nuela adieraziz eta erantzun dit ez dudala eskubiderik enpresa pribatu bati euskaraz egitea eskatzeko. Bapatean itxoiteko eskatu dit eta euskaraz zekien langile batekin pasatu nau. Hala ere, nire kexa adierazi nahi diot Eusko Jaurlaritza eta Ikertalde enpresari lege betebeharrak eta nire hizkuntza eskubideak behar bezala ez bermatzeagatik eta euskara erabiltzeagatik langilearekin eztabaidan sartu behar izan naizelako. Gainera, horrelako inkestak euskaraz erantzun eta ulertzen direla bermatzeak emaitzen kalitatean eta fidagarritasunean ere eragina du., Beraz Eusko Jaurlaritzak zerbitzua behar bezala eskaintzen dela bermatu beharko luke.

Erantzuna:

Estatistika Organo Espezifikoaren Arduraduna: Hala da, hasieran kexa jarri duen pertsonari gaztelaniaz eman zitzaion arreta. Gure lankideak egin zuen, enpresako landa-zuzendaritzan laguntzen duenak. Postu horretan urte asko daramatzan pertsona bat da, beraz, esperientzia eta, batez ere, heziketa handiarekin (badaki

pertsonekin nola tratatu). Esan dugun bezala, gaztelaniaz artatu zuen eta gaztelaniaz egin zezakeen eskatu zion (gure taldearekin harremanetan jarri nahi zuen pertsonari), bera ez baita euskaraz indartsu sentitzen. Deitu zigun pertsonak euskaraz hitz egiten jarraitu zuen, eta gure lankideak adierazi zion une batez euskaraz lan egiten duen lankideetako batekin jarriko zitzaiola, une horretan denak lanpetuta baitzeuden. Inola ere ez zuen adierazi "ez zuela eskubiderik enpresa pribatu bati euskaraz hitz egiteko eskatzeko". Esan dizudan bezala, pertsona eskarmentuduna eta hezia da. Azken batean, elkarrizketa hori amaitu eta berehala, arreta euskaraz ematen duen lankideetako bat askatu zen. Beraz, berriro harremanetan jarri ahal izan zen arreta euskaraz jasotzeko eskatzen zuen pertsonarekin, eta galdetegia bete ahal izan zuten. Sentitzen dugu gorabehera hori gertatu izana.

Dosierra: 39-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - LANBIDE - Zerbitzu Zentralak -Zuzendari nagusia

Arrazoia: Deitu berri didate, berriro, Lanbidetik. Gaur, urtarrilak 15 dituela, 16:00ak inguruan, 628230005 zenbakitik. Telefonoa euskaraz hartu dut, «Bai? Arratsalde on!», eta gizonezko bat hasi zait bere burua aurkeztzen, erdaraz, eta «[...] le llamo de Lanbide porque me gustaría conocer [...]». Honela erantzun diot, bai eta deia eseki ere: «A bai? Lanbidetik? Ba, eskerrik asko deitzearren». Berriro deitu dute eta ez diet hartu. Telefono zenbakia blokeatu dut, enegarrena blokeatu diedana.

Dosierra: 43-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - EKONOMIA, LANA ETA ENPLEGU SAILBURUORDETZA

Arrazoia: Irunen emanen diren ikastaroen berri zabaldu da kartelen bidez. Kartelak Eusko Jaurlaritzaren Lan, Ekonomia eta Enplegu Sailak eta Lanbidek logoak daramatzate, baina, argazkian ikus daitekeen bezalaxe, gaztelaniaz baino ez daude, ez ditu betetzen euskaldunon hizkuntz eskubideak. Aski da!! Ikaskuntza euskaraz!! Aski da!! Irunen euskaraz!!

Erantzuna:

Informazio eta arreta zerbitzua: Dagoeneko idazki bat bidali zaio Cei Formación erakundeari. Bertan gogorarazi diogu, batetik, zer jasotzen duen dagokion araudiak diruz lagundutako ikastaroen jakinarazpenari buruz, eta, bestetik, administrazioaren Hizkuntza-irizpideak eta herritarren Hizkuntza-eskubideak ez

betetzeak ikastaro horiek ez finantzatzea ekar dezakeela. Bukatzeko, eskerrak eman nahi dizkiogu herritarrei gure zerbitzua hobetzen laguntzeagatik.

Dosierra: 230-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - LANBIDE - Zerbitzu Zentralak -Zuzendari nagusia

Arrazoiak: Lanbideko langile batekin online hitzordua hartuta nuen curriculum vitae eguneratzeko. Gaur egun herritarrok etxetik eguneratzen ahal dugu gure Lanbideko curriculum, baina itxuraz, EUSKARAZ egiteko modurik ez dago. Gaztelan eginez gero, funtzionatzen omen du, baina euskaraz ez; aspalditik omen dago matxuratuta eta ez dute konpontzen. Hala adierazi dit Lanbideko langileak. Itxura denez, informatikariak jakinaren gainean daude, baina ez omen dute konpontzen.

Erantzuna:

Zerbitzu Orokorren Zuzendaritza: Jakinarazten dizuegu gure aplikazioetako batzuk arazoak izaten ari direla egoera jakin batzuetan, baina ahalik eta azkarren konpontzen saiatzen ari gara. Espero dugu arazoa laster konponduta izatea, zura CVA euskaraz eguneratu ahal izan dezazun. Eskertzen dizugu gurekin harremanetan jarri izana zure iritzia emateko eta gure zerbitzuak zuzendu eta hobetu ahal izateko.

Dosierra: 277-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - LANBIDE - Zerbitzu Zentralak -Zuzendari nagusia

Arrazoiak: Lanbidek, zentro pribatuen bidez, ikastaroak eskaintzen diru langabetuentzako eta langileentzako. Ikastaroa hastean, parte hartzaileek konpromiso orri bat sinatu behar dugu, Lanbiden aurkezteko. Ikasleoi eman ohi diguten dokumentua gazteleraz dago. Badakit euskaraz ere badagoela, azken ikastaroan espreski eskatu ondoren euskaraz eman baitzidaten. Baina, ez al lukete zuzenean dokumentu elebiduna eman beharko? Hori erraz zuzentzeko zerba it iruditzen zait baina, bide batez, aipatzen dizuet ere, uste dudala eskaintzen den prestakuntza horretan, ez dagoela ikastaro bat ere euskaraz. Azpimarratzen dut hori ustea dela, badakit eta 2015ean horrela zela, baina agian geroztik egoera hobetu da (nik ez dut euskarazkorik ikusi).

Erantzuna:

Informazio eta arreta zerbitzua: Erreklamazioan adierazitako lehen puntuari dagokionez (konpromiso-dokumentua hizkuntza bakar batean entregatzeari

buruzkoa), egindako oharra eskertu nahi dugu. Gaur egun, dokumentu hori gaztelaniaz zein euskaraz dago eskuragarri, eta parte- hartzaileak aukeratutako hizkuntzan ematen da. Hala ere, zuzenean formatu elebidunean ematearen komenigarritasunari buruz planteatutako iradokizuna kontuan hartzen dugu, eta proposamen hau barnetik helaraziko dugu, herritarrei ematen zaien arreta linguistikoa hobetzen jarraitzeko helburuarekin. Kexaren bigarren puntuari dagokionez (euskarazko prestakuntzarik ezari buruzkoa), honako informazio hau eman nahiko genuke: 1. HABErekin euskara ikasteko akordioa: Aspaldidanik, Lanbidek lankidetzat-hitzarmena du HABErekin (Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako), langabeei euskarazko prestakuntza eskaintzeko. Ekimen honen bidez, gaitasun profesionalak eskuratzera bideratutako prestakuntza-ekintzak osatu ahal izango dira, parte-hartzaileen enplegarritasuna hobetzeko euskarazko berariazko prestakuntzarekin. Plangintza hori urtero egiten da, eta ekintzak HABEren erregistroan inskribatutako eskalategietan eta autoikaskuntzako zentroetan egiten dira. 2. Euskaraz emandako lanbide-heziketa: Lanbidek finantzatzen edo sustatzen duen edozein ikastaro euskaraz eman daiteke. Irakasteko hizkuntza erakunde prestakuntzaileak aukeratzen du, eta gai hori zehazteko, ikasleen profila eta prestakuntza-ekintza garatzen den testuingurua hartzen ditu kontuan. 3. Euskarazko prestakuntzarako berariazko deialdia (2023-2024): Eusko Legebiltzarraren ebazpen bat betez (Kultura, Euskara eta Kirol Batzordea, 2022ko martxoa), Lanbidek berariazko deialdi bat jarri zuen abian euskarazko prestakuntza kualifikatzailea eskaintzeko. Deialdi hau 2023ko uztailaren 21eko EHAA-n argitaratu zen, eta bereziki zaintzaren eta zerbitzuen sektoreetan zentratu da, desabantaila-egoeran dauden kolektiboek edo pertsona migratzaileei lehentasuna emanez. Gaur egun, deialdi horren eragina eta emaitzak ebaluatzen ari dira. 4. Euskarazko prestakuntza zabaltzeari buruzko 8/2025 lege besteko proposamena: 2025eko otsailean, Eusko Legebiltzarrak lege besteko proposamen berri bat onartu zuen, erakundeek euskarazko prestakuntza kualifikatzailearekin duten konpromisoa indartzeko, eskaintza zabaltzeko, HABErekin lankidetzan jarraitzeko eta lehen aipatutako proiektu pilotua ebaluatzeko eskatuz. Horregatik guztiagatik, berriro diogu Lanbide herritarren hizkuntza-eskubideen bermearekin konprometituta dagoela, eta ildo horretan lanean jarraitzen dugula prestakuntza-eskaintza inklusibo, irisgarri eta hizkuntza-

ikuspegitik ere berdintasun-baldintzetan bermatzeko. Bukatzeko, eskerrak eman nahi dizkiogu herritarrari gure zerbitzua hobetzen laguntzeagatik.

Dosierra: 718-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - FINANTZEN EUSKAL INSTITUTUA

Arrazoiak: Irailaren 26an Finantzen Euskal Institutuak Finantza Estrategia Teknikari Analista lanpostuan Bilboko egoitzan lan egiteko deialdia zabaldu zuen. <https://www.campo-ochandiano.com/ofertas/detail/135241> Beste batzuen artean langilearen zereginak ondorengoak izango dira: -Kapital eta finantza merkatuei buruzko ikerketa eta azterketa orokorra egitea; bai eta enpresa sareari zuzendutako eskualdeko, estatuko eta/edo Europako finantza ekimen, dinamiken eta tresnen esparruari eta joerari buruzkoa ere. -FEIren erakunde harremanak garatzea, Zuzendaritza Nagusiari lagunduta. -Eusko Jaurlaritzak onartutako laguntza plan sektorialak koordinatzeko edo kudeatzeko organoetan parte hartzea. Institutua ordezkatzeko, partaidetzapeko sozietateen gobernu organoetan, agintzen zaizkion kasuetan. -FEIren komunikazio eta informazio kanal publikoak kudeatzea. Ingelesaren ezagutza nahitaezkoa ezarri dute baina ez euskararena (euskara baloragarria baino ez da). Horiek horrela penagarria iruditzen zait Eusko Jaurlaritzaren mendeko Erakunde Publiko baten ordezkartzan jardun dezakeen pertsona batek gure lurraldeko hizkuntza ofiziala den euskararen ezagutza izan behar ez izatea.

Dosierra: 836-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - EKONOMIA, LANA ETA ENPLEGU SAILBURUORDETZA

Arrazoiak: Eusko Jaurlaritzako Ekonomia, Lan eta Enplegu sailaren gutun bat iritsi zait etxera, esanez inkesta bat bete behar nuela derrigorrez, "Lan Merkatuaren Erroldaren Inkesta". Webgunean sartu naiz, eta inkestaren euskara maila oso txarra zen, batzuetan galderak eta erantzunak ezin ulertzeraino. Susmoa pizten du itzulgailu automatiko batekin euskaratuta zegoela dena, eta gero testua ezein gizakik zuzendu gabe. Ikertalde izeneko talde baten webgunean izan da inkesta. Kontuan izanik euskara hizkuntza ofiziala dela, inkesta erakunde publiko batek enkargatua dela eta gainera inkesta hori legez bete beharrekoa dela, errespetu falta handia eta hizkuntz eskubideen urraketa da.

Erantzuna:

Saileko Estatistika Organo Bereziko Arduraduna: Lehenik eta behin, barkamena eskatu nahi dugu sortutako eragozpenengatik, eta ahal dugun guztia egingo dugu egoera hau berriro gerta ez dadin. Kexa jaso ondoren, Lan merkatuaren erroldaren galde-sorta birpasatu dugu, eta konturatu gara galdera batzuk ez daudela behar bezala formulatuta, eta, horren ondorioz, hori konpontzeko neurriak hartu ditugu. Gaur egun, galde-sorta eta galderen testuak berrikusten ari gara, euskaraz zein gaztelaniaz, web orrian inkestaren galderak behar bezala formulatuta egon daitezen. Galde-sorta prestatzeko prozesuan, galdetegia aldatzea erabaki genuen, eta horretarako enpresa adjudikaziodunak itzulpen lana azpikontratatu zuen testu berriak itzultzeko eta aurreko edizioetako testu itzuliak gainbegiratzeko. Itzulpengintzan espezializatutako enpresa batek egindako lana zenez, ez genuen uste berrikusketarik beharko zuenik, eta zuzenean web orrian jarri genuen. Hala ere, kexa hau jaso ondoren, eta emaitzak ikusita, hemendik aurrera itzulpen guztiak gainbegiratu ditugu argitaratu baino lehen, nork egiten duen kontuan hartu gabe.

Dosierra: 854-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - LANBIDE - Zerbitzu Zentralak -Zuzendari nagusia

Arrazoiak: 14:06an 943404882 telefonotik deitu didate. Hartu dut deia. Neure hizkuntzan galdetu dit ea halako naizen. Baietz erantzun diot. Orduan hasi zait esaten Lanbidetik ari zaidala deika eta erdarara pasatu da. Orduan galdetu egin diot ea Lanbidetik ari den benetan? Orduan itzuli da euskarara. Eta ez baitut asmorik agoantatzeko administrazio publikoaren izenean erdara inposatu gura duen inongo norbanakorik, esan diot "eskerrik asko deitzearren eta arratsalde on" eta eseki egin diot.

Euskara, hizkuntza-politika (2)

Dosierra: 290-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA -

Arrazoa: Eusko Jaurlaritzak hitzarmena sinatu zuen ONCEekin liburuak brailen sisteman argitaratzeko. Nik dakidala, audio grabaketa batzuk egin dira, baina, 2024ko uda ezkerotik, liburuak inprimatzeko prest dauden arren, ez dira argitaratzen. Euskara dakigun itsuok gure eskubide linguistikoak bermatzeko ahalegin handiagoa eskatzen dut.

Dosierra: 580-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA -

Arrazoa: Euskaraldian parte hartu dudala-eta galdetegi bat bidali dit (Madrilgo!) enpresa batek. Enpresa zein ote den begiratzera sartu eta gatzelania hutsean dauka webgunea (SIGMADOS.COM). Euskararekiko batere ajolarik ez duen enpresa bat kontratatu dute Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak eta Euskararen Erakunde Publikoak, zer eta euskaldunon hizkuntza ohituren gaineko ariketa bat ikertzeko? Ez nago halakoekin batere ados eta salatzeko modukoak iruditzen zaizkit. Gainera, ahalik eta parte-hartzaile gehien erantzunak jasotzea bada helburua, kontrako emaitza lortzea sustatzen dela iruditzen zait. Nik ez dut galdetegi erantzungo, adibidez. Bidenabar, esan dezadan, gisa horretako galdetegi edozein euskal erakundek bideratzea zeukakeela. Horra jasotako mezua (euskarazko bertsioa): Adiskide hori: 2025 eko EUSKARALDIA bukatuta, ikerketa bat abian jartzera goaz, norbanakoen parte-hartzea ezagutu eta euskararen erabileran zer emaitza lortzen den neurtzeko. Aurtengo edizioan parte hartu duzuen ahobizi eta belarriprest guztietatik, aukeratutako partaideetako bat zara zu, eta ikerketa honetan parte hartzea eskatzen dizugu. Galdetegi labur honi erantzutea da eskatzen zaizuna. Oso garrantzitsua da zuk galdetegiari erantzutea, ikerketaren kalitatea bermatzeko. SIGMADOS enpresak egingo du azterlan hau eta, TAUPArekin elkarlanean, ondorengo erakunde publikoek sustatu dute: Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua eta Euskararen Erakunde Publikoa. Galdetegiarekin zalantzarik baduzu, SIGMADO Sera jo dezakezu: 900670910 telefono zenbakia edo euskaraldia@sigmados.com helbide elektronikoa. Eusko

Jaurlaritzaren 945019297 telefonoan eta j-aizpurua@euskadi.eus helbide elektronikoan ere behar duzun informazio osagarria emango dizute. Eskerrik asko, EUSKARALDIari buruzko ikerketa honetan parte hartzeagatik.

Erantzuna:

Euskara Sustatzeko zuzendaria: Euskaraldiari buruzko ikerketaren kontratazioa (K-21/2025) indarrean dagoen Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen arabera egin da. Legearen arabera, kontratazio publikoetara aurkeztu daitezke Espainiako enpresak, Europar Batasuneko (EB) zein Europako Esparru Ekonomikoko (EEE) enpresak eta, baldintza jakin batzuek betetzen badituzte, EBtik eta EEEtik kanpoko hirugarren herrialdeetako enpresak ere. SIGMADOS enpresak lehiaketara aurkeztu ahal izateko eskatu diren kaudimen-betekizunak eta gainerako betekizun guztiak bete ditu. Lehiaketara aurkeztu diren eskaintza tekniko eta ekonomiko guztiak aztertu ondoren, SIGMADOS enpresak lortu du puntuaziorik handiena. SIGMADOS enpresak bermatu egingo du euskarazko zerbitzua Euskaraldiari buruzko ikerketaren betekizunetan. Hau da, euskaraz izango da lehenengo hitza, euskaraz egongo dira bidalitako galdetegiak, euskaraz egingo dira elkarrizketak eta eztabaida-taldeak eta euskaraz erantzungo zaie telefono bidez zein e-postaz egiten zaizkien kontsultei. Aldi berean, lanen jarraipena euskaraz egingo da proiektuaren arduradunekin.

Garraioa, mugikortasuna (2)

Dosierra: 557-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - EUSKO TRENBIDE SAREA -ETS-

Arrazoa: Usansolon, ospitalearen ondoan herriarentzako bidearen parean egon den sasitza eta zaborra garbitzen ari dira atzenean; baina ez dirudi 2025eko Usansolo denik, baizik eta Francopekoa-edo. Seinalizazio guztia erdara hutsean dago. Are espaloia moztuta dago, honela: "Paso de peatones >". Udalak ez du esatekorik. Udal gobernuak? Oposizioak? "Euskara" zerbitzuren batek? Gero kexatuko dira/gara oldarraldiak eta eskatuko dute/dugu euskararen ofizialtasuna Europan... Eta batzuek immigrazioari leporatuko dizkiote gaitz guztiak? Baina euskaldunari errespeturik ez izatea ez dator kanpotik bakarrik, eta ez da berria, eta ez da bakana.

Dosierra: 795-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - EUSKO TRENBIDE SAREA -ETS-

Arrazoa: Uztailaren 29an ondoko kexa helarazi nuen: Usansolon, ospitalearen ondoan herriarentzako bidearen parean egon den sasitza eta zaborra garbitzen ari dira atzenean; baina ez dirudi 2025eko Usansolo denik, seinalizazio guztia erdara hutsean dago. Are espaloia moztuta dago, honela: "Paso de peatones >". Gero kexatuko dira/gara oldarraldiak eta eskatuko dute/dugu euskararen ofizialtasuna Europan... Eta batzuek immigrazioari leporatuko dizkiote gaitz guztiak? Baina euskaldunari errespeturik ez izatea ez dator kanpotik bakarrik, eta ez da berria, eta ez da bakana. Urriak 22 ditu eta denak berdin segitzen du.

Hedabideak (14)

Dosierra: 5-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - EITB - KALITATE ZUZENDARIA

Arrazoia: ETB2n Mitoaroa ikusten ari gara eta azalpen guztiak gaztelania hutsez ematen ari dira. Behin emango euskarazko kontzertu bat ETB2n eta azalpen guztiak gaztelaniaz ematea ere....

Dosierra: 20-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - EITB - ZUZENDARITZA

Arrazoia: EITBko zuzendaritzak eitb.eus eta EITBko Sare Sozialen zuzendaria hautatzeko prozesuan euskararen eta euskaldunon eskubideen kontrako urraketa larria egin duela salatu nahi dugu. Udazkenean kaleratu zuten lanpostu deialdian euskarazko C1 maila eskatzen zen postua betetzeko, izango zituen betebeharrak eta ardurak ikusita. EITBk kanpoko kontsultora baten bidez kudeatu du hautaketa prozesua. Abenduaren 17an, ezustean, pertsona erdaldun elebakar bat izango zela eitb.eus eta sare sozialetako zuzendari berria jakinarazi zitzaigun bai EITBNETeko Langileen Batzordeko ordezkarioi baita EITBko Administrazio Kontseiluko kideei ere. Hautaketa honek lanpostuaren eskakizunak ez betetzeaz gain, euskaldunon eskubideak eta lan hizkuntza bera ere urratzen duela uste dugu, EITBren Euskara Planaren kontra joateaz gain. Hori dela eta, kexa adierazpen formalazabaldugenuen (irratian, telebistan zein interneten) ohar bidez. Bilera eskatuta dugu Andoni Aldekoa EITBko zuzendari orokorrarekin erabakia atzera botatzeko eskatzeko baina ez digu oraindik datarik jarri.

Erantzuna:

Zuzendari nagusia: Hautatutako hautagaia ondoen baluratua izan zen enpresa espezializatu batek egindako hautaketa prozesu ireki batean. Horrela ondorioztatzen da enpres horrek egindako txostenetatik, non argi eta garbi islatzen baita, eremu digitalean duen esperientzia luzeagatik eta Big Data, Bussines Intelligence eta Marketin Digitalean duen ezagutzagatik,

EiTBren digitalizazio eta aldaketa prozesua gauzatzeko hautagairik onena dela. Zehazki, hizkuntzen mailari dagokionez, hautagai finalistek antzeko ezagutzak zituzten. EITBko zuzendaritza ziur dago hori ez dela eragozpena izango Interneteko plataformarik aurreratuen eta modernoena garatzeko, Taldeko edukiak eta, bereziki, euskarakoak, Internet ingurunean hazteko. Gure ustez, hautatutako pertsonaren profilak, teknologia eta komunikazioa uztartzen dituenak, aukera emango du euskal edukien eta euskarazko edukien kontsumoa lehiakorra izan dadin Interneten, horretarako plataformarik aurreratuen izanda. Teknologiarli eta posizionamenduari lotuago dagoen lana da, edukia sortzei baino, azken hori Taldearen produktu unitateen mende dago.

Dosierra: 38-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - EITB - KALITATE ZUZENDARIA

Arrazoia: Oraintxe ETB2ko albistegian Zuberoako maskaradez ari direla berriemaileak esan du "la última será el 30 de marzo en Alkai". Bada, Altzai esan gurako zuen, frantsesez Alçai dena. Iruditu zait kazetariak astakeria esan orduko, azpidatzietan ere hala, oker, azaldu dela: "Alkai" [sic]. Zeinen tristea eta gorria Euskal Telebistak halako hanka sartze galantak egitea. Behin eta berriro. Espainiako edozein bazterretako edozein herrixkaren izena hobeto esaten dute, bada, beti, bai eta zehatzago kokatzen ere non dagoen. Iraingarria dela deritzot. Otutzen zait, gainera, gaueko albistegia izanik, egun osoan zehar ibiliko zirela albistegietan-eta "Alkaika". Ene, ene!

Dosierra: 58-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - EITB - KALITATE ZUZENDARIA

Arrazoia: 2023ko urte bukaera aldera (ez dut eguna zehatz oroitzen) Euskadi Irratiko kirol saio batean gizonezkoen Erreala taldearen futbol partida ematen ari ziren zuzenean. Eta halako batean, Maitane Urbietak kazetariak zera esan zuen lotsagorritu gabe: "Madre mía, ya lo creo". Ez dugu nahikoa EITBren jarrera antieuskaldunarekin eta ustezko euskaldun esatari batek

(gutxi gorabehera euskaraz bizi den Zumaia herriko bizilaguna) horixe bota zuen. Aski da EITBko langileen jarrera antieuskaldunarekin!!!!

Dosierra: 110-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - EITB MEDIA S.A.U - GUAU plataforma -

Arrazoa: EITBk Guau plataforma erdaraz baizik ez du sustatzen Facebooken, hau da, diruz lagundurik, jendeari agertu dakion, Gauaren Facebookeko orrialdera zertan sartu barik. Argazkian ikus daiteke "Sponsored" ageri dela gaztelaniazkoan <https://www.facebook.com/share/v/14pe6TAzkf/>
<https://www.facebook.com/share/15hUXtt4ex/>

Dosierra: 114-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - EITB - EUSKADI IRRATIA -

Arrazoa: Gauean Gasteizen sute bat izan dela-eta Euskadi Irratiko albistegietan "Beato Tomás de Zumarraga" kalean izan dela esaten ari dira. Zein irratia entzun behar dugu euskaraz kaleen izen euskarazkoak entzuteko?

Dosierra: 227-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - EITB - EUSKADI GAZTEA -

Arrazoa: Ez dakit hau hemen salatu behar dudan, baina Oraintxe kotxean (12:30tan) euskadi gaztea jarri eta aldatu behar izan dut, esatari bat edo bi (biak gizonezkoak, baina izenik ez dakit tamalez) etengabe gaztelania eta euskera nahastuz ari zirelako. Kexa helarazi ahal izango duzelakoan, eskerrikasko.

Erantzuna:

EITB Arreta Zerbitzua: Lehenik eta behin eskerrik asko gurekin harremanetan jartzeagatik. Erabiltzaileak igande honetan entzun zuen emanaldia berezia izaten da: goizeko umorezko magazinaren aste osoko unerik barregarrienak, ezberdinenak.... biltzen dituen, hain zuzen ere. Aspaldian hor azaltzen den pertsonaia batek (aktore batek gorpuztua) ezaugarri ezaugarria du, gizartean ematen den portaera baten isla umore ikuspuntu batetik erabat jasotzeko asmoz: euskara eta gaztelania nahasten

ditu. Benetan sentitzen dugu erabiltzailearentzat tarte hori gogokoa ez izatea. Bestalde, zuen baimenarekin, Gaztea irratia euskarari 35 urteotan eta 24 orduz egin dion eta egiten dion ekarpena jarri nahi dugu balioan, jendearekin (gazteekin bereziki) konektatuz, euren gustu musikalak, portaerak eta erabilitako kodigoak eta komunikazio bideak etengabe aintzat harturik. Informazio hau baliagarria izatea espero dugu.

Dosierra: 605-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - EITB- ESTRATEGIA ETA KOMUNIKAZIO ZUZENDARIA

Arrazoa: Lotutako irudian ikusi dezakezue EITBk zer argitaratu duen. Onartezina da baina normaltzat dute hainbatek euskarazko testuak itzultzaile automatikoen bitartez egitea. Lotsagarria da eta onartezina.

Erantzuna:

EITB Arreta Zerbitzua: Une honetan, trantsizio teknologiko baten erdian gaude gure web atarietan. EITBko albiste digitaletako teknologia erabat berritu dugu orain.eus atarian, eitb.eus-en domeinu eta ekosistematik aterata (eitb.eus atariak aurreko teknologiarekin segitzen du). Horrenbestez, trantsizio honen barruan, zenbait pauso eman behar dira bi teknologia ezberdin horien erabateko bateratze-prozesua amaitzeko. Erabiltzaileak jakinarazi duen akatsa ez zen orain.eus atarian argitaratu, baizik eta eitb.eus-en dagoen modulu batean. Modulu horrek ez zuen orain.eus-eko eremu egokitik hartu testu akastuna, eta, horregatik, orain.eus-en testu zuzena argitaratu zen, eta eitb.eus-en okerrekoa. Testu akastuna sistemak berak sortu zuen automatikoki, eta erabiltzaileen begien aurrean jarri zuen, albistea landu zuen kazetariarentzat agerikoa ez zen bide batetik jarri ere. Edonola ere, akats hori eitb.eus-en aireratuta ikusitakoan, zuzendu egin zen. Argi utzi nahi dugu konpromiso irmoa dugula euskararekin, eta konpromiso hori gure lanaren erdigunean dagoela bai edukigintzan baita esparru teknikoan ere. Izan ere, Euskara Zerbitzua daukagu EITBn euskarazko testuen bikaintasuna bermatzeko. Horren ildotik, azpimarratzekoa da orain.eus-en idazten duten kazetariak euskarazko C2

maila egiaztatu dutela. Beraz, eitb.eus-eko moduluan agertu zen akatsa une zehatz batean elkartu ziren zenbait gertaeraren ondorioa izan zen. Eskerrak eman nahi dizkiogu erabiltzaileari, bere lanari esker arazoa behin betiko konpondu dugulako, giza akatsengatik libre ez bagaude ere, edozein zereginetan edo lanbidetan bezalaxe.

Dosierra: 606-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - EITB- ESTRATEGIA ETA KOMUNIKAZIO ZUZENDARIA

Arrazoia: Orain EitBeren zerbitzuan ikusia: "tren bat 'atxilotua', (erderaz detenido) eta hiru talde 'harrituta'" (erderaz sorprendidos)

Erantzuna:

EITB Arreta Zerbitzua: Une honetan, trantsizio teknologiko baten erdian gaude gure web atarietan. EITBko albiste digitaletako teknologia erabat berritu dugu orain.eus atarian, eitb.eus-en domeinu eta ekosistematik aterata (eitb.eus atariak aurreko teknologiarekin segitzen du). Horrenbestez, trantsizio honen barruan, zenbait pauso eman behar dira bi teknologia ezberdin horien erabateko bateratze-prozesua amaitzeko. Erabiltzaileak jakinarazi duen akatsa ez zen orain.eus atarian argitaratu, baizik eta eitb.eus-en dagoen modulu batean. Modulu horrek ez zuen orain.eus-eko eremu egokitik hartu testu akastuna, eta, horregatik, orain.eus-en testu zuzena argitaratu zen, eta eitb.eus-en okerrekoa. Testu akastuna sistemak berak sortu zuen automatikoki, eta erabiltzaileen begien aurrean jarri zuen, albistea landu zuen kazetariarentzat agerikoa ez zen bide batetik jarri ere. Edonola ere, akats hori eitb.eus-en aireratuta ikusitakoan, zuzendu egin zen. Argi utzi nahi dugu konpromiso irmoa dugula euskararekin, eta konpromiso hori gure lanaren erdigunean dagoela bai edukigintzan baita esparru teknikoan ere. Izan ere, Euskara Zerbitzua daukagu EITBn euskarazko testuen bikaintasuna bermatzeko. Horren ildotik, azpimarratzekoa da orain.eus-en idazten duten kazetariak euskarazko C2 maila egiaztatu dutela. Beraz, eitb.eus-eko moduluan agertu zen akatsa une zehatz batean elkartu ziren zenbait gertaeraren ondorioa izan zen. Eskerrak

eman nahi dizkiogu erabiltzaileari, bere lanari esker arazoa behin betiko konpondu dugulako, giza akatsengatik libre ez bagaude ere, edozein zereginetan edo lanbidetan bezalaxe.

Dosierra: 611-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - EITB- ESTRATEGIA ETA KOMUNIKAZIO ZUZENDARIA

Arrazoia: Argi dago zein den hizkuntza nagusia eitbn eta argi dago akatsak daudela itzultzaileekin (neuronal?, adimen artifiziala?). Azken egunotako adibideak, eitb.eus-en ikusita: "Alvia Iruña-Madril tren bat atxilotu dute Garinoain eta Tafalla artean..." "Bilboko konpartsek babesa adierazi diete etxetik irtenarazitako manteroiei: "Kalean dauden pertsonak ez al dute lo egiteko eskubiderik?"

Erantzuna:

EITB Arreta Zerbitzua: Une honetan, trantsizio teknologiko baten erdian gaude gure web atarietan. EITBko albiste digitaletako teknologia erabat berritu dugu orain.eus atarian, eitb.eus-en domeinu eta ekosistematik aterata (eitb.eus atariak aurreko teknologiarekin segitzen du). Horrenbestez, trantsizio honen barruan, zenbait pauso eman behar dira bi teknologia ezberdin horien erabateko bateratze-prozesua amaitzeko. Erabiltzaileak jakinarazi duen akatsa ez zen orain.eus atarian argitaratu, baizik eta eitb.eus-en dagoen modulu batean. Modulu horrek ez zuen orain.eus-eko eremu egokitik hartu testu akastuna, eta, horregatik, orain.eus-en testu zuzena argitaratu zen, eta eitb.eus-en okerrekoa. Testu akastuna sistemak berak sortu zuen automatikoki, eta erabiltzaileen begien aurrean jarri zuen, albistea landu zuen kazetariarentzat agerikoa ez zen bide batetik jarri ere. Edonola ere, akats hori eitb.eus-en aireratuta ikusitakoan, zuzendu egin zen. Argi utzi nahi dugu konpromiso irmoa dugula euskararekin, eta konpromiso hori gure lanaren erdigunean dagoela bai edukigintzan baita esparru teknikoan ere. Izan ere, Euskara Zerbitzua daukagu EITBn euskarazko testuen bikaintasuna bermatzeko. Horren ildotik, azpimarratzekoa da orain.eus-en idazten duten kazetariak euskarazko C2

maila egiaztatu dutela. Beraz, eitb.eus-eko moduluan agertu zen akatsa une zehatz batean elkartu ziren zenbait gertaeraren ondorioa izan zen. Eskerrak eman nahi dizkiogu erabiltzaileari, bere lanari esker arazoa behin betiko konpondu dugulako, giza akatsengatik libre ez bagaude ere, edozein zereginetan edo lanbidetan bezalaxe.

Dosierra: 614-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - EITB- ESTRATEGIA ETA KOMUNIKAZIO ZUZENDARIA

Arrazoia: Badira egunak, hilabete pasatxo, EITBko webean sartuz gero, nahiz eta euskara aukeratu hizkuntzan, gaztelaniazko albisteak agertzen direla oso sarri. Idatzi diet hori esanez (EITB arreta zerbitzura) eta bidali dizkiet, hala eskatu didatelako, pantailaren irudiak (mordoa) adibide moduan. Erantzun dute, akatsa izan dela, konpondu dutela... hiru aldiz gauza bera. Gaur da eguna erabaki dudala ez jarraitzea, iruditzen zaidalako jolasean ari direla nirekin, bost axola zaiela ni eta euskara, biok. Lehen komunikazioa uztailaren 7an izan zen, beste hamar bat aldiz gurutatu dira gure artean mezuak, gaur abuztuaren 20ra arte.

Erantzuna:

EITB Arreta Zerbitzua: Dagokion informazioa jaso dugula adierazi nahi dizugu, eta behin aztertuta, hona hemen bildu ahal izan dugun informazioa, erabilgarria izango delakoan. Lehenengo eta behin, adierazi behar dugu erabiltzaile honek bere komunikazioetan jakinarazi zuen arazoa giza akats batek sortu zuela, eta hori berehala detektatu eta zuzendu genuela. Hala ere, sistemaren funtzionamendu teknikoaren ondorioz, zuzenketa ez zen berehala bistaratu sistemaren leiho guztietan. Irailaren 8an, gure lantalde teknikoak gorabehera teknologiko hori konpondu zuen, eta, ordutik aurrera, giza akats baten zuzenketa egin bezain pronto, modu egokian agertzen da toki guztietan. Zein zen arazoa? Une honetan, trantsizio teknologiko baten erdian gaude gure web atarietan. Albisteetako teknologia erabat berritu dugu orain.eus atarian, eta, eitb.eus ataria, aldiz, aurreko teknologiarekin dabil. Erabiltzaileak ikusi duen akatsa giza akatsa izan zen berez, baina

ondoren teknologia zaharrak akatsaren ondorioak areagotu egin zituen. Giza akats baten ondorioz eduki bat okerreko hizkuntzarekin sailkatzen zenean, konpontzearekin batera egoki agertzen zen orain.eus atarian. eitb.eus atarian, aldiz, eduki hori nonbait nabarmenduta bazegoen, modulu automatikoa zenbait lekutan agertu zitekeen, eta zuzenketak ikusi ahal izateko denbora askoz handiagoa behar zen. Egunean, berrehun eduki informatibotik gora argitaratzen dira gure esparru digitaletan, eta, lanbide guztietan bezala, honetan ere giza akatsa gerta daiteke. Horri gehitzen badiogu azken aldian egin dugun aldaketa sakona, zeinak gure teknologiaren eguneratzea eta etorkizunerako egokitzapena ekarri baitu, eta horren ondorioz gure ingurune teknologikoa erabat modernoa eta aldi berean berria baita, baliteke oraindik horrelako arazoren bat gertatzea: gaztelerazko eduki bat euskarazko atarian agertzea, edota euskarazko eduki bat gaztelerazkoan agertzea. Giza akatsak detektatu ahala konpondu egiten ditugu. Kexa eragin duen albistearekin gertatutakoa gaur bertan gertatuko balitz, titularra eguneratuta eta dagokion hizkuntzan agertuko litzateke, berehala, gure lantalde teknikoak gorabehera teknologikoa konpondu baitu aste honetan bertan.

Dosierra: 664-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - EITB- ESTRATEGIA ETA KOMUNIKAZIO ZUZENDARIA

Arrazoia: Makusi aplikazioan, euskaraz konfiguratuta, sartu ondoren, pasahitza berriz sortzeko eskaera egiten du eta horretarako email bat jasoko dudala. Jasotako emaila gaztelera hutsez dago (Kaixo hitza izan ezik) eta bere barne duen estekak eitb-ren gaztelerazko web orrira darama. Han, euskara hautatzean, prozesua eten eta berriz ere hasi behar da, oso-osorik. Makusi haurren ikusentzuneakoak euskaraz bultzatzeko plataforma izanik, ulergaitza egiten da.

Erantzuna:

EITB Arreta Zerbitzua: Lehenengo eta behin, barkamena eskatu nahi dugu erabiltzaileak agertu duen arazoagatik. Irailaren hasieran, single sign on

sistema batean integratu ditugu gure plataforma guztiak (erregistro bakarra gure plataforma guztietan sartu ahal izateko). Hori dela eta, ustekabeko akatsak sortu dira, eta erabiltzaileak deskribatzen duena horietako bat da. Dagoeneko arazo hori konpondu dugu. Ulertzen dugu erabiltzailearen haserrea, eta berriz ere gure barkamena helarazteko eskatzen dizugu.

Dosierra: 823-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - EITB - ZUZENDARITZA

Arrazoa: ETBko Gaur Egun albistegietan, hizkuntzaren kalitatea gehiago zaindu beharko litzateke. Gaur eguerdiko albistegietako irudi bat eranstendut.

Erantzuna:

Erabiltzaileen arreta zerbitzua: Euskal Telebistaren euskarazko albistegietan, ardura handia jartzen da hizkuntzaren kalitatea zaintzeko, baina zailtasunak ere handiak dira; aipagarrienak: denbora gutxi, parte-hartzaile asko, prozesu tekniko konplexuak, eta euskaraz ordura arte landu gabeko gaiak. Halako estres-egoeretan, ez da harrigarria inoiz despisteak gertatzea, gehienetan txikikeriak izaten direnak baina pantaila batean idatzita ikusteagatik benetan diren baino garrantzitsuago diruditenak.

Dosierra: 952-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - EITB - ZUZENDARITZA

Arrazoa: EITB2ko saio batetako antolatzaileek ez didate utzi elkarriketa Euskaraz egiten. Erdaraz egitea lehenetsi dute "erreportai guztia ondo koadratzeko" dela esanez. Erantsita doa izandako whatsapp-eko elkarriketa. Izenak ordezkatu ditut "XXXXX"-rekin.

Hezkuntza (44)

Dosierra: 102-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - HEZKUNTZA SAILA - LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIORAKO ZERBITZUA

Arrazoa: Hezkuntzako prebentziotik dokumentuak gaztelaniaz betetzeko eskaera egiten digute mutualiari bidaltzeko. Mesedez utzi lasai nahi dugun hizkuntzan idazten.

Erantzuna:

Teknikaria: Hezkuntzako prebentzio zerbitzuko teknikaria naizen aldetik, erantzuna eman nahi diot aurkeztu den kexari (dosier Zenakia 102-2025): Mutualiari txosten tekniko bidali behar diot haurdunaldirako arriskuak ebaluatu behar ditudanean. Mutualiari txostenak gasteleraz bidaltzen dizkiogu, eta lan hori errazteko, langileari informazioa gasteleraz eskatu nion. Argi dago nire errua dela eta barkamena eskatzen dut.

Dosierra: 133-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - EHU - EHU KIROLA

Arrazoa: UPV/EHUko kide guztiei eskaintzen zaie EHUkirolak-en eskutik GYM BIRTUALA izeneko zerbitzua. Horren berri bidali zaio komunitate osoari mezu elebidun baten bidez. Bada, bai kirolerako online eskaintza egiten duen plataforma eta bai bertan eskaintzen diren kirol-saioak, oso-osoan gaztelaniaz daude. Urratu egiten da euskal unibertsitate publikoko langile eta ikasleek unibertsitate-zerbitzuak euskaraz jasotzeko eskubidea.

Erantzunak:

Kirol arduraduna: GVM VIRTUAL kirol-programari buruz jasotako jakinarazpenari dagokionez, honako gai hauek argitu behar ditugu: UPV/EHUK kanpaina hau 2 hizkuntzetan eskaintzen dio bere unibertsitate- komunitateari. Honekin batera estekak doaz, egiaztatu ahal izateko: • Gaztelania: Gym virtual - ehukirola - UPV/EHU • Euskara: Gym virtual - ehukirola - UPV/EHU Formularioak ere bi hizkuntzetan daude: • Gaztelania: GVM VIRTUAL: Cursos online - ehukirola - UPV/EHU • Euskara: GVM BIRTUALA: Online ikastaroak - ehukirola - UPV/EHU Eduki horiek UPV/EHUK kudeatzen ditu, eta kontu handia du unibertsitate-komunitatearen eskubideak urra ez daitezen, informazioa bi hizkuntza ofizialetan

(gaztelaniaz eta euskaraz) jasotzekoari dagokionez. Gym Birtualaren plataformari eta saioei dagokionez, esan behar da UPV/EHUK kanpoko zerbitzu bat kontratatzen duela, kirol-saioen edukiak sortzen dituen. Tele Gim kontratatutako enpresak saio gehienak gaztelaniaz sortzen ditu, baina ez guztiak, indoor zikloko jarduerak euskaraz zein gaztelaniaz egin baitaiteke. Tamalez, Euskal Autonomia Erkidegoan ez dago horrelako zerbitzuak euskaraz eskaintzen dituen enpresarik, eta, beraz, gaztelaniaz kontratatu behar izan ditugu. Telegim enpresak hainbat udalerritan egiten du lan gure lurraldean, eta denek jakinarazten diete euskarazko saioen eduki gehiago eduki behar dituztela, baina oraingo Indoor zikloko jarduerak baino ez digute eskaini. Ahal duten neurrian euskarazko eduki gehiago sortuko dituztela bermatzen digute. Gym Birtualaren Kanpaina Kirol eta Osasun arloaren barruan dago. UPV/EHUko Kiroletatik uste dugu oso garrantzitsua eta beharrezkoa dela gure komunitatearentzat, eta, beraz, saio guztiak euskaraz eskaini ezin diren arren, egokiagotzat jotzen da eduki horiek eskaintzea, murriztea baino. UPV/EHUko Kirolek euskararen eta gaztelaniaren erabilera normala eta ofiziala bermatu nahi dute eremu guztietan eta kanpoko baliabideak ahal den neurrian, horrela egingo da. Gure azalpena ulertuko duzulakoan, adeitasunez agurtzen zaitut.

Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako errektoreordea: Ezer baino lehenago, eskerrak ematen dizkizugu euskal unibertsitate publikoko langile eta ikasleek unibertsitate-zerbitzuak euskaraz jasotzeko eskubidearen urraketa honen berri emateagatik. Izan ere, kexaren arrazoiak bat datoz Errektoreordetza honen helburu eta plangintzarekin, Hortaz, aurkeztutako kexaren harira, eta urraketari konponbidea eman nahian egindako urratsen eta epe laburrean egingo diren urratsen berri eman nahi dizugu. Hasteko, EHUkirolak atalarekin harremanetan jarri gara gimnasioa kudeatzen duen enpresarekin sinatutako kontratuari buruzko informazioa eskatzeko. Kontratuan ageri den hizkuntza-baldintza hau da: o) La empresa contratista debe prestar el servicio y la atención a los usuarios en las dos lenguas oficiales de la CAV, para lo cual el personal que ejecute la prestación ofrecerá un nivel de capacitación lingüística adecuado a su puesto de trabajo. En particular deberá tener el nivel de competencia adecuado para el desempeño de sus funciones el personal que se relacione de forma directa con el público. Begibistan dago klausula horrek ez duela bermatzen gimnasioan eskaintzen diren aktibitateen artean erabiltzaileen hizkuntza-eskubideak errespetatzen duen eskaintza egotea. Hortaz, eta lizitazioa berritzeko prozesua abian dela jakinarazi

digutenez, kontratu berrian klausula zehatzagoak sartzeko eskatuko diegu. Klausula berriak prestatzen ari gara bermatzeko euskarak nahikoa presentzia izango duela eskaintzen dituzten aktibitateetan, eta aktibitateak iragartzen direnean zer hizkuntzatan eskainiko diren zehaztuko dela. Bestalde, zerbitzu guztien kontratuak kudeatzen dituen sailari idatzi bat bidaliko diogu jakinarazteko kontratuak berritu aurretik Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzaren oniritzia beharko dela hizkuntza ofizialen erabilerari buruzko klausulei dagokienez.

Dosierra: 148-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - IES TXORIERRI BHI

Arrazoa: Hil honen 13an, arratsaldeko 4rak aldera, Txorierri BHIra jo nuen semearen izen-ematea gauzatzeko eta horren harira gertatutako nire eskubideen urraketa bi salatu nahi ditut. Lehenbizikoa egun horretan bertan jazo zen, idazkaritza non dagoen galdezka atezaintzara hurbildu nintzenean. Bertan zegoen langileak, berrogei urtetik gorako gizonezkoak, gaztelania ederrean eman zizkidan argibideak, nahiz eta nik euskaraz galdetu eta ezelako ahaleginik egin gabe. Argibideak ematea hizkuntzaren jabekuntza prozesuetako hasiera mailetan lantzeaz gain, atezain baten eguneroko zeregina da. Onartezina. Bigarrena atzo izan zen, hilak 18, 13:30etan deia jaso nuen semearen izen-emateko argibideren bati buruz galdezka. Nahiz eta galdetegian argi adierazi harremanetarako nik aukeratutako hizkuntza euskara dela, euskaraz erantzun telefonoari eta euskaraz jarraitu, langileak gaztelaniaz hasi eta amaitu zuen elkarrizketa hizkuntzari ezelako aipamenik egin gabe gainera. Guztiz onartezina izateaz gain, LEGEZ KONTRAKOA da eta ematen du Txorierri BHI ez dela ezohiko kontua. PREMIAZKOA da behar bezalako ohartarazpena jaso eta hizkuntza eskubideak errespetatu ditzen.

Dosierra: 196-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - CIFP FADURA LHII

Arrazoa: Ondo legoke ikastetxeek datak bezalako kontu egunerokoak ganoraz idazten jakitea. "Martxoak 31tik Apirilak 10era" astakeria ageri da Fadura ikastetxearen iragarkian, Hiruka aldizkarian.

Erantzunak:

Idazkaria: Barkatu akatsa. Gure lana ondo egiten saiatzen garen arren, batzutan okertu egiten gara. Zure kexa kontuan hartuko dugu eta hurrengo argitalpenetan akatsak ez egiten saiatuko gara.

Hiruka: Jakinarazi digute gure aldizkarian euskara akats bat izan dugula eta hori zuzendu dugu berehala, pdf formatua, webgunean behin-betirako geratzeko den alean. Hala ere zuekin harremanetan jarri nahi izan dugu horren berri emateaz gain, poztan garelako irakurleek Hizkuntz Eskubideen Behatokiaren erabiltzaile direlako eta gurean agertzen diren akatsak antzeman dituztelako, gurea bada ere erantzunkizuna. Halako gertaera batek guk ohi baino gehiagoko effortsua egitera garamatza gainbegiraketan, baina, merezitakoa, euskararen babesa baita ere gure helburua. Besterik gabe, mila esker irakurle horri, euskara defenditu izanagatik, eta batez ere komunikatu izanagatik. Ondo.

Dosierra: 208-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - TRAÑA-MATIENA HAURRESKOLA -

Arrazoa: Ondo legoke ikastetxeek datak bezalako kontu eguneroko eta oinarrikoak ---gutxienez!--- ganoraz idazten jakitea. "Martxoak 3tik" astakeria da; "10ra" ganorabakokeria da; "Apirilak 1ean" astakeria da. Errespetu apur bat, mesedez, euskaldun herritarrei. Kartel ziztrin bat ere begirune apurrarekin ezin idazteari zelan esan ahal zaio? Traña-Matieneko (Abadiño) haurreskolarena da iragarkia baina beste edozein ikastetxerena ere izan liteke. Hau da maila!

Dosierra: 220-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - IES JULIO CARO BAROJA BHI

Arrazoa: Mezu hau jaso dugu, gaztelania hutsean: "El próximo 31 de marzo, y hasta el 11 de abril, se abrirá el plazo de prematrícula para cursar Bachillerato en el centro el curso 2025-26. Este proceso afecta sólo a los nuevos alumnos. Os agradeceríamos que informarais a todos aquellos que conozcáis y puedan estar interesados en ser admitidos en este centro. Muchas gracias por vuestra colaboración. IES JULIO CARO BAROJA BHI"

Dosierra: 233-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - MURGIA LHko IKASTETXE INTEGRATUA

Arrazoa: Murgiako LHko ikastetxe integratuko zentruan, gurasoek bete beharreko dokumentua gazteleraz bakarrik ematen dute. Bestalde, oinarrizko, erdi eta goi mailako LHko zikloak etxera hutsean dira.

Dosierra: 292-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - HEZKUNTZA SAILA - BERRITZEGUNE NAGUSIA

Arrazoa: Nik hezkuntza bereziko hezitzaile moduan lan egiten dot Eskola publikoan eta orain dela aste batzuk formazio bat jazo genuen Zaratamoko Berritzegunearen bitartez, formazio saio hau EAEko Berritzegune guztiak eman dute Hezitzaileei zuzenduta. Behin baino gehiagotan kexatu gara formakuntzak sarritan erdara hutsez izaten direlako, oraingoan, bertan erabilitako hizkuntza euskara izan bazen ere, materialaren parte bat erdaraz eman ziguten. Bertan galdetu nuen ea material hori, horrela zegoen moduan bidaliko ziguten gero emailaz, hau da erdaraz, eta erantzuna izan zen horrela beharko zuela... beste batzutan behintzat, sentitzen dugu bat entzuten dugu, oraingoan hori ere ez... , jarrera hauek arduratzen naute. Ondoren, zuzendaritzak erdaraz bidali zigun materiala atxikituta bidaltzen dut. Formazioa lurretako Eskolan eman ziguten. Eta esan ziguten Hezkuntza sailetik antolatuta zegoela gure kolektibo guztiarentzat.

Erantzuna:

Hezkuntza Saila: Beharrezko informazio jasoketa eta profesional arduradunekin beharrezko kontrasteak egin ostean, txostenean aipatzen den formazio saioaren inguruan ondorengoa adierazi nahiko genuke: .Hezkuntza Laguntzako Espezialistei eskainitako formazio saioa bere osotasunean euskaraz aurrera eraman zen .Formazio saioan eskainitako dokumentazioa eta informazioa euskaraz partekatu zen, txostenean aipatzen den dokumentu osagarri bereizi hori izan ezik. Azken honen informazioa eredugarri izango zelakoan partekatu zen mintegian egin beharreko lanari laguntzeko asmoz. Azkenik, txosteneko iradokizuna kontuan izanda, profesionalen eskubideen urraketaren inguruko hausnarketa egin eta aurrerantzean berauek bermatzeko hartu beharreko neurriak hartzeko konpromezu irmoa adierazi nahiko genuke.

Dosierra: 304-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - ALTZA BHI -

Arrazoa: Altzako ikastetxe honek gaizki jarria du sarreran euskaraz dagoen izena ("Altzako Instituto"), "Altzako institutua" beharko luke.

Dosierra: 336-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - EHU - EUSKARAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZAren Idazkaria EZ ERABILI

Arrazoa: Letren Fakultateak (EHU) Frantsez [sic] Ikasketak gradua eskaintzen du. Eman ta zabal zazu zabarkeria. Hau da hau!

Erantzuna:

Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako errektoreordea: Ezer baino lehenago, eskerrak ematen dizkizuegu kexa helarazteagatik. Izan ere, begibistakoa da Letren Fakultateko webgunean ageri den akatsa edozeinek ikus dezakeela, eta euskaldun guztion eskubideak urratzen dituela. Akatsa are larriagoa da Letren Fakultatean dagoelako. Hortaz, harremanetan jarriko gara Letren Fakultateko Ikasketa Berrikuntza, Gizarte proiektio eta Euskarako Dekanordearekin, web orrialdea kudeatzen dutenei kexaren berri emateko, eta alda dezatela eskatzeko. Espero dugu aurrera eramandako ekintzek laguntzea etorkizunean honelako egoerarik berriro ere ez gertatzeko.

Dosierra: 362-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - HEZKUNTZA SAILA - GIPUZKOAKO LURRALDE ORDEZKARITZA

Arrazoa: "Hizkuntza ikastaroak atzerrian" programaren barruan, gure alabari Eusko Jaurlaritzako beka bat egokitu zaio. Horren barruan, maiatzaren 12an informazioa jasotzeko bilera bat izan genuen Donostian Magistaritzako fakultatean. Bertan Jaurlaritzako teknikari bat egon zen eta programa aurrera eramateaz arduratuko den enpresako bi ordezkari. Teknikariak aurkezpena egin zuen bi hizkuntza ofizialetan. Enpresako bi pertsonak ordea ordu bete luzez aritu ziren gaztelania hutsean. Barkamena eskatu zuten aldeztu aurretik eta galderak euskaraz egin genitzakela aipatu, teknikariak egingo zituela itzultzaile lanak. Non geratzen da informazioa gure hizkuntzan jasotzeko aukera? Gure herrian, gure hizkuntzak atzeritartzat tratatuak izatea onartu behar dugu itzultzaile batekin?

Enpresak aukeratzeko garaian ez daude hizkuntza irizpideak? Horretaz gain, gaur, maiatzaren 16an, enpresaren mezu elektroniko bat jaso dugu informazio zehatzagoa jasotzeko on-line bilera baterako deialdi batekin. Informazio guztia gaztelera hutsez dago. Lotsagarria iruditzen zaigu guztia!

Erantzuna:

Araubide Juridikoaren eta Zerbitzuen zuzendaria: Kexari erantzunez, Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzak adierazten du gaia dagokion zuzendariari helarazi diola, eta haxe eskatu diola: 1.- Programa aurrera eramateko administrazio-kontratuaren espedienteko hizkuntza irizpideak berrikusi eta horiek betearaztea. 2.- Enpresa esleipendunak familiekin izan ditzakeen harremanetan erabili ditzaketen idatziak gainbegiratzeko, testuak hizkuntza irizpideak betetzen dituela eta hizkera egokia darabilela ziurtatzeko. Administrazio honek konpromiso sendoa du euskararen erabileraren normalizazioan eta bide horretan lanean jarraituko dugu.

Dosierra: 369-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - HEZKUNTZA SAILA - AZPIEGITURA, BALIABIDE ETA TEKNOLOGIA ZUZENDARITZA

Arrazoiak: Nire kexa helarazi nahi dizuet. Kontua da Eusko Jaurlaritzaren eskumeneko den www.hezigunea/euskadi.eus web gunera sartzen naizen bakoitzean euskara aukeratzeko dudala hizkuntzatzat baina atal berri batera sartzen naizen bakoitzean gaztelaniaz jartzen zait web guinea, nik aukeratu gabe. Lankideekin ere aipatu dut kontua eta beraiei ere gauza bera gertatzen zaie, beraz, automatikoki egiten duen zerbait da.

Erantzuna:

Araubide Juridikoaren eta Zerbitzuen zuzendaria: Arrazoiari aurre egiteko, zera planteatzen dugu: Identifikatzen ari gara zein den arazoa, eta, horretarako, Hezigunetik lotura guztiak berrikusten ari dira informatikariak. Konpondu bezain laster, abisua emango dizugu. Aurrerantzean ere herritarrak bestelako kexarik edo iradokizunik izango balu, eskertuko genuke berriro ere horren berri emango baligu.

Dosierra: 437-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - IES JULIO CARO BAROJA BHI

Arrazoiak: Semea Algortako Caro Baroja institutu publikoan ikasten ari da, D ereduan. Esan digunez, jantokiko langile guztiek ikasleei gaztelaniaz hitz egiten

diete. Ez dakit langile horiek elebidunak ote diren, baina egoera oso larria iruditzen zait.

Dosierra: 456-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - IES JULIO CARO BAROJA BHI

Arrazoiak: Alaba bat dut Batxillergoko lehen ikasturtea Julio Caro Baroja BHI (Getxo) D ereduan egin duena. Nire kexa ikasturte honetako anatomiako irakaslearekin lotuta dago. Aurretik argi gera dadila nire alabak irakasgai honetan lortu duen azken nota 10 izan dela. Irakasle honek ikasturte osoan zehar erakutsi duen euskara maila, nire alabaren iritziaren arabera, oso eskasa izan da. Irakasgaiaren prozesuak eta terminoak azaltzeko zailtasunak izan ditu, honelako iruzkinak eginez: "termino guztiak euskaraz jakin nahi dituzue!!".... Noski euskaraz jakin nahi dituztela, 2 urtetatik D ereduan daude. Klasean euskaraz behar bezala egiteko zailtasuna, eta edozein zalantza edo galdera izanez gero, hizkuntza-tresna nahikorik ez eta jarrera iheskorra. Eskolak emateko orduan ez ezik, azterketetan galderak ez dira ondo eginda egon, ez dakite zer erantzun behar duten ere eta, edozein zalantza izanez gero, urduri jartzen da eta ez da gai zer erantzun behar duten argi azaltzeko. Ikasleek inpotentzia handiarekin bizi dute eta ez dute egoera ulertzen. Hizkuntza menperatzen ez bada, ezinezkoa iruditzen zait maila horietan gutxieneko kalitatearekin irakasgai bat ematea. Ez da nire alabaren iritzia bakarrik, gai errepikakorra da eta jakina institutuan. Institutu horretan A eredu ere badago, eta eredu hori aukeratu ahal izango luke, eta ziur nago irakasle ona izango litzatekeela. Pena da, hizkuntza, eragozpena izatea datorren urtean pertsona horrekin irakasgai bat aukeratzeko. Baliteke datorren ikasturtean Batxillergoko 2. mailan biologia ematea eta, nire alabaren kasuan, ez du irakasgai hori hartuko bera izango delako irakaslea. Eta azkenean USPN haztatzeko behar badu, bere kabuz prestatzea erabaki du.

Dosierra: 461-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - HEZKUNTZA SAILA - BERRITZEGUNE NAGUSIA

Arrazoiak: Gaur Heziketa Bereziko Hezitzaileok, hezkuntza publikoko langileok formakuntza genuen. Komunikazio-sistema handigarriak eta alternatiboak buruzko online egin den formazioa izan da. KSHO erabiltzen dituzten ikasleak ebaluazioan eta esku-hartzean parte hartzen duten profesional guztientzat hezkuntza sailak

antolatua. Ekainaren 23an (eta 25ean) jaso(ko) dugu formakuntza 9:30etatik 12:30etara eta formakuntza gaztelera hutsean jaso(ko) dugulako kexatu nahi dut.

Erantzuna:

Idazkaritza: Eskertzen dizugu zure jakinarazpena eta kezka helaraztea, eta honako hauen berri eman nahi dizugu: Lehenik eta behin, azaldu nahi dugu aipatutako formazio-saioaren hasierako aurkezpena eta protokoloaren aipamena euskaraz egin zirela, eta baita ere saioan zehar egin ziren galdera-erantzunak (txata) Hizlaria, Melania Garcia Estevez Andrea, komunikazio Handigarria eta Ordezkoen gaian eskarmentu handiko eta erreferentziazko profesionala da eta horregatik, euskalduna ez izan arren, erabaki genuen formazioa emateko egokiena zela. Esan beharra dugu jaso ditugun formazioaren iritziak oso onak izan direla. Hala eta guztiz ere, eskubide linguistikoekiko dugun konpromisoa osoa eta irmoa da. Horregatik, aurrerantzean, halako formazioetan parte-hartzaile guztien hizkuntza-eskubideak are hobeto bermatzeko neurriak aztertzen eta hartzen jarraituko dugu. Besteak beste: - Hizlari euskaldunak hautatzeko ahalegina areagotzea. - Aurkezpen-materiala euskaraz eskuragarri jartzea. - Itzulpen zerbitzua. Eskerrik asko berriro zure ekarpenagatik, hobekuntzarako aukera bat eskaintzen digulako. Zure eskubideak eta ardura partekatua aitortzen ditugu, eta lanean jarraituko dugu euskararen erabilera normalizatzeko bidean.

Dosierra: 462-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - HEZKUNTZA SAILA - BERRITZEGUNE NAGUSIA

Arrazoiak: Heziketa Bereziko formakuntza gaztelera izan dela salatu nahi dut. Eskola publikoan hizkuntza eskubideak errespetatu behar dira Aukera behintzat ematea eta ez gaztelanian inposatzea.

Erantzuna:

Idazkaritza: Eskertzen dizugu zure jakinarazpena eta kezka helaraztea, eta honako hauen berri eman nahi dizugu: Lehenik eta behin, azaldu nahi dugu aipatutako formazio-saioaren hasierako aurkezpena eta protokoloaren aipamena euskaraz egin zirela, eta baita ere saioan zehar egin ziren galdera-erantzunak (txata) Hizlaria, Melania Garcia Estevez Andrea, komunikazio Handigarria eta Ordezkoen gaian eskarmentu handiko eta erreferentziazko profesionala da eta horregatik, euskalduna ez izan arren, erabaki genuen formazioa emateko egokiena zela. Esan beharra dugu jaso ditugun formazioaren iritziak oso onak izan direla. Hala eta guztiz

ere, eskubide linguistikoekiko dugun konpromisoa osoa eta irmoa da. Horregatik, aurrerantzean, halako formazioetan parte-hartzaile guztien hizkuntza-eskubideak are hobeto bermatzeko neurriak aztertzen eta hartzen jarraituko dugu. Besteak beste: - Hizlari euskaldunak hautatzeko ahalegina areagotzea. - Aurkezpen-materiala euskaraz eskuragarri jartzea. - Itzulpen zerbitzua. Eskerrik asko berriro zure ekarpenagatik, hobekuntzarako aukera bat eskaintzen digulako. Zure eskubideak eta ardura partekatua aitortzen ditugu, eta lanean jarraituko dugu euskararen erabilera normalizatzeko bidean.

Dosierra: 463-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - HEZKUNTZA SAILA - BERRITZEGUNE NAGUSIA

Arrazoiak: Hezkuntza publikoko langilea naiz (hezitzailea). Berriro ere, gaur, ekainak 23, online formakuntza gaztelera hutsean jaso dugu (25ean izango da 9:30etatik 12:30etara). Komunikazio handigarrien ingurukoa zen, eta seguruenik egongo da Euskal Herrian formakuntza hori euskara eskaintzen duenik. Ez da lehenengo aldia formakuntza gaztelera jasotzen dugula, sarritan izaten da.

Erantzuna:

Idazkaritza: Eskertzen dizugu zure jakinarazpena eta kezka helaraztea, eta honako hauen berri eman nahi dizugu: Lehenik eta behin, azaldu nahi dugu aipatutako formazio-saioaren hasierako aurkezpena eta protokoloaren aipamena euskaraz egin zirela, eta baita ere saioan zehar egin ziren galdera-erantzunak (txata) Hizlaria, Melania Garcia Estevez Andrea, komunikazio Handigarria eta Ordezkoen gaian eskarmentu handiko eta erreferentziazko profesionala da eta horregatik, euskalduna ez izan arren, erabaki genuen formazioa emateko egokiena zela. Esan beharra dugu jaso ditugun formazioaren iritziak oso onak izan direla. Hala eta guztiz ere, eskubide linguistikoekiko dugun konpromisoa osoa eta irmoa da. Horregatik, aurrerantzean, halako formazioetan parte-hartzaile guztien hizkuntza-eskubideak are hobeto bermatzeko neurriak aztertzen eta hartzen jarraituko dugu. Besteak beste: - Hizlari euskaldunak hautatzeko ahalegina areagotzea. - Aurkezpen-materiala euskaraz eskuragarri jartzea. - Itzulpen zerbitzua. Eskerrik asko berriro zure ekarpenagatik, hobekuntzarako aukera bat eskaintzen digulako. Zure eskubideak eta ardura partekatua aitortzen ditugu, eta lanean jarraituko dugu euskararen erabilera normalizatzeko bidean.

Dosierra: 464-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - HEZKUNTZA SAILA - BERRITZEGUNE NAGUSIA

Arrazoa: Eskola publikoko hezitzailea naiz, Hezkuntzako Laguntzaile Espezialista (HLE). Ikasturte bukaeran Berritzeguneak ikastaro onlinea antolatzen du langileontzat, aurtan ekainaren 23 eta 25an da gaztelaniaz. Azkenaldian beti gazteleraz izaten da eta nire kexa horixe da. Nire ustez, erakunde publiko batek, Eusko Jaurlaritzak kasu honetan, euskaraz egiteko nahiko baliabide dituela uste dut.

Erantzuna:

Idazkaritza: Eskertzen dizugu zure jakinarazpena eta kezka helaraztea, eta honako hauen berri eman nahi dizugu: Lehenik eta behin, azaldu nahi dugu aipatutako formazio-saioaren hasierako aurkezpena eta protokoloaren aipamena euskaraz egin zirela, eta baita ere saioan zehar egin ziren galdera-erantzunak (txata) Hizlaria, Melania Garcia Estevez Andrea, komunikazio Handigarria eta Ordezkoen gaian eskarmentu handiko eta erreferentziazko profesionala da eta horregatik, euskalduna ez izan arren, erabaki genuen formazioa emateko egokiena zela. Esan beharra dugu jaso ditugun formazioaren iritziak oso onak izan direla. Hala eta guztiz ere, eskubide linguistikoekiko dugun konpromisoa osoa eta irmoa da. Horregatik, aurrerantzean, halako formazioetan parte-hartzaile guztien hizkuntza-eskubideak are hobeto bermatzeko neurriak aztertzen eta hartzen jarraituko dugu. Besteak beste: - Hizlari euskaldunak hautatzeko ahalegina areagotzea. - Aurkezpen-materiala euskaraz eskuragarri jartzea. - Itzulpen zerbitzua. Eskerrik asko berriro zure ekarpenagatik, hobekuntzarako aukera bat eskaintzen digulako. Zure eskubideak eta ardura partekatua aitortzen ditugu, eta lanean jarraituko dugu euskararen erabilera normalizatzeko bidean.

Dosierra: 465-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - HEZKUNTZA SAILA - BERRITZEGUNE NAGUSIA

Arrazoa: Gaur, Berritzeguneek antolatuta, gaur, ekainak 23, (bigarren zatia ekainaren 25ean) eskola desberdinetako hezitzaile eta irakasleok formakuntza izan dugu online bidezkoa. AURTENGOA ERE gazteleraz izan da eta gure hizkuntz eskubideen urraketa eman da berriz ere. Neska bat aritu zaigu 3 orduz gazteleraz, emandako materiala ere gazteleraz... Nahikoa da.

Erantzunak:

Idazkaritza: Eskertzen dizugu zure jakinarazpena eta kezka helaraztea, eta honako hauen berri eman nahi dizugu: Lehenik eta behin, azaldu nahi dugu aipatutako formazio-saioaren hasierako aurkezpena eta protokoloaren aipamena euskaraz egin zirela, eta baita ere saioan zehar egin ziren galdera-erantzunak (txata) Hizlaria, Melania Garcia Estevez Andrea, komunikazio Handigarria eta Ordezkoen gaian eskarmentu handiko eta erreferentziazko profesionala da eta horregatik, euskalduna ez izan arren, erabaki genuen formazioa emateko egokiena zela. Esan beharra dugu jaso ditugun formazioaren iritziak oso onak izan direla. Hala eta guztiz ere, eskubide linguistikoekiko dugun konpromisoa osoa eta irmoa da. Horregatik, aurrerantzean, halako formazioetan parte-hartzaile guztien hizkuntza-eskubideak are hobeto bermatzeko neurriak aztertzen eta hartzen jarraituko dugu. Besteak beste: - Hizlari euskaldunak hautatzeko ahalegina areagotzea. - Aurkezpen-materiala euskaraz eskuragarri jartzea. - Itzulpen zerbitzua. Eskerrik asko berriro zure ekarpenagatik, hobekuntzarako aukera bat eskaintzen digulako. Zure eskubideak eta ardura partekatua aitortzen ditugu, eta lanean jarraituko dugu euskararen erabilera normalizatzeko bidean.

Dosierra: 466-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - HEZKUNTZA SAILA - BERRITZEGUNE NAGUSIA

Arrazoa: Formakuntza euskaraz jasotzea gustatuko litzaiguke. HIE a naiz eta urtero ikasturte bukaeran jasotzen degun formakuntza gazteleraz izaten dugu eta gainera telematikoa.

Erantzuna:

Idazkaritza: Eskertzen dizugu zure jakinarazpena eta kezka helaraztea, eta honako hauen berri eman nahi dizugu: Lehenik eta behin, azaldu nahi dugu aipatutako formazio-saioaren hasierako aurkezpena eta protokoloaren aipamena euskaraz egin zirela, eta baita ere saioan zehar egin ziren galdera-erantzunak (txata) Hizlaria, Melania Garcia Estevez Andrea, komunikazio Handigarria eta Ordezkoen gaian eskarmentu handiko eta erreferentziazko profesionala da eta horregatik, euskalduna ez izan arren, erabaki genuen formazioa emateko egokiena zela. Esan beharra dugu jaso ditugun formazioaren iritziak oso onak izan direla. Hala eta guztiz ere, eskubide linguistikoekiko dugun konpromisoa osoa eta irmoa da. Horregatik, aurrerantzean, halako formazioetan parte-hartzaile guztien hizkuntza-eskubideak

are hobeto bermatzeko neurriak aztertzen eta hartzen jarraituko dugu. Besteak beste: - Hizlari euskaldunak hautatzeko ahalegina areagotzea. - Aurkezpen-materiala euskaraz eskuragarri jartzea. - Itzulpen zerbitzua. Eskerrik asko berriro zure ekarpenagatik, hobekuntzarako aukera bat eskaintzen digulako. Zure eskubideak eta ardura partekatua aitortzen ditugu, eta lanean jarraituko dugu euskararen erabilera normalizatzeko bidean.

Dosierra: 467-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - HEZKUNTZA SAILA - BERRITZEGUNE NAGUSIA

Arrazoa: Gaur Durangoko Landako Eskolan, Hezkuntza Laguntzako Espezialista guztiak zeuden online ikastaro hau, egitera deituta eainaren 23an eta 25ean, ikasturte amaiera guztietan egiten den formakuntza orokorraren baitan. "Komunikazio sistema handigarriak eta alternatiboak" erabiltzen dituzten ikasleen ebaluazioan eta esku-hartzean parte hartzen duten profesional guztiei ere bideratua dago. Heziketa Bereziko formakuntza gazteleraz jaso dugula salatu nahi dut. Ez da Hezkuntza sailak formakuntza gazteleraz eskaintzen digun lehenengo aldia, hori dela eta kexa sartu nahiko nuke. Euskal eskola publiko euskalduna eta hizkuntza eskubideak defendatuz.

Erantzuna:

Idazkaritza: Eskertzen dizugu zure jakinarazpena eta kezka helaraztea, eta honako hauen berri eman nahi dizugu: Lehenik eta behin, azaldu nahi dugu aipatutako formazio-saioaren hasierako aurkezpena eta protokoloaren aipamena euskaraz egin zirela, eta baita ere saioan zehar egin ziren galdera-erantzunak (txata) Hizlaria, Melania Garcia Estevez Andrea, komunikazio Handigarria eta Ordezkoen gaian eskarmentu handiko eta erreferentziazko profesionala da eta horregatik, euskalduna ez izan arren, erabaki genuen formazioa emateko egokiena zela. Esan beharra dugu jaso ditugun formazioaren iritziak oso onak izan direla. Hala eta guztiz ere, eskubide linguistikoekiko dugun konpromisoa osoa eta irmoa da. Horregatik, aurrerantzean, halako formazioetan parte-hartzaile guztien hizkuntza-eskubideak are hobeto bermatzeko neurriak aztertzen eta hartzen jarraituko dugu. Besteak beste: - Hizlari euskaldunak hautatzeko ahalegina areagotzea. - Aurkezpen-materiala euskaraz eskuragarri jartzea. - Itzulpen zerbitzua. Eskerrik asko berriro zure ekarpenagatik, hobekuntzarako aukera bat eskaintzen digulako. Zure

eskubideak eta ardura partekatua aitortzen ditugu, eta lanean jarraituko dugu euskararen erabilera normalizatzeko bidean.

Dosierra: 468-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - HEZKUNTZA SAILA - BERRITZEGUNE NAGUSIA

Arrazoa: Gaur, komunikazio zailtasunak dituzten pertsonentzako baliabideen inguruko formazioa izan dugu, hain zuzen komunikazio sistema handigarriei buruzkoa Santurtziko Las Viñas HLHI eskolan. Formazio hau Berritzeguneak antolatu du eta aurten ere ikastaroa gaztelaniaz burutu da. Egoera honen aurrean, ondorengo kexa aurkeztu nahi dut, beste behin ere euskaraz formazioa jasotzeko eskubidea urratu eta kendu digutelako.

Erantzuna:

Idazkaritza: Eskertzen dizugu zure jakinarazpena eta kezka helaraztea, eta honako hauen berri eman nahi dizugu: Lehenik eta behin, azaldu nahi dugu aipatutako formazio-saioaren hasierako aurkezpena eta protokoloaren aipamena euskaraz egin zirela, eta baita ere saioan zehar egin ziren galdera-erantzunak (txata) Hizlaria, Melania Garcia Estevez Andrea, komunikazio Handigarria eta Ordezkoen gaian eskarmentu handiko eta erreferentziazko profesionala da eta horregatik, euskalduna ez izan arren, erabaki genuen formazioa emateko egokiena zela. Esan beharra dugu jaso ditugun formazioaren iritziak oso onak izan direla. Hala eta guztiz ere, eskubide linguistikoekiko dugun konpromisoa osoa eta irmoa da. Horregatik, aurrerantzean, halako formazioetan parte-hartzaile guztien hizkuntza-eskubideak are hobeto bermatzeko neurriak aztertzen eta hartzen jarraituko dugu. Besteak beste: - Hizlari euskaldunak hautatzeko ahalegina areagotzea. - Aurkezpen-materiala euskaraz eskuragarri jartzea. - Itzulpen zerbitzua. Eskerrik asko berriro zure ekarpenagatik, hobekuntzarako aukera bat eskaintzen digulako. Zure eskubideak eta ardura partekatua aitortzen ditugu, eta lanean jarraituko dugu euskararen erabilera normalizatzeko bidean.

Dosierra: 469-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - HEZKUNTZA SAILA - BERRITZEGUNE NAGUSIA

Arrazoa: HLEok jaso dugun gaurko formakuntza gazteleraz izan dela (euskaraz beharrean) salatu nahi dut. EUSKAL eskola publikoan lan egoten dugulako.

Erantzuna:

Idazkaritza: Eskertzen dizugu zure jakinarazpena eta kezka helaraztea, eta honako hauen berri eman nahi dizugu: Lehenik eta behin, azaldu nahi dugu aipatutako formazio-saioaren hasierako aurkezpena eta protokoloaren aipamena euskaraz egin zirela, eta baita ere saioan zehar egin ziren galdera-erantzunak (txata) Hizlaria, Melania Garcia Estevez Andrea, komunikazio Handigarria eta Ordezkoen gaian eskarmentu handiko eta erreferentziazko profesionala da eta horregatik, euskalduna ez izan arren, erabaki genuen formazioa emateko egokiena zela. Esan beharra dugu jaso ditugun formazioaren iritziak oso onak izan direla. Hala eta guztiz ere, eskubide linguistikoekiko dugun konpromisoa osoa eta irmoa da. Horregatik, aurrerantzean, halako formazioetan parte-hartzaile guztien hizkuntza-eskubideak are hobeto bermatzeko neurriak aztertzen eta hartzen jarraituko dugu. Besteak beste: - Hizlari euskaldunak hautatzeko ahalegina areagotzea. - Aurkezpen-materiala euskaraz eskuragarri jartzea. - Itzulpen zerbitzua. Eskerrik asko berriro zure ekarpenagatik, hobekuntzarako aukera bat eskaintzen digulako. Zure eskubideak eta ardura partekatua aitortzen ditugu, eta lanean jarraituko dugu euskararen erabilera normalizatzeko bidean.

Dosierra: 470-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - HEZKUNTZA SAILA - BERRITZEGUNE NAGUSIA

Arrazoia: Berritzegune Nagusiak hezitzaileoi ekainaren 23an luzatutako aurtengo azken online formazio saioa eta ekainaren 25ean jasoko duguna, erdara hutsean izan(go) da beste behin ere.

Erantzuna:

Idazkaritza: Eskertzen dizugu zure jakinarazpena eta kezka helaraztea, eta honako hauen berri eman nahi dizugu: Lehenik eta behin, azaldu nahi dugu aipatutako formazio-saioaren hasierako aurkezpena eta protokoloaren aipamena euskaraz egin zirela, eta baita ere saioan zehar egin ziren galdera-erantzunak (txata) Hizlaria, Melania Garcia Estevez Andrea, komunikazio Handigarria eta Ordezkoen gaian eskarmentu handiko eta erreferentziazko profesionala da eta horregatik, euskalduna ez izan arren, erabaki genuen formazioa emateko egokiena zela. Esan beharra dugu jaso ditugun formazioaren iritziak oso onak izan direla. Hala eta guztiz ere, eskubide linguistikoekiko dugun konpromisoa osoa eta irmoa da. Horregatik, aurrerantzean, halako formazioetan parte-hartzaile guztien hizkuntza-eskubideak are hobeto bermatzeko neurriak aztertzen eta hartzen jarraituko dugu. Besteak

beste: - Hizlari euskaldunak hautatzeko ahalegina areagotzea. - Aurkezpen-materiala euskaraz eskuragarri jartzea. - Itzulpen zerbitzua. Eskerrik asko berriro zure ekarpenagatik, hobekuntzarako aukera bat eskaintzen digulako. Zure eskubideak eta ardura partekatua aitortzen ditugu, eta lanean jarraituko dugu euskararen erabilera normalizatzeko bidean.

Dosierra: 472-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - EHU - UDA IKASTAROAK

Arrazoia: Ekainaren 25eko ikastaro batean izena eman nuen eta nondik norakoan informazioa iritsi zait. Ikastaroa EHUK antolatutakoa da, UIK Udako Ikastaroetan. Mezua hiru zutabetan banatuta dago, ezker-eskuin, hiru hizkuntzatan dagoelako. Lehenengo zutabea ingelesez dago, bigarrena gaztelaniaz eta hirugarrena euskaraz. Ez ditu hizkuntza irizpideak betetzen. Gainera, euskarazko itzulpena okerra da eta ez da ondo ulertzen.

Dosierra: 473-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - HEZKUNTZA SAILA - ANIZTASUNERAKO ETA HEZKUNTZA INKLUSIORAKO ZUZENDARIA

Arrazoia: Ikastaro bat izan dugu Berritzegune Nagusiak antolatuta eta erdaraz izan da

Erantzuna:

Idazkaritza: Eskertzen dizugu zure jakinarazpena eta kezka helaraztea, eta honako hauen berri eman nahi dizugu: Lehenik eta behin, azaldu nahi dugu aipatutako formazio-saioaren hasierako aurkezpena eta protokoloaren aipamena euskaraz egin zirela, eta baita ere saioan zehar egin ziren galdera-erantzunak (txata) Hizlaria, Melania Garcia Estevez Andrea, komunikazio Handigarria eta Ordezkoen gaian eskarmentu handiko eta erreferentziazko profesionala da eta horregatik, euskalduna ez izan arren, erabaki genuen formazioa emateko egokiena zela. Esan beharra dugu jaso ditugun formazioaren iritziak oso onak izan direla. Hala eta guztiz ere, eskubide linguistikoekiko dugun konpromisoa osoa eta irmoa da. Horregatik, aurrerantzean, halako formazioetan parte-hartzaile guztien hizkuntza-eskubideak are hobeto bermatzeko neurriak aztertzen eta hartzen jarraituko dugu. Besteak beste: - Hizlari euskaldunak hautatzeko ahalegina areagotzea. - Aurkezpen-materiala euskaraz eskuragarri jartzea. - Itzulpen zerbitzua. Eskerrik asko

berriro zure ekarpenagatik, hobekuntzarako aukera bat eskaintzen digulako. Zure eskubideak eta ardura partekatua aitortzen ditugu, eta lanean jarraituko dugu euskararen erabilera normalizatzeko bidean.

Dosierra: 474-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - HEZKUNTZA SAILA - ANIZTASUNERAKO ETA HEZKUNTZA INKLUSIORAKO ZUZENDARIA

Arrazoiak: Hezkuntza sailak antolatutako ikastaroa gaztelera hutsean egin izana salatzen dut. "Eman ahotsa zure ikasleei.KSHaren inplementazio eraginkorra" izeneko ikastaroa hezkuntza premia bereziko ikasleekin lanean gauden langileentzako ikastaroa izan da.

Erantzuna:

Idazkaritza: Eskertzen dizugu zure jakinarazpena eta kezka helaraztea, eta honako hauen berri eman nahi dizugu: Lehenik eta behin, azaldu nahi dugu aipatutako formazio-saioaren hasierako aurkezpena eta protokoloaren aipamena euskaraz egin zirela, eta baita ere saioan zehar egin ziren galdera-erantzunak (txata) Hizlaria, Melania Garcia Estevez Andrea, komunikazio Handigarria eta Ordezkoen gaian eskarmentu handiko eta erreferentziazko profesionala da eta horregatik, euskalduna ez izan arren, erabaki genuen formazioa emateko egokiena zela. Esan beharra dugu jaso ditugun formazioaren iritziak oso onak izan direla. Hala eta guztiz ere, eskubide linguistikoekiko dugun konpromisoa osoa eta irmoa da. Horregatik, aurrerantzean, halako formazioetan parte-hartzaile guztien hizkuntza-eskubideak are hobeto bermatzeko neurriak aztertzen eta hartzen jarraituko dugu. Besteak beste: - Hizlari euskaldunak hautatzeko ahalegina areagotzea. - Aurkezpen-materiala euskaraz eskuragarri jartzea. - Itzulpen zerbitzua. Eskerrik asko berriro zure ekarpenagatik, hobekuntzarako aukera bat eskaintzen digulako. Zure eskubideak eta ardura partekatua aitortzen ditugu, eta lanean jarraituko dugu euskararen erabilera normalizatzeko bidean.

Dosierra: 475-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - HEZKUNTZA SAILA - ANIZTASUNERAKO ETA HEZKUNTZA INKLUSIORAKO ZUZENDARIA

Arrazoiak: Hezkuntza publikoan HLE (Hezkuntza Laguntza Espezialista) naiz. Ekainak 23 eta 25 online formakuntza jasotzen ari gara. Langile guztiok euskaldunak izanik,

formakuntza gaztelaniaz ematen ari da. Alde batetik, hizkuntzari eta gure lan eskumenei eraso bat iruditzen zait eta, beste alde batetik, formakuntzan jorratzen ari garen gaiaren inguruko euskal profesionalak gutxiesten direla pentsatzen dut.

Erantzuna:

Idazkaritza: Eskertzen dizugu zure jakinarazpena eta kezka helaraztea, eta honako hauen berri eman nahi dizugu: Lehenik eta behin, azaldu nahi dugu aipatutako formazio-saioaren hasierako aurkezpena eta protokoloaren aipamena euskaraz egin zirela, eta baita ere saioan zehar egin ziren galdera-erantzunak (txata) Hizlaria, Melania Garcia Estevez Andrea, komunikazio Handigarria eta Ordezkoen gaian eskarmentu handiko eta erreferentziazko profesionala da eta horregatik, euskalduna ez izan arren, erabaki genuen formazioa emateko egokiena zela. Esan beharra dugu jaso ditugun formazioaren iritziak oso onak izan direla. Hala eta guztiz ere, eskubide linguistikoekiko dugun konpromisoa osoa eta irmoa da. Horregatik, aurrerantzean, halako formazioetan parte-hartzaile guztien hizkuntza-eskubideak are hobeto bermatzeko neurriak aztertzen eta hartzen jarraituko dugu. Besteak beste: - Hizlari euskaldunak hautatzeko ahalegina areagotzea. - Aurkezpen-materiala euskaraz eskuragarri jartzea. - Itzulpen zerbitzua. Eskerrik asko berriro zure ekarpenagatik, hobekuntzarako aukera bat eskaintzen digulako. Zure eskubideak eta ardura partekatua aitortzen ditugu, eta lanean jarraituko dugu euskararen erabilera normalizatzeko bidean.

Dosierra: 480-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - HEZKUNTZA SAILA - ANIZTASUNERAKO ETA HEZKUNTZA INKLUSIORAKO ZUZENDARIA

Arrazoiak: "Da voz a tus alumnos-as: implementación efectiva de los SAAC" ikastaroa eskaini zuen Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak gaztelera hutsean.

Erantzuna:

Idazkaritza: Eskertzen dizugu zure jakinarazpena eta kezka helaraztea, eta honako hauen berri eman nahi dizugu: Lehenik eta behin, azaldu nahi dugu aipatutako formazio-saioaren hasierako aurkezpena eta protokoloaren aipamena euskaraz egin zirela, eta baita ere saioan zehar egin ziren galdera-erantzunak (txata) Hizlaria, Melania Garcia Estevez Andrea, komunikazio Handigarria eta Ordezkoen gaian eskarmentu handiko eta erreferentziazko profesionala da eta horregatik, euskalduna ez izan arren, erabaki genuen formazioa emateko egokiena zela. Esan

beharra dugu jaso ditugun formazioaren iritziak oso onak izan direla. Hala eta guztiz ere, eskubide linguistikoekiko dugun konpromisoa osoa eta irmoa da. Horregatik, aurrerantzean, halako formazioetan parte-hartzaile guztien hizkuntza-eskubideak are hobeto bermatzeko neurriak aztertzen eta hartzen jarraituko dugu. Besteak beste: - Hizlari euskaldunak hautatzeko ahalegina areagotzea. - Aurkezpen-materiala euskaraz eskuragarri jartzea. - Itzulpen zerbitzua. Eskerrik asko berriro zure ekarpenagatik, hobekuntzarako aukera bat eskaintzen digulako. Zure eskubideak eta ardura partekatua aitortzen ditugu, eta lanean jarraituko dugu euskararen erabilera normalizatzeko bidean.

Dosierra: 483-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - HEZKUNTZA SAILA - LANGILERIAREN KUDEAKETA ZUZENDARITZA

Arrazoia: Pasa den ostegunean, ekainaren 26an, kontsulta bat egin nuen telefonoz Hezkuntzako Langileriaren Zerbitzura. Kontsulta bera euskaraz izan zen, baina ez zuten jakin kontsultari erantzuten, erantzuna idatziz, korreoaz, jasoko nuela esan zidaten. Nire harri durarako, erantzuna gaztelania hutsean jaso dut. Nik lehentasunezko hizkuntza euskara dut jarria eta ez da errespetatu.

Erantzuna:

Idazkaria: Pasatu dizkidate egun hartan egin zizki guten bi galderak, eta biak erderaz jaso genituela ikus daiteke. Horregatik erderaz egiten bada galdera, erderaz erantzuten dute teknikariek, eta euskerak heltzen bada, erantzuna euskeraz jasoko dute.

Dosierra: 497-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - HEZKUNTZA SAILA - ANIZTASUNERAKO ETA HEZKUNTZA INKLUSORAKO ZUZENDARIA

Arrazoia: Hezkuntzan Laguntza Espezializatutako irakaslea naiz eta Jaurlaritzak ekainaren 23an eta 25ean eskaini zuen ikastaroa gaztelania hutsean izan zen.

Erantzuna:

Hezkuntza Saila: Eskertzen dizugu zure jakinarazpena eta kezka helaraztea, eta honako hauen berri eman nahi dizugu: Lehenik eta behin, azaldu nahi dugu aipatutako formazio-saioaren hasierako aurkezpena eta protokoloaren aipamena euskaraz egin zirela, eta baita ere saioan zehar egin ziren galdera-erantzunak

(txata) Hizlaria, Melania Garcia Estevez Andrea, komunikazio Handigarria eta Ordezkoen gaian eskarmentu handiko eta erreferentziazko profesionala da eta horregatik, euskalduna ez izan arren, erabaki genuen formazioa emateko egokiena zela. Esan beharra dugu jaso ditugun formazioaren iritziak oso onak izan direla. Hala eta guztiz ere, eskubide linguistikoekiko dugun konpromisoa osoa eta irmoa da. Horregatik, aurrerantzean, halako formazioetan parte-hartzaile guztien hizkuntza-eskubideak are hobeto bermatzeko neurriak aztertzen eta hartzen jarraituko dugu. Besteak beste: · Hizlari euskaldunak hautatzeko ahalegina areagotzea. · Aurkezpen-materiala euskaraz eskuragarri jartzea. Eskerrik asko berriro zure ekarpenagatik, hobekuntzarako aukera bat eskaintzen digulako. Zure eskubideak eta ardura partekatua aitortzen ditugu, eta lanean jarraituko dugu euskararen erabilera normalizatzeko bidean.

Dosierra: 509-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - HEZKUNTZA SAILA - LANGILERIAREN KUDEAKETA ZUZENDARITZA

Arrazoia: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko ikasturte hasierako irakasleen esleipenak ezin izan dira euskaraz burutu. Jendeak Cocun abisatu arren, gaztelaniaz egin ditzatela izan da jaso duten erantzuna.

Dosierra: 510-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - HEZKUNTZA SAILA - LANGILERIAREN KUDEAKETA ZUZENDARITZA

Arrazoia: Hezkuntzako esleipenak egitean webgunea gaztelera hutsean agertu zait. Prozesu osoa gaztelera betearazi didate, hizkuntza euskara hautatzean errorea ematen zidalako. Hezkuntzan, sistema publiko batean, nola da posible gaztelera egotea?

Dosierra: 512-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - HEZKUNTZA SAILA - LANGILERIAREN KUDEAKETA ZUZENDARITZA

Arrazoia: Hezkuntza Delegaritzako esleipenak ezin izan dira euskaraz bete kasu askotan.

Dosierra: 521-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - HEZKUNTZA SAILA - LANGILERIAREN KUDEAKETA ZUZENDARITZA

Arrazoa: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren ikasturte hasierako irakasleen lanpostuen esleipenean lanpostuen taula gaztelania hutsean egon da. Euskaraz egon den gauza bakarra ikastetxeen esku egon da; hau da, ikastetxeek beraiek idatzitako oharra. Gainerako guzti-guztia gaztelania hutsean. Erantsitako dokumentuan duzue taula.

Dosierra: 731-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - N.S. EL PILAR LHI

Arrazoa: San Bizente auzoko El Pilar eskola publikoa 70.urteurrena ari da ospatzen une honetan bertan (urriak 4, 12etatik aurrera). Megafonia potentetik dena gaztelera hutsean, bai saio/ekitaldi guztien aurkezpenak, baita zenbait umeri egindako elkarriketak ere. Penagarria. Hau zentro berari egiten diodan enegarren kexa da, arrazoi berberagatik!!!

Erantzuna:

N.S. El Pilar: Guraso Elkartek (IGE) antolatu zuen ekitaldia, eta bera izan zen programaren garapenean eta jardunaldian zehar egindako ekintzen arduraduna. Ikastetxea hasierako aurkezpenaz bakarrik arduratu zen. Aurkezpen hori gainera bi hizkuntza ofizialetan egin zen, euskaraz eta gaztelaniaz, bertaratutako guztien ulermena bermatzeko. Ondoren, IGEak hainbat elkarriketa egin zizkien duela 50 edo 60 urte ikastetxean ikasi zuten ikasle ohiei. Ikasle horietako askok ez dakite euskaraz, eta, beraz, esku-hartze horiek gaztelaniaz egin ziren. Era berean, Barakaldoko alkatesak, Amaia del Campok, hartu zuen hitza, eta gaztelaniaz egin zuen, ez baitu euskaraz jarduteko gaitasun nahikorik. Espero dugu hori ere kexaren bidez jakinarazi izana. Azpimarratzekoa da, ekitaldian “Pilarkatz” abestia, ikastetxeko ereserki ofiziala, euskaraz abestu zela eta abeslariaren (eskolako irakasle ohia) emanaldi guztia ere euskaraz izan zela. Nabarmendu nahi dugu ikastetxeak euskararen erabilera eta sustapenarekiko konpromiso sendoa duela, bai ikastetxeko jardunean bertan, bai eskolaz kanpoko jardueretan ere. Etengabe lan egiten dugu ikasleen, irakasleen eta familien artean euskarazko bizitza sustatzeko. Baina, ikastetxeak zuzenean antolatzen ez dituen jardueretan, ezin da

beti euskararen erabilera eskusiboa bermatu, gure erantzukizun-eremutik kanpo geratzen baitira. Azkenik, eskatzen dugu, mesedez, etorkizunean kexa aurkeztu baino lehen egoera ondo egiaztatu dezatela.

Dosierra: 749-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - HEZKUNTZA SAILA - BERRITZEGUNE NAGUSIA

Arrazoa: Gaur irakasle-aholkulari berrien formazioa izan dugu Bilboko Berritzeguneren egoitzan. Carmen Couto andereak gaztelaniaz egin du bere ia bere esku-hartze guztia eta, partaideetako batek ikastaroa euskaraz zen galdetu dionean, erantzun desegokia eman eta handi aurrera gaztelaniaz jarraitu du. Ikastaroa ematera etorri dena ere, hasi bai, euskaraz hasi da, baina, zailtasunak zituela eta gaztelaniaz jarraitu du.

Dosierra: 770-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - HEZKUNTZA SAILA- LANBIDE HEZIKETAREN EZAGUTZAREN EUSKAL INSTITUTUA - IVAC-EEI

Arrazoa: IVAC-EEI erakundearen webgunean, Osasun Larrialdiak zikloaren OCDA gaztelaniaz besterik ez dago (2025/01/24tik zirriborro egoeran dago): <https://ivac-eei.eus/eu/lanbide-arloak/osasungintza-san/heziketa-zikloak/osasun-larrialdietako-teknikaria.html>

Dosierra: 781-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - HEZKUNTZA SAILA - HAURRESKOLAK PARTZUERGOA

Arrazoa: Haurreskolak Partzuergoko langilea naiz, haur hezitzailea. Partzuergoak urtero formakuntza eskaintzen digu, nahi eta nahi ez egin beharrekoa. Ikastaro desberdinak egiten ditugu. Iaz formazio saio bat gaztelaniaz eman ziguten, eta kexa ugari izan ziren. Baina, aurten ere berriz eskaini digute formazio saio bat gaztelaniaz. Hizlariak euskaraz ez omen daki. Hori da arrazoa. Baina, gure hizkuntza politikan argi azaltzen da langileentzat formazio saioak euskaraz izango direla, ahozkoak behintzat. Kasu honetan, bi ordu eta erdiko hitzaldia izango da. Oraindik ez da izan, urriaren 29an izango da.

Dosierra: 792-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - HEZKUNTZA SAILA - HAURRESKOLAK PARTZUERGOA

Arrazoa: Haurreskolak partzuergoak hezitzaile guztiei zuzendutako derrigorrezko formazio bat gaztelera hutsean eskaini du.

Dosierra: 798-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - HEZKUNTZA SAILA - AZPIEGITURA, BALIABIDE ETA TEKNOLOGIA ZUZENDARITZA

Arrazoa: Hirugarren aldia da zuekin kontaktuan jartzen naizena. Irakaslea naiz Hezkuntza publikoa, gaur egun Ondarroako institutuan. Kontua da hezkuntzako webgunea eta aplikatiboak (Hezigunea deiturikoa behintzat bai) sistematikoki gaztelera zabaltzen direla- Gure egunerokotasunean erabiltzen ditugu, eta irakasle askori gertatzen zaie euskaraz ez ipintzeagatik (kosta egiten da) azkenean gaztelera erabiltzea. Euskaraz jarriko zutela esan zizueten/ziguten, baina partxe bat ipini dute eta ez da batere efizientea. Niri lotsagarria iruditzen zait, azkenean gaztelera lehenesten gabiltzalako, non eta Hezkuntza publikoan. Irakasle askorekin komentatu dut eta denak ados egon izan dira. Nire eskakizuna honako hau da: gertatzen ari denari benetan esku hartzen ez bazaio, benetan salatu eta ikusgarri egin dadila, jendeak jakin dezan egoera eta eguneroko jarduteko eta lehenesteko modua zein den. Besterik gabe, zuen entzunaren zain geratzen naiz.

Erantzuna:

Araubide Juridikoaren eta Zerbitzuen Zuzendaritza: Hezkuntza Saileko Informazio Sistemak eta Estatistikaren atalak adierazten du HEZIGUNE aplikazioaren atari guztiak elebidunak direla, hau da, bilaketa egiteko moduaren arabera, euskaraz edo gaztelaniaz irekitzen direla, eta behin sartuta, hizkuntza aldaketa egin daitekeela. Dena dela, arazoa gehiago zehazteko eskatu nahi zaio kexa jarri duen herritarrari. Horrez gain, gomendatzen da nabigatzailearen cookieak eta bilaketen historia ezabatzea. Administrazio honek konpromiso sendoa du euskararen erabileraren normalizazioan eta bide horretan lanean jarraituko dugu.

Dosierra: 851-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - BIDASOA GOI-MAILAKO BERARIAZKO LANBIDE HEZIKETAKO INSTITUTUA

Arrazoa: Bidasoa LHIIra deitu dugu, eta arreta eman digun pertsonak gaztelaniaz egiteko eskatu digu, euskaraz ez zekielako.

Dosierra: 867-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA- HEZKUNTZA- LANBIDE HEZIKETAKO PLANGINTZA ETA ANTOLAKETAKO ZUZENDARIA

Arrazoa: Jaso berri dut Hezkuntzako eta Ekonomia, Lana eta Enplegu sailetak Plangintza eta Antolakuntza zuzendariak eta Lanbideko Enplegu eta Formazioko zuzendariak sinatutako ebazpen bat, Eskuratutako Konpetentzia Profesionalak Ebaluatzeko eta Egiaztatze Ebaluazio Batzordearen behin betiko aktari neronek jarritako Gorako Errekurtsoa dela eta. Gorako Errekurtsoa euskaraz izapidetu nuen, baina ebazpena gaztelania hutsez jaso dut.

Erantzuna:

Araubide Juridikoaren eta Zerbitzuen Zuzendaritza: Kexa jarri duen herritarrari jakinarazi nahi zaio gora jotzeko errekursoaren ebazpena euskaraz idatzita helaraziko diogula, Plangintza eta Antolaketa zuzendariak eta Lanbide-Enplegu Zerbitzu Publikoko Enplegu eta Prestakuntzako zuzendariak sinatu bezain laster. Jakinarazpena egikarituko da ebazpena sinatu eta ondorengo egunean. Administrazio honek konpromiso sendoa du euskararen erabileraren normalizazioan eta bide horretan lanean jarraituko dugu.

Dosierra: 870-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - EHU - EUSKARA ETA HIZKUNTZA PLANGINTZAKO ERREKTOREORDETZA

Arrazoa: EHUren Leioako kanpusetik emaila jaso dut, nire ikasketei dagokien titulua jaso dezakedala esanez, eta Leioako kanpusera joan orde, beste batera bidaltzeko eskaera egin dezakedala jakinaraziz. Horretarako, emaila idatzeko zehazten zen, helbide honetara: alumnado.enseñanzaspropias@ehu.eus Euskaraz idatzi dut titulua Donostiako kanpusera bidaltzeko eskaera, noski, eta gaztelera hutsean erantzun didate. Euskal Herriko Unibertsitatean oraindik ere horrela ibiltzea tamalgarria da.

Erantzuna:

Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako errektoreordea: Ezer baino lehenago, eskerrak ematen dizkizut herritar orok administrazio publikoko edozein erakunderekin duen harremanetan hizkuntza aukeratzeko eskubidearen urraketa honen berri emateagatik. Harremanetan jarri gara kexan aipatzen den helbide elektronikoarekin eta helbide horren ardura duen Berezko Titulu

Zuzendaritzarekin. Eskubide-urraketa hori etorkizunean berriro errepikatu ez dadin neurriak hartzen dituztela ziurtatzeko eskatu diegu. Izan ere, EHUren harreman ofizialetan hizkuntzen erabilerarako jarraibide eta irizpideek ere argi adierazten dute euskaraz erantzun behar zaiela euskaraz jasotako idatziei. Momentu honetan, hizkuntza ofizialen eta ez-ofizialen erabilera-plana lantzen ari gara EHUko kolektibo guztietako kideekin. Plan horrek sail eta zerbitzu guztietan euskara-arduradunak izendatzea aurreikusten du. Zinez espero dugu erabilera-planaren hedapen egokiak etorkizunean honelako urraketak desagerrarazten lagunduko duela.

Justizia (3)

Dosierra: 517-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - JUSTIZIA ETA GIZA ESKUBIDEAK - Espetxe Zerbitzuen Zuzendaritza-

Arrazoa: Uztailaren 2an Euskadiko Espetxeetako Administrazioako Zigorrek Betearazteko laguntzaile eskalako lan-poltsa eratzeko deialdiak argitaratu ziren. Lan-poltsa horietako hautagaiek Langraitz Oka, Basauri eta Martuteneko espetxeetan lan egingo dute. Euskararen ezagutza merezimendu den arren, ez da nahitaezkoa eta beraz, euskararen inongo ezagutzarik ez duten pertsonak kontratatuko ahal izango ditu Eusko Jaurlaritzak, espetxeetan dauden pertsonak zein bestelako erabiltzaileen eskubideak urratuaz.
https://www.ivap.euskadi.eus/contenidos/empleo_publico/copi_espetx_lagu_lan_poltsa_25/eu_def/adjuntos/bases-ayudantes-penitenciarios2025-eusk.pdf

Dosierra: 831-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - BERDINTASUNA, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKAK

Arrazoa: Azpeitiko epaitegira joan naiz eta sarreran dagoen pertsonarekin ez dado euskaraz aritzeko aukerarik, ez daki euskaraz. Jarrera ere ez da egokiena ez "egun on" bat ez "agur" bat. "Pasa por aquí", "deja la mochila ahí"...bera da iristean aurkitzen eta harremana duzun lehenengo pertsona. Ezinbestean pasa behar duzu bere postutik. Bertakoa eta ofiziala den hizkuntza bateko hiztunenganako begirune eta errespetu falta iruditzen zait, non eta Azpeitia batean.

Dosierra: 935-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - JUSTIZIA ETA GIZA ESKUBIDEAK - Espetxe Zerbitzuen Zuzendaritza-

Arrazoa: Bizkaiko Espetxeko (Basauri) sarreran dauden kartel bi gaztelaniaz baino ez daude idatzita: "IDENTIFÍQUESE AQUÍ" ETA "ACCESO PEATONES".

Erantzunak:

Espetxe Zerbitzuetako Zuzendaria: Transferentzia nahiko berria dela kontuan izanda, errotulazio nagusia aldatu eta orain errotulu txikia moldatzen hasi gara. Kontratu txiki bitartez, 2026ko lehen hiruhilekoan espetxean azaltzen diren errotulu txiki hauek egokitzen hasiko gara. Herritarrak aipatutako errotuluek gain,

beste hauek zuzenduko ditugu eta irizpide hau jarraitua izan dadin, dagozkion neurriak hartuko ditugu: 1.- Acceso peatones. Oinezkoen sarbidea 2.- Visitas comunicaciones. Komunikazio-bisitak 3.- Salida. Irteera 4.- No apoyarse en la puerta. Ez jarri atearen kontra. No cruzar con la puerta en movimiento. Ez gurutzatu, atea mugimenduan dagoela 5.- Solo cocina y vis a vis. Sukaldea eta aurrez aurrekoak bakarrik 6.- Por favor dejar las puertas del portal cerradas. Mesedez, itxi atariko ateak. 7.-Por motivos de seguridad queda prohibido el acceso al rastrillo durante los ingresos y las salidas de internos con la presencia de agentes de policía. Segurtasun arrazoiak direla eta, debekatuta dago igarotze-puntura sartzea barneratuen sarreretan eta irteeretan polizia-agenteen presentziarekin. 8.- Punto de reunión. Bilgunea 9.- Debeakuta dago baimenik gabeko galerietan sartzea. Prohibido la entrada en galerías no autorizadas 10.Larrialdietako irteera. Salida de emergencia Eusko Jaurlaritzako Espetxe Zerbitzuen Zuzendaritzak neurriak jarriko ditu eskubide horiek bermatzeko, onartutako hizkuntza irizpideak jarraituz. Kexa jaso izanak organo honetan, aurrerantzean, euskaraz artatzeko betebeharra hobeto betetzeko eragin izana espero dugu.

Osasungintza (52)

Dosierra: 15-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - SAN ELOY OSPITALEA

Arrazoa: Azaroaren 12an, goizeko 10:00etan, zita bat izan nuen San Eloy ospitaleko, Kirurgia Zerbitzuan. Profesionalari euskaraz egiteko nire asmoaren berri emanda, hauexek izan ziren haren erantzunak: "Ui, no, no. Mejor en castellano para que no haya ninguna duda y nos entendamos todos y bien". Horri ez nion erantzun. Berak jarraitu zuen, ondoren: "Porque tu a mí me entiendes bien en castellano, no?" Egoera hartan, galderari erantzun beharko... !Eta, buruaz, baietz nik.

Erantzuna:

Pazientearen eta Erabiltzailearen Arreta Zerbitzua: Barkamena eskatu nahi diogu erabiltzaileari ezin izan diogulako zerbitzua eman berak nahi zuen hizkuntzan. Zorritzarrez pazientea artatu zuen doktoreak ez du pazienteekin komunikatzeko moduko euskara mailarik. Tamalez, kasu honetan, gainera, badirudi ez zizutela eskaini beste mediku batek edo beste zentro batek artatzeko aukera, euskaraz artatzeko. Sentitzen dugu. Kirurgia Zerbitzuko langileei gogorarazi diegu Euskara Planak ezartzen duela profesional batek ezin badu pazietena euskaraz artatu, egokiena pazienteari bi aukerak ematea dela (berak aukeratu dezan): a) gaztelaniaz jarraitzea edo b) hala nahi badu, beste mediku batekin hitzordua ematea, euskarazko arreta eman ahal izateko. Berririo ere barkamena eskatu nahi diogu pazienteari.

Dosierra: 29-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA -OSATEK SA -

Arrazoa: Nire kexa adierazi nahi dut Areiltzako anbulatorioko Osateken erresonantzia magnetikoko zerbitzuko unitatean dauden langile finko batek ere ezin duelako euskaraz behar bezalako arreta eman. Unitate horretako langile bakar batek ere ez du Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetan eskatzen den euskarazko 2. hizkuntza-eskakizuna (plazek eskakizun hau izan arren ez dute derrigortasun data ezarrita) eta horrek, euskaraz zerbitzuak eskaintzeko ezintasunak izatea eragiten du. Berriki postu batzuk egonkortu egin ziren eta ez zen behar bezala kontuan hartu hautagaiek euskarazko gutxieneko titulazioa izatea

(merezimendu izan zen baina ez nahitaezko eta beraz euskararen ezagutzarik gabe eskuratu zitezkeen plaza horiek). Deialdiko postu finko birakariak berriak dira, baina Areilza doktorearen anbulatorioko Osatek-eko idazkariaren lanpostua ez da sortu berria; beraz, euskararen derrigortasun-data igarota egon beharko luke. Eskatzen dut pazientearen arreta egokirako lanpostuetako euskararen derrigortasun-datak berrikusteko, herritar guztiei zerbitzu egokia eman ahal izateko. Honekin batera, 2022ko deialdian agertzen diren lanpostuek derrigortasun datarik ez zutela ikusteko datuak bidaltzen ditut. Noizko ezarriko zaizkie derrigortasun datak lanpostu horiei? Bilbon zein beste edozein herri eta hiritan euskarazko zerbitzua eskaintzeko gaitasuna bermatzeko, neurriak hartu beharko lituzke Osatek-ek behingoz.

Dosierra: 40-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA -OSATEK SA -

Arrazoa: Osatek-ek, Osakidetzako zerbitzu erakundea 2024ko Abenduaren 13an Galdakaoko Unitatean Laneko Arriskuen Prebentziorako formakuntza saio bat antolatu zuen.. Formakuntza saioak erderaz bakarrik egin zen. Euskaraz bat ere ez.. Non daude hizkuntza-eskubideak? Non daude langileen hizkuntza-eskubideei zor zaien errespetu edo begirunea ?

Erantzuna:

Zuzendari Kudeatzailea: Arrazoi du herritarrek, eta sortutako eragozpenak barkatzeko eskatu nahi diogu. Izan ere Osakidetzarekin elkarlanean antolatu zen 25 munituko ahozko saio hau gaztelaniaz baino ez zen izan, hartzaileen artean euskaraz ulertzen zen zuten langileak ere bazeudelako eta OSATEKek ez zuelako modurik izan saioa beste modu batera antolatzeko. Hori esanda, OSATEKek aste gutxi barru hizkuntza-irizpideen inguruko instrukzioa eguneratuko du eta bertan jasoko da neurri zehatzak hartuko direla horrelako egoerak berriro ez errepikatzeko. Beraz, OSATEKek konpromisoa hartzen du saio hori berriro antolatzen denean, euskeraz eta gaztelaniaz eskainiko zaiela langileei.

Dosierra: 42-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - BARAKALDO-SESTAOko ESla

Arrazoa: San Bizente auzoko osasun zentroan hitzordua eskatu dut aurrez aurre, eta gazteleraz hitz egin dit harrera-lekuko langileak, nahiz eta nik une oro euskaraz

hitz egin diodan. Aurreko egun batean telefonoz egin nuen eskaera, eta gauza bera gertatu zitzaidan. Nik uste dut behar baino malguago jokatzeko dugula erizain eta medikuen euskara ezjakintasunaren aurrean, baina amore emanda edo, onartzen dugu profesionalak erdaldunak direla. Baina harrera-lekuan euskaraz ez jakitea gehiegi iruditzen zait.

Dosierra: 65-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - DONOSTIA OSPITALEA

Arrazoia: Donostiako ospitalean, erabiltzaileei jakinarazteko mezu bat ez-euskara batean dago, tarteka oker, tarteka euskara mordoiloan. Zehazki, larrialdietako lehenengo solairuan dago, pediatrian, ZIUan.

Erantzuna:

SAPU: Kartel berria egin dute eta aldatu egingo dugu. Ez dakigu oso ondo zer pasa den, kartel hauek euskara teknikariek itzultzen dituzte eta. Egia da ematen duela itzultzaile automatiko bat erabili zutela.

Dosierra: 66-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - ARABA ESI - PAZIENTEAK ATENDITZEKO ZERBITZUA

Arrazoia: Osakidetzan lan egiten dut. Abenduaren 19an, goizean, Gasteizko Osakidetza kanpo kontsultetako eraikinean, lankide batekin euskaraz entzutean, "perdona es una falta de respeto" esan zidan hirugarren batek. Orduan erdaraz esplikatu nion zer esan nion (euskaraz) beste lankideari. HIRU aldiz esan zidan "yo odio a los vascos", eta ondoren kantuan hasi zen "Yo soy español, español, español...." Ez dakit zer egin dezakedan horrelako egoeretan.

Erantzuna:

Arabako ESIko Langileen zuzendaria: Arabako ESIko Euskara Zerbitzua, berehala jarri da harremanetan Kanpo Kontsultetako Zentroko arduradunetako batekin, egoeraren berri emateko eta gertakariaren inguruko informazioa lortzeko. Kontsultatutako pertsoan ez du gertakariaren berririk, nahiz eta barne-zirkuitu bat egon, zeinaren bidez gorabehera oro nahitaez zerbitzuburuari edo langilearen arduradun zuzenari helarazi behar zion. Gertakariaren egileak ezin ditugunez identifikatu, erabaki da hizkuntza-irizpideetan eragitea eta langileei gogoraraztea bizikidetza eta langile eta erabiltzaile guztien hizkuntza-eskubideak ezinbestean

bermatu behar ditugula, eta Arabako ESIan horrelako jokabideek ez dutela lekurik. Orotzape hori etengabe egiten da kanpaina korporatiboen bidez. Bide batez Euskara Zerbitzuak gogorarazten die oso garrantzitsua dela hizkuntza-irizpideak eta jardura-protokoloa betetzea, euskararen presentzia eta erabilera bermatzeko lan-hizkuntza gisa, ahoz zein idatziz, bai kanpo-harremanetan, bai barne-harremanetan ere. Zentroak, bere aldetik, azpimarratu du profesionalen hizkuntza-irizpideen berri dutela eta, ahal den guztietan, betetzen dituztela, eta egoera eta jokabide horiek ez direla onargarriak; hala ere, zaila da neurri zuzentzaileak ezartzea gertakari buruzko informazioaren barne-zirkuitua ahalik eta lasterren jarraitzen ez bada, eta eragindako pertsonak identifikatzen ez badira. Hori guztia esanda, barkamena eskatu nahi diogu langileari eragindako eragozpenengatik, eta bide batez, eskerran eman nahi dizkiogu bere ekarpenarengatik, egoera horrek erakundaeri bere prozesuak aztertu eta berrikustez gain, hobekuntza prozesuak aktibatzen laguntzen baitio, guztion helburura iritsi arte.

Dosierra: 67-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - EZKERRALDE - ENKARTERRI - GURUTZETA ESI

Arrazoia: Gaia: Ezkerraldea ESIan jefatura lanpostuei euskara eskakizuna ezartzea. Osakidetza Euskararen erabilera normalizatzeko III. Euskara Planak honakoa adierazten du 13.2.2. puntuan: Derrigortasun-datak buruzagitza eta ardura lanpostuetan 1. lehentasuna duten zerbitzuetan, derrigortasun-data jarri behar zaie buru- eta arduradun-lanpostu guztiei. 2. lehentasuna duten zerbitzuetan, derrigortasun-data jarriko zaie baldin eta zerbitzuko gutxieneko daten portzentajea % 50 edo gehiago bada. Bestalde, Osakidetza 2022ko ekainaren 1eko 3/2022 Jarraibideak, Osakidetza lanpostuen Hizkuntza-Eskakizunen eta Derrigortasun-daten aldaketak tramitzatzeko prozedura zehazten duenak, honako hau adierazten du 1.2. puntuan: 1.2 Buruzagitza eta ardura lanpostuei derrigortasun data ezartzea: Euskara-planen 1. Lehentasuna duten zerbitzuetan, derrigortasun-data jarri behar zaie buru eta arduradun lanpostu guztiei, eta, 2. Lehentasuna duten zerbitzuetan, soilik jarri behar zaie zerbitzuaren gutxieneko daten portzentajea %50 edo gehiago bada. Esleipen horietatik kanpo geratzen dira zuzendarien, zuzendariordeen eta zuzendariondokoan lanpostuak. Aurreko oinarritik abiatuta, aipatutako lanpostuei pixkanaka esleituko zaizkie derrigortasun datak, lehentasun handieneko

unitateekin hasita. Horrela, Osakidetzaren III. Euskara plana onartu ondoren, derrigortasun data ezarriko zaie honako zerbitzu hauetako buruzagitza eta ardura lanpostuei: 1.2.1. Osakidetzaren Euskararen Erabilera Normalizatzeko III. Planaren 13.2.1 atalean 1. lehentasunarekin sailkatutako zerbitzuetan: 2022ko ekainaren 30a baino lehen. 1.2.2. Gutxieneko daten portzentajea %50 edo gehiago duten 2. Lehentasuneko zerbitzuetan: derrigortasun-datak pixkanaka esleitu ahalko dira, zerbitzu-erakundeek beharrezkotzat jotzen dutenean; baina denak 2024ko apirilaren 1a baino lehen egon beharko dira jarrita, euskara planaren 2. Eranskinaren 2024ko lehen eguneraketan onartzeko eta, ondoren, planaren tarteko ebaluazioan kontuan hartzeko. Adierazitako lanpostuek okupatzailerik ez badute, derrigortasun-data Osakidetzako euskara-planaren II. eranskinaren hurrengo eguneraketaren eguna izango da. Era berean, lanpostua betetzen duen pertsonak hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta badauka, lanpostuaren derrigortasun-data II. eranskinaren hurrengo eguneraketaren eguna izango da. Aitzitik, lanpostuan dagoenak oraindik hizkuntza-eskakizuna egiaztatu ez badu, derrigortasun-datak geroagoko epemuga izango du, eta data hori urtero zehaztuko da, urte hasieran Giza Baliabideen Garapeneko eta Prestakuntzako Zuzendariordetzak instrukzio honen I. eranskina eguneratzen duenean. Gertaerak: Instrukzioaren argitasuna eta derrigortasuna gorabehera, egiaztatu dugu Ezkerraldea-Enkarterri-Cruces ESIan araudiaren arabera Derrigortasun Data ezartzea dagokien jefatura lanpostu ugaritan EZ zaiela derrigortasun-datarik ezarri, tartean, adibidez, Pediatria zerbitzuetako jefatura lanpostu ugariri. Uko egite honek Osakidetzako araudi interno baten ez-betetzea suposatzen du, eta euskararen erabilera normalizatzeko prozesuan oztopo nabarmena da. Azpimarratzekoa da jefatura eta erantzukizun postuetan derrigortasun datak esleitzea prozedura administratibo sinplea dela, denbora gutxian egin daitekeena, egun bakar batean ere bai, plazak eta haien ezaugarriak erabat identifikatuta baitaude. Beraz, ez dago inolako justifikaziorik bere aplikazio osoa eta berehalakoa atzeratzeko edo eragozteko. Bestalde, azpimarratu behar da 1. Lehentasuneko unitateetan kokaturiko jefatura lanpostuetan Osakidetzaren II. Euskara Plana onartu zenean, 2022. urtean, ezarri behar zirela derrigortasun datak. Eta 2. Lehentasuneko unitateetan 2022. urtetik aurrera ere progresiboki ezarri ahal zirela, betiere 2024ko apirilaren 1a baino lehen, 3/2022 Jarraibideak horrela ezartzen bait du. Hortaz, guztiz epeaz kanpo dago Ezkerraldea ESIa eta urraketa

honek ez du inolako justifikazio posiblerik, esan bezala derrigortasun datak ezartzea berehala egin daitekeen prozedura administratibo sinplea da eta. Instrukzioa gai honetan Osakidetzako autoritaterik gorena denak eman du, eta derrigorrez bete beharrekoa da unitate eta zerbitzu guztientzat. Ez da gomendio bat, baizik eta bete behar den arau bat, salbuespenik gabe, eta jarraibideak ezartzen den epe mugaren barruan. Instrukzioa ez betetzeak normalizazio linguistikoaren prozesua oztopatzea suposatzen du, III. Planaren helburuak atzeratuz eta euskara sustatzeko ahalegin instituzionalak gutxituz. Instrukzioa aplikatzeari uko egiteak kalte larria eragiten dio euskararen normalizazio prozesuari, hizkuntzaren presentzia eta erabilera ahulduz osasun publikoa bezalako arlo funtsezkoetan. Honek eragin negatiboa du bai erabiltzaileen eskubideetan bai politikak modu koherente eta eraginkorrean aplikatzea espero duten langileengan. Eskaera Euskara Planeko 13.2.2 puntuan eta 3/2022 Jarraibidean ezarritakoa berehala eta guztiz, dagokien lanpostu guztietan, betetzea, derrigortasun data duten plazen portzentaia %50etik gorakoa den jefatura eta erantzukizun postu guzti-guztietan derrigortasun datak esleitzu, inolako salbuespenik gabe.

Dosierra: 72-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - DONOSTIA OSPITALEA

Arrazoia: Donostia Ospitaleko telefono zentralitara deitu dut gaur goizean, 983 markatuz ospital barruko telefono batetik, eta erantzun didan neskak, "Centralita, digame" esanez egin dit arreta. Behin baino gehiagotan gertatu zait berdina zentralita horretara deituta. Badakit araudiaren arabera lehen hitza euskaraz egin behar dutela, baina sarritan ez dute errespetatzen. Harrera gazteleraz soilik eginez ulertzera ematen dute gazteleraz soilik ulertzen dutela edota hizketaldia gazteleraz izatea nahi dutela, eta deseroso sentiarazten dute arreta euskaraz jaso nahi dituztenak., ni behintzat horrela sentiarazten naute. Nire hizkuntz eskubideak eta arreta irizpideak betetzea eskatzen dut, eta dagokion arduradunak eskubide hauek betetzen direla zaintzea eta betearaztea.

Erantzuna:

Zuzendari-gerentea: Lehenik eta behin, barkamena eskatu nahi dugu, pertsona horri ez baizioten behar bezalako arreta eman. Ospitaleko zentralitaren arduradunarekin hitz egin dugu, eta esan digute telefono-arreta ematen duten

profesionalei gogoraziko dietela deiak erantzute erabili behar den hizkuntza euskera dela hasieran, eta kudeaketa euskaraz egiteko aukera eskaini behar dela beti, bai eta deia beste lankide bati transmititu behar zaiola ere, baldin eta deitzen duen pertsonari hasieran arreta ematen diona ez bada horretarako gai.

Dosierra: 82-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - GALDAKAO-USANSOLO OSPITALEA - PAZIENTEAK ETA ERABILTZAILEAK ATENDITZEKO ZERBITZUA

Arrazoa: Usansoloko ospitaleko kafetegian kafesnea eskatu euskaraz eta modu zakarrean erantzun, ea zer nahi nuen. Edozein lekutan baina are gehiago leku publiko bateko kafetegian gutxieneko errespetua ziurtatuta egon behar da/litzateke.

Erantzuna:

Barrualde-Galdakaoko zuzendari-gerentea: Zerbitzu Orokorretako arduradunaren, kafetegia daraman enpresaren eta Euskara Zerbitzuaren arteko bilera egin da, besteak beste, gogorazteko herritarrei zuzendutako zerbitzuak ematen dituzten kontratatutako enpresek hizkuntza ofizialen erabilera irizpideak bete egin behar dituztena. Hizkuntza-baldintza guztiak azaldu zaizkio kafetegia zerbitzuaren esleipendun enpresako arduradunari eta, zera adostu da: - Enpresako arduradunak kafetegiko langileekin bilera egingo duela guztiei azaltzeko kontratuari lotua, zein diren bete beharreko hizkuntza-irizpideak eta, horrekin batera, bezeroak beti begirunez tratatzearena ere. - Giza baliabideak berrantolatzeke ahalegina egingo dutela, goizeko txandan ez baitaukate arazorik, baina arratsaldekoan eta asteburuetakoa, ez omen delako erraza euskara gaitasundunak kontratatu ahal izatea. - Idatzizko komunikazioen kasuan, aldiz, desbideraketa bat edo beste antzeman denez, alderdi hori ere gehiago zaintzeko konpromisoa hartu dute, esaterako, salmenta-tiketa ele bietan jartzekoa. Aipatutako baldintzok betetzen ote diren jakiteko, sei hilabete barru beste bilera bat egingo da. Eskertzen dugu, benetan, gertaera jakinarazi izana, halakoek dauzkagun gabeziak detektatzeko balio dutelako, eta hobekuntza-neurriak hartzeko.

Dosierra: 86-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - GOIERRI-UROLA GARAIKO ESI

Arrazoa: Gabonetan, abenduaren 26an, Azpeitiko anbulatoriora joan nintzen bi aldiz, medikuarengana. Bietan mediku erdalduna tokatu zitzaidan, nahiz eta Osakidetza nire agirian euskaraz artatzeko jartzen duen. Azpeitia bezalako arnagune batean hori pasatzen dela jakinda, beste osasun zentroetan auskalo zer eta nolako eskubide urraketak pairatzen dituzten euskaldunek. Noiz arte egoera hau? Justizia euskararentzat!.

Erantzuna:

Gerentzia: Ordezkapen beharrak sortzen direnean, euskaraz dakiten medikuak kontratatzeke ahalegin guztiak egiten ditugu ezarrita daukagun protokoloari erreparatuta, baina zorritzarrez ez dugu beti lortzen mediku falta handia dagoelako. Osasun-arreta bermatzea da gure lehentasuna eta betebeharra eta hainbat kasutan, profesional erdaldunak kontratatu ezean ezingo genuke arreta bermatu. Espero dugu azalpena ulertzea eta gureganako konfiantza ez galtzea.

Dosierra: 90-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - GOIERRI-UROLA GARAIKO ESI

Arrazoa: Alabarekin proba batzuk egitera joan ginen Azpeitiko pediatriarengana; proba horiek euskaraz egiteko aukera izan genuen, bai pediatriarekin, baita erizainarekin ere. Ondoren, gelatik kanpo, eserlekuetan itxaroteko eskatu zigun baina zer disgustoa euskaraz bazekien beste erizain gazte bat hurbildu zenean... biak elkarrekin gaztelaniaz hitz egiten aritu ziren denbora luzez, hamar bat minutu pasatuko zituzten gu pediatriaren zain geunden bitartean. Egoera horren aurrean, alaba harrituta gelditu zen: Ama, hor kartelean "Haurrak euskaraz bai sano" ipintzen du eta gero zergatik ari dira bi erizainak gaztelaniaz? Oso deserosoa egin zitzaidan egoera. Gogoia ematen zuen ozen esateko: Euskaraz bai sano!. Etxeetan eta ikastetxeetan ahaleginak egiten gabilta haurrek euskaraz egin dezaten, eta halakoetan, amorrua, pena eta frustrazioa sentitzen dira. Osasun arloko langileek ere eredu izan behar dute, eta are gehiago haur eta gazteen aurrean!

Erantzuna:

Gerentzia: Gure erakundean indarrean dagoen hirugarren Euskara Planarekin, profesionalen arteko harremanetan euskararen erabilera bultzatzen saiatzen ari gara, baina ezin dugu inor behartu, hori norberaren hautua baita. Osasun-arreta bermatzea da gure lehentasuna eta betebeharra, eta halaxe izan da adierazitako

kasuan, pazientea euskaraz artatua izan baita. Espero dugu azalpena ulertzea eta gureganako konfiantza ez galtzea.

Dosierra: 106-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - DONOSTIALDEKO ESI - PAZIENTEAREN ETA ERABILTZAILEAREN ARRETA ZERBITZUA

Arrazoiak: Donostian Gros auzoan kotatuta dagoen anbulatorioan Josebe Aranberri Aresti ORL osagilearekin hitzordua nuen. Kontsultara heldu eta gazteleraz soilik mintzatzen zela esan zidan, nahiz eta nik Osakidetzan argi esana dudana euskaraz soilik artatua izan nahi dudala. Osagilea oso gaztea da, beraz uler ezina da nolatan ez duen euskaraz mintzatzen. Egia esan gazteleraz hitz egitera behartuta izan honek oso deseroso utzi ninduen, zapalduta eta txikituta. Gazteleraz ez dakit ondo egiten, eta honek izugarritzko ezintasun sententzia sortu dit. Ez dakit nola hau salatu, baina hau berriro gertatzerik nahi ez dudanez, ez niri ezta beste edonori ere ez, zuengana jotzea erabaki dut.

Erantzuna:

Donostialdeko ESiko zuzendari-gerentea: Batzuetan, antolakuntza arrazoiak direla-eta, ez da posible izaten euskaraz artatua izateko eskubidea bermatzea, euskaraz dakiten profesional faltagatik. Horrelako egoeretan asistentzia sanitarioa lehenesten dugu. Barkamena eskatzen dizugu euskaraz artatua izateko eskubidea bermatzerik izan ez dugulako.

Dosierra: 125-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - DONOSTIA OSPITALEA

Arrazoiak: Berriro gertatu zait, gaur otsailak 11, goizean. Donostia Ospitaleko telefono zentralitara deitu dut 983 markatuz ospitale barruko telefono batetik, eta erantzun didan neskak, "Si, Centralita, digame" esanez egin dit arreta. Behin baino gehiagotan gertatu zait berdina zentralita horretara deituta. Badakit araudiaren arabera lehen hitza euskaraz egin behar dutela, baina sarritan ez dute errespetatzen. Harrera gazteleraz soilik eginez ulertzera ematen dute gazteleraz soilik ulertzen dutela edota hizketaldia gazteleraz izatea nahi dutela, eta deseroso sentiarazten dute arreta euskaraz jaso nahi dituztenak, ni behintzat horrela sentiarazten naute. Nire hizkuntz eskubideak eta arreta irizpideak betetzea

eskatzen dut, eta dagokion arduradunak eskubide hauek betetzen direla zaintzea eta betearaztea.

Dosierra: 161-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA -OSATEK SA -

Arrazoiak: Osatek-ek Euskara plana badu, bigarrena 2023tik 2027ra tartea hartzen duena eta 2024ko martxoaren 20an beren Administrazio Kontseiluak onartu zuena. Aipatutako Euskara Planean Akordioan atalean bostgarren puntuan e) atalean honako hau adierazten da; "e) Kontratazio puntualak edo langile berriak prestatzeko egiten diren ordezkapen-poltsetatik datozenak, bai ordezkapen bidez betetzeko (plaza hori betetzen duen enpleguaren gaixotasunagatikiko baja; lanpostu hori betetzen duen enpleguaren amatasun- edo aitatasun-lizentziagatikiko baja; ordaindu gabeko baimena; eszedentzia;...), bai ekoizpenaren inguruabar bereziengatik betetzeko, ezarritako derrigortasun-data igaro ondoren egingo dira, nahitaez, bete beharreko lanpostuaren hizkuntza-eskakizuna behar bezala egiaztatuta duten langileekin! Enpresak lanpostu hauetarako eskatutako hizkuntz eskakizunak duten langileekin ez da betetzen ari. Hainbat kasutan hizkuntz eskakizunik gabe betetzen ari dira aipatutako lanpostuak Non daude hizkuntza-eskubideak? Non daude pazienteen eta langileen hizkuntza-eskubideei zor zaien errespetu edo begirunea ? Zergaitik Osatek-eko Administrazio Kontseiluak hartutako erabaki bat ez da errespetatzen?

Dosierra: 162-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - DONOSTIA OSPITALEA

Arrazoiak: Donostia ospitaleko pazientearen eta erabiltzailearen arreta zenbakira deitu dut, 943007072 telefono zenbakira. Erantzungailua gaztelania hutsean dago.

Erantzuna:

Donostialdeko ESiko zuzendari-gerentea: Erreklamazio hori Informatika Zerbitzuari helarazi zitzaion. Bertan, ahots-postontziaren konfigurazioak oker bat zuela egiaztatuta ondoren, berriro konfiguratu eta arazoa konpondu zuten; beraz, berriro bi hizkuntzetan daude mezuak. Erreklamazio-egileari gure esker ona helarazi nahi diogu; izan ere, akats hori detektatu gabe genuen eta informazioa euskaraz jasotzeko eskubidea urratzen ari zen

Dosierra: 185-2025**Nori:** EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - URIBEKO ESI

Arrazoia: Osakidetzako Uribe ESiko zuzendaritza ez da zuzen betetzen ari Hizkuntz Eskakizunei buruzko araudia. Zehazki, 2023an hutsik geratu ziren bederatzia Bakante Begetatiboei ez die Derrigortasun Data ezarri. Horretarako erabiltzen duen aitzakia zera da, lanpostu horiek kokaturik dauden unitateetan betetzen dela araudiak ezartzen duen Derrigortasun Data ehuneko minimoa. Argudio horrek ez du inolako funtsik, izan ere bi gai erabat desberdin dira. Euskara Planeko 12.2.3 puntuan eta Osakidetzaren 3/2022 Jarraibideko 1.3 puntuan zehazten dira gai honi buruzko irizpide eta betebeharrak. Eta araudi horietan garbi geratzen da Bakante Begetatiboei buruz agintzen dena halabeharrez bete beharrekoa dela, edozein delarik ere unitate horietako Derrigortasun Daten ezarpenaren tamaina. Hau garbi dago betidanik Osakidetza osoan, eta beste inongo ESItan inori ez zaio bururatu aitzaki hutsal hau erabiltzea. Bestalde, araudiak (Euskara Planeko 13.2.2 puntuak eta Osakidetzaren 3/2022 Jarraibideko 1.2 puntuak) zenbait Jefatura lanposturi Derrigortasun Data ezartzea agintzen du. Zehazki, 3/2022 Jarraibideak agintzen duenez, Derrigortasun Data horiek beranduenez ere 2024ko apirilaren 1erako ezarrita egon behar ziren (1.2.2. Gutxieneko daten portzentajea %50 edo gehiago duten 2. Lehentasuneko zerbitzuetan: derrigortasun-datak pixkanaka esleitu ahalko dira, zerbitzu-erakundeek beharrezkotzat jotzen dutenean; baina denak 2024ko apirilaren 1a baino lehen egon beharko dira jarrita, euskara planaren 2. Eranskinaren 2024ko lehen eguneraketan onartzeko eta, ondoren, planaren tarteko ebaluazioan kontuan hartzeko.) Uribe ESiko zuzendaritza gai honetan ere araudia urratzen ari da, araudi horren arabera jarri beharrekoak ziren hainbat Jefatura lanpostutan ez baitu Derrigortasun Datarik ezarri. Aipagarria da, kasu honetan ere, Jefatura lanpostuei Derrigortasun Data ezartzearen neurria araudia jarraituz Osakidetza osoan aplikatu dela. Uribe ESiko zuzendaritza gai honetan ere nabarmentzen ari da, hortaz. Jarrera honek, Bakante Begetatiboei eta Jefatura lanpostuei Derrigortasun Data ez ezartzeak, Uribe ESlan euskararen normalizazio prozesua oztopatzen du nabarmenki, eta, ondorioz, erabiltzaile eta langileen hizkuntz eskubideak urratzen ditu. Egoera berehala zuzentzea eskatzen dut, bi gai hauetan araudiak ezartzen duena, eta ezartzen duen modu eta epeak zorrotz beteaz.

Dosierra: 198-2025**Nori:** EUSKO JAURLARITZA -OSATEK SA -

Arrazoia: EAEko Aldizkari Ofizialean, 2025-03-10eko datagaz, anuntzioa publikatu da OSATEKen gerente barria aukeratzeko. Pertsona horrerik eskatzen jakozan baldintzen artean ez dago euskeraz jakitea. Osasungintza publikoko entitate bateko buruak euskeraz jakin behar dau 2025ean: langileen, pazienteen eta gizartearen eskaerei eta beharrei ganoraz eta legez erantzun ahal izateko. Loturea: <https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/03/2501122e.pdf>

Dosierra: 216-2025**Nori:** EUSKO JAURLARITZA -OSATEK SA -

Arrazoia: Osatek Osakidetzako Zerbitzu Erakunde bat da. 2025ko Martxoaren 10an Erkideko Boletin Ofizialean Gerente lanpostua betetzeko erabakiaren iragarkia argitaratu egin da. Gerentea izateko hainbat betebeharrak oinarrietan aipatuak izaten dira; Unibertsitateko tituluduna izatea, Administrazio eta Kudeaketa arloan eskarmentua izatea eta Publiko arloan Kudeaketa formakuntza izatea hain zuzen ere. Euskararen ezagutzaren gainean ez da aipamen bat ere egiten, ez Derrigortasun maila izateko beharraz ez da meritu moduan kontutan hartzekoaz ere. Osatek-en Gerentea izateko Euskarari emandako garrantzia 0, hutsa da. Nola da posible Enpresa Publiko Batean Euskarari batere jaramonik ez ematea? Non daude hizkuntza-eskubideak?

Dosierra: 221-2025**Nori:** EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - TOLOSALDEKO ESI

Arrazoia: Tolosako Gernikako Arbola kalean dagoen anbulatorioan hitzordua izan dugu gaur pediatriarekin, eta bertan zeuden bi pediatrik erdaldunak ziren, ez zuten euskararik ulertzen.

Erantzuna:

Pazientearen eta Erabiltzailearen Arreta Zerbitzua: Momentu honetan, berez, hiru pediatria daude; horietatik bi euskaldunak eta bat erdalduna. Kontua da, euskaldun horietako batek murrizketa eskatuta daukala eta falta den bi egun horietan dagoena erdalduna dela. Beraz, gerta daiteke momentu batzuetan bi pediatria erdaldun batera egotea, baina ez da beti horrela. Hala ere, dauden hiru erizainak

euskaldunak dira.” Jakinarazten dizuegu, sentitzen dugula une oro pediatria euskaldunik ez egotea zerbitzua eman ahal izateko, baina gaur egun ez dago pediatriarik Osakidetza lan poltsan, beraz, pediatria erdaldun hauekin lortzen da zerbitzua osatzea. Gure erakundea etengabe ahalegintzen, aukera dagoenean, da zerbitzurik onena ematen eta giza eskubideak bermatzen.

Dosierra: 236-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - SANTIAGO OSPITALEA - Pazientearen eta Erabiltzailearen Arreta Zerbitzua

Arrazoa: Santiago ospitaleko sarreran, gaztelaniaz inoiz onartuko ez litzatekeen narraskeria linguistikoa jarri dute euskaraz, auskalo zenbat diru ordainduta eta inolako kalitate-kontrolik gabe.

Erantzuna:

Arabako ESIko Langileen zuzendaria: Santiago ospitaleko mantentze-lanetako arduradunak komentatu zigun oso zaila del ospitalean jartzen diren kartel guztien kontrola izatea eta ez zirela konturatu akatsik zeukala kartelak. Kartela Osakidetza kanpoko enpresa batek eginga dela egiaztatu du, eta beraz, akatsa enpresa horrena dela. Ondorioz, ezin izan du kartela zuzendu ez baitu Osakidetza inork egin. Horiek horrela, eta kartela zaharra dela kontuan hartuta eta jada enparesa horrek ez duela musukorik birziklatzen jakinda, mantentze-lanetako arduradunak abisua eman du kartel horiek kentzeko. Bestalde, Arabako ESIko Euskara Zerbitzua kanpoko enpresa horrekin harremanetan jarri da eta karteletako akatsen berri eman dio, haiek horren berri izan dezaten eta etorkizunean kartel bera inprimatu behar badute, zuzen idatzita egiteko. Hori guztia esanda, erabiltzaileari barkamena eskatu nahi diogu sortutako eragozpenengatik. eta eskerrak eman nahi dizkiogu bere ekarpenagatik.

Dosierra: 248-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - URIBEKO ESI

Arrazoa: Algortako Osakidetza zentroan hirugarren aldia da mediku eta erizain euskaldunak nahi ditudala eskatzen dudana. Zentroz aldatu nintzenean mediku eta erizain euskalduna nahi nuela adierazi nuen, 2024ko uztailean aldaketa eskatu nuen nire hizkuntza eskubideak urratzen ari zirelako arreta gaztelaniaz egin zidatelako nire nahiaren kontra. 2025eko martxoan berriz, bai erizainarekin bai

medikuarekin kontsulta izan dut eta berriz gaztelaniaz artatua izan naiz, nire nahiaren kontra. 2025eko apirilaren 2an, berriz medikua aldatzeko eskaria egin dut, eta esan didate ezinezkoa dela medikua eta erizaina euskaldunak izatea. Medikuek euskaldunak (ez erizainak) 3 direlako, horietatik 2 jubilatzeaz daudelako eta hirugarren mediku batek kupoa beteta duelako. 2025eko apirilaren 2an Osakidetza erreklamazioa aurkeztu dut. Nire hizkuntza eskubideak bermatzeko ez dut nahi mediku euskaldun bakarria badago bere lan- karga handitzea, mediku eta erizain euskaldun gehiago kontratatzea baizik.

Dosierra: 264-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - DONOSTIALDEKO ESI - PAZIENTEAREN ETA ERABILTZAILEAREN ARRETA ZERBITZUA

Arrazoa: Astigarragako osasun zentroko pediatriako sailari dagokionez, kexa hau aurkeztu dut, nire hizkuntza eskubideak behin eta berriz urratu direlako. Nire seme-alabekin pediatria joaten naizen bakoitzean, bai medikuak eta baita erizainak ere erdaraz artatzen gaituzte. Nik uneoro euskaraz hitz egiten dudana arren, haiek ez dute saiakerarik egiten euskaraz artatzeko eta gaztelaraz jarraitzen dute etengabe (batez ere erizainak). Azken gertakaria gaur izan da: osasun zentroko pediatria arloko erizain batek telefonoz deitu dit eta nik euskaraz erantzun diodan arren, hark une oro gaztelaraz jarraitu du, euskarazko inolako erantzunik eman gabe. Ez da kasu isolatua; egoera hau sistematikoki gertatzen da pediatriako zerbitzu honetan. Horrenbestez, salatu nahi dut nire hizkuntza eskubideak urratzen ari direla modu sistematikoan, eta Osakidetza Normalizazio Planak jasotzen dituen konpromisoak betetzen ez direla. Euskaraz artatua izateko eskubidea dut, eta zentroko profesionalak gutxienez ulermen aktiboa izan beharko lukete, are gehiago lurralde euskaldun batean bizi garenean. Neurriak hartzea eskatzen dut, egoera hau lehenbailehen zuzendu dadin eta etorkizunean euskaraz artatua izateko bermea izan dezadan.

Erantzuna:

Donostialdeko ESIko zuzendari-gerentea: Gaur egun Lehen Mailako Arretan zailtasunak ditugu mediku eta erizainen lanpostuak betetzeko, kontratazioarako lan-politsetan profesional horiek falta baitira. Batzuetan ez da posible plazari esleitutako hizkuntz eskakizuna betetzen duen profesionala kontratatzea, eta kasu horietan lehentasuna ematen zaio herritarren osasun arreta bermatzeari.

Erreklamazio egileak, bestalde, Urnietako Osasun Zentrora joateko aukera izango luke, Urnieta-Hernani-Astigarragako Lehen Mailako Arretaren Unitatea baitagokio, eta bertan euskaraz artatua izateko eskubidea bermatua izango luke.

Dosierra: 265-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - DONOSTIA OSPITALEA

Arrazoia: Erreklamazio bat jarri eta Donostiako Unibertsitate Ospitaleko Pazientearen eta Erabiltzailearen Arreta Zerbitzutik erantzuna gaztelania hutsean jasotzea oso larria jotzen dut eta hau ere salatu nahi dut formalki.

Erantzuna:

Donostialdeko ESIko zuzendari-gerentea: Paziente eta Erabiltzaileen Arreta Zerbitzuan batzuetan e-mailak erantzuten dira soilik erabiltzaileak hautatutako hizkuntzan, eta bete batzuetan bi hizkuntzetan. Ulertzen dugu oker bat egon zela erabiltzaile honi emandako erantzunean; beraz, bharkamena eskatu nahi diogu kexa aurkeztu zuen pertsonari, ez baizen errespetatua izan arreta berak hautatutako hizkuntzan jasotzeko zuen eskubidea.

Dosierra: 273-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - DEBAGOIENEN ESI -Pazienteak eta Erabiltzaileak Atenditzeko Zerbitzua

Arrazoia: Antzuolako (apirilaren 3an, 13:31n eta 23:33an) eta Bergarako anbulatoriora deitu nuen apirilaren 3an (apirilaren 4an, 08:08an), eta erantzungailuak esan zidan: "Ongi etorri Osakidetzara. Te damos la bienvenida a Osakidetza. Si desea ser atendido en euskera, pulse 1". Alde batetik, lotsagarria iruditzen zait euskaldunok ibili behar izatea mugikorrean zenbaki-teklatura ireki eta ez dakit zer zenbaki sakatzen. Eta, gainera, gaztelaraz ematen digu azalpena euskaldunoi. Euskarari lehentasuna eman ordez, bigarren maila batean jartzen gaitu euskaldunok. Eta hori gutxi balitz, 1 zenbakia sakatu eta zenbaki hori ez dela baliozkoa esaten dizu, gaztelara huts ederrean. Osakidetzari kexa hau helaraziko bazeniot, eskertuko nizuke. Ea erantzunen bat jasotzen dugun.

Dosierra: 283-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - BIDASOKO ESI

Arrazoia: Irungo Osakidetzaren Dunboa anbulatorioko arreta leihatilan euskaraz ez dakien langilea jarri dute; beraz, nahiz arreta euskaraz izan nahi dugula eskatuta izan eta hala agertu beren ordenagailuetan, arreta gaztelaniaz eman didate.

Dosierra: 288-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA -OSATEK SA -

Arrazoia: OSATEKen euskararekiko egoera salatu nahi dut. Hasteko orain dela gutxi izan dugun OPEan plaza gutxi atera dira perfilatuak. Plaza hauek ez dira guztiak perfildun pertsonekin bete. Hau da, gutxi atera eta gainera paperean bakarrik, errealitatean ez dira euskaldunekin bete. Hau horrela, oraingo eta aurretik perfilatuta egon diren plazak ez dira euskaldun pertsonalarekin betetzen, ez plaza bera ezta ordezkapenak ere. Guzti hau dela eta, Bizkaian eta idazkari postuetan behintzat, Zentro askotan ez dago aukera arreta euskaraz jasotzeko. Hau da egoera gaur egun: Areilza: 2 idazkaritik 1 perfilatua 0 idazkari euskaldun Galdakao: 5 idazkaritik 2 perfilatu 1 euskalduna Urduliz: 3 idazkaritik 1 perfilatuta 1 euskalduna Deustu: 3 idazkaritik 1 perfilatuta 1 euskalduna GUZTIRA 13tik 5 perfildun 3 euskaldun. HAU DA ERREALITATEA, ATERA ZUEK EUSKAL ARRETARAKO KONTUAK!!! PAPERAK DENA AGUANTATZEN DEU, BAINA ERREALITATEA BESTELAKOA DA. Euskaraldian Osatek eredu jarri dute, BENETAN????

Dosierra: 306-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - DONOSTIA OSPITALEA

Arrazoia: Donostia ospitaleko urologia zerbitzuan izan nintzen apirilaren 25ean. Txanda emateko makinak gaztelaniaz eman zidan tiketa

Erantzuna:

Pazientearen eta Erabiltzailearen Arreta Zerbitzua: Ospitaleko administrazio arloko arduradunak azaldu digunez, makina horien enpresa arduradunarekin hitz egin du eta oker hori laister konponduko da. Gure aldetik barkamena eskatu nahi diogu kexa aurkeztu duenari.

Dosierra: 335-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - GALDAKAO-USANSOLO OSPITALEA - PAZIENTEAK ETA ERABILTZAILEAK ATENDITZEKO ZERBITZUA

Arrazoa: Usansolo-Galdakaoko ospitalean larrialdietako itxarongelan entzuten diren mezuak eta deiak gaztelaniaz ematen dira. Mezu bakarra eman dute euskaraz, eta gainera bigarren lekuan.

Erantzuna:

Barrualde-Galdakao ESIko zuzendari-gerentea: Langileei, gogoraziko diegu, beste behin, hizkuntza-irizpideak bete egin behar dituztela, megafonia bidezko mezuan eman orduan ez ezik, baita erabiltzaileak artatzean ere, lehenengo agurra euskaraz eginez beti, eta eurak hautatutako hizkuntzan jarraituz. Bestalde, jakinaraziko diegu, irizpideok betetzeko lagungarri izan dakiekeen neurriren bat hartzea beharko balitz, hori bideratzen ahaleginduko garela. Eskertzen dugu, benetan, gertaera jakinarazi izana, halakoek dauzkagun gabeziak detektatzeko balio dutelako, bai eta hobekuntza-neurriak ezartzeko ere.

Dosierra: 415-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - ARABA ESI - PAZIENTEAK ATENDITZEKO ZERBITZUA

Arrazoa: askotan Aguraingo osasun zentroa itxita dago arratsaldetan. Hala bada, eta larrialdi bat izatekotan telefono bat dago atean jarrita (945244444). Atzo arratsaldean deitu behar izan nuen eta erantzun zidan pertsonak erderaz hitz egiteko eskatu zidan. Nola da posible euskaraz ez dakien norbait egotea telefonoa jasotzen? Gero bai medikua, bai erizaina euskarazko arreta eman ziguten.

Erantzuna:

Arabako ESIko Langileen zuzendaria: Erreklamazioa jaso eta berehala jarri gara harremanetan Emergentsietako Zerbitzuaren arduradunarekin egoeraren berri emateko eta gertakariaren inguruko informazioa lortzeko. Kontsultatutako pertsonak ez du gertakariaren berririk. Horrexegatik, gertakaria zein ordutan gertatu zen galdetu digu, ordua zehaztuz txanda mugatu baitaiteke. Dena den langile guztiek hizkuntza irizpideen berri eta jarraitu beharreko protokoloen berri dutela azpimarratu digu. Hala ere, gerta zitekeen egun horretan ordezkari bat egotea, eta ondorioz gertakari puntual bat izatea. Egileak ezin ditugunez identifikatu, erabaki da hizkuntza-irizpideetan eragitea eta langileei gogoraztea bizikidetza eta langile eta erabiltzaile guztien hizkuntza-eskubideak ezinbestean bermatu behar ditugula. Emergentsia zerbitzuak azpimarratu du egoera eta jokabide horiek ez direla onargarriak; hala ere, zaila da neurri zuzentzaileak

ezartzea gertakari buruzko informazio zehatzagoa ematen ez bada. Hori guztia esanda, barkamena eskatu nahi diogu erabiltzaileari eragindako eragozpenengatik, eta bide batez, eskerrak eman nahi dizkiogu bere ekarpenengatik, egoera horrek erakundeari bere prozesuak aztertu eta berrikustez gain, hobekuntza prozesuak aktibatzen laguntzen baitio.

Dosierra: 430-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSATEK SA -

Arrazoa: Osatek-ek Euskara Plana badu, bigarrena 2023tik 2027ra tartea hartzen duena eta 2024ko martxoaren 20an beren Administrazio Kontseiluak onartu zuena. Aipatutako Euskara Planean Akordioan atalean bostgarren puntuan h) eta l) atalean honako hau adierazten da; “h) Administrazio Kontseiluak, 2024ko martxoaren 20an, 2. Euskara Planean jasotako 226 lanpostuen hizkuntza-egoera onartu ondoren, dagokien hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-dataren ehunekoa aplikatuko zaizkie une horretatik aurrera sortzen diren lanpostu guztiei. Derrigortasun-datarik ezartzen ez zaien lanpostuen kasuan, euskara jakitea merituz hartuko da, indarrean dagoen legeriak adierazten duen bezala. i) OSATEK-en Administrazio Kontseiluak zehaztuko ditu lanpostu bakoitzari dagokion hizkuntza-maila eta derrigortasun-data, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari kontsulta egin ondoren” Osatek-ek Donostiako Amarako Anbulategian 2023ko azarotik aurrera Erresonantzia Magnetiko Makina berri bat jarri du abian. Ekipamendu horretan lan egiteko Osatek-ek lanpostuak bete ditu eta EZ du hizkuntza-eskakizunik aplikatu ezta derrigortasun dataren ehunekorik ere sortu diren lanpostuetarako. Osatek-en Administrazio Kontseiluak sortu diren lanpostuetan EZ ditu lanpostu bakoitzari dagokion hizkuntza- mailarik zehaztu ezta derrigortasun-datarik ere. Non daude hizkuntza-eskubideak? Non daude pazienteen eta langileen hizkuntza-eskubideei zor zaien errespetu edo begirunea ? Zergaitik Osatek-eko Administrazio Kontseiluak hartutako erabakiak ez dira errespetatzen?

Dosierra: 432-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - DONOSTIA OSPITALEA

Arrazoa: Berriro gertatu zait, gaur ekainak 11, goizean. Donostia Ospitaleko telefono zentralitara deitu dut 983 markatuz ospitale barruko telefono batetik, eta

erantzun didan neskak, "Centralita, digame" esanez egin dit arreta. Behin baino gehiagotan gertatu zait berdina zentralita horretara deituta. Badakit araudiaren arabera lehen hitza euskaraz egin behar dutela, baina sarritan ez dute errespetatzen. Harrera gazteleraz soilik eginez ulertzera ematen dute gazteleraz soilik ulertzen dutela edota hizketaldia gazteleraz izatea nahi dutela, eta deseroso sentiarazten dute arreta euskaraz jaso nahi dituztenak., ni behintzat horrela sentiarazten naute. Nire hizkuntz eskubideak eta arreta irizpideak betetzea eskatzen dut, eta dagokion arduradunak eskubide hauek betetzen direla zaintzea eta betearaztea.

Erantzuna:

Donostialdeko ESIko zuzendari-gerentea: Lehenik eta behin, barkamena eskatu nahi dugu, pertsona horri ez baitzioten behar bezalako arreta eman. Ospitaleko zentralitaren arduradunarekin hitz egin dugu, eta esan digu telefono-arreta ematen duten profesionalen gogoraziko dietela deiei erantzuteko erabili behar den hizkuntza euskara dela hasieran, eta kudeaketa euskaraz egiteko aukera eskaini behar dela beti, bai eta deia beste lankide bati transmititu behar behar zaiola ere, baldin eta deitzen duen pertsonari hasieran arreta ematen diona ez bada horretarako gai. Kexa aurkeztu duen pertsonari barkamena helarazi nahi diogu, ez baitzen errespetatu aukeratu zuen hizkuntzan artatua izateko eskubidea.

Dosierra: 454-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - SAN ELOY OSPITALEA

Arrazoiak: San Eloy ospitalean larrialdien sarreran LARRIALDEAK jartzen du.

Dosierra: 471-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - URIBEKO ESI

Arrazoiak: Osakidetzara deitu dut nire amaren medikuarekin hitz egiteko. Egoera larria zen. Nire amak 91 urte daukat eta, azkenean, medikua etxera etorri denean, diagnostikoa iktusa izan da. Kontua da, Osasun Zentro bateko mediku batekin hitz egin nahi duzunean, askotan, deia ez doala Osasun Zentro horretara zuzenean, baizik eta telefonogune batera. Eta han zure deia erantzuten zaituzte edo haiek konpontzen dute kontua. Baina, kasu honetan, grabazioan entzun daitekeen bezala, Areetako Osasun Zentrotik hartu dute deia Deitu dut, beraz, 946 00 71 70 telefono zenbakira eta,

telefonoa Areetako Osasun Zentrotik gaztelania hutsez hartu ondoren, euskaraz hitz egiten hasi naizenean, telefonoa eskegi dute. Gero, berriro deitu dut eta entzun dut nola telefonoa hartu gabe denbora pasatu ondoren, beste telefono batera desbideratu den nire deia (grabazioan ez da jaso nola salto egin duen deiak) eta, orduan, bai, orduan beste pertsona batek artatu nau eta euskaraz egin du. Kasu honetan, dirudienez, telefonogune bateko langilea zen. Gero, berriro jarri naute Areetako Osasun Zentroarekin eta berriro hartu du lehengo pertsona berak telefona eta berriro gaztelania hutsez. Bigarren honetan, gaztelaniaz hitz egin behar izan diot oso kezkatuta nengoelako nire amaren egoeragatik. Oso susmo txarra hartu diot lehenengo deiari eta horregatik idazten dizuet. Nire kasuan, nahikoa zen esatea "Perdona, pero no se euskara. ¿Podrías hablarme en castellano?" edo antzeko zerbait, gizalegez beti. Nire telefonoan dei guztiak geratzen dira grabatuta. Mezu honi erantsita bidaltzen dizuet deien grabazioa. Bigarren grabaziotik nire amaren datuak ezabatu ditut, eta deiaren amaiera nire amari buruzko xehetasunak ez agertzeko Eskerrik asko zuen arretagatik

Dosierra: 494-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - DONOSTIALDEKO ESI - PAZIENTEAREN ETA ERABILTZAILEAREN ARRETA ZERBITZUA

Arrazoiak: Osakidetzako Donostialdeko pazientearen arretarako telefonoan off ahotsak "linea guztiak okupatuta daude", "itxaron zure txanda", "itxaron zerrendan bigarren lekuan zaude"... eta gainerako esaldi guztiak gaztelania hutsez dira. Ez dago euskaraz jasotzeko aukerarik. Egun batzuetan deika aritu naiz osasun kontu batengatik, eta beti gertatu da hori. Aitzitik, emailez kasu egitean, erantzuna elebitan jaso dut eta horren ondoriozko deia ere euskaraz egin didate.

Erantzuna:

Donostialdeko ESIko zuzendari-gerentea: Erreklamazio hori Informatika Zerbitzuari helarazi zitzaion. Bertan, ahots-postontziaren konfigurazioak oker bat zuela egiaztatu ondoren, berriro konfiguratu eta arazoa konpondu zuten; beraz, berriro bi hizkuntzetan daude mezuak. Gure esker ona helarazi nahi diogu erreklamazio-egileari, akats hori detektatu gabe genuen, eta herritarrek informazioa euskaraz jasotzeko duten eskubidea urratzen ari zen.

Dosierra: 511-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - DEBAGOIENeko ESI -Pazienteak eta Erabiltzaileak Atenditzeko Zerbitzua

Arrazoa: nire neska-laguna operatu zuten eta ondoren etxera bidali baina mina zeukanez, eta gero ta okerrago zegoenez, gauean Arrasateko ospitaleko larrialdi zerbitzuetara joan ginen Artatu ziguten hiru pertsonak, sarrerako langilea edo administraziokoa, erizaina eta medikua hirurak gaztelaraz aritu ziren. Ez zekiten euskaraz. Gainera mina dela eta arreta ere ez zelako behar den bezalakoa izan pixkat keجاتu ginen momentuan eta nahiko oldarkor aritu ziren hiru horietatik bi. Gaur (uztailak 11 berriz joan gara errehabilitazioa egitera eta harrerako pertsonak euskaraz egin digu baina medikuak gaztelaraz (ez zekien euskaraz) Horregatik kexa jartzea erabaki dut, ez delako kasu isolatu bat bakarrik.

Dosierra: 536-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - TOLOSALDEKO ESI

Arrazoa: Osakidetza matronarekin kontsulta nuen Andoainen. Matronak ez daki euskaraz eta gaztelaniaz hitz egin behar izan diot.

Dosierra: 540-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - BARRUALDE-GALDAKAO ESI

Arrazoa: Laudioko anbulategian 11:40an familia medikuarekin kontsulta bat neukan. Kontsultara pasa nintzenean medikuak, hasierako agurra gaztelaniaz egin zuen, baina nik euskaraz egiten jarraitu nuen. Nire arazoa azaltzeari ekin nionean berriz, "erdaraz egingo dugu bai?" esan zidan eta gaztelaniaz jarraitu zuen. Hortik aurrera, dena gaztelaniaz egin behar izan nuen nire arazoa azaldu eta konponbide posible bat eman ziezadan. Aipatu beharra dago, familia medikua esleitzerako garaian esplizituki eskatu nuela mediku euskalduna izan zedila eta familia mediku honek euskara profila baduela, baina argi erakutsi zidan moduan ez daki euskaraz edo ez behintzat kontsulta arrunt bat jarraitzeko moduan. Hau dela eta, erreklamazio orria bete nuen anbulategian bertan eta beste familia mediku bat esleitzeko eskaera egin eta medikuz ere aldatu nintzen. Baina ez da nahikoa. Behinola profil linguistikoa ateratzen baina bere lana ondo egiteko gai ez den zenbat mediku daude? Profil horiek berraztertu eta horren arabera neurriak hartu behar lirateke hainbat urtetatik behin. Esan bezala, erreklamazioa jarri nuen, baina zuek

ere konstantzia izan eta salaketa beste modu batera ere bideratu nahi izan dut. Mila esker denagatik

Erantzuna:

Barrualde-Galdakao ESIko zuzendari-gerentea: Hauxe da unitate-buruak, intzidentzia egiaztatu ondoren, helarazitako erantzuna: Zinez sentitzen dut, erreklamazio egileak dioen eran, ezin artatu izana, hala dagokion arren, bere aukerako hizkuntza ofizialean, hau da, euskaraz. Gertaera uda sasoian izan da, hau da, hainbat profesional falta direnean oporregatik. Horri gehitu behar zaio bazela bajaran zegoen familia medikuren bat ere. Halakoetan, lanean gauden gainerako medikuen artean banatu ohi ditugu falta direnen kupoetako erabiltzaileak, hortaz, lan-zama ohikoa baino handiagoa da, eta atzeratuta ibili ohi gara sarritan. Egia da, gainera, lanpostuari dagokion euskararen maila egiaztatuta izan arren, kontsultan osasun-arazoez jardutea zaila egiten zaigula, gutako hainbati. Horregatik, eta arestian zehaztutako arrazoiarengatik, gaztelaniara jotzen dugu eta joarazten diogu erabiltzaileari. Hori guztia aintzat hartuz, zera: batetik, erreklamazio egileari barkamena eskatzea eta, bestetik, esatea, lanpostuari dagokion euskararen gaitasun maila aitortuta daukagun profesionali (eta gainerakoei ere) gogoraziko diegula zein diren bete beharreko hizkuntza-irizpideak —hau da, lehenengo agurra beti euskaraz egitearena eta, halaxe jarraitzearena erabiltzaileak euskara hautatzen badu eta, dena delakoagatik, osasun-arazoak euskaraz jardutea zail egiten bazaie, erabiltzaileari hori jakinaraziko diotela eta bide eman euskaraz egin dezan (profesionalak ez baitauka ulertzeko eragozpenik). Bide batez, esango diote, bien segurtasunerako (profesionalarena berarena eta erabiltzailearena), osasun-arazoari lotutako azalpenak gaztelaniaz egingo dituela. Eskertzen dugu, benetan, gertaera jakinarazi izana, halakoek daukagun gabeziak detektatzeko balio dutelako, bai eta hobekuntza-neurriak ezartzeko ere. Espero dugu, bestalde, epe laburrean inoren hizkuntza eskubideak urratu ez daitezen eran konpontzea gai hau.

Dosierra: 552-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - BARRUALDE-GALDAKAO ESI

Arrazoa: Durangoko anbulategira (Herriko gudarien kalea) joan nahiz ekografia bat egitera. Probaren aurretik artatu nauten bi erizainek gaztelaraz jaso naute eta nik argi eta garbi euskeraz erantzun eta elkarrizketa osoa euskeraz jarraituta ere gaztelaraz jarraitu dute. Ekografia egitera sartzean berdin jarraitu dute eta

medikuak ere, nik euskera hutsean egiten nuen bitartean. Dudak ere izan ditut ia ondo ulertzen zidaten, baina beraiek mekanikoki jarraitu dute probarekin eta nik aurrera jarraitzea erabaki dut. Irteterakoan harreraren salaketa orria eskatu dut eta dena gazteleraz erantzun didate, nik dena euskeraz egiten nuen bitartean. Salaketa orria aurkeztean, lehenengokoz, anbulategian gaur izan naizen bostgarren langileak euskeraz artatu nau. Bostetik bakarra. Laburbiltzen, herritarrok gure hizkuntzan artatuak izateko eskubidea dugu, eta gaur, argi eta garbi, niri eskubide hori urratu zait. P.D.: ikusi anbulategia dagoen kalearen izena...

Dosierra: 590-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - GALDAKAO-USANSOLO OSPITALEA - PAZIENTEAK ETA ERABILTZAILEAK ATENDITZEKO ZERBITZUA

Arrazoa: Gaur, Usansoloko ospitalera sartzean, zeladoreak egon ohi diren ondotik pasakeran, ohi bezala, "arratsalde on" esan dut, esateko asmoagaz, beti bezala, nora gatozen. Egon diren bietarik, batak ---musukoa jantzita izan duenak--- buelta eman du, eta modu txarrean galdetu digu erdara batu hutsean: «¿¡A dónde váis?!». Esan diot, bada, normal eta euskaraz nora gatozen. "¡¡A!!" izan da bere erantzuna, modu zakarrean, berriro ere. Zer arraio gertatzen zaio Osakidetza hainbat eta hainbati, euskaldun paziente eta herritarrekin? "A"! hori zertara dator? Galdetzeko modu hori ere zergatik? Euskaraz ez dute irakurriko, inondik inora ere... Gaztelaniazko irakurgai bat gomendatuko diet, orduan, bai halakoei eta bai euren arduradunei, oraintxe esku artean dudan liburua: No me gusta cómo hablas (o más bien no me gustas tú). Crítica de la discriminación lingüística. María del Carmen Méndez Santos. Ez dute zertan erosi, e! A!, ¡! O! Eta u! Liburutegi publiko zenbaitetan badago. Eta euren erreferentziazkoan ez balego, igual eskatu lezakete ekarri diezaieten, liburutegi arteko mailegu zerbitzu bidez, adibidez. Tamalgarria da, gero, jokabide supremazistak guztiz normalduta izateak horrenbestek!

Erantzuna:

Barrualde-Galdakaoko ESiko zeladoreen burutza: Kasua behin aztertuta, arlo horren arduradunei helarazi zaie, intzidentzia egiaztatu dezaten, baita konponbidea eman ere. Hauxe da Zeladoreen burutzatik bidalitako erantzuna: "Erreklamazioari erantzun asmoz, ustezko intzidentziaren egunean zein langile zeuden egiaztatu dugu, eta denak euskaldunak zirela baieztatu dezaket (izan ere, salbuespenezko egoeretan izan ezik, jendaurreko lanpostuetan halaxe izaten da

beti). Bestalde, abuztuaren 12an gune horretan egon ziren lau pertsonekin komentatu da gertakaria, eta inork ez du gogoratzen erreklamazioa eragin duen interakzio zehatza. 'Galdetzeko moduari', hau da, 'erabilitako ustezko tonu zakarrari' lotuta; pertzepzio subjektiboa dela ulertuta, zaila egiten zait erantzutea. Erreklamazio-egileak zehaztu duen eran izan dela onartuz, ados nago halako jokabideak onartezinak direna jendaurreko lanpostuetan; hori dela-eta, barkamena eskatzen diot tratu desegokia jaso izanagatik. Erabiltzaileak aipatzen dituen ustezko jokabide supremazistei dagokienez, oster, argitu nahi dut Zerbitzu Erakunde honetan ez direla onartzen horrelako jokabideak, eta halaxe gogorarazi diegu zerbitzuko langileei. Eskertzen dugu, benetan, gertaera jakinarazi izana, halakoek dauzkagun gabeziak detektatzeko balio dutelako, bai eta hobekuntza-neurriak ezartzeko ere. Espero dugu, bestalde, epe laburrean inoren hizkuntza eskubideak urratu ez daitezen eran konpontzea gai hau".

Dosierra: 692-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - ZUZENDARITZA NAGUSIA -

Arrazoa: Eutanasia eskatzeko EJ web gunean erreklamazioa egiteko E9 formularioa espainolez soilik dago. Gauza bera profesionalentzako informazioan. Hemen: <https://www.euskadi.eus/eutanasia-zure-zalantzak-argituko-ditugu/web01-a2inform/eu/> ('Galdera-erantzunak' eta 'Profesionalentzako' ataletan)

Dosierra: 791-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - DEBAGOIENeko ESI -Pazienteak eta Erabiltzaileak Atenditzeko Zerbitzua

Arrazoa: Aurreko ostiralean, urriaren 17an, umearekin bergarako anbulatorioan pediatrarekin hitzordua eskatu, eta zitara bertaratzean... ordeko pediatra erdalduna zen. Umearen pediatra titularra euskalduna da, baina oraingoan ez zegoen bera eta ordezkoa ordea erdalduna".

Erantzuna:

ESI zuzendari gerentea: Debagoieneko ESItik badakigu oso garrantzitsua dela 'gure erkidegoko hizkuntza errealtatea errespetatuko duen osasun-arreta bermatzea. Ulertzen dugu adierazi duzuen kezka, eta osasun-sisteman euskararen normalizazioarekin dugun konpromisoa irmoa dela ziurtatu nahi dizuegu. Pediatren

eskasia errealitate bat da, eta, kasu honetan, hizkuntza-faktoreak beste konplexutasun bat gehitzen du. Profesional guztiek euskaraz hitz egiten ez duten arren, funtsezkoa da osasun-estaldura bermatzea eta hizkuntza ez dakitelako plaza hutsik ez uztea. Lehentasunak haurren arreta medikoa bermatzea da, medikuen eta pazienteen arteko komunikazio eraginkorra ahalbidetu ko duten konponbideak bilatuz. Egoerak ikuspegi orekatua eskatzen du, hizkuntzak kultura-identitatean duen garrantzia errespetatuko duena, pediatriako zerbitzuen kalitatea eta erabilgarritasuna arriskuan jarri gabe.

Dosierra: 801-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - DONOSTIALDEKO ESI - PAZIENTEAREN ETA ERABILTZAILEAREN ARRETA ZERBITZUA

Arrazoia: Odontologoarengana joan ginen hiru urteko alabarekin, Groseko anbulatoriora, eta dentistak ez zekien euskaraz hitz egiten: "kaixo" eta "agur" bakarrik. Gure alaba oraingoz euskaldun elebakarra denez, ezin izan ziren komunikatu medikua eta pazienteak. Erizaina, gutxienez, euskalduna zen, eta hark eta nik egin behar izan genituen itzultzaile lanak. Uste dut Osakidetza bermatu egin beharko lituzkeela euskaldunon hizkuntza eskubideak, eta, zoritxarrez, askotan, ez ditu bermatzen. Horrek, jakina, kalte egiten dio osasun zerbitzuari; bereziki, pazienteak ume euskaldunak direnean: sarri ez da erraza medikuarenera joatea umeentzat (beldurrengatik), eta hizkuntzaren harresiak are gehiago zailtzen du hain zuzen ere egoera horietan hain beharrezkoa den gertutasuna. Esate baterako, gure alaben pediatriak ere ez daki euskaraz (Egiako anbulatorioan, Donostian), eta beti ibili behar gara itzultzaile lanetan. Horrez gain, gauza bera gertatu zitzaigun abuztuaren 13an ere, Donostiako Ospitaleko Kirurgia Pediatrikoko zita batera joan ginenean: espainieraz baino ez zuten hitz egiten medikuak eta laguntzaileak; eta, okerragoa dena, gelako atean bertan zeukaten Osakidetzaren "Euskaraz" kanpainako kartela, honako hau esaten zuena: "–Zer moduz, txikitxo? –Euskaraz bai sano!". Iraingarria ere iruditu zitzaigun; horrelako kasuetan, hobe, behintzat, kartela kentzea. Eskerrik asko eta ondo izan.

Erantzuna:

Donostialdeko ESIko zuzendari-gerentea: Adierazi nahi dizugu, batzuetan, antolakuntza arrazoiak direla-eta, ez dela posible izaten euskaraz artatua izateko eskubidea bermatzea, euskaraz dakiten profesional faltagatik. Horrelako egoeretan

asistentzia sanitarioa lehenesten dugu. Gure barkamen eskea helarazten dizugu euskaraz artatua izateko eskubidea bermatzerik izan ez dugulako.

Dosierra: 829-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - BASURTUKO UNIBERTSITATE OSPITALEA

Arrazoia: Aurreko ostiralean, urriaren 31n, 10:00etan, nire haurrarekin joan nintzen Basurtuko ospitalera, hitzordua baigeneukan pediatrian. Zehazki San Pelayo eraikinera. Pediatriaren barruan espezialitate desberdinak daude eta gu allergien kontsultara joan ginen. Langile bat bera ere ez zen gai izan euskaraz hitz egiteko (hitz bakar bat bera ere). Ez atezain, ez erizain, ez erizain-laguntzaile, ez pediatriarik.... Lotsagarria.

Dosierra: 838-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - GALDAKAO-USANSOLO OSPITALEA - PAZIENTEAK ETA ERABILTZAILEAK ATENDITZEKO ZERBITZUA

Arrazoia: Nire neba Galdakaoko ospitalera joan zen urriaren 9an eta urriaren 10ean kantzerra zeukala eta ez zegoela ezer egiterik esan zidan bere medikuak. Larunbatean berari adieraziko ziola hil egingo zela eta ostiralean arratsaldean erizainei adierazi genien euskaraz zekien norbait nahi genuela hori esango zitzaionean, ea posible zen komentatu zuten. Larunbat goizean medikuari adierazi nion euskaraz zekien norbait nahi nuela berari zer gertatuko zitzaion esan behar zionean, baietz esan zidan mediku lagun bat zuela euskaraz zekiena. Azkenean medikua bakarrik etorri zen eta gaztelera hutsez adierazi zion zer gertatzen zitzaion. Nik esan nion zer esan nahi zuen "cuidados paliativos", hil egin behar zela. Ondoren ea euskaraz zekien medikua etortzea nahi zuen esan zion baina lan asko zuenez hiru lau ordu behar zituela eta, ulertu zuenez, ez zela beharrezkoa esan zigun. Nire ustez, gezurra esan zidan eta inongo momentuan ez zuen ezer egin norbait euskaraz zekienik gurekin egoteko. Oso minduta nago oraindik ez dut uste hainbeste eskatzea denik. Hil egin behar zarela jakitea euskaraz, hori ere ukatzen zaigu euskaldunei.

Dosierra: 842-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - GOIERRI-UROLA GARAIKO ESI

Arrazoa: Gaur Azkoitiko anbulatorioan egon gara gure umearekin. Pediatra ez da euskalduna eta gaztelaniaz aritu behar izan dugu berarekin.

Erantzuna:

Goierrri-Urola Garaiko ESI-ko zuzendari-gerentea: Ordezkatzeko beharrak sortzen direnean euskaraz dakiten medikuak kontratatzeko ahalegin guztiak egiten ditugu ezarrita daukagun protokoloari erreparatuta, baina zoritxarrez ez dugu beti lortzen mediku falta handia dagoelako. Osasun-arreta bermatzea da gure lehentasuna eta betebeharra eta hainbat kasutan, profesional erdalduna kontratatu ezean ezingo genuke arreta bermatu.

Dosierra: 843-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - DONOSTIA OSPITALEA

Arrazoa: Atzo Donostiako ospitalean egon ginen gure hilabetetako umearekin eta erizaina bai, baina, pediatra ez zen euskalduna. Gaztelaniaz aritu behar izan dugu berarekin.

Dosierra: 857-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - URIBEKO ESI

Arrazoa: Azaroaren 11n goizeko 10:15 aldera Algortako Bidezabaleko osasun etxera deitu nuen. Euskaraz nahi baduzu 1 zenbakia sakatzeko adierazten zuen lokuzioak. 1 sakatu eta zer behar nuen azaltzerakoan "te entiendo todo pero mejor en castellano" erantzun dit telefonoaren bestaldeko langileak. Gaztelaniaz eman behar izan dizkiot azalpenak berak hobeto ulertu zezan. Non dago nire euskaraz egiteko eskubidea? Gero euskaraz egiten ez dugula esango digute eta denbora guztian gaztelaniaz egitera bultzatzen gaituzte. Algortan ere euskaraz bizi gara eta bizi nahi dugu. Osakidetza eta Eusko Jaurlaritzari neurriak har ditzan eskatu nahi diot.

Dosierra: 893-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - DONOSTIALDEKO ESI - PAZIENTEAREN ETA ERABILTZAILEAREN ARRETA ZERBITZUA

Arrazoa: Pazientearen arreta zerbitzuko e-posta helbidera mezu bat idatzi dut, eta erantzuna elebitan jaso arren, euskarazkoa ulergaitza da, akatsez betea dagoelako.

Erantzuna:

Donostialdeko ESIko zuzendari-gerentea: Kexa horren ondotik, zerbitzu horretan erabiltzen diren erantzun-ereduak berraztertu ditugu, eta zuzenketak egin dira; izan ere herritarrek adierazi bezala, itzulpenak akatsak zituen. Gure barkamena helarazi nahi diogu kexa aurkeztu duenari, bai eta gure esker ona ere, bere kexa adierazi izanagatik.

Dosierra: 916-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - GOIERRI-UROLA GARAIO ESI

Arrazoa: Abenduaren 4an, arratsaldeko 16:30ean, Ezkioko osasun etxera joan nintzen. Nere harridurarako, gripearen txertoaren kanpainako kartela gazteleraz bakarrik zegoen ohar taulan. Gipuzkoako arnagune bat izanik ulertezina egiten zait

Erantzuna:

Zuzendari-gerentea: Ezkioko kontsultorioko langileekin hitz egin eta gero, gure nahaste bat izan dela informatu digute, beraz, barkamena eskatzea besterik ez dugu, eta esatea zuzenduko dugula. Mila esker zure iradokizunagatik, aukera eman digulako gure eguneroko lana hobetzen.

Dosierra: 924-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - PAZIENTE ETA ERABILTZAILEEN ARRETA ZERBITZUA

Arrazoa: Osakidetzatik deitu didate kardiologiaren hitzordua aldatzeko. Erdaraz egin didate. Pasa den astean berdin, Endokrinologiaren hitzordua aldatzeko.

Dosierra: 937-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - PAZIENTE ETA ERABILTZAILEEN ARRETA ZERBITZUA- BIZKAIA -

Arrazoa: Emaginarekin zita izan nuen. Erditzeko klaseetarako datak eta lekua emango zizkidan. Bilbo osoan emagin bakar bat dago saio hauek euskaraz egiten dituenak. Euskarazko saio batetara joateko aukera eman ere ez zidan egin, ez ninduen horretaz informatu, nahiz eta kontsultan nire bikotea eta biok gure artean euskaraz aritu ere; izan ere niri dagokidan osasun zentroa Txurdinagan dago eta euskaraz egiten diren saioak Alde Zaharreko osasun zentroan egiten dira. Eskatera egin nion saio hauek euskaraz jasotzeko eta onartu zidan. Emakume askok ez dakite saio hauek euskaraz egiteko aukera dagoenik, eta uste duo emagin guztiek eskaini

beharko zutela saioak euskeraz egiteko aukera. Osakidetzan honen inguruko eskaera bat egitea ondo legokeela uste dut. Eskerrik asko!

Erantzuna:

Pazientearen eta Erabiltzailearen Arreta Zerbitzua: Talde horietan batez beste 9 edo 10 emakume aritzen dira. Arreta hori euskaraz jaso nahi duten emakumeen hizkuntza-eskubideak bermatzeko, bi edo hiru emakumek arreta euskaraz jaso nahi badute, taldea osatzen dugu; adibidez: une honetan Zazpikaleetako OZn martxan dagoen taldean 3 emakume ari dira. Ahalegin horretan, erditzen ondoko taldeko arreta ere 7 zentrotan zentralizatuta dagoenez, lehenetsi dugu horietako bat Zazpikaleetako osasun-zentroa izatea eta euskaraz egitea. Herritarrak adierazi diguna aintzat hartuz, berriz aztertuko dugu nola egiten ari garen paziente euskaldunak Zazpikaleetako OZra bideratzeko eskaintza hori. Eskerrak eman nahi dizkiogu herritarrari hobetzeko arloak identifikatzen laguntzeagatik.

Dosierra: 975-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - DONOSTIALDEKO ESI - PAZIENTEAREN ETA ERABILTZAILEAREN ARRETA ZERBITZUA

Arrazoiak: Gure ohiko pediatra bajaran zegoela eta, Donostiako Groseko anbulatorioko pediatarrengana bidali gintuzten, eta hango pediatriak bakarrik espainieraz zekien hitz egiten. Gure hiru urteko alaba, aldiz, euskaldun elebakarra da gaur-gaurkoz; beraz, ezin izan ziren zuzenean komunikatu medikua eta pazientea: gurasook ibili behar izan ginen itzultzaile lanetan. Uste dugu Osakidetzak bermatu egin beharko lituzkeela euskaldunon hizkuntza-eskubideak ere, gaztelaniadunen eskubideak beti bermatzen dituen neurri berean; gainera, ikusten dugu horrelako jarrerak kaltetu egiten dutela osasun zerbitzua, bereziki haur euskaldunen kasuan. Espero dugu Osakidetza hastea neurriak hartzen hizkuntza-eskubideen urraketa sistematiko hau aldatzeko.

Segurtasuna (17)

Dosierra: 156-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - Larrialdiei Aurre Egiteko Zerbitzua - SOS DEIAK

Arrazoa: Ertzaintzaren webgunean eta EAEko SOS Deiak zerbitzuaren twitterrean, Untzillatzen erreskatea egin dutelako albiste zabaldu dute, eta "Untzillaitz" [sic] darabilte, "Untzillatx" beharrean. Albiste berean Atxarte darabilte, ondo; eta ez "Haitzarte" asmakeria. "Untzillatx" ere errespetatu, mesedez. Bide batez, Astxiki ere ez da Aitz-Txiki. Badaezpada. Eta Udalatx ere ez da Udalaiz. Badaezpada.

Dosierra: 179-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - SEGURTASUN SAILA - BALIABIDE OROKORREN ZUZENDARIA

Arrazoa: Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailak "Ikuspen handiko trafikoko jantziak hornitzea" helburu duen hornidura-kontratua lizitatu du. Lehenik eta behin, pleguak gaztelaniaz baino ez dituzte argitaratu. Horrez gain, lizitazioaren baitako baldintzetan, Miñoiei dagozkien jaka guztietan ez da "Miñoiak" izena idatziko, izan ere, batzuetan "Miñones" baino ez da idatziko. Lizitazioaren informazioa eta agiriak: https://www.contratacion.euskadi.eus/webkpe00-kpeperfi/eu/contenidos/anuncio_contratacion/expjaso595058/eu_doc/index.html

Dosierra: 218-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - SEGURTASUN SAILA - EGINBIDE segurtasun publikoaren sistema hobetzeko herritar ekimenen bulegoa

Arrazoa: Ertzaintzaren Tolosako bulegoan, euskaraz ez dakien pertsona bat dago. Elkarriketa elebiduna egiteko saiakera egin dut baina gaztelaraz hitz egiteko esan dit, mesedez. Oso modu edukatua baino Tolosa batean, harreran dagoen ertzainak ez du euskaraz jarduteko maila minimoa.

Erantzuna:

Segurtasun publikoaren sistema hobetzeko herritar ekimenen bulegoa: Ezer baino lehen, barkamena eskatzea baino ez zaigu geratzen euskaraz artatu ez zaituztelako. Ertzain-etxeko Burutzaren informazioan adierazten denez, 2025eko apirilaren 7an Unitateko agente guztiei gogorarazi zitzaizen Ertzaintzan euskararen erabilera normalizatzeari buruzko araudia, eta, zehazki, euskara erabiltzeko irizpideei

buruzkoa. Bestalde, aipatu behar da herritarrei arreta emateko lanpostuak ez duela inolako espezialitaterik aitortuta Ertzaintzaren barruan. Hori dela eta, Ertzain-etxeko Herritarren Babeseko atalera atxikitako agente guztiek bete behar dituzte lanpostu horretako eginkizunak lanpostu horri esleitzen zaizkionean, eta horrek txandakatzea dakar, eta ezinezkoa da guztiek euskara maila homogeneoa izatea. Barkamena eskatu nahi diogu kexa sustatu duen pertsonari, bai eta gure esker ona helarazi ere kexa aurkeztu izanagatik, baliagarria izango baizaigu herritarren eskakizunei hobeto erantzuteko.

Dosierra: 239-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - SEGURTASUN SAILA - EGINBIDE segurtasun publikoaren sistema hobetzeko herritar ekimenen bulegoa

Arrazoa: Tolosako ertzain-etxera joan naiz gaur, martxoak 28, 17:30ak aldera bigarren aldiz bi astetan. Bietan harrera egin didan ertzainak gaztelaraz hitz egiteko eskatu dit ulertzen ez duelako

Erantzuna:

Eginbide Segurtasun publikoaren sistema hobetzeko herritar ekimenen bulegoko burua: Gertatutakoa argitzeko eta zuri erantzun bat eman ahal izateko, beharrezko eginbideak gauza zitzala eskatu genion Tolosako Ertzain-etxeko Buruzagitzari. Jarduketari dagokionez, aipatu behar da herritarrei arreta emateko lanpostuak ez duela inolako espezialitaterik aitortuta ertzaintzaren barruan. Hori dela eta, Ertzain-etxeko Herritarren Babeseko atalera atxikitako agente guztiek bete behar dituzte lanpostu horretako eginkizunak lanpostu horri esleitzen zaizkionean, eta horrek txandakatzea dakar, eta ezinezkoa da guztiek euskara-maila homogeneoa izatea. Aurkeztu den informazioan adierazten denez, kexa hau dela-eta, Unitateko agente guztiei gogorarazi zitzaizen Ertzaintzan euskararen erabilera normalizatzeari buruzko araudia, eta, zehazki, euskara erabiltzeko irizpideei buruzkoa. Aurkeztutako informazioa kontuan hartuta, beraz, soilik geratzen zaigu kexa sustatu duen pertsonari barkamena eskatzea, bai eta gure esker ona helaraztea ere kexa aurkeztu izanagatik, baliagarria izango baizaigu herritarren eskakizunei hobeto erantzuteko. Eskerrak ematen dizkizugu zure laguntzagatik.

Dosierra: 245-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - SEGURTASUN SAILA - EKINBIDE segurtasun publikoaren sistema hobetzeko herritar ekimenen bulegoa

Arrazoia: Ertzainek alkoholemia kontrolean geratu naute Usurbil parean, N634 errepidean, bizikletaz nindoala. Ertzain batek euskaraz agurtu nau, ondo. Besteak gazteleraz eskatu dizkit datuak: NAN zenbakia eta jaiotze data. Jaiotze data euskaraz ematerakoan ez du ulertu eta zenbakiak banan bana emateko eskatu dit. Nik mantsoago hasi naiz jaiotze data diktatzen, baina erdi bidean keinu txar batez lagunduta "ya está bien" esan eta kotxerantz abiatu da. Ordubete kontrolean egon ondoren 200 euroko hiru multa eraman ditut etxera. Lehena, trafiko seinaleei eta Ertzainaren aginduei kasu ez egiteagatik. Gelditzeko eskatu didanean ez omen naiz gelditu eta metro batzuk aurretatu omen naiz. Ea ihes egiten saiatu naizen galdetu diedanean, ezetz, ihes ez dudala egin baina metro batzuk aurrera egin dudala esan didate. Bigarrena, kontrolean zegoen Stop seinalean ez geratzeagatik eta, berriz ere, metro batzuk aurrera egiteagatik. (Berdinak ez badira antzekoak diren bi multa) Hirugarrena, bizikletan tinbrea ez eramateagatik. Errepidean inork ez darama tinbrerik. Bestea da legeak dioena. Gazteleraz zuzendu zaidan Ertzainari (H6P4 identifikazio zenbakia zuen) euskaraz hitz egin didanean, gazteleraz hitz egiteko gonbita egin nau. Nik euskaraz hitz egiteko asmoa azaldu diot. Nik ulertzen niola, baina euskaraz hitz egingo nuela adierazi diot beti ere modu egokiz. Une horretan, Ertzainaren jarrera bapatean berotu da eta orduan ohartarazi dit: "y además no llevas ni timbre ni alumbrado". Mehatsu toñoa zuten Ertzainaren hitzek. Gaurko bizikleta buelta garesti xamar irten zait. Guztira 600 euro. Eta okerrera sentitzen dudana inpotentzia da.

Erantzuna:

Ekinbide Segurtasun publikoaren sistema hobetzeko herritar ekimenen bulegoko burua: Idatziaren edukia aztertu ondoren, Ertzaintzaren Barne Arazoetako Burutzara bidali zen alegatutako egitateak egiaztatzeko, eta dagokion ikerketa-eginbideak hasi zituen horiek argitzeko. Egitateari buruz bildutako datu guztiak aztertu ondoren, ondorioztatu da ikertutako jokabideak ez duela diziiplina-gaitzespenik merezi Diziiplina Araudian jasotakoari jarraituz.

Dosierra: 363-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - SEGURTASUN SAILA - EKINBIDE segurtasun publikoaren sistema hobetzeko herritar ekimenen bulegoa

Arrazoia: Eusko Jaurlaritzaren webgunetik "Haurrak guraso gabe atzerrira joateko baimena" eskatu dut, euskaraz eskatu ere. Erantzuna Ertzaintzatik iritsi zait (bi erantzun), esanez dokumentazioa falta zaidala eskabidea osatzeko. Bada, bi e-postak gaztelania hutsean jaso ditut.

Erantzuna:

Ekinbide Segurtasun publikoaren sistema hobetzeko herritar ekimenen bulegoko burua: Ezer baino lehen, barkamena eskatzea baino ez zaigu geratzen erantzun ez zitzailulako. Jasotako informazioaren arabera, bidalitako erantzuna mezu automatiko bati zegokion, une horretan bi hizkuntzetan erantzuteko konfiguratu gabe zegoena. Gorabehera horren ondorioz, eta zerbitzuaren kalitatea hobetzeko asmoz, erantzun automatiko hori egokitu da aurrerantzean ele bitan eman dadin, eta, hala, antzeko egoera errepika ez dadin. Beraz, barkamena eskatzen diogu kexa sustatu duen pertsonari eta gure esker ona helarazi nahi diogu kexa aurkeztu izanagatik, baliagarri izango baitzaigu herritarren eskakizunei hobeto erantzuteko.

Dosierra: 389-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - SEGURTASUN SAILA - EKINBIDE segurtasun publikoaren sistema hobetzeko herritar ekimenen bulegoa

Arrazoia: Barakaldoko Gernikako arbola 8 etxebizitzako atezain automatikoan jo zuten (auzoko beste baten bizilekura joan nahi zuten, antza) eta eta nik, ohiko moduan : - Baii?? - ("...!") (ez nuen ondo ulertu, eta berriz galdetu nuen) - Nor da? - Ertzaintza, abra la puerta! (tono neutroa, baina tinko) - Bai. Nora zoaz? -EEhh?? - Nora zoaz? - (orain gogorrago) Ertzaintza, polizia, abra la puerta!!

Erantzuna:

Ekinbide Segurtasun publikoaren sistema hobetzeko herritar ekimenen bulegoko burua: Jakinarazten dizugu zure erreklamazioa ezin dugula izapidetzeko onartu; izan ere, edukiaren analisitik ez da ondorioztatzen polizia-jarduketarik dagoenik, ezinbesteko elementua izanik Zerbitzu honen esku hartzea justifikatzeko, informazio gehiago eman ezean.

Dosierra: 409-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - SEGURTASUN SAILA - EKINBIDE segurtasun publikoaren sistema hobetzeko herritar ekimenen bulegoa

Arrazoa: Pasa den asteartean, hilaren 3an goizeko 10ak aldera, Barakaldoko Ertzaintzaren komisaldegira joan nintzen salaketa bat jartzera. Sartu eta egun onak eman ondoren, salaketa bat jarri nahi nuela adierazi nion euskaraz arreta egin zidanari. Honek, gaztelaniaz egiteko eskatu zidan euskaraz. Salaketa euskaraz jarri nahi baldin banuen Sestaoko komisaldegira joan beharko nuela adierazi zidan. Erreklamazio bat jarri nahi nuela adierazi nuen eta, azkenean, salaketa euskaraz egin nuen beste agente batekin. Tramitea bukatu ondoren erreklamazioa jartzeko beharrik ez zegoela adierazi zidan honek. Esan nion hasieratik euskaraz eta oztoporik gabe eta berdintasunez jarduteko eskubidea dudala.

Erantzuna:

Ekinbide Segurtasun publikoaren sistema hobetzeko herritar ekimenen bulegoko burua: Aurkeztu den informazioaren arabera, hasieran hartu zintuen agenteak, euskaraz agurtu ondoren, jakitera eman zizun ez zuela salaketa euskaraz jasotzeko hizkuntza-gaitasunik, eta izapide hori euskaraz egiteko gaitutako lankide batengana bideratu zintuen. beraz, Ertzaintzain euskararen erabilera normalizatzeko araudian eta euskara erabiltzeko irizpideetan ezarritakoari jarraituz. Beraz, soilik geratzen zaigu barkamena eskatzea bai eta gure esker ona helaraztea kexa aurkeztu izanagatik, baliagarria izango baitzaigu herritarren eskakizunei hobeto erantzuteko.

Dosierra: 431-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - SEGURTASUN SAILA - EKINBIDE segurtasun publikoaren sistema hobetzeko herritar ekimenen bulegoa

Arrazoa: Durangoko ertzain etxean enkartelada bat egiteko baimen bat eskatzerako orduan, "eso mejor en castellano" erantzun dit ertzainak. Bere atzetik etorri den neskak ere ez du hitz bakar bat euskeraz esan.

Erantzuna:

ek: Pertsona hori artatu zuen agenteak, euskaraz agurtu ondoren, eta erabilitako esaldi konplexuen aurrean eta eskaera oso azkar formulatu zuela ikusita, gaztelania erabiltzeko eskatu zion, zerbitzu eraginkorragoa eman ahal izateko. Esaldi hauxe erabili zuen: "barkatu, agian hobeto gaztelaniaz mesedez". Gertatutakoaren

aurrean, eta etorkizunean antzeko egoerak saihesteko asmoz, Unitateko langile guztiei gogorarazi zaie Ertzaintzan euskararen erabilera normalizatzeari buruzko araudia. Soilik geratzen zaigu kexa sustatu duen pertsonari barkamena eskatzea, baita gure esker ona ere kexa aurkeztu izanagatik, baliagarria izango baitzaigu herritarren eskakizunei hobeto erantzuteko

Dosierra: 434-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - LARRIALDIEI AURRE EGITEKO ETA METEOROLOGIAKO ZUZENDARITZA -

Arrazoa: Eusko Jaurlaritzak hitzarmen bat sinatu berri du VOST elkartearekin (Euskadiko Boluntario Digitalen Elkarte) larrialdi-egoerei buruzko informazio ofiziala herritarrei sare sozialen bidez helarazteko. Atzo argitaratutako mezuan euskarazko testuak honela dio: "Segurtasun Sailak muturreko fenomeno meteorologikoei buruzko oharren igorri du".

Erantzuna:

Larrialdiei aurre egiteko eta meteorologiako zuzendaritza: Hain zuzen ere, itzulpena ez da zuzena. VOST Euskadirekin harremanetan jarri gara eta gogoratu diogu, euskararen erabilera zuzena zaindu behar dela, herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko eta komunikazioetan hizkuntza-berdintasun eraginkorra lortzeko.

Dosierra: 487-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - LARRIALDIEI AURRE EGITEKO ETA METEOROLOGIAKO ZUZENDARITZA -

Arrazoa: VOST elkartearekin (Euskadiko Boluntario Digitalen Elkarte) larrialdi-egoerei buruzko informazio ofiziala herritarrei sare sozialen bidez euskaraz helarazitako mezuak gaizki idatzita zeudelako jarritako kexari horrela erantzun zion Jaurlaritzak: "Hain zuzen ere, itzulpena ez da zuzena. VOST Euskadirekin harremanetan jarri gara eta gogoratu diogu, euskararen erabilera zuzena zaindu behar dela, herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko eta komunikazioetan hizkuntza-berdintasun eraginkorra lortzeko". VOSTi egindako gogorazpenak ez du askorako balio izan; izan ere, honela dio atzo, ekainak 30, sareetan argitaratutako mezuak: "Segurtasun Sailak muturreko fenomeno meteorologikoei buruzko oharren igorri du". Ez da serioa horrela ibili behar izatea. "Hain zuzen

ere, itzulpena ez da zuzena" dio Jaurlaritzak erantzunean. Ez litzateke logikoagoa euskara menperatzen duen entitate bat izatea zerbitzu hori kudeatzen duena? Hala ez izateak eta itzultzen ibili beharrak horrelakoan ekartzen ditu.

Dosierra: 593-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - LARRIALDIEI AURRE EGITEKO ETA METEOROLOGIAKO ZUZENDARITZA -

Arrazoa: EUSKALMETen web gunean euskarazko bertsioan sartuta ere informazioa espainolez dago. Edozeinek egin dezake orri horren itzulpena, baina ez dute egin nahi izan!

Erantzuna:

Larrialdiei Aurre Egiteko eta Metereologiako Zuzendaritza: Gure aldetik, EAEko hizkuntza ofizialak erabiltzako irizpideak jarraituz, Euskalmet webgunean ele bietan argitaratzen ditugu edukiak. Kasu honetan akatsa izan da eta zuzendu egin dugu eta gaur egun, informazioa euskaraz dago. Herritarrak egindako ekarpena eskertzen dugu.

Dosierra: 653-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - SEGURTASUN SAILA - EKINBIDE segurtasun publikoaren sistema hobetzeko herritar ekimenen bulegoa

Arrazoa: autoan Estavillotik (Araba) Gasteizera bidean gentozela arazo bat izan genuen N1 errepidean. Hiru erraila zeuzkan errepide batean, ibilgailu bat, modu oso arriskutsuan zebilen, errail guztiak inbaditzen kontrol gehiegirik gabe, mozkor edo auskalo zein arrazoiengatik. Beldurra ematen zigun aurreratzeak, beste kotxeren batek ikusitakoak ikusita ezkerreko errailan zegoela eskuinetik ere aurreratu zuen. Aurreratzea lortu genuenean (Los Llanos poligonoaren altueran) abisua ematea pentsatu genuen istripuren bat ekiditeko asmotan. 112 zenbakira deitu eta emakume ahots batek artatu ninduen (euskaraz lehen hitzetik), gertatutakoa kontatu nionean zuzenean Ertzaintzara bideratu zuen deia eta eskegi gabe, itxoiteko esan zidan. Ertzaintzakoak deia hartu zuenean, lehen hitzak gazteleraz egin zituen, hala ere, euskaraz egin nion. Kontatzen hasi nintzaion eta moztu egin ninduen esaldi honekin "Si me lo dices en castellano igual te entiendo algo...". Amorrarari ninduen baina lehentasuna kotxe hori errepidetik "kentzea" zela iruditu zitzaion eta honakoa erantzun nion: "Mmm bueno, vale, no voy a

entrar." Eta segidan gazteleraz azaldu nion dena, baita matrikula eman ere. Haien esku geratu zen, eskertu zidan deia (gazteleraz) eta agurtu ninduen (gaztelera hutsean berriz ere). Nik euskaraz agurtu eta hori izan zen dena. Harrigarria egiten zait larrialdi deiak jasotzen dituen Ertzain batek euskarazko gaitasun eza edukitzea eta euskararekiko horrelako mespretxua. Besterik gabe, zerbaitetarako balio badu, hor doa nire kexa.

Erantzuna:

Ekinbide Segurtasun publikoaren sistema hobetzeko herritar ekimenen bulegoko burua: Arabako Ardatzako Burutzak bidali duen informazioaren arabera, deia hartu zuen Ertzaintzako agenteak ez zuen behar adinako euskara mailarik, agente guztiek ez baitute euskara maila bera, eta berriemaileari gaztelaniaz hitz egiteko eskatu zion, behar bezalako arreta eman ahal izateko. Deiak azkar jardutea eskatzen zuen gertakarien larritasunagatik, eta horregatik eman zitzaion lehentasuna arreta berehala emateari eta horregatik ez zuen agenteak deia behar adinako euskara maila zuen beste lankide batengana bideratu. Bestalde, adierazi behar da berriemaileak ez zuela eskatu arreta euskaraz jaso nahi zuenik. Eskatu izan balu, eta eskaerari erantzuteko, deia bideratu egingo zuen. Soilik geratzen zaigu barkamena eskatzea kexa sustatu duen pertsonari, bai eta gure esker ona ere kexa aurkeztu izanagatik, baliagarria izango baitzaigu herritarren eskakizunei hobeto erantzuteko.

Dosierra: 666-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - SEGURTASUN SAILA - EKINBIDE segurtasun publikoaren sistema hobetzeko herritar ekimenen bulegoa

Arrazoa: Orkatz batekin istripua izan eta gero Ertzaintzara deitu dut abisua emateko. Telefonoz bi ertzainekin hitz egin dut, lehenak bakarrik erantzun die euskaraz nik esandakoei. Patruila bertaratu denean, eta euskaraz zuzendu natzaionean, "me puede hablar en castellano?" izan da erantzuna. Momentuan, tamalez, ez naiz gai izan nire hizkuntza eskubidea urratzen ari zela esateko.

Dosierra: 748-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - SEGURTASUN SAILA - EKINBIDE segurtasun publikoaren sistema hobetzeko herritar ekimenen bulegoa

Arrazoa: Tolosako Ertzain etxean, harreran dagoen langileak erdera hutsez artatu nau gaur goizean. Bestelako aukerarik eman gabe

Erantzuna:

Ekinbide Segurtasun publikoaren sistema hobetzeko herritar ekimenen bulegoko burua: Beharrezko eginbideak egin ondoren jasotako informazioaren arabera, pertsona hori artatu zuen agenteak, euskaraz eta gaztelaniaz agurtu ondoren, euskaraz behar bezala artatzeko beharrezko maila ez zuenez, gaztelaniaz jarraitu zuen elkarrizketa. Gertatutakoaren aurrean, eta etorkizunean antzeko egoerak saihesteko asmoz, Unitateko langile guztiei gogorarazi zaie Ertzaintzan euskararen erabilera normalizatzeari buruzko araudia. Gainera, adierazi denez, deskribatutakoa bezalako kasuetan, pertsona batek euskararen ezagutza nahikoa ez duenean, arreta bideratu egingo da hizkuntza horretan arreta egokia bermatzeko. Tamalez ezin da bermatu herritarrekiko harreman guztiak euskaraz izatea, oraindik gabeziak hautematen baitira alderdi horretan. Aurkeztutako informazioa kontuan hartuta, beraz, soilik geratzen zaigu kexa sustatu duen pertsonari barkamena eskatzea, bai eta gure esker ona ere kexa aurkeztu izanagatik, baliagarria izango baitzaigu herritarren eskakizunei hobeto erantzuteko.

Dosierra: 948-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - SEGURTASUN SAILA - EKINBIDE segurtasun publikoaren sistema hobetzeko herritar ekimenen bulegoa

Arrazoa: Ertzaintzaren Zabalburuko komisaldegira joan naiz gestio bat egitera gaur 11:00ak aldera. Euskaraz zuzendu natzaio harrerakoari eta "en castellano" esan dit edukazio osoz, ez dit agente euskaldun batekin jarduteko aukerarik eman. Hainbatetan gertatu zait azken aldian.

Erantzuna:

Ekinbide Segurtasun publikoaren sistema hobetzeko herritar ekimenen bulegoko burua: Gertatutakoa argitzeko eta erantzun bat eman ahal izateko, beharrezko eginbidea eskatu genion Bilboko Ertzaintxeko Buruzagitzari. Emandako txostenaren arabera, ertzain-etxe horren mende dauden lan-talde eta -arlo guztiek dituzte arreta euskaraz ematea bermatzen duten agente kualifikatuak. Pertsona batek arreta euskaraz jaso nahi duela adierazten duenean, arreta eman ari zaion agenteak beharrezko maila ez badu, maila hori baduen beste agente batera bideratzen da berehala. Une horretan zentroan zeuden agenteek ez dute

gogoratzen norbait haserretu egin zenik ezin izan zuelako arreta euskaraz jaso. Alde horretatik, jakitera ematen dizugu Sail honen borondatea dela lege-agindua betetzea eta Euskararen erabilera normalizatzeko III. Plana bultzatzea. Hala ere, tamalez, ezin da bermatu herritarrekiko harreman guztiak euskaraz izatea, oraindik gabeziak hautematen baitira alderdi horretan. Era berean, gure interesa da hizkuntza-eskubideak errespetatzea eta herritarrei zerbitzurik onena ematea, eta, beraz, alderdi horretan kalitatea hobetzeko ahaleginean jarraituko dugu. Aurkeztutako informazioa kontuan hartuta, beraz, soilik geratzen zaigu kexa sustatu duen pertsonari barkamena eskatzea, bai eta gure esker ona helaraztea ere kexa aurkeztu izanagatik, baliagarria izango baitzaigu herritarren eskakizunei hobeto erantzuteko.

Dosierra: 964-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - SEGURTASUN SAILA - EKINBIDE segurtasun publikoaren sistema hobetzeko herritar ekimenen bulegoa

Arrazoa: Beasaingo Ertzaintzaren komisaldegira joan nintzen eta sarreran bi ertzain zeuden. Euskaraz hitz egiten saiatu nintzen eta esan zidaten gaztelera egiteko mesedez. Eta gaztelera jarraitu behar izan nuen.

Erantzuna:

Ekinbide Segurtasun publikoaren sistema hobetzeko herritar ekimenen bulegoko burua: Zure idatzian agertzen diren datuekin ezin izan da jakin kexa sustatzen duen pertsona nork artatu zuen. Era berean, adierazten zerbitzuan zeuden lan-taldeen ez dute gogoratzen aipatutako gertaera. Beasaingo Ertzain-etxeko unitate-kontseiluen bidez, aldian-aldian aipatzen dira herritarren arretarako agenteek arreta euskaraz emateari buruz dituzten betebeharrak, bai eta informazio-triptiko bat dagoela ere azalpen-oharrekin. Alde horretatik, jakitera ematen dizugu sail honen borondatea dela lege-agindua betetzea eta Euskararen erabilera normalizatzeko III. Plana bultzatzea. Hala ere, tamalez, ezin da bermatu herritarrekiko harreman guztiak euskaraz izatea, oraindik-gabeziak hautematen baitira alderdi horretan. Era berean, gure interesa da hizkuntza-eskubideak errespetatzea eta herritarrei zerbitzurik onena ematea, eta, beraz, alderdi horretan kalitatea hobetzeko ahaleginean jarraituko dugu. Aurkeztutako informazioa kontuan hartuta, beraz, soilik geratzen zaigu kexa sustatu duen pertsonari

barkamena eskatzea, bai eta gure esker ona helaraztea ere kexa aurkeztu izanagatik, baliagarria izango baitzaigu herritarren eskakizunei hobeto erantzuteko.

NAFARROAKO GOBERNUA

Administrazio orokorra (7)

Dosierra: 64-2025

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - LURRALDEAREN ANTOLAMENDU ETA HIRIGINTZA ZUZENDARITZA NAGUSIA

Arrazoia: Nafar Gobernuaren "Nafarroako Hirigintza Informazio Sistema" ez dago euskaraz.

https://administracionelectronica.navarra.es/SIUN_Consulta/Index.html#/inicio

Dosierra: 145-2025

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - LURRALDE KOHESIORAKO DEPARTAMENTUA - Toki Azpiegituren Zerbitzuko Zuzendaria

Arrazoia: Nafarroako Toki Inbertsioen Planeko (TIP) webgunean eduki guztia gaztelania hutsez dago, <https://administracionlocal.navarra.es/areas/SIL-NuevoPIL/default.aspx>. Eskabideak, ziurtagiriak, dokumentazioa... ele biz eskuragarri izateko eskaera egiten dut. Udal ugarik euskara dute lan-hizkuntza, eta gisa honetara, Nafarroako Gobernuak euskara erabiltzeko eskubidea oztopatzen die. Honekin batera nire kexa azaldu nahi dut ere, <https://administracionlocal.navarra.es> ez dagoelako euskaraz erabiltzerik. Ordenagailuaren hizkuntza hautematen duela dio mezu batean, baina edo ez da hala, edo ez dabil ongi. (argazkia erantsita)

Erantzuna:

Laguntza Tekniko eta Administratiborako Atala: Toki Administrazioaren webgune berri bat ezartzen ari gara arazo hau konpontzen saiatzeko, besteak beste. Barkatu eragozpenak.

Dosierra: 247-2025

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - NASUVINSA - NAFARROAKO LURZORUA ETA ETXEBIZITZAK S.A.

Arrazoia: Nafarroako Gobernuko Etxebizitza sailetik jaso dudana mezua eta ebazpena, gaztelania hutsez. Nasubinsako langileen bidez izapidetu dut eskaera. Nik beraiekin hitz egin nuen, euskaraz jakina, eta beraiek eskatu zidaten beharrezko

dokumentazioa eta gaia Etxebizitza sailera bideratu zuten. Ondotik nik jaso dut Etxebizitza sailaren bizigarritasun-zedularen erantzuna gaztelania hutsean. Ez zait zuzena iruditu eta Nafarroako Gobernuko Etxebizitza saileko goi funtzionario zenbaitzuk euskararekiko duten begirune eskasa agertzen du, bertze behin. Uste dut egiteko molde nahiko ohikoa dela, herritarra hasieran administrari esukaldunarekin harremana euskaraz hasi arren, Funtzionarioen artean gaztelania denez lan hizkuntza, erantzunak gero gaztelania hutsez bidaltzeko dituzte. Inor ez da kexatuko gainera, etxebizitza sailen izapidetza (eta epeekin), nahiko lan izaten baita bestzela ere.

Dosierra: 261-2025

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - TOKI ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARITZA NAGUSIA -

Arrazoia: Nafarroako toki-administrazioaren webgunea hobetu dezatela eskatzen dut. <https://administracionlocal.navarra.es/Paginas/default.aspx> Dirudienez, nabigatzailearen hizkuntzaren arabera hautematen du hizkuntza, eta hori erabilgarria zait, baina gauza batzuk ez daude euskaraz. Bestetik, uste dut aukera izan beharko nukeela web arakatzaileraren hizkuntza-ekarpena aldatu gabe hizkuntza batetik bestera webgunetik bertatik pasatzeko. Azkenik, albisteetan klikatuta, gaztelaniazko bertsioetara eramaten zaitu zuzenean. Hauetan hizkuntza aldatuz gero, euskaraz azaltzen da, baina soil-soilik laburpen txiki bat. Nola da posible? Nafarroako Gobernuko toki-administrazioaren zuzendaritzari eskatu nahi diot webgunea konpon dezala, euskara zerbitzu-hizkuntza gisa bermatu eta hitzuna hizkuntza-eskubideak behar bezala errespetatu ditzala.

Dosierra: 313-2025

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - HERRI-LANEN ETA AZPIEGITUREN ZUZENDARITZA NAGUSIA

Arrazoia: A-21ean, 65. irteerako seinaleetika berria jarri dute gaztelania hutsean, euskaraz ere ezartzea eskatzen diogu Nafarroako Gobernuari, kontuan izanik gainera Erronkari eremu mistoan aurkitzen dela eta ez dagoela euskaraz ezartzeko debekurik.

Erantzuna:

Zainketa Zerbitzuko zuzendaria: Indarrean dagoen araudiarekin bat, eta

seinaleztapenaren arloko eskumen autonomikoen arabera, euskara eta beste hizkuntza koofizialak erabiltzen dira soilik halakotzat aitortzen dituzten autonomia-erkidegoetan. Kasu honetan, seinalearen lurralde-eremu zehatzean gaztelania da hizkuntza ofizial bakarra, eta, hortaz, lege ezarrita dago hizkuntza horretan idatzita egon behar duela.

Dosierra: 866-2025

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - LURRADE KOHESIORAKO DEPARTAMENTUA - Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusia

Arrazoa: Pueblos VIVID Herriak deitutako ekimenak webgunea gaztelania hutsez dauka: <https://pueblos.vividrural.com/> Emplea Fundazioak sustatzen du ekimena, Nafarroako Gobernuko Toki Administrazioa eta Despopulazioa Zuzendaritza Nagusiaren eskutik, eta hainbat toki entitatek ere parte hartzen dute despopulazioaren kontrako ekimen honetan. Euren bitartekoak euskaraz ere eskura jar ditzaten eskatzen dut.

Erantzuna:

Proiektuen koordinatzailea: Esan, web orrialdea euskaratuta dagoela: <https://pueblos.vividrural.com/eu/>

Dosierra: 953-2025

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - UNIBERTSITATE, BERRIKUNTZAKO ETA ERALDAKETA DIGITALEKO DEP.

Arrazoa: Nafarroako Gobernuko Unibertsitate, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitalerako Departamentuan lan egiten dut. Departamentu honetako kontseilariak urte honetako lana eskertu eta gabonak zoriontzeko mezu elektronikoa bidali digu gaur gaztelania hutsean. Nafarroako erakunde eta agintari publikoek duten ardurari jarraiki, Nafarroako berezko hizkuntza den euskaraz ere bidali beharko luke.

Aisialdia, kultura, kirola (10)

Dosierra: 4-2025

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - NAVARRA DE INFRAESTRUCTURAS DE CULTURA, DEPORTE Y OCIO S.L - NICDO -

Arrazoaia: Navarra Arenako web orriko informazioa espainiera hutsez dago nahiz eta Nafarroako Hizkuntza euskara ere baden. Gaur ostirala, Mitoaroa kontzerturako informazio praktiko bila sartu nintzen eta dena gazteleraz topatu nuen.

Erantzuna:

Bezeroen Arreta Saila: NICDO-n, Nafarroako Gobernuaren mendeko enpresa publikoan, etengabe lanean ari gara gure webguneetan eta sare sozialetan ahalik eta eduki elebidun handiena izateko; batez ere eduki korporatiboak eta finkoak, sortzen dugun informazio-bolumen handia dela eta. Gaur egun ezinezkoa zaigu (ez dugu gaitasunik, ez denboraz, ez langilez) Nafarroa Arenako webguneetako agenda ataleko edukien itzulpena egitea zuzenean eta gutxinaka itzulpen guztiak igotzen ari gara. Zehazki, ZETAK-en urtarrilaren 3ko ostiraleko eta urtarrilaren 4ko larunbateko ekitaldien edukia, bai edukia orokorra baita informazio praktikoarena ere, euskaratuta zegoen. Hala ere, eskerrak eman nahi dizkizugu kexa hau helarazteagatik.

Dosierra: 14-2025

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - NAFARROAKO MUSEOA

Arrazoaia: Urtarrilaren 4an 13:00 aldera hurrekin Irulegiko eskua eta Loizuko gizona ikustera joan ginen Nafarroako museora, ilara luzea zegoen eta euskaraz ari ziren familia ugari. Sarrerakoari 3 txartel eskatu nizkion eta euskaraz ez zekiela eta leihatillan bera bakarrik zegoela esan zidan. Lotsagarria benetan Nafarroako Gobernuak ematen duen irudia, exenplua eta zerbitzua. Gure hizkuntza eta kulturaren historiari buruz hitzetatik ekintetara pasatzeko garaia da, kultura zerbitzu guztiak behingoz euskaraz bermatzeko eskatzen diogu Nafarroako Gobernuari.

Dosierra: 31-2025

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - NAFARROAKO MUSEOA

Arrazoaia: Nafarroako museora joan gara familiako lau kide abenduaren 29an, 2 heldu eta adin txikiko 2. Igandez sarrera doakoa da eta jendez lepo egon da. Sarrerako leihatilan jende asko egon da eta bertako beste gizon bat hurreratu zaigu gaztelania hutsean galdetuz ea Irulegiko eskua bakarrik ala museoa ikusi nahi dugun. Erantzun diogu batez ere Irulegiko eskua ikustera gatozela. 11:55ak dira eta 12:30ak arte aforoa beteta dagoela esan digu. Hori dela-eta, zain egon eta ilaran jarri gara. 12:30ean sartu gara denok eskua dagoen aretora. Bertan gidari mutil gazte bat izan da. Azalpen guztiak gaztelania hutsean eman ditu, oso ondo azaldu du, baina ez du hitz bat bera ere egin euskaraz nahiz eta bertan ginen gehienon ahotan euskara zen nagusi. Bukatutakoan jakin dugu bazekiela euskaraz bakan batzuk hurbildu zaizkiolako modu partikularrean galderak eginez. Inork ez digu momentu batean ere galdetu gure hizkuntza aukeraz, sarreran ez inon ez dago horri buruzko oharrik. Ez dago bisita euskaraz egiteko aukerarik? Bada ez, beste txandaren batean egon diren lagunek ere gaztelania hutsean egin dutelako. Beharrezkoa da denon ondarea den museo honetan euskaraz artatuak izateko eskubidea bermatzea.

Dosierra: 45-2025

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - BALUARTE, BATZAR JAUREGIA ETA NAFARROAKO AUDITORIOA

Arrazoaia: Goazen espektakulua ikustera etorri gare, eta sarrera salmenten leihatilan bi langile zeuden. Bietako inork ez zekien euskaraz. Eskerrak jarrera ona izan dutela, eta mimikaz eta testuinguruz baliaturik, sarrerekin nuen arazoa konpondu didate. Hala ere, ez da onargarria euskarazko zerbitzurik ez ematea.

Erantzuna:

Publikoaren arretarako atala: Arretaz irakurri dugu zure kexa, eta benetan sentitzen dugu gertatutakoa. Azpikontratutako enpresarekin sinatuta daukagun kontratuan argi dago euskara jakitea garrantzitsua dela guretzat eta oinarritzko ezagutzak dituzten langileak izaten saiatu behar dutela. Badakigu ez dutela beti lortzen, pertsonen txandakatze handia dagoelako eta behar duten prestakuntza oso zehatza delako. Enpresa honekin harremanetan jarri gara zerbitzua euskaraz eman ahal izatea guretzat funtsezkoa dela gogorarazteko. Eskerrik asko idazteagatik eta egunero hobetzen laguntzeagatik.

Dosierra: 79-2025**Nori:** NAFARROAKO GOBERNUA - TURISMO ZUZENDARITZA NAGUSIA**Arrazoa:** Urtarrilaren 22tik 26ra Fitur turismoko nazioarteko azoka izan zen Madrilén. Nafarroako turismoaren estandean euskararen presentzia negargarria izan zen. Nafarroako Gobernuak euskarari eta euskal hiztunei ematen dion balioaren seinale.**Dosierra:** 276-2025**Nori:** NAFARROAKO GOBERNUA - LIBURUTEGIEN ZERBITZUKO ZUZENDARITZA**Arrazoa:** Aurtengo Liburuaren Nazioarteko egunaren afixa, gaztelania hutsean argitaratu du Nafarroako Gobernuak.**Dosierra:** 309-2025**Nori:** NAFARROAKO GOBERNUA - LIBURUTEGIEN ZERBITZUKO ZUZENDARITZA**Arrazoa:** Baztango Liburutegi publikoan kartelak espainolez ageri dira, gero eta gehiago. Bidenabar: liburuzainak ez daki euskaraz**Erantzuna:**

Liburutegien Zerbitzua: Zuk diozun bezala, Baztango herritarrek euskaraz artatuak izateko eskubidea dute. Aurreko liburuzainaren martxa zela eta, Liburutegi Zerbitzutik langile ordezkapena eskatu genuen euskaraz jakiteko betekizunarekin. Baina, ordezkapenak egiteko hautagaien zerrendako inork ez zuen plaza onartu. Hori del eta, bi aukera baino ez genituen: Liburutegia itxita edukitzea edo euskarazko betekizunik gabeko hautagein zerredara joatea. Egoera hori baloratu zen, eta azkenik, Zerbitzua jendeari irekita egotea lehenetsi genuen. Egungo liburuzainaren kontratazioa aldi baterako da. Kontratazioa behin betikoa denean, lanpostua beteko duen langileak euskararen ezagutza izango du, legeria agintzen duen bezala. Kartelei dagokionez, liburuzainarekin harremanetan jarri gara, ahal den neurrian, kartelak euskaraz jar ditzan

Dosierra: 514-2025**Nori:** NAFARROAKO GOBERNUA - MUSEOEN ZERBITZUA**Arrazoa:** Nafarroako Museoaren aurrealdea berritzu dute baina ez dute "Nafarroako museoa" idatzi. Euskaldunek beste 30-40 urte itxaron beharko dugu ELKARBIZITZA eta ERRESPETUA izateko.**Dosierra:** 828-2025**Nori:** NAFARROAKO GOBERNUA - TURISMO ZUZENDARITZA NAGUSIA**Arrazoa:** Erriberriko gaztelua bisitatzeko ez dago bisita gidaturik euskaraz.**Dosierra:** 940-2025**Nori:** NAFARROAKO GOBERNUA - TURISMO ZUZENDARITZA NAGUSIA**Arrazoa:** Mendigorriko Andeloko aztarnategiaren kanpoko kartela zein, barruan dagoen museoko kartel guztiak gaztelera hutsean daude. Kristala ez ukitzeko kartel bat salbu, non 3 hizkuntzatan dagoen; baina euskararen arrastorik ez. Museo horretara euskaldunak ere bagoaz (udan AEKren txango bat egon zen eta bertako orduetan kexua sartu zuten). D ereduko eskola batzuk euskarako bisita eskatzen duten. Mendigorriko Udala bere garaian euskaratzeko eskaria egin zuen. (Kartel asko zaharkituak daude, beraz kartel guztietan euskara agertzeko eskaria egin nahiko nuke).

Ekonomia, enplegua, ogasuna (4)

Dosierra: 101-2025

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - OGASUNeko ZUZENDARITZA

Arrazoa: Nafarroako Ogasunaren lizitazio eta kontratuen web orria ezin daiteke euskaraz kontsultatu. (https://boletines.sociedad-lagunak.com/c/e49ln7/od-2zqd-/5_5dkzleaym)

Dosierra: 268-2025

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - EKONOMIA ETA OGASUN DEPARTAMENTUA - Foru Ogasuneko Zuzendaritza

Arrazoa: Nafarroako errenta aitorpena egiteko azalpen-bideoak gaztelania hutsez daude, ez euskaraz bikoiztuta, ez azpititulatuta, eta irudiak ere gaztelaniazko bertsioarenak dira: <https://renta.navarra.es/eu/errenta-online> Errenta aitorpena Nafarroako bi hizkuntzetan egiteko aukera bermatzen da, baina honekin lotutako informazio edo azalpen bideoak bi hizkuntzatan jasotzeko aukerarik ez. (atxikita irudiak) Denon hizkuntza-eskubideak aintzat hartu eta berma daitezela eskatzen dut.

Dosierra: 275-2025

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - EKONOMIA ETA OGASUN DEPARTAMENTUA - Foru Ogasuneko Zuzendaritza

Arrazoa: atzo Nafarroako errenta aitorpeneko proposamena kontsultatu nuen online eta euskara hautatuta. Aitorpen proposamena bera eta zuzendariaren gutuna gaztelania hutsean daude.

Dosierra: 459-2025

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - EKONOMIA ETA OGASUN DEPARTAMENTUA - Foru Ogasuneko Zuzendaritza

Arrazoa: Nafarroako Foru Ogasuneko Eskirotz kaleko egoitzan mutualistei bideratutako informazioa gaztelera hutsean jarri dute.

Euskara, hizkuntza-politika (4)

Dosierra: 524-2025

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - EUSKARABIDEA

Arrazoa: Euskarabideak euskara sustatzeko dirulaguntzen ebazpenaren berri eman digu gaur eposta bidez. Eposta gaztelania hutsez dago, ebazpena bistartzeko linkak ere gaztelaniazko bertsiora bideratzen zaitu.

Dosierra: 581-2025

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - EUSKARABIDEA

Arrazoa: Euskaraldian parte hartu dudala-eta galdetegi bat bidali dit (Madrilgo!) enpresa batek. Enpresa zein ote den begiratzera sartu eta gaztelania hutsean dauka webgunea (SIGMADOS.COM). Euskararekiko batere ajolarik ez duen enpresa bat kontratatu dute Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak eta Euskararen Erakunde Publikoak, zer eta euskaldunon hizkuntza ohituren gaineko ariketa bat ikertzeko? Ez nago halakoekin batere ados eta salatzen modukoak iruditzen zaizkit. Gainera, ahalik eta parte-hartzaile gehien erantzunak jasotzea bada helburua, kontrako emaitza lortzea sustatzen dela iruditzen zait. Nik ez dut galdetegi erantzungo, adibidez. Bidenabar, esan dezadan, gisa horretako galdetegi edozein euskal erakundek bideratzea zeukakeela. Horra jasotako mezua (euskarazko bertsioa): Adiskide hori: 2025 eko EUSKARALDIA bukatuta, ikerketa bat abian jartzera goaz, norbanakoen parte-hartzea ezagutu eta euskararen erabileran zer emaitza lortzen den neurtzeko. Aurtengo edizioan parte hartu duzuen ahobizi eta belarriprest guztietatik, aukeratutako partaideetako bat zara zu, eta ikerketa honetan parte hartzea eskatzen dizugu. Galdetegi labur honi erantzutea da eskatzen zaizuna. Oso garrantzitsua da zuk galdetegiari erantzutea, ikerketaren kalitatea bermatzeko. SIGMADOS enpresak egingo du azterlan hau eta, TAUPAREkin elkarlanean, ondorengo erakunde publikoek sustatu dute: Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua eta Euskararen Erakunde Publikoa. Galdetegiarekin zalantzarik baduzu, SIGMADO Sera jo dezakezu: 900670910 telefono zenbakia edo euskaraldia@sigmados.com helbide elektronikoa. Eusko Jaurlaritzaren 945019297 telefonoan eta j-aizpurua@euskadi.eus helbide

elektronikoan ere behar duzun informazio osagarria emango dizute. Eskerrik asko, EUSKARALDIari buruzko ikerketa honetan parte hartzeagatik.

Dosierra: 684-2025

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - EUSKARABIDEA

Arrazoia: Euskarabideak euskara sustatzeko dirulaguntzak justifikatzeko epea irekita dagoela jakinarazteko bidali digun eposta mezua, eta bertan azaltzen den lotura gaztelania hutsean daude: "Novedades en trámites del Gobierno de Navarra". Euskara sustatzen etxetik hasi beharko luke Nafarroako Gobernuak.

Erantzuna:

Euskara Administrazio Publikoetan Garatzeko Zerbitzua: *Navarra.es* Atariaren Atalari dagokio kexaren gaia eta honakoa helarazi dute: 1. Lanean ari dira euskarazko tramiteetara harpidetzen direnei mezuak euskaraz bidaltzeko. 2. Garapena amaituta dagoenean jakinaraziko dizute. 3. Navarra.es Atariaren Atalak eskerrak eman nahi dizkio Behatokiari, izan ere, kexari esker sistema behar bezala ez dabilela ohartu dira.

Dosierra: 874-2025

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - EUSKARABIDEA

Arrazoia: Euskara sustatzeko dirulaguntzen baitan, laguntzaren bigarren zatiaren ordainketaren jakinarazpen eposta bidali digu Nafarroako Gobernuak. Eposta gaztelaniaz baino ez dago eta bertan ageri den lotura web orriaren gaztelaniazko bertsiora bideratzen du. Euskara sustatzeko dirulaguntzaren berri emateko euskararen arrastorik ez.

Erantzuna:

Euskara Administrazio Publikoetan Garatzeko Zerbitzua: Kexa honen harira, navarra.es atalarekin harremanetan jarri gara, unitate horri baitagokio gaia. Jakinarazpenak egiten dituen informatika sisteman azkeneko aldaketak egin dituzte eta konpontze fasean daude.

Gizarte gaiak, politikak (2)

Dosierra: 489-2025

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA -ESKUBIDE SOZIALETAKO, EKONOMIA SOZIALEKO ETA ENPLEGUKO DEPARTAMENTUA

Arrazoia: Bortzirietako Euskara Mankomunitateak udaleku irekiak antolatzeke dirulaguntza eskaera aurkeztu zuen Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialerako, Ekonomia Sozialerako eta Enpleguko Departamentuak bizitza pertsonala, familia eta lana bateragarri egitea sustatzen duten proiektuak garatzeko deialdian. Mankomunitateak dokumentazio guziaz euskaraz aurkeztu zuen, deialdiarekin batera zetozen euskarazko ereduak eta inprimakiak erabilita. Berriki dirulaguntza horri buruzko ebazpena jaso dugu, gaztelania hutsez. Deialdia kudeatzen duen Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziari eta Euskarabideari mankomunitatearen kexa helarazi diogu (erantsita doa).

Dosierra: 707-2025

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA -ESKUBIDE SOZIALETAKO, EKONOMIA SOZIALEKO ETA ENPLEGUKO DEPARTAMENTUA

Arrazoia: Joan den irailaren 23an, Nafarroako Oinarritzko Gizarte Zerbitzuen 40. urteurrena ospatu zen Baluartean, "Pertsonen lagunduz, aurrera goaz" lelopean. Jardunaldian, Nafarroako Oinarritzko Gizarte Zerbitzuak osatzen duten profesionalei aitortza egin zitzaion. Ekitaldia Nafar Gobernuak antolatu zuen. Bertan egoteko gonbidapena gaztelania hutsean jaso genuen, baita euskara ofiziala den herrietan ere. Ekitaldi honetan, Nafarroako Gobernuak bigarren mailako herriartatzat hartu gintuen euskal hiztunak. Izan ere, aipatutako ekitaldian, euskara ez baitzen erabili. Ekitaldia iragartzen zuen kartela eta leloa gaztelera hutsez idatzia zegoen baita banatutako oroigarria ere. Aurkezpena gaztelera hutsean izan zen. Ez zen euskara erabili, nahiz eta gure Foru Komunitatean gaztelaniarekin batera hizkuntza ofiziala izan.

Hezkuntza (15)

Dosierra: 33-2025

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - ERRENIEGA IP

Arrazoia: D ereduko Erreniega ikastetxeko gurasook euskara oso traketsean idatzitako email bat jaso dugu zuzendaritzatik. Argi dago itzultzailetik datorrela zuzenean. Begiratu ere ez dute egin. Bestalde, lehenengo kontaktua batzuetan erdara hutsean jaso izan dugu. Gero lehenengo hitza euskaraz bezalakoak bolo-bolo darabilzkgunean. Oso adibide eskasa ari dira ematen.

Erantzuna:

Erreniegako Zuzendaritza: Lehenik eta behin eskerrak eman nahi dizkizuegu kexaren berri helarazteagatik. Euskara oso traketsean jasotako emailaren inguruan esan, ikastetxean milaka mezu jaso ohi ditugula beraien difusioa egiteko eskaerarekin. Hau horrela, erreferentzia egiten zaion mezuari dagokionez, jaso bezala birbidali ohi ditugula mezuak. Izan ere, uste dugu, gu ez garela "inor" beraiek familiei helarazi nahi dien mezuan esku-hartzeko. Honekin batera, saritu ere euskaraz idazteko saiakera egitea. Gertaera honen ostean, horrelako mezuak birbidaltzeko eskaera guztietan, ez dugu gure ikastetxeko zigilua ezarriko, argi geratu dadin ez dela guri dagokigun mezu bat. Gaztelera hutsean edo lehenengo gaztelera idatzitako mezuei dagokionez esan, ez dugula itzultzaile lana egiten eta euskaraz egindako birbidalketa mezuen moduan jarduten dugula. Dena dela, jakin gurekin harremanetan edozein momentuan jarri ahal zaretela eta behar diren argibideak jaso.

Dosierra: 61-2025

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA

Arrazoia: Hezkuntza Departamenduan egon naiz eta erregistroan erdaraz artatu naute (une horretan pertsona bakarra zegoen jendea artatzeko).

Erantzunak:

Kudeaketa Juridiko Administratiboko Ataleko burua: Kexarii dagokionez, honako hau adierazi behar dut: - Lehenik eta behin, ez da argitzen herritar horrek berariaz eskatu zuen arreta euskaraz ematea edo ez zuen horri buruz ezer esan. - Bigarrenik, ordua zein den ez dakigunez, ezin dugu jakin zergatik zegoen pertsona bakarra zerbitzua ematen; litekeena da herritarra bertaratu zen orduan lanaldi erdian

dagoen pertsona jada ez egotea, eta unitateko beste bi pertsonetako baten bazkaritarako ordutegia izatea. - Hirugarrenik, erregistro-unitatea denez, herritarrek euskaraz aurkez zezakeen bere eskabidea, eta aurkeztu zen hizkuntza berean izapidetu, kudeatu, ebatzi eta jakinaraziko zen.

Herritarraren erantzuna: Urtarrilaren 24an, 10:42ean, euskaraz zuzendu nintzaion Erregistroan zegoen pertsona bakarrari (ondoko ordenagailu parean bazegoen "euskaraz" moduko kartela, baina aulkia hutsik). Erran zidan ez zekiela euskaraz. Erdaraz egin behar izan nion. Nik aurkeztutako idazkia euskara hutsez izan zen. Hala ere galdegin zidan nora zuzendua zen. Ikuskaritza (Inspección) eta Antolaketa. Antolaketa ez zitzaidan erdaraz ateratzen eta berak erran zidan: pues yo no sé euskera.... Erran nion Hezkuntza barruan ziren sailak aipatzea, eta errango niola zein zen (laguntza 0) Erdaraz minutu bat pentsatzen eman nuen itzulpen egokia egin nuen arte. Halaxe."

Dosierra: 132-2025

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA - Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzua - ZUZENDARIA

Arrazoia: Hezkuntza Ikuskapen Zerbitzutik mezu bat jaso dut. Ez dago euskaraz.

Dosierra: 197-2025

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - EUNATE BHI -

Arrazoia: Lehengoan institututik alabaren asistentzia parte jaso genuen, posta elektronikoan. Educa plataformatik bidalitakoa dela uste dut. Eranskinetan duzue, informazioa gaztelera dago.

Erantzuna:

Euskara Administrazio Publikoetan Garatzeko Zerbitzua: EDUCA plataformatik bidalitako jakinarazpenen hizkuntza familiek beraiek konfiguratu dezakete EDUCA Portal-en. Horrela, nahi duten hizkuntza aukera dezakete, eta euskarazko aukera hautatuz gero, komunikazioa ele biko izanen da. Dirudenez, zenbait familiek aukera hau ez dutela ezagutzen izan liteke arazoaren oinarrian. Horregatik, Ikasketaburutzak familiei informazioa helarazteko konpromisoa hartu du, hizkuntza-hautaketa ahalik eta modu errazenean egin dezaten.

Dosierra: 408-2025

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA - Lanbide Heziketaren Plangintza eta Integratorako Zerbitzua

Arrazoiak: CIP DONAPEA IIPko ikaslea naiz eta D eredutik gatozen ia 300 ikasleen izenean ari naiz. CIP DONAPEA IIPn 17 ziklo eskaintzen dira, horietatik 4 soilik dira euskaraz. Donapean dagoen euskarazko eskaintza urriak behartzen gaitu ereduz aldatzera eta Lanbide Heziketa nahi ez dugun hizkuntza batean ikastera. CIP DONAPEA IIPn, bildu ditugun datuen arabera, 1032 ikasle gara; horietatik 133k D ereduan jarraitu ahal izan dugu ikasten eta D eredutik datozen 165 ikaslek gutxienez ezin izan dute. Hau da, CIP DONAPEA IIPko ikasleen % 30 D eredutik iritsi gara ikastetxe honetara, baina ez dugu baztertzen gehiago izatea. CIP DONAPEA IIPn bi orientatzaile daude, bata lanaldi osoan eta bestea ikastetxera bi egunetan etortzen dena, azken hau da euskara orientatzailea. Lanbide Heziketako orientatzaileek ikasleak gidatzen dituzte heziketa-zikloak aukeratzen, praktika profesionalak bilatzen eta lan-merkatu trantsizioa egiten. Badira aholkularitza ematen dutenak, gatazken prebentzioan eta konponbidean laguntzen dutenak, baita inklusioan ere. Horrela, euskara orientatzaileak asteen bi egunetan bakarrik eman diezaguke arreta D ereduan ikasten jarraitzen dugun ikasleoi, gainontzeko hiru egunetan orientatzaileak gabe gaude, horrek ekar ditzakeen oztopo eta arazo guztiekin. Aipatu dudana bezala, gaztelaniazko zikloetan matrikulatu diren D ereduko ikasleak daude, aukeratutako ziklo horiek euskaraz eskaintzen ez dituztelako. Baina orientatzailearen arreta ikasle horientzat ere euskaraz izatea nahi dugu, ikastetxeko komunikazio-hizkuntza euskara izatea nahi baitugu. Horregatik guztiagatik, eskatzen dugu: D eredutik datozen ikasleei, hala nahi badute, CIP DONAPEA IIPn orientazioa euskaraz jasotzeko aukera eskaintzea eta ahalik eta azkarren hori gauzatzea.

Dosierra: 428-2025

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA - Lanbide Heziketaren Plangintza eta Integratorako Zerbitzua

Arrazoiak: Nafarroako Lanbide Heziketako eskaintza kontsultatzeko webgunean, ziklo bakoitzeko informazioa gaztelaniaz baino ezin daiteke kontsultatu nahiz eta euskarazko bertsioan egon. Bide batez, ziklo ia denak gaztelaniaz baino ez ditugula eskuragarri salatu nahi dut.

Erantzuna:

Lanbide Heziketaren Plangintza eta Integratorako Zerbitzua: Aipatzekoa da gure web orrian pertsona bakarra dagoela Lanbide Heziketaren atala eguneratzeko. Lanbide Heziketako atal guztiak ere euskaraz daude, Euskarabideari itzulpenerako bidali behar zaizkion liburuxkak izan ezik.

Dosierra: 523-2025

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - HEZKUNTZA - EGUNSENTI HAUR-ESKOLA - Erripagaina-

Arrazoiak: Erripagainako Egunsenti haur-eskolan, A ereduarekin batera, D eredu ere eskaintzen da., baina gurasok ezin dugu zuzendariarekin euskaraz jardun, ez baita euskalduna. Badu zentzurik honek? Horrela ez da harritzekoa zuzendariak gurasoei bidalitako mezua eta bertan atxikitako informazioa gaztelania hutsean egotea.

Erantzuna:

Zuzendaria: Ikasturte honetan Egunsenti haur eskola bakarrik G ereduakoa da. Hurrengo ikasturtean dokumentazio guztia bi hizkuntzetan bidaltzen saiatuko naiz, baina momentu honetan ez daukat denborarik dena itzultzeko, horregatik bakarrik erderaz bidali dut mezua hori. Beste dokumentazioa ematea, bi hizkuntzetan dago. Bestalde, inor saiatu da nirekin euskeraz hitz egiten matrikularen epean. Ni euskera ikasten ari naiz eta, norbaitek euskaraz egiten didanean euskaraz erantzuten saiatzen naiz.

Dosierra: 550-2025

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA - Lanbide Heziketaren Plangintza eta Integratorako Zerbitzua

Arrazoiak: Nafarroako Lanbide Heziketaren barruan, nekazaritza eta basogintza eskolako egoera del eta kexa helarazi nahiko nuke. Eskola honetan euskarak hainbat eraso jasan ditu nire(gure) ustez euskarazko lehen zikloa martxan jarri zenetik. Azkenengoa irakasleek edukiak emateko jasotzen dituzten ordu kopuruari buruzkoa da. Eskola honetako Goi mailako Lanbide Heziketako ziklo bat elebiduna da bi hizkuntzatan ematen den (gazt-ingel edo eusk-ingel). Nahi duten ikasleek asteen bi modulu (9ordu) ingelesez jasotzeko aukera dute. Ikasgela bikoiztu eta ingelesez ematen duten ikasleak badoaz ingelesa eta ikasgaiaren jakintzak

dakizkien irakaslearekin eta beste ikasleak ikasgaiaren jakintzak menperatzen dituen irakaslearekin geratzen dira. Gaztelaniazko zikloan ez bezala, euskarazkoan ez da ingelesa eta irakasgaia menperatzen duen irakaslerik izango, ez da gela bikoiztuko eta beraz, gaztelaniaz edo euskaraz ikasten duten ikasleek ez dituzte irakaskuntzarako baldintza berdinak. Ingeleseko modulua ematen duen irakaslea modulo horiek ematen direnean "laguntzera" sartuko dela erantzun da, baina irakasle horrek ez du gaitasun teknikorik eta zikloko irakasle taldeak ez dugu erabaki hau ulertzen. Batetik, erabaki honek euskarazko ikasleen irakaskuntza prozesuan kaltea eragiten du (bai ingeleseko bidea aukeratu dutenekiko zein aukeraketa hori egin ez dutenekiko), gela ez bai da bikoizten. Bestetik, eskola honetakoak diren zerrenden euskarazko ordu kopurua gutxitzea dakar (4 irakasle behar izatetik 3 irakasle ezartzera) eta ez da jardunaldi osoko beharrik izango. Gurasoek eskolan erreklamazioa jarri zuten eta zentroak emandako erantzuna txertatzen da kexa honekin batera. Emandako erantzunean kurtso bukaeran ezin izan zutela ingelesez edukiak ematen zituen irakaslearen ordezkapena bete esaten da. Horrela da, kontuan izan behar da kurtso amaiera zela eta oposaketa urtea, beraz, euskarazko irakasle taldeak hartu du lan zama hori. Egia da ere zerrenda horretan eta ingelerako perfila duen jendea badela eskolan lanean eta zuzendaritzari plaza hori aterako balitz hartzeko konpromezua agertu zitzaion. Gogoratu behar da, 3 urteko ibilbidea duen ziklo honetan inoiz ez dela plaza hau esleitu gabe gelditu. Horrela gogorazi zitzaion zuzendariari kurtso bukaerako klaustroan eta erabakia hartuta zegoela eta bere eskumena zela argudiatu zuten. Plaza finkoa atera du ingeleseko orduak emateko gaitasuna duen irakasleak eta ez da ingeleseko bikoizketa ordurik eskainiko.

Erantzuna:

Hezkuntzako ikuskatzailea: 2025-2026 ikasturterako, Iruñeko Nekazaritza eta Basozaintzako IK egungo plantillarekin antolatu behar da, eta Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe guztietarako oro har ezarritako irizpideak eta epeak kontuan hartuta egin da. Ikasturtearen une honetan, eta maiatzean funtzionamenduko plantilla berresten denetik aurrera, ezinezkoa da zentroko plantillako orduak gehitzea edo kentzea. Hezkuntzako ikuskari honek konpromisoa hartzen du 2026/2027 ikasturterako, plantillaren baldintzak aldatu egin direnez, talde elebidunen beharretara egokitutako hizkuntza-eskakizunak eskatzeko, ingelesez eta euskaraz banatu ahal izateko. 6 ordu horiek euskaraz eskainiko dira,

irakasle teknikoak bere hizkuntza-eskakizunaren arabera irakatsi ahal izan ditzan. Ikastetxeko zuzendaritzari horren berri eman zaio, ikastetxeko funtzionamendutxantiloia egiteko unea iristen denean gorabehera berriro gerta ez dadin.

Dosierra: 678-2025

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA

Arrazoia: Pasa den irailaren 8an eskaera gutun bat bidali nuen Nafarroako Hezkuntza Departamentuko ikuskaritzara euskaraz, erantzuna gaztelania hutsean bidali didate. Larritasun berezia du Hezkuntza Departamentutik Nafarroako araudia eta herritarren eskubideak urratzeak.

Dosierra: 735-2025

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - PABLO SARASATE MUSIKA KONTSERBATORIO PROFESIONALA

Arrazoia: Nafarroako Hezkuntza Departamentuaren menpekora den Pablo Sarasate musika kontserbatorio profesionalaren webgunea ezin dugu euskaraz erabili.

Dosierra: 816-2025

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - IRUÑEKO HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALA

Arrazoia: Ikasleek Nafarroako Hizkuntza Eskolan B2a eta C1 lortzeko, webgunean egin behar dute matrikula. Webgunearen lehenbiziko orria euskaraz hautatzeko aukera baldin badago ere, bigarren orrialdetik goiti, matrikula espainol hutsean egin behar dute. Lotsamangarria, euskarazko titulua lortzeko, non eta Hizkuntza eskolan guztia espainol hutsean egin behar izatea.

Erantzuna:

Zuzendariordea: Lehenik eta behin, barkamena eskatu nahi diot ikasle horri, matrikulatzeko prozesu guziaz ezin egin izan duelako euskaraz. Ulertzen dut haren haserrea eta zilegi iduritzen zait haren kexa. Hori erranda, azaldu nahi nuke IHEOren web-gunean bi atal daudela. Batetik, guk zuzenean kudeatzen duguna: hori ele bitan dago; eta, bertzetik, matrikula eta bertzelako izapideak egiteko atala, Dial izeneko enpresa batek kudeatzen duena: hori da gaztelania hutsean dagoena. Diali helarazi diogu kexa. Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofizialean euskararen alde lan egiten dugu -euskaraz da irakasten dugun hizkuntzetarik bat-, eta saiatzen gara gure web-gune, kartel eta adierazpen guziaz ele bitan edo, hartzailea zein den, euskaraz

hutsean izatea. Badugu zer hobetua, jakina, baina batzuetan ezin dugu egin egin nahi genukeen guzia.

Dosierra: 833-2025

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - IRUÑEKO HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALA

Arrazoiak: Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofizialak azterketa-gidak eskaintzen ditu webgunean: <https://eoip.educacion.navarra.es/eu/azterketa-gidak-euskara>
Bertatik orrialde honetara bideratzen zaitu:
<https://www.educacion.navarra.es/eu/web/dpto/idiomas-plurilinguismo/escuelas-oficiales> Euskarazko webgunean sartu arren azterketa-gidak gaztelaniaz baino ez daude. Adibide bat bidaltzen dizuet.

Erantzuna:

Zuzendariordea: Hezkuntza Departamentuko arduradun batekin mintzatu nintzen atzo, eta erran zidan azterketa-gidak fite argitaratuko dituztela. Dokumentua ia prest omen dute, eta, hortaz, ez litzateke luze joan behar publikatzen duten artio. Zuzendariordea: Azterketa gidak euskaraz jarri dituztela lehen gaztelania hutsean zeuden tokian.

Dosierra: 835-2025

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA-DIGITALIZAZIOKO ETA HEZKUNTZA ZERBITZUETAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA

Arrazoiak: Lekarozko institutuan, (Nafarroako Gobernuaren menpeko ikastetxea) ordenagailua piztu eta guzti-guztia espainol hutsean dago. Bilatzailean euskarazko esaldi edo hitzak paratuta ere, ez da deus agertzen euskaraz, ezpada zuzenean berria.eus / argia.eus/ behatokia.eus-en sartzen zarela. Ordenagailuko mahaigainean ere den-dena espainol hutsean dago. Gure ikastetxea, D ereduko ikastetxea da, eta gela guztietan dauden ordenagailuak, info gelakoak.. .guzti-guztiak espainolez daude. Gure IKTko arduradunari aspaldi erran nion onartezina zela D ereduko ikastetxe batean ikasleen eguneroko tresna espainolez izatea. Arazoa konpondu beharrean, makurragoratzat joan da, aste honetan ordenagailuak konfiguratu dituzte eta mahaigainean agertzen den guztia espainol hutsean paratu dute.

Erantzunak:

Teknologien eta IKT Azpiegituren Zerbitzuen Zuzendaria: Lehenik eta behin, egiaztatu dugu ikastetxeko ordenagailuek euskaraz erabiltzeko aukera badutela. Windows 10 duten ekipamenduek hasieratik dute gaztelania/euskara/elebiduna hautatzeko aukera, eta Windows 11 + Intune duten ekipoetan erabiltzaile bakoitzak bere profilaren hizkuntza hautatzen du, eta aukera hori aktibo eta eskuragarri dago. Lekarozko kasuan, arazoa ez da izan euskararen erabilgarritasuna ez egotea, baizik eta erabiltzaile batzuek ez zutela jakin hizkuntza aldaketa zein menutan zegoen. Orain arte aukera hori "Otras opciones/Beste aukerak" botoiaren barruan agertzen zen, eta horrek zalantzak sortu izan ditu zenbait kasutan. Horregatik, Departamentuak menuaren eguneraketa egin du, eta hizkuntzaren aldaketa aukeraren botoia zuzenean bistaratzen da orain, inolako azpimenuetara jo beharrik gabe. Eguneraketa hau automatikoki zabaldu da sareko ordenagailu guztietara, Lekarozko Institutukoetara barne. Era berean, egiaztatu dugu ikastetxean erabili diren ordenagailuetan euskara behar bezala agertzen dela, eta erabiltzaile bakoitzak nahi duen hizkuntza hautatzeko aukera duela. Hezkuntza Departamentuak konpromisoa berretsi nahi du D ereduen hizkuntza-ingurunea bermatzeko, eta sortutako zalantzak argituta gelditu direla uste dugu. Eskerrik asko emandako informazioagatik eta egindako eguneraketak erabilgarriak izatea espero dugu.

Dosierra: 848-2025

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA - Eskola Orientabide Zerbitzua

Arrazoiak: Orientatzaile gisa nabil lanean Nafarroako ikastetxe publiko batean. Negociado de Orientación saila da gure eremua eta maiz argibideak jasotzen ditugu bertatik. Oraingo honetan euskararekiko duten gaitasun maila kaxkarraz kexatzeko egiten dut intzidentzia hau. **BIDALI DIGUTEN MEZUA:** PROGRAMA DE AUTONOMÍA / AUTONOMÍA PERSONALEKO 12 de noviembre de 2025 por Negociado de Orientación A la atención de la Unidad de Apoyo Educativo o del Departamento de Orientación de centros que cuentan con el recurso de Especialista de Apoyo Educativo: El Especialista de Apoyo Educativo es un recurso de apoyo, cuyo objetivo es facilitar el desarrollo de la autonomía personal y el acceso al currículo. Sus intervenciones se concretan en el «Programa de Autonomía Personal e Integración Social». Se adjunta el documento “Programa de Autonomía Personal e Integración

Social 25-26”, que debe remitirse antes del 28 de noviembre, a través de un formulario Google al que se accede en el siguiente enlace: Formulario «Programa de Autonomía Personal e Integración Social 25-26» Hezkuntza Laguntzako Espezialista baliabidea duten ikastetxeetako Hezkuntza Laguntzako Unitatearentzat edo Orientazio Departamentuarentzat: Hezkuntza Laguntza Espezialista sostengurako baliabidea da, zaintza pertsonal iraunkorrak edo aldi baterakoak behar dituzten ikasleentzat. Haren esku-hartzeak “Autonomia pertsonaleko eta gizarte integratioko programaren jarraipena” agirian jasotzen dira. “Autonomia Pertsonaleko eta Gizarte Integratioko Programa 25-26” dokumentua atxikitzen da, azaroaren 28a baino lehen bidali behar da Google formulario baten bitartez, ondorengo estekan klikatuz: «Autonomia Pertsonaleko eta Gizarte Integratioko Programa» formularioa.

Erantzuna:

Eskola Orientabide Zerbitzua: Uste dugu kexak aipatzen duen mezuan egiten den hizkuntzaren erabilera arau egokien arabera idatzita dagoela. Jakin badakigu, maila landuagoa edo idazkera zainduagoa erabiliz idatzi daitekela, baina mezua helburua ikastetxeei jakinarazpen bat bidaltzea eta egin beharreko lan zehatz baten berri ematea da. Bai gaztelaniazko bertsioa, baita euskarazkoa ere, modu errazean eta zuzenean idatzi dira, ulerterraztasuna ahalbidetzeko eta komunikazioa edukian oinarritzeko, eta ez hizkuntzan. Aipatutako hau ez da idazkera sinple baten erabilera justifikatzeko arrazoia, baizik eta mezua hartzaile guztientzat ulerterraza izatea lehenesteko. Hezkuntza Departamentuak euskararen erabilera eta sustapena modu eraginkorrean eta konpromisoarekin bultzatzen ditu, eta norabide berean lan egiten duten pertsonen eta erakundeen ahaleginak goraipatzen ditu. Elkarlanean jarraituz, laster iritsiko da euskara egunerokoa modu naturalean denok erabiliko dugun garaia eta horrelako jakinarazpenak desagertuko diren garaia. Bitartean, ilusioz eta konpromisoz jarraituko dugu lanean, euskararen aldeko urrats bakoitzak gure komunitatea sendotuko duelako eta bizikidetzat aberastuko duelako.

Dosierra: 869-2025

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA-DIGITALIZAZIOKO ETA HEZKUNTZA ZERBITZUETAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA

Arrazoia: Nafarroako D ereduko hainbat ikastetxetako geletan ordenagailuetako sistema eragileak, programak zein arbel digital gisa erabiltzen diren pantailak gaztelaniaz konfiguratuta daude. D eredua murgiltze-eredua izanik, ezinbestekoa da ikasleek teknologia berriak euskaraz eskura izatea eta hauek erabiltzeko ohitura euskaraz sortzea. Hezkuntza Departamentuari eskatzen diot behar diren neurriak har ditzala D ereduko ikastetxeetan ordenagailuak eta pantailak euskaraz eskura jartzeko. Era berean, NIZE Nafarroako Ikastetxeetako Zuzendarien Elkarteari ere eskaera egin nahi diot, hau bideratu ahal izateko bere esku diren neurriak har ditzan. Eta azkenik, Sortzen Elkarteari ere eskatzen diot aldarrikapen hau bere egin dezan.

Erantzuna:

Teknologien eta IKT Azpiegituren Zerbitzuen Zuzendaria: Departamentuak egiaztatu du ikastetxeetako Windows 10 eta Windows 11 (Intune) ekipamendu guztiek euskaraz erabiltzeko aukera osoa dutela. Windows 11n, erabiltzaile bakoitzari sortzen zaion profil pertsonalean erabiltzaileak berak hautatzen du hizkuntza — gaztelania edo euskara — eta aukera hori indarrean dago, normalean inolako arazorik gabe. Azken asteotan antzeman da zenbait ikastetxetan erabiltzaileek ez zutela ikusgai hizkuntza-aldaketarako botoia, aurreko bertsioan aukerak “Otras opciones/Beste aukerak” izeneko botoiaren barruan egoteagatik. Arazo hori konpontzeko, Hezkuntza Departamentuak menuaren eguneraketa orokorra egin du: • . Hizkuntza aldatzeko aukera zuzenean agertzen da orain hasierako menuan, azpimenuetara jo behar izan gabe. • . Eguneraketa hau sareko gailu guztietara zabaltzen ari da, eta ikastetxeetan berehala agertuko da aktibatuta. • . Gainera, irakasleen eta OPSen lana errazteko, pantaila bakoitzaren kudeaketa ere botoi bakar batekin egitea ahalbidetu da. Beraz, D ereduko ikastetxe guztietan bermatuta dago ikasleek eta irakasleek teknologia euskaraz erabiltzeko aukera dutela, eta erabilgarritasun-arazoen zati handi bat menuaren aurreko diseinuak eragindako ezjakintasunaren ondorioa izan dela baieztatu da. Hezkuntza Departamentuak bere konpromisoa berresten du euskararen presentzia teknologikoa indartzeko eta sortutako gorabeherak argituta geratu direla uste dugu. Eskertzen dizugu bidalitako ohartarazpena eta emandako informazioa.

Lehendakaritza (13)

Dosierra: 27-2025

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - FUNTZIO PUBLIKOKO ZUZENDARITZA NAGUSIA

Arrazoia: Pasa den azaroaren idatzi bat erregistratu nuen euskaraz Nafarroako Funtzio Publikoko Departamenduan. Erantzuna gaztelania hutsean heldu zait.

Dosierra: 56-2025

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - FUNTZIO PUBLIKOKO ZUZENDARITZA NAGUSIA

Arrazoia: 2024ko abenduaren 13an eta 30ean Nafarroako Gobernuak turismoaren alorreko lan-deialdi hauek argitaratu zituen: <https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2024/252/25> (Turismo jardueretako ofizial) <https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2024/263/2> (Turismo enpresa eta jardueretako teknikari) Turismoaren alorreko profesional bezala, ez dut ulertzen nolatan ez den euskararen ezagutzarik eskatzen ez ofizialen lanpostuetan ezta teknikarienetan. Teknikarien lanpostuetako batean frantsesa eta ingelesaren ezagutza nahitaezkoa izan arren, euskararena ezagutzarik ez da kontuan hartzen. Nafarroako zerbitzu publiko horietan lan egiteko euskararen ezagutza nahitaezkoa izan beharko litzateke.

Dosierra: 84-2025

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - LEHENDAKARITZA ETA BERDINTASUNA - Gobernu Irekiaren eta Nafarroako Parlamentuarekiko Harremanetako Zuzendaritza Nagusia

Arrazoia: Nafarroako Gobernuaren "Gobernu irekian" ekarpen bat egiteko kontu bat sortu behar izan dut. Kontua euskarazko webgunetik sortzean errorea ematen du, gaztelaniaz egitera behartua ikusi dut neure burua, gaztelaniazkoa ongi dabil. Hainbat alditan saiatu naiz eta gaztelaniaz arazorik ez dagoen bitartean euskarazkoak errorea ematen du. Beti berdin Nafarroako Gobernuaren webguneetan, nekatuak gaude!

Erantzuna:

Gobernu Irekiaren eta Herritarrei Arreta emateko Zerbitzua: Helarazitako erreklamazioari erantzuna emanez esan dezakegu arazo hau konpondu egin dugula eta orain edonork izena eman dezake Parte Hartu Nafarroa plataforman euskaraz.

Dosierra: 96-2025

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - LEHENDAKARITZA ETA BERDINTASUNA - Gobernu Irekiaren eta Nafarroako Parlamentuarekiko Harremanetako Zuzendaritza Nagusia

Arrazoia: Gobernu irekiaren bidez araudian parte hartzeko ekarpen bat egin dut euskaraz. Ondorengo mezu erabat traketsa bidali dit Nafarroako Gobernuak, gaztelaniaz ere horrelako mezuak bidaltzen al dituzue? Lotsagarria eta salagarria Nafarroako Gobernuaren utzikeria.

Erantzuna:

Gobernu Irekiaren eta Herritarrei Arreta emateko Zerbitzua: Nafarroa Parte Hartu plataforma software libre bat da eta Bartzelonako enpresa batek kudeatzen du. Egia da euskarazko erantzunak automatikoki sortzen direla, baina, lan egiten ari gara erantzun horiek euskaraz ongi egon daitezen.

Dosierra: 141-2025

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - KOMUNIKAZIOAREN ETA PROIEKZIO INSTITUZIONALAREN ZUZENDARITZA NAGUSIA

Arrazoia: Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Enpresarien Konfederazioak (CEN) eta UGT eta CCOO sindikatuek Nafarroako enplegu plana 2025-2028 sinatu eta aurkeztu dute. <https://planempleonavarra.com/> webgunea gaztelania hutsez argitaratu dute eta plana bera ere bai: <https://planempleonavarra.com/wp-content/uploads/2025/02/Plan-empleo-Navarra-2025-2028-Final-2.pdf> Nafarroako enplegu plana 2025-2028 euskaraz irakurri nahi dugu, gure hizkuntza-eskubideak errespetatuz.

Dosierra: 250-2025

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA -LEHENDAKARITZAKO, GOBERNU IREKIKO eta NAFARROAKO PARLAMENDUAREKIKO HARREMANETAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA

Arrazoia: Lexnavarra.navarra.es euskaraz behar bezala erabili ahal izateko moduan jar dezatela eskatzen dut, akatsak zuzendu eta ataria behar bezala antolatuta egon dadin. Zenbait adibide: Arau bat kontsultatzean, hizkuntza aldatu eta hasierara igortzen zaitu berriz. Normalena litzateke euskarazko bertsiotik gaztelaniazkoa eta

gaztelaniazko euskarazkora zuzenean pasa ahal izatea, baina ez da horrela gertatzen. Bestalde, euskarazko bertsioan bilatzailea oso gaizki dabil. Gaztelaniazkoa baino askoz ere okerrago. Azkenik, atariko euskarazko bertsioan akats nabarmenak daude. Adibidez, atari nagusian 'legeen bilatzailea' atalean ageri diren sailen izenetan: • Lehendakaritza eta Berdintasun • Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako • Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako • Ekonomia eta Ogasun • Hezkuntza • Osasun • Lurralde Kohesiorako • Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako • Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enplegu • Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko • Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziak • Landa Garapeneko eta Ingurumeneko • Kultura, Kirol eta Turismo <https://www.lexnavarra.navarra.es/?Idioma=eu>

Erantzuna:

Araugintza Koordinatu eta Jarduteko Atala: Honen bidez jakinarazten dizugu zuzendu dugula atzemandako akatsa, eta datu-baseko epigrafeak zuzen ageri direla bi hizkuntzetan. Ohartarazitako gainerako gorabehera dagokienez, hau jakinarazten dizugu: -hasierako menura itzultzea tresnaren funtzionamenduaren parte dela; hizkuntza-bertsio batetik bestera joateko, nabigazio egokia ez da proposatzen dena (esteka leihoaren goiko aldean), baizik eta inprimatzeko pdf-aren ikonoaren azpian dagoen esteka. -etengabe eta apurka-apurka, bi bilatzaileen funtzionamenduan hobekuntzak ezartzen ari direla, bereziki euskarazko bilatzailean eta biltzen duen datu-basean.

Dosierra: 251-2025

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - LEHENDAKARITZA ETA BERDINTASUNA - Gobernu Irekiaren eta Nafarroako Parlamentuarekiko Harremanetako Zuzendaritza Nagusia

Arrazoiak: Nafarroako Gobernuak gaztelania hutsez dauka bere webguneko euskarazko bertsioan kexak eta iradokizunak helarazteko formularioa: <https://www.navarra.es/eu/web/formularioalertas/consultas-y-sugerencias> Berehala euskaraz jar dezaten eskatzen dut.

Dosierra: 272-2025

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - KOMUNIKAZIOAREN ETA PROIEKZIO INSTITUZIONALAREN ZUZENDARITZA NAGUSIA

Arrazoiak: Nafarroako Administrazio Auzitegiaren urteurrena dela eta, dibulgaziozko komiki bat argitaratu eta horren berri eman dute. Komikia euskaraz ere izan arren, berria ez dago euskaraz osorik (informazio gehiago nahi bada beti bezala gaztelaniara pasatzeko eskatzen du). Aurkezpenerako erabili duten euskarria ere komikiaren gaztelaniazko portada izan da eta nola ez euskaraz ez du tokirik izan, tamalgarria. <https://www.navarra.es/eu/-/prentsa-oharra/nafarroako-administrazio-auztegiak-60-urte-ospatzen-ditu-estatuko-organo-berezi-eta-bakar-gisa-toki-eremuko-administrazio-gatazkak-konpontzeko-erreferentea?pageBackId=7574878&back=true>

Dosierra: 390-2025

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - LEHENDAKARITZA ETA BERDINTASUNA - Gobernu Irekiaren eta Nafarroako Parlamentuarekiko Harremanetako Zuzendaritza Nagusia

Arrazoiak: Nafarroako Gobernuak Gobernu Irekiaren eta Herriarrentzako Arretaren Zerbitzutik 447E-2025 ebazpena jaso du, herritarren parte hartzea sustatzen duten proiektuetarako dirulaguntzak ebatziz. Mankomunitateak deialdi horretara eskaera bat eta proiektu bat aurkeztu zituen, euskara hutsez, zerbitzu horrek deialdiarekin batera eskura jarritako euskarazko inprimakiak erabiliz. Alabaina, ebazpena, jakinarazpena eta horiekin batera zetozen eranskin guztiak gaztelania hutsez zeuden. Mankomunitatea legeak eremu euskalduntzat jotzen duen eskualdea du lan eremu, Bortziriak hain zuzen. Are gehiago, eskualdea euskaldunen dentsitate altuko eremua da, eta arnagune batean du egoiza, Arantzan hain zuzen. Mankomunitatearen langaia euskararen sustapena da, eta aurkeztutako proiektua ere euskara sustatzeko plan estrategikoa diseinatzeko herritarren parte hartzerako prozesua izan da. Legez eremu euskalduneko edozein entitatara ele biz bidali beharko lituzke gobernuak horrelako jakinarazpenak, eta uste dugu aipatutako xehetasunak kontuan hartuta, euskara hutsez ere bidali dezakeela (103/2017 Foru Dekretuak 19.1 artikuluan dioena kontuan hartuta). Erantsita doa aipatutako ebazpena, baita mankomunitate honek gobernuaren erregistro elektronikoaren

bidez Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentura bidali duen kexa ere. Euskarabideko kudeatzaileari e-postaz jakinarazi zaio.

Dosierra: 490-2025

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - LEHENDAKARITZA ETA BERDINTASUN DEP. - Gobernu Irekiaren eta Herritarrentzako Arretaren Zerbitzua

Arrazoia: Eskabide batzuk erregistratzen joan naiz Santo Domingo kaleko Hezkuntza Departamentuko erregistrora. Eskabide orokorraren orria euskaraz beteta aurkeztu dut, atxikitako dokumentuak ere euskaraz idatzita zeuden. Erregistroko langileak euskaraz bazekien baina aurkeztu izanaren egiaztatzea gaztelania hutsean eman dit (guztia gaztelaniaz aurkeztu izango banu bezala). Langileari komentatu diot eta erantzun dit sistemak euskarazko eskabidea bete arren gaztelaniazko egiaztatzea soilik ateratzeko aukera ematen diela. Antza, erregistro presentzial guztietan berdina gertatzen da (bide telematikotik aurkeztutakoetan ez bezala) Duela denbora eman omen dute honen berri erregistroko zuzendaritzara baina ez omen da ezer aldatu. Prozedura osoa Nafarroako edozein departamentutan euskaraz egiteko aukera bermatua izan beharko genuke, 2025.urtea dugu eta Nafarroako administrazioako sistema telematikoak ez daude behar bezala gaituak euskaraz jarduteko.

Dosierra: 615-2025

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - NAO / NAFARROAKO ALDIZKARI OFIZIALAREN ZERBITZUA

Arrazoia: NAO Nafarroako Aldizkari Ofizialaren estilo liburua euskaraz ere egon dadin eskatzen dut. Honekin batera, lotura honetan agertzen diren dokumentu eta ereduak ere: <https://bon.navarra.es/eu/informazioa-iragarkien-igorleentzat> Tartean, gaztelaniaz dauden bezala, toki-entitateentzako euskarazko ereduak: <https://bon.navarra.es/eu/toki-entitateentzako-iragarki-ereduak>

Erantzuna:

Zuzendaria: Kasualitatez, gure orriko edukiak berrikusten ari gara, eta dagoeneko ikusi dugu eredu batzuetako estekak galdu ditugula; beraz, laster, eredu eta inprimaki guztiak bertsio eguneratuetan agertuko dira, gaztelaniaz eta euskaraz. NAO n argitaratzeko gomendioen eskuliburuari dagokionez, gaztelaniarentzako gomendio ortografiko eta sintaktiko batzuk dira, ez da zuzenean euskaraz

aplikagarria, eta, beraz, Euskarabidean beharrezkotzat jotzen badute, euskaraz idatzeko antzeko eskuliburu bat sortu beharko lukete, Nafarroako Aldizkari Ofizialaren orrialdearen euskarazko bertsioan argitaratuko genukeena.

Dosierra: 679-2025

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - FUNTZIO PUBLIKOKO ZUZENDARITZA NAGUSIA

Arrazoia: Gaur Nafarroako artxiboetako goi mailako teknikarien 3 lanpostu betetzeko deialdia argitaratu da, zehazki Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako Departamenturako eta kultura, Kirola eta Turismo Departamenturako (Viana Printzea kultura Zuzendaritzarako). Nafarroako egitura politiko, juridiko eta historikoaz ezagutzak izan behar diren arren, Nafarroako berezko hizkuntzaren ezagutzarik ez da kontuan hartzen lanpostu horiek betetzeko. Tamalgarria beste behin. Nire kexa Funtzio Publikoko Departamentura eta Kultura, kirol eta Turismo Departamentura bidaltzea nahiko nuke. <https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2025/183/1>

Dosierra: 881-2025

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - FUNTZIO PUBLIKOKO ZUZENDARITZA NAGUSIA

Arrazoia: Gaur Nafarroan (3174/2025 ebazpenaren bidez), koordinazio operadore laguntzaileen lanpostuetarako bi zerrenda osatzeko deialdia argitaratu da (prestakuntzarako zerbitzu berezietan aritzeko eta aldi baterako kontratazioetarako). Euskaraz jakitea ez al da beharrezkoa Nafarroako emergentzietako koordinazio lanetan aritzeko? Lan-poltsa horretan euskaraz jakitea eskatzen ez bada, nola beteko dira euskarazko perfila duten lanpostuen aldi baterako beharrak adibidez? Edo herritarren hizkuntza hautua nola ziurtatuko da?

Osasungintza (27)

Dosierra: 70-2025

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - NAFARROAKO OSASUN PUBLIKOAREN ETA LAN OSASUNAREN INSTITUTUA - DETEKZIO GOIZTIARRAREN ATALA

Arrazoa: Osasunbideko bularreko minbiziako prebentzio programara deitu dut hitzordua eskatzeko. Telefonotik deitu dut 848423498 zenbakira. Langileak erdaraz erantzun du eta ni euskaraz hitz egiten hasi naizenean euskaraz esan dit erderaz bakarrik zekiela. Euskaraz artatua izan nahi nuela esan diot eta galdetu diot mesedez langile euskaldun batekin hitz egin nahi nuela. Esan dit ez dagoela eta erderaz egitera behartua egon naiz. Beste aldetik, Osasunbideako bularreko minibiziaren programako web orrialdea españolez bakarrik dago. Ez dago euskaraz jartzeko aukerarik.

Dosierra: 93-2025

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - OSASUNBIDEA - OINARRIZKO OSASUN LAGUNTZAKO KUDEATZAILEA

Arrazoa: Antsoingo osasun etxean erizainak artatu nau gaur. Erdaraz artatu nau. Zure medikuarekin hitzordurik ezin duzunean izan, erizainarekin pasatzen zaituzte. Erizaina bera da, berdin du zein den zure medikua.

Dosierra: 126-2025

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - NAFARROAKO OSASUN PUBLIKOAREN ETA LAN OSASUNAREN INSTITUTUA - Zuzendariordetza -

Arrazoa: Nafarroako Gobernuako Osasun Departamentuak "Osasun Eskolak" iragarri ditu gaur, ikastaro guztiak gaztelania hutsean izango dira kartelean bertan iragartzen den bezala.

Erantzuna:

Gizarte Osasuna Sustatzeko Zerbitziburua: Osasun Komunitarioa Sustatzeko Zerbitzutik jakinarazi nahi dugu euskararen erabilera bultzatzeko, euskaldunak ez diskriminatze, helburua lortzeko konpromisoa hartua dugula eta, irakasleekin ditugun zailtasunak zailtasun, lanean jarraituko dugula plangintzan euskarazko jarduerak txertatzeko. Aurten, joan den urtean egin genuen bezala, aurreikusita dago euskarazko web-mintegiren bat programatzea gurasoen eskolarako.

Dosierra: 147-2025

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - NAFARROAKO OSASUN PUBLIKOAREN ETA LAN OSASUNAREN INSTITUTUA - Zuzendariordetza -

Arrazoa: Osasun Publikoaren eta Lan Institutuaren Lan Arriskuen Prebentziorako zerbitzura jotzen dugunean ia ezinezkoa izaten da zerbitzua euskaraz jasotzea. Euskaraz egin ditzakegu Lan Baldintzen Ebaluazioa egiteko eskaera eta bestelakoak, baina gero bertako langileak/teknikariak euskaldunak ez direnez, ez da posible izaten zerbitzua euskaraz jasotzea. Hezkuntza da langile euskaldun gehien duen departamentua. Bada, bertako langileok zerbitzu horretara jotzen dugunean ezinezkoa zaigu zerbitzua euskaraz jasotzea (langile bakarra da euskalduna). Bien bitartean lekualdatze deialdia egin du Nafarroako Gobernuak, tartean zerbitzu horretakoak, eta postu horietarako ez du euskararen ezagutza eskatu. Egoera hau aintzat hartu eta zerbitzua euskaraz jasotzeko neurriak hartzeko eskatzen diot Nafarroako Gobernuari.

Erantzunak:

Hezkuntza Saileko Lan Arriskuen Prebentziorako Atala: Hezkuntza Departamenturako Laneko Arriskuen Prebentzioko Ataleko Burutzatik, NOPLOiko Lan Osasuneko Zuzendariordetza jakinaren gainean dagoela, honako alderdi hauen berri eman nahi dizugu: Administrazio arloan, Atal honetako plantilla organikoan administrari plaza bat dago, C1 hizkuntza-eskakizunarekin. Aurrekoaz gain, Administrazio arloak beste bi administrari plaza ditu, Atalaren harreraz arduratzen direnak. Espero dugu emandako informazioa baliagarria izatea.

Herriarraren erantzuna: Hezkuntza Departamentuak Nafarroako Gobernuaren langileriaren herena hartuko du gutxi gorabehera. Lan Arriskuen Prebentziorako atalak administrazio arloan administrari plaza bat (jardun erdikoa, gainera) C1 hizkuntza-eskakizunarekin izatea nahikoa da? Honek, Administrazio arloan, akaso, eskainiko du arreta euskaraz, baina, zein hizkuntzatan eskaintzen dute zerbitzua atal horretako medikuek, erizainek, psikologoek, teknikoek, zerbitzuaren arduradunek...? Lotsagarria iruditzen zait erantzun hori bidali eta lasai geratzea. Egoera aintzat hartu eta zerbitzua euskaraz bermatuko duen langileria ziurtatzea eskatzen diot, berriro ere, Nafarroako Gobernuari.

Herriarraren erantzuna: Hezkuntza Departamentuak Nafarroako Gobernuaren langileriaren herena hartuko du gutxi gorabehera. Lan Arriskuen Prebentziorako

atalak administrazio arloan administrari plaza bat (jardun erdikoa, gainera) C1 hizkuntza-eskakizunarekin izatea nahikoa da? Honek, Administrazio arloan, akaso, eskainiko du arreta euskaraz, baina, zein hizkuntzatan eskaintzen dute zerbitzua atal horretako medikuek, erizainek, psikologoek, teknikoek, zerbitzuaren arduradunek...? Lotsagarria iruditzen zait erantzun hori bidali eta lasai geratzea. Egoera aintzat hartu eta zerbitzua euskaraz bermatuko duen langileria ziurtatzea eskatzen diot, berriro ere, Nafarroako Gobernuari

Dosierra: 149-2025

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - OSASUNBIDEA - HERRITARREN HARRERARAKO ETA ARRETARAKO ZERBITZUA

Arrazoiak: Vianako Printzean eta zehazki odol analisisen eta radiologia gunean afitxa eta ohar ugari gaztelania hutsez daude. Ele biz jar ditzaten eskatu nahi dut, 103/2017 dekretuan xedapen gehigarrietan azaltzen den moduan.

Dosierra: 150-2025

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - OSASUNBIDEA - OINARRIZKO OSASUN LAGUNTZAKO KUDEATZAILEA

Arrazoiak: Buztintxuriko osasun etxean afitxa eta ohar ugari gaztelania hutsez daude. Ele biz jar ditzaten eskatu nahi dut, 103/2017 dekretuan xedapen gehigarrietan azaltzen den moduan.

Dosierra: 171-2025

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - NAFARROAKO OSASUN PUBLIKOAREN ETA LAN OSASUNAREN INSTITUTUA - DETEKZIO GOIZTIARRAREN ATALA

Arrazoiak: Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak umetoki-lepoko minbizia garaiz detektatzeko programaren berri bidali digu gutun bidez Nafarroako 30 eta 65 urte arteko emakumeei. Bidali duten eskuorria ele biz dagoen arren, gutuna bera, programaren aurkezpena egiteko balio duena, gaztelania hutsez igorri dute. Nafarroako emakumeon hizkuntza eskubideak urratzeari utzi eta programaren berri euskaraz ere eman dezaten eskatu nahi diot Nafarroako Gobernuari.

Dosierra: 173-2025

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - NAFARROAKO OSASUN PUBLIKOAREN ETA LAN OSASUNAREN INSTITUTUA - Zuzendariordeztza -

Arrazoiak: Salatu nahi dut Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak ez duela eskaintzen institutuko webgunea euskaraz bisitatzeko aukerarik eta bere gida eta bestelakoak ere gaztelania hutsez daudela eskura: http://www.navarra.es/home_es/Gobierno+de+Navarra/Organigrama/Los+departamentos/Salud/Organigrama/Estructura+Organica/Instituto+Navarro+de+Salud+Publica/portada+ISP.htm
http://www.navarra.es/home_es/Gobierno+de+Navarra/Organigrama/Los+departamentos/Salud/Organigrama/Estructura+Organica/Instituto+Navarro+de+Salud+Publica/Publicaciones/guias+y+consejos/

Dosierra: 252-2025

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - OSASUNBIDEA - OINARRIZKO OSASUN LAGUNTZAKO KUDEATZAILEA

Arrazoiak: Lesakako Osasun Etxean telefonoa hartzen duenak ez zekien euskaraz. Telefono horretara deitu behar izaten dugu Bortzirietako osasun eremuan gauden herrietako paziente guztiak. Etxalarko medikuarekin hitzordua hartzeko deitu dut goizean eta euskaraz hasi naiz azalpenak ematen. Berehala moztu dit «no te entiendo, hablame en castellano» erantzunez. Nahitaez, azalpenak gaztelaniaz eman dizkiot. Bukaeran, apenas despeditu gabe, moztu dit telefonoa.

Dosierra: 287-2025

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - OSASUNBIDEA - HERRITARREN HARRERARAKO ETA ARRETARAKO ZERBITZUA

Arrazoiak: Hematologiako espezialistarekin hitzordua konfirmatzeko eskatuz SMSa jaso dut Osasunbideatik. Mezua gaztelaniaz baino ez dago. Osasunbidearekin hartu-eman guztiak euskaraz izateko eskaera egin dut. Pazientearen hizkuntza hautua errespetatzea eskatzen dut.

Dosierra: 318-2025

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - OSASUNBIDEA - UMETOKI-LEPOKO MINBIZIA GARAIZ DETEKTATZEKO PROGRAMA

Arrazoia: Utero-lepoko minbiziaren prebentzio kanpainaren barruan Nafarroako Osasun sailak etxeetara bidalitako eskutitza gaztelania hutsean dago.

Dosierra: 327-2025

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - Osasunbidea - ETXARRI ARANAZKO OSASUN-ETXEA

Arrazoia: Maiatzaren 14an Etxarri Aranazko osasun etxean giza papiloma birusari buruzko hitzaldia eskainiko da, gaztelaniaz soilik eskainiko da. Osasun informazioa eta kontzientziatorako informazioa gure hizkuntzan jaso ahal izatea garrantzitsua da.

Erantzuna:

Etxarri Aranazko osasun etxea: 327 dosierra dela eta, hasieran gaztelaniaz egitea pentsatu genuen Etxarri arago Leitzaldean eta beste toki batzuetan antolatzen dutelako hitzaldi berbera, eta horrela, jende gehiagok parte hartu dezakeelako" Baina gero pentsatu genuen medikuak gaztelaniaz egitea eta emaginak euskaraz azalpenak euskaraz nahi zituztenentzat. Bestalde, hitzaldietan emaginak euskaraz parte hartzeko aukera badago iragartzen dugunean "hitzaldia gaztelaniaz" ez dugu jarriko aurrerantzean hitzaldien formatu guztietan euskara txertatzeko eta hala iragarriko da.

Dosierra: 403-2025

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - OSASUNBIDEA - OINARRIZKO OSASUN LAGUNTZAKO KUDEATZAILEA

Arrazoia: Doneztebeko osasun etxera deitu nuen urgentziaz, goizean goiz behar nuelako lanerako baja. Denbora luze eman nuen itxaroten eta lortu nuenean norbaitekin solastea aipatu zidan ez zekiela euskaraz, ea itxaron nahi nuen euskaraz zekien lankide bat libratzea ala kontsulta espainolez egin nahi nuen. Presa izanik, espainolez egitera behartu ninduen egoerak.

Dosierra: 433-2025

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - OSASUNBIDEA - PAZIENTEAREN ARRETARAKO ZUZENDARITZA

Arrazoia: Maiatzaren 30ean goizeko 11:00ak aldera "Vianako printzea" espezialitate zentroko telefono zentralera deitu nuen. Telefonoaren beste aldean

zegoenak ez zekien euskaraz eta gaztelaniaz azaldu behar izan nion. Euskaraz hobe moldatzen naiz eta "eremu euskalduneko" herritarra naiz, ospitaleetan euskaraz artatua izateko eskubidea dut.

Dosierra: 448-2025

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - NAFARROAKO OSASUN PUBLIKOAREN ETA LAN OSASUNAREN INSTITUTUA - Zuzendariordetza -

Arrazoia: Kontua da urtero jartzen ditugula igerilekuetan kartel ezberdinak aholkuak, gomendioak, informazioa ... igerilekuetara joaten direnek kontuan izateko, istripurik ez izateko, edo bero haundia denean neurriak hartzeko eta abar, baina Nafarroako Gobernuko igerilekuen atalean dena erdaraz dago. Iaz eta aitzineko urtetan deitu eta galdetu diegu ea euskaraz bazituzten ere baina momento haietan ezetz erran ziguten. Eta aurten sartu gara eta ez da aldaketarik. Horren inguruko galdera egin diogu aurten ere Nafarroako Gobernuari eta hauxe izan da erantzuna: "La página web es tan antigua que no la están actualizando más que lo básico. Mira a ver en internet en la información de las piscinas del País Vasco tiene que haber algo". A ze erantzuna!!

Dosierra: 486-2025

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - OSASUNBIDEA - PAZIENTEAREN ARRETARAKO ZUZENDARITZA

Arrazoia: Nafarroako osasungintza publikoko Vianako Printzea Kanpoko Kontsuletarako Zentroan "-1" solairura joateko eskaileren parean ohar hauek daude, euskararen arrastorik ez.

Dosierra: 592-2025

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - OSASUNBIDEA - OINARRIZKO OSASUN LAGUNTZAKO KUDEATZAILEA

Arrazoia: Buztintxuriko osasun etxeko informazio asko gaztelera hutsean dago.

Dosierra: 624-2025

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - OSASUNBIDEA - PAZIENTEAREN ARRETARAKO ZUZENDARITZA

Arrazoa: Erresonantzia egiteko hitzorduaren gogorazpena bidali dit Osasunbideak SMS bidez. Harreman guztiak euskaraz izateko eskaera egina dudan arren, mezua gaztelania hutsean dago. Arreta eskasa, alde horretatik

Dosierra: 630-2025

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - OSASUNBIDEA - HERRITARREN HARRERARAKO ETA ARRETARAKO ZERBITZUA

Arrazoa: Erresonantzia egiteko baimen-inprimakia eta jarraibideak gaztelania hutsean bidali dizkit Osasunbideak.

Dosierra: 689-2025

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - OSASUNBIDEA - HERRITARREN HARRERARAKO ETA ARRETARAKO ZERBITZUA

Arrazoa: Osasunbideak Zizurko institutuko D ereduaren txertoak jartzeko dituen baimen-orriak gaztelania hutsez daude.

Dosierra: 713-2025

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - OSASUNBIDEA (Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendaria)

Arrazoa: Osasunbideak behean aipatzen den ataletako burutzen deialdiak egin ditu gaur merezimendu-lehiaketa bidez. Euskararen ezagutza ez da nahitaezkoa ezta merezimendua ere, aldiz frantsesa, ingelesa eta alemanaren ezagutzagatik 2 puntu ematen dira hizkuntza bakoitzeko. Nola liteke Nafarroako Ospitaleguneko burutzetan edo Garcia Orkoien ospitalekoan ere ez puntuatzea? Nafarroako Ospitale Unibertsitarioa: –Anatomia Patologikoaren Zerbitzuko A Laguntza Ataleko burutza. Plaza zenbakia: 70840. –Neurologia Zerbitzuko Jarduera Anbulatorioaren Laguntza Ataleko burutza. Plaza zenbakia: 70512. –Anestesiako, Konortertzeko eta Minaren Terapeutikako Zerbitzuko Anestesia Tokoginekologikoaren Laguntza Ataleko burutza. Plaza zenbakia: 70603. –Endokrinologia eta Nutrizio Zerbitzuko Dietetikaren eta Nutrizioaren Laguntza Ataleko burutza. Plaza zenbakia: 70837. –Anestesiako, Konortertzeko eta Minaren Terapeutikako Zerbitzuko Min Kronikoaren Laguntza Ataleko burutza. Plaza zenbakia: 70609. –Endokrinologia eta Nutrizio Zerbitzuko Endokrinologiaren Laguntza Ataleko burutza. Plaza zenbakia: 70836. –Genetika Medikokoaren Zerbitzuko Genetika eta Genomika Laborategiaren

Laguntza Ataleko burutza. Plaza zenbakia: 71420. –Medikuntza Intentsiboaren Zerbitzuko Laguntza Atal Medikokoaren burutza. Plaza zenbakia: 70813. –Erradiologia Zerbitzuko Neurorradiologiaren Laguntza Ataleko burutza. Plaza zenbakia: 70530. –Otorrinolaringologia Zerbitzuko ORL Pediatrikoaren Laguntza Ataleko burutza. Plaza zenbakia: 70583. –Oftalmologia Zerbitzuko Atzeko Poloaren Laguntza Ataleko burutza. Plaza zenbakia: 70817. –Medikuntza Intentsiboaren Zerbitzuko Laguntza Atal Kirurgiko, Neurokritiko eta Politraumatizatuen burutza. Plaza zenbakia: 70814. –Erradiologia Zerbitzuko Erradiologia Kardiobaskularraren Laguntza Ataleko burutza. Plaza zenbakia: 70531. –Erradiologia Zerbitzuko Sabelaldeko Erradiologiaren Laguntza Ataleko burutza. Plaza zenbakia: 70535. –Erradiologia Zerbitzuko Erradiologia Pediatrikoaren Laguntza Ataleko burutza. Plaza zenbakia: 70532. –Obstetrizia eta Ginekologia Zerbitzuko Iruñeko Osasun Barrutiko Sexu- eta Ugalketa-osasunaren Laguntza Ataleko burutza. Plaza zenbakia: 71224. –Erradiologia Zerbitzuko Larrialdien Laguntza Ataleko burutza. Plaza zenbakia: 70529. Reina Sofia ospitalea: –Erradiologia Zerbitzuko Erradiologia Laguntza Ataleko burutza. Plaza zenbakia: 67339. –Urologia Zerbitzuko Urologia Laguntza Ataleko burutza. Plaza zenbakia: 67094. –Medikuntza Fisikoaren eta Errehabilitazioaren Zerbitzuko Errehabilitazio Laguntza Ataleko burutza. Plaza zenbakia: 66334. García Orcoyen ospitalea: –Medikuntza Fisikoaren eta Errehabilitazioaren Zerbitzuko Errehabilitazio Laguntza Ataleko burutza. Plaza zenbakia: 63202.

Dosierra: 725-2025

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - OSASUNBIDEA - OINARRIZKO OSASUN LAGUNTZAKO KUDEATZAILEA

Arrazoa: Leitzako osasun zentrora deitu dut eta administrariak edo telefonoa hartu duenak ez dakienez, gaztelaniaz mintzatu behar izan dut. Zergaitik behartzen gaitu administrazio publikoak gaztelaniaz mintzatzea, euskara ofiziala den herri baten gainera?

Dosierra: 821-2025

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - Osasunbidea - SARRIGURENGO OSASUN ETXEA -
Arrazoa: Sarrigurengo osasun-etxean dauden kartelen berri eman nahi dut. Nafar Gobernuak sinatutako kartelak kenduta, beste kartel guztiak gaztelania hutsean

izaten ohi dira. Osasun etxeko harreraren bertan erabiltzaileei zuzendutako mezu ugari daude karteletan eta denak gaztelaniaz soilik.

Dosierra: 841-2025

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - OSASUNBIDEA - HERRITARREN HARRERARAKO ETA ARRETARAKO ZERBITZUA

Arrazoa: Ama-haurren ospitaleko igogailuaren barruan dagoen afixa erraldoiak ("cirugía ambulatoria 3a planta) gaztelera hutsean jarraitzen du. Behin eta berriz berritu dute, baina urteak daramatza horrela. Zeren zain daude behingoz ele bitan jartzeko?

Dosierra: 863-2025

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - OSASUNBIDEA - HERRITARREN HARRERARAKO ETA ARRETARAKO ZERBITZUA

Arrazoa: Osasunbidearekin harremanak euskaraz izan nahi ditudala eskatua dut eta eremu euskalduneko herritarra naiz. Osasun proba bat egiteko hitzordua heldu zait, hitzordua bera euskaraz dagoen arren, endoskopia egiteko jarraibideak gaztelaniaz bidali dizkidate. Pentsatzen dut dokumentu hori (eta beste hainbat) euskarara itzuli gabe dituela Osasunbideak, beraz dokumentu hori euskaraz ere ezartzeko eta gainerako dokumentuak ere gainbegiratzeko eskatu nahiko nioke Osasunbideari.

Dosierra: 936-2025

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - OSASUNBIDEA - HERRITARREN HARRERARAKO ETA ARRETARAKO ZERBITZUA

Arrazoa: Osasunbideara deitu dut analisiak egiteko hitzordua hartzeko. Euskaraz mintzatu natzaio telefonoa hartu duenari. "En euskera no, en español" erantzun dit. Hortik aurrera gaztelaniaz aritu behar izan dut. Hitzordua konfirmatzeko bidali didaten sms-a ere gaztelania hutsean dago.

Dosierra: 938-2025

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - OSASUNBIDEA - Zizur Nagusiko Ardoiko osasun etxea

Arrazoa: Zizur Nagusiko Ardoiko Osasun etxean gaztelania hutsean daude ohar hauek. Arnas sintomak dituzten euskaldunek musukoa jarri behar al dute osasun etxean sartzeko?

Segurtasuna (8)

Dosierra: 77-2025

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - NAFARROAKO FORUZAINGOA

Arrazoia: A-1 bidean, Gasteizera norabidean, istripua egon zen urtarrilaren 19an eta bertaratu ziren foruzainen ibilgailuetan honako mezua jarri zuten pantailetan: "Peligro accidente" (erdara hutsean).

Dosierra: 450-2025

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - BARNE ZUZENDARI NAGUSIA -

Arrazoia: Gaur Nafarroako Foruzaingoko agente lehenen plaza batzuk lehiaketa edo berariazko lehiaketa sistemen bidez betetzeko deialdi publikoa argitaratu da. - Ikuskapen orokorraren alorrean, 23 plaza, euskara ez da ezta merezimendu ezta baten, horietatik 8 gainera eremu euskalduneko plazak dira. -Barne segurtasunaren eta polizia administratiboaren alorrean (Iruñea), 6 plaza, euskara ez da merezimendu ezta. -Trafiko eta bide segurtasuneko arloa, 10 plaza (Iruñea), 6tan euskara ez da merezimendu. -Herritarren segurtasuneko arloa, 10 plaza (Iruñea), euskara ez da ezta merezimendu. -Ikerketa kriminaleko taldea, 8 plaza (Iruñea), horietatik 3tan euskara ez da ezta merezimendu. Mota honetako deialdietan euskara merezimendu bezala ezartzeak zerbitzuak euskaraz eskaintzea bermatzen ez duen arren, neurri garrantzitsua izan daiteke administrazioaren euskalduntzea bultzatzeko. Bestalde, herritarren segurtasunari lotuta euskaraz lan egiteko gaitasuna izateak zerbitzua eskaintzeko berebizikoa da baina ez da kontuan hartzen.

Dosierra: 532-2025

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - NAFARROAKO FORUZAINGOA

Arrazoia: Foruzainen auto batek auto lerroaren arriskuaren berri emateko, erdera hutsez idatzia zuen argi-panelean. Baztandarren Biltzarrerako sarreran, N121B errepidean

Erantzuna:

Nafarroako Foruzaingoa: Paneletan ematen diren testuen edizioa programa informatiko baten bidez egiten da Iruñeko foruzain-etxean, eta agenteek in situ, intzidentziaren arabera hautatzen dute mezua. Panel horiek erabiltzen diren

kasuetan, herritarrek testua azkar bistaratzen dute, askotan mugimenduan eta proiektatutako testua xehetasunez irakurtzeko denborarik gabe. Horregatik, mezua azkar ulertzeko eta atxikitzeko moduan igorri behar da. Horrez gain, panela editatzeko programak karaktere kopuru mugatua du. Hala ere, gaineratu nahi dugu Foruzaingoa indarrean dagoen araudiak aitortzen dituen hizkuntza-eskubideak errespetatu nahi dituela bere jardunean, eta ildo horretan ari da lanean. Horregatik, mezua ele bitan editatzeko dauden aukerak baloratuko dira.

Dosierra: 719-2025

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - NAFARROAKO FORUZAINGOA

Arrazoia: Negargarria, negargarria Foruzainen "X" kontutik euskaraz zabaltzen duten mezua: "Lekunberri: kotxea maletategia irekitarekin; aparkatzean, paretarekin talka egiten; 90 urteko gidaria, 1993an iraungitako gidabaimenarekin, duela 32 urte...". Euskaltegia izena emateko garaiz dabil Altsasuko patruila.

Erantzuna:

Komunikazioa eta Herri Partaidetza Taldea: Adierazi nahi dizuegu zerbitzu honetan sortzen diren euskara-itzulpenen beharrak Itzulpenflow plataformara bideratzen dituen barne-protokolo bati jarraituz egiten direla, eta ondoren bidaltzeko zain geratzen direla. "Online" itzulpenak egiteko esteka bat ere eman ziguten, nahiz eta herritarren abisuen bidez egiaztatu den – batez ere sare sozialen bidez – ez direla beti gramatikalki zuzenak, eta kexaren arrazoia, ziur asko, kasuetako bat dela. Espero dezagun disfuntzio horiek konpontzeko plantilla organikoan GCyPCrako euskara eskakizuna duen lanpostu bat sartzea.

Dosierra: 729-2025

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - BARNE ZUZENDARITZA NAGUSIA - Larrialdietako, Prebentzioko eta Babes Zibileko Zerbitzua- zuzendaria

Arrazoia: Nafarroako 112 zerbitzuarten X sare sozialetako kontutik, txio solteren bat izan ezik, gainerako mezu guzti guztiak gaztelaniaz baino ez dira zabaltzen.

Dosierra: 771-2025

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - NAFARROAKO FORUZAINGOA

Arrazoia: Foruzaingoa sare sozialetako X kontuan noizean behin euskarazko mezu okerren bat zabaltzen hasi dira. Facebookeko kontuan aldiz den dena

gastelaniaz baino ez da argitaratzen. Nafarroako herritarrok informazioa euskaraz jaso nahi dugula zenbat aldiz eskatu behar dugu? Eremu euskalduneko herritarra naiz gainera.

Dosierra: 958-2025

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - BARNE ZUZENDARI NAGUSIA -

Arrazoa: Pasaden ostiralean (abenduak 19), Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuko langileak Erreskate Teknikorako Taldean sartzeko hautapen prozesua iragarri zen (14686E/2025 ebazpenaren bidez). Hainbat ezagutza proba zehazten diren arren, euskararen ezagutza ez da zehazten eta beraz euskararen inongo ezagutzarik gabe egon zaitezke erreskate taldean egon zaitezke. Larrialdi eta erreskateetan ez al da garrantzitsua bertoko hizkuntzaren ezagutza?

Erantzuna:

Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuko Zuzendaria: Sorospen Talde Teknikoko hautaketa deialdia hau Nafarroako Suhiltzaile Zerbitzuaren barne hautaketa prozesu bat da, non bete behar den baldintza honako hau da: “Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan suhiltzaile, suhiltzaile-gidari edo suhiltzaile-kabo izendatu izana eta lanpostu bat betetzen ari izatea.” Suhiltzaile izateko deialdietan euskarazko lanpostuak eta bete behar diren baldintzak zeazten dira. Jarraian, 2024ko suhiltzaile izateko azken oposizioaren sarbide-oinarriak: https://bon.navarra.es/es/anuncio/-/texto/2024/61/1_708/2024_EBAZPENA, otsailaren 26koa, Funtzio Publikoko zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko suhiltzaile izateko hogeita hamar lanpostu oposizio bidez betetzeko deialdia onesten duena. 2.–Betebeharrak. 2.1.3. Euskarazko B2 jakite-maila frogatu beharra duen lanpostu elebidun bat eskuratu nahi izanez gero, Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren arabera maila hori egiaztatzen duten titulu edo ziurtagirietako bat izatea (titulu edo ziurtagiri horiek Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak irailaren 13an emandako 210/2010 Ebazpenean zehaztu dira, 2010eko 117. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, irailaren 27koa), edo ofizialki horien baliokidetzat hartzen den beste titulu edo egiaztapen bat. 6.–Oposizioa nola egingen den. 6.6. Euskara maila frogatzea eta gaitasun psikofisikoaren azterketa. 6.6.1. Aurreko probaren behin betiko kalifikazioak argitaratu ondoren, izangaiek euskara maila frogatzen ahalko dute,

euskarazko B2 jakite-mailaren betekizuna duten lanpostu elebidunetan sartzeko, deialdi honen 2.1.3 atalean ezarritakoarekin bat. 7.–Oposizioko lehenbiziko fasearen emaitzak. 7.1. Oposizioko lehenbiziko faseko probak bukatutik, epaimahaiak lehenbiziko fasea gainditu duten izangaien zerrenda argitaratuko du, txandaren eta lortutako puntuazioaren arabera, hautapen proba bakoitzean lortutako puntuazioa batuz, eta adierazita zeintzuk egiaztatu duten badutela eskatzen den euskara maila.

Dosierra: 974-2025

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - NAFARROAKO FORUZAINGOA

Arrazoa: Foruzaingoaren X sare sozialetako euskararen erabilera salatu nahi dut. Euskarazko mezuak beheko iruzkinetan botatzen dira (beheko iruzkinetan) eta beraz herritarrok ez ditugu ikusten gehienetan, gainera batzuetan oraindik gastelaniazko mezua bakarrik zabaltzen jarraitzen da. Euskaraz informatuak izateko eskubidea dugun herritarrek noiz arte utzi behar gaituzte bigarren mailan?

.

EUSKAL HIRIGUNE ELKARGOA

Guztiak (1)

Dosierra: 294-2025

Nori: EUSKAL HIRIGUNE ELKARGOA

Arrazoia: Bai jada urte bat edo bi, aegazkian agertzen diren ondakin sailkatzeak, frantses hutsean direla. Ondakindeguko langile batek bere kabuz eginik. Eta egun ikusi ditut beste seinaletikak herri elkargoaren logoarekin osoki frantsesez.

ARABAKO FORU ALDUNDIA

Guztiak (10)

Dosierra: 123-2025

Nori: ARABAKO FORU ALDUNDIA - GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEA

Arrazoa: 18/2009 FORU DEKRETUA, otsailaren 24ko Arabako Diputatuen Kontseiluaren bidez, onartu egin zen Arabako Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana. 2008ko urtarrilaren 1ean plangintzaldia hasi zen eta 2012ko abenduaren 31n amaitu zen. Beraz, 12 urte Euskararen Erabilera Normalizatzeko plangintzarik gabe eta horrek euskal sektore publikoa osatzen duten subjektuen jarduna euskara lan- eta zerbitzu-hizkuntza gisa erabat normalizatzea oztopatzen du. Beste aldetik, orain dela urtebete, onartu zen 19/2024 DEKRETUA, otsailaren 22koa, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzekoa. Dekretua hau betetzeko, Arabako Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ez du ezer egin.

Dosierra: 503-2025

Nori: ARABAKO FORU ALDUNDIA - VIA PROMOCION DEL AEROPUERTO DE VITORIA SA

Arrazoa: Gasteizko Foronda aireportua sustatzeko VIA (Vitoria-Gasteizko Aireportua Sustatzeko Elkartea) sozietate publikoak egindako kontratueta (konexio berriak sustatzeko kontratueta), Administrazio-baldintzen klausuletan prozedurako hizkuntzari eta beste hizkuntza batzuetarako itzulpenari buruzko artikulua ezarri dira, eta horietan azaltzen da: - Gaztelania izango da prozedurako hizkuntza, eta hizkuntza horretako bertsioa izango da ofiziala - Kontratazio-organoak ingelesera itzultitako agiriak emango ditu, atzerriko enpresa lizitatzaleei izapideak errazteko. - Eskaintzak gaztelaniaz aurkeztu beharko dira lehentasunez, eta kontratazio-organoak ingelese izango da onartzen duen aukerako hizkuntza bakarra. 2024 eta 2025eko baldintza-klausuletan hala adierazten da hitzez hitz (gaztelaniazko bertsioetan): "35) Lengua del procedimiento y traducción a otros idiomas La lengua del procedimiento será el español, siendo la versión en este idioma la oficial. El órgano de contratación facilitará la documentación traducida al inglés a fin de facilitar los trámites a las empresas extranjeras licitantes. Las ofertas

deberán presentarse preferentemente en español, siendo el inglés la única lengua alternativa aceptada por el órgano de contratación". Horrela, euskara ofiziala izan arren, bere presentzia guztiz baztertzen da, eta, praktikan, debekatuta geratzen da euskara kontratazio-prozedura horietan erabiltzea EAEko araudiek esaten dutenaren kontra. Gasteizko Udaleko Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritza eta Turismoaren Batzordean VIAko kontseilaria den Euskara zinegotziak azaldu zuen VIAtik erantzun zela sektoreko enpresek (airelineek) ez dutela euskara erabiltzen, eta, hortaz, ez dela beharrezkoa euskara kontratueta sartzea. Beraz, euskararen ofizialtasuna eta herritarren hizkuntza-eskubideak errespetatu beharrean, aurrez aurre urratzen dira VIAko kontratazio-prozeduretan. Are gehiago, Eusko Jaurlaritzaren bidez diru publikoaren diruarekin finantzatuta dago, eta, ondorioz, are beharrezkoagoa da hizkuntza-eskubideak bermatzea. Kexa aurkeztu eta neurriak hartzea eskatu nahiko nuke.

Erantzuna:

Idazkari Nagusia: Euskal Sektore Publikoa arautzen duen maiatzaren 12ko 3/2022 Legeak 4.4 artikuluan ezartzen du euskal sektore publikoan sartuko direla baldintza jakin batzuk betetzen dituzten erakunde guztiak. Horien artean d) letran aurkitzen da Gobernu edo administrazio organo kolegiatua izanik, bertako kide gehienak 4 artikulua berean aipatzen diren erakunde, organo edo entitateek izendatzea Definizio hori kontuan hartuta, VIA euskal sektore publikoaren barruan dagoela ulertu behar da, eta, beraz, hemendik aurrera, bi hizkuntza ofizialetan argitaratuko ditugu gure lizitazioetako baldintza administratibo eta teknikoak. Eta hitzkuntz irizpideetan bi hizkuntza ofizialetan baimenduko dira aurkeztzen diren eskaintzak

Dosierra: 518-2025

Nori: ARABAKO FORU ALDUNDIA - MUGIKORTASUN JASANGARRIA ETA BIDE AZPIEGITURAK

Arrazoa: Getxotik Gasteizera doan autobuseko linearen erabiltzailea naiz eta idatzi honen bidez nire kexa helarazi nahi diet Bizkaiko eta Arabako Foru Aldundiei zerbitzu horretan autobuseko geltokiak iragartzeko mezuak erdara hutsean ematen baitira. Zerbitzua ematen duen enpresa La Unión da. Autobus linea horren kontzesioa Bizkaiko eta Arabako Foru Aldundiek elkarrekin kudeatzen dute eta bi hiriak eta haien inguruko eremuak lotzen dituzten linea guztiak integratzen ditu, Forondako eta Loiuko aireportuetara doazen lineak barne. Ez dakit linea guztietan

gertatzen ote den baina Getxotik Gasteizera doan linean geltokiak erdara hutsean iragartzen dira. Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren abenduaren 18ko 3/1979 Lege organikoak 6. artikuluan xedatzen du Euskara Euskal Herriaren hizkuntza propioa izanik, hizkuntza ofiziala izango dela Euskadin, gaztelania bezala. Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 10/1982 Legeak, bere aldetik, hainbat xedapen jasotzen ditu herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko. Horien artean honakoak nabarmendu daitezke: - 4. artikulua. Herri-aginteei Euskal Autonomia Erkidegoan hizkuntza dela-eta inor diskriminatu ez dadin zainduko dute eta neurri egokiak hartuko dituzte. - 11. artikulua. Euskal Herritik abiatzen diren garraio publikoko zerbitzu guztietan inprimakiak, iragarkiak eta herritarrentzako mezuak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira. Xedapen horrek, noski, bozgorailutik ematen diren mezuak ere barne hartuko lituzke. Era berean, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko otsailaren 22ko 19/2024 Dekretuak ezartzen du hizkuntza-eskubideak bermatzeko klausulak txertatu beharko direla formalizatzen diren kontratazioetan (13.artikulua) eta betebeharrak gehigarriak ezartzen ditu prestazioa gauzatzean herritarrekin harreman zuzena ezartzen bada. Aipatutako legediaren menpe dago autobus linea horren zerbitzu-emakida kontratua. Horregatik guztiagatik, nire kexa dagokion erakundera/erakundeetara bideratzea eskatu nahi dizuet, euskarak merezi duen eta legez dagokion lekua izan dezan.

Erantzunak:

La Union autobusak: Komunikazio berriak elebitan eskaini ohi ditugu, eta hala egiazta dezake gure zerbitzua erabiltzen duen edonork: bidai txartelak, ordutegiak, webgunea, aplikazioa, etab. Kasu zehatz honetan, autobusetako argietan geralekuei buruzko informazio guztia ez zegoen euskaraz, eta, beraz, barne neurriak hartu ditugu egungo formatua aldatzeko, gehienez 30 eguneko epean. Era berean, enpresako langile guztiei gogorarazi dizkiegu nahitaez bete beharreko Hizkuntza Irizpideak.

Herritarrentzako Arreta Zerbitzua: Bilbao eta Gasteiz arteko A-3700 emakida batuaren pleguetan hizkuntza-arloko exekuzio-baldintza berezi gisa honako hau jaso genuen: "Bizkaiko Foru Aldundiko kontratazio-organismoek egindako kontratuak hizkuntza-ofizialtasun bikoitzaren araubidearen mende daude. Araubide hori Euskal Herriaren Autonomia Estatutuari buruzko abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren 6. artikuluan eta Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren

24ko 10/1982 Euskal Legean dago ezarrita, bai eta arlo horretan indarrean dauden gainerako autonomia eta foru arauetan ere". Jakin badakigu erabiltzaileei zuzendutako komunikazio guztiak ele bitan egin behar direla, eta hala gogorarazi diogu enpresa emakidadunari. Normalean komunikazio guztiak bi hizkuntzetan egiten dituzte. Autobusaren aurrealdeko argi-mezuei dagokienez, formatua aldatuko dutela adierazi dute.

Mugikortasun eta Garraio zerbitzua: Jakin badakigu erabiltzaileei zuzendutako komunikazio guztiak elebitan egin behar direla, eta horrela gogorarazi dio Bizkaiko Foru Aldundiak enpresa emakidadunari. Normalean komunikazio guztiak bi hizkuntzetan egiten dituzte bai bidai txarteletan, ordutegietan, webgunean, aplikazioan, etab., eta autobusaren aurrealdeko argi-mezuei dagokienez, formatua aldatuko dutela adierazi dute. Aprobetxatzen dugu jasota uzteko gertatutako guztiak ahalik eta azkarren zuzendu zirela, eta testu guztiak elebitan daudela gaur egun enpresa emakidadunak zabaltzen duen informazio guztian.

Dosierra: 563-2025

Nori: ARABAKO FORU ALDUNDIA -MUGIKORTASUN JASANGARRIA ETA BIDE AZPIEGITURAK - Bide azpiegituren zuzendaria

Arrazoia: Arabara sartzean dagoen kartela "Diputacion Foral de Araba-Red de carreteras" agertzen da. Ez dago euskeraz. Bestetik kurba arriskutsu bat dagoela adierazteko seinale bat margotuta guztiz eta beste biak pegataz beteta daudenez, ez dute euren funtzioa egiten eta askoz hobeto seinalizatu beharko litzateke. Araban seinale asko gaztelaraz ikusten dira, honetakoaz gain. Adibidez, "Nanclares de la Oca" Gasteiztik ateratzen garenean Burgoserantz, edo "Miñano Mayor" Legutiorantzako errepidean. Oker ez banago, bi errepide garrantzitsu hauetan, 8 bat seinale gaztelera hutsean daude.

Erantzuna:

Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren saileko foru diputatua: Aipatzen den kartela Urduñako mendatean dago, Burgosko probintziaren titulartasuneko lursailean, eta, beraz, Foru Aldundiak ez du eskumenik kartela instalatzeko, ordezteko edo aldatzeko jarduketak egiteko. Pegatinaz estalitako bihurtune arriskutsuko panelari dagokionez, egiaztatu da, halaber, Burgosko udalerrri probintzial beraren barruan dagoela, eta, beraz, Aldundi honi ez dagokio mantentzea eta garbitze. A-1 errepidean Langraiz Oka inguruan eta N-240

errepidean Miñao inguruan dauden seinaleei dagokienez, jakinarazten dizugu seinale horiek berriro eta eguneratu egingo direla Sail honek seinaleztatzen lebidunari buruz egindako aurreko txostenetan ezarritako irizpideen arabera. Aurrekontu erabilgarritasunaren eta aldaketaren irismenaren arabera, zenbait herri barne hartzen dituzten norabide- edo orientazio-seinaleak bigarren fase batean eguneratzen dira. Lehentasuna ematen zaio eraginpeko herrigunera zuzenean sartzeko seinaleak ordezkatzeari. Eskura dauden baliabideak optimizatzeko eta seinaleztatzen bera behin eta berriz ez ordezteko, sail honek eguneratze irizpideak hartu zituen, eta lehentasuna eman zion herrietarako sarrera- eta irteera-seinaleak egokitzei, eta gainerako jarduerak progresiboki programatu zituen, urteko planifikazioaren eta eskuragarritasun ekonomikoaren arabera. Prozedura horren helburua da bide-seinaleen hizkuntza- eta ikus-koherentzia bermatzea, eta, aldi berean, ziurtatzea herrigunetik behar bezala identifikatzen direla Arabako Lurralde Historikoan indarrean dagoen izendegi ofizialaren arabera.

Dosierra: 704-2025

Nori: ARABAKO FORU ALDUNDIA - VIA PROMOCION DEL AEROPUERTO DE VITORIA SA

Arrazoia: Gaurko Garak Gasteizko aireportua sustatzeko iragarkia dakar, euskara hutsean ekarri ere. Ez da ohikoa aireportuen gaineko publizitatea (AENA sozietate publikoarenak izan ohi dira) euskaraz ikustea, eta, hargatik, pozgarri zait. Ostera, norakoak, hiri izenak-eta, erdaraz dakartza: "Alicante [Alacant beharrean], Mallorca, Sevilla, Malaga, Islas Canarias [Kanaria uharteak beharrean], Milan-Bergamo, Colonia-Bonn [Kolonía-Bonn beharrean], Bruselas-Charleroi [Brusela-Charleroi beharrean]". Webgunearen <<https://www.vitoriateconecta.com>> euskarazko bertsioan ere gaztelaniazko izenak darabiltzate. Webgunearen atzean Vitoria-Gasteizko Aireportua Sustatzeko Sozietatea dago eta beronen bazkideak dira Vitoria-Gasteizko Udala, Arabako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza eta Arabako Ganbera, beste webgune honetan <<https://www.via.aero/eu/sustapen-sozietatea>> irakurri dudana gatik.

Dosierra: 721-2025

Nori: ARABAKO FORU ALDUNDIA - OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Arrazoia: Arabako Foru Aldundiak erdara hutsez bidali du Ticket Bai-i buruzko email bat.

Erantzuna:

Ogasun zuzendaria: Gure webgunea eta publiko orokorrari zuzendutako gainerako komunikazioak (iragarkiak, inprimakiak, idazkiak, etab.) euskaraz eta gaztelaniaz idazten dira, 3/2025 Foru Dekretuaren 1.2 apartatuan xedatzen den bezala. Aurrekoa gorabehera, transkripzio akats baten ondorioz, eztabaidagai zen mezua gaztelaniaz besterik ez zen bidali, baina bi hizkuntza ofizialetan argitaratu behar zen. Akats horren berri izan ondoren, dagokion zerbitzuari eskatu zaio behar diren neurriak har ditzala berriro gerta ez dadin, herritarrekiko idatzizko harremanetan testuak gainbegiratzeko beharrezkoak eta egokiak diren kontrol mekanismoak ezarri.

Dosierra: 726-2025

Nori: ARABAKO FORU ALDUNDIA - VIA PROMOCION DEL AEROPUERTO DE VITORIA SA

Arrazoia: Irailaren 21ean, Berrian agertutako iragarkiari erreparatuz toponimoak euskaraz ipintzea konpondu zutela zirudien: Alacant, Brusela...Gaur, urriak 3 dituela, baina, Gara egunkariak dakarren iragarkiak berriro ere dakartza toponimoak gaztelaniaz: Alicante, Bruselas, Madrid, Barcelona...; Alacant, Brusela, Madril, Bartzelona... beharrean.

Dosierra: 745-2025

Nori: ARABAKO FORU ALDUNDIA - ARABAKO FORU ALDUNDIA -

Arrazoia: Urriaren 6an, Gobernu Irekiaren Aliantzaren Goi Bilera Globala hasi da Gasteizen, Estatuko Gobernuaren, @Gob_eus en, @Araba ko Aldundiaren eta @vitoriagasteiz ko Udalaren lankidetzaren emaitza. Bilera iragartzen duten kartelak espainolez eta ingelesez daude, hitz bakar bat ere ez euskaraz.

Dosierra: 753-2025

Nori: ARABAKO FORU ALDUNDIA - ARABAKO FORU ALDUNDIA -

Arrazoia: N240 errepideko hainbat kartel ez dira legalak, gaztelaniazko aldaera baino ez baitute: Gamarra Mayor (Gamarra Goien), Retana (Erreta), Durana (Dura), Miñano Mayor (Miñao Goien), Luko (Luko). Santa Engrazia ibaia "Santa Engracia"

dute jarrita. Eta, gainera, Legutio barik, "Legutiano" jartzen du. Bide batez, gauza bera gertatzen da AP1ean "Túnel de Luko" baino ez baitu jartzen.

Dosierra: 910-2025

Nori: ARABAKO FORU ALDUNDIA - ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN SAILA

Arrazoa: Arabako Foru Aldundiak hainbat lan-deialdi atera zituen atzo. Deialdi horien artetik ondorengoetan euskararen ezagutzarik izan gabe lortu daiteke plaza: -Arkitekto 2 plaza. Derrigorrezko hizkuntza-eskakizunik gabe. -Informatika Teknikari plaza bat derrigorrezko hizkuntza-eskakizunik gabe. -Mendeko 3 plaza derrigortasun datadun hizkuntza eskakizunik ez dutenak. -Arte Grafikokoko 3 lanpostu, derrigorrezko hizkuntza-eskakizunik gabe. -Moldiztegi 2 plaza, derrigorrezko hizkuntza-eskakizunik gabe. -Herrilanetako kontrolatzaile 6 plaza derrigorrezko hizkuntza-eskakizunik gabe. Euskararen derrigorrezko ezagutzarik gabe ez da zerbitzuak euskaraz eman ahal izatea bermatzen eta administrazioaren euskalduntzea oztopatzen dute. Plantilla organikoan neurriak hartzea eskatzen diot Arabako Foru Aldundiari.

.

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Guztiak (24)

Dosierra: 2-2025

Nori: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA - INTERBIAK

Arrazoia: Autobideetarako Bizkaiko diputazioak ematen dituen diru-laguntzez baliatzen garenok e-maila ---behean duzue--- jaso dugu 2025erako berri ditzagun eskabideak. Euskarazko e-mailak baditu hainbat akats; adibidez: "2025.ko [sic] diru-laguntza berritzeko eskaera" atalera eramango dizu [sic] sistemak; 2025rako [sic] diru-laguntzak; expresuki; bi aurpegiengatik irudia ---argi dago gaztelaniazko "Imagen por las dos caras" euskaratu gura izan dutela, baina "la imagen debida a las dos caras" esaten ari dira---; gida-baimen ---marratxo barik eta loturik idatzi behar da---; datalera ---atalera esan guran---. Jakin gura nuke ondoko esaldiak zelan dauden adierazirik gaztelaniaz...: Zenbateko gehigarriaren % 100, 38,13 eurotik gorako gastuari dagokiona, Bizkaiko autobideetako joan-etorriek [joan-etorriek ordaindu?!] ordaindutako guztizkoari dagokiona Gipuzkoako eta Arabako autopistetan joan-etorriek ordaindutako [joan-etorriek ordaindu?!] guztizko gastuaren zenbateko gehigarriaren % 100, 55,76 eurotik gorakoa, betiere haren jatorria edo helmuga Bizkaia bada. Zenbateko gehigarriaren % 100, 38,13 eurotik gorako gastuari dagokiona, AP-68 autobidetik Bizkaiko Lurralde Historikoko tarteetan igarotzen direnek ordaindutako guztizkoari dagokiona. Zenbateko gehigarriaren % 100, 55,76 eurotik gorako gastuari dagokiona, AP-68 autobidean Arabako Lurralde Historikoko tarteetan dauden tarteek ordaindutako guztizkoari dagokiona, betiere horien jatorria edo helmuga Bizkaia bada. Bestalde, diru-laguntzak berritzeko webgunean ondoko esaldia edo esaldi amaitu gabea edo dena delakoa ageri da ---erantsita duzue irudia---: Honen bidez jakin erazten [sic] du, [nork?] 2025rako [sic] foru aldudien [sic] titulartasuneko diren eta zuzenean kudeatzen dituzten errepideetan (Bizkaian, AP-8, MHS eta Artxandako Tunelak

Dosierra: 36-2025

Nori: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA - NEKAZARITZA ZUZENDARITZA

Arrazoia: lazko [2024] otsail hasieran niotsuen guzti-guztia (114-2024) berretsi beharrean naiz. Aurtengo urtarrilean berdin dabilta-eta bidaltzen gutunak. Gran Vía erdarazkoa euskaraz Kalea Nagusia da, kopon! Bilbao erdarazkoa euskaraz Bilbo da. "Aguirre" txarto idatzita dago. Eta euskaraz "Agirre Lehendakaria" da, eta ez "Lehendakari Aguirre [sic]", ez eta "Lehendakari Agirre" ere. "Etorbidea" minuskulaz idatzi behar da, ez dago-eta esaldi hasieran. Eta abar, eta abar. Errespetua, mesedez, euskaldun herritarroi. Behingoan. Ea datorren urteko gutunetan... 2019tik dihardut-eta errespetu eske.

Dosierra: 113-2025

Nori: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA - BILBOKO ARTE EDERREN MUSEOA

Arrazoia: Bilboko Arte Ederren Museoak bere Instagrameko kontuan (@bilbaomuseoa) zabalduetako mezu gehienak erdara hutsean daude eta euskara erabiltzen den gutxietan erdara lehenesten zaio.

Dosierra: 116-2025

Nori: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA - BIZKAIBUS

Arrazoia: Higuinagarria da ikustea Bilbo abiaburu, helmuga edo geraleku duten Bizkaibusen autobus guztietan hiriaren izena erdaraz baizik ez agertzea, sistematikoki eta zigorgabetasun osoz euskaldun herritarrok bazterkeriaz tratatuz.

Erantzunak:

Bezerearentzako Arreta Zerbitzua: Erreklamazioari dagokionez, jakinarazi behar dizugu hiribilduaren izen ofiziala Bilbao dela. Horrela jasota dago Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako zuzendariaren 2023ko apirilaren 12ko Ebazpenean, Euskal Autonomia Erkidegoko Toki Administrazioaren Erregistroan inskribatutako udalerrien izen ofizialen publizitateari buruzkoan. Hala ere, ekarpen guztiak kontuan hartzen ditugu, zure erreklamazioa barne, Bizkaibus zerbitzua hobetu ahal izateko. Eragindako eragozpenak sentituz eta zure kolaborazioa zerbitzuaren hobekuntzan eskertuz, besterik gabe agur bat jaso ezazu.

Herritarren erantzuna: Bada, nik jakin eragiten diet euskara hizkuntza ofiziala dela Euskal Herriko mendebaldeko autonomia erkidego honetako lurralde osoan, eta erdarazko izena baizik ez izatea ofiziala anomalia izugarria dela. Nola liteke euskaldun herritarrok ezin erabiltzea hiriaren izena euskaraz? Benetan hori

defendatzen dute Bizkaibusek? Zein lege edo arau dago zeinen gainetik: euskararen ofizialtasuna (eta hizkuntzagatiko bereizkeriaren debekua) ala udal baten erabaki supremazista? Zein legeri egin beharko liokete men Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bizkaibusek?

Dosierra: 142-2025

Nori: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA - BIZKAIA INTERBIAK

Arrazoia: A8an, "Bilbao [erdara hutsean] - San Mamés [erdara hutsean] - Basurto [erdara hutsean]" irteerara iritsi orduko, Espainiarako norabidean, eta isunetarako radarrera Iritsi aurretik, bada tramankulu bat "Su velocidad" ageri duena erdara hutsean. Bide-seinale horiek, tramankulu hori, e.a., erdara hutsean daude. Dena, hispanoendako baino ez. Eta euskaldunok izorra gaitezela, geure herrian bertan eta nahinon, noiznahi.

Dosierra: 201-2025

Nori: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA - BIZKAIA INTERBIAK

Arrazoia: Leioako Musika Eskolaren parean, Avanzadako tunelean lanak egiten ari direla eta, ezin da aparkatu, eta kotxez pasakeran herritarrok ikusi ditzakegun abisu guzti-guztiak, erdara hutsean daude: "PROHIBIDO APARCAR Y ESTACIONAR". Gero Euskaraldira egingo dute deia euskaldun herritarrok baztertzen gaituzten berberak.

Erantzuna:

Leioako Udala: Ekintza hau ez da udalarena. Hilabete hauetan gure udalerrian La Avanzadako estaltze-lanak egiten ari dira, eta lanak ez daude gure udalaren mendean. Hala ere kexa jaso eta hurrengo egunean hara hurbildu ginen, eta hesi hori ez zegoen han. Ordurako erretiratuta zegoen. Obra bizia da, eta egunetik egunera seinaleak, pasabideak, kartelak ipini eta kendu egiten dituzte.

Interbiak: Jakinarazten dizuegu horren berri eman diogula Obraren Zuzendaritzari, eta jakinarazten digute kontuan hartuko dutela etorkizuneko eraginak seinaleztatzeko.

Dosierra: 291-2025

Nori: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA - GIZARTE EKINTZA SAILA

Arrazoia: Bizkaiko Diputazioak, etxeTIC zerbitzuaren aurkezpeneko e-mail mezuak gaztelera hutsean bidali ditu.

Dosierra: 385-2025

Nori: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Arrazoia: Bizkaiko Foru Liburutegiaren gutunazaletan zergatik ageri da helbidea erdara hutsean: "Diputación, 7 - 48008 Bilbao"?

Dosierra: 429-2025

Nori: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Arrazoia: BFAko langilea naiz. Atzo laneko kontu bat izapidetzeko nire saileko zerbitzu orokorretara joan nintzen eta artatu ninduenak (bertan ohikotasunez artatze lanak egiten dituenak) euskeraz ulertzen ez zuela esan eta erderaz egin behar izan nuen. Ez dut zein Saitetan lan egiten dudana adierazi nahi ze, era horretan, langilea bera seinalatzen egongo nintzateke eta ez dut hori nahi, oso jatorra delako eta gainera nire ustez zerbitzu hori euskeraz ematearen ardura Aldundiarena delako, ez berea.

Erantzuna:

Euskara Zerbitzua: Bizkaiko Foru Aldundiak lan egiten du zerbitzua euskaraz ematen dela bermatzeko; beti ez da lortzen baina. Dena dela, kexa honi erantzun eta dagokion konponbidea jartzeko, jakin beharko genuke non-zer gertatu den, bestela ezin baitugu ezer egin. Euskara Zerbitzuan prest gaude lagundu behar denean laguntzeko.

Dosierra: 530-2025

Nori: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA - BISCAYTIK FUNDAZIOA (BFA)

Arrazoia: Ohartua naiz, aspaldian, hainbat webgunetara sartzean, cookieen ohartarazpenetan "Uztu guztiak" bitxikeria-(edo!) ageri dela. Bada, gaur bilatu egin dut "Uztu guztiak" zera eta agerpen gehien-gehienak Bizkaiko udalei dagozkie. Bada, hona kexa: Bizkaiko udal pilo baten webguneetan cookieen ohartarazpena azaltzen denean, "Uztu guztiak" dioen botoia ageri da. Gaztelaniaz, "rechazar todas" da. Zer ote da "uztu"? Gainera, cookieen ohartarazpenetan ageri den edukiak ez du zentzurik. Segidan dituzue euskarazko eta gaztelaniazko esaldiak. Beltzez nabarmendu dut euskarazko testuan zentzurik gabekoa dela begitantzen zaidana (eta gaztelaniazko bertsioan zer esaten den). Gune honetan hirugarrenen cookie-ak erabiltzen ditugu, nabigazioa errazteko eta gure bisitariak erabil dezaten

estatistika informazioa jasotzeko. Informazio gehiagorako ikusi gure COOKIEN politika. Gaztelaniaz diote: En este sitio utilizamos cookies de terceros para facilitar la navegación y obtener estadísticas de uso de nuestros visitantes. Para más información, consulte nuestra POLÍTICA DE COOKIES. Esango nuke akatson jatorria egon litekeela Biscaytik fundazioan, informatika arloko zerbitzuak ematen baitizkio Bizkaiko udal pilo bati. Edozelan ere, EUNEIZ unibertsitatearen webguneak ere UZTU GUZTIAK botoia dakar; baita Lantarongo (Araba) udalarenak ere; eta UEMA mankomunitatearen webgunean botoi hori zein esaldi akastuna. Hortaz, eskatzen dut Biscaytikek konpontzea udalen* eta mankomunitateen** webguneetako testuak eta Behatokiak EUNEIZi, UEMari eta Lantarongo Udalarari ere ematea akatson berri. * Ajangiz, Alonsotegi, Arratzu, Arrieta, Atxondo, Barrika, Berriatua, Fruiz, Galdames, Garai, Gautegiz Arteaga, Gernika-Lumo, Gorliz, Gueñes, Karrantza, Lanestosa, Larrabetzu, Lemoiz, Lezama, Mallabia, Maruri-Jatabe, Orozko, Otxandio, Plentzia, Santurtzi, Sopuerta, Trapagaran, Turtzioz, Ugao-Miraballes, Usansolo, Urduliz, Zalla, Zeanuri, Zeberio ** Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea, Enkarterriko Mankomunitatea, Nerbioi-Ibaizabal Mankomunitatea, eta Uribe Kostako Mankomunitatea.

Erantzuna:

Zuzendari nagusia: Gai honi dagokionez, adierazi nahi dizugu, itzulpen akats horiek ahalik eta lasterren konponduko ditugula.

Dosierra: 546-2025

Nori: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA - KIROLLEN ZUZENDARITZA NAGUSIA -

Arrazoia: Erantsita doakizue Getxoko Zirkuituak gaurko -uztailak 25 dituela-Corroen argitaratu duen iragarkia, lasterketak zirkulazioan izango dituen eraginez ohararazteko a; erdara huts-hutsean dago eta, besteak beste, hainbat administrazio publikoren* logoak dakartza. *"Bilbao[ko]" [sic] Udalarena; Getxoko Udalarena; Bizkaiko Foru Aldundiarena.

Erantzuna:

Herriarreganako Laguntza bideratzeko Atala: Antolatzaileari helarazten diogu zure kexa

Dosierra: 548-2025

Nori: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA - BIZKAIBUS

Arrazoia: "Aitite amamen"?! Bizkaibusek honela idatzi du: "AITITE AMAMEN MUNDUKO EGUNA. Ea: [aitite] da "aitita" berba ahoskatzeko modu bat; fenomeno fonetikoa da, aurretiko [i] hotsaren eraginez [a>e] bilakatzen da. Gaztelaniaz idatziko lukete "agüelo" kontestu horretan. Bistan da ezetz. Ez dute "agüelo" idatzi; abuelo baino. Euskaraz dirudienez edozerk balio du. Ganorabakokeria guztiz balekoa da, antza. Eta ortografia ere zaindu behar lukete; hau da, marratxoa ere falta da. "Aitite" idazten badute, zergatik ez "egune"?! Euskarak ortografia du, kopon!

Erantzuna:

Bezeroentzako arreta-zerbitzua: Jakinarazi nahi dizugu zure iradokizuna kontuan hartu dela. Kasu hauetan, edukia publizitate agentzia espezializatu batek prestatzen du, bi hizkuntza ofizialeko adituen gainbegiratzapean. Kasu honetan, "aitite" forma erabiltzea erabaki zen, mezua argiagoa izan dadin eta hizkuntza herrikoietako adierazpenetara hurbiltzeko. Nahiz eta forma hauek akademikoki ez izan zuzenean arauarekin bat datozenak, asmoz erabiltzen dira jendeari hurbiltasun, maitasun eta konplizitate ukitu bat transmititzeko. Zure kezka euskara ondo erabiltzearen inguruan eskertzen dugu, eta ziurtatzen dizugu gure komunikazioetan beti baloratzen dugula zehaztasun linguistikoa, betiere arau akademikoaren eta herritarrengana hurbiltzeko asmoaren arteko oreka kontuan hartuz.

Dosierra: 597-2025

Nori: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA - KIROLLEN ZUZENDARITZA NAGUSIA -

Arrazoia: Gaur goizean Zornotza eta Lemoa artean "1 km / Meta volante" eta "500 mts. / Meta volante" dioten kartelak ikusi ditut errepidean. Bizkaiko Foru Aldundiaren irudia daukate.

Dosierra: 648-2025

Nori: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA - BILBOKO ARTE EDERREN MUSEOA

Arrazoia: Umeentzako udako kanpusak euskeraz eta gaztelaniaz izango direla diote. Ez dituzte taldeak bereizten, beraz, umeren batek euskaraz ez badaki, gaztelaniaz egiten dute. Horrela azaldu zidaten telefonoz galdetzean. Beraz, ez dago inongo bermerik gure seme alabak jarduera euskaraz egitea nahi badugu, gaztelaniaz egitea nahi dutenek ordea bai nahiz eta gutxiago izan.

Dosierra: 685-2025

Nori: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA - BIZKAIBUS

Arrazoa: Gaur goizeko 9:00ak aldera Bizkaibuseko Bilboko Intermodaleko leihatilara gerturatu naiz, euskaraz egin eta ez da gai izan euskarazko arreta emateko. Beste erabiltzaile batzuek ingelesez artatu dituela konturatu naiz eta ingelesa hitz egiten duen galdetu diot. Baietz esan dit baina euskaraz ez dakiela. Lotsagarria iruditzen zait zerbitzu publiko baten leihatilan atzerriko hizkuntzaren ezagutza izatea baina berton ofiziala den hizkuntza ez menperatzea. Ohiko erabiltzailea naiz eta euskaraz dakien langile bakarra dago. Egoera honen ondorioz nire hizkuntza eskubideak urratu dira eta gaztelania erabiltzera behartzen naute EAEko legeak aitortzen dizkidan eskubideak eta zerbitzu horrek dituen betebeharrak kontuan hartu gabe.

Erantzuna:

Bizkaibus: Erreklamazio hori aztertu eta gero, Vectalia Txorierri enpresa emakidadunari bidali zaio, zeinek honakoa komunikatzen digun: “Enpresaren langileek eta, batez ere, jendaurrean lan egiten dutenek lanean hizkuntza biak erabiltzeko gaitasuna izateko ahaleginean gabiltza”. Hala ere, enpresarekin kontaktuan jarri gara dituen betebeharrak linguistikoak betetzera premiatzeko. Halaber, helarazi nahi dizugu Bizkaiko Foru Aldundiak lizitazio berrietan jasotzen duela enpresa adjudikaziodunek herritarren hizkuntza-eskubideak errespetatzeko eta herritarrentzako komunikazioak ele bietan egiteko beharrak. Amaitzeko, gure barkamena berretsi nahi dizugu, eta eskerrak eman nahi dizkizugu zure ekarpenagatik, Bizkaibus zerbitzua hobetzeko aukera ematen baitugu.

Dosierra: 694-2025

Nori: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA - BIZKAIA ESKOLA KIROLA -

Arrazoa: Atzo Bizkaiko Aldundiko eskola kiroleko gurasoen ikastaroa egin nuen, "Eskola kirolaren gakoak gurasoentzat" (nahitaezkoa da eskola kirolean seme-alabak ditugun gurasoentzat. Eman digute loturan sartzerakoan, zein hizkuntzatan egin nahi dugun ikastaroa galdetzen da eta gaztelania, frantsesa edo ingelesa agertzen zitzaizkidan soilik, euskara ez. Beranduago konturatu naiz euskarazko webgunetik sartzen bazara soilik ematen duela euskara hautatzeko aukera, erdarazko webgunetik sartzen bazara ez, nabigatzaile asko gaztelaniaz

konfiguratuta ditugula kontuan izanik, ez litzateke gaztelaniazko bertsioan ere euskara hautatzeko aukera eman beharko? Ingelesa eta frantsesa bertsio bietan aukeratu daitezke. Aldundiari euskarazko aukera gaztelaniazko bertsioan ere txertatzeko eskatu nahi diot, guraso askok gaztelaniaz beteko zuten euskaraz ez dagoela pentsatuta.

Dosierra: 710-2025

Nori: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Arrazoa: Atzoko (2025-09-28) Corroen Bilboko Wap Estropatada delakoaren iragarkia azaldu da. "Urriak 5" da euskaraz ageri duen zer bakarra; bestela, erdara hutsean dago. Bilboko Udalaren (ofizialki Bilbaoko [erdal izena da ofizial bakarra] Udala) eta Bizkaiko Diputazioaren logoak ageri ditu. Baita BBK fundazioaren logoa ere.

Dosierra: 788-2025

Nori: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Arrazoa: Barakaldoko D ereduko Beurko instituto publikoko ikasleak urriaren 16an hezkuntza formakuntza eskaintzen duen entitate pribatu bat bisitatzea eraman dituzte. Jarduera oso osorik gaztelaniaz izan da. Honako hau da beraien web helbidea: <https://www.42urduliz.com/> Entitatearen web orria bisitatu dudanean harrituta ikusi dut euskarazko webgunerik ere ez dutela. “Eu” aukeratuta ere, gaztelaniazko bertsiora zaramatza. Webgunean gainera Bizkaiko Foru Aldundiaren logotipoa agertzen da. Erabat harrituta nago Bizkaiko Foru Aldundiaren logotipoa hezkuntza entitate pribatu baten webgunean ikusteaz. Ze erlazio du Bizkaiko Foru Aldundiak herritarren gutxieneko hizkuntza eskubideak ere errespetatzen ez dituen entitate batekin? Edozein kasutan larria litzateke, baina hezkuntzarekin lotutako entitate bat izanik onartezina eta ulertezina egiten zait. Umeak ingurune erdaldun baten euskaraz hezi dituen ama bezala erabat atsekabetuta eta galduta sentitzen naiz. Kexa nori eta nola bideratu ez dakidala.

Dosierra: 812-2025

Nori: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA - EUSKALDUNA JAUREGIA

Arrazoa: Igandean Euskalduna Jauregian "El lago de los cisnes" baleta ikusi nuen, eta hasierako iragarpenak —mugikorrak itzaltzeko, argazkirik ez egiteko, etab.—

soilik gaztelaraz eta ingelesez egin zituzten. Ez zuten euskarazko bertsiorik eman, ez ahoz ez pantaila bidez. Egoera horrek erakusten du euskararen presentzia falta ekitaldi publiko eta kulturaletan, eta urratzen ditu herritar euskaldunen hizkuntza-eskubideak. Euskalduna Jauregia, erakunde publiko baten menpe dagoen espazio izanik, hizkuntza-irizpideetan berdintasuna bematu beharko luke.

Erantzunak:

Euskalduna: Behin beharrezko egiaztapenak eginda, Beltxargen. Aintzira ikuskizunaren eta horrek hizkuntza-politikarekin izandako egokitzapenaren inguruan bidali diguzun kexari erantzungo diogu. Megafoniako oharra (hala nola telefono mugikorren erabilerari buruzkoa) aldeztu aurretik grabatuta daude. Oharra, ordenan, euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez entzuten da. Grabaketa berrikusi eta gero, egiaztatu dugu ez dela aldaketarik egon. Halaber, egiaztatu dugu kokapen-zerbitzuko oharra ere lehenik eta behin euskaraz entzun zela. EUSKALDUNA BILBAOK hizkuntza-politika ezarrita dauka eta honako helbide honetan irakur dezakezu: <https://www.euskaldunabilbao.com/src/uploads/2025/03/Hizkuntza-Politika-2025.pdf> Gainera, EUSKALDUNA BILBAOKo langile guztiek horren jarraipenean aktiboki laguntzen dute. Nolanahi ere, zure esanetara gaude edozein zalantzari edo hobetzeko iradokizuni erantzuteko.

Dosierra: 839-2025

Nori: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA - INGURUNE NATURALA ETA NEKAZARITZA SAILA

Arrazoiak: Bizkaiko Foru Aldundiaren "Bizkaia repara" kanpainaren email ofizialak euskeraz bidelduten deuez, baie gugaz kontaktuan ipinteko egokitu dakun pertsona, beti beti-beti gaztelaraz zuzentzen daku bai telefonoz eta bai bidaltzen dituen mezuetan. Aurtan, zerbitzua emoteko telefono alkarrizketak elebitan direz, ni euskeraz eta bestearen erantzunak erderaz.

Erantzuna:

Herritarrentzako Arreta Zerbitzua: «Bizkaia Repara» kanpainako laguntza Bizkaiko Foru Aldunditik kanpoko zerbitzu batek ematen du. Idatzitako komunikazioak eta telefonoz bidezko arreta bi hizkuntza ofizialetan bermatzeko jarraibide zehatzak emango diegu.

Dosierra: 889-2025

Nori: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Arrazoiak: Bizkaiko Foru Aldundiak Suhiltzaile gidari eta suhiltzaile zerbitzuko kaboen deialdiak argitaratu ditu gaur, 50 plaza. https://www.bizkaia.eus/lehendakaritza/Bao_bob/2025/11/17/I-1220_eus.pdf?hash=172cee93c17c8609f4e004f799a46c26 11 plazatan ez da nahitaezkoa euskararen ezagutza izatea. Horrek eskaintzen den zerbitzuaren kalitatea eta herritar eta langileen euskaraz aritzeko eskubidea eta segurtasuna baldintzatu ditzake.

Erantzuna:

Araubide Juridikoaren eta Funtzio Publikoaren Zuzen. Nagusia: Lehenengoa: Jasotako idazkian aipatutako arauetan jasotako hizkuntza-eskubideei buruzko indarreko legeria betetzen du, are gehiago kontuan hartuta 63/2019 Foru Dekretua berezko araudia dela, Foru Aldundi honek emana. Euskal hiztunen eskubideak bermatzen ditu eta bermatuko ditu aurrerantzean ere. Bigarrena: Suhiltzaile eta suhiltzaile gidariaren eta Su Itzaltze Zerbitzuko kaboaren deialdietan deitutako plazen kopuruari dagokionez, adierazi behar da kexan adierazten bada ere 50 plaza deitu direla eta horietatik 11k ez dutela hizkuntza-eskakizunik, baieztapen hori ez dela egia. Adierazitako deialdietan honako plaza hauek daude: .- Suhiltzaile Gidaria hogeita hemeretzi (39) plaza betetzeko (C taldea, C-1 azpitaldea), hemeretzi (19) plaza, derrigorrezko B2B2 hizkuntza-eskakizuna dutenak, eta hogeita plaza (20), derrigorrezkoa ez den B2B2 hizkuntza-eskakizuna dutenak. .- Kabo (C-1 taldekoak) hogeita zortzi (28) plaza, hamahiru (13) plaza, derrigorrezko B2B2 hizkuntza-eskakizuna dutenak, eta hamabost plaza (15) derrigorrezkoa ez den B2B2 hizkuntza-eskakizuna duena Hirugarrena: Indarrean dagoan VII. Plangintzaldirako Bizkaiko Foru Aldundiaren planifikazioa betetzen ari da. Esan beharra dago, Bizkaiko Foru Aldundian, une honetan, derrigortasun data duten lanpostuen kopurua %80koa dala, hau da, plangintzaldirako ezarrita dagoana baino handiagoa (%47'78). Bizkaiko Foru Aldundiak, euskaldunen hizkuntza eskubideak bermatzeaz gain, bere eskumenpean eman behar dituen zerbitzu guztien kalitatea mantentzea eta hobetzea du helburu. Egindako deialdi hori eta beste guztiak, arlo bi horiek dute kontuan eta indarrean dagoan araudia, jurisprudentzia eta aipatu dan planifikazioa dute oinarri. Horregatik guztiagatik, Foru Aldundiak hizkuntz eskubideak eta bere zerbitzu guztien kalitatea bermatzen ditu indarrean dagoan legedia, planifikazioa eta jurisprudentzia betez.

Dosierra: 955-2025

Nori: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA - BILBOKO ARTE EDERREN MUSEOA

Arrazoa: Bilboko Arte Ederren Museoak Gabonetan haurrentzako jarduerak eskeintzen ditu. Xehetasunak begiratu ditut eta jarduera batzuetan saio guztiak gaztelaniaz dira. Nola da posible? Haur euskaldunek ez daukate museoko ekitaldietan parte hartzeko eskubiderik? Garaiz gabiltza zuzentzeko. Ondorengoak eskaintzen dira gaztelania hutsean: -Nire espazioa museoan: 3 saio, denak gaztelaniaz. <https://bilbaomuseoa.eus/eu/bisita/zer-ikusi/jarduera/nire-espazioa-museoan/f3a33b0b-3399-dc2e-f0a3-6387f9865d1d> -Esploratu, sentitu eta sortu (urtarrilean): 8 saio, denak gaztelaniaz. <https://bilbaomuseoa.eus/eu/bisita/zer-ikusi/jarduera/esploratu-sentitu-eta-sortu/f9656143-27fc-802d-1f2a-aad3d556dbe2> Gainerako jardueretan euskaraz eta gaztelaniaz saio kopuru berbera eskaintzen da, gaztetxoek artean euskara sustatzeari begira euskarazko saio gehiago eskaintzea eskatzen diot museoko arduradunei.

Dosierra: 973-2025

Nori: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA - BILBOKO ITSASADARRA ITSAS MUSEOA FUNDAZIOA -ITSASMUSEUM -

Arrazoa: Bilboko Itsas museoan ilaran itxaron beharreko kartel bat ipini dute erdara hutsean.

Erantzuna:

Itsasmuseuma: Lehengo eta behin adierazi nahi dugu herritarrak egindako kexa arrazoi guztiarekin dagoela eginda. Museoko auditorioan kanpo enpresa batek egindako ekitaldi bati dagokion kartela da. Izatez, egun horretan Museoa itxita zegoen. Halan eta guztiz ere, publiko orokorrari zabalik dagoen ekitaldi bat izateagatik, museotik arduradunei eskatu genien informazioa bi hizkuntzatan izatea. Benetan asko sentitzen dogu, baina kontuan eukiko dogu hurrengo batean gertatu ez daiten. Herritarrari parkamenak gure partetik eta hurrengo batean adiago egongo garela esan. Eskerrik asko mezua helarazi izanagaitik,

Dosierra: 977-2025

Nori: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA - HERRI ADMINISTRAZIOAKO ETA ERAKUNDE HARREMANETARAKO SAILA

Arrazoa: Abenduaren 22ko BAOen Bizkaiko Foru Aldundiaren 3. lan eskaintza argitaratu zen: bertan, goi mailako zaharberritze teknikarien bi plazak argitaratu zituzten, biak hizkuntz eskakizunaren derrigortasun datarik gabe..

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Guztiak (6)

Dosierra: 199-2025

Nori: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA - KULTURAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA

Arrazoa: Gaur aurkeztu dute 'Crossover Series' telesailei buruzko jaialdia Donostian. Beste urte batez, proiektio bakar bat ere ez da euskaraz izango. Guztiak gaztelaraz. Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Sailak antolatzen du jaialdia, diru publikoz.

Dosierra: 243-2025

Nori: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA - GAZTERIA ZUZENDARITZA -

Arrazoa: Gipuzkoako Foru Aldunduan aurkeztutako kexa Atzo alabarekin udalekuak begiratzan ari nintzela, non nire amorrua eta ezina: 5 udalekuren eskeintza gaztelara hutsean. Nola da posible erakunde publiko batek, gazteei zuzendutako ekintza batean, hizkuntza hau eskeintzea? Bestalde, orain arteko esperientziak ere ez dira batere onak izan hizkuntza aldetik. Gure seme-alabak euskara hutsezko udalekuak hautatu izan dituzte eta gero, zein izan da beraien sorpresa, txarrerako, taldearen barruan gure hizkuntza ez dakiten edo menperatzen ez duten kideak egotea. Nik uste dut gure eskubideak urratzen direla zuen jarrera honekin eta berriro ez gertatzeko neurriak hartzeko eskatuko nizuke.

Erantzuna:

Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapeneko zerbitziburua: Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Lankidetzeta, Gazteria eta Kirol Departamentuko Haur eta Gazteen Zuzendaritza Nagusiak bi udako programa garatzen ditu: • Udalekuak, 7-13 urteko haurrentzat; eta • Gazte Oporraldiak, 14-17 urteko gazteentzat. Gipuzkoako Foru Aldundiak Bizkaiko eta Arabako Foru Aldundiekin batera antolatzen ditu Udalekuak (7-13 urte), eta, horretarako, adostuta dago Jarduketa Esparru Orokor bat. Jarduketa esparru horren baitan, bi eredutako plazak eskaintzen dira: euskaraz edo elebitan. 2025eko Udalekuak programan 7 eguneko 59 txanda eskaintzen dira, horietatik 54 txanda euskaraz eta 5 elebitan. Gazte Oporraldiak programa (14-17 urte), ordea, Gipuzkoako Foru Aldundiak gauzatzen du eta Estatu Espainoleko

beste lurralde eta erkidegoekin koordinatuz gauzatzen da. Gazte Oporraldietan, hizkuntza egonaldia kudeatzen duen lurraldera egokitzen da; beraz, txanda batzuk euskaraz dira eta beste batzuk gaztelaniaz. Aurten, Gaztela-Mantxarekin, Gaztela eta Leonekin, Madrilekin, Aragoirekin, Nafarroarekin eta Arabarekin adostu dira trukaketak, eta, egonaldietan, lurralde horietako gazteak elkar ezagutzeko aukera izaten dute. 2025eko Gazte Oporraldietan, 7 edo 10-12 eguneko 15 txanda eskaintzen dira: horietatik, 10 euskaraz eta 5 gaztelaraz. Udalekuak Programan (7-13 urte), Jarduketa Esparru Orokorren baitan, izena emateko orduan, euskara egiteko eta ulertzeko gai izatea eskatzen da, eta, horretaz gain, hobekien egokitzen zaien eredua (euskaraz edo elebitan) esleitzen zaie hurrei. Horrela, izena ematean adierazten badute euskaraz dakitela, horretarako gaitasuna dutela ulertzen da. Horretaz gain, euskararen erabilera sustatu eta zaintzeko, Jarduketa Esparru Orokorren baitan, neurri hauek garatzen dira: • Udalekuan euskaraz hitz egiteko gaitasun mugatua duten haurrak identifikatu eta neurriak hartu. • Udalekuen hezitzaileentzako euskara-jarraibideak definituta daude, euskararekiko jarrera ezkorra edo axolagabea ekiditeko. • Giroa euskalduntzeko dinamikak eta estrategiak bideratu. Tamalez, onartu behar dugu udalekuetara doazen umeen arteko harreman-hizkuntza askotan gaztelania dela. Halere, udalekuak baliagarriak izan behar dira haur eta nerabe guztientzat, baita euskara ongi menperatzen ez dutenak ere giro euskaldun batean bizitzeko. Azkenik jakin helburu hauekin jarraituko dugula lanean, hartara bermatzeko euskara-eredua duten udalekuetan parte-hartzaileen harremanak euskaraz direla, eta, orokorrean, euskara komunikazio eta harremanetarako bidea izateko.

Dosierra: 804-2025

Nori: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA - GIPUZKOA KIROLAK -

Arrazoa: Gipuzkoako Foru Aldundiaren "Gipuzkoa Kirolak" webgunea euskaraz hautatu arren, sailkapen eta kategorien atalean gaztelarazko testuak azaltzen dira non nahi. Urteak daramatza horrela. Zuzentzeko garaia bada.

Erantzuna:

Zuzendari Orokorra: Oro har, webguneko lehiaketan eta emaitzen atalak bai euskaraz bai gaztelaniaz aurkitu ditzake herritarrak. Kontua da, saskibaloiko lehiaketa eta emaitzetan, zehazki Gipuzkoako Eskolartekoen atalean, izenburuak gaztelania hutsean zeudela, goiko zenbakiaren bitartez herritar batek jarritako

kexan adierazitakoa berretsiz. Ondorioz, Aldundia berehala jarri da harremanetan Gipuzkoako Saskibaloi Federazioarekin, arazoa adierazteko eta zuzenketa eskatzeko. Aldaketak eginak daude dagoeneko, honela, herritarrek informazioa euskaraz ere izateko eskubidea bermatze aldera.

Dosierra: 822-2025

Nori: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA - GOBERNANTZA DEPARTAMENTUA

Arrazoia: Gipuzkoako Foru Aldundiak bidaltzen dituen whatsapp bidezko komunikazioak euskaraz jasotzen dira. Baina, mapak txertatzen dituztenean, ohikoa izaten dena, mapetan euskal toponimia ofiziala ez dute errespetatzen: - Guetaria. - Zarauz. - Igueldo. - Rentería. ...

Erantzuna:

Gobernantzako diputatua: Whatsapp kudeatzen duen enpresarekin hitz egin genuen berehala, eta, enpresak esan zigunez, Google Maps-eko irudiak dira eta arazoak dituzte euskaraz jartzeko. Hala ere, arazoa konpontzen saiatu ziren eta irailaren 14an bidali zen toponimia erdaraz zegoen azken mezua. Ordutik, mapa guztietan euskarazko izen ofiziala agertzen da herri eta tokiak izendatzeko, betiere Google Maps-ek horrela jasoak badu. Gobernantzako Departamentutik eskerrak eman nahi dizkizuet, guztion ekarpenekin horrelako egoerak ekiditea lortuko baitugu.

Dosierra: 912-2025

Nori: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA - BIDEGI SA

Arrazoia: Oiartzungo sarrera-irteerako Bidegiko langileak gaztelaniaz hitz egin digu euskaraz egin arren. BIDEGIri, Bidelani eta Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen diegu euskaldunon hizkuntza eskubideak urratu ez ditzaten!

Erantzuna:

Bidegi: Honen bidez jakinarazten dizugu Bidelan enpresari (BIDEGI kudeatzen dituen AP-1/AP-8 autobideetako Gipuzkoako bide-sarietan kanona kobratzeko zerbitzuko langileen ardura duen enpresa) aipatutako gaiaren azterketa egiteko eskatu diogula, eta zuk helarazitako egoeraren antzekorik berriz ez gertatzea espero dugula. BIDEGI, gure ustez, bere jardunean eta bere izenean ematen diren zerbitzuetan — bereziki bide-sariak kudeatzeko zerbitzuetan eta arreta-kanaletan— euskararen erabilera bermatzeko neurriak txertatzen eta aplikatzen

ditu, dagokion araudia eta indarrean dauden hizkuntza-irizpideak betez. Era berean, neurri horiek hobetzeko eta egokitzeke lanean ari da, zerbitzuaren operadorearekin lankidetzan, herritarren hizkuntza-eskubideak behar bezala bermatzeko asmoz.

Dosierra: 947-2025

Nori: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA - BIDE AZPIEGITURETAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA

Arrazoia: Gipuzkoako Foru Aldundiak whatsapp bidez duen informazio zerbitzuan, euskaraz izen-emanda egon arren, badira gaztelera hutsez iristen diren mezuak oraindik ere. Beti euskaldunok jasaten ditugu horrelakoak...

Erantzuna:

Diputatu Nagusiaren Alorreko idazkaria: Kontsulta egin diogu whatsapp kontua kudeatzeko arduradunari, eta, gertatutakoa aztertu ondoren, jakinarazi digu akats puntual bat izan dela. Izan ere, dirudienez, langile batek, nahi gabe, gaztelaniazko testua bidali zuen euskarazko whatsapp bidalketan. Ildo horretan, kontuan hartu behar da onartu berri den «Gipuzkoako Foru Aldundiaren komunikazio digitalerako erabilera eta estilo gida - 2025» dokumentuan horri buruz adierazten dela, erabilera-arauetan, argitalpen guztiek elebidunak izan behar dutela, euskarari lehentasuna emanez gaztelaniaren gainetik. Azaldutako guztiagatik, jakinarazten dizuegu akats bat izan dela, berriz ere gerta ez dadin ahaleginduko garena, eta interesdunari barkamena eskatzen diogu.

ARABAKO UDALAK (3)

Dosierra: 629-2025

Nori: AGURAINGO UDALA

Arrazoa: Atzo, Agurainen "San Juan Degollau" izeneko jaia ospatu zen. Bada, Santa Maria plazan antzerkia zegoen hurrei zuzendua eta gaur beste antzerki bat hurrei zuzendua hau ere. Biak espainolez.

Erantzuna:

Alkatea: Esan beharra daukagu kexaren zioa erabat okerra izan zela, ze San Juan Degollaoko jaietan honakoak izan ziren programaturako antzerkiak: - Abuztuaren 29a, ostirala, 19:00etan: "La Ultima y nos vamos" antzerkia Helduentzat gazteleraz - Abuztuaren 29a, ostirala, 21:00etan: "Haurreskolari" ikuskizuna Familientzat euskaraz - Abuztuaren 30a, larunbata 13:30en: "Wooooow" antzerkia Helduontzat elebidunez - Abuztuaren 31a, igandea, 12:30ean: "Ipurbeltz" antzerkia Umeentzat euskaraz Programazio ofiziala aztertu eta teknikari arduradunarekin kontrastatu ondoren, ziurta dezakegu jai horietan lau antzerki programatu zirela, umeentzat eta familientzat euskaraz, eta helduontzat gazteleraz eta elebidunez.

Dosierra: 698-2025

Nori: KRIPANGO UDALA

Arrazoa: Hurrengo asteburuan Toloñotik eta Kripan herritik txangoa egiteko asmoa dugu, Kripango Udaleko webgunean sartu gara informazio bila eta asko harritu gaitu oraindik webgunea euskaraz ez izateak. www.kripan.org

Dosierra: 832-2025

Nori: LAGUARDIAKO UDALA

Arrazoa: Gaur Laguardiako Udalean administrari laguntzaile izateko lanpostu baten deialdia argitaratu da. Besteak beste ondorengoak dira lanpostu horren eginkizunak: -Jendearen harrera egitea. - Ziurtagiriak, helbideratzeak eta ondasunak ematea. - Tasak eta zergak: OHZ, zaborrak, TMIZ,JEZ, ibiak, lurperatzeak, hilerria, azoka, terrazak... -Altak, bajak, aldaketak, jakinarazpenak. – Tasen eta zergen espedienteen irteerak. – Bulegoan aurkeztutako eskaera orrien sarrerak. -Jendearen harrera egitea. - Salaketak izapidetzea. - ... E.A.E.-ko

administrazioetan euskara zerbitzu eta lan hizkuntza dela kontuan izanik, euskararen ezagutzak nahitaezkoa izan beharko luke (deialdi honetan 3 puntu soilik ematen zaizkio) lanpostu horretan zerbitzu guztiak behar bezala euskaraz eskaini ahal dituela bermatzeko. Laguardiako herritarrok ere euskaraz bizitzeko eskubide berbera dugu eta gero eta euskaldun gehiago garen arren, Udalak ez ditu behar diren neurriak hartzen egungo eta etorkizuneko zerbitzuak euskaraz bermatu ahal izateko.

GASTEIZKO UDALA (23)

Dosierra: 25-2025

Nori: GASTEIZKO UDALA - HIRI EREDUAREN, HIRIGINTZAREN, ETXEBIZITZAREN, GARBIKETAREN ETA INGURUMENAREN Saila

Arrazoa: Mapa interaktiboa aurkeztu du Gasteizko Udalak, Gasteizko teiltuen potentzial fotovoltaikoa erraz ikusteko. <https://vitoria-atlas.urbanimpacte.com/> Mapan sartuz gero lehen azalpena zuzenean Gaztelaraz da, ez dago aukerarik beste hizkuntzetan aukeratzeko. Behin azalpen guztiak gaztelaraz irakurri ondoren. Maparen hizkuntza aldatzeko aukerara joan eta hiru aukera ematen dizkizu: 1) ES 2) EN 3) VAL Onartezina da Gasteizko Udalak mapa plazaratu izana Euskararen aukera aurrez moldatu gabe. Bestalde, ez da onargarria linguistikoki VAL agertzea hizkuntza katalana denean. Kutsu "politikoa" ematen dio berez, irizpide teknikoa izan beharko lukeen tresna bati.

Dosierra: 28-2025

Nori: GASTEIZKO UDALA - HIRI EREDUAREN, HIRIGINTZAREN, ETXEBIZITZAREN, GARBIKETAREN ETA INGURUMENAREN Saila

Arrazoa: VITORIA-gasteizko udalak hiriko teiltuen eguzki mapa argitaratu du ele anitzetan: españolez, ingelesez eta katalanaren valentzierazko aldaeran hain zuzen. <https://vitoria-atlas.urbanimpacte.com/>

Dosierra: 104-2025

Nori: GASTEIZKO UDALA - KIROL ZERBITZUA

Arrazoa: Gasteizko Hegoalde gizarte etxeko igerilekuan haurrentzako 1. mailako igeriketa ikastaroa dauka martxan Udalak, asteazken eta astelehenetan 17:30etatik 18:10etara, deialdiak argi uzten zuelarik euskaraz izango zela. Igerilekuan ni neu izan naiz bitan dagoeneko eta ziurtatu dezaket, semeak berretsita ere noski, ikastaroa erabat gaztelaraz ematen duela monitoreak. Hiru monitore daude, bakoitzak talde banaz arduratzen delarik. Batek ederkidaki euskaraz, ez dakit gero bere taldetxoarekin nola egiten duen. Beste biei (ume gehien gehienak daramatzatenak) hitz erdirik ere ez zaie entzun euskaraz. Horra Gasteizko "Hiritarraren Postontzian" idatzi nuena, batere erantzunik jaso gabe oraindik: Haurrentzako I mailako igeriketa ikastaroa hasi berri da Hegoaldeko igerilekuan.

Ikastaroa euskaraz izango zela argi eta garbi azaltzen zen izena ematerakoan, eta beste behin ere ikusi dugu inondik inora ere ez dela horrela izaten ari. Monitoreak %100 gaztelaraz aritu zaizkie haurrei. Behin eta berriz errepikatzen den egoera da eta benetan etsigarria da. Gero udaletxeak harro esango du bere ekintzen ehuneko ez dakitzenbat euskaraz dela.

Erantzuna:

Kirolaren, Osasunaren eta Garapenerako Lankidetzaren Saila: Gasteizko Udalaren Kirol Zerbitzuak eskaintzen dituen igeriketa ikasteko kurtso guztiak euskaraz eskaintzen ditu. Begiraleak euskaraz emateko gaitasuna dute eta euskaraz ematen dira, euskara da erabiltzen den hizkuntza, eta soilik monitorearen azalpena euskaraz ulertezina egiten zaienean egiten zaie gaztelaniaz. Kurtsoak 6-13 urte bitarteko umeentzat eskaintzen dira, eta nahiz eta Gasteizko adin horietako biztanleriaren gehiengoak euskaraz badakien, badaude zenbait ume euskara ikasten hasi berriak direnak, eta zenbait momentutan ez dira gai igeritako kurtso guztiaren komunikazioa euskaraz egiteko. Kurtsoak euskaraz soilik eskaintzea euskararen aldeko apustuaren adierazgarria dela pentsatzen dugu, eta, honekin batera, euskara oraindik menperatzen ez dutenekin aurretik azaldutako salbuespen puntualak egitean euskararen aldeko apustua egiten ari garela ziur gaude. Pertsona hauek, nahiz eta gutxi izan, gure eskaintzan barneratu behar ditugu, eta euskaraz %100 zorrozki emango bagenu, pertsona hauentzat erdaraz edo ele bietan eskaini beharko genituzke kurtsoak. Pentsatzen dugu erdaraz edo ele bietan eskaintzea euskal giroa murrizten duen egoera dela, eta, honengatik guztiagatik, uste dugu euskararen alde egiteko aukera hoberena dela adin honetako umeentzat igeriketa kurtsoak euskaraz eskaini eta salbuespen txikiak egitea soilik beharrezko duten pertsonekin. Ildo honetan, ikastaroa ematen duen enpresarekin hitz egin dugu, eta adierazi digute aipatutako irizpideen arabera jokatzeko dutela. Espero dugu emandako azalpenak nahikoak izatea. Edonola ere, eskertu egiten dugu zure interesa.

Dosierra: 262-2025

Nori: GASTEIZKO UDALA - Komunikazio Zuzendaritza

Arrazoa: Gasteizko Udalak itzultzaile automatikoa erabiltzen du eta euskarazko testua trakeskeria hutsa bat da. Baina apaingarri hutsa denez, ba ez da ezer

gertatzen. Viva el euskera, ponte la chapa del euskaraldia, que viene la korrika y los hijos se quedan en el jantoki.

Dosierra: 281-2025

Nori: GASTEIZKO UDALA - GOBERNU IREKIAREN ETA GIZARTE ETXEEN SAILA

Arrazoia: Gasteizko Ramon Bajo Eskola Publikotik idazten dizuet, Gasteizko Aldabe Gizarte etxean, udalak eskaintzen duen igeriketa ikastaroan hasi dira LH2 mailakoak eta, ikasleek egin duten komentario batetik, jakin berri dugu begiraleek gaztelaniaz hitz egiten dietela. Badirudi 3 monitore daudela eta bik gazteleraz egiten dietela. Irakasleontzako ez da onargarria guk euskaraz egindako eskaera bat gazteleraz eskaintzea, eta gainera, gurasoen aldetik ere kexa jaso dugu. Oporrak datoz eta maiatzaren 6arte ez gara berriro igerilekura joango, baina ordurako arazoa konponduta egotea eskatu diegu, bai Aldabeko kirol arduradunari zein koordinatzaileari.

Erantzuna:

Gasteizko Udala: Aldabeko gizarte-etxeko kirol-teknikariak adierazi dit konponbidea eman zaiola arazoari: kirol-ikastaroak ematen dituen enpresarekin hitz egin du, eta hurrengo saiotik aurrera hiru monitoreak euskaldunak izango dira eta euskaraz bakarrik egingo dute. Enpresak kirol-teknikariari azaldutakoaren arabera, egun batean euskaraz ez zekien monitore bat aritu zen ikastaroa ematen, ordezkapena egiten ari zelako; beste bi monitoreak euskaldunak ziren. Enpresak dio egia dela gaztelaniaz egin zutela, monitoreen iritziz, ume batzuek azalpenak euskaraz ulertzen ez zituztelako. Dena dela, kirol-teknikariak argi utzi dio enpresari horrelakorik ezin dela berriro gertatu. Adierazi dit hemendik aurrera hiru monitoreak euskaldunak izango direla eta euskaraz bakarrik egingo dutela.

Dosierra: 296-2025

Nori: GASTEIZKO UDALA - SEGURTASUN SAILA -

Arrazoia: Kazetaria naiz, kexa eta haserrea adierazi nahiko nuke Gasteizko Udalaren webgunearen eguneroko jardunarekin. Zehazki atal baten inguruan, kazetariontzako ezinbesteko atala. Gasteizko Udaltzainen eta Suhiltzaileen eguneroko intzidentzien txostena gaztelaniaz bakarrik bidaltzen dute aspalditik, eta modu horretan igotzen dute egunero webgunera. Euskaraz, beraz, ez dago suhiltzaile eta udaltzainen parterik ([https://blogs.vitoria-](https://blogs.vitoria-gasteiz.org/medios/category/udaltzaingoaren-eta-suhiltzaileen-jakinarazpenak/?lang=eu)

[gasteiz.org/medios/category/udaltzaingoaren-eta-suhiltzaileen-jakinarazpenak/?lang=eu](https://blogs.vitoria-gasteiz.org/medios/category/udaltzaingoaren-eta-suhiltzaileen-jakinarazpenak/?lang=eu)), eta gaztelaniaz bai (<https://blogs.vitoria-gasteiz.org/medios/category/partes-de-policia-local-y-bomberos/>).

Erantzuna:

Zuzendari Nagusia: Behin zure erreklamazioa irakurrita, jakinarazten dizugu Segurtasun Sailak bermatu egingo duela komunikatuak elebidunak izango direla, eta, hemendik aurrera, dagozkion aginduak emango dituela hizkuntza-eskubideak bete daitezen eta berriro urratu ez daitezen.

Dosierra: 349-2025

Nori: GASTEIZKO UDALA - INGURUMENAREN ZERBITZUA

Arrazoia: Gasteizko Udalak Alde Zaharra naturalizatzeko kanpaina jarri du abian. Eskaera egiten duten bizilagunei lorontzi bat oparitzen diete. Bada, eskaera egin ostean email bidez komunikatzen dira herritarrekin, erdaraz soilik.

Erantzuna:

Azpiegitura Berdearen eta Lurraldearen Arloko burua: Gasteizko Udaleko Ingurumen Gaietarako Ikastegiarekin koordinatuta, “Erdi Aroko hirigunea naturalizatzeko etxebizitzetxe jardinerak emateko 2025. urteko deialdia” kudeatzeko azpikontratatuak enpresak komunikazio bat egin du herritarrekin, oro har, hizkuntza bakar batean, eta horrek urratu egiten du goian aipatutako araudia. Horregatik, 2025eko maiatzaren 15ean, urraketa horren berri eman zaio PAISAJE TRANSVERSAL S.L.L.ri, etorkizuneko komunikazioetan berriro gerta ez dadin. Deialdia amaitu denez, ezin da zuzendu herritarrek bidalitako kexan adierazitako komunikazioa.

Dosierra: 360-2025

Nori: GASTEIZKO UDALA - AMVISA GASTEIZKO UDAL URAK S.A. -

Arrazoia: Gasteizko Udaletik, AMVISAtik, jasotako jakinarazpenetan euskarari ematen zaion trataera ez da egokia. Behin eta berriro, euskarazko mezuak erdizka, osatu gabe edo akatsekin bidaltzen dituzte eta.

Dosierra: 379-2025

Nori: GASTEIZKO UDALA - UDAL ANTZOKI SAREA -

Arrazoa: Gasteizko Antzoki Sarearen webgunea, ezinezkoa da web bidez sarrera bat erostea euskara hutsez. Hasieran interfacea euskaraz dago, bai, baina ordaintzeko garaian gaztelaraz agertzen da. <https://principalantzokia.janto.es/>

Erantzuna:

Antzoki Sarearen Atala: Kaixo, esteka honetan ikus dezakezu jaso duzuen kexa hori ez dauka fundamenturik: <https://principalantzokia.janto.es/eu/espectaculo/arizona-euskaraz/25PRI010>

Dosierra: 421-2025

Nori: GASTEIZKO UDALA

Arrazoa: Maiatzaren 24tik ekainaren 20ra Gasteizko Udaleko hainbat lanpostu betetzeko deialdirako izen ematea irekita dago. 70 plazatik 33k derrigortasun data iraungi gabe dute eta beraz, euskararen ezagutza nahikorik ez duten pertsonak eman ditzakete zerbitzu horiek. Gasteizko Udalari plantillan beharrezko neurriak hartzeko eskatzen diot.

Erantzuna:

Euskara Zerbitzuko burua: Adierazi nahi dut 19/2024 Dekretuak 25. artikuluan xedatzen duela nola kalkulatu behar den plangintzaldi bakoitzean entitate bakoitzak bete beharreko derrigortasun-indizea. Plangintzaldi honetan, Gasteizen bete beharreko derrigortasun-indizea % 40,11 da. Enplegu publikoaren eskaintza honetan 77 dotazio eskaintzen dira, eta horietatik 33k dute derrigortasun data igaroa, hau da, % 47,14k. Ondorioz, ez dago inolako lege-urraketarik, Gasteizko Udalari dagokiona baino gehiago. Edonola ere, indizea kalkulatzeko, ez dira EPE honetan eskaintzen diren dotazioak bakarrik kontuan hartu behar, lanpostuen zerrenda osoa baizik. Eta zerrenda osoa kontuan hartzen badugu, hor ere indizea bete egiten da. Herritar bat ez badago ados derrigortasun-indizearekin, dekretuak onesteko eskumena duen erakundean aurkeztu beharko du kexa, udalek horretarako ez baitute eskumenik.

Dosierra: 447-2025

Nori: GASTEIZKO UDALA - KIROL ZERBITZUA

Arrazoa: Aldabeko igerileku publikoetan igeriketa estiloei buruzko 5-6 infografia daude jarriak eta gaztelara hutsean daude.

Erantzuna:

Zonen Ataleko burua: Behin kexaren berri jakinda, berrikuspen bat egiteko agindua eman da, eta zeinbait instalaziotan kartel zaharrak aurkitu dira. Horren ondorioz, infografia mota hori aurkitu den instalazio guztietatik kendu ditugula jakinarazten dizugu. Espero dugu hartutako neurriekin nahikoa izatea. Edonola ere, eskertu egiten dizugu zure interesa.

Dosierra: 513-2025

Nori: GASTEIZKO UDALA - TRAFIKO ZERBITZUA -

Arrazoa: Gasteizko TAO makinaren euskara erregistroa ez da batere egokia. Ahalik eta azkarren zuzentzea eskatzen dut, ez baita ulergarria hemengo jendearentzat

Dosierra: 566-2025

Nori: GASTEIZKO UDALA - KIROL ZERBITZUA

Arrazoa: Gasteizko udalaren Kirol Sailak buletin bat bidaltzen du hilero email bidez. Buletina erdara hutsez dago. Goiko aldean botoi bat dago "Acceso en euskera" dioena. Hor klikatzen baduzu bai, euskaraz ikusiko duzu. Baina beste pauso bat da, eta lehenetsita gaztelaraz dago emaillean.

Erantzuna:

Kirol Zerbitzuko burua: Buletin hori hilero argitaratzen du Kirol Zerbitzuak, eta posta elektronikoz bidaltzen zaie harpidetu diren pertsona guztiei. Lehenespenez, harpidetza egiteko unean nabigatzen ari den hizkuntzan bidaltzen da buletina. Hau da, harpidetza egiteko unean euskaraz nabigatzen ari diren herritarrek euskarazko buletina jasoko dute, eta gaztelaniaz ari direnek gaztelaniaz. Adierazi behar da, halaber, Kirol Buletin Digitala jasotzeko hizkuntza edozein unetan alda daitekeela. Horretarako jarraibideak Kirol Buletin Digitalaren webgunean daude. Hala ere, buletina zein hizkuntzatan jaso nahi den errazago hautatzeko, harpidetza-izapidean mezuak zein hizkuntzatan jaso nahi diren hautatzeko aukera gehitu dugu.

Dosierra: 620-2025

Nori: GASTEIZKO UDALA - GASTEIZKO UDALA -

Arrazoa: Iparralde Gizarte Etxeko eraikinetako baten sarreran birritan dute kartela erdara hutsean, eta behin ere ez euskaraz: "DURANTE EL MES DE AGOSTO, PARA ACCEDER A LOS SERVICIOS SOCIALES, ENTRE POR LA ÚLTIMA PUERTA DE LA C/ BEHE NAFARROA"

Erantzuna:

Iparalde gizarte-etxeko koordinatzailea: Kartela XXI Zabalguneari Zaramaga Planerako hurbiltasun-bulego gisa lagatako bulegoarena da. Gure aldetik, kartelak kenduta daudela ziurtatzeaz gain, honen berri eman diegu bulegoko arduradunei, eta eskatu diegu neurriak hartzeko berriro gerta ez dadin.

Dosierra: 634-2025

Nori: GASTEIZKO UDALA -

Arrazoia: Lanak egiten ari dira Dato kalean, zorua altxatzen eta abar. Alderik alde ari dira kalearen zabaleran osoan. Burdin hesiak jarri dituzte, eta 24 ohar, kartel, errotulu edo dena delakoak. Euskaraz 0, BAT ERE EZ. Hori jarri dituen enpresak kontratu bat sinatuko zuen Gasteizko udalarekin, diot nik. Eta klausula linguistikoak egongo ziren, egon behar zuten, lege. Zergatik ez dira betetzen? Zergatik ez dira betearazten?

Dosierra: 686-2025

Nori: GASTEIZKO UDALA - 21 ZABALGUNEA HIRIGINTZAKO UDAL SOZIETATEA

Arrazoia: 21 Zabalgunea Hirigintzako Udal Sozietateak bultzatutako Ensanche Eco-distrito Emprendedor proiektuaren barruan antolatuko Zinema aire zabalean ekitaldian, Gagarine filma eman zen Gasteizko Plaza Berrian. Emanaldiaren aurkezpen guztia gaztelera hutsean egin zen, euskaraz hitz bakar bat ere ez zen esan. Publikoaren gehiengoak umeak ziren. Aurkezpena aktore batek egin zuen, baina ez zuen filmari buruz ia hitz egin, emanaldi hau ze proiektuaren barruan kokatzen zen azaldu zuen gehienbat, hau da, ez zen bere aktore paperetik aritu, proiektuaren aurkezle modura baizik. Lotura: https://www.vitoria-gasteiz.org/wb021/was/contenidoAction.do?lang=eu&locale=eu&idioma=eu&uid=u51c2f927_19916bbe5a7__648

Dosierra: 746-2025

Nori: GASTEIZKO UDALA

Arrazoia: Urriaren 6an, Gobernu Irekiaren Aliantzaren Goi Bilera Globala hasi da Gasteizen, Estatuko Gobernuaren, @Gob_eus en, @Araba ko Aldundiaren eta @vitoriagasteiz ko Udalaren lankidetzaren emaitza. Bilera iragartzen duten kartelak espainolez eta ingelesez daude, hitz bakar bat ere ez euskaraz.

Dosierra: 780-2025

Nori: GASTEIZKO UDALA - KIROL ZERBITZUA

Arrazoia: Gasteizko Udalak antolatzen dituen aisialdiko jardueretan, yoga ikastaro bat aukeratu nahi nuen. Baina, gauza harrigarria, 51 talde zeuden gaztelaniaz, 0 euskaraz, eta 1 elebiduna. Besterik ezean, azken hori aukeratu nuen. Lehenengo egunean, zuzenean hasi zen irakaslea gaztelaniaz, ordu eta erdiz eten barik. Ez naiz itzuli. Oso larria da euskarazko eskaintzarik ez egotea. Eta, gainera, "elebiduna" baldin bada gaztelania mozorrotua, eskandalosoa.

Erantzuna:

Zonaldeetako Ataleko Burua: Lehenik eta behin adierazi behar dugu Gasteizko Udalaren kirol eskaintza globala, zabala eta askotarikoa dela, kirol modalitateari, ordutegiei, adinari, hiriko kokapenari eta hizkuntzari dagokionez, eta yoga Udalaren kirol eskaintza horren zati bat dela. Udalaren kirol ikastaroen eskaintza oreka batean oinarritzen da: dauden baliabideak (monitore gaituak), benetako eskaria, inguruko errealitate soziolinguistikoa, xede duen biztanleria, programaziorako irizpide teknikoak, etab. Hau da, ez dago araurik, dekreturik, lege edo irizpide teknikorik Udalaren ikastaroen %100 bi hizkuntzetan eskaini behar izateko. Hori dela eta, Udalaren kirol eskaintzan gaztelaraz, euskaraz, ele bitan, edo gaztelaniaz eta euskaraz eskaintzen diren ikastaroak aurki daitezke. Inskribatuta zegoen yoga ikastaro elebidunak herriarrari eragindako eragozpenak sentitzen ditugu. Ulertzen dugu ikastaro elebidunak modu egokian ematea garrantzitsua dela. Sentitzen dugu oraingo honetan horrela ez izatea. Hurrengo saioak behar bezala emango dituztela bermatzeko, eskola elebidunak emateko jarraibideen eskuliburua bidali diegu berriro enpresari, monitore guztiei bidal diezaieten.

Dosierra: 860-2025

Nori: GASTEIZKO UDALA - TUVISA

Arrazoia: Gasteizko Tuvisa autobusen 10. zenbakian, larunbatean 17:00ak aldera, autobusaren telebistan agertzen ziren geltokien izen guzti-guztiak erdera hutsean agertzen ziren. Adibidez Juzgados, Naciones Unidas, edota Paseo UNICEF. Bideoak baditut grabatutak beharrezkoak izatekotan.

Erantzuna:

Komunikazio arloa: TUVISA bere flotan pantailak jartzen hasi zenetik, hurrengo geltokien iragarkiak euskaraz eta gaztelaniaz eskaini izan dira. Softwarearen eguneratzea dela eta, Euskarazko emisioa etenda egon da une jakin batzuetan, baina flotaren barne sistema mantentzeaz arduratzen den enpresari eskatu diogu euskarazko bertsioa lehenbailehen berreskuratzeko, TUVISAren hizkuntza-irizpideak berriro betetzeko eta herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko

Dosierra: 923-2025

Nori: GASTEIZKO UDALA - EUROPA BILTZAR JAUREGIA -

Arrazoiak: Gasteizko Europa biltzar-jauregitik aurrekontu bat jaso dugu gaztelania hutsean. Posta elektroniko bidezko harreman guztia euskaraz egin dugu, baina aurrekontua gaztelaniaz bidali digute. Euskaraz ere jaso nahi genuela esan diegunean, honako hau erantzun digute: "Aurrekontuak erreserba programak sortzen ditu eta ez dago euskaraz egiteko aukerarik. Ez ditugu eskuz egiten ditugu." Euskaraz ere jasotzeko behar den aldaketa egitea nahiko genuke

Dosierra: 927-2025

Nori: GASTEIZKO UDALA

Arrazoiak: Gasteizko Udalaren kultura ikastaroen programa ikusi dut. Panorama honekin aurkitu naiz: 2025eko urritik abendura 5 ikastaro, bakarra euskaraz. 2026ko urtariletik aurrera 10 ikastaro eta 2 soilik euskaraz. Ze irizpide ditu Gasteizko udalak, 5ikastarotik bakarra jartzekoa euskaraz? Hori al da aisialdia euskaraz eskaintzea eta euskara sustatzea? <https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/es/48/76/104876.pdf>

Erantzuna:

Kultur Jardueren Ataleko arduraduna: Gasteizko Udalaren "Kultur ikastaroak" izeneko programa ikasturtean zehar luzatzen da eta 2025-2026 ikasturteari dagozkion datuei erreparatuta, 14 ikastaro gaztelaniaz eskaini dira eta 3 ikastaro, berriz, euskaraz. Hau da %17,6. Ikastaroen eskaintza egin ahal izateko, Gasteizko Udaleko Kultura Zerbitzuak proiektuak jasotzeko deialdi publikoa egiten du urtero. 2025 urtean, deialdi horretara 60 proiektu aurkeztu ziren eta, horien balorazioa egin ostean, hautaketa egin zen programazio zehatza osatzeko. 60 proiektu horietatik, 7 bakarrik aurkeztu ziren euskaraz emateko. Deialdira aurkeztu ziren proiektuek euskararen presentzia bermatzen ez zutela ikusirik, Kultura Zerbitzuko

lantalde teknikoak proiektuak bilatzeari ekin zion, hainbat eragileri kultur ikastaroen proposamenak lantzeko eskatuz. Bilaketa horren ondorioz 3 ikastaro programatu ahal izan dira. Kultura Zerbitzu honetako xedea da euskarari behar duen presentzia ematea kultur ikastaroen programazioan, eta horren alde lan egiten du.

Dosierra: 941-2025

Nori: GASTEIZKO UDALA

Arrazoiak: Gasteizko Alde Zaharretako arrapala elektrikoetako seinaleak gaztelera hutsez daude. Seinaleen irudia eranstean da.

Dosierra: 949-2025

Nori: GASTEIZKO UDALA - TURISMO SAILA

Arrazoiak: Gasteizko Udalak Gabon hauetako jardueren artean bisita gidatu bakarra eskaintzen du euskaraz eta bera familientzat da. Erdi Aroko hiriguneko bisita gidatu guztiak eta Estibalizko Santutegia bisitatzeko bisita guztiak ere gaztelaniaz eskaintzen dira. Guztira 20 bisita gidatu daude abendu-urtarrila hasierara gaztelaniaz, bakarra euskaraz (familientzat). Denak Gasteizko Udaleko Turismo Bulegoak antolatzen ditu. <https://www.vitoria-gasteiz.org/wb021/was/we001Action.do?idioma=eu&accionWe001=ficha&accion=calMunicipales&calendariosID=1097> Ez da suposatzen euskara sustatu beharko luketela eskaintza aktiboa eginez? Gabonetan horrelako jarduerak egitera Euskal Herriko txokotatik joaten gara.

BIZKAIKO UDALAK (59)

Dosierra: 48-2025

Nori: AMOREBIETA-ETXANOKO UDALA

Arrazoia: Amorebieta-Etxanoko Udalak orrialde biko publizitatea argitaratu du, erdara hutsean, gaurko Deian.

Erantzuna:

Alkatea: Udalaren informazio hori Deia egunkarian argitaratu zen. Egunkari horretan argitaratu ohi den informazioa nagusiki gaztelaniaz izaten da, eta horrexegatik argitaratu zen Udalaren informazioa ere hizkuntza horretan. Edonola ere, ez da izan informazio horren berri emateko erabili den bide bakarra; Amorebieta-Etxanoko herritarrentzat informazioa jasotzeko erreferentzialenak diren hiru informazio iturrietan (Udalaren webgunea, Hilero aldizkaria eta euskara hutsezko Anboto astekaria) informazio hori bera euskaraz ere zabaldu da: . Amorebieta-Etxanoko herritarrek oso ondo baloratzen dute udalerria eta haren bizi-kalitatea - Amorebieta-Etxanoko Udala . Aginte Planean jasotako jarduketaren %63 abian da - Amorebieta-Etxanoko Udala . Aldizkaria – www.hilerozornotzan.eus . 1006 - Prentsa - Anboto.org Halaber, herritarrei informazio horren berri emateko, Amorebieta-Etxanoko Udalak herriko etxe guztietara eskuorri bat bidali zuen, eta bertan informazio guztia bi hizkuntza ofizialetan eskaini zen. Horiek horrela, ez dugu ikusten herritarren hizkuntza eskubideak urratu direnik, herritarrei informazioa euskaraz ere eskaini baitzaie. Edonola ere, Udalak euskara sustatzeko asmo eta konpromiso sendoa dauka, eta etorkizunean ere prentsan argitaratzen duen informazio orotan hizkuntzen arteko oreka bilatzen saiatuko da.

Dosierra: 99-2025

Nori: DURANGOKO UDALA

Arrazoia: Nolatan debekatu daiteke aparkatzea erdara hutsean, 2025ean, oraindik ere? Franco bizirik dago oraindik ere? Edo alkatetzaren alderdi nazionalista euskarafoboren baten esku dago? Tira, alderdi bi daude gobernuan: bataren ezaugarri nagusia nazionalismo espainola da, eta besteak euskal nazionalistatzat du bere burua. Baina praktikan zer dira, biak, bata zein bestea, euskaldun herritarron eskubideei dagokienez? Herritar euskaldunok ez dugu merezi euskaraz

ganoraz bizi ahal izatea? Supremazismoa deritzo dena gaztelania hutsean egoteari eta euskaldunok atzeritartzat-edo edota eskubide gabekotzat tratatzeari.

Dosierra: 111-2025

Nori: DURANGOKO UDALA

Arrazoia: Tado deritzon aparkalekuko makinan euskara lehenetsita baldin badago ere, gaztelaniaz dagoela salatu dut hainbatetan. 2025eko otsailak 9 dituela, berdin-berdin segitzen du kontuak. Zabalduraren zenetik, gobernuak EH Bilduren eta Herriaren Eskubidea-Podemos-Independenteak taldeen eskuetan zegoenetik. Harrezkero, nahikotxo urte igaro dira. Ez aurreko gobernuak ez oraingoak (EAJ eta PSE-EE-PSOEn eskuetan, ilegalizaturik egon behar lukeen Vox alderdi ez demokratikoari esker besteak beste) ez dute inongo asmorik konpontzeko. Noiz arte segituko dute euskaldunok diskriminatzen? Noiz arte, ukatzen bazterkeria sistematikoa?

Dosierra: 121-2025

Nori: DURANGOKO UDALA

Arrazoia: Montorreta kalean (Durango) hilaren 12tik ezin dela aparkatu dioten kartelak, horizontalki zein bertikalki kokatuta, hainbat; den-denak erdara hutsean. Gero euskaldunok ei gara baztertzailak. Baina den-dena erdara hutsean nahinon. Higuinagarria. Udala zertarako dago? Erdaldun herritarrez baino ez arduratzeko.

Dosierra: 127-2025

Nori: AMOREBIETA-ETXANOKO UDALA

Arrazoia: Amorebieta-Etxanoko udal gobernuak hizkuntza eskubideak urratzen ari dela deritzogu. Egun, Amorebieta-Etxanoko udala 16 zinegotzi eta alkateak eratzen du. 17 partaide horietatik, partaide bakarra dago euskaraz ez dakiena. Eta beren beregi itzultzaile bat ezarria dauka. Hala ere, eta udalak onartutako euskara planari muzin eginez, oraindik ere udal gobernuak batzorde batzuk gaztelaraz soilik bideratzen ditu. Gutun irekiera prozesua ere gaztelara hutsean burutzen da. Bestalde, zinegotziok jaso beharreko dokumentazio asko eta asko, gaztelarazko bertsioan soilik helarazten zaizkigu, euskarazko bertsio gabe, alegia. Besteak beste, kale espazioaren ordenantza bai eta zarataren aurkako ekintza plana euskarazko bertsio gabe bozkatzera behartu gintuzten zegozkion osoko bilkuretan, Udalak berak onartu duen Euskararen Sustapenerako Ekintza Planean eta Erabilera

Planean jasotakoa urratuz. Era berean, Herritarren hizkuntza eskubideak bermatzearen harira ere, Euskararen sustapenerako ekintza plana ez dute betetzen, udalak herritarrei begira antolatzen dituen informazio saio guztietan euskara lehenestea alegia, edo ekitaldi bi deitzea, lehena euskaraz eta bigarrena gaztelaniaz. Hau ere ez da betetzen eta honen adibide dugu Hapoaren gaineko informazio saioa bai eta zarataren ekintza planaren gaineko saioa, gaztelera hutsean deitu ziren. Bestetik, udalak eskeintzen dituen ikastaroen portzentai haundi bat gazteleraz dira eta euskaraz aurreikusten dituenenetan ez da euskara bermatzen, irakasle asko eta asko gazteleraz mintzatzen dira irakasgaia euskarazkoa bada ere. Egoera hau hainbatetan helarazi diogu alkate bai eta euskara zinegotziari, ez dute inolako neurririk hartu, ordea, eta honek arrazoitzen du behatokia jo behar izana. Azaldutakoa aintzat hartu eta dagozkion neurriak har ditzala eskatzen diogu Amorebieta-Etxanoko Udalari.

Erantzuna:

Euskara zinegotzia: Jakitun gara Amorebieta-Etxanoko Udalak baduela zer hobetu euskara arloan, bai Udalaren barne funtzionamenduan, bai herritarrei eskaintzen zaien zerbitzuan. Aitzitik, dauden hutsuneak eta hobetu beharrekoak detektatuta ditugu eta horiek konpontzeko neurriak hartzen gabiltza. Batetik, Osoko Bilkuretarako doan dokumentazioa aurretiaz bi hizkuntzetan lantzearen eta egotearen beharraz jakinarazpen bat bidali die euskara arloko zinegotziak zerbitzuburu guztiei. Bertan gogorarazi zaie 2024an onartutako Hizkuntza Ofizialak erabiltzeko Irizpideetan jasotakoa betetzeko betebeharra dutela langile guztiek, eta azpimarratu egin zaie idatzizko ekoizpena areagotu egin behar dela, eta lanpostuari dagokion Hizkuntz Eskakizuna duenak euskaraz sortu behar dituela bere lanari dagozkion dokumentuak. Horrez gain, gogorarazi zaie Informazio Batzordeetarako eta Osoko Bilkuretarako helarazten den dokumentazio idatzi guztia euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz helarazi behar dela. Bestetik, herritarrei begira antolatzen diren informazio-saioetan, informazioa euskaraz (ere) eskaini behar dela gogorarazi zaie zinegotzi eta zerbitzuburu guztiei. Halaber, saioaren aurretik hizkuntzen kudeaketa nola egingo den zehaztu behar dela jakinarazi zaie, eta horretarako dauden baliabideak gogorarazi zaizkie; besteak beste, hizkuntza bakoitzerako saio bana deitzea edota interpretazio zerbitzua eskaintzea horretarako Udalak egokituta dituen instalazioetan. Udalak herritarrei begira antolatzen dituen ikastaroetan euskarazko eskaintza areagotzeari

dagokionez, Udalak lehenik eta behin egoeraren diagnosi bat egin nahi du jakiteko zein den ikastaro bakoitza eskaintzen duen profesionalaren eta parte-hartzaileen hizkuntza gaitasuna eta hizkuntzarekiko duten motibazioa. Horretarako inkesta bat pasatuko zaie, eta datuak eskutan, Udalak aztertu egingo du non eta nola areagotu daitekeen euskarazko ikastaroen eskaintza. Azkenik, egia da bozeramaileen batzordea eta gutunen irekiera prozesuak gaztelaniaz direla; edonola ere, momentu honetan horiek euskaraz izateko baldintzak ez dira ematen, zinegotzi batek bertan ematen den informazioa euskaraz ulertzeko gaitasunik ez daukalako. Ulertzen dugu momentu honetan oztopo bat dela, baina Legegintzaldia bukatu baino lehen egoera hori bideratuko dugu, zinegotzi hori euskara gaitasun egokia duen batek ordezkatzeko baitu. Edonola ere, kontratazio teknikariei gutunen irekieretan azalpenak lehenengo euskaraz eta gero gaztelaniaz emateko eskatu zaie, eta, horrela beraz, neurri batean hizkuntza eskubideak bermatzeko aurrerapausoak emango ditugu. Horiek horrela, Amorebieta-Etxanoko Udal egoerak eskatzen dituen neurriak hartzen ari dela jakinarazten dut, eta 2024an onartutako Euskara Plana betetzeko konpromisoari eusten diola.

Dosierra: 168-2025

Nori: DURANGOKO UDALA

Arrazoa: Otsailaren 5ean 99-2025 dossier zenbakia duen kexa berretsi nahi dut, gaur, hilak 26 dituela, denak bere horretan segitzen baitu: "Hiru biderrez gauza bera gaztelania hutsean adierazirik; eta behin ere ez euskaraz. Nolatan debekatu daiteke aparkatzea erdara hutsean, 2025ean, oraindik ere? Franco bizirik dago oraindik ere? Edo alkatetza alderdi nazionalista euskarafoboren baten esku dago? Tira, alderdi bi daude gobernuan: bataren ezaugarri nagusia nazionalismo espainola da, eta besteak euskal nazionalistatzat du bere burua. Baina praktikan zer dira, biak, bata zein bestea, euskaldun herritarron eskubideei dagokienez? Herritar euskaldunok ez dugu merezi euskaraz ganoraz bizi ahal izatea? Supremazismoa deritzo dena gaztelania hutsean egoteari eta euskaldunok atzeritartzat-edo edota eskubide gabekotzat tratatzeari".

Dosierra: 177-2025

Nori: DURANGOKO UDALA

Arrazoa: Trakzio mekanikodun ibilgailuen zerga Durangoko Udalari ordaintzen diogunok "ordainketa abisu" delakoa jasotzen dugu Kutxabank banketxearen aldetik, posta arrunt bidez, nahiz banketxe horretako bezero ez izan. Zergatik lagatzen dizkio herritarron datuak Durangoko Udalak banketxe jakin honi propaganda eta publizitatea egin dezan? Zergatik ageri dira datuak daude erdara hutsean? "DEL 02-03-25 AL 04-05-25" "EUROS" "AYUNTAMIENTO DE DURANGO" "IVTM 2025" "IMPUESTO VEHÍCULOS TRACCIÓN MECÁNICA EJERCICIO: 2025" "N RECIBO" "MATRÍCULA" "CLASE:TURISMO" "MARCA/MODELO" "UNIDADES: CABALLOS FISCALES" Kutxabanken egoitza nagusiaren helbidea ere erdara batu hutsean ageri da: "Gran Vía de Don Diego López de Haro, 30-32, Bilbao".

Dosierra: 189-2025

Nori: ERMUKO UDALA

Arrazoa: Ermuko Udalari eskatzen diot herriaren izena errespetatu eta zaintzeko. Erantsita duzue prentsan azaldu den "Ermua [sic] lagunkoia" ekinbidearen berri. <https://www.deia.eus/bizkaia/2025/03/02/ermua-villa-amigable-personas-mayores-9341482.html>

Dosierra: 203-2025

Nori: LEIOAKO UDALA

Arrazoa: Leioako Udalaren autobusetan zergatik daude erdara hutsean "SALIDA DE EMERGENCIA" errotuluak?

Erantzuna:

Leioako Udala: Euskara Zerbitzutik Hirigintza Arloarekin jarri ginen kontaktuan, eta bertako arkitektoa zerbitzua ematen digun enpresarekin. Enpresak bus guztien argazkiak bidali zizkigun, alde guztietako errotuluak erakusten zituzten, eta "Salida de Emergencia" errotuluaren ondoan "Larrialdietako irteera" dugu. Argazkiak ikustean errotuluren baten letraren bat erdi ezabatuta dagoela konturatu gara. Enpresarekin konaktatuko dugu akats hori zuzen dezaten.

Dosierra: 209-2025

Nori: ABADIÑOKO UDALA

Arrazoa: Matienean, edo Muruetan, zehatzago eta zuzenago izatearren, Eroski hipermerkatu aldetik Lantegi Batuak aldera igarotzeko zebrabideko semaforoek

zergatik dituzte testuak erdara hutsean? "PULSE EL BOTÓN" eta "ESPERE VERDE". 'Argudiatu' liteke semaforok zaharrak direla. Bai, baina noizkoak? Franco bizirik zela ezarri ote ziren? Zertan ibili gara eta zertan gabiltza? Euskaldun herritarrok duintasunik ez, martxa honetan sekulan.

Dosierra: 213-2025

Nori: BASAURIKO UDALA

Arrazoa: Soloarte parkean egiten ari diren lanengatik jarritako lau kartelak (guztiak) gaztelania hutsean daude.

Erantzuna:

Basauriko Udala: Basauriko Udalako obrak egiten ditugunean, enpresa kontratistari beti adierazten zaio kartel eta informazio guztiak euskaraz eta gaztelaniaz jarri behar dituela. Kasu honetan ere horrela izan da. Hasieran ez dute egin, baina atentzioa eman zaienean berehala aldatu dute. Gaur egun kartelak euskaraz eta gaztelaniaz daude. Eskerrik asko zure ekarpenengatik.

Dosierra: 215-2025

Nori: LEKEITIOKO UDALA

Arrazoa: Gutxienez egun horretatik dagoz espaloiaaren alde banatan, jendea desbideratzeko beste espaloira. Lekitton eta inork ez dau ezer egiten.

Erantzuna:

Alkatea: Egoera ikusita, udala obra burutzen ari den enpresarekin jarri da harremanetan kexa honen inguruan hitz egiteko eta udal ordenantzan jasotakoa gogorarazteko. Bide horretatik, udalak ordenantzan jasotakoa bete dadin baliabideak bideratzea eskatu dio enpresari egoera ahalik eta azkarren zuzentzeko.

Dosierra: 271-2025

Nori: DURANGOKO UDALA

Arrazoa: Durangoko Olleria kalean O Camiño ostatuaren parean hesi piloa ipini dituzte, ez aparkatzeko. Kartel guztiak erdara hutsean daude.

Dosierra: 332-2025

Nori: GETXOKO UDALA - KULTURA -

Arrazoa: 6 urteko alabarekin joan nintzen Getxoko Muxikebarri Kultur Etxera umeentzako "Moko" euskarazko ikuskizuna ikustera. Sarrerak saltzen neska gazte bat egon zen, eta berba bakar bat ere ez zigun euskaraz egin: "¿Queréis elegir el sitio?, son 12 euros, no tengo cambio, ¿Tienes tarjeta?..." Harrituta geratu nintzen: Getxon, 2025ean, gazte bat, kultur etxean, umeentzako euskarazko antzezlan bat... Kultur Etxeak neurriak hartu beharko ditu hizkuntza-irizpideak betearazteko.

Dosierra: 341-2025

Nori: DURANGOKO UDALA

Arrazoa: Euskaldun herritarrok baztertzen gaituen udalak Euskaraldian parte hartzeari iraingarria dela deritzot. Hasi dira udal eraikinetan-eta Euskaraldian kartelak eta abarrak ipintzen. Bitartean, esate baterako, Tado aparkalekuan ezin da euskaraz ordaindu udalak ez duelako gura ordaintzeko makinaren euskarazko bertsioa euskaraz egon dadin.

Dosierra: 343-2025

Nori: BARAKALDOKO UDALA

Arrazoa: Barakaldoko Udaletxera joan naiz eta sarrera baimentzen egon diren segurtasuneko langileekin gaztelaniaz egin behar izan dut euskaraz ez zekitelako. Ez da lehenengo aldia. Herritar guztion etxean ez badira gure eskubideak bermatzen, non? Leku publiko batean arrotz. Aski da!

Dosierra: 345-2025

Nori: DERIOKO UDALA

Arrazoa: Idorsolo kalean dagoen poligono industrialean auto elektrikoak kargatzeko gune bat jarri berri dute. Gune horretan, beraz, ezin da aparkatu, autoa kargatu ezean. Ba, kartel bi jarri dituzte, biak gaztelania batuan, jakina.

Dosierra: 353-2025

Nori: ERANDIOKO UDALA

Arrazoa: "Ambulancia" bide-seinalea, Astrabuduko kiroldegiko aparkalekuan. Euskaraldia?

Dosierra: 357-2025

Nori: DURANGOKO UDALA

Arrazoa: Montevideo kalean (Durango), estankoaren eta Ertzaintzaren artean, espaloi-alde bietan aldamiok kenduko dituztela-eta, aparkaleku hainbat kendurik daude, honela: "Reservado desmontaje de andamios". Udalak ez luke onartu behar erdara hutsean seinalizatzerik. Iraingarria da euskaldunok diskriminatzea, berez. Sistematikoa izatea areago. Eta are iraingarriagoa da, gainera, euskararen eta euskaldunon aurka dihardutenek Euskaraldiaren iruditeria eta abarrak erabiltzea.

Dosierra: 359-2025

Nori: ERANDIOKO UDALA

Arrazoa: Astrabuduko kiroldegiko aparkalekuan gaztelania hutsean jarri duten "Ambulancia" bide-seinalearen moduko beste bat ipini dute Astrabuduko zahar-egoitzaren parean. Bestelako bide-seinale erdara hutsezkoak ere badaude. Zaharrak. Eta ez hain zaharrak. Eta tristeena dena: baita berriak ere. Bertikalak zein horizontalak. Noiz arte euskara eta euskaldunok geure herrian esistituko ez bagina bezala jokatu? Duintasunik merezi ez bagenu bezala. Bateragarria ote da udalak hala jokatzeko eta udal berak Euskaraldian parte hartu eta Euskaraldiaren iruditeria erabiltzea? Zilegi da? Ala ez ote da iraingarria euskaldunok baztertzen gaituzten erakundeek Euskaraldian parte hartzea? Zuriketa ariketa ederra.

Erantzunak:

Obra, Zerbitzu eta Lurralde-Orekatu zinegotzi Delegatua: Jakinarazten dizugu 2025eko maiatzaren 29an zuzendu zirela.

Herritarraren erantzuna: 359-2025 kexan Astrabuduko egoitzaren (Atxutegi kalea 2-4) parean ipinitako bide-seinalea ("ambulancia") aipatzen zen. Segitzen du, 2025eko azaro amaieran, erdara hutsean. Beste hainbat seinalizazio ere erdara hutsean daude auzoan, kexan adierazten zen moduan, besteak beste, "motos".

Dosierra: 370-2025

Nori: BARAKALDOKO UDALA

Arrazoa: Barakaldoko Udal Foroan, Alkateak, bere hitzaldia gaztelaniaz egin zuen ikasle euskaldunen aurrean. Beraz, hau salatu nahi dugu eta hemendik aurrera Alkateak ikasleen aurrean emango dituen hitzaldiak euskaraz izatea (irakurtzeko berdin duelako hizkuntza bat edo bestea) eskatzen dugu.

dinamizatzaillearen hitz gehienak ere gaztelaniaz izan ziren. Ikasle euskaldunak errespetatu!

Dosierra: 455-2025

Nori: GORLIZKO UDALA

Arrazoa: Deian eta Corroen, argazkietako iragarkia argitaratu du Gueñesko Udalak. Akastuna da: "bizikletentzako"; "Kalea". "Bizikletentzako"?! "[...] Kalea"?!

Dosierra: 484-2025

Nori: DURANGOKO UDALA

Arrazoa: 2019an egin nuen kexa berretsi nahi dut: Durangoko kanposantuan kaleak erdara hutsean izendatuta daude. Galdetzen dut ea ez den sartu horra sekula euskaltzalerik, udal euskara-zerbitzuko beharginik, udal gobernuko edo oposizioko politikari abertzale edo euskaltzalerik? Badaezpada: euskaldun herritarrok begirunez tratatzeko ez dago zertan abertzale edo euskaltzale izan! Euskaldun herritarrok ez gara sartzen? Inor ez da jabetzen? Ala kontua da ez digula arduratzen euskaldun herritarrok bereizkeriaz tratatzeak? SAN NICOLAS / SAN MIGUEL / SAN LUCAS / LA CAPILLA / SAN IGNACIO eta abar Bada, gaur, 2025eko ekainak 27 dituela, denak segitzen du berdin. Francok-eta bizirik dira, antza denez. Baina berriro idazten dut, Behatokia, irakurri berri baitut, gaurko Deian: "se llevarán a cabo trabajos para mejorar la accesibilidad en el cementerio con una inversión de 15000 euros". Ea bide batez euskaldun herritarrok errespetatzeko ere zertxobait egiten duten denon (euskaldunona ere baden) udalean.

Erantzuna:

Idazkaritza orokorra: Kexa jaso bezain laster, eta hilerriko kaleen izenak jasoko zituen mapa berri bat jartzeko asmoarekin bat, udaleko Bulego Tekniko eta Euskara Sailaren arteko elkarlana jarri zen abian, hizkuntza-urraketa hori konpontze aldera. Horrez gain, azpimarratu nahi dugu Euskaltzaindia ere bidelagun izan dugula prozesu horretan, euskarazko ordain egokiak aukeratzeko orduan. Ondorioz, hilerriko kale-izendegia euskaratu da eta dagokion errotuluak jarri dira dagoeneko. Hortaz, esan genezake, egindakoaren bitartez, hizkuntza-urraketa hori konpondu dela.

Dosierra: 496-2025

Nori: LEKEITIOKO UDALA

Arrazoa: Lekeitioko Arropaingo udal-aparkalekuan makinak ez zигun ordaigiririk eman. Aparkalekua kudeatzen duen enpresarekin harremanetan jarri ginen eta gaztelaniaz egiteko esan zigun interfonoaren beste aldeko ahotsak. Turistekin ingelesez lasai asko aritzen den enpresak euskaldunak arrotz sentiarazten gaitu, non eta UEMAn dagoen udalerrri batean. Mingarria da Lekeitioko Udalak bere aparkalekuak kudeatzeko, euskaldunak baztertzen dituen enpresa bat aukeratu izana. Esan beharra daukat goian data zehatz bat jarri dudala orriak hala eskatzen duelako, baina hau egunero gertatzen den kontua da.

Erantzuna:

Euskara zinegotzia: Kexa aztertu ondoren, esan behar dizuegu izugarri sentitzen dugula. Udalak aparkaleku makinen instalazioa eta kudeaketa Dinycon Sistemas, S.L enpresari esleitu zion eta kontratua eta plegu administratiboan argi eta garbi zehazten zen, kanpo komunikazioan erabili beharreko hizkuntzei dagokionez, (seinaleak, oharak, komunikazioak etab.) gutxienez euskara erabiliko zela. Egoera ikusita, Udala Dinycon Sistemas S.L enpresarekin jarri da harremanetan kexa honen inguruan hitz egiteko eta esleitutako pleguetan eta udal ordenantzan jasotakoa gogorarazteko. Bide horretatik, Udalak ordenantzan eta pleguan jasotakoa bete dadin baliabideak bideratzea eskatu dio enpresari egoera ahalik eta azkarren zuzentzeko. Beraz, datozen egunetan neurri zuzentzaileak hartuta, herritarrekiko hizkuntza eskubideak erabat bermatuta egotea espero dugu. Gure azalpena ulertuko duzuelakoan,

Dosierra: 506-2025

Nori: BASAURIKO UDALA

Arrazoa: Soloarte parkean egiten ari diren lanengatik jarritako kartelak aldatu eta euskaraz ere jarri zituztela adierazi zuen Basauriko Udalak, baina, finkoak ez diren beste batzuk jartzen dituzte tarteka ("salida de camiones", adibidez) eta horiek erdara hutsean egoten dira.

Erantzuna:

Udal arkitektoa: Jakinarazten dizuegu Udaleko Zerbitzu Teknikoen Ataletik obrako testu guztiak elebidunean jartzeko irizpideak ematen direla eta batzuetan halakoak gertatu daitezkeen arren, horren gainean egoteko konpromezua dugu. Izatez, gure

pleguetan horrela daukagu baldintza moduan, obrako testu guztiak elebidun izan behar direla, alegia. Gerta liteke Kontrata nagusiak -lana egiteko esleipena irabazi duen enpresak- azpikontrataren bat erabiltzea obrako lanen bat egiteko-edo, eta Azpi-kontrata horrek hizkuntzari buruzko irizpideak behar bezela ez betetzea, ez jakintasunagatik ,akaso.

Dosierra: 547-2025

Nori: GETXOKO UDALA

Arrazoia: Erantsita doakizue Getxoko Zirkuituak gaurko -uztailak 25 dituela- Corroen argitaratu duen iragarkia, lasterketak zirkulazioan izango dituen eraginez ohartarazteko a; erdara huts-hutsean dago eta, besteak beste, hainbat administrazio publikoren* logoak dakartza. *"Bilbao[ko]" [sic] Udalarena; Getxoko Udalarena; Bizkaiko Foru Aldundiarena.

Dosierra: 584-2025

Nori: LEMOAKO UDALA

Arrazoia: Lemoan Agirre Lehendakariaren kalean iragartzen duten bide-seinaleraino hau ageri da: "LEHENDAKARI AGIRRE ETORBIDEA". Gaztelaniazko izenari "etorbidea" edo "kalea" euskarazko berbak gehitu, eta kito? Zenbat urtez horrela? Eta noiz arte?

Dosierra: 588-2025

Nori: DURANGOKO UDALA

Arrazoia: Durangon, Agirre Lehendakariaren kalean, kalearen izena agertzen duten xafletan izena erdaraz baino ez dago: "LEHENDAKARI AGIRRE KALEA". Gaztelaniazko izenari "KALEA" gehitu eta kito?

Dosierra: 603-2025

Nori: SANTURTZIKO UDALA

Arrazoia: Santurtziko Udalak herriko ostalariei bidalitako informazio-gutuna erderaz hutsez bidali zuen.

Erantzuna:

Obra eta zerbitzuetako zinegotzia: Egiatzatu ahal izan dugunez, kanpaina erakunde laguntzaile batek gauzatu zuen (Ecovidriok) eta, kudeaketan izandako akats baten

ondorioz, dokumentazioa ez zen bi hizkuntza ofizialetan eman. Udal honek ondo dakien bezala, horrek ez du bat egiten gure hizkuntza-konpromisoekin. Ez da kanpaina hau egiten den lehen aldia eta, aurrekoetan, gutuna bi hizkuntz ofizialetan banatu egin zen. Administrazio honek espresuki berretsi nahi du irmoki konprometituta dagoela euskararen erabilera sustatu eta sendotzearekin udal-arloko esparru guztietan, hizkuntza-normalizazio osoa lortzeko bidean eta herritarrei hizkuntza ofizialetako edozeinetan zuzentzeko eta erantzuna jasotzeko duten eskubidea bermatuz. Benetan deitoratzen dugu gertatutakoa, eta Ecovidrioko arduradunari jakinarazi diogu beharrezko neurriak har ditzala horrelakorik berriro gerta ez dadin. Eskertzen dizugu helarazi diguzun komunikazioa; guretzat lankidetzat aktiboa da, gure hizkuntza-politikak hobetzeko eta arlo honetan dugun konpromisoaren betearazpena indartzeko.

Dosierra: 643-2025

Nori: GETXOKO UDALA - KULTURA -

Arrazoia: Getxoko Kultur Etxeak ikastaroak antolatu ditu, 18 guztira: horietatik 15 gazteleraz eta 3 euskaraz. Horrek guztiz urratzen ditu euskaldunon hizkuntza-eskubideak.

Dosierra: 645-2025

Nori: GETXOKO UDALA - KULTURA -

Arrazoia: Getxoko Kultur Etxeak ikasturte berrian antolatu dituen 18 ikastaroetatik, 3 baino ez dira euskaraz.

Dosierra: 647-2025

Nori: GETXOKO UDALA - KULTURA -

Arrazoia: Getxoko kultur etxeak, 18 ikastaro berri antolatu dituzte ikasturte honetarako. Hauetako 15 gazteleraz eta 3 euskaraz.

Dosierra: 650-2025

Nori: GETXOKO UDALA - KULTURA -

Arrazoia: Getxoko Kultur Etxeko 2025-2026 ikasturteko tailerren eskaintza argitaratu du udalak, eta 18 ikastarotatik 3 baino ez dira euskaraz. 15 ikastaro gazteleraz dira. 16 urtetik gorako herritarrek eman dezakete izena ikastaroetan.

Dosierra: 695-2025

Nori: DURANGOKO UDALA

Arrazoia: 2025eko irailak 23 ditu eta Tadu aparkalekuan ezin da euskaraz ordaindu, hamaikatan salatu izan den moduan, eta berdin duela udal gobernuan zein talde politiko dagoen, EAJ-PSE-EE (PP eta Voxen laguntzarekin) edo EH Bildu-Herriaren Eskubidea. Argi dago ez dutena konponbiderik ipini gura, euskaldun herritarren eskubideak ez dituztela eskubidetzat. Behintzat jasota geratuko da hau gertatu dena eta gertatzen dena, Euskal Herriko Hizkuntz Eskubideen Behatokiaren txostenetan. Besterik ezin dugu egin, baina bada zerbait. Eta ez gutxi. Izan ere, historiarako geratuko da jasota 'abertzaleek' eta 'euskaltzaleek' zer-nolako hizkuntza-politika glotozidak darabiltzaten. Aparkaleku honetakoa adibidetxo bat da, ez besterik, baina denaren.

Erantzuna:

Euskara eta Hezkuntza sailak: Lehenengo eta behin, barkamena eskatu nahi dugu horren berandu erantzuteagatik. Bigarrenik, argitu nahi dugu egiaztatu dugula Durangoko TADU parkinean ordainketa bideratzeko dagoen makinak euskaraz erabilia izateko aukera ematen duen arren, ordainketa bideratzeko gailuak (makina handian integratuta dagoena, banketxeetako datafonoen modukoa) ez duela aukerarik ematen euskaraz erabilia izateko. Hortaz, aztertuko dugu ea zein aukera dagoen gailu hori ere euskaraz jartzeko. Lan hori egin ostean, zuekin jarriko gara harremanetan, erantzun bat emateko, ados? Berriro ere, barkatu horren berandu erantzuteagatik

Dosierra: 696-2025

Nori: GALDAKAOKO UDALA

Arrazoia: Galdakaoko jaiak irailaren 12tik 22ra ospatu dira, eta, tamalez, barraketan erabat baztertua izan da euskara. Barraketako mikrofonoetatik entzun den diskurtso eta iragarpen bakarra gaztelania hutsez izan da, eta musikaren eskaintza ere hizkuntza berean mugatu da, euskarari inolako aukerarik eman gabe. Ez da soilik kontu folklorikoa: honek agerian uzten du euskararen estatus ahula espazio publiko eta ludikoetan, eta horrek herritarren kontzientzia kolektiboan eragin kaltegarria du. Jaiak, berez, komunitatearen isla eta nortasunaren erakusleho izan beharko lirateke; baina gaztelara nagusitzen denean, bestelakoa

desagerraraziz, kultur aniztasuna pobretu egiten da. Euskarak ez du soilik errespetua merezi, baizik eta erabilera erreal eta integratua, batez ere belaunaldi berriei mezu argia helarazteko: gure hizkuntza ez da bigarren mailako apaingarri bat, baizik eta komunitatearen ardatz bizia. Horregatik, ezinbestekoa da udal-arduradunek eta jaietako antolatzaileek neurri irmoak hartzea, euskararen presentzia bermatuz. Bestela, jaiak elkartzeko eta ospatzeko aukera izan beharrean, hizkuntza-bazterketa normalizatzeko tresna bihurtzen dira, eta horrek Galdakaoko nortasunari kalte zuzena egiten dio. Euskararen aldeko konpromisoak, ekintzekin frogatuta, soilik ahalbidetuko du jaiak benetan guztionak izatea.

Erantzuna:

Ondarearen arduradun juridikoa: Asteotan lan-batzarrak egin dira, hizkuntza-eskubidearen zioan ardura duten arloetako teknikarien eta ordezkari politikoen artean, eta ondokoa adostu da: 1.- Euskadiko feria-saltzaile autonomoen elkarteari (AFADE) jakinarazi ofizioz eta ahoz: a) Behatokitik jasota hizkuntza-eskubideen urraketaren berri. b) AFADEk ez duela Udalarekin 2025ean hartu zuen konpromiso bete, musikaren erabilerari dagokionean, behinik behin. c) AFADEko bazkideek ez dituztela herritarren hizkuntza-eskubideei buruz hitzartutako baldintzak bete. d) Udalak AFADEri bidalitako ofizioa bazkideei helaraztea. e) Ohartaraztea jarduerak egiteko baimenak ematea Galdakaoko Udalaren aldeko eskubide diskrezionala dela, eta hortaz, hizkuntza-eskubideak betetzen ez diren heinean, Udalak, etorkizunean ukatu edo mugatu egin dezakeel barrakak instalatzea, baita horien jarduerak etetea ere. 2.- 2026 ekitaldirako playlista ontzea (euskara eta berdintasuna ardatz izango duena) eta barrakarien artean banatzea.

Dosierra: 702-2025

Nori: ABADIÑOKO UDALA

Arrazoia: Abadiñoko Udalak aurrerantzean, mesedez, Matiena auzoaren izena euskaraz ondo erabiltzea eskatzen dut. "Matiena, -a" izenaren -a artikulua da, eta horrenbestez, "Bizkaia" esan eta idatziko ez genukeen moduan, "Matienako", "Matienara", "Matienatik" eta halakoak okerrak dira. Milesker.

Dosierra: 712-2025

Nori: LEIOAKO UDALA

Arrazoia: Atzoko (2025-09-28) Corroe egunerokoan Leioako etxebizitza tasatu baten gaineko iragarkia argitaratu dute erdara batu hutsean.

Dosierra: 734-2025

Nori: GALDAKAKO UDALA

Arrazoia: Usansoloko ospitaleko taxi-geralekuan taxistek duten telefono-armairu Edo dena delako tramankuluaren argazkia. Ikusi dezakezuen ez informazioa birritan dute ipinia erdara batuan, eta behin ere ez euskaraz. Dirudienez, Osakidetza* ez ezik, Galdakao eta Usansoloko taxi-zerbitzua ere, erdaldun herritarrendako zerbitzu eskusiboa da. *Osakidetza, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako erdaldunendako osasun-zerbitzu publiko eskusiboa

Dosierra: 768-2025

Nori: BASAURIKO UDALA

Arrazoia: Gaur, urriaren 14an, arratsaldean, Soloarten umeentzat Herriko Taldeak elkarteak (herriko jaiak antolatzen ditu, Basauriko Udalak diruz lagunduta) antolatu duen "A su servicio" antzezlanaz gaztelaniaz izan da eta, guztiz zentzugabea eta lotsagarria izateaz gain, azken hamarkadatan egindako lanaren aurkakoa izan da. Basaurin ume guztiek dakite euskaraz eta funtsezkoa da gozatzeko eta ondo pasatzeko diren uneetan euskaraz egitea, euskara eskolarekin edo bestelako eremu ez hain atseginekin bakarrik lotu ez dezaten. Gainera, Udalak onartutako Euskararen Plan Estrategikoak jasotzen duenez, halakoak euskaraz egin behar dira eta, jaiak antolatzen dituen elkarteak egin arren, Udalaren dirulaguntza duenez, Plana aplikagarria da.

Erantzuna:

Kultura-politika eta Euskarako atalburua: Horren harira, zera jakinarazten dizuegu: Herriko Taldeak izeneko elkarteak arduratzen da Basauriko jaiak antolatzeaz eta egitaraua osatzeaz, baina egia da udal dirulaguntzak jasotzen dituztela horretarako, eta, beraz, haiekin harremanetan jartzea zegokigun guri. Gauzak horrela, Jaien Atalean kexa jaso genuenean, Herriko Taldeari helarazi genion, datorren urtean horrelakorik berriro gerta ez dadin. Horrez gain, Euskara Atalarekin hitz egin dugu, hizkuntzaren aldetik jarraitu beharreko irizpideak emateko elkarteari.

Dosierra: 774-2025

Nori: ERANDIOKO UDALA - Euskara Zerbitzua

Arrazoia: Erandioko Udalak erabiliko ahal ditu herriko auzoen izenak behingoan ganoraz!? "Erandiogoikoako"?! "Erandio Goikoako"?!

Dosierra: 777-2025

Nori: BASAURIKO UDALA - KULTUR BASAURI - IBAIGANE KULTUR ETXEA

Arrazoia: Urriaren 21ean Ibaigane Kultur Etxeak bere 50. urteurrenaren harira umeentzat programatu du Puk Magoaren "La biblioteca perdida" antzezlanaz, Haur Liburutegian, eta hori ere gaztelaniaz izango da. Halakoak gaztelaniaz egitea zentzugabea eta lotsagarria da, Basaurin zein Euskal Herriko hamaika herritan urteotan egindako lanaren aurkakoa izanik. Gainera, Haur Liburutegiko ekintzetan zaindu izan dute hizkuntzaren gaia eta liburutegietan euskara sustatzen dute ahal duten guztietan. Hori gutxi balitz, ezin dugu ahaztu Basaurin ume guztiek dakitela euskaraz, eta funtsezkoa dela gozatzeko ekintzak euskaraz izan daitezela, euskara eskolarekin edo bestelako eremu ez hain atseginekin bakarrik lotu ez dezaten. Gainera, Udalak onartutako Euskararen Plan Estrategikoak jasotzen duenez, halako jarduerak euskaraz egin behar dira, Udalaren erakunde autonomoek (Kultur Etxea erakunde autonomoa da) egindakoak barne.

Dosierra: 797-2025

Nori: USANSOLOKO UDALA

Arrazoia: Garaje baterako sarbidean bide-seinale berdin bi daude ibia iragartzeko, biak erdara hutsean: "Vado permanente / Ez dakit kasu bakana den, ala ohikoa. Zelan egon litezke erdara hutsean? Euskara noiztik da ofiziala...? Laminarrieta bidean da.

Dosierra: 799-2025

Nori: ERANDIOKO UDALA

Arrazoia: Urriaren 22an Erandioko Udaltzaingoko bulegoetan, garabiarekin izandako arazo baten ondorioz, hizkuntz eskubideen urraketa jaso nuen bai atean zegoen udaltzainaren partetik (denbora guztian erderaz egin baizidan, euskaraz berba egin nahi nuela adierazi nion eta) eta, bestetik, 104 agentearen partetik

(badirudi ez dela lehen aldian euskararekiko horrelako jarrera duela). Honek "te estoy hablando en el idioma oficial del País Vasco" adierazi zidan, esan nionean niri euskaraz berba egiteko bere betebeharra zela.

Dosierra: 807-2025

Nori: GETXOKO UDALA

Arrazoia: Getxoko Udalak erdara hutsean argitaratu du publizitatea, publierreportajea, Deian, 2025-10-26an (domeka)

Dosierra: 891-2025

Nori: GETXOKO UDALA

Arrazoia: Astelehenean Getxoko Udalak Lanpostu hauek betetzeko deialdia eta lehiaketa orokorraren oinarriak atera zituen: Eskolako Atezainak (3), Atezainak (7) Brigadako Ofizialak(15), Langile Espezialistak (23) eta Abisuen eta Biltegi Koordinatzaileak (2). Atezainen artean lanpostu batek ez du derrigortasun data ezarrita eta gainerako 40 lanpostutatik bakarrak du. Beraz, gainerako lanpostu guztiak euskararen ezagutzarik ez duten pertsonak bete ditzakete. Horrek ematen den zerbitzuan ez ezik, udalak euskaraz funtzionatzeko beharko lukeen gaitasunean ere eragiten du.

Dosierra: 903-2025

Nori: SESTAO KO UDALA - SESTAO BERRI SOZIETATE PUBLIKOA -

Arrazoia: Sestao Berri sozietate publikoak erdara hutsezko kartelak jarri ditu Sestaoko Txabarri Auzoko lokal huts guztietan, Eusko Jaurlaritzaren eta Sestaoko Udalaren zigiluarekin.

Erantzuna:

Sestao Berri: Sestao Berri barakamena eskatu nahi du kartelak euskeraz eta gaztelaniaz ez jartzeagatik. Egoera hori ahalik eta azkarren konpontzeko beharrezko neurriak hartzen ari gara. Gogorazi nahi dugu erakundearen politikak kartelak bi hizkuntzetan jartzeko betebeharra ezartzen duela, beraz, horrelakorik berriro ez gertatzea espero dugu.

Dosierra: 905-2025

Nori: ERANDIOKO UDALA

Arrazoia: Ez dakit udalak edo bizilagunen batek ipiniko ote zuen. Argi dago beharrezkoa dena ez aparkatzeko bide-seinalea. Baina zergatik da erdaldunendako baina ez?

Dosierra: 930-2025

Nori: BASAURIKO UDALA

Arrazoia: Basauriko Udala San Fausto plazan egiten ari den lanetako kartel ugari gaztelaniaz daude.

Dosierra: 931-2025

Nori: BARAKALDOKO UDALA

Arrazoia: Abenduaren 11n Barakaldoko liburutegi nagusira joan nintzen liburu baten bila eta arreta egin zidan pertsonak ez zekien euskara. Hasieran nik euskaraz egiten nion eta berak gaztelaniaz erantzuten zidan, baina berehala ikusi nuen ezinezkoa zela horrela jarraitzea berak ez zidalako ulertzen eta, beraz, gaztelaniaz eskatu behar izan nuen liburua.

Erantzuna:

Kultura, Hezkuntza, Euskara eta Gazteria Arloa: Jakinarazten dizut kontuan hartuko ditugula 2025eko abenduaren 15ean erregistratutako idazkian jasotako kexak, eta horiei irtenbidea ematen saiatuko garela. Eskerrik asko zure interesagatik

Dosierra: 934-2025

Nori: BARAKALDOKO UDALA

Arrazoia: Barakaldoko Udaltzaingoak Gabonak direla eta, segurtasunari buruz herriko kaleetan ipini dituen kartel guztiak erdera hutsean daude idatzita.

Dosierra: 943-2025

Nori: BARRIKAKO UDALA

Arrazoia: Barrikako Udalak orrialde beteko publizitatea, erreportajea, argitaratu du gaurko Deian. Zer-nolako kostea izan du? Parekorik sekulan ez dut ikusten euskal prentsan.

Dosierra: 950-2025

Nori: DURANGOKO UDALA

Arrazoia: Abenduaren 5ean, ostiralez, arratsaldeko 7ak aldera, bi lagun Durangoko udaletxeko Udaltzaingora joan ginen eskaera bat egitera eta ez ziguten eskaera euskaraz egiten utzi. Eskaera espainolez egitera behartu gintuzten. Euskaraz berbetan hasi eta "no, en español" esan zigun harrerako udaltzainak. Guk euskaraz segitu genuen, eta berak "no, en español"; guk harrituta orduan: "Zuk ez badakizu egongo da euskaraz dakien norbait, ezta?". Eta berak erantzun: "No, yo y en español". Euskaraz ekin genion berriro ere: "Baina egongo da nor edo nor euskaraz...". Eta udaltzainak berriro: "No, conmigo y en español". Hau horrela, eta eskaera egin behar larria genuenez, gure borondatearen kontra, espainolez egin behar izan genuen. Hizkuntza-eskubide urraketa larria jasan genuen.

Dosierra: 951-2025

Nori: ABADIÑOKO UDALA

Arrazoia: Abadiñoko Astola polikiroldegian, gure alaba igeriketa kurtso baten parte harten du eta euskara lehenetsia den arren, gazteleraz da. Azkenengo klasearen erdian atsekabetuta irten egin zen monitoreari ez ziolako ulertzen. Kurtsoa euskaraz izan beharko litzateke.

BILBOKO UDALA (20)

Dosierra: 9-2025

Nori: BILBOKO UDALA - BILBAO KIROLAK

Arrazoa: Bilbao Kirolak erakunde autonomoak zerbitzuari, ikastaroei, ekitaldiei eta abarri buruzko mezu elektroniko elebidunak bidaltzen dizkigu bazkideoi, eta, sarritan (gehien-gehienetan), euskarazko zatia akastuna izaten da. Azkena, hauxe, urtarilaren 3an jasotakoa: «FEBICI emakumeen batzordeak ikastaro bat antolatu du errepideko txirrindularitzan emakume kirolariei ekiteko. BILBOFEM (2025eko urriaren 12a) martxan parte hartzen amaitzeko helburuarekin, hilean bi ekintza egingo dira (tailerra eta bizikleta irteera) urtariletik irailera». Nahikoa da.

Erantzuna:

Bilbao Kirolak: BilbaoKirolaketik sentitzen ditugu abonatuiei bidalitako azken jakinarazpenaren euskarazko bertsioan argitaratu ahal izan diren akats gramatikalak, edo bestelako hizkuntza-akatsak. Horretaz ohartuko gara eta, eskura ditugun tresnak erabiliz, horrelako akatsik berriro ez sortzen saiatuko gara.

Dosierra: 219-2025

Nori: BILBOKO UDALA - SEGURTASUN SAILA

Arrazoa: Pasa den urteko urriaren 18an 14:35 aldera Bilboko Udaltzainekin izan nuen gorabehera bat kotxea kalean gaizki uzteagatik. Isuna onartu eta ordaindu nuen eta kitto. Horri lotuta, baina, kexa bat jarri nahi dut Bilboko Udalaren udaltzainak euskara dela eta eman zidaten tratua eta euskararekiko jasan behar izan nuen mespretxu eta jarrera onartezinengatik. Zehazki agenteetako batek ondorengoak erantzun zizkidan "caballero" baino XXXXX jauna nintzela esan nionean: "El idioma oficial de Bilbao es el español, aquí se habla español, porque yo soy español y Vd hablará español", "euskera no vale para nada ni para andar por España ni para ir por la Rioja" "Mira como serán que él escribe Ayerdi con Y y ella con | latina" (udaltzainen artean hizketan nire alaba eta nire dokumentazioa ikustean). Bilboko Udalarengandik jaso dudak erantzunean, ez dira inondik inora aipatzen nik salatutako egitate hauek, beraz Segurtasun Zuzendariari egitate hauekiko erantzun bat eskatu nahi diot. Bestalde, aipatu nahi dut, agenteei ez niela euskaraz artatzeko eskatu eta gaztelaniaz erantzun niela "erreplealien" beldur eta egoera jada nahikoa tentsoa zelako (are gehiago agenteak goian aipatzen

ditudanak adierazi ondoren). Bilboko Udaleko arduradunei euskal hiztunokiko horrelako jarrerak ez onartzeko neurriak hartu eta determinazioa izan dezaten eskatu nahi diet. Onartezinak dira jarrera horiek eta Bilboko Udala bera kaltetzen dute.

Dosierra: 342-2025

Nori: BILBOKO UDALA - ARRIAGA ANTZOKIA

Arrazoa: Herenegun, maiatzak 6, Arriaga Antzokiko Informazio Bulegora joan ginen sarrerak erostera, askotan bezala, bertan erosi behar izaten baititugu Arriaga-lagunok sarrerok. Jendeari harrera egiten, ezagutzen ez genuen neska gazte bat zegoen. Itxuraz beltzaran samarra zen, eta bazeuzkan hegoamerikar jatorrizkotzat jotzeko moduko beste hainbat ezaugarri ere. Halere, euskaraz zuzendu nintzaion berari. Lehenengo eta behin, azalaren koloreagatik edota aurpegieragatik erdaraz egitea diskriminatzailea izango zatekeelako, baina baita ere postu horretan beti euskaraz dakien norbait egon delako, behar bezala. Gure harridurarako, ordea, ez zekien euskararik. Ez zen ezta konturik sinpleena ulertzeko gauza ere. Neskak oso jatorra zirudien. Gurekin atsegina izan zen oso, eta gu ere bai berarekin, behin sorpresaren shocketik gure onera etorrira; baina horrek ez dio larritasunik kentzen gertatutakoari. Lan horretaz arduratzen diren pertsonak leihatiletan ere egoten dira, txandakatuz. Berrogeitaka urte dira Bilboko Udalak Arriaga Antzokia berreskuratu zuenetik. Handik hona, "taquillero/a" asko ezagutu ditut, oso maiz joaten bainaiz teatrora, eta den-denak izan dira beti euskaldunak hasiera-hasieratik, behar bezala. Izan ere, bidezkoena izatez gainera, lege ere derrigorrezkoa da jendeari arreta emateko dauden langile publikoek bi hizkuntza ofizialak menderatzea. Arriagan, hortaz, badirudi atzeraka goazela aurrera joan beharrean. Ez dakit azken boladan euskaldunok jasaten ari garen oldarraldi judizialaren ondori zuzena den, edota gure udalean agintean dagoen alderdi uste euskaltzalearen ohiko utzikeria linguistikoaren hainbatgarren erakusgarria, edo zer; baina argi daukat erabat onartezina dela. Espero dut zerbait zirkunstantziala izan izana eta berriro ez gertatzea.

Erantzuna:

Arriaga Antzokia: Euskarazko eta gaztelaniazko arreta bermatuta dago Arriaga antzokian. Egun horretan, ohiko langileen ustekabeko baja batzuen ondoren, arreta-postua lehenbailehen betetzeko beharra sortu zen. Bulegoa ixtea beste

aukera izango zatekeen. Hala ere, informazio-bulegoko langileak berehala jarri ziren harremanetan kexa aurkezten duen pertsonarekin, azalpenak emateko. Dena den, hori ez da berriro gertatuko, zerbitzua guztiz elebiduna delako.

Dosierra: 373-2025

Nori: BILBOKO UDALA - ARRIAGA ANTZOKIA

Arrazoa: Arriaga Antzokiko ekitaldi baterako sarrerak erostera nihoala (<https://www.teatroarriaga.eus/programacion/sobre-las-hojas-de-hierba/?lang=eu>), "Salduta" jarri beharrean "Nekatuta" idatzita dagoela ikusi dut. "Agotado"-ren itzulpen benetan traketsa!

Dosierra: 375-2025

Nori: BILBOKO UDALA - KIROLAK SAILA

Arrazoa: Europa Leaguen baitan Bilboko Arenalean diru publikoarekin eta espazio publikoan antolatutako ekimenean euskararen presentziarik ez da.

Dosierra: 424-2025

Nori: BILBOKO UDALA - AZKUNA ZENTROA -GIZARTEA ETA KULTURA GARAIDIDEA-
Arrazoa: Alhondiga kultura zentrorra joan nintzen erakusketa bat ikustera. Sekulako erakusketa, baina noski ezin perfektua izan. Bisitari guztiei azalpenak ematen zizkien langilea ez zen euskalduna eta ezin zuen azalpenik eman euskaraz, talde handian ginen eta besteak ez ziren euskaldunak. Halaxe izan zen ongietorria. Areto barruan erakusketarekin lotutako zalanza bat argitu nahian aretoa zaintzen ari zenari galdera bat egin nion, eta mesedez gaztelaniaz hitz egiteko eskatu zidan. Nik esan nion arraroa egiten zitzaidala lan horretan euskaradunik ez izatea, orduan esan zidan berak ez zituela azalpenik ematen sarrerakoek baizik, eta hangoak euskaldunak zirela, bertara joateko iradoki zidan. Bukatutakoan sarreran zegoen langileari galdetu nion, sarreran azalpenak eman zizkigunari, baina bera euskalduna ez zenez bere lankideari esan zion niri erantzuteko. Lankideak euskaraz erantzun zidan baina azkenean bestea ere saiatu zen zalanza argitzen baina noski gaztelania hutsean. Kultura zentro publikoetan ere horrelakoak gertatzen dira. Esango nuke, ingelesez eta frantsesez hitz batzuk esan zituela kanpotar batzuei, hala moduz bazen ere. Baina euskaraz tamalez ez. Ez dakit zergatik gertatzen diren horrelakoak 2025ean. Eta are ulergaitzagoa egiten zait Kongresuan eta Europako

Parlamentuan alderdi politiko batzuek euskaraz egiteko eskubidea aldarrikatzea, eurek eskumenak dituzten esparruetan eskubide berbera behin eta berriz aldeztu ez dutenean.

Erantzuna:

Azkuna Zentroko arreta zerbitzua: Ekainaren 7an, 600 pertsona baino gehiago hurbildu ziren Azkuna Zentroko erakusketa aretora (horien erdia baino gehiago ordutegiaren azken 2 ordutan). Honen moduko egoerak dakartzaten arazoetako bat, harreran arreta emotea indartu egin behar dela da, kasu batzuetan hizkuntz eskaerak ezin direlarik behar den moduan asetu (hizkuntz ezberdinak erabiltzen dituzten pertsonak batera heltzen direlako). Honetaz gain, egun horretan, erakusketaren arreta bete behar zuten bi pertsonak ez ziren lanera etorri eta bere ordeztatik etorritako batek ez zeukan behar zen gaitasuna euskeraz (bai ordeztatik beste hizkuntz batzuetan) eta besteak, nahiz eta euskera ezagutza nahikoa eduki, ez zuen menperatzen oraindik erakusketaren xehetasun guztiak (eta xehetasun horiek zekien beste pertsonaren laguntza behar izan zuen) Argi daukagu ekainak 7an suertatutako arazo hauek ezin izan genituela behar den moduan gaintitu, horrek ekarri zituen arazoekin eta ez genituela herritarren hizkuntz eskubideak bermatu. Gure asmoa betidanik izan da eta izaten jarraituko du, hizkuntz eskubideak errespetatzea eta euskeraz arreta jaso nahi duten herritarren eskaerak guztiz asetzeari, nahiz eta oraingo honetan kale egin. Etorkizunerako begira, gure esku dagoen guztia egingo dugu gertatutakoa errepikatu ez dadin eta hizkuntz eskubideak Azkuna Zentroan bermatuak egon daitezen.

Dosierra: 460-2025

Nori: BILBOKO UDALA - GIZA BALIABIDEAK SAILA

Arrazoa: Ekinbidea gaztelaniaz abiatu zutenaz, ekinbidearen erantzuna gaztelania hutsean bidali die interesatu eta hartzaile guztiei Bilboko Udalaren Giza Baliabideetako zuzendaritzak.

Dosierra: 477-2025

Nori: BILBOKO UDALA - MUGIKORTASUN ETA JASANGARRITASUN SAILA

Arrazoa: Bilboko Udalaren Bilbaobizi zerbitzuan aldaketaren bat egin dute eta txirrindulen alokairu puntuan, QR kodearen bidez hizkuntza hautatu eta gaztelania eta ingeleza baino ez du eskaintzen.

Erantzuna:

Mugikortasun eta Iraunkortasun Arloa: Jakinarazten dizugu Bilbaobizi aplikazioaren hizkuntzaren aukeraketa pertsona bakoitzak bere mugikorra konfiguratuta duen hizkuntzaren arabera dela. Beraz, aplikazioa euskeraz erabiltzeko, mugikorraren hizkuntza aldatu beharko du hiritarrak euskara ez badu hautatua.

Dosierra: 505-2025**Nori:** BILBOKO UDALA - GIZARTE EKINTZA SAILA

Arrazoia: Ekainaren 19an Bilboko Abando Barrutiaren udal eraikinean Gizarte Ekintza Sailak antolatutako bilera baten egon nintzen „Ciudades Amigables“ deritzana. Hiritarren artean bolondresak biltzen ari ziren ekimen horretan parte hartze zuzena izateko. Antza, Bilbori dagokionez, ekimen horrek izena eta posta elektronikoa ere gazteleraz darama –udaleko sailerako arloko posta elektronikoa gazteleraz daude denak-. Bilera horretan udaleko bi kargudun eta bi teknikari egon ziren. Lauretatik inork ez zuen esaldi bat bera ere euskaraz egin. Dena, gazteleraz. Udalak pantailan proiektatu zuen guztia ere: dena, gazteleraz. Eta jendartean izena emateko banatu zuten orria ere: gaztelera hutsez. Euskaldunentzat iraingarria, umiliagarria eta baztergarria izan zen. Horrela sentitu nintzen; oso txarto. Aurreko sasoi bateko udal baten itxura zuen. 2025. urtean. Bistan geratu zen, beraz, Bilboko Udal sail horrentzat euskara ez dela existitzen. Benetan penatua sentitu nintzen. Ezerezean baztertua. Bilboko Udalak ez gaitu nahi.

Erantzuna:

Adinekoen eta Elkarleen Negoziatua: Ekainaren 19an, Adinekoentzako Bilbao Hiri Lagunkoia IV. Planari buruzko informazio-saioak egin ziren, goizez eta arratsalde. Goizeko saioan, bertaratutakoei galdetu zitzaion zer hizkuntzatan nahi zuten aurkezpena egitea, eta gaztelaniaz nahiago zutela adierazi zuten. Baina, egia da, arratsaldeko saioan ez genuela kontsultatu zein hizkuntzatan egin, eta, nahiz eta hitz edo esaldi batzuk euskeraz egin arren, ehuneko 95a erderaz izan zen. Saio horren amaieran pertsona batek egindako oharrari esker, konturatu ginen gaztelaniazko orriak bakarrik eraman genituela, Bilboko Udaleko Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana bete gabe utziz. Hauxe guztiagatik, barkamena eskatu nahi dugu. Gizarte Ekintza Sailak bat dator euskararen erabilera sustatzearen garrantziarekin eta etorkizuneko ekintzetan berriro gerta ez dadin saiatuko gara.

Dosierra: 545-2025**Nori:** BILBOKO UDALA - KIROLAK SAILA

Arrazoia: Erantsita doakizue Getxoko Zirkuituak gaurko -uztailak 25 dituela- Corroen argitaratu duen iragarkia, lasterketak zirkulazioan izango dituen eraginez ohartarazteko a; erdara huts-hutsean dago eta, besteak beste, hainbat administrazio publikoren* logoak dakartza. *"Bilbao[ko]" [sic] Udalarena; Getxoko Udalarena; Bizkaiko Foru Aldundiarena.

Erantzuna:

Herritarrentzako Arreta Zerbitzua: Zure ekarpena '80. Getxoko Zirkuitua' ekitaldiaren erakunde antolatzaileari helaraziko diogu, aipatutako iragarkiaren arduraduna izanik, egindako aipamenak kontuan har ditzaten. Era berean, Bilboko Udalak kontutan izango ditu aurrerantzean gure babesa edo laguntza izango duten etorkizuneko jardura edota ekitaldietan, bizitza publikoko eremu guztietan euskararen erabilera normalizatzearen aldeko apustuan eta pertsona guztien hizkuntza-eskubideak bermatzeko konpromisoa berretsiz.

Dosierra: 560-2025**Nori:** BILBOKO UDALA - HIRIGINTZA SAILA

Arrazoia: Ametzolako parkeko lanetan informazioa eskaintzeko kartela gaztelaniaz baino ez dago. BilbaoBerrik (Bilboko Udalak) esleitutako obra da eta Fhimasa enpresa.

Dosierra: 571-2025**Nori:** BILBOKO UDALA - HEZKUNTZA SAILA

Arrazoia: Bilboko Atxuri Eskola Publikoan Bilboko Udala berritze lanak ari da egiten eta kartelak gaztelaniaz bakarrik ipini dituzte.

Erantzuna:

Lehenik eta behin, eskerrak eman nahi dizkizugu Bilboko Udaleko Hezkuntza Sailarekin harremanetan jarri eta akats honen berri emateagatik. Neurri zuzentzaile egokiak hartuko ditugu. Atxuriko ikastetxearen obren ardura duen enpresari jakinaraziko diogu, aipatutako kartelak ordezkari ditzan.

Dosierra: 586-2025

Nori: BILBOKO UDALA - GARAPEN EKONOMIKO, MERKATARITZA, TURISMO ETA ENPLEGUA

Arrazoa: 2025ean, abuztuak 10 dituela, zaharrak berri. Bilbao Centro delakoak orrialde beteko iragarkia argitaratu du koloreetan. Erantsita doakizue argazkia. Bilboko "Bilbao"-ko [sic] Udalaren logoa dakar.

Dosierra: 680-2025

Nori: BILBOKO UDALA - AZKUNA ZENTROA -GIZARTEA ETA KULTURA GARAIDEA-

Arrazoa: Atzo Azkuna zentroko taberna batera sartu nintzen (sartu eta berehala ezkerrean dagoena) eta kafesnea eskatu nuen. Zerbitzariak "Conmigo en euskera nada" erantzun zidan oso modu txarrez, eta behintzat modu atseginagoan esan zezakeela erantzun nion nik. Kaka usaintzen ari denaren aurpegia jarri zidan eta isilik geratu zen. Gaztelaniaz eskatzekotan egon nintzen, baina tabernatik alde egitea erabaki nuen.

Dosierra: 709-2025

Nori: BILBOKO UDALA

Arrazoa: Atzoko (2025-09-28) Corroen Bilboko Wap Estropatada delakoaren iragarkia azaldu da. "Urriak 5" da euskaraz ageri duen zer bakarra; bestela, erdara hutsean dago. Bilboko Udalaren (ofizialki Bilbaoko [erdal izena da ofizial bakarra] Udala) eta Bizkaiko Diputazioaren logoak ageri ditu. Baita BBK fundazioaren logoa ere.

Erantzuna:

Herritarrentzako Arreta Zerbitzua: Eskerrik asko zure mezua bidaltzeagatik eta Bilbon ospatutako Wap Estropatadaren iragarkian euskararen erabilerari buruzko kezka partekatzeagatik. Bilboko Udala eta erakunde laguntzaileak gure komunitatearen hizkuntza-aniztasuna sakonki baloratzen dugu, eta euskara gure nortasun kulturalaren funtsezko parte gisa aitortzen dugu. Tamalez, oraingoan euskararen erabilera mugatua izan da ekitaldiaren komunikazioan. Zure iruzkina kontuan hartuko dugu eta komunikazioaren arduradunei helaraziko diegu, etorkizuneko kanpainetan euskararen presentzia orekatuagoa eta ikusgarriagoa bermatzeko, hizkuntza-normalizazioarekiko eta bi hizkuntza ofizialekiko dugun konpromisoaren ildotik. Eskertzen dugu zure inplikazioa eta gure hiriko hizkuntza-

bizikidetzak hobetzeko erakutsitako interesa. Beste iradokizun edo komentario bat izanez gero, zure eskura gaude.

Dosierra: 754-2025

Nori: BILBOKO UDALA - KULTURA SAILA

Arrazoa: Ez da egun bakarra. Nire kexa Bilboko Udalaren ZIRKUITUA antzerki emanaldien inguruan da. Urritik abendura bitartean 12 antzezlan antolatu ditu hiriko zortzi Udaltegitan. Guzti-guztiak gazteleraz. Zirkuitua urtero edo urtean bitan ere antolatutzen da. Euskarari toki txikia eskaintzen badiote ere normalean emanaldi bat edo bi izaten dira euskaraz. Oraingoan ordea bat bera ere ez. Lotsagarria. Hemen uzten dizuet agenda <https://kulturabarrutik.eus/eu/programa/bilboko-zirkuitua-2025/>

Erantzuna:

Kultura eta Gobernantza saila: Bilboko Zirkuitua udalaren ekimena da, Bilboko eta inguruko antzerki-talde AMATEURREN jarduera bultzatzen duena, Bilboko jendeari bere proposamen eszenikoen doako emanaldiak eskainiz. Programa honen helburua da sortzaile eta antzerki-konpainia berriei aukera ematea beren lanak jendaurrean eszenaratzeko, 2023-2033 aldirako Bilboko Kultura Plan Estrategikoan ezarritakoarekin bat etorritz. Bilboko Zirkuituak, antzerki amateurreko udal-proposamena izanik, hainbat irizpide hartzen ditu kontuan programatzeko orduan: aldeztu aurretik parte hartu ez duten konpainiak lehenestea, proposamenen kalitatea eta berrikuntza baloratzea eta ekitaldi berean obrak ez errepikatzea. Euskarazko antzezpenei dagokienez, programazioaren aldi batzuetan, zoritxarrez, gerta daiteke, konpainia amateur ez profesionalak izatea eta emanaldirik ez edukitzea euskaraz. Hala ere, Udalak ahaleginak egiten ditu indarrean dagoen araudia, Euskararen Plan Estrategikoan ezarritako konpromisoak eta indarrean dauden hizkuntza-normalizazioko legeetan xedatutakoa betetzeko.

Dosierra: 764-2025

Nori: BILBOKO UDALA - SEGURTASUN SAILA

Arrazoa: Bilboko Aste Nagusian, abuztuaren 21ean, 13:00 inguruan, Alde Zaharreko Korreo kalean, kale-salmenta postu bat zeukanari materiala kendu zioten udaltzainek. Parean gertatu zen neska batek lurrean geratu zen kamiseta bat hartu zuen saltzaileari itzultzeko. Udaltzainek neska honi kontu hartu zioten oso

modu zakarrean. Orduan guk atentzioa deitu genion euskaraz udaltzainari eta honen erantzuna "estamos en España y tengo derecho a hablar en castellano" izan zen.

Dosierra: 766-2025

Nori: BILBOKO UDALA - SEGURTASUN SAILA

Arrazoa: Pasa den urriaren 7an, Bilboko Udaleko alderdi politiko baten bulegora joan behar nuen. Bulego horietarako sarrera Udaltzaingoak gestionatzen du. Agentearengana hurbildu nintzenean "ponga el carnet aquí" esan zidan. Nik zerbitzua euskaraz jaso nahi nuela adierazi nion eta berak beste hirutan errepikatu zuen "ponga el carnet aquí". Azkenean sartzen utzi zidan. Irteeran berarengana hurbildu eta esan nion ez nuela ezer bere kontra, baina bidegabekeria iruditzen zitzaidala arreta euskaraz ezin jaso izana eta horrekin bukatu beharra zegoela. Haserretu egin zitzaidan eta "para hablar en euskera tiene los bedeles" esan zidan.

Dosierra: 875-2025

Nori: BILBOKO UDALA

Arrazoa: Egunotan prentsan ikusten ari naiz Bilboko udalaren / Bilbaoko [sic] Udalaren iragarki bat "Bilbon euskaraz" dioena. Udalaren irudia baina erdara hutsean: "Bilbao". Leloak ez du ezertarako balio, praxiak kontrakoa badio. Are gehiago, kontrako eragina du.

Dosierra: 925-2025

Nori: BILBOKO UDALA - OBRAK, ZERBITZUAK, HIRI-ERABERRITZEA ETA ESPAZIO PUBLIKOKO SAILA

Arrazoa: Euskaraz bidalitako komunikazioari gaztelania hutsean erantzun dio Bilboko Udalaren Obra Publikoetako eta Zerbitzuetako Sailak.

GIPUZKOAKO UDALAK (18)

Dosierra: 7-2025

Nori: IRUNGO UDALA

Arrazoa: Argazkia ikusten bezalaxe, irungo Herriko etxeak ez ditu guztiz betetzen euskaldunon hizkuntz eskubideak. Aski da!! Irunen euskaraz!!

Erantzuna:

Segurtasun eta Bizikidetzako ordezkaria: Udaltzaingoak behin-behineko hainbat balizamendu egiten ditu hiri osoan, urte osoan. Abisu horiek oso azkar eta maiz egiten direnez, informazio hori herritarrari azkar helarazteko diseinatuta daude gure baliabideak. Batzuetan, oraingo honetan bezala, idatzi labur eta mugatuak dira. Erabiltzen ditugun seinale batzuetan, oso oinarritzko informazioa jasotzen da, baina beti betetzen dugu herritarrei zirkulazioan arautu beharreko eremuari buruzko informazioa emateko helburua. Hain zuzen ere, kartel horiek presaz egiten direnez, akatsak egin daitezke, baina zure idazkia kontuan hartu eta saihesten saiatuko gara.

Dosierra: 75-2025

Nori: ELGOIBARKO UDALA

Arrazoa: Elgoibarko Altzola auzoan, Debatik Elgoibarrerako norabidean autoen abiadura adierazten duten panelak edo gailuak jarri dituzte eta abiadura egokian joanez gero gaztelania hutsean "gracias" agertzen da. Ez dago euskarazko mezurik.

Erantzuna:

Alkatea: Jaso dugun kexaren inguruan ondorengoak adierazi nahi dizkiogu herritarrari: 1. Hitz egin dugu panel edo gailu horiek instalatzeko ardura duen teknikariarekin, eta hark aditzera eman digunez, arazo batzuk tarteko, panel horiek, berez zetozen hizkuntzan jarri ziren, hau da, gaztelaniaz. 2. Arazoari irtenbidea eman nahirik, gaia aztertu da, eta erabaki da panel horietan ageri den testua kentzea, eta abiadura (km/h) eta aurpegiaren ikurrak bakarrik uztea; izan ere, uste dugu horrela ondo ulertzen dela seinaleak adierazi nahi duena. 3. Eskerrak eman nahi dizkiogu kexa aurkeztu duen herritarrari arazoaren berri emateko izan duen arretagatik. Azkenik barkamena eskatu nahi diogu sortutako

eragozpenengatik, eta, bidenabar, adierazten dugu, aurrerantzean, arreta berezia jarriko dugula horrelakorik berriro ere gerta ez dadin.

Dosierra: 139-2025

Nori: IRUNGO UDALA

Arrazoa: Irungo Larreaundi-Olaberria auzoko Eguzkitza etorbidean, gaur, otsailaren 17a, goizeko 8:15ean hasi eta 8:30a bitarteko ordu tartean, 247 udal agenteak isuna jarri dit autoa une horretan aparkatu ezin zitekeen gune batean nuelako. Egia da araudiari erreparatuta arrazoa zuena, baina aski zorrotz jokatu du. Kargatzeko gunea zen eta goizeko 8:00ak arteko tartea nuen bertan egoteko. 8:15ean azaldu naiz. Isunak baino min handiagoa eragin dit, ordea, hizkuntzaren trataerak: euskaraz zuzendu natzaio eta hark gaztelerez ihardetsi dit. Isuna ere gaztelerez jarri dit. Ebidentzia bezala isuna aurkeztu dezaket, baina nire datuak ageri dira eta nahiago nuke niretzako gorde.

Dosierra: 249-2025

Nori: IRUNGO UDALA

Arrazoa: Irungo Udalak SMSa igorri dit. Gaztelera hutsean. Aspaldi kexa helarazi nien. Ez dut sekula eskatu Herriko Etxeak SMSa igortzerik, baina, behin eginda, euskara hutsean egin zezaten exijitu nien. Hala ere, gaztelera hutsean igorri didate.

Dosierra: 384-2025

Nori: ZARAUZKO UDALA

Arrazoa: Semaforo berria jarri dute Zarauzko Inurritza auzoan eta oinezkoek baimena eskatzeko testua gaztelerez soilik jarri dute

Dosierra: 386-2025

Nori: ERRENTERIAKO UDALA

Arrazoa: Larunbatean Oreretako Alaberga auzoko jaietan izan nintzen. DJ bat aritu zen arratsaldeko poteoa girotzen, gaztelania hutsean. Alabergako jai batzordeari eskatzen diot hurrengoan neurriak har ditzala horrelakorik berriz ez gertatzeko. Errenteriako Udalarik ere eskatu nahi diot bere euskara zerbitzuaren bitartez behar

diren baliabideak martxan jarri ditzala jai eremuetan euskararen erabilera bermatzeko. Mila esker eskaera hau kontuan hartzeagatik.

Dosierra: 457-2025

Nori: ZUMAIKO UDALA

Arrazoiak: Pasa den urtean salatu nuen egoerak bere horretan dirau: Itzurun hondartzatik gertu, Zelai talasoterapia parean, bada seinale bat hau dioena: "EKAINAK 1etik IRAILAK 30era".

Dosierra: 458-2025

Nori: TOLOSAKO UDALA - EUSKARA ZERBITZUA -

Arrazoiak: Tolosako kiroldegiaurreko aparkalekuetan irudian dauden seinaleak zeuden jarrita. Testua zati batean gaztelania hutsez dago: data, ordua....

Erantzuna:

Zinegotzi delegatua: Herritarrak aipatutako kasuan, film bat grabatzen ari ziren eta baimena eman zuen sailak ez zien hizkuntza-irizpide horien berri eman. Sail horrekin hitz egin dugu eta hemendik aurrera erne ibiliko dira horrelakoak gero eta gutxiagotan gerta daitezten. Horrez gainera, arazo hauek murrizte aldera, jabari publikoko baimenak erredaktatzeko txantiloia sortzen ari gara, dagokion hizkuntza-klausula txertatuta duela. Eskerrak herritarrari gure lana hobeto egiten laguntzeagatik.

Dosierra: 600-2025

Nori: TOLOSAKO UDALA

Arrazoiak: Lehengo egunean Tolosako kiroldegiko Bidegoxo tabernara joan nintzen. Menua gaztelaniaz baino ez zegoela eta euskaraz eskaintzeko aukeraz galdetu nien eta euskaraz jartzea ez zitzailea rentable ateratzen esan zidaten. Gainontzean arreta ona eta egokia eman zidaten

Erantzuna:

Euskara zinegotzia: Kexuaren motibazioa agerikoa da: herritarrak eskubidea du Udalaren ardurapeko zerbitzuetan euskaraz edo gaztelaniaz aritzeko, eta, hortaz, hori bermatzen ez den kasuetan, eskubide-urraketa baten aurrean gaude. Eta hori

da kexuaren abiapuntua. Hori kontuan hartuta, beraz, lehenik eta behin barkamena eskatu behar diogu herritar horri. Kiroldegiko taberna esleitzeko prozeduran, bete beharreko baldintzen artean sartuta daude hizkuntza-betekizunak, eta oinarria argia da: herritarren eskubideak bermatzea. Momentu honetan, aldaketa-garaian dago taberna hori: kudeatzen zuen enpresak eskatu du beste enpresa bati eskualdatzea. Hortaz, aldaketa hori gauzatuta, Udalak neurriak hartuko ditu era horretako eskubide-urraketa eragozteko: enpresa berria martxan hasi orduko, taberna kudeatzen dutenekin bilera bat egingo du hizkuntza-politikaren ardura duen udal-sailak, hizkuntza-irizpideak zein diren gogora ekartzeko, eta, behar izanez gero, Udalean eskura dituzten baliabideen berri emateko (adibidez, itzulpenetarako eta zuzenketetarako laguntza). Udalak indarrean du Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Estrategikoa, eta onartuta ditu Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak ere. Planaren erronketako bat da, hain justu, ezarritako hizkuntza-irizpideen jarraipena egitea; finean, betetzen direla bermatzea. Hori da Udalak hizkuntza-politikan duen lehenetasunetako bat. Horregatik, oso baliagarriak zaizkigu gisa horretako kexuak, hutsuneen berri izateko eta esku hartzeko. Horregatik, beraz, berriro ere eskerrak eman nahi dizkizut eskubide-urraketa horren berri emateagatik.

Dosierra: 622-2025

Nori: GETARIAKO UDALA

Arrazoiak: Getariako Malkorbe hondartzako zaintza zerbitzuaren inguruan kexa jarri nahi dut. Izan ere, abuztuaren 24an bozgorailuetatik emandako abisuan gaztelania lehenetsi zen; ondoren, euskaraz eman zuten mezua (marearen inguruko mezua zen, zehazki). Getaria udalerrri euskalduna da eta emandako mezuetan euskara lehenetsi behar dela uste dut, Getariako Udaleko hizkuntza irizpideekin bat etorrita. Egoera honen aurrean hondartzan ginen lagun taldeak sentitutako ezinegona eta haserrea helarazi nahi nuke.

Erantzuna:

Alkatea: Hori horrela izanik gure atsekabea agertu nahi dugu. Noski, helaraziko zaio zerbitzua kudeatzen duen Gurutze Gorriari kexa horren berri. Adierazi ere, gure herria udalerrri euskalduna dela eta euskaraz bizitzen segitzeko jarrera aktiboa

dugula. Zailtasunak ez dira falta eta hala eta guztiz ere, eta gure txikitasunean, horiei buelta emateko saiakeran jarraitzen dugu. Sorospen zerbitzuaren kasuan, hobetu beharrekoak egongo badira ere, megafonian euskara lehenesten da beti; badirudi salbuespen hau kenduta. Baina berriro diogu, gertaeraren berri emango zaie kudeatzaileei eta ohikoa den hori beti horrela izaten segi dezala eskatu. Beraiekin dugun esperientziagatik esan ere ziur gaudela jarrera ona izango dutela. Azkenik, komentatu mesedez hurrengoan guregana ere zuzentzeko azkarrago eskuratuko baitugu informazioa eta okerra jarraitzen badu lehenbailehen zuzendu; guretik hasita, guztion interesa baita euskarak Getarian lehen mailako lekua izatea.

Dosierra: 708-2025

Nori: IRUNGO UDALA

Arrazoa: Irungo Udalaren kiroldesia kudeatzen duen enpresak dena gaztelania hutsez izaten jarraitzen du. <https://neo-irun.provis.es/Public/Inicio.aspx> Eta behin izena emanda bidaltzen duten informazioa gaztelania hutsez dago ere.

Dosierra: 732-2025

Nori: BEASAINGO UDALA

Arrazoa: Orain hilabete batzuk, Antzizar kiroldegi aurrean, moto parkinga jarri du udalak eta MOTOS margotu du lurrean. Gaztelaraz!

Erantzuna:

Alkatea: Kexan adierazten den moduan, Udalaren hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideen artean jasota dago udal ondasunetan jarriko diren inskripzioak euskaraz egongo direla, euskarazko eta gaztelaniazko grafia antzekoa den kasu guztietan. Seinalaizazio hori biribilgunea egin zuen enpresak margotu zuen eta egoeraz jakitun izan ondoren, udalak seinale hori aldatzeko hartu beharreko neurriak hartu eta aldatu egin du. Lehen “MOTOS” jartzen duen tokian “MOTOAK” jartzen du dagoeneko. Udal honek euskararen erabilera instituzionala sustatzeko eta herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko konpromisoa berresten du.

Dosierra: 871-2025

Nori: ZUMARRAGAKO UDALA

Arrazoa: Azaroaren 15ean, Zumarragako Udaltzaingoa gerturatu zen, herri hortako baserri batera. Atea ireki eta nik "egun on" batekin agurtu nituen. Udaltzainek gaztelaraz eman zidaten beraien bixitaren arrazoa. Sinistu ezinda, euskeraz ez al zekiten galdetu nien. Ta erantzuna baiezkoa izan zen. Bi udaltzainek etzeukaten elkarriketa euskaraz egiteko arazoik. Onartezina iruditzen zait euskal udal bateko langileek, lehen hitza gaztelaraz egitea.

Dosierra: 876-2025

Nori: OIARTZUNGO UDALA

Arrazoa: Oiartzungo Udalaren eskumenekoa den Landetxe jatetxean (lehiaketa publiko bidez esleitua), askotan, gaztelania hutsean argitaratzen dute dute Instagramen. Gainera, elebitan egiten dutenean ere gaztelania lehenesten dute sarri. Onartezina, Udalak esku hartu beharko luke.

Dosierra: 897-2025

Nori: TOLOSAKO UDALA

Arrazoa: Karteldegian euskaraz agertzen zen (kartela euskaraz, alegia), herriko agendan euskarazkotzat iragarrita zegoen, eta egiazki euskarara bikoiztuta dagoen haurrentzako filma, inolako azalpenik gabe, gaztelaniaz eman zuten Leidor aretoan. Amaitzean haurra galdetzeraz joan zen ea hurrengo egunean (larunbata zen, eta haurrentzako filmak igandeetan ipini ohi dituzte) euskarazko bertsioa jartzekoak ziren, gertatutakoa ulertu nahian. Erantzun bakarra ezezko hutsa izan zen.

Erantzuna:

Kultura eta Festetako Zinegotzia: Lehenik eta behin, mila esker zure interesagatik eta euskarazko filmen emanaldiak sustatzeko erakutsi duzun borondateagatik. Ohiko moduan, haurrentzako filmak igandeetan eskaintzen ditugu. Hala ere, aste horretan Leidorren beste jardueraz bat (Titirijai) antolatuta zegoenez, asteko filma larunbatera lekuz aldatzea erabaki genuen; eta ondorioz, ez zen igandean filmarik programatu. Bestalde, egia da euskarazko filma programatuta genuela, eta euskarazko bertsioa ere prest geneukala. Arazoa izan zen filmak hainbat hizkuntzatan iristen direla, tartean gaztelaniaz ere bai. Proiektzioaz arduratzen den Leidorreko langileak nahasketa bat izan zuen eta gaztelaniazko bertsioa kargatu

zuen. Azken unean konturatu omen zen horretaz, baina euskarazko bertsioa sartzeak denbora gehiago eskatzen zuela ikusita, aretoan zeuden familiei galdetu omen zien ea gaztelaniaz ikustea onartzen zuten. Haien onespena jaso ondoren, proiektzioa gaztelaniaz mantentzea erabaki zuen. Badakigu akatsa eta hanka-sartze bat izan zela, eta barkamena eskatzeaz gain, halakorik berriro ez gertatzeko lanean ari garela adierazi nahi dugu.

Dosierra: 913-2025

Nori: OIARTZUNGO UDALA

Arrazoia: Oiartzungo Udalaren eskumenekoa den Landetxe tabernako zerbitzari batzuk gaztelaniaz erantzuten dute guk euskaraz egin arren. Horrez gain, sare sozialetan gaztelania hutsean argitaratzen dute. Onartezina da.

Dosierra: 946-2025

Nori: OIARTZUNGO UDALA

Arrazoia: Oiartzungo Jon Oñatibia kaleko eraikin batean obrak egiten ari dira eta herritarren segurtasunerako kartelak gaztelania hutsean daude. Oiartzungo Udalari eskatzen diot neurriak har ditzan enpresa eraikitzaileari hizkuntza-paisaia euskaraz jartzeko eskatuz.

Dosierra: 984-2025

Nori: IRUNGO UDALA

Arrazoia: Irungo Katea auzoan obretan ari dira eta errepideren bat moztu dute. Aldaketen berri emateko, Letxunborro hiribidean zenbait kartel jarri dituzte (pentsatzen dut enpresakoek jarri dituztela, baina ez dakit ziur arduraduna nor den: udala, errepideen erakunde arduraduna, enpresa...). Kartel hauek gaztelera hutsean daude. Egoera hau ez da gaurkoa, aste batzuk eramaki dute-eta kartelok.

DONOSTIAKO UDALA (19)

Dosierra: 74-2025

Nori: DONOSTIAKO UDALA - KULTURA

Arrazoa: Alaba txikia (4 urte) musika eta mugimendua ikasgai izena emanda dago irailetik, Donostiako Udalaren Musika Eskolan. Bere kasuan, Urbieta kaleko egoitzan izaten du 30 minutuko ikasgaia astean bitan. Urtarrilaren 23an, osteguna, musika eskolak abisua pasa zigun irakaslea etzela etorriko eta ez zela ikasgai emango egun horretan. Atzo, urtarrilak 28, musika eskolak abisurik pasa etzizula eta alaba musika eskolara eraman genuen, ohikoa den moduan. Sorpresa hartu genuen ordezkua gaztelaraz hasi zenean umeei harrera egiten. Aurretik irakasle ordezkarekin egondako ikasle batek (gitarra jotzen du) onartu zigun gaztelara hutsean egin zutela ikasgai osoa. Alabak, eskolatik ateratakoan, ikasgai osoa gaztelara hutsean izan zela baieztatu zigun, eta, ez zuela musika eskolara gehiago joan nahi ere iradoki zigun. Ikasturte hasieratik gustokoen duen ekintza da musika eskolako, eta argi dago irakasleak gaztelara hutsean egin ziolako (eta bera elebakarra delako) ez duela joan nahi, normala den moduan. Donostiako udalaren musika eskola izanda, onartezina iruditzen zait ordezkua euskaraz ez jakitea.

Erantzuna:

Euskara Zerbitzuaren burua: Zerbitzu horren ardura duen udal zuzendaritzarekin harremanetan jarri ondoren, hona haiek adierazitakoa: "Barkamena eskatu nahi dizugu Eskolaren izenean zure alabak urtarrilaren 28ko saioan (Urbietako egoitza, Musika eta Mugimendua, 4 URB-B taldea) izandako esperientzia txarrarengatik, irakasleak euskaraz hitz egiten ez zekielako. Zoritxarrez, egun horretarako Eskolak ezin izan zuen lortu euskaraz hitz egiteko gai zen ordezkua irakaslerik, eta zerbitzua bertan behera utzi edo zerbitzua gaztelaniaz eskaintzeko aukeraren artean, zerbitzua mantentzea erabaki zuen. Eskolak konpromiso argia du herritarren hizkuntza-eskubideekin, eta horrela, Eskolaren lanpostu guztiek dute ezarria euskarazko derrigorrezko hizkuntza-eskakizun maila bat. Irakasleen kasuan, lanpostu guztiek dute 3. hizkuntza-eskakizuna. Horri jarraiki, irakasleak ordezkatzeko lan-poltsa propioetan sartzeko, besteak beste, ezinbesteko baldintza da gutxienez 3. HE (C1) egiaztatzea. Donostiako Udalaren Musika eta Dantza Eskolak, ordezkoen lan-poltsa zabalenak lortzeko asmoarekin, hainbat Musika eta Dantza Eskolekin elkarlanean egiten ditu lan-poltsak sortzeko deialdiak eta

oposizioetatik eratorritako lan-poltsaz gain bereziki deitutako lan-poltsa deialdiak ere egiten ditu. Zoritxarrez, musika eta dantzaren irakaskuntzaren sektorean dagoen langile falta dela eta (beste arrazoi batzuen artean ez dagoelako aukerarik goi mailako ikasketak euskaraz egiteko), zenbaitetan lan-poltsa propioetako izangaiek onartzen ez dituzten ordezkapenak beste lan-poltsa batzuetako izangaiei esleitu behar dizkiegu. Kasu gutxi batzuetan izangai horiek ez dute euskarazko 3. HE, eta kasu bakan batzuetan, kexa ekarri duen egoeran bezala, ez dira euskaraz komunikatzeko gai. Eskolako lan-poltsak kudeatzeko irizpideekin bat, lan-poltsa propioetako izangaiekin lan-eskaintza bat bete ezin bada eta lanpostuaren baldintza guztiak (titulazioa eta euskararen ezagutza) betetzen ez dituen izangai bat baino gehiago badago, euskara maila altuena duen pertsonari lehentasuna ematen diogu. Horrela gertatu zen Urbieta 2 gelako irakasle titularra ordezkatzeko bidalitako lan-eskaintzaren kudeaketan. Egindako eskaintzari 3 pertsonak erantzun zioten, horietatik 2 euskarazko hizkuntza-eskakizunik gabekoak. 3. HE zuen pertsonak soilik ostegun eta ostiraleko klaseak emateko prest agertu zen, eta horietarako izendapena egin zitzaion. Beste hiru egunetako klaseak (astelehena, asteartea eta asteazkena) hizkuntza-eskakizunik gabeko irakasle bati esleitu behar izan zitzaizkion. Horren ondorioz, urtarrilaren 28ko eta otsailaren 4ko zure alabaren klaseak (4 URB-B taldea) euskaraz ez dakien irakasle batek gidatuko ditu. Bi saio horiek ez emantzat emango ditugu prezio publikoen 1a.6 irizpidearen ondorioetarako. Irakasle titularra ordezkatzeko beharra luzatuko balitz, hurrengo saioetarako irakaslearen ordezkapenaren egoeraren berri emateko zurekin jarriko gara harremanetan". Bide batez, herritarrari eskertu nahi diogu kexa jarri izana, huts edo gabeziak atzematen laguntzen digulako.

Dosierra: 108-2025

Nori: DONOSTIAKO UDALA - MUGIKORTASUN DEPARTAMENTUA

Arrazoa: Donostiako Udalaren mugikortasun sailak, gaztelara hutsez adierazten jarraitzen du aparkatzea debekatuta dauden eremuak. Oraingo honetan Euskal Herria kalean otsailaren 7an.

Dosierra: 143-2025

Nori: DONOSTIAKO UDALA - EUSKARA ZERBITZUA

Arrazoa: Berio pasealekuan, Santo Tomas Lizeoaren atzeko atearen parean, 16:25 inguruan agente batengana zuzendu naiz eta “no entiendo, hablame en castellano” esan dit. Euskaraz jarraitu dut baina ez du inolako esfortzurik egin ulertzeko. Epaitegietako oldarraldia izan arren, Udalak ez du ere bere langilegoak euskaraz artatzeko gai izateko inolako esfortzurik egiten.

Erantzuna:

Euskara Zerbitzuaren burua: Kexa horri erantzunez, Mugikortasun Zuzendaritzak honako hau adierazi du: “Mugikortasuneko Atal Operatiboan lan egiten duten agenteen artean askok dakite baina beste batzuek ez daukate maila egokirik beren lana euskaraz egiteko. Herritar orok euskaraz egiteko duen eskubidea bermatzeko eta agente elebakarrekin sortzen zitzaigun arazoa konpontzeko, jarraibide/agindu hau jakinarazi zitzaion: 1.- Euskara, Euskal Herriaren berezko hizkuntza, eta gaztelania EAEko hizkuntza ofizialak dira. 2.- Horrenbestez, bi hizkuntza ofizial horiek ahoz eta idatziz erabiltzeko eskubidea du edozein herritarrek. 3.- Hala, herritarrek nahi duten hizkuntzan jardun dezaketenez udal funtzionarioekin, eta pentsatzen dugunez agente guztiek dakitela gaztelaniaz, neurri batzuk hartu beharra dago agenteekin euskaraz aritzea erabakitzen duten herritarren hizkuntz aukera bermatu ahal izateko. Hori dela eta, herritar batek agenteari euskaraz egin eta hark euskaraz aritzeko behar adinako gaitasunik ez badu, herritarrak euskaraz egiteko eskubidea bermatzeko modua emango duen lankide bat bidaltzeko eskatuko dio Agenteak Koordinazio Guneari. Kexa eragin duen gertakariaren ondorioz Agenteei herritarren euskaraz komunikazioa bermatu behar dutela berriro azpimarratu zaie.” Horrela izan dadin espero dugu; horrenbestez, herritarrari eskertzen diogu kexa jarri izana, huts edo gabeziak antzematen laguntzen digulako.

Dosierra: 195-2025

Nori: DONOSTIAKO UDALA - KULTURA

Arrazoa: Berrito ere Donostiako Udalaren Musika Eskolari jarri nahi nioke kexa. Gaur, martxoak 11, abisatu digute nire alaba txikiaren irakaslea gaixorik dagoela eta gaur etorriko den irakaslea ez dakiela euskaraz. Urtarrilaren 31n idatzi nuen Behatokia eta Dossier-zenbakia: 74-2025 dun inzidentzia ireki nuen. Diot, berrito ere egoera berean gaudelako. Ulertezina eta lotsagarria iruditzen zait, Donostiako Udalaren musika eskola izanda, berrito ere egoera honetan egon behar izatea.

Urteko matrikula ordainduta daukat (35€) eta hilabetero 21€ inguru ordaintzen ditut nire alabak musika EUSKARAZ jaso dezan, eta azken hiruhilekoan hirugarren aldia da musika eskolara joan gabe geratuko dena, klase horiek jasotzeko daukan aukera bakarra GAZTELERAZ delako. Hori onartezina da. Nire alabak ez du gaztelaraz jakiteko beharrik musikara joateko. Normaltasun osoarekin idatzitako mezua da musika eskolak igorri diguna. Ez digute alternatibarik eskeintzen, eta hori ere ez zait ondo iruditzen. Hemen mezua; "Egun on, XXXXXX irakaslea gaixotasunagatik bajan dago. Gaur, martxoak 11, bere ordeztorriko den pertsonak ez dauka hizkuntza-eskakizunik eta eskolak gaztelaniaz emango ditu. Barkatu eragozpenak. -----

----- Buenos días, La profesora XXXXX esta de baja por enfermedad. La persona que le va a sustituir hoy, 11 de marzo, no tiene ningún perfil lingüístico y las clases se impartirán en castellano. Sentimos las molestias."

Erantzuna:

Euskara Zerbitzuaren burua: Kexa horri erantzunez, zera adierazi nahi dizuegu: Jabetzen gara egoeraren larritasunaz eta guraso horien haserreaz, baina Donostiako Musika eta Dantza Eskolak ahal duen guztia egiten duela ere badakigu. 74-2025 dossier-zenbakidun kexaren erantzunean esan bezala, irakasle guztiek dute derrigorrezko 3. Hizkuntza Eskakizuna ezarria, eta ordezkapenatarako lan-poltsa ezberdinak erabiliz, ahalegintzen dira euskaraz dakien irakaslea aurkitzen; baina, lortzen ez dutenean, ikasleak klase gabe utzi aurretik gaztelaniaz eman dezakeen irakaslea jartzen dute. Aurreko kexaren ondorioz, halako kasuetan guraso hauei jakinarazteko erabakia hartu zuten, eta hala jokatu zuten, berrito ere prozedurari buruzko azalpen guztia gehitu ez zuten arren. Euskara Zerbitzuak Musika eta Dantza Eskolarekin elkarlanean jarraituko du, herritarren hizkuntza eskubideak bete eta Eskolan euskararen normalizazioan urratsak ematen segi dezaten. Bide batez, herritarrari eskertu nahi diogu kexa jarri izana, huts edo gabeziak atzematen laguntzen digulako.

Dosierra: 289-2025

Nori: DONOSTIAKO UDALA - DONOSTIA TURISMOA SA Donostiako Udalaren Sozietate Publikoa

Arrazoa: Donostia Turismoa enpresa publikoak CO2 isurketak kalkulatzeko duen tresna euskaraz egon arren, behin ordainketara joatean, gaztelaraz bakarrik

eskaintzen da aukera.
<https://karbonokalkulua.sansebastianturismoa.eus/eu/calculator> Zuzentzea
 eskatu nahiko nuke eta etorkizunean horrelakoak arretaz begiratzea argitaratu
 baino lehen.

Erantzunak:

Komunikazio Arduraduna: Herritarrak arrazoi du. Donostia Turismoa enpresa publikoak CO2 isurketak kalkulatzeko duen tresna euskaraz egon arren, behin ordainketara joatean, gaztelera bakarrik eskaintzen da aukera. Behin kalkulagailua erabilia eta ordainketa egiteko, erabiltzailea gure webgunetik ateratzen da eta euskeraz ez dagoen plataforma batera iritsi. Plataforma horrekin harremanetan jarri gara eta euskeratzeko aukera eman digute, beraz, egingo dugu. Prest izan bezain laster, bidaliko dizugu.

Komunikazio Arduraduna: Badugu jada euskeraz gure kalkulagailua:
https://karbonokalkulua.sansebastianturismoa.eus/eu/calculator?_gl=1*1wgtguw*_gcl_au*MjEzNTkzNzk1MC4xNzQ1MzAzOTY2*FPAU*MjEzNTkzNzk1MC4xNzQ1MzAzOTY2

Dosierra: 391-2025

Nori: DONOSTIAKO UDALA - HIRIGINTZA SAILA

Arrazoa: Donostiako Udalak Parte Zaharrerako Plan Berezia argitaratu du bere webgunean (www.donostia.eus). Dokumentazio guztia elebietan dago, azkeneko txostena izan ezik: Estudio Ambiental Estrategico izenekoa. Zergatik ez dute hau ere itzultzen???

Erantzuna:

Herritarrentzako Arreta Zerbitzua: Herritarrak arrazoi du, testu hori ere ele bitan egon beharko luke argitaratuta. Itzulpena eskatuta dago eta prest dagoenean webgunean jarriko da. Horrenbestez, herritarrari eskertzen diogu kexa jarri izana, huts edo gabeziak antzematen lagundu digulako.

Dosierra: 425-2025

Nori: DONOSTIAKO UDALA - KIROLO ALORRA

Arrazoa: Donostiako Udalaren babesarekin "Clasica San Sebastián" txirrindulari martxa egingo da uztailaren 20an Donostian. Iragartzeko kartela gaztelania hutsean dago. Non egon da Donostiako Udala euskararen presentzia ziurtatzeko?

Dosierra: 452-2025

Nori: DONOSTIAKO UDALA

Arrazoa: Donostiako Udalaren baimenarekin jarritako kartelak, gaztelera hutsez. Donostiako Aldamar kalean.

Erantzuna:

Euskara Zerbitzuaren burua: Baimenak ematen dituen udal zerbitzuarekin eta baimen eskatzailearekin harremanetan jarri gara, arau haustearen berri eman eta hurrengo baimenatarako hizkuntza baldintzak gogoraraziz. Bide batez, herritarrari eskertu nahi diogu kexa jarri izana, huts edo gabeziak atzematen laguntzen digulako

Dosierra: 507-2025

Nori: DONOSTIAKO UDALA - BIDE PUBLIKOEN ORDEZKARIA -

Arrazoa: Easo kalean seinale berriak gaztelera bakarrik jarri dituztela dirudi.

Dosierra: 579-2025

Nori: DONOSTIAKO UDALA - MUGIKORTASUN DEPARTAMENTUA

Arrazoa: Gaur arratsaldean Donostiako Secundino Esnaolan arazo larria izan dut TAOko agente batekin. Berarekin euskaraz hitz egitean, "conmigo en castellano" erantzun dit oso modu txarrean. Euskaraz jarraitu dudanez, buelta eman eta ezer esan gabe alde egin du. Bere atzetik joan naiz, eta gaztelaniaz eskatu diot euskalduna zen lankide batekin hitz egin nahi nuela. Bere erantzuna "esta calle es la mía y aquí y conmigo se habla en castellano". Esan diodanean eskubidea nuela euskaraz hitz egiteko "tú tienes la obligación de hablar conmigo en castellano, y punto" erantzun dit, eta alde egin du berriro, nire eskubideekin nahi nuen egiteko esanez. Egia esan, 51 urte ditudan hauetan, gertatu zaidan gauzarik larriena da. Donostiako Udalarekin hitz egin dut, eta ahozko "oharra" edo egingo zutela erantzun didate. TAOko bulegora ere deitu dut, gaztelaniaz hitz egin behar izan dut ez zegoelako beste aukerarik, baina hor, behintzat, eman didate erdarazko arreta goxoago izan da, barkamena eskatuz gertatutakoagatik. Larriena, beraz, hau da: agente horrek uste du behartuta gaudela gaztelaniaz hitz egitera, berak euskaraz ez baitaki. Bestela, kalean geratzen zara inongo azalpenik eman gabe.

Erantzuna:

Eysam: Aurkeztutako kexari dagokionez, honako honako hau aipatu nahi dugu:

- Enpresa honen hizkuntza-politika oso zorrotza da administrazioak ezarritako lege-irizpideekin.
- Herritarrek salatutako moduan gure langilearen jarrera horrelakoa izan bada, guztiz gaitzesgarria da; zentzu horretan, dagokion ohartarazpena egingo zaio, gertatutakoaren bere bertsioa entzun ondoren, eta ez da baztertzeko dagozkion diziplina-neurriak ere hartzea.
- Donostiako kontratuan diharduten enpresako langile guztiek badakite edozein herritarrek euskaraz artatua izateko nahia adierazten duenean jarraitu beharreko urratsak zeintzuk diren; horretarako protokolo bat dago, eta hori ezagutzea derrigorrezkoa dute. Amaitzeko, gure barkamena adierazi nahi diogu erreklamazioa aurkeztu duen herritarri gertatutakoagatik.

Dosierra: 637-2025

Nori: DONOSTIAKO UDALA

Arrazoa: Donostiako Udal musika eskolan Bateriako klaseak hartzeko matrikulatu dugu semea aurtengo maiatzean. Ekaineko zozketan itxaron zerrendan gelditu ondoren, irailean eskeini diote bateria jotzeko aukera, plaza(k) libre gelditu ondoren. Musika eskolan galdera egin dugu eta irakasleak ez du euskaraz hitz egiten. Onartezina iruditzen zaigu udalaren menpekoea den eskolan gure umearen hizkuntza eskubideak bermatuta ez egotea.

Erantzuna:

Donostiako Udalaren Musika eta Dantza Eskola. Kudeatzailea: Donostiako Udalaren Musika eta Dantza Eskolak konpromiso argia du herritarren hizkuntza-eskubideekin, eta horrela, Eskolaren lanpostu guztiek dute ezarria euskarazko derrigorrezko hizkuntza-eskakizun maila bat. Irakasleen kasuan, lanpostu guztiek dut ezarrita C1 (ahoz eta idatziz) hizkuntza-eskakizuna. Bateria irakasten duten 4 irakasleetatik, batek ez du betetzen lanpostuak ezarrita duen hizkuntza-eskakizuna. Adinagatik, lanpostuetako bat betetzen duen irakaslea 2012an 3. hizkuntza-eskakizuna ezarri zenean adinagatik salbuetsita gelditu zen. Hori dela eta, Eskolak egiten duen bateria eskaintza guztia ezin da erabiltzaileek hautatzen duten hizkuntzan egin. Eskolak maiatzean egiten du ohiko matrikulazioa, eta klaseak eskainiko diren hizkuntzaren berri ematen du hezkuntza-eskaintzarekin batera, Donostiako Udalaren Musika eta Dantza Eskolan Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideetan jasotzen diren aukerekin (Euskaraz, Gaztelaniaz, Ele bietan

eta Aukeran). Kexan aipatzen da irakasle irailean egin duela matrikula, eta hori kontuan hartuta egoera aztertu dugu. Itxaron-zerrendak kudeatzeko erabiltzen dugun aplikazio informatikoaren muga batengatik, matrikula egiten duten irakasleek, espezialitate bereko hainbat irakasle dagoen kasuetan ez dute ikusten zein hizkuntza-eskaintza dagokion eskaintzen den ordutegi bakoitzari. Zerbitzua ematen digun enpresarekin hitz egingo dugu arazo hau konpontzen saiatzeko.

Dosierra: 674-2025

Nori: DONOSTIAKO UDALA

Arrazoa: Atzo (2025/09/13) joan nintzen Motako gaztelura, Donostiako Urgull mendian, Kristo azpiko begiratokira igotzeko asmoz. Orain txarteltxo bat behar da igotzeko, zeren aforoa mugatzea erabaki zuten segurtasunagatik. Hori dela eta, joan nintzen museoko sarreran dagoen pertsonarengana, txarteltxoa eskatzera. Nire harriurako ez zekien euskaraz ezta ulertzeko moduan ere. Gainera, nirekin batera iritsi ziren sarrerara Valentziar batzuk eta hauek saiatu ziren zerbait euskaraz esaten, ikasten ari ziren-eta. Eta hara non eta bertakoak esaten die ez duela ulertzen eta gaztelaraz egiteko. Lotsagarria. Gorago, begiratokira igotzeko eskaileren ondoan, bazegoen beste pertsona bat igotzen zirenak kontrolatzen eta honek euskara ulertu bai baina ez zen gauza hitz egiteko. Iruditzen zait onartezina Donostiako Udalak kudeatzen duen leku publiko batean erdaldunak egotea publikoari arreta ematen. Badakit hori leku turistikoa dela eta nagusiki kanpotarrak igotzen direla, baina bertakoak ere igotzen gara, leku atsegina da-eta. Uste dut eskubidea badugula euskarazko arreta jasotzeko.

Erantzuna:

Donostiako Udala: Mota gaztelua Donostia Kulturak kudeatzen duenez, bertara bideratu genuen kexa, eta zuzeneko ardura duen San Telmo Museotik bidali digute erantzuna: Ezer baino lehen, ulertzen dugu bizitako egoerak kexa zuzentzen duen bisitariarengana sortutako ezinegona, eta kexa aurkeztu izanaren arrazoa. Era berean, herritarrei bai kultura-edukijak, bai arreta euskaraz, eskaintzeko museoak duen konpromisoa erabatekoa dela, eta gure jardunaren argazki osoari erreparatuz gero irailaren 14an bizitakoa ezohiko egoera bat izan zela adierazi nahiko genioke. Izan ere, uda osoan zehar pertsonen arretako langile euskaldunak izan ditugu Historiaren Etxean: bai San Telmo udan Historiaren Etxerako propio hartutako langilea, zein pertsonen harrera enpresatik bidalitako errefortzuko langilea.

Iraileko asteburu honetan ordea, enpresak postua betetzeko arazoak izan zituen, eta ezin izan zuen garaiz ordezkari langile euskaldunak topatu. Hala ere, irailaren 14an berarekin zegoen beste pertsona, San Telmoko ohiko lantaldeko kidea (ez da udan propio aritutako pertsona), euskaraz ulertu eta aritzeko gai da, eta San Telmoko arretako beste langile guztiek bezalaxe B2 hizkuntza ziurtagiria du. Gainera, baieztatu dezakegu lantaldeak baduela arreta euskaraz eskatzen duenari hizkuntza berean erantzuteko ohitura eta sentsibilitatea, eta horregatik harritzen gaitu arlo honetan jarrera positiboa duen langile honek bisitariei euskaraz erantzun ez izana. Agian arrazoia uneko ulermen arazo edo adierazpen zailtasunen batean egon daitekeela pentsatzen dugu. Edozein modutan, bisitarien hizkuntza eskubideak bermatzeko ahaleginean jarraituko dugu, bai enpresari euskalduna den harretarako langilea bidali dezan eskatuz, bai gure lantaldean arreta euskaraz jaso nahi duten hiritarren eskubideak bermatu behar direla gogoratuz.

Dosierra: 720-2025

Nori: DONOSTIAKO UDALA

Arrazoiak: Donostiako Bentaberri udal kiroldegiko erabiltzailea naiz, eta gaur harreraren ondoan argazkian atxikitako kartela topatu dut jarrita. Rural Kutxako gizarte ekintza eta Donostiako Udaleko Donostia Kirola dira kartelak iragartzen duen ekimenaren antolatzaileak. Donostia Kirolari eskatu nahi diot euskarari horren tratu exkaxa ematen dion kartel hau berehala ken dezala kiroldegietatik, eta har ditzala beharrezko neurriak horrelako egoerak berriz ere ez emateko.

Erantzuna:

Herritarrentzako Arreta Zerbitzua: Donostia Kirola erakundeari kexaren berri eman diogu eta kartel berria diseinatu eta gaztelaniaz dagoenarengatik ordezkaturako dutela lehenbailehen jakinarazi digute. Bide batez, herritarrari eskertu nahi diogu kexa jarri izana, huts edo gabeziak atzematen laguntzen digulako.

Dosierra: 752-2025

Nori: DONOSTIAKO UDALA

Arrazoiak: Donostiako udaletxean bilera izan genuen irailaren 30ean. Harrerako udaltzainak ez zuen euskaraz ulertzen ez egiten.

Erantzuna:

Herritarrentzako Arreta Zerbitzua: Donostiako Udalak onartutako eta indarrean dauden hizkuntza irizpideen arabera, jendaurrean dauden langileek harrera euskaraz egitea eta zerbitzua euskaraz ematea bermatu behar dute eta euskaraz artatzeko gaitasunik ez duen langilearen kasuan lankide bati laguntza eskatzea dagokie. Euskara Zerbitzuaren aldetik Udaltzaingoko arduradunei gaiaren garrantziaz ohartarazi eta horrelako egoerak saihesteko neurriak har ditzaten eskatu zaie. Udaltzaingotik barkamena eskatzeaz gain, dagokion langileari ohartaraziko diotela erantzun digute.

Dosierra: 773-2025

Nori: DONOSTIAKO UDALA - DONOSTIA KIROLA Donostiako Kiroletako Udal Patronatua

Arrazoiak: Intxaurrendoko Udal Kiroldegian hizkuntza irizpideak betetzen ez dituen eta euskara baztertzen duen kartel hau ikusten daramagu aste osoa. Donostia Kirola udal erakundearen sinadura dauka gainera, besteren artean

Erantzuna:

Herritarrentzako Arreta Zerbitzua: Donostia Kirola erakundeari kexaren berri eman diogu eta kartel berria diseinatu eta gaztelaniaz dagoenarengatik ordezkaturako dutela lehenbailehen jakinarazi digute. Bide batez, herritarrari eskertu nahi diogu kexa jarri izana, huts edo gabeziak atzematen laguntzen digulako.

Dosierra: 868-2025

Nori: DONOSTIAKO UDALA

Arrazoiak: Donostiako Udalaren Musika Eskolari jarri nahi nioke kexa. Astelehenean, azaroak 17, abisatu digute nire alaba txikiaren irakaslea ez dela klasera joango eta ez dagoela euskaraz dakien irakaslerik lanpoltsan. Beraz, astearteaz azaroaren 18ko klaseak gaztelaraz izango direla abisatzen digute. Atzo, azaroak 19, asteazkena, mezu berberarekin abisatzen digute gaur azaroaren 20, ez dela euskaradun irakaslerik egongo klasea ematen.. Berriz ere gertatu zaigu iazko eta aurtengo gauza bera. Iazko ikasturtean bizpau aldiz aste osoan ez zen musika eskolara joan arrazoi honengatik. Ulertezina izaten jarraitzen du normalizaturako egoera honen aurrean ezer ez egitea Udaleko musika eskolak. Aurtengo ikasturteko lehenengo hiruhilekoan gaudela kontutan hartuta, gertatu litekeena da gehiagotan errepikatzea egoera hau eta beraz, gure alabak ezin joan izatea hain gogoko duen

musika tailerrera. Hemen jaso dugun mezua (azaroaren 17an eta 19an): "Familia agurgarriak Jakinarazten dizuegu azteazken eta ostegun honetan, azaroak 19 eta 20, emango diren eskolak gaztelaniaz izango direla. Elena Herradorrek ezin du klasea eman eta ezin izan dugu euskara eskakizuna duen inor lortu Barkatu eragozpenak Agur bat Estimadas familias Os comunicamos que las clases de este miercoles y jueves, 19 y 20 de noviembre, se impartirá en castellano. Elena Herrador no puede dar la clase y no hemos podido conseguir a nadie con perfil de euskera Sentimos las molestias Un saludo."

Erantzuna:

Donostiako Musika eta Dantza Eskolaren Pedagogia Zuzendaria: Donostiako Udalaren Musika eta Dantza Eskolak konpromiso argia du herritarren hizkuntza-eskubideekin, eta horrela, Eskolaren lanpostu guztiek dute ezarria euskarazko derrigorrezko hizkuntza-eskakizun maila bat. Irakasleen kasuan, lanpostu guztiek dut ezarrita C1 (ahoz eta idatziz) hizkuntza-eskakizuna. Zoritxarrez, musika eta dantzaren irakaskuntzaren sektorean dagoen langile falta dela eta (beste arrazoi batzuen artean ez dagoelako aukerarik goi mailako ikasketak euskaraz egiteko), zenbaitetan lan-poltsa propioetako izangaiek onartzen ez dituzten ordezkapenak beste lan-poltsa batzuetako izangaiei esleitu behar dizkiegu. Kasu gutxi batzuetan izangai horiek ez dute euskarazko 3. HE, eta kasu bakan batzuetan, kexa ekarri duen egoeran bezala, ez dira euskaraz komunikatzeko gai. Eskolako lan-poltsak kudeatzeko irizpideekin bat, lan-poltsa propioetako izangaiekin lan-eskaintza bat bete ezin bada lanpostuaren baldintza guztiak (titulazioa eta euskararen ezagutza) betetzen ez dituen izangaiei bidaltzen zaie. Bat baino gehiago badago, euskara maila altuena duen pertsonari lehentasuna ematen diogu. Urbieta 2 gelako irakasle titularra ordezkatzeko bidalitako lan-eskaintzaren kudeaketan, egindako eskaintzari 3 pertsonen erantzun zioten, eta horietatik hizkuntza-eskakizunik gabeko irakasleak bakarrik onartu zuen eskaintza osoa. Horren ondorioz, azaroaren 19 eta 20ko klaseak euskaraz ez dakien irakasle batek gidatu zituen. Aste honetan irakasle bera ordezkatzeko da eta berriro bidali da lan eskaintza. Oraingoan 2. HE duen pertsona batek onartu du lan eskaintza eta klaseak euskaraz emango dira. Ikasturtean zehar irakasle titularra ordezkatzeko beharra errepikatzen bada Eskolak herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko bere konpromisoarekin jarraituko du eta Eskolaren lanpostu guztiek ezarria duten euskarazko derrigorrezko hizkuntza-eskakizun duten irakasleak bilatzen saiatuko da.

Dosierra: 900-2025

Nori: DONOSTIAKO UDALA

Arrazoa: Donostiako Miramar parkean jarri duten argi instalazioagatik zintzilikatu dituzten kartel-oharrak gaizki itzulita daude

Erantzuna:

Donostiako Sustapena: Gabonetako ospakizunen harira Miramar Jauregi inguruan antolatu dugun Miramar magikoa ikuskizunaren muntaketaren garaian, aurreikusi gabeko arrisku elektrikoa saihesteko, behin-behineko kartel bat jarri genuen parterre baten inguruan. Kartel hori gure azpikontrataturako enpresak presaka egin zuen eta, epe laburreko irtenbidea zen heinean, ez zitzaion behar adina garrantzi eman; tamalez, horrek euskarazko itzulpen desegokia eragin zuen. Kartel hori dagoeneko kenduta dago eta barkamena eskatu nahi dizugu sortu zitekeen ondoeza eta desadostasunagatik. Etorkizunean halako egoerak saihesteko neurriak hartuko ditugu. Eskerrik asko zure oharragatik; horrelako ekarpenek gure zerbitzua hobetu eta kalitate handiagoa eskaintzen laguntzen digute.

Dosierra: 922-2025

Nori: DONOSTIAKO UDALA

Arrazoa: Atzo, Donostiako Alderdi Ederreko noriara igotzeko txartelak erostera joan nintzen alabarekin. "Ama, nik erosiko ditut", esan zidan. Baina ezin izan zuen. "Kaixo. Bi sarrera mesedez" ulertzeko (edo ulertzen saiatzeko) ere ez zen gai izan leihatilako tipoa. Azkenean, beste behin, nik erosi behar izan nituen, gaztelania jatorrean.

Erantzuna:

Donostia Sustapena: Zure azalpena arretaz aztertu dugu, eta guztiz ulergarria da adierazten duzun deserosotasuna, bereziki jarduera haur batekin partekatzeo testuinguruan gertatu delako. Jakinarazi nahi dizugu noria kudeatzen duen enpresari ezarritako hizkuntza-irizpideek berariaz jasotzen dutela euskararen presentzia eta lehentasuna bermatzeko betebeharra. Zehazki, baldintza hauen arabera: • Bide publikoan ezartzen diren egituretako (hesi, harmaila, karpa, saltoki...) errotilazioa eta mezuak, eta antolatutako jarduerari loturik argitaratzen diren iragarki, ohar, txartel eta gainerako idatzi guztiak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz idatziko dira, eta hizkuntza horietan egingo da jardueraren publizitate

eta zabalkundea. • Jarduera ezagutarazteko nahiz ekitaldian bertan bozgorailu bidez ahozko mezuak zabalduz gero, euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz zabalduko dira. Elebitan egiten diren komunikazioetan, ahoz zein idatziz, euskarari emango zaio lehentasuna. • Haurrei zuzendutako jardueretako musika, oro har, euskarazkoa izango da, eta gainerako adin taldeei zuzendutakoetan, euskarazkoen kopurua gainerako hizkuntzekiko orekatua izango da. • Horrez gain, deialdi publikoan espresuki zehaztu zen noriako hari musikalak gabonetako kantuak izango zituela euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez eta/edo frantsesez, eta gutxienez %50 euskaraz izan beharko zirela. Zure kexa jaso ondoren, egoeraren berri eman zaio enpresa kudeatzaileari. Halaber, hobekuntza-neurri osagarri gisa, langileen eskura oinarritzko hiztegitxo bat jarriko da, euskarazko oinarritzko arreta bermatzen laguntzeko eta euskararekiko jarrera eta erabilera hobetzeko helburuarekin. Barkamena eskatu nahi dizugu bizi izan duzun egoeragatik, eta eskerrak eman nahi dizkizugu kexa helarazteagatik, horrelako ekarpenek zerbitzua hobetzen laguntzen baitigute.

Dosierra: 971-2025

Nori: DONOSTIAKO UDALA

Arrazoiak: Atzo arratsaldean Donostiako izotz jauregian izan ginen. Altabozetatik gaztelaniazko musika baino ez zuten jarrita (Aitana, Sía, Extremoduro, Justin Bieber, La oreja de Van Gogh...) ez zen abesti bakar bat euskaraz jarri. Lotsagarria da urtero horrela ibili beharra.

IPAR EUSKAL HERRIKO HERRIKO ETXEAK (2)

Dosierra: 657-2025

Nori: AINHOAKO HERRIKO ETXEA

Arrazoia: Abuztuaren 8an izan ginen Ainhoan eta herri guneko komun publikoetan, turismo bulegotik gertu, udalaren kartela zegoen, frantsesez bakarrik. Gure ustez, Ainhoan euskaraz ere egon beharko luke ta hori eskatzen dugu. Joaten garen euskaldunok ez dugu zertan frantsesa jakin behar baina euskararen lurraldean izanda, euskaraz jarrita, guk ere ulertuko genuke.

Dosierra: 672-2025

Nori: MAULEKO HERRIKO ETXEA

Arrazoia: Mauleko Turismo Bulegora joan gara informazio eske. Bertako langileak ez zekien euskeraz, eta dena gaztelaniaz egin behar izan dugu. Deigarria da Zuberoan bertan gaztelaniaz egitea arreta euskeraz barik.

BAIONAKO HERRIKO ETXEA (2)

Dosierra: 138-2025

Nori: BAIONAKO UDALA - BAIONAKO HERRIKO ETXEA

Arrazoia: Jean-René Etchegaray auzapez jaunak izenpeturiko eta Herriko Etxeak igorritako informazio gutuna frantses hutsean da. Horrek Baionako jatorrizko hizkuntzak diren euskara eta gaskoina baztertzen ditu eta euskaldunon eta gaskoinen hizkuntza eskubideak urratzen ditu. Bereziki mingarria da, gainera, ikustea nahiago izan dela gibealeko aldea xuriz utzi euskarazko eta gaskoinezko itzulpen edo laburpen bat ematea baino. Jarrera hau ez dator bat Euskal Elkargoak bultzatu hizkuntza politikekin.

Dosierra: 508-2025

Nori: BAIONAKO UDALA - BAIONAKO HERRIKO ETXEA

Arrazoia: Baionako festen kari Herriko Etxeak euskaldunei eskaintzen dien informazioa ez da euskaraz. Batetik, etxez-etxe banatutako egitaraua frantsesez da osoki. Bestetik, festei loturiko hainbat informazio (hetsiak izanen diren karrikak, autobus zerbitzuen aldaketak...) frantsesez soilik helarazi dituzte..

NAFARROA GARAIKO UDALAK (31)

Dosierra: 1-2025

Nori: LIZARRAKO UDALA

Arrazoia: Lizarrako Udalean gaztelania hutsean idatzitako kartel hau jarri dute beste behin.

Dosierra: 80-2025

Nori: LIZARRAKO UDALA

Arrazoia: Urtarrilaren 20an Lizarrako Udalaren lan-eskantza publikoa argitaratu zen, ondorengo lan-postuek ez dute euskararen nahitaezko ezagutzarik ezartzen: – Administrari-ofiziala; funtzionarioen araubidekoa, oposizio edo oposizio-lehiaketa bidez betetzekoa. C maila. Hizkuntza-eskakizuna: Euskara nahitaezkoa (B2). 1.6.– Administrari-ofiziala; funtzionarioen araubidekoa, oposizio edo oposizio-lehiaketa bidez betetzekoa. C maila. Hizkuntza-eskakizuna: ez du hizkuntza-eskakizunik. 1.7.– Mandataria; funtzionarioen araubidekoa, oposizio edo oposizio-lehiaketa bidez betetzekoa. D maila. Hizkuntza-eskakizuna: ez du hizkuntza-eskakizunik. 1.10.– Administrari-ofiziala; funtzionarioen araubidekoa, oposizio edo oposizio-lehiaketa bidez betetzekoa. C maila. Hizkuntza-eskakizuna: ez du hizkuntza-eskakizunik. 1.11.– Administrari-ofiziala; funtzionarioen araubidekoa, oposizio edo oposizio-lehiaketa bidez betetzekoa. C maila. Hizkuntza-eskakizuna: ez du hizkuntza-eskakizunik. 4.4.– Kirol-koordinatzailea; funtzionarioen araubidekoa, oposizio edo oposizio-lehiaketa bidez betetzekoa. B maila. Hizkuntza-eskakizuna: ez du hizkuntza-eskakizunik. 4.16.– Eskolazaina-Mantentze lanak; funtzionarioen araubidekoa, oposizio edo oposizio-lehiaketa bidez betetzekoa. D maila. Hizkuntza-eskakizuna: ez du hizkuntza-eskakizunik. 4.20.– Gazteriako teknikaria; funtzionarioen araubidekoa, oposizio edo oposizio-lehiaketa bidez betetzekoa. B maila. Hizkuntza-eskakizuna: ez du hizkuntza-eskakizunik. 4.21.– Kultura teknikaria; funtzionarioen araubidekoa, oposizio edo oposizio-lehiaketa bidez betetzekoa. B maila. Hizkuntza-eskakizuna: ez du hizkuntza-eskakizunik. 6.2.– Lorezaintzako ofiziala; funtzionarioen araubidekoa, oposizio edo oposizio-lehiaketa bidez betetzekoa. C maila. Hizkuntza-eskakizuna: ez du hizkuntza-eskakizunik. 6.6.– Zerbitzu anitzetako enplegatua; funtzionarioen araubidekoa, oposizio edo oposizio-lehiaketa bidez betetzekoa. D maila. Hizkuntza-eskakizuna: ez du

hizkuntza-eskakizunik. 6.11.–Zerbitzu anitzetako enplegatua; funtzionarioen araubidekoa, oposizio edo oposizio-lehiaketa bidez betetzekoa. D maila. Hizkuntza-eskakizuna: ez du hizkuntza-eskakizunik. 7.4.–Udaltzaingoko agente lehen; funtzionarioen araubidekoa, oposizio bidez betetzekoa. C maila. Hizkuntza-eskakizuna: ez du hizkuntza-eskakizunik. 7.17.–Udaltzain-agentea; funtzionarioen araubidekoa, oposizio bidez betetzekoa. C maila. Hizkuntza-eskakizuna: ez du hizkuntza-eskakizunik. Horrela egungo zein etorkizuneko Lizarrako herritarrok ezingo ditugu hainbat zerbitzu euskaraz jaso.

Dosierra: 81-2025

Nori: LIZARRAKO UDALA

Arrazoia: Urtarrilaren 23an, Lizarrako Udalak, festak promozionatzeko “Estella-Lizarra, capital de la fiesta” bideoa zabaldu zuen Youtubeko udalaren kanaletik. Bideoa gaztelania hutsean zabaldu da eta ez dago ezta azpititulatuta ere, <https://www.youtube.com/watch?v=chCvP-OU5ZA> Udalaren ordenantzaren artikulua hauek urratzen ditu: IV. KAPITULUAN, Udalaren kanpo irudiaz: 15. artikulua. Estella/Lizarrako Udalak eta bere menpe dauden erakunde autonomoek euskara eta gaztelania erabiliko dituzte herritarrentzat, oro har, ari direnean. 18. artikulua. Argitalpenak. Estella/Lizarrako Udalaren eta bere mendeko erakundeen argitalpenak ele bietan eginen dira. 19. artikulua. Publizitatea hedabideetan. Udalaren jardueraren gaineko publizitate zein zabalkunderako, idatzizko/ikus-entzunezko komunikabideetan bi hizkuntzak maila berean erabiliko dira, erran nahi baita, euskara eta gaztelania. 20. artikulua. Udalak kontratatutako edo diruz lagundutako telebista-erreportajeetan, bideo-dokumentu eta dokumentaletan jatorrizko bertsioan %30 gutxienez euskaraz eginen da. Dokumentua edota erreportajea azpitituluekin ageriko da, unean-unean dagokion hizkuntzan.

Dosierra: 85-2025

Nori: LIZARRAKO UDALA

Arrazoia: Udalaren diruz (aski garesti omen), Lizarrako festak promozionatzeko “Estella-Lizarra, capital de la fiesta” bideoa sortu du. Bideoa Fiturren aurkeztu dute, Mariló Monterok eta Ahikar Azconak Lizarrako jaiak sustatzeko bideoaren aurkezpena babestu dute FITUREn Udaleko albistean azaldu bezala. Udaleko albistea urtarrilaren 22an: <https://www.estella-lizarra.com/eu/noticias/marilo->

montero-y-ahikar-azcona-arropan-en-fitur-la-presentacion-del-video-para-promocionar-las-fiestas-de-estella-lizarra/ Hasteko, soilik albistean lerroburua eta azpikoa irakur daiteke euskaraz. Ondotik edukia gaztelaniaz baitator. Jarraitzeko, albistean honela aipatzen da: "Un vídeo al que Mariló Montero pone voz, y que se ha subtitulado en euskera, inglés y francés". Antza, argitaratzeko unean ahaztu zitzairen, youtubeko bertsioan bederen ez baitzegoen hizkuntza batean ere azpidatzita. Ondoren (urtarrilaren 31n), behin mailaka ikustaldi, Fitur, eta sustapen lana eginda, bideo hori ezabatu dute eta, ondoren, bideo bera hainbat aldiz igo dute. Bakoitza hizkuntza batean azpidatzita. Hemen euskaraz: <https://www.youtube.com/watch?v=QluHEGazMAA> Bestalde, honela dio Udalak bere buruari ezarritakoa betebeharrak, hau da, Lizarrako Udalaren euskararen ordenantzak: <https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2013/130/24> Jarraian Ordenantzaren aipu batzuk, baina behin azpidatziak (berandu) jarrita, bereziki interesgarria azkeneko puntua, 20. artikuluaen aipamena. Bertan esaten da "Udalak kontratatutako edo diruz lagundutako telebista-erreportajeetan, bideo-dokumentu eta dokumentaletan JATORRIZKO BERTSIOAN %30 GUTXIENEZ EUSKARAZ eginen da. Dokumentua edota erreportajea azpigituluekin ageriko da, unean-unean dagokion hizkuntzan." Eta gaztelaniaz, haien erreferentziarako hizkuntzan: "En los reportajes televisivos, documentos de vídeo o documentales contratados o subvencionados por el Ayuntamiento, AL MENOS UN 30 POR CIENTO SE REALIZARÁ ORIGINALMENTE EN EUSKERA. Todo el documento o reportaje será subtitulado en la lengua correspondiente." - Lehenik, eta guztiz sinbolikoa, I. KAPITULUKO 2. artikulua. Ordenantza honen xedea da euskararen erabilera sustatu eta normalizatzea, Udalaren eskumeneko esparru guztietan. Eta, jarraian, 3. artikuluko lehen puntuan: Herritarrei helaraztea euskara osagai garrantzitsua dela integrazioaren zein komunikazioaren aldetik. Zaila gero bideo oso bat gaztelania hutsez jarrita. Bestalde, IV. KAPITULUAN, Udalaren kanpo irudiaz: - 15. artikulua. Estella/Lizarrako Udalak eta bere menpe dauden erakunde autonomoek euskara eta gaztelania erabiliko dituzte herritarrentzat, oro har, ari direnean. - 18. artikulua. Argitalpenak. Estella/Lizarrako Udalaren eta bere mendeko erakunde argitalpenak ele bietan egiten dira. - 19. artikulua. Publizitatea hedabideetan. Udalaren jardueraren gaineko publizitate zein zabalkunderako, idatzizko/ikus-entzunezko komunikabideetan bi hizkuntzak maila berean erabiliko dira, erran nahi baita, euskara eta gaztelania. - 20. artikulua. Udalak kontratatutako edo diruz

lagundutako telebista-erreportajeetan, bideo-dokumentu eta dokumentaletan jatorrizko bertsioan %30 gutxienez euskaraz egiten da. Dokumentua edota erreportajea azpigituluekin ageriko da, unean-unean dagokion hizkuntzan. Hau da, Udalak ez da ari bere araudia betetzen. Zergatik? Ezezagutzagatik? Ez, euskarafobia hutsez ari da. Ez baitu onartzen euskara bertako hizkuntza denik, gaztelaniarekin maila berean, eta gainera berariazko politika proaktibo eta positiboak behar dituela euskaldunek erabiltzea erraztu dezaten eta hiztun berriak lortu daitezen. Udalak politika euskarafobo, elkarbizitzaren aurkako, baztertzaile eta linguizida bat darama UPNk gidatuta eta PSNk babestuta.

Dosierra: 100-2025

Nori: BARAÑAINGO UDALA - LAGUNAK BARAÑAINGO UDAL ZERBITZUA -

Arrazoia: taberna eta jatetxea kudeatu eta ustiatzeko kontratazio espedienteak abiatu du Barañaingo Lagunak Udal Zerbitzuak. Kontratua esleitzeko irizpideen artean ez dago euskararen ezagutza. Bertze 4 urtez ezin izanen dugu zerbitzua euskaraz jaso?!

Dosierra: 165-2025

Nori: ESTERIBARKO UDALA

Arrazoia: Esteribarko Udalaren Euskararen erabilera eta sustapena arautzen dituen ordenantzak udalak euskara eta gaztelania erabiliko dituela dioen arren, InfoEsteribar WhatsApp difusio taldeetik gaztelania hutsean dagoen kartela zabaldu du berriz ere, udala laguntzaile den afari baten berri emateko.

Dosierra: 181-2025

Nori: IRUNBERRIKO UDALA

Arrazoia: Irunberriko arroilan sartzeko txartela gaztelania hutsean eman digute

Dosierra: 225-2025

Nori: LIZARRAKO UDALA

Arrazoia: Kirol ekitaldi bat dela medio, udaltzaingoak behin behineko oharra jarri du etorbide bateko atarrietan. Trafiko abisua gaztelania hutsez

Dosierra: 244-2025

Nori: ZIZUR NAGUSIKO UDALA

Arrazoia: Webguneko itzulpenak adimen artifizialaz... eta zuzendu gabe. Mesedez zain dezatela apur bat komunikazioa, ze bestela euskaldunoi oraindik ere ahalegin gehiago eskatzen digu euskaraz informazioa jasotzek.

Dosierra: 338-2025

Nori: EGUESIBARKO UDALA

Arrazoia: Eguesibarreko Udalak ateratako Gazteria Teknikari lanpostuak ez du euskara eskakizunik eta euskara ingelesa, frantsesa eta alemanaren pare baloratuko da, besterik ez. Hona deialdiaren esteka: <https://bon.navarra.es/es/anuncio/-/texto/2025/57/42>

Dosierra: 382-2025

Nori: LIZARRAKO UDALA

Arrazoia: Gaur Lizarrako Udalak kirol koordinatzailearen lanpostu bat betetzeko deialdia atera du: <https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2025/102/19> Udaleko ordenantzaren arabera, euskara udalerriko berezko hizkuntzetako bat da, baina euskararen ezagutza ez da nahitaezkoa lanpostu horretan (egingo duen lanak herritar eta eragileekin harreman zuzena izan arren), merezimendua da frantsesa eta ingelesaren maila berean, beraz, euskararen inongo ezagutzarik ez duen edonork jardun dezake lanpostu horretan. Lizarrako berezko hizkuntza (eta ehundaka herritarrek ezagutzen dutena) atzerriko hizkuntzen maila berdinean jartzea, bertoko hizkuntza eta herritarrak kontuan ez hartzea da.

Erantzuna:

Lizarrako Udala: Zure eskaera jaso ondoren, uste dugu onartutako deialdiak, hizkuntzak jakitea gehienez ere 6 punturekin baloratzen duenak (prozesu osoaren %6), euskararen erabilera arautzen duen udal ordenantzan araututakoari eta lanpostuaren eginkizunetatik eratorritako beharrei erantzuten diela, EBko laneko hizkuntza propioen ezagutzari dagokionez.

Dosierra: 392-2025

Nori: ANTISOAINGO UDALA

Arrazoia: Antsoaingo Udalak bi lan-deialdi egin ditu barne igoera murriztuan oposizio bidez betetzeko. <https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2025/91/26> <https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2025/91/27> Euskara ez da baloratu ere egiten. Euskararen Udal Ordenantzak 17. artikuluan dio: "17. art. Antsoaingo Udalak lanpostuak betetzeko egiten dituen deialdi guztietan, hizkuntza jakitea merezimendutako sartuko da, I. eranskinaren arabera euskararen ezagutza nahitaezkoa ez bada". Hortaz, ez da Euskararen Udal Ordenantza betetzen.

Erantzuna:

Euskara Zerbitzua: 1. Antsoaingo Udalak, 2023ko langileekiko hitzarmenean, D mailako langileak C mailara igo ahal izateko prozedura onartu zuen, hitzarmen kolektiboko 29. artikuluan oinarriturik. Akordioak ordezkari sindikal guztien onarpena jaso zuen. 2. Deialdiaren irismena: maila igoera burutzeko proposatu zen prozedura oposizio murriztu bat egitea izan zen. Soilik maila aldaketak eragiten dien udal honetako langileek dute oposizio horretara aurkezteko eskubidea, ez dago kontratazio berririk, ez lanpostuen aldaketarik (maila igoera salbu). Bide beretik, Plantilla Organikoko plazaren deskribapena ez da ukitzen, dagoen bezala jarraituko du, plaza bakoitzari dagokion hizkuntz eskakizuna barne. 3. Ordenantzari dagokionez: herritarrak, kexaren azalpenean argi uzten duenez, deialdia oposizio bidez egingen da, ez oposizio-lehiaketa bidez. Ordenantzaren 17. Artikuak merezimenduez arautzen du, eta merezimenduak lehiaketaren faseari lotuta daude, ez oposizioari. Lehiaketarik ez dagoenean ezinezkoa da merezimendurik kontuan hartzea. Azaldutako guztiagatik, Udal honek uste du Hizkuntz Eskubideen Behatokiak agerturiko kexak ez duela oinarri sendorik eta ez dagoela aldaketa egiterik gure prozeduran. Halaber, gogoratu nahi dugu euskaldunen eskubideak bermatzea eta, oro har, euskara sustatzea, printzipio nagusietako bat dela gure gobernu lanean.

Dosierra: 396-2025

Nori: BERRIOZARKO UDALA

Arrazoia: Aurreko astean, hilaren 20an hain zuzen ere, Berriozarko udalerako oposizio azterketa bat egin nuen. Oposizioa, Kultura teknikari izateko zen eta

honetan parte hartzeko euskara C1 maila eskatzen zuten. Hau horrela, azterketa eguna iritsi eta test moduko azterketa erderaz soilik egiteko aukera eman ziguten. Kexa bat jarri nuen, ustez, euskaraz egiteko aukera eman behar zigutela. Nik kexa euskaraz jaso nuen. Gaur (maiatzak 29), erantzuna jaso dut, hau ere erderaz. Hau da jaso dudana erantzuna: La aspirante manifiesta no estar de acuerdo con la decisión de no ofrecer la posibilidad de realizar la prueba en euskera cuando se exige un nivel C1 para el puesto de trabajo. Este tribunal tiene en cuenta la queja presentada por la aspirante, y considera que, efectivamente, la prueba podría haberse realizado en euskera al ser el perfil exigido para el puesto de trabajo. No obstante, la prueba también se puede realizar en castellano, y el tribunal ha optado por realizarlo en este idioma porque no todos los miembros del tribunal, cuyos conocimientos técnicos han sido necesarios para la elaborar el cuestionario y asegurar un correcto desarrollo de la prueba selectiva, conocen el euskera. Ikusita Berriozarko Udaletik ez dutela erremediorik jarri eta berdin jarraitzen dutela, zuei idaztea erabaki dut.

Erantzuna:

Euskara zinegotzia: Lehenik eta behin, udal honek euskararen sustapen eta erabilerarekiko, eta aldi berean, herritar guztiak euskaraz artatuta izateko eskubidearekiko duen konpromezua eta ardura azpimarratzea gustatuko litzaiguke. Gaur egun, udalak dituen baliabide fisiko, ekonomiko eta pertsonalekin, eskubide hori bermatzen da, salbuespenak salbuespen. Horregatik, garrantzitsua iruditzen zaigu kasu hau, kasu isolatu bat izan dela adieraztea, hori bai, hartu beharreko neurriak hartuko direla berriro gerta ez dadin. Momentu honetan, udaletxean Euskararen I. Barne Plana martxan jartzen ari gara eta lan handiak bideratzen ditugu gure hizkuntzak beharrezkoa duen estatusa eta presentzia izan ditzan, bai udaletxe barnean baita kaleetan ere. Plan honek neurri ezberdinak aipatzen ditu eta bide orri bat ezartzen du, dauzkagun baliabideekin Euskararen egoera hobetuz joateko. Jakitun gara aipatutako kasu honetan, arazo administratiboa eta koordinazio falta izan direla arazo honen sortzaileak, eta esan bezala, hartu beharreko neurriak hartuko ditugula, azken finean gure helburu nagusietako bat herritarrak euskaraz artatzea da.

Dosierra: 407-2025

Nori: SUNBILLAKO UDALA

Arrazoia: Ekainaren 2an sorosle azterketa egin zen Sunbillan eta azterketa espainolez izan zen.

Dosierra: 413-2025

Nori: LIZARRAKO UDALA

Arrazoia: Udalak pasaden urtean jaiotako haur guztiei gonbidapen eskutitz bat bidali die jaietako zapia emango zaien ekintzara gonbidatuz. Gonbidapen eskutitz osoa erdara hutsean dago eta alkateak sinatzen du.

Erantzuna:

Festak: Erantzun honen bidez adierazi behar dizuegu aipatu eskutitza erdara hutsean atera zela akats batengatik eta presaka ibiltzeagatik, baina hasierako asmoa bazela komunikazioa gure bi hizkuntzetan igortzea. Akats hori dagoeneko konpondu da eta atzo bertan jaioberri guztiei beste komunikazio bat, elebiz, bidali zitzaion.

Dosierra: 420-2025

Nori: LIZARRAKO UDALA

Arrazoia: Ekainaren 6tik aurrera aurreko urtean haurra izan zuten familiak alkatearen gonbidapen gutuna jasotzen hasi ziren, gutuna gaztelaniaz dago eta ez dago euskarazko informaziorik. Alkatetzak bere araudia bete gabe, herriko familien eskubideak urratu ditu, Lizarrako bizikidetza kaltetuz eta euskara sustatzearen aurka jardunez.

Dosierra: 435-2025

Nori: ESTERIBARKO UDALA

Arrazoia: Esteribarko Udalak Ollokiko gimnasioaren inguruko inkesta bat bidali du bere Whasappeko InfoEsteribar difusio taldetik. Inkesta hori soilik gaztelaniaz dago, Udalaren beraren ordenantza urratuz. 87. ALDIZKARIA - 2015eko maiatzaren 7a Udal ordenantza, Euskararen erabilera eta sustapena arautzen dituen. Behin betiko onespina 10. artikulua. Esteribarko Udalak euskara eta gaztelania erabiliko ditu herritarrengana jo behar duenean. Hortaz, ele bitan izanen dira erabat: a) Bandoak, ediktuak, kartelak, programak eta informazio plakak. b) Zigiluak,

tanpoiak, logotipoak, idazpuruak eta gisako elementuak. c) Eraikin, kale eta eremu publikoetako erroteruak. d) Udalaren egoitza eta bulegoetako erroteruak, Udalaren ibilgailuetakoak eta langileen arropa eta uniformeetakoak. e) Interes turistikoko, zerbitzuen kontroleko eta trafikoko seinaleak, etzanak izan ala zutikakoak. f) Udalak administrazio prozedura guztien gaineko argibideak eman beharrez herritarren eskura jartzen dituen agiri eta ereduak. g) Mezu elektronikoa, SMSak, web orriak, blogak eta antzekoak. h) Beste edozein baliabide edo formatu, Udalaren irudia, kanpoko edo instituzionala, adierazteko erabiltzen dena. i) Udalaren edo bere mendeko erakundeen telefono zerbitzu automatikoa ele bitan izanena da. Inkestaren esteka: <https://docs.google.com/forms/d/e/1FAIpQLSevD7GNmloA5O1-NA8n8zN46kXR5TyIx1WP7POjzzFUK7ATug/viewform>

Dosierra: 481-2025

Nori: LIZARRAKO UDALA

Arrazoia: Lizarrako kolektiboek mezu elektronikoa jaso dugu ekainaren 30ean egingo den aurtengo Festen Batzordera deituz. Mezua Udaleko Kultura zerbitzuko helbide elektronikorik jaso dugu. Era askotako kolektiboak gaude: musika, dantza, peñak, euskaldunen elkarteak. Guztiak herritarrak, batzuk (asko) euskaldunak. Eskubidea dugu euskaraz ere jasotzeko.

Dosierra: 539-2025

Nori: LIZARRAKO UDALA

Arrazoia: Lizarrako Udalak udarako antolatu dituen bost musika ikuskizunetan eta beste horrenbeste film emanaldietan bat bera ere ez da euskaraz izan; datorren astean hasiko diren festen egitarauan hurrentzako ekitaldi bat dago euskaraz programatua, juxtu, erraldoi eta buruhandien konpartsaren kalejiraren ordu berean.

Dosierra: 554-2025

Nori: BERRIOBEITIKO UDALA

Arrazoia: Berriobeitin euskaraz dakiten gero eta gazte gehiago daude. Zergatik ez da nahitaezkoa euskararen ezagutza kirol eta gazterriko teknikariaren lanpostuan? Deialdi hau barne igoera bidez egin da, baina lanpostu horrek jada euskararen

ezagutza nahitaezkoa izan beharko lukeela iruditzen zait, merezimendua izatea (puntu gutxiarekin gainera) ez da nahikoa emango dituen zerbitzuetan euskararen presentzia bermatzeko eta dagokion zereginetan euskara erabili eta ulertu ahal izateko. <https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2025/150/27>

Erantzuna:

Alkatea: Aipaturiko lanpostua Udal Plantila Organikoaren 44 plazarekin loturik dago. 2018an, plaza hori sortu zenean, Berriobeitiko Udalak plaza horretan euskarazko derrigortasuna ezarri zuen, C1 mailako ezagutzarekin. Halaxe jaso zen 2018ko zein 2019ko Plantila Organikoetan: <https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2018/36/13> <https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2019/51/22> Plantila Organiko horien aurkako helegiteak aurkeztu ziren eta Nafarroako Administrazio Auzitegiak epaiak eman zituen, hain zuzen ere, aipatu lanpostua eta beste batzuk eskuratzeko eta betetzeko baldintza gisa euskara eskatu beharra deuseztatzeko. Nafarroako Administrazio Auzitegiaren ebazpenen aurkako helegiteak aurkeztu zituen bai Berriobeitiko Udalak, baita deialdian aurkezturiko langile batek zein LAB sindikatuak ere. Aurkeztutako errekurso guztien gainean, Iruñeko Administrazioarekiko Auzien 2. Epategiak hainbat epai eman zuen (besteak beste, EJSN 2377/2020, EJSN 2378/2020), eta haietan ontzat ematen zuen plaza horretan euskararen eskakizuna baliogabetzea. Horren aurrean, administrazio hau behartuta dago epaitegiek agindutakoa betetzen. Behatokiak egiten duten lana eskerturik eta aitorturik, begirunez agurtzen zaituztet

Dosierra: 668-2025

Nori: LIZARRAKO UDALA

Arrazoia: Gaur Lizarrako Udalak udaltzain plazen deialdia handitu du eta beraz 4 udaltzain plaza izango dira betetzeko. Euskararen ezagutza ez da kontuan hartzen eta beraz herritarrekin harreman zuzena duten lanpostuak izan arren, ezingo diote euskaraz hitz egiten duen herritarrari zerbitzu egokia eman. Legeak ezarritako eremu mistoko udala izanik, herritarrak euskaraz artatu ahal izateko beharrezko neurriak hartzeko eskumena du Lizarrako Udalak, baina eskumen horrekiko ez du ezer egiten.

Dosierra: 716-2025

Nori: LIZARRAKO UDALA

Arrazoia: Lizarrako Udalaren webgunean euskara hautatu arren hainbat baliabide ezin dira euskaraz kontsultatu. Besteak beste udal ordenantza guztiak gaztelaniaz daude, baita euskararen erabilera eta sustapena arautzen dituen ere.

Dosierra: 724-2025

Nori: ARBIZUKO UDALA

Arrazoia: Arbizun hainbat obra egiten ari dira, eta herria UEMAn egon arren, Construcciones Lacunzak jarritako seinale guztiak espainol hutsez daude

Dosierra: 736-2025

Nori: BERRIOZARKO UDALA

Arrazoia: Berriozarko liburutegiko klub-en eskaintzan, ez da haurrentzat euskarazko talderik eskaintzen.

Erantzuna:

Euskara zinegotzia: Lehenik eta behin eskerrak eman nahi dizkiogu herritarrari, euskararen aldetik egon daitezkeen bereizketak identifikatzeagatik eta ohartarazteagatik. Udalean, euskara eta kultur arloko arduradunok lanean jarriko gara arazoari irtenbide bat emateko. Jakin izan dugunez, liburutegiek ez dute haurrentzako liburu-sortarik maileguan uzteko. Irakurle klub guztiek horrela funtzionatzen dute; sorta batzuk daude eta horiek uzten zaizkie irakurle klubeko kideei. Helduentzako badaude, gaina haur eta gazteentzako oso gutxi daude. Gaztelera bai, ordea. (Adibide moduan; zortzi urteetako haurrentzat, gaztelaniaz hemeretzi sorta daude eta euskaraz bakarra). Duela bi urte gutxi gorabehera, euskara zerbitzuetako teknikariek eskaera bat egin zuten, baina ez zen neurrik hartu eta gaur egun, egoera berdintsuan aurkitzen gara. Udal talde politikoak neurri eta bide berriak bilatuko ditu arazoari irtenbide bat bilatzeko. Abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeak eta Udal ordenantza bete daitezen, pausoak ematen jarraituko dugu, euskararen erabilera normalizatu eta garatu ahal izateko eta herritarrek hizkuntzagatiko bereizkeriarik izan ez dezaten.

Dosierra: 747-2025

Nori: ZIZUR NAGUSIKO UDALA

Arrazoia: Kirolaldea Pasealekuko bide-seinale bat gaztelera hutsean dago, euskararen ordenantza urratuz.

Dosierra: 850-2025

Nori: CORELLAKO UDALA

Arrazoia: Aurreikusi bezala, Corellako Udalak ez du ezer argitaratu Euskarabideak Gora-Gora Fest kultur zikloaren baitan Corellan antolatu duen ekitaldiari buruz, Corellan urteko euskarazko jarduera bakarra erabat ikusezin bihurtuz. Kartelik ez kaleetan, ez sareetan... ezer ez. D-PAI ereduarekin bazala, hirugarren mailako nafarrak.

Dosierra: 864-2025

Nori: ZIZUR NAGUSIKO UDALA

Arrazoia: Zizur Nagusiko hainbat tokitako bide-seinaleak, Euskararen Ordenantzak agintzen duenaren kontra, ez daude guztiz euskaraz. Zergatik kostatzen zaio hainbeste bere araudi propioa betetzea?

Erantzuna:

Euskara teknikaria: Udaleko hirigintza arloari eman berri diogu honen berri eta eskatu bi seinaleak aldatzeko.

Dosierra: 878-2025

Nori: ORKOIENGO UDALA

Arrazoia: Orkoiengo Udalak udal aldizkaria gaztelera hutsean buzoneatu du (orain arte ele bitan egiten zuen), Udalaren euskararen ordenantza berri murriztaile bera urratuz.

Dosierra: 890-2025

Nori: NOAIN - ELORTZIBARREKO UDALA

Arrazoia: Gaur Elortzibarko Udalak administrari-ofizialen bi plaza oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdia argitaratu du gaur. Eremitako udalak izanik eta deialdi horren arabera interesdunei telefonoz edo zuzenean arreta ematea lanpostu horien zereginen barruan dagoela zehazten delarik, garrantzitsua da

lanpostu horiek beteko dituztenek euskararen ezagutza izatea. Elortzibarko Udalari neurriak eskatu nahi dizkiot herritarron eskubideak babeste aldera.

Erantzuna:

Alkatea: Hizkuntza Eskubideen Behatokiak herritar batek 2 ofizial administrari lanposturen deialdiari buruz egindako iradokizuna ezestea erabaki du Alkatetza honek., hau da, izangaiek euskara jakitea, ezestea erabaki du. Izan ere, Elortz bailara "eremu ez-euskaldunean dago eta abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen 18. artikulua aplikatzen zaio.

Dosierra: 895-2025

Nori: BERA KO UDALA

Arrazoiak: abenduaren 11n ekimen solidarioa egingo du Bortziriko Guztio Elkartek Berako Udala eta Kultura Batzordearen laguntzarekin. Kartel horretan iragartzen den emanaldiaren aurrean nire desadostasuna eta salaketa adierazi nahi dizuet. Delako Magia Ikuskizun Solidarioa españolez izanen dela iragartzen du. Magia emankizuna hurrei zuzenduta dago batik bat. Nafarroako Bortzirietako haur gehien-gehienak D ereduko ikastetxeetara joaten dira, hau da denek ulertzen eta hitz egiten dute euskaraz. Zentzu horretan ez dago inongo arrazoirik españolez egiteko. Arç gehiago Euskara eremu formalek (ikasketak, Ikastetxea...) eremu ez formalerak (ongi pasatzeko guneak, ikuskizunak...) zabaltzeko eta kaleko erabilera sustatzeko egiten ari den ahaleginaren kontra zuzenean doa emanaldi hori. Ahantzi gabe Bortzirietako herriak euskararen arnagunea direla eta ahaleginak eta bost egin behar ditugula horrela jarrai dezaten.

Dosierra: 954-2025

Nori: BASABURUKO UDALA

Arrazoiak: Basaburuko Udalak Ttikiena haur eskolan aritzeko hezitzaileen deialdia egin du gaztelania hutsean. Euskaraz eskura jar dezaten eskatzen dut. Egoitza elektronikoa dago dokumentua:

<https://basaburua.sedipualba.es/tablondeanuncios/anuncio.aspx?id=19647>

Zehazki hemen:

<https://basaburua.sedipualba.es/firma/documento.aspx?csv=MDCAA VVXQWPN7N2NA9P&modo=abrir>

IRUÑEKO UDALA (32)

Dosierra: 92-2025

Nori: IRUÑEKO UDALA - KULTURA ALORRA

Arrazoa: Iruñeko Udalak eta Bertsozale Elkarrekin antolatzen duten "Bertsoaroa 2025" aren kartela lotsagarria iruditzen zait. Bertsolaritzak euskara sustatzeko helburua ere baduen arren eta euskaraz garatutako ekimena izan arren, kartelean gaztelania erabiltzea kontrako bidea egitea dela iruditzen zait. Iruñeko Udalak ezin al du euskara soilik erabili euskarazko ekimen kultural bat iragartzeko? Gogoratu euskara minorizatutako eta zapaldutako hizkuntza dela, gaztelania ez bezala. Berdin Nafarroako Gobernua zein bestelako erakunde/eragileak tartean izanik. Iruñeko Udalaren ordenantza gure eskubideak bermatzeko ez-nahikoa dela iruditzen zaidan arren, 9.3. b artikularen arabera ere ekimen hauek euskara hutsean publizitatu ahalko zirela iruditzen zait. Auzolotsa ematen dit "BERTSOLARIAK/BERTSOLARIS" idatzita ikusteak, non eta hiri buruzagian.

Erantzuna:

Kulturako alorra: Kasu honetan afixa bati buruz ari garenez, Iruñeko Udalaren euskararen ordenantza bete egiten dela jakinarazten dizugu.

Dosierra: 188-2025

Nori: IRUÑEKO UDALA - TXANTREKO LIBURUTEGI PUBLIKOA

Arrazoa: Txantreako liburutegian (haurren txokoan), bada erakusketa bat Emakume langilearen egunaren testuinguruan. Erakusketa ez dago euskaraz.

*Argazkia ez da egokiena. Baina jakin den dena erdaraz dela.

Erantzuna:

Txantreako Liburutegi Publikoa: Kexa bat jaso dugu Emakumearen Nazioarteko Egunerako, martxoaren 8an, egin genuen erakusketa txiki baten kontura. Erakusketa txiki hau liburutegiko haurren gelan jarri genuen auzoko txikiek emakume bikain hauek ezagut zitzaten. ERAKUSKETA gaztelaniaz BAKARRIK zen, BAI, eta azalpena erraza da: irudiak eta testuak Violeta Monrealen IM-PERFECTAS liburutik atera genituen, gaztelaniaz bakarrik argitaratutako liburutik. Pentsa dezakezen bezala, irudien eta testuen itzulpena lan eskerga da, eta ezin da egun batetik bestera egin. Sare sozialetara informazioa gaztelaniaz eta euskaraz igotzen dugu. Liburutegiko hallean erakusketak ditugun bakoitzean, asko kezkatzen gara

testu elebidunak izateaz. Beraz, gure erakusketa-lagin txikiak eragin ahal izan dituen eragozpenak sentitzen ditugu, baina dena bere testuinguruan aztertu behar da. Eskerrak ematen dizkizugu kexa hau helarazteagatik, eta hurrengo jardueretan konpondu ahal izatea espero dugu.

Dosierra: 254-2025

Nori: IRUÑEKO UDALA - KOMUNIKAZIO INSTITUZIONALEKO ETA GARDENTASUNEKO ZUZENDARITZA -

Arrazoa: Iruñeko Udalak euskara sustatzeko dirulaguntzen deialdia argitaratu du. Udalaren euskarazko web orrian gaztelaniaz ematen da deialdiaren berri. Horrela pentsatzen du udalak euskara sustatzea? Ez al da adierazgarria?

Dosierra: 325-2025

Nori: IRUÑEKO UDALA - JOAQUIN MAYA MUSIKA ESKOLA -

Arrazoa: Apirilaren 28an Iruñeko Joakin Maia musika eskola publikoan izena emateko epea zabaldu zen. 22 musika tresna ikasteko aukera dago, eskaintza osoa gaztelaniaz egiten da.

Dosierra: 337-2025

Nori: IRUÑEKO UDALA - TXANTREKO LIBURUTEGI PUBLIKOA

Arrazoa: Txantrea auzoko liburutegian dagoen erakusketa erdara hutsez da.

Dosierra: 340-2025

Nori: IRUÑEKO UDALA - KOMUNIKAZIO INSTITUZIONALEKO ETA GARDENTASUNEKO ZUZENDARITZA -

Arrazoa: Tramite bat egin dut euskaraz Iruñeko Udalaren egoitza elektronikoaren bidez. Bueltan jaso dudak konfirmazio eposta gaztelania hutsean dago. Hain gauza simple eta, ustez, errazetan ez bada euskara kontuan hartzen...

Erantzuna:

Iruñeko Udala: Aldaketa teknikoak gauzatzen ari gara, Udalarekin euskaraz komunikatu nahi duela adierazi duen pertsona orok, automatikoki bidaltzen diren posta elektronikoak ere euskaraz jaso dezan.

Dosierra: 410-2025

Nori: IRUÑEKO UDALA

Arrazoia: Gaur Iruñeko Udalak ofizial administrarien eta ofizial administrari osagarriaren 42 lanpostu betetzeko deialdia argitaratu du oposizio bidez: <https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2025/112/28> 42 lanpostutatik 8tan soilik da nahitaezkoa euskararen ezagutza, hau da, deialdiko lanpostuen %81 euskararen inongo ezagutzarik ez duten pertsonak bete ditzakete eta, ondorioz, etorkizunean ere zerbitzuak euskaraz eskaini ahal izatea eta udalak euskaraz funtzionatu ahal izatea eragozten da. Iruñeko Udalari plantillan euskararen nahitaezko ezagutza duten lanpostu gehiago ezartzea eskatu nahi diot. Nola izan daiteke adibidez kultura, jaiak, hezkuntza eta kirola bezalako atal baten lan egingo duen pertsonak euskara jakin behar ez izatea? Berdin gizarte ekintza edo haur eskoletako lanpostuetan ere. Haur eskoletan une honetan gaztelaniazko eskaintza nagusi izan arren, langile publikoek euskararen ezagutza ez izateak etorkizuneko euskarazko eskaintza ere baldintzatu dezake.

Erantzuna:

Iruñeko Udala: Ofizial administrariaren deialdiari dagokionez, jakinarazten dizugu hizkuntza-eskakizun hori plantilla organikoan duten plazak bakarrik eskain daitezkeela euskaraz; horregatik, une honetan, aipatutako deialdian soilik eskaini dira hizkuntza-eskakizuneko plaza horiek.

Dosierra: 442-2025

Nori: IRUÑEKO UDALA - BERDINTASUNEKO, EKINTZA KOMUNITARIOKO, AUZOETAKO, HARRITARREN PARTAIDETZAKO ETA EUSKARAKO ALORRA

Arrazoia: Iruñeko Udalak euskara sustatzeko eman dituen dirulaguntzen berri jaso dugu gaur gure elkartean jakinarazpen elektroniko bidez; bai jakinarazpenaren berri emateko bidali duen eposta mezua, eta bai ebazpena bera, batuan daude, gaztelania batuan baino ez! No/To sustapena!!

Erantzuna:

Iruñeko Udala: Aldaketa teknikoak gauzatzen ari gara, Udalarekin euskaraz komunikatu nahi duela adierazi duen pertsona orok, automatikoki bidaltzen diren posta elektronikoak ere euskaraz jaso dezan.

Dosierra: 444-2025

Nori: IRUÑEKO UDALA - BERDINTASUNEKO, EKINTZA KOMUNITARIOKO, AUZOETAKO, HARRITARREN PARTAIDETZAKO ETA EUSKARAKO ALORRA

Arrazoia: Iruñeko Udalak euskararen aldeko proiektuentzat diru-laguntza deialdia egin zuen duela hilabete batzuk eta atzo jaso nuen honen ebazpena. Ebazpena zein jakinarazpena gaztelera hutsean jaso nituen.

Erantzuna:

Iruñeko Udala: Berdintasuneko, Ekintza Komunitarioko, Auzoetako, Herritarren Partaidetzako eta Euskarako Alorrak jakinarazten dizue Udalak baduela zuen eskabidearen xede den gaiaren berri. Jakin dezazuen, jakinarazpenak kudeatzen dituen eta instalatuta dagoen sistemak ez du ahalbidetzen komunikazioak euskaraz sortzea. Gabezia hori konpontzeko lanean ari gara.

Dosierra: 445-2025

Nori: IRUÑEKO UDALA - BERDINTASUNEKO, EKINTZA KOMUNITARIOKO, AUZOETAKO, HARRITARREN PARTAIDETZAKO ETA EUSKARAKO ALORRA

Arrazoia: Iruñeko Udaletik jaso berri dugu jakinarazpena, BERDINTASUNEKO, EKINTZA KOMUNITARIOKO, AUZOETAKO, HERRITARREN PARTAIDETZAKO ETA EUSKARAKO ALORretik, gaztelera hutsean, juxtu euskararen erabilera sustatzen duen dirulaguntzen deialdiari buruz, Sinestezina, eta onartezina iruditzen zait. Beste alor batetik ere ez da bidezkoa, hau salatzeko idazten zaituztet. OHARRA: CONCESIÓN SUBVENCIÓN A ENTIDADES SIN ÁNIMO DE LUCRO PARA LA REALIZACIÓN DE PROYECTOS DE PROMOCIÓN DEL EUSKERA 2025

Erantzuna:

Iruñeko Udala: Berdintasuneko, Ekintza Komunitarioko, Auzoetako, Herritarren Partaidetzako eta Euskarako Alorrak jakinarazten dizue Udalak baduela zuen eskabidearen xede den gaiaren berri. Jakin dezazuen, jakinarazpenak kudeatzen dituen eta instalatuta dagoen sistemak ez du ahalbidetzen komunikazioak euskaraz sortzea. Gabezia hori konpontzeko lanean ari gara.

Dosierra: 446-2025

Nori: IRUÑEKO UDALA - BERDINTASUNEKO, EKINTZA KOMUNITARIOKO, AUZOETAKO, HARRITARREN PARTAIDETZAKO ETA EUSKARAKO ALORRA

Arrazoa: Iruñeko Udalaren euskararako diru laguntzen deialdiaren ebazpena argitaratu da. Kontua da jakinarazpena zein ebazpena gaztelania hutsean jaso direla.

Dosierra: 482-2025

Nori: IRUÑEKO UDALA - GARAPENERAKO LANKIDETZAKO, BERRIKUNTZAKO ETA GAZTERIAKO ZINEGOTZI BEREZIA

Arrazoa: Sanduzelain eta Arrotxapean jarri ditu Iruñeko Udalak Mikel Armendariz zinegotziak sinatutako informazio gutun hauek. Alde batean euskaraz daude, bestean gaztelaniaz baina gaztelaniazko aldea soilik jarri dute ikusgai.

Dosierra: 492-2025

Nori: IRUÑEKO UDALA - KOMUNIKAZIO INSTITUZIONALEKO ETA GARDENTASUNEN ZUZENDARITZA -

Arrazoa: Iruñeko Udalak sanferminak sare sozialen bidez bizitzeko aukera eskainiko duela iragarri du bere X kontutik. Web orriko lotura ere jarri du informazio gehiagorako. Bada, web orriko euskarazko bertsioan gaztelaniaz ageri da informazioa.

Dosierra: 493-2025

Nori: IRUÑEKO UDALA - ZERBITZU OROKORRAK ALORRA

Arrazoa: Gazteluko plazako komunitako kartela gaztelania hutsean dago, euskaraz jartzea "ahaztu" zaio Iruñeko Udalari

Dosierra: 499-2025

Nori: IRUÑEKO UDALA - BERDINTASUNEN, EKINTZA KOMUNITARIOKO, AUZOETAKO, HARRITARREN PARTAIDETZAKO ETA EUSKARAKO ALORRA

Arrazoa: Iruñeko Udalak euskara sustatzeko dirulaguntzen ebazpena gaztelaraz bidali die eragileei. Berdintasunen, Ekintza Komunitarioko, Auzoetako, Herritarren Partaidetzako Eta Euskarako Alorra izan da kasu honetan (hauek ez al dira euskararekin sentibilizatu egon beharko luketenak)

Erantzuna:

Berdintasunen, Ekintza Komunitarioko, Auzoetako, Herritarren Partaidetzako eta Euskarako Alorra: Udalak badu zure eskabidearen xede den gaiaren berri. Jakin

ezazu jakinarazpenak kudeatzen dituen eta instalatuta dagoen sistemak ez duela ahalbidetzen komunikazioak euskaraz sortzea. Gabezia hori konpontzeko lanean ari gara.

Dosierra: 534-2025

Nori: IRUÑEKO UDALA

Arrazoa: Iruñeko Udalak, iaz bezala, aurten ere pankarta hauek jarri ditu zezen plazaren eta alde zaharraren arteko gunean, Labriten ondoan. Espainieraz handi-handi eta euskaraz askoz ere txikiago eta letra difuminatuz, ia ez irakurtzeko moduan eta bigarren mailan, ingelesaren pare. Hurrengo urterako aldatu dezala eskatzen diot Iruñeko Udalari

Dosierra: 551-2025

Nori: IRUÑEKO UDALA - KOMUNIKAZIO INSTITUZIONALEKO ETA GARDENTASUNEN ZUZENDARITZA -

Arrazoa: Iruñeko Udalaren sms ba jaso dut egoitza elektronikoan jakinarazpen bat dudala abisatuz, mezua gaztelania hutsean dago. Hain zaila al da hain eginkizun samurretan euskarari lekua egitea?

Erantzuna:

Iruñeko Udalak: Ohar horiek SMS bidez bidaltzean aplikatzen den egungo irizpidea honako hau da: herritarrak eskatu duen hizkuntzan komunikatzen da. Lehenespenez, gaztelania da, baina herritarrek adieraz dezakete euskaraz komunikatu nahi dutela, aukera lehenetsi gisa, edo are espediente jakin batean ere. Kasu honetan, SMSa gaztelaniaz bidali da, inplikaturako pertsonak ez zutelako euskarazko komunikaziorik eskatu. SMSak euskaraz jaso nahi badituzte, eskaera orria bidali behar dute Iruñeko Udalera, komunikazioak euskaraz jaso nahi dituztela adieraziz.

Dosierra: 564-2025

Nori: IRUÑEKO UDALA - KULTURA ALORRA

Arrazoa: Iruñeko Udalak abuztua eta irailerako Civiboxetako eskaintza argitaratu du. Abuztuan 41 jarduera daude, 8 soilik dira euskaraz (haurrentzako eskaintza), irailan are okerrago, 27 ekimenetatik bakarra da euskaraz. Civiboxetako eskaintzaren hizkuntzari dagokionean, ez dago alde handirik aurreko udal

gobernua eta honen artean. <https://www.pamplona.es/sites/default/files/2025-07/civivox2025agosept.pdf>

Erantzuna:

Kultura, Jaiak, Hezkuntza eta Kirol Arloa: Hizkuntz Eskubideen Behatokiak aurkeztutako 564-2025 zenbakiko erreklamazioari dagokionez, Civivoxetako abuztu eta irailako programazio kulturaletan euskararen presentziaz egindako oharri erantzunez, eskerrak eman nahi dizkizuegu lehenik eta behin zuen arreta eta interesa adierazteagatik. Zuen ekarpenak beti dira lagungarri gure lana hobetzeko eta helburu partekatua lortzeko: euskararen presentzia bermatzea hiriko programazio kulturean. Programazioaren berrikuspen zehatz baten ondoren, egiaztatu da euskararen presentzia txikiagoa dela gaztelaniarekiko alderatuta. Hala ere, ondorengo alderdiak azpimarratu behar dira egoera hori testuinguruan jartzeko: Abuztuko programazioa · Versionando / Bertsionatuz zikloa: euskarazko proposamen musikalak sartzea aztertu zen; hala ere, jasotako proposamenek ez zuten zikloaren formatura egokitzen. Aurreko edizioetan, ordea, euskarazko taldeak programatu ziren (adib. Atxa Jaunak, 2024). Dena den, kontzertuetan ez da hizkuntza adierazten, jarduera musikalki hutsak direlako. Aurten euskarazko abestiak entzun dira, gaztelaniazkoak edota ingelesezkoak. · Kultura Plazaz Plaza: gaztelaniazko eta euskarazko proposamenen arteko oreka bilatu zen, zinema ere barne hartuta. Adibidez: o Lezkairu: Marietak Zirkus ikuskizun eszenikoa (elebiduna). o Buztintxuri: Eraitsi S.L. antzezlan teatrala (euskaraz). o Txantrea: euskarazko zinema eta Naxker kontzertua (euskaraz). · Udako zinema: 22 proiektiotik 5 euskaraz eskaini ziren (%23 inguru). · Ezpeleta en Juego: jarduera gehienak jolas libreetan oinarrituta daude, hizkuntza espezifikorik gabe. Hala ere, JOKAI proposamena (abuztuak 12-14) elebiduna izan zen (gaztelania/euskara), bai arretan bai informazio-materialetan, eta gainera euskarazko musika erabili zen. Circo de los sentidos & minigolf jarduera ere bi hizkuntzatan egin zen. Iraileko programazioa · Sarasateren Ondarea eta NAK: musika klasiko eta garaikideko kontzertuak direnez, ez da hizkuntza zehazten, ez baita jarduerarako funtsezko elementua. · Nafarroako Zinemaldi Nazionala (NIFF): programazioa jaialdiaren beraren ardurapean dago; Udalak espazioa eta zabalkundea eskaintzen ditu, baina ez du hizkuntza zehazten. · Arrotxapea Kalez Kale: jardueren hizkuntza auzoko entitateek zehazten dute, Udalarekin elkarlanean. · Bisita gidatuak: lau bisita antolatu dira, eta horietatik bat euskaraz egin da. · Erakusketak: izaera artistikoa

duenez, ez da hizkuntza zehazten. Datu hauek kontuan hartuta, eta euskararen presentzia txikiagoa izan arren, ez da guztiz bidezkoa erreklamazioan adierazitako zenbaki zehatza seinatzea. Civivoxen programazioan jarduera musikalki, erakusketa eta baita eszeniko ugari ere (mutuak direnak, adibidez) ez dira gaztelaniaz edo euskaraz egiten; beraz, EU ikurra ez eramateak ez du esan nahi jarduera horiek gaztelaniaz direnik. Hortaz, ondorioztatu dezakegu EU ikurraren erabilera ez dela beti eraginkorra eta zehatza programazioan euskararen presentzia islatzeko. Horregatik, Kultura Arloa ari da komunikazio-sistemak hobetzen, informazio argiago eta fidagarriagoa emateko asmoz. Zuen ekarpenak eskertzen ditugu eta prest gaude alternatibak aztertzeko, programazioa publiko euskaldunengana modu eraginkorragoan hel dadin. Iruñeko Udalaren konpromisoa irmoa da euskararekin. Nahiz eta mugak egon oreka osoa lortzeko, egiaztatzen da aurreko urteekin alderatuta hobekuntza izan dela, eta norabide horretan lanean jarraituko dugu. Hizkuntz Eskubideen Behatokiaren ekarpena balio handikoa da programazio kultural inklusiboago eta orekatuago baterantz aurrera egiteko.

Dosierra: 609-2025

Nori: IRUÑEKO UDALA - HERRITARREN SEGURTASUNA ETA BIZIKIDETASUNA

Arrazoiak: Salatzen dut Iruñeko Udaleko Herritarren Segurtasuneko eta Bizikidetzako atalak euskaldunon hizkuntza eskubideak urratzen jarraitzen duela, zirkulazio isunekin loturiko alegazio bati behin eta berriz -momentuz 2 aldiz - euskaraz erantzuteko eskatzen ari natzaizolako eta gaztelania hutsean erantzuten jarraitzen duelako. Gainera, ez nago batere ados isunarekin eta hortaz aurkeztu dut alegazioa (dagoeneko 2 aldiz), baina zirkulazio-isunaren bidegabekeria salatzea bezain garrantzitsua iruditzen zait euskaldunon hizkuntza eskubideak ez urratzeko aldarriari tinko eustea.

Dosierra: 669-2025

Nori: IRUÑEKO UDALA - GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARITZA

Arrazoiak: Gaur Iruñeko Udalak irisgarritasuneko teknikarien lanpostuetan aritzeko bi zerrenden deialdia egin du. <https://sedeelectronica.pamplona.es/VerDocumento/VerDocumento.aspx?IDdoc=1448494> Lanpostu honen zereginen artean ondorengo ezartzen da: "Udal-

bulegoetan pertsona guztiei arreta ematea, bereziki desgaitasuna duten pertsonen". Bestalde, udal ordenantzan herritarrek euskara erabiltzeko eskubidea dutela aitortzen bada, zergatik ez da kontuan hartzen euskararen ezagutza herritarrekin harreman zuzena eduki beharko duen lanpostuetan?

Erantzuna:

Iruñeko Udala: Lehenik eta behin plantilla organikoan postuaren perfila zehazten da eta horren arabera ateratzen da deialdia. Plantillan perfil hori alda daiteke, baina horren eskumena osoko bilkurak dauka. Osoko bilkuran gehiengoa behar da aldaketa hori egiteko eta gaur gaurkoz politikoki ez dago gehiengo hori holako postuei elebidun perfila jartzeko. Honek kontraesan handia suposatzen du, eta horretarako lanean jarraituko dugu.

Dosierra: 681-2025

Nori: IRUÑEKO UDALA - GOBERNU ESTRATEGIKOKO, HIRIGINTZAKO, ETXEBIZITZAKO ETA 2030 AGENDA ALORRA

Arrazoiak: Uztaila bukaeran dekretu baten berri emateko mezua bidali zigun udalak, Ingurumen Teknikariak, hain zuzen ere. Bertan, ekitaldiak antolatzeke egin beharreko berri batzuen informazioa zegoen, eta galdetegia egiteko esteka. Mezua euskaraz eta gaztelaraz idatzita zegoen, baina hortik aurrerako guztiak gaztelara hutsean. Galdetegia "Asesoria de eventos sostenibles en Pamplona" delakoak kudeatzen du. Galdetegia bete ondoren, udaleko sail horretatik mezua jaso genuen, hori ere gaztelara hutsez (sinadura ere ez dago euskaraturik). Eta jakina, bertan zeuden galdetegiak ere gaztelaraz.

Dosierra: 697-2025

Nori: IRUÑEKO UDALA - HERRITARREN SEGURTASUNA ETA BIZIKIDETASUNA

Arrazoiak: Iruñeko Udaltzaingoaren twitterreko kontu ofizialek (ez dakit bestelako sare sozialik duten) gaztelaniaz soilik jarraitzen da zabaltzen informazioa.

Erantzuna:

Segurtasun zinegotzia: 2025.urtean 62 txio bota dira euskaraz baina, hala ere, hasiko gara mezuak ele bitan zabaltzen eta horretarako Udaltzaingoan euskaraz dakien lanpostu bat jarriko da.

Dosierra: 730-2025

Nori: IRUÑEKO UDALA - HERRITARREN SEGURTASUNA ETA BIZIKIDETASUNA

Arrazoiak: Iruñeko Udalak jarri zidan trafiko isunaren jakinarazpena gaztelania hutsean bidali dit. Inprimakia eta, noski, isunaren beraren gaineko informazioa, den-dena gaztelania hutsean.

Erantzuna:

Herritarren Segurtasuneko eta Bizikidetzako Zinegotzi ordezkaria: Egia da, arazo bat dugu eta notifikazioak orain arte erderaz daude. Aplikazioaren kontu bat da. Azaroan eskatu zen hau konpontzeko. Ostiralean jarraipen bilera dago eta berriz ere eskatuko dira kontuak. Ea lehenbailehen konpontzen dugun.

Dosierra: 733-2025

Nori: IRUÑEKO UDALA - GIZARTE ONGIZATE ALORRA

Arrazoiak: Gaur Iruñeko Udalak gizarteratzeko goi-mailako teknikarien 9 lanpostu betetzeko deialdia argitaratu du. Euskararen ezagutza ez da beharrezkoa ezta plaza bakarrean: <https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2025/199/7> Besteak beste, gaitegian haur eta nerabeen eskubideak sartzen dira, baina hizkuntza eskubideak ez eta udalaren euskararen ordenantzaren ezagutzarik ez da kontuan hartzen. Ez da onargarria horrelako lanpostuetan hiriko berezko hizkuntzaren ezagutza eta herritarren hizkuntza eskubideekiko kontzientzia kontuan ez hartzea.

Dosierra: 738-2025

Nori: IRUÑEKO UDALA - HERRITARREN PARTAIDETZAKO ALORRA

Arrazoiak: Udazkeneko Partaidetzako Prestakuntza Ikastaroen liburuxka ez dago euskaraz udaleko euskarazko webgunetik deskargatu arren. Iruñeko Udalaren Herritarren Partaidetza alorretik antolatzen dira ikastaro hauek. <https://www.pamplona.es/sites/default/files/2025-09/participacioncast.pdf>

Erantzuna:

Iruñeko Udala: Irailaz geroztik, participa.pamplona webguneak hainbat funtzionamendu-arazo ditu, eta sortzaileek beraiek konpontzen saiatzen ari dira. Horietako bat euskarazko webgunea da. Hori dela eta, konpontzen den bitartean, gure asmoa da webgunean dagoen eduki guztia euskaraz eta gaztelaniaz argitaratzea. Batzuetan, bi albiste argitaratuz egin behar dugu, partaidetza-eskolarekin egin den bezala, eta, beste batzuetan, esteka bat jarri albistean

bertan, beste bertsiora eramaten zaituena. Honek eman dezakeen arazoa eta nahasmena laster konpontzea espero dugu. Webgunea sortu duen enpresa lanean ari da, eta Udalak bitartekoak jarri ditu epeak ahalik eta gehien laburtzeko.

Dosierra: 759-2025

Nori: IRUÑEKO UDALA

Arrazoia: Iruñeko Udalak Geltoki Iruña elkarteak 2026ra arte jarraituko duela kudeatzen autobus-geltoki zaharreko beheko solairua iragarri du euskaraz X sare sozialean. Berriaz gehiago jakiteko lotura bat ere ageri da bertan. Hara jo dut eta gaztelaniazko bertsioa zabaldu zait. Euskarazko bertsiora aukeratu dut eta berria gaztelaniaz ageri da.

Erantzuna:

Iruñeko Udala: Hiriak euskara eta gaztelania biak dituen berezko hizkuntzatzat, Iruñeko Udalak lortu nahi du, ahal dela, bi hizkuntza horietan izatea administrazio honetan prestatzen diren edukien, agirien eta izapideen % 100. Azken hilabeteotan martxan jarri diren politikek helburu hori betetzera daramate, baina aurrekontu-eta langile-mugak direla-eta, ez da posible helburu hori nahi bezain azkar betetzea. Prentsa oharretan, adibidez, egunero argitaratzen direnen herena-edo dago ele bitan; gainerakoak, ordea, aurreko aldietan gertatu bezala, gaztelania hutsean kaleratzen dira. Kexa honek xede duen oharra, esaterako, horien artean dago.

Dosierra: 761-2025

Nori: IRUÑEKO UDALA - HERRITARREN SEGURTASUNA ETA BIZIKIDETASUNA

Arrazoia: Iruñeko Udaleko Segurtasun Sailari 2 aldiz eskatu diot isunaren jakinarazpena euskaraz bidaltzeko. 3. aldiz gaztelania hutsean bidali dit.

Dosierra: 847-2025

Nori: IRUÑEKO UDALA - HERRITARREN SEGURTASUNA ETA BIZIKIDETASUNA

Arrazoia: Atzo Iruñeko Udaltzaingoak sare sozialetatik kartel hau eta mezua gaztelaniaz zabaldu zituen. X kontuan helbide hau ere jarri dute informazio gehiago emateko:

<https://policiamunicipal.pamplona.es/noticias/verNoticia.aspx?idNoticia=3077>

Orrialde hori euskaraz hautatzen baduzu "gaurkotasuna" izeneko atala desagertzen da eta hor dago hitzaldi hauen informazioa. Den-dena gaztelaniaz eta ez dago

euskaraz kontsultatzeko aukerarik. Zalantza sortu zait ea ikastetxeetan hitzaldi edo saio hauek euskaraz emateko aukera izango al duten dena gaztelaniaz dagoela ikusita.

Erantzuna:

Iruñeko Udala: Eskerrik asko abisatzeagatik. Zure eskaera Herritarren Segurtasuneko eta Bizikidetzako Alorreko zuzendariari helarazi diogu, aztertu eta balioetsi dezan.

Dosierra: 862-2025

Nori: IRUÑEKO UDALA - HERRITARREN SEGURTASUNA ETA BIZIKIDETASUNA

Arrazoia: Behatokiaren bidez jaso nuen nire kexa batekiko erantzunaren arabera, Iruñeko Udaltzaingoak sare sozialetatik euskara erabiltzen hasiko zela jakinarazi zidaten eta hala ematen zuen, baina berriro berdinerara bueltatu gara. X kontutik azaroaren 8tik aurrerako mezu guztiak gaztelaniaz dena. Adarra jotzen ari dira?

Erantzuna:

Prentsa eta Biktimei Laguntzeko Bulegoa: Egiten diren argitalpen batzuk, bai X kontuan bai Instagrameko profilean, gaztelaniaz bakarrik egiten dira. Horrelako egoerak gertatzen direnean, lehentasuna eman behar zaio informazio hori helarazteko premiari, herritarrengan izan dezaketen interesagatik edo eraginagatik. Era berean, gaztelaniaz egiten diren argitalpen batzuetan euskara ere agertzen da. Bestalde, aurreko egunetan esan genizun bezala, gure sare sozialetan euskararen erabilera areagotzen saiatzen ari gara. Honekin batera doazkizu gure argitalpenetatik ateratako argazkiak, hala erakusten dutenak. Hala ere, egindako aurrerapenekin ez gara konformatzen, eta helburu horrekin lanean jarraitzen dugu; beraz, pazientzia pixka bat gehiago eskatzen dizugu.

Dosierra: 929-2025

Nori: IRUÑEKO UDALA - HERRITARREN SEGURTASUNA ETA BIZIKIDETASUNA

Arrazoia: Iruñeko Udalak langile Batzordearekin 2025erako lan eskaintza publikoa onartu du. Deigarria Udaltzaingoko deialdiena, 27 plaza (12 txanda irekian) eta bakar batean ere ez da eskatzen euskararen ezagutza izatea (euskarazko perfila). Lanpostu guzti horiek herritarrekin eta hauei lotutako zerbitzuekin harreman estua dute. Iruñeko Udaltzaingoarekin ia ezinezkoa da euskaraz (berezko hizkuntzan) jardutea eta badirudi kontuak berdin jarraituko duela. Amorrua ematen du,

euskara eta euskal hiztunak gorrotatzen gaituzten sasi sindikatuek herritarrok baino botere gehiago al dute?

Dosierra: 944-2025

Nori: IRUÑEKO UDALA - KOMUNIKAZIO INSTITUZIONALEKO ETA GARDENTASUNeko ZUZENDARITZA -

Arrazoiak: Tramite bat egin nuen Iruñeko Udalean administrazio telematikoko bidez. Nire dokumentazioa eta gestioa euskaraz egin baldin banuen ere, tramitea erregistratu dela jakinaraziz eposta gaztelania hutsean bidali dit Iruñeko Udalak.

Dosierra: 960-2025

Nori: IRUÑEKO UDALA - KULTURA ALORRA

Arrazoiak: Iruñeko Civibox-etan egiten den jardueren eskaintzari kexa jarri nahi diot. Abenduan 46 jarduera programatu dira: 41 gaztelaniaz eta 2 ingelesez, euskaraz 3 soilik (denak haurrentzat). Urtarrilean 66 jarduera, gaztelaniaz 62 eta euskaraz 4 (horietatik 3 haurrentzat). <https://www.pamplona.es/sites/default/files/2025-11/civivoxactividades-2025-dic-enecompressed.pdf>

MANKOMUNITATEAK/HERRI ELKARGOAK (17)

Dosierra: 192-2025

Nori: IRUÑERRIKO MANKOMUNITATEA - BEZEROEN ARRETARAKO ZERBITZUA

Arrazoa: Iruñeko Mankomunitateak eskaintzen dituen zerbitzuen inguruan galdetegi bat egiteko telefono deia jaso dut. Euskaraz izango den galdetuta; erdaraz bakarrik dagoela esan didate. Ez dut egin. (Deia 946122703 tlf.znbk-tik egin dute. Bizkaitik. Erran didate galdetegia kudeatzen duen enpresa bat dela. Hots egin didanak erdaraz egiten zuen baina euskaraz ulertu egin dit).

Dosierra: 263-2025

Nori: BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOA

Arrazoa: Ur partzuergoaren webgunean harremanak euskaraz eduki nahi ditudala adierazita, harreman batean honako komunikazioa jaso dut, erdara hutsez ("Kaixo" ezik), eta bertan ondo jasotzen da euskaraz artatua izan nahi dudala: -----
-- Kaixo, No se ha podido hacer el cambio de domiciliación bancaria por fatar algún dígito del número de cuenta Un saludo De: oficinavirtual@consorciodeaguas.eus <oficinavirtual@consorciodeaguas.eus> Enviado el: lunes, 7 de abril de 2025 9:56 Para: Oficina Virtual CABB <oficinavirtual@consorciodeaguas.eus> Asunto: Domiciliación bancaria Domiciliación bancaria Este usuario quiere ser atendido en euskera Datos Personales Código abonado: Nombre y apellidos del abonado: XXXXXXXXXXXXXXXX NIF/CIF del abonado: XXXXXXXXXXXXXXXX Dirección de suministro: XXXXXXXXXXXXXXXX Población: BAKIO CP: Teléfono: XXXXXXXXXXXXXXXX E-mail: XXXXXXXXXXXXXXXX Datos Bancarios Cuenta: XXXXXXXXXXXXXXXX Titular: XXXXXXXXXXXXXXXX NIF Titular: XXXXXXXXXXXXXXXX Comentarios Comentarios: Código de usuario: XXXXXXXXXXXXXXXX Nombre de usuario: XXXXXXXXXXXXXXXX DNI/NIF de usuario: XXXXXXXXXXXXXXXX Teléfono de usuario: XXXXXXXXXXXXXXXX

Dosierra: 350-2025

Nori: AKITANIA-EUSKADI-NAFARROA EUROESKUALDEA

Arrazoa: Akitania Berria - Araba, Bizkai eta Gipuzkoako autonomia erkidegoa - Nafarroa euroeskualdeak gaztelania hutsean argitaratu du lan-eskaintza domekako

Corroen. Curriculumuma frantsesez eta gaztelaniaz bidaltzeko eskatzen dute. Euskaldunoi begirunerik batere ez.

Dosierra: 388-2025

Nori: NUKF - NAFARROAKO UDAL ETA KONTZEJUEK FEDERAZIOA

Arrazoa: NUKF-ek gaztelaniaz soilik eskaintzen ditu toki-entitateetako langileendako ikastaro orokorrak: <https://formacion.fnmc.es/eu/> <https://formacion.fnmc.es/eu/cursos/> Hortaz, euskaraz lan egiten dugun udal langileek trebakuntza gaztelaniaz soilik jaso dezakegu: ofimatika tresnen ikastaroak gaztelaniaz, herritarrendako arretari buruzkoak gaztelaniaz, estresa kudeatzea, administrazio prozedura, berdintasuna toki-entitateetan... NUKF-ek ez digu aukerarik ematen euskaraz formatzeko, ezta online diren ikastaroetan ere. Prestakuntza eskaintzan ere ez da jasotzen ikastaro horietatik zein diren gaztelaniaz eta zein euskaraz. Ezta zenbat eskaini dituzten hizkuntza bakoitzean: <https://www.fnmc.es/eu/noticias/3-000-pertsonek-hartu-dute-parte-nukfk-toki-erakundeentzako-antolaturiko-prestakuntza-ikastaroetan/> Berdintasunarekin lotutako ikastaroak ere gaztelania hutsez eskaintzen dira: <https://www.fnmc.es/eu/noticias/121-parte-hartzaile-izan-zituzten-nukfk-aurreko-urtean-sustaturiko-berdintasuneko-prestakuntza-ikastaroek/> Toki-entitateetako langile gisa, ikastaroak eta prestakuntza euskaraz jasotzeko eskubidea dugu, are gehiago, gu baikara herritarrekin lanean eskuz-esku aritzen garenak egunerokoan, ezinbestekoa da trebakuntza gure hizkuntzan jasotzea. Nafarroako Udala eta Kontzejuek Federazioak horretarako bermeak jarri beharko lituzke, horregatik eskatzen diot bere prestakuntza eskaintzaren baitan berma ditzala gure hizkuntza-eskubideak eta eskaini ditzala ikastaroak gaztelaniaz bezala euskaraz ere.

Erantzuna:

Lehendakaria: Jasotako kexari dagokionez, jakinarazi nahi dizut 2024ko prestakuntza-eskaintzan lau ikastaro eskaini genituela euskaraz. Ikastaro horiek dira: · Horietako bi euskara teknikarientzat: “kalkoak” eta “ikerketa soziolinguistikoko aplikatuaren egoera”. · Eta beste biak udaleko gainerako langileentzat: “Web-orria eta baliabideak”. On-line egiten diren Berdintasunari buruzko ikastaroei dagokienez, euskarara itzultzen ari gara une honetan, euskaraz ere eman ahal izateko. Prestakuntza-eskaintzan gaztelaniaz eta euskaraz dauden ikastaroak ez

direla zehazten diozunean, gure iritziz ez da horrela, eskaintza egiterakoan adierazten baitugu zein hizkuntzatan eginen den. 2025eko ikasturterako ere euskarazko prestakuntza-ekintzak programatzen ari gara. Hala ere, kexa aintzat hartuko dugu, ematen ditugun zerbitzuetan aitzina egiteko eta hobetzen jarraitzeko, eta ematen dugun prestakuntzari dagokionez, berriz, euskarazko prestakuntza-eskaintza eta -ekintzak zabaltzen eta hobetzen jarraitzeko. Azkenik, NUKFren 2025eko Lan Programak jasotzen du euskara Nafarroako berezko hizkuntza bat dela, egoera gutxituan dagoena, eta, beraz, normalizazio-prozesuaren urratsak ikuspegi eraikitzaile batetik defendatu behar direla. Horregatik, NUKFn euskara normalizatzeko urratsetan sakonduko dugu, baita egiturazko eta etorkizuneko ikuspegiarekin ere.

Dosierra: 411-2025

Nori: IRUÑERRIKO MANKOMUNITATEA - BEZEROEN ARRETARAKO ZERBITZUA

Arrazoia: Mankomunitateak jarri berri duen 5-14 urte bitarte umeentzako doako transporte txartelaren tramitazioa espainol hutsean egiteko beste aukerarik ez dago.

Dosierra: 416-2025

Nori: IRUÑERRIKO MANKOMUNITATEA - BEZEROEN ARRETARAKO ZERBITZUA

Arrazoia: Nere alabarentzat Iruñerriko Eskualdeko Mankomunitateko doako garraio txartela eskatu dut. Erantzuna elebidunez. ERDERAZ ETA INGELERAZ!!!

Dosierra: 451-2025

Nori: IRUÑERRIKO MANKOMUNITATEA - BEZEROEN ARRETARAKO ZERBITZUA

Arrazoia: Iruñerriko Mankomunitateak 15 urte azpiko haurrendako autobus txartela egiteko epea zabaldu du. Alabaren dokumentazioa postaz bidali nuen, baina hor nonbait datu bat ez zuten behar bezala jaso, eta 914816826 tlf. znbk-tik hots egin zidaten. Erdaraz artatu ninduten. Falta zitzaien datua postaz berbidali nien. Datua behar bezala jaso zutela postaz konfirmatu zidaten. Hau ere erdaraz (espainolez eta ingelesez).

Dosierra: 525-2025

Nori: GIZARTE ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA -ANTSOAIN, BERRIOBEITI, BERRIOZAR, ITZAKO ETA TXULAPAIN-

Arrazoia: Gaur Antsoaingo, Berriobeitiko, Berriozarko, Itzako eta Txulapaingo Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak, 2025. urterako lan publikoaren eskaintza argitaratu du. Kontuan izan behar da plantilla horretan ez dagoela euskararen nahitaezko ezagutza duen lanposturik. Bada, administrari laguntzaileen bi plaza eta gizarte langilearen plaza baten eskaintza egitea erabaki da. Euskara merezimendu izango den arren, ez da nahitaezkoa eta beraz ez dira mankomunitate horren zerbitzuak euskaraz eskaini ahal izateko neurri eraginkorrik hartuko. <https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2025/143/21> Gizarte zerbitzuek herritarrekin duten harremana eta egiten den lanaren garrantzia kontuan izanik, Mankomunitateari plantilla organikoan euskarazko zerbitzua bermatu eta herritarren eskubideak eta berdintasuna errespetatzeko neurriak eskatu nahi dizkiot.

Dosierra: 535-2025

Nori: IRUÑERRIKO MANKOMUNITATEA - BEZEROEN ARRETARAKO ZERBITZUA

Arrazoia: Iruñerriko Mankomunitateak, iaz bezala, aurten ere pankarta hauek jarri ditu zezen plazaren eta alde zaharraren arteko gunean, Labriten ondoan. Espainieraz handi-handi eta euskaraz askoz ere txikiago eta letra difuminatuz, ia ez irakurtzeko moduan eta bigarren mailan, ingelesaren pare. Hurrengo urterako aldatu dezala eskatzen diot Iruñerriko Mankomunitateari.

Erantzuna:

Komunikazio Teknikaria: Eskerrik asko abisatzeagatik. Kontuan hartuko dugu datorren urterako.

Dosierra: 537-2025

Nori: BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOA

Arrazoia: Gaur, Gatikako Udalak ur-eten batzuen gaineko abisua jaso du posta elektronikoz. Oharra Consorcio de Aguas de Bilbaok bidali du eta erdara hutsean idatzita egon da. Eta ez da lehengo aldia.

Dosierra: 538-2025

Nori: MALERREKAKO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA

Arrazoa: Malerrekako Mankomunitateak deialdi publikoa egin du hautaprobe bidez berdintasun-teknikaria aldi baterako kontratatzeko. Atzo, uztailak 21, azterketa izan zen. Azterketaren lehen proba, teorikoa, test bidezko galdeketa izan zen, eta gaztelania hutsez zeuden erantzun beharreko galderak. Ondorioz, azterketaren proba hori euskaraz lantzeko eskubidea ukatu zitzaigun hala egitea nahi genuen parte-hartzaileei, eta euskaldunon hizkuntza-eskubideak urratu egin ziren. Malerrekako Mankomunitateak badu Euskara Zerbitzua, eta berorren sorrera-estatutuetan hau dago jasota: "Mankomunitatearen xedea da euskararen diglosia-egoera aldatu eta hura normalizatzea". Gainera, aipatu behar da euskarazko C1 maila eskatzen zaiela hautaprobean parte hartu nahi dutenei. Honenbestez, atzoko azterketan gertatutako ez errepikatzea eskatzen dut, eta Mankomunitatearen jardura administratibo guztian euskaldunon hizkuntza-eskubideak errespetatzea eskatzen dut.

Dosierra: 589-2025

Nori: IPAR EUSKAL HERRI-ATURRIKO MUGIKORTASUN SINDIKATUA

Arrazoa: Argazkia ikusten bezalaxe, TxikTxak autobusak beraiei afixak frantses hutsez plazaratzen dituzte. Aski da!! euskara ofiziala!! Bidasoaldea Euskalduna eraiki!!

Dosierra: 607-2025

Nori: JURRAMENDIKO MANKOMUNITATEA

Arrazoa: Jurramendi Mankomunitateak ura moztuko duela jakinarazteko paperezko oharra jarri ditu Lizarrako Deierri etorbidean eta Dr. Uharte San Juan kaleetako etxebizitzetako atarietan. Oharraren argazkia erantsita. Testuaren antolaketa, gaia eta estetikarengatik, sistematikoki erabiltzen den oharra dirudi. Gaztelania hutsez dago.

Erantzunak:

Mankomunitateko legelaria: 103/2017 Foru Dekretuaren 20. artikuluko lehen (eta bigarren) tarte kiaren deuseztasuna deklaratu zen. Bertan, inprimakiak, idazki ofizialak eta administrazio-espeditenteak bi hizkuntzetan jakinarazteko

betebeharra ezartzen zen. Dagokigun kasuan, eta eremu mistoa izanik, erakunde honek ez du komunikazio elebidunak egiteko betebeharrik.

Nafarroako Arartekoa: Erabilitako ur-mozketaren abisuak gaztelaniaz bakarrik egoteari buruz, nahiz eta erakunde honek ulertzen duen komenigarria dela eztabaidagai diren abisuak formatu elebidunean egotea, uste du hori ezin dela legez eskatu. Izan ere, eman nahi zaien kalifikazioa gorabehera, azaroaren 15eko 103/2017 Foru Dekretuak, Nafarroako administrazio publikoetan, haien mendeko organismo publikoetan eta zuzenbide publikoko entitateetan euskararen erabilera arautzen duenak, ezartzen du eremu mistoko administrazioek formatu elebiduna erabiltzea ahalmen gisa, eta ez betebehar gisa (13. eta 14. artikulukoak). Jurramendiko Mankomunitateak kexagileak arestiko gaia salatze euskaraz aurkeztu zuen idazkiari gaztelaniaz bakarrik erantzun izanari buruz aipatu behar da, 103/2017 Foru Dekretuaren 13.1. artikuluko bigarren paragrafoaren arabera, ahalmen hori nahitaez bete behar dela espeditentea alderdi batek euskarazko idazki baten bidez eskatuta hasi denean. Beraz, hau jo du beharrezkotzat: Jurramendiko Mankomunitateari gogoraraztea lege eko betebeharra duela herriarrek euskaraz aurkeztu dituzten idazkiei formatu elebidunean erantzuteko.

Dosierra: 742-2025

Nori: BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOA

Arrazoa: Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa erakunde an jakinarazpenak soilik erdaraz bidaltzen dizkigu. Mezuaren argazkia erantsita bidaltzen dizuet.

Erantzuna:

Udal Sarean Zuzendariordea: Jakinarazi nahi dizuegu kexan adierazitako arazoari irtenbidea eman diogula. Gaur egun, gure jakinarazpena automatizatuak euskaraz eta gaztelaniaz bidaltzen dira, Gure helburua da herriar guztien hizkuntza-eskubideak errespetatzea eta bermatzea. Eskertuko genizueke etorkizunean antzeko egoerarik antzematen bada, horren berri ematea, gure zerbitzuak hobetzen jarraitu ahal izateko.

Dosierra: 779-2025

Nori: ZANGOZAKO ESKUALDEKO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA

Arrazoa: Atzo (urriaren 16an) Zangozako Eskualdeko Zerbitzuen Mankomunitateak familia-langileen hiru plaza oposizio-lehiaketa bidez betetzeko

deialdia argitaratu zuen. Euskararen ezagutza ez da nahitaezkoa baina merezimendu ere ez da. Lanpostu hauen izaera eta herritarrekin harreman zuzena dutelarik ez da ulertzen euskararen ezagutza kontuan ez hartzea, batik bat haur zein familiekin duten harremana dela eta. Nafarroako merezimenduen Dekretua erreferentzia bezala harturik, eremu mistoko toki entitateetako lanpostuetan herritarrekin harreman zuzena duten kasuetan euskararen ezagutza gutxienez baloragarria izan beharko litzateke. 97/2024 dekretuko 19.2.b artikuluko erreferentziak aplikatu beharko liratezke lanpostuek ematen dituzten zerbitzuekin harreman zuzena izateagatik, beraz, kasu honetan merezimenduen baremoaren gainerako zatiari esleitutako puntuazioaren %7 guxtienez.

Dosierra: 785-2025

Nori: SAKANAKO MANKOMUNITATEA

Arrazoiak: Sakanako Mankomunitateak hondakinen zerbitzuan lan egiteko lan-poltsa osatzeko deialdia egin du. Deialdiaren oinarriak gaztelaniaz baino ez daude. Euskara ofiziala den eremuan ere administrazioa bera eskubideen eta araubidearen urratzaile.

Erantzuna:

Idazkaria: Lehenik eta behin argi utzi nahiko nuke gure entitateak euskararekin orain arte izandako prestutasun eta konpromezua. Bestalde, jakinarazi nahiko genizueke gertatutakoa akats bat besterik ez dela izan eta jada deialdiko oinarriak euskaraz igo ditugula gure web orrira. Hala ere, harritzekoa da oraindik deialdian inor apuntatu ez dela kontutan izanda, zuzenean Behatokia joan izana kexa jartzera. Bereziki gure Mankomunitateak horrelako gertakarien batean akatsak zuzendu eta elkarlanerako duen jarrera kontutan hartuta, kexa jarri duen herritarrari hurrengoan zuzenean guregana jotzea eskertuko genioke, ateak zabal zabalik baititugu egoera hauen kudeaketa eta herritarren parte hartzearen bitartez lankidetzaren harremanak bermatzeko. Besterik gabe, izandako akatsaz abisatzeagatik eskertzea nahiko genizueke.

Dosierra: 856-2025

Nori: ARRATIAKO MUSIKA ESKOLA

Arrazoiak: Arratia Musika Eskolako irakaske batek, lan kontuak tarteko, Gabonak arte ezingo du eskolarik eman eta ordeko bat bilatu du zuzendaritzak. Ez zaigu

jakinarazi ordeko irakasleak klaseak gaztelaniaz emango dituenik eta egoeraz kexatzeko emaila bidali genien astearte iluntzean. Erantzunean, besteak beste, irakaslea topatzeko izan dituzten zailtasunak aipatu dizkigute, baina larritu gaituena azken esaldia izan da: “Uste dugu horrek ez duela eraginik izango klaseen garapen onean”. Emailak osorik bidaltzea nahi izanez gero, ez dugu inolako arazorik.

NAFARROAKO PARLAMENTUA (3)

Dosierra: 202-2025

Nori: NAFARROAKO PARLAMENTUA

Arrazoiak: Nafarroako Parlamentuko harrera egiten duten foruzaingoez ez daukate euskararen oinarritzko jakintzarik. 2025eko martxoaren 10ean Nafarroako Parlamentuan sartu eta harrera egiterako orduan, nentorren erakundearen izena aipatzerakoan, foruzaingoez ez zuen jakin euskarazko izena ahoskatzen ere, eta are gehiago, ea euskara zen galdetu zidan.

Dosierra: 443-2025

Nori: NAFARROAKO PARLAMENTUA - NAFARROAKO ARARTEKOA

Arrazoiak: Ekainaren 12an Nafarroako Arartekoaren urteurren ekitaldirako gonbidapena jaso genuen. Emailaren gaia eta gonbidapenaren konfirmazioa egiteko plantila mezua gaztelaniaz zeuden, ondorengoa jartzen zuen: "Buenos días, Por la presente confirmo mi asistencia al acto conmemorativo del 25 Aniversario de la Ley Foral del Defensor del Pueblo de Navarra Nombre: Apellido: Email: Empresa/entidad:" Erakundea ohartarazi genuen eta presagatik akatsa izan zutela erantzun ziguten. Bada, ekainaren 16an email berbera bidali zuten. Arartekoarena bezalako erakunde batek euskararen presentzia zaintzea berebizikoa da giza eskubide eta Nafarren berdintasunaren aitortzan.

Erantzuna:

Arartekoa: Egindako akatsa aitortzen eta deitoratzen dugu, barkamena eskatzen dizuegu eta gure barne-funtzionamenduko irizpideak berrikusteko konpromisoa hartzen dugu, azaldutakoa bezalako gertakariak saihesten saiatzeko.

Dosierra: 658-2025

Nori: NAFARROAKO PARLAMENTUA - NAFARROAKO GOBERNUA - HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA - Lanbide Heziketaren Antolamenduaren, Prestakuntzaren eta Kalitatearen Zerbitzua

Arrazoiak: Ostiralean, irailaren 5ean, Lanbide Heziketako Zuzendaritzako telefonoetara deitu nuen, gaztelaniaz agurtu ninduten, euskaraz zekien norbait ba ote dagoen galdetu (errazagoa egiten zait azalpenak euskaraz ematea) eta ezetz erantzun zidaten. Gaztelaniaz azaldu behar izan nion gaia ahal nuen bezala,

Hezkuntza Departamentuko beste telefono batetara bideratu ninduten eta hor ere gaztelaniaz egin behar nuela erantzun zidaten. Lotsagarriak eta penagarriak dira Nafarroako Hezkuntza Departamentuan arreta eta informazioa jaso eta edozein tramite euskaraz egiterakoan aurkitzen ditugun egoerak eta mespretxuak. Informazio orokorretako telefonoez gaildi (eta hauetan ere batzuetan ez dago euskaraz artatuko gaituen inor), atal guztietan arreta euskaraz bermatu beharko lukete.

BIZKAIKO GARRAIO PARTZUERGOA (2)

Dosierra: 97-2025

Nori: BIZKAIKO GARRAIO PARTZUERGOA - METRO BILBAO

Arrazoa: Metro Bilbao SA enpresa publikoak bi lan-deialdi egin ditu, non titulazio-mailagatik eta egin beharreko lanagatik eskatu beharreko euskara maila baxuagoa eskatzen den eta, gainera, ingelesekoa baino apalagoa.

Dosierra: 932-2025

Nori: BIZKAIKO GARRAIO PARTZUERGOA - METRO BILBAO

Arrazoa: Bilboko Metroaren trenak zerbitzuz kanpo daudenean SIN SERVICIO baino ez dute adierazten trenetako pantailetan.

Erantzuna:

Bezeroen arreta koordinatzeko teknikaria: Zure kexa jaso ondoren, gaia zegokion teknikariekin kudeatu dugu. Ondorioz, jakinarazten diguzu trena garraio-zerbitzurik egin gabe doala edota probatzen ari direla jakinarazteko mezu hori euskaraz ere jarriko dela. Dena den, horretarako software berria jarri behar denez, denbora apur bat beharko da.

BESTERIK (8)

Dosierra: 212-2025

Nori: GIPIZKOAKO GARRAIOAREN LURRALDE AGINTARITZA

Arrazoiak: Mugi txartela eskatzeko eskaera egin dut. Datu batzuk falta direla eta mezu bat bidali didate. Mezua ele biz dago, baina eskaerara sartzeko botoia gaztelaniaz hutsez dago "Corregir solicitud" eta bertatik ere aplikazioaren gaztelaniazko bertsiora eramaten zaitu. Nahiz eta eskaera guztia euskaraz egin.

Dosierra: 423-2025

Nori: GIPIZKOAKO GARRAIOAREN LURRALDE AGINTARITZA - LURRALDEBUS -

Arrazoiak: Lurraldebus sareko Pesa lineetako txartelak erostean (Bilbotik Arrasatera eta Arrasatetik Donostiara nire kasuan), nahiz eta euskaraz nabigatu txartelekin batera jasotzen den mezu elektronikoa gaztelania hutsean jaso dut.

Erantzuna:

Bezeroaren Arreta Zerbitzua: Web-orria, hasiera batean gaztelaniaz konfiguratuta dago. Beraz, informazio zehatza eskuratzeko eta bidaia-txartelak erosteko, aldatzeko edo ezeztatzeko, bakoitzak nahi duen hizkuntza hautatu behar du. Ulertzen dugu horrek eragozpenak sor diezazkiekeela erabiltzaileei, baina, esan dugun moduan, web-orriaren konfigurazioaren ondorioz gertatzen da hori. Hori dela eta barkamena eskatzen dugu zinez

Dosierra: 485-2025

Nori: GIPIZKOAKO GARRAIOAREN LURRALDE AGINTARITZA

Arrazoiak: Lurraldebusen Donostia-Bilbo-Donostia zerbitzuan, autobusetako pantailetan irakurgai dagoen euskarazko informazioa, kalkoa izateaz gain, oso kaskarra da: gramatika-eta ortografia akats onartezinak, gehi atzerakarga handia duten esaldiak, euskara jatorraren kalterako.

Dosierra: 665-2025

Nori: GIPIZKOAKO GARRAIOAREN LURRALDE AGINTARITZA - LURRALDEBUS -

Arrazoiak: Lurralde BUSen TO02 linearen ordutegiak adierazten dituen taula gazteleraz egin dute nagusiki.

Erantzunak:

Lurraldebusen Bezeroaren Arreta Zerbitzua: Jakinarazten dizuegu tamalez, okerreko bertsio bat inprimatu zela. Hala ere web orrian eta beste kanaletan bertsio zuzena argitatu zen. Sentitzen dugu gertatutakoa eta hurrengoetarako enpresa emakidunari ere arreta gehiago jartzeko eskatu zaio, horrelako akatsak saihesteko.

Dosierra: 690-2025

Nori: BILBAO AIR - BILBOKO AIREPORTUA SUSTATZEKO SOZIJATEA - BILBOKO MERKATARITZA GANBERA -

Arrazoiak: Bilbo Air erakundearen webgunea gaztelania hutsean dago.

Dosierra: 727-2025

Nori: EUROPAKO KONTSEILUA - European Centre for Modern Languages- Hizkuntza Modernoen Europako Zentroa

Arrazoiak: European Centre for Modern Languages eta Europako Kontseiluari eskatu nahi diet irailak 26 Europako hizkuntzen egunerako sortutako webgune eta materialean euskara ere txertatu dezan. Pena da <https://jel.ecml.at/en/Downloads-and-materials/Posters> gunean eskuragarri dauden posterretako asko euskarara itzulita ez egotea eta gainera, beste hizkuntzetan dauden posterretan euskararik ez agertzea. Karteletako asko katalanez edota galegoz daude adibidez, baina euskaraz ez: <https://www.ecml.at/Portals/1/documents/ECML-resources/EDL-infographic-languages-2022-CA.pdf> <https://www.ecml.at/Portals/1/documents/ECML-resources/EDL-infographic-languages-CA.pdf> <https://www.ecml.at/Portals/1/documents/ECML-resources/EDL-infographic-languages-2024-GL.pdf> <https://www.ecml.at/Portals/1/documents/ECML-resources/language-journey-regional-minority-languages-GL.pdf>

Erantzuna:

Hizkuntza Modernoen Europako Zentroa: Gustura sartuko genituzke egungo baliabide eta testuen euskarazko bertsioak Hizkuntzen Europako Egurenaren webgunean. Bertako material guztiak borondatez itzultzen dira. Jatorrizko berriemilea edukiren bat itzultzeko prest egongo balitz, materialak formateatu eta webgunearen bidez sustatzen direla ziurtatuko genuke. Horrez gain, gunearen euskarazko lokalizazio bat martxan jartzea gustatuko litzaiguke baldin eta

mantentzeko euskal hiztun bat eskuragarri badago. Itzulpen fitxategiak hornitu ditzakegu, bai webguneko testuetarako, bai bertan agertzen diren baliabideetako edozeinetarako. Mesedez, jakinarazi ea iradokizun hau interesgarria den.

Dosierra: 813-2025

Nori: GIPUZKOAKO GARRAIOAREN LURRALDE AGINTARITZA

Arrazoia: MUGI txartelari dagokion mezu elektronikoko bat gaztelania hutsean jasotut.

Erantzuna:

Gai orokorretarako teknikaria: Lehenik eta behin barkamena eskatzea da gure nahia, eta aldi berean jakinaraztea salatutakoa akatsa bat izan zela eta bitartekoak jarri direla berriro gerta ez dadin.

Dosierra: 834-2025

Nori: GIPUZKOAKO GARRAIOAREN LURRALDE AGINTARITZA

Arrazoia: 2025eko abuztuan, Goierriko autobus lineatan 2 autobus berri jarri ditu Foru Aldundiak. Irudietan ikusten den bezela, informaziorako pegatinak, gaztelera hutsean daude.

KEXAK

SEKTORE
PRIBATUA



2

AISIALDIA/KULTURA/KIROLA (49)

Dosierra: 8-2025

Nori: ATHLETIC CLUB

Arrazoa: Athleticen argitaratutako albistean perla hauek ageri dira: "Iparralden [sic]"; "Lapurdiko Urt [sic], Urcuit [sic], Lahonce [sic] eta Briscous [sic] herrietako klubak"; "AS Bidache FC, Bidachekoa [sic]". Dirudienez, Athletic ez da Bilbokoa, "Bilbao"-koa baino ez da. Tristea gero. Baina haxe da errealitate gorria.

Dosierra: 21-2025

Nori: EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA

Arrazoa: Euskal Mendizale Federezioko kidea naiz, 4 aldizkari jasotzen ditut urtean eta hauek normalean ia elebidunak izaten dira (artikuluaren %40 inguru euskaraz, %60 inguru gaztelaniaz). Bada, 2024ko azken lau hilabeteko aldizkarian (federazioaren 100.urteurrenekoa) %99 inguru gaztelania hutsean dago. Atzerapauso izugarria iruditzen zait eta bada garaia gutxinaka eduki guztiak euskaraz irakurtzeko aukera izatea, euskaldun asko gaztelaniaz irakurtzera bultzatzen gaituzte eta Euskal Mendizale Federazioak euskara bultzatzeko betebeharra ere izan beharko lukeela iruditzen zait. Beraz, atzerapausorik ez ematek harago, aldizkarian euskarazko artikulu gehiago txertatzeko eskatu nahi diot federazioari.

Dosierra: 153-2025

Nori: YELMO CINES GASTEIZ

Arrazoa: Joan den otsailaren 8an, Gasteizko Boulevard saltokiko Yelmo zinemetan film bat ikusi genuen. Txartelak erosteko sarreraren albo banatan, makina bana jarrita dute txartelak erosteko. Paretan informazioa euskaraz badago, sarrera erosketa espainolez hutsean egin behar izan nuen, informazioa eta erosketa prozesua soilik hizkuntza honetan eskainia dago-eta. Erosketaren prozesuko argazkiak bidaltzen dizkizuet. Bide batez erran, webgunea espainolez hutsean idatzia dela. <https://www.taquilla.com/vitoria-gasteiz/yelmo-cines-boulevard-vitoria-gasteiz>

Dosierra: 163-2025

Nori: ALBIA KAFE ANTZOKIA SA

Arrazoa: Bilboko Kafe Antzokian euskal musika talde baten sarrerak erositakoan, ordainketa egin ostean jasotzen den baieztapen emaila gaztelera hutsean dago.

Dosierra: 176-2025

Nori: YUMP YARD

Arrazoa: JumpYard jolas parkean dena dago gaztelaraz, kartelak eta dena elebazarrez dago. Bertako langile batek bakarrik ulertzen du, baina inork ez du menperatzen.

Dosierra: 180-2025

Nori: GUGGENHEIM BILBAO MUSEOA

Arrazoa: Guggenheim museoan bisita genuen ikastetxeko bi ikastalderekin eta euskaraz bakarra egin zitekeela esan dute. Gaztelaniaz edo ingelesez izan zitekeela bestea baina euskaraz, ez. Azkenean, ikasle talde batek gaztelaniaz jaso du bisitaren azalpena.

Dosierra: 204-2025

Nori: SOCIEDAD ANÓNIMA DEPORTES Y ESPECTÁCULOS (SADE)

Arrazoa: Donostiako Sade Zinemak (Principe, Trueba eta Antiguoberri zinemak) webgunea gaztelania hutsez dute: <https://sadecines.com/> Euskaraz ere eskuragarri jar dezaten eskatu nahi dut.

Erantzunak:

Marketing arduraduna: Adierazi nahi genuke, gure webgunea euskaratzeko lanak abiatu ditugula eta gaur-gaurkoz, euskaratuko dugula bermatu dezakegula. Aldi berean argitu nahiko genuke gure webguneak bi atal dituela: bata guk garatutako kodearena eta bestea, Admit One enpresak garatutako SaaS-a eta konplexutasun hau medio, itzulpen lanetarako Donostiako Udalaren Euskara Zerbitzuarekin eta geure errekurtsu propioez baliatu garela ahalik eta ondoen eta azkarren egin ahal izateko. Duela gutxi jakin genuen AdmitOne enpresak bere softwarea itzultzearen konpromisoa hartu duela eta, paraleloan, guk ere sadecines.com euskaratuko dugu. Ilusio handiz esan dezakegu euskaldunon eskubideak bermatzeko helburua

lortzetik gertu gaudela, eta horrek oso zoriontsu egiten gaituela. Besterik gabe, gure esfortzua aintzat hartuko duzelakoan,

Dosierra: 231-2025

Nori: CLUB CICLISTA BIDEBIKE

Arrazoia: Atzo izan zen Bilbao-Bilbao martxa zikloturista. Babesleen artean Eusko Jaurlaritza eta Bilboko Udala daude. Webgunea euskaraz ere badago (<https://www.bilbaobilbao.com/eu/home-eusk/>), baina Zamudioko parke teknologikoan izan zen geldialdian (janaria eta edaria banatzekoa), speaker-ek den-dena esan zuten gaztelania hutsean. Antolatzaileek ahalegina egin beharko lukete esaten dutenaren erdia gutxienez euskaraz ere esateko, EAEko legea betetze aldera eta bertan ginen euskaldunekiko errespetuagatik.

Dosierra: 260-2025

Nori: SOCIEDAD ANÓNIMA DEPORTES Y ESPECTÁCULOS (SADE)

Arrazoia: Sade Cinema web orritik, Donostiako 3 zineetako zine eskaintza egiten duen web orritik, txartelak ezin dira euskaraz erosi.

Dosierra: 274-2025

Nori: DONOSTI EVENTOS S.L. - DONOSTICUP -

Arrazoia: Bigarren urtea da DONOSTICUPen alabaren izen- ematea egiten dudala eta, nahiz eta web orria euskaraz ere badaukaten, jasotzen ditudan email guztiak gaztelaniaz izaten dira

Erantzuna:

Donosticup: Mezu elektronikoko automatikoak gaztelaniaz bidaltzen ari zaizkizu, hizkuntzaren atalean ez zenuelako bete eta programak automatikoki aukeratzen zuelako gaztelania. Oraintxe bertan aldatuko dut, agian mezu elektronikoko errepikatu bat iritsiko zaizu, baina ez egin kasurik. Barkatu eragozpenak eta mila esker!

Dosierra: 316-2025

Nori: SPARTA SPORT CENTER -Zarautz-

Arrazoia: Sparta Sport Centeren propaganda orria jaso dugu gaur Zarauzko gure postontzian, erantsita bidaltzen ditut honen bi argazki. Euskaraz ez du hitzik ere,

ezta QR kodeak eramaten duen webguneak ere. Euskaldunon hizkuntz eskubideen urraketa jakinarazpen hau egin nahi dut, eta ondorioz, enpresa honi promozioa euskaraz egiteko eskabidea luzatu nahi diot.

Dosierra: 317-2025

Nori: SPARTA SPORT CENTER -Zarautz-

Arrazoia: Sparta kirol zentro berria irekitzeko bidean, web orria, iragarkiak, kartelak... 100% gaztelaraz zabaltzen ari dira, Zarautzen.

Dosierra: 326-2025

Nori: ATHLETIC CLUB

Arrazoia: Athleticen X sare sozialeko kontu ofizialean ingelesa eta gaztelania euskararen aurretik lehenesten dituzte. Euskarazko kontuan bideo honi ez diote inolako mentziorik egiten:
<https://x.com/AthleticClub/status/1916874703739748835>

Erantzuna:

Kanpoko Harremanetarako eta Bazkideenganako Arretarako Arduraduna: Gure sare sozialen arduradunei helaraziko dugula jakinarazten dizuegu, hobetzeko asmoz.

Dosierra: 333-2025

Nori: SPARTA SPORT CENTER -Zarautz-

Arrazoia: Sparta Sport Center enpresak, gimnasio berria ireki behar du Zarautzen, eta iragarki guztiak (facebook, kartelak...) gaztelara hutsena zabaltzen ari da.

Dosierra: 339-2025

Nori: SPARTA SPORT CENTER -Zarautz-

Arrazoia: Sparta Sportek promozio oso onak egin ditu... Den-dena gaztelaniaz, bai sare sozialetan, bai haien webgunean (Zarautz, TZ-rekin idatzi dutela, ez dut euskarazko beste hitzik topatu), eta etxeetara bidali dituzten planfletuetan ere berdin, dena gaztelara betean.

Dosierra: 352-2025

Nori: SOCIEDAD ANÓNIMA DEPORTES Y ESPECTÁCULOS (SADE)

Arrazoa: SADE Cines-en webgunean, film bat ikusteko sarrerak erosi nahi izan ditut, eta webgune guztia gaztelania hutsean dago. Horrek kontsumitzaileen hizkuntza-eskubideak urratzen ditu, bezeroek informazioa euskaraz jasotzeko eskubidea baitute: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/-/informazioa/hizkuntza-eskubideak-kontsumo/>

Dosierra: 358-2025

Nori: ATHLETIC CLUB

Arrazoa: Nazioarteko ekitaldiei begira, euskarak merezi eta behar duen tokia izan beharko luke (zer esanik ez Euskaraldia betean) Kartel hau San Mames estadioan jarri dute Europa Liguako finala dela eta. ("Stadium, Estadioko, Estadio") Kartela teoriarik UEFAk ezarri du, baina finala Bilbon egitea hiru erakunde publikok (Eusko Jaurilaritza, Aldundia eta Bilboko Udala) ere bultzatu dute. Nola ez, Athletic-ek berak ere bere estadioetan jartzen diren karteletan euskarazko mezu zuzenak jarri eta euskarari lehentasuna ematen zaiola bultzatu beharko luke.

Dosierra: 387-2025

Nori: SOCIEDAD ANÓNIMA DEPORTES Y ESPECTÁCULOS (SADE)

Arrazoa: Donostiako Sade Zinemak bere web ataria gaztelania hutsez izaten jarraitzen dute: <https://sadecines.com/> Nola da posible? Noizko euskaraz ere?

Dosierra: 398-2025

Nori: MAX (HBO Nordic AB)

Arrazoa: Max plataformara (lehenengo HBO) euskarazko mezua bidali genuen (Harry Potter sagako pelikulen euskarazko audioak eta azpidatziak gehi ditzatela eskatzeko) euskaraz gaztelaniaz idazteko eskaera jaso genuen.

Dosierra: 414-2025

Nori: ARABAKO SASKIBALOI FEDERAZIOA - ARABAKO KIROL ETXEA-

Arrazoa: Gaur Arabako Saskibaloiko Federazioak banatu ditu denboraldi honetako sariak, 16 urte bitarteko kategorietan, eskola kirolari dagozkionak batez ere. Ekitaldian, Arabako Foru Aldundiko zein Gasteizko Udaleko kirol sailletako ordezkariak ere parte hartu dute. Sariak ere banatu dituzte. Ekitaldia gaztelera hutsez izan da (euskaraz entzun dudak bakar, "eskerrik asko" izan da) eta banatu

dituzten euskarriak ere gaztelera hutsez zeuden. Askotan azpimarratzen da administrazioetatik kirolean euskaraz aritzeak duen garrantzia, etab. Bada, gaurkoa bezalako ekitaldietan, horrelako lanketa guztiak baliorik gabe uzten dute. Harrigarria egin zait banatu dituzten ikurretan AFaren logoa ikustea gaztelera hutsez dagoen inskripzio baten ondoan.

Erantzunak:

Euskara Zerbitzua: Kexan aipatzen den ekitaldia ez da Gasteizko Udalaren eskumenekoa; beraz, kexa ez dagokio Gasteizko Udalari, baizik eta Arabako Foru Aldundiari. Izan ere: - Arabako Saskibaloiko Federazioaren sari-banaketa izan zen, eta lurraldeetako kirol-federazioen zaintza eta kontrola foru-aldundiei dagokie, ez udalei. - Eskola-kirola ere Foru Aldundiaren eskumena da, ez Udalarena. - Udaleko Kiroleko zinegotziak parte hartuko zuen, baina ekitaldia ez zuen Gasteizko Udalak antolatatu. Arabako Foru Aldundiak edo Arabako Saskibaloiko Federazioak antolatu zuten (dosierreko argazkiko garaikurrean Foru Aldundiaren logoa ikusten da). Hortaz, bi erakunde horiei zegokien ekitaldiaren hizkuntza-irizpideak ezartzea eta kontrolatzea.

Kirol zuzendaria: Arabako kirol-federazio guztiek ezagutzen dituzte herritarren hizkuntza-eskubideei buruz dituzten betebeharrak. Arabako Foru Aldundiak hainbat urtez lan egin du langileak ahalduz, besteak beste, dirulaguntzen eta langileak euskalduntzeko planen bidez, hainbat erronkari aurre egiteko, hala nola hizkuntza-erronkari. Jasotako salaketari dagokionez, jakinarazten dizut 2025eko ekainaren 13an, Kirol Zuzendaritza honek idazki bat bidali ziola Arabako Saskibaloiko Federazioari, izandako sari banaketan Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialen erabilerari buruzko araudia ez betetzeko arrazoiei buruzko erantzuna eskatzeko. Ostegunean, ekainak 26, jaso dugu bere erantzuna. Bertan dio, ekitaldiaren aurkezpena hitz hauekin hasi zela: "Egun on guztioi. Oso pozik gaude Arabako eskolarteko saskibaloiko sari banaketa honetan." Ondoren, sariak gaztelaniaz banatu ziren, aurkezpen horiek egiteko langile elebidunik ez zegoelako. Trofeoen plakei dagokienez, honako hau adierazi du: "gaztelaniaz serigrafiatutako plakak entregatu ziren, trofeoen tamaina txikiak plaka horiek bi hizkuntzetan jartzea eragozten zuelako, eta daukagun denbora tartearekin, lehiaketak amaitu ondoren, ezin izan dugu talde bakoitzaren izena plaka horietan jarri". Azkenik, adierazi du Arabako Saskibaloiko Federazioak "gai horiek landuko dituela Arabako Foru Aldundiarekin etorkizunean egingo diren ekitaldietarako, egoera horiek

errepika ez daitezen". Zuzendaritza honek idazki bat bidali die, 2025eko ekainaren 20an, Arabako kirol-federazio guztiei, hizkuntza-betebeharrak gogorarazteko, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren 2/2023 Legearen arabera. Idazki berean, erabilgarri gerta dakizkiekeen baliabide guztiak biltzen dituen esteka bat erantsi zaie: - Euskara-planak egiteko laguntza teknikoa. - Sentsibilizazio- eta prestakuntza-saioak entrenatzaileentzat - Entrenamenduetan euskararen erabilera sustatzeko programa - Web-orriak euskaraz itzultzeko laguntza - Itzulpenak - Euskararen erabilera sustatzeko dirulaguntzak: Arabako Foru Aldundia Vitoria-Gasteizko Udala Eusko Jaurilaritza LanHitz Arabako Saskibaloï Federazioko presidentearen erantzuna jaso ondoren, epe laburrean bilera batera deituko dugu. Bilera horretan, Arabako federazio bateko arduradun gisa legeaz dagokion hizkuntza ofizialen erabilerari buruzko araudia betetzeko dituzten zailtasunen aurrean konponbideak aurkitzen saiatuko gara.

Kirol Zerbitzuburua: Gasteizko Udaleko Kirol Zerbitzuak hurrengo neurriak hartu ditu: . Arabako Kirol Federazioari gogorarazi dio udal instalazioak erabiltzeagatik hobariak jasotzen dituztenean, Udalak betebeharreko hizkuntza-irizpide berak mantendu behar dituela. . 2026-2027 denboraldirako Udalak federazioekin sinatzen duen akordioan atal berri bat gehituko da "Vitoria-Gasteizko Udalean hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak. VII. Plangintzaldia (2023-2027) dokumentuan aipatzen diren irizpideak".

Dosierra: 501-2025

Nori: DONOSTI EVENTOS S.L. - DONOSTICUP -

Arrazoia: Gure alabak talde bat ekarri du Kataluniatik Donosticup (izena ere....) jokatzera, partidua ikustera ezin bertaraturik beraien web orrian begiratzen ari naiz ea nola ote doazen..... hizkuntza aukeratzerakoan, euskara hautatu dut noski, eta..... betiko miseria berdina, orriaren zati asko ingelesez gaztelerarekin aproba egin dut eta noski, %100 gazteleraz. Beraiei ere bidaliko diet nire kexa, baina zuek ere jakinaren gainean egotea nahi nuen

Dosierra: 504-2025

Nori: ASFEDEBI - BIZKAÏKO KIROL FEDERAKUNTZEN ELKARTEA -

Arrazoia: Custom4-tik mezu iraingarri, mehatxugarri eta errespetu gabekoa jaso dut. Neuk esukara hutsean egin diet eta beraien partetik dena erderaz erantzun

didate. Hitzordua hartzeko ASFEDEBIKO web orrira joan behar zara, badirudi Custom-ek kolaborazio lanak egiten dituela Asfedebirentzako eta oinarritzko frogak medikuen hitzorduak beraien bitartez egiten direla. Gauza da Euskaldunon eskubideak ez direla aintzat hartzen eta Custom-etik beraiek ez dutela euskera jakin behar esan didatela. Nik euskera hutsean egin diet eta agian gustatu ez eta horregaitik jaso dut mezu mehatzugarria. Kronograma jarraituz idatzia egin dut eta atzikirik jasotako mezuak

Erantzuna:

Lehendakaria: Gertakari hauen testuinguruan, adierazi behar da CUSTOM4ko bulegoko arduradunak akats baten ondorioz posta elektronikoa bat bidali zuela, ASFEDEBIk administrazio-arloko arduradunari zuzenduta egon behar zuen mezua jaso ez zuen pertsona bati iritsiz. Ondorioz, erantzuna gaztelaniaz eman zen. Egoera horren ondorioei aurre egiteko, bai erabiltzaileari bai ASFEDEBIri dagokionez, komunikatu ofizial bat bidaliko da, hizkuntza- eskubideei buruzko indarrean dagoen araudia betetzea derrigorrezkoa dela gogorarazteko. Komunikatu horretan, bereziki 2023ko 4/Legea, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutua, 79. artikulua aipatu eta erabiltzaileek informazioa jasotzeko eta harremanetan jartzeko eskubidea dutela zehaztuko da, bai euskaraz bai gaztelaniaz aukeratzeko dutenean Halaber, 1982ko 10/Legea, euskararen erabilera normalizatzeko aipatu eta euskararen ofizialtasuna eta herritarren eskubideak gogoraraziko dira, ahoz zein idatziz, diskriminaziorik gabe.

Dosierra: 541-2025

Nori: CINESA-COMPAÑÍA DE INICIATIVAS Y ESPECTÁCULOS, S.A.

Arrazoia: Donostiako Garbera merkataritza-guneko zinemak kudeatzen dituen Cinesa enpresak gaztelera hutsean eskaintzen ditu sarrerak erosteko webgunea, sarrerak bertan erosteko makinak, rotulazio guztiak, filmen aurretik botatako iragarkiak, ... eta langile ia guztiak ere erdaldunak. Euskarak ez dauka inolako presentziarik zinema hauetan.

Dosierra: 543-2025

Nori: PUNTA GALEA TXIRRINDULARI ELKARTEA

Arrazoia: Erantsita doakizue Getxoko Zirkuituak gaurko -uztailak 25 dituela- Corroen argitaratu duen iragarkia, lasterketak zirkulazioan izango dituen eraginez

ohartarazteko a; erdara huts-hutsean dago eta, besteak beste, hainbat administrazio publikoren* logoak dakartza. *"Bilbao[ko]" [sic] Udalarena; Getxoko Udalarena; Bizkaiko Foru Aldundiarena.

Erantzuna:

Punta Galea elkartea: Kontuan hartuko dugu hurrengo edizioetan.

Dosierra: 556-2025

Nori: FITNESS PARK - Donostia -

Arrazoiak: Donostiako Alde Zaharrean Fitness Park kirolgunea ireki berri dute eta web orria ez dago euskaraz, ez naute ezta ere euskaraz artatu, pena da hain kiroldegia modernoa eta punta-puntakoa izanik, eta halako dirutza gastatu ondoren obretan, euskara guztiz baztertu izana multinazional honek, non eta Donostiako bihotzean.

Erantzuna:

Zuzendaritza: Mezua eta kexa ez ditugu oso ondo ulertzen. Harritzen gaitu norbaitek gure komunikazioak kaltetu izana, bai Donostiako Udala eta bai Usurbilgoa konforme eta pozik baitaude Gipuzkoako bi klubetan ditugun errotuluekin. Instagrameko argitalpenak txandakuz egiten dira, saltzailearen arabera; izan ere, ezin ditugu curriculumak jatorriaren arabera bereizi. Gure taldeak portugaldarrak, frantsesak, euskaldunak eta valentziarrak dira. Hala eskatzen dutenei euskaraz erantzungo zaie, keinu hori egitea posible bada. Webgunea ez da guk kudeatutako tresna bat, Fitness Park España delako, hau da, Espainiako frankizia masterra, aldi berean Frantziaren menpe dagoena. Gure klubetako errotuluak, zonaldeen bereizketak, seinaleak eta araudia euskaraz daude, Gipuzkoako arauak jarraituz. Noski, egiaztatu ahal izateko gonbidatuta egiten diogu, eta, gainera, gure klubeko irudi erreala dituzten sareetan ikusi ahal izango du edukia.

Dosierra: 570-2025

Nori: PUNTA GALEA TXIRRINDULARI ELKARTEA

Arrazoiak: Uztailaren 25ean salatu nuena beheko e-mailean ageri dena. Bada, gaurko ---abuztuaren 1a--- Corroen berriro argitaratu dute zirkulazio-gorabeheren gaineko iragarkia erdara hutsean. Erantsita doakizue argazkia. Erantsita doakizue eta berean gaurko bertako Corroek dakarren Bizkaiko Foru Aldundiaren beren

beregiko babes-iragarkia. 2025ean gara, eta Franco bizirik balego lez segitzen dugu hainbat arlotan! Oldarraldia ez dator urrunetik eta ez da berria!

Dosierra: 602-2025

Nori: AREATZAKO BAINUETXEA

Arrazoiak: Areatzako bainuetxearen webgunea hiru hizkuntzetan dago (gaztelania, frantsesa eta ingelesa) baina ez euskaraz, erdaldunendako baino ez. <https://www.hotelbalnearioareatza.com>

Dosierra: 619-2025

Nori: TKE - LIGAKO TRAINERUEN KLUBEN ELKARTEA

Arrazoiak: Arrauneko traineruen arteko Eusko Label eta Euskotren ligen instagram kontuan erdara hutsean igotzen dituzte edukiak.

Dosierra: 625-2025

Nori: CINES FLORIDA ZINEMAK

Arrazoiak: Aste honetan euskaraz estreinatzen diren bi filme daude, Sari Nagusia Ziztu bizian eta Hartz-atzapar kanpamendua. Florida zinemetan lehen filme honen emanaldi bakarra ematen dute eta bigarrena gaztelania hutsean besterik ez dute eskaintzen. <https://zernonikusi.eus/zinema> Aurreko astean Heidi, katamotzaren erreskatea estreinatu zuten (euskaraz ere) baino zinema honetan ez zuten eskaini, esango nuke ez euskaraz ezta gaztelaniaz ere. Kontziente naiz zinema honek sentikortasun apur bat duela euskarazko filmeak jartzean, baino aste honetan gertatzen dena ez zait logikoa iruditzen. Euskarazko eskaintza hain murrizta izatea. Horrez gain, gomendatuko nieke euskarazko filmeak ikustera goazen ikusleei euskarazko estreinaldiak daudenean gonbidapen zuzena luzatzeko newsletter edo oharren bat martxan jartzea.

Dosierra: 626-2025

Nori: YELMO CINES GASTEIZ

Arrazoiak: Yelmo zinemek ez dute Zineuskadik euskaratzen dituen filme bakar bat ere euskaraz eskaintzen. Esango nuke euskaraz eskaini duten azken filmean Irati izan dela. Egoera honek ez du inolako zentzurik, zinema hauek Gasteizko zein Gasteizera datozen guztion hizkuntza eskubideak behin eta berriz urratzen dituzte.

Dosierra: 636-2025

Nori: FesTVal - FILA 2 KULTURA ELKARTEA -

Arrazoaia: Egunotan Gasteizen ospatzen ari den ikus-entzunezkoen inguruko FesTVal jaialdiak euskara erabat baztertzen du bere programazioan, aurkezpen eta emanaldi guztiak gaztelaraz izango baitira. Jaialdiak Gasteizko Udalaren, Arabako Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren diru publikoa jasotzen du.

Dosierra: 639-2025

Nori: FesTVal - FILA 2 KULTURA ELKARTEA -

Arrazoaia: Salatu nahi dugu egunotan Gasteizen ospatzen ari den ikusentzunezkoen inguruko @FesTVal jaialdiak euskara erabat baztertzen duela bere programazioan. Larria deritzogu, are gehiago jaialdiak @vitoriagasteiz, @Araba eta @Gob_eus|en diru publikoa jasotzen duenean.

Dosierra: 654-2025

Nori: SOCIEDAD ANÓNIMA DEPORTES Y ESPECTÁCULOS (SADE)

Arrazoaia: Sade Cines ikasturte honetan bere webgunea behingoz euskaraz jartzea eskatzen diot

Dosierra: 661-2025

Nori: NAVARRA INTERNATIONAL FILM FESTIVAL

Arrazoaia: Nafarroako zinema jaialdia izaten ari da irailaren 8tik 12ra. Webgunea euskaraz kontsultatzeko aukera ematen duen arren, ezin da informazio guztia euskaraz kontsultatu eta egitaraua ere gaztelania hutsean dago. Hainbat erakunde publiko eta pribatuk sustatzen dute ekimena eta suposatzen da gai sozialak lantzen dituela jaialdiak, feminismoa, aniztasuna... lotsagarria da ba Nafarroako gutxiagotutako hizkuntza den euskarari eta bere hiztunekiko jarrera. Antolakuntzari hizkuntza eskubideak kontuan izan eta antolatzen dituzten ekimen guztietan euskararen presentzia bermatzeko eskatu nahi diet.
<https://online.flippingbook.com/view/646903963/86/>
<https://www.navarrafestival.com/eu/copia-de-niff-new-generation>
<https://www.navarrafestival.com/eu/el-festival>

Dosierra: 683-2025

Nori: ASOCIACION DE ILUSIONISTAS DE ALAVA

Arrazoaia: Gasteizen antolatu ohi den Magialdia jaialdiaren webgunea gaztelania hutsean dago. Magia gutxi euskaldunontzat! <https://magialdia.com/>

Dosierra: 699-2025

Nori: IZARPE KANPINA

Arrazoaia: Izarpe kanpineko jatetxeko karta erdara hutsez eman ziguten.

Dosierra: 705-2025

Nori: GETXO TRIATLOI TALDEA

Arrazoaia: Getxo Triatloi Taldeak, ohi bezala, Getxoko Triatloia delakoa dela-eta, Erandio osoan seinalizazioak ipini ditu, euskaldun herritarrok baztertuz, probak zirkulazioan izango dituen eraginak erdaldunei eskusiban azaltzeko.

Dosierra: 758-2025

Nori: CINES FLORIDA ZINEMAK

Arrazoaia: Gasteizko Florida zinemetan, Karmele eta Maspalomas filmen sinopsiak soilik gaztelaniaz jarri dituzte zine aretoetako sarreran. Ea akatsa lehenbailehen konpontzen duten.

Dosierra: 760-2025

Nori: ALTSASU K.E. - S.D. ALSASUA

Arrazoaia: Altsasuko Kirol Elkartek-Sociedad Deportiva Alsasuak, gaztelania hutsean zabaltu ditu futbol partidak iragartzeko kartelak. Hitz bakar bat ere ez euskaraz

Dosierra: 775-2025

Nori: CINES FLORIDA ZINEMAK

Arrazoaia: Gasteizko Florida zinemetan, euskara ez da existitzen. Ez leihatilako arretan, ez interneteko webgunean, ez eta kalera begira jartzen duten karteldegietan ere, non azken euskarazko bi filmen sinopsiak (Maspalomas eta Karmele) gaztelaniaz baino ez baitaude.

Erantzuna:

Administrazioa: Sentitzen dugu erabiltzaileen desadostasuna eta atsekabea. Kasu batzuetan, asteko euskarrietan barnetik erabil ditzakegun hizkuntza-baliabideak mugatuak dira, eta horregatik ez dago euskararik euskarrietako askotan. Duela egun batzuk beste kexa bat jaso genuenean, euskarazko azpitituluak zituzten filmetan euskarazko sinopsia sartu genuen, baita zinemaren kanpoko pantailan eta online salmentan ere; hala ere, nahikoa ez dela uste dugu, eta, beraz, ahal den neurrian, ekitaldiak hizkuntza bikoitzean komunikatzeko konpromisoa hartzen dugu.

Dosierra: 811-2025

Nori: MUSEO ILUSIONES BILBAO

Arrazoiak: Bilboko Illusions Museoa bisitatu nuen aurreko larunbatean, eta kartel eta seinale guztiak gazteleraz eta ingelesez baino ez zeuden. Ez zegoen euskarazko informaziorik, ezta oinarritzko seinale edo azalpenetan ere. Bilboko publikoari zuzendutako erakunde batean, euskarazko presentzia bermatu beharko litzateke.

Dosierra: 815-2025

Nori: OCINE - Mendibil merkataritzagunea

Arrazoiak: Astelehen iluntzean Karmele ikustera joan gara Irungo Mendibilera. Zinera sartu eta pelikula gazteleraz zela ohartzean, atera egin gara. Ziurtatu ostean inon ez zuela zehazten pelikula hala izango zenik, gazteleraz, alegia, harrerara joan gara kexatzera. Harrerako tipo gaztea harroxko jarri zaigu, enpresaren politika zein den azalduz eta bere eginez: "zinema horretan defektuz dena gazteleraz dela, eta hala ez baldin bada zehaztu egiten dela. Ingeleseko pelikula bat ingelesez ematen denean ere zehatzu egiten dela" Orduan, ea euskara eta Ingelesa alderatzen ari den galdetu diogu, eta erantzun digu: "eta zergatik ez?". Erantzuna argi eman diogu, Irunen euskara ofiziala dela eta ingelesa ez. Eta bere erantzuna honakoa izan da: "el inglés es oficial en todo el mundo". Elkarrizketa gogorra eta luzea joan da eta erreklamazioa jarri dugu, baina uste dugu hemen ere jakinarazi behar genuela. Arazo nagusia da, Irunen Karmele pelikula ikusteko ez dagoela euskarazko aukerarik. Ez daude bi bertsio, bakarra baizik.

Dosierra: 824-2025

Nori: SENDAVIVA

Arrazoiak: Sendaviva parkean orain arteko hizkuntza paisaia finkoan euskarak bazuen presentzia. Adibidez, animalien izenak eta beraiei buruko informazioa nagusiki gaztelaniaz zegoen, baina beste hizkuntzen artean euskarak ere bazuen lekua. Baina, azken hilabeteetan jarri dituzten errotulu berrietan euskara desagertu egin da. Irudien artean dituzue lehendik dauden txartelak eta egun jarritakoak. Horrez gain, bestelako errotulazioetan ere euskarak ez du inolako presentziarik.

Erantzuna:

Bezzeroentzako arreta-zerbitzua.: Sendavivan ez da kendu alde aurretik parkeko kartel edo seinale finkoetan zegoen euskarazko terminorik. Azkenaldiko jarduerak informazio-euskarrien zati bat berritzera mugatu dira, parkea garatzen ari den seinaleztapena hobetzeko plan orokorraren barruan diseinuak eta materialak eguneratzeko helburuarekin. Prozesu horrek ez du esan nahi euskarazko testuak ordeztu edo ezabatuko direnik, lehendik dauden kartelak berritzeko fasea baizik, arian-arian gauzatzen ari dena, irizpide teknikoak, mantentze-lanetakoak eta irudi korporatibokoak kontuan hartuta. Parkean euskararen presentzia sustatzeko konpromisoarekin bat gatoz. Hori dela eta, Sendavivako lantaldeak lanean jarraituko du kartelen eta material informatiboen etorkizuneko eguneratze faseetan euskararen presentziari eusteko.

Dosierra: 852-2025

Nori: PADEL INDOOR BIDASOA

Arrazoiak: argazkian ikusten den bezalaxe, Padel Indoor Bidasoak antolatutako txapelketaren afixak gaztelera hutsez plazaratzen dituzte. Aski da!! Irunen Euskaraz!! Bidasoaldea Euskalduna eraiki!!

Dosierra: 956-2025

Nori: IZARPE KANPINA

Arrazoiak: Izarpe kanpineko bezeroa naiz. Sare sozialetan euskara ere erabiltzen hasi diren arren, hurrengo urterako Gabonetako zoriontze mezua euskaraz ere bidali dezaten eskatzen diet. Eskerrik asko!

Erantzunak:

Izarpe Kanpina: Hori gertatzen da gurekin lehenengo erreserba egitean gaztelaniaz egin zelako (online egitean pertsona batek gaztelania erabiltzen du). Kudeaketa-programak bezero bakoitzarekin erabiltzen du bezeroak erabilitako hizkuntzarekin komunikatzeko (fakturretan, mailingean...). Zure fitxan zure hizkuntza aldatzeko eska dezakezu eta hemendik aurrera euskaraz jasoko duzu. Guk bezeroekiko komunioan, gaztelania eta euskaraz gain, katalana, ingelesa, frantsesa, holandarra eta alemana erabiltzen ditugu. Baina harreran adieraztea bezain erraza da. Ez da beharrezkoa kexarik inon jartzea.

Dosierra: 972-2025

Nori: DEPORTIVO ALAVÉS

Arrazoiak: Abenduaren 24an Alaves futbol taldearen emaila heldu zitzaidan eguberri ona opatzeko eta ate irekien entrenamenduaren berri emateko, den dena gaztelaniaz "egun berri on" izan ezik eta berau txikian. "Feliz Navidad" nabarmenago eta handiago, hau al da taldeak gure hizkuntzari ematen dion aitortza?

Dosierra: 979-2025

Nori: YELMO CINES

Arrazoiak: Barakaldoko Yelmo Megapark zinemetan dagoen sarrerak eroateko makina ez dago euskaraz, bakarrik gaztelaniaz, ingelesez eta katalanez. Euskal Herri osoko milaka euskaldun pasatzen gara zinema hoietatik. Barakaldon bakarrik 30.000 euskaldun inguru gara eta Bizkaian osoan 600.000. Non geratzen dira gure eskubideak? Gure hizkuntza errespetatu mesedez!

ALDERDI POLITIKOAK/SINDIKATUAK (7)

Dosierra: 131-2025

Nori: PP Bizkaia

Arrazoa: Etxe guztietan Getxoko PP alderdiaren udal propaganda bat jaso dugu, aldizkari modukoa, eta den-dena dago gaztelaniaz.

Dosierra: 234-2025

Nori: CGT - Gipuzkoako atal sindikala

Arrazoa: Aski da!! Euskara ofiziala!! Irunen euskaraz!! Bidasoaldea Euskalduna eraiki!! Ikusten bezalaxe, renferen erakunde sindikalek beraien afixak gaztelera hutsez plazaratzen dituzte.

Dosierra: 241-2025

Nori: EZKER BATUA Nafarroa

Arrazoa: Gaur Nafarroako Ezker Batuaren mezu elektroniko bat jaso dugu, Iruñean egingo duten ekitaldi bat dela eta. Kartela eta emailaren mezu osoa gaztelania hutsean, bertoko hizkuntzan ezta esaldi bakarra. Ezker Batuari eskatu nahi diot Nafarroako herritarren hizkuntzarekiko aitortza egin dezan beharrezko neurriak hartuaz beraien komunikazioan.

Erantzuna:

: Lehenik eta behin, barkamena eskatu behar diugu akatsagatik, eta eskerrak eman behar dizkizuegu mezuagatik. Gauza hauek zergatik gertatzen zaizkigun azaltzeko arrazoi asko emango nizkizueke, baina ez dago aitzakiarik. Eskerrik asko zure arretagatik. Kartel hau berriz diseinatu dugu elebiduna izan dadin (erantsita doa) oso kontuan hartuko dugu etorkizunean kartelak eta publizitateak elebidunak izan daitezen. Berriro ere eskerrak ematen dizkizuet ohartarazpenagatik, hobetzeko modua delako.

Dosierra: 319-2025

Nori: EAJ-PNV - ERANDIO

Arrazoa: Ondo legoke Erandiogoikoko EAJk herriaren izena eta euskara errespetatzea.

Dosierra: 715-2025

Nori: EH BILDU -ERANDIO -

Arrazoa: EH Bilduk zelan argitaratu lezake hau? Ez da lehenengo aldia halakoak argitaratzen dituztela. Euskaldun herritarrok ez dugu begirunerik merezi ala?

Erantzuna:

EH Bilduko zinegotzia: Lehenik eta behin, kexa aurkeztu duen pertsonari eskerrak eman nahi dizkiogu, batez ere arrazoi osoarekin egin duelako. Batzuetan itzulpenak "itzulpen automatikoaren" bidez egiten ditugu, eta kasu honetan argi geratu da ez geniola testuari beharrezko berrikuspenik egin. Horregatik, barkamena eskatu nahi dugu eta gaurtik aurrera gure konpromisoa da horrelako egoerak ez errepikatzea.

Dosierra: 782-2025

Nori: PSN-PSOE - ANTSOAIN -

Arrazoa: Antsoaingo PSNren eskuorria jaso dut postontzitik. Euskaraz, "Antsoain" hitza bakarrik.

Dosierra: 882-2025

Nori: ELA SINDIKATUA - NAFARROA -

Arrazoa: Gaur Nafarroan garraiolariok greba eguna izan dugu. ELA, LAB, CCOO eta UGT goizean deitutako deialdian pankarta gaztelania hutsean idatzita egon da. Goizean irakurritako manifestuan ere euskararik ez. Nafarroan euskaraz lan egin eta borrokatu nahi dugu!

Erantzuna:

CCOO Nafarroa: Aurkeztutako erreklamazioari dagokionez, puntu hauek jakinarazi nahi dizkizuegu: - ez zen manifesturik irakurri, ez gaztelaniaz, ez euskaraz. - Orkoingo biribilgunean beste pankarta bat zegoen, oso-osorik euskaraz. Nolanahi ere, jakinarazten dizuegu intersindikalak igorritako prentsa-ohar guztiak ele bitan bidali direla. Hala ere, ez dugu gaitasunik hedabideek argitaratutako artikuluetarako bata edo bestea aukeratzeko. Era berean, oharra hartzen dugu eta hemendik aurrera pankarten testua moldatuko da guztiak elebidunak izan daitezen. Zuen lana eskertzen dizuegu eta ziurtatzen dizuegu beti saiatzen garela testu guztiak kasu bakoitzean indarrean dagoen araudiaren arabera egiten.

EKONOMIKA/ENPLEGUA/LAN MUNDUA (4)

Dosierra: 12-2025

Nori: TECNALIA RESEARCH & INNOVATION FUNDAZIOA

Arrazoa: Azpeitian Tecnalia enpresak erdara hutsean ditu kartel batzuk, eta beste hainbat, elebitan, baina lehenestekotan, euskara da lehenetsi beharreko hizkuntza.

Dosierra: 383-2025

Nori: ELKARKIDETZA LEHENTASUNEZKO ENPLEGUKO BGAE

Arrazoa: Elkarkidetzako web orriaren euskarazko bertsiotik sartuta, penagarria da kalitatea. Bazkide naiz eta datu pertsonalak zuzentzeko tramitean, adibidez, egoera zibila hautatzeko lehen aukera, Bakalau/kontrako. Gaztelaniaz, soltero. Hori larriena, baina gehiago badaude, argazkian ikusten da.

Erantzuna:

Idazkanitza eta Gobernantza arduraduna: Lehenik eta behin, eskerrak eman nahi dizkizugu euskarazko webgunea dela eta egindako ekarpenagatik. Egia esan, justifika ezina da gertatutakoa eta aurretik barkamena helarazten diogu kexa aurkeztu duen pertsonari eta baita webgunearen erabiltzaile guztiei ere. Webgunea berritzen ari gara eta aldaketa fasean akats esanguratsu bat gertatu da. Honen ondorioz, informazioa prestaketa-fasean argitaratu da. Elkarkidetzak, sorreratik ahalegin berezia egin du euskara bere egunerokotasunean eta barne zein kanpoko harremanetan erabiltzeko. Beraz, aurretik esan bezala, barkatu sortutako eragozpenengatik eta Elkarkidetzak erakutsitako, berea ez den hizkuntz ereduarengatik. Idazki hau bidaltzen den unean, web orrian zuzenketa aldaketak eginak daude eta aurrerantzean horrelakorik gertatuko ez den borondatea azalduz, agurtzen zaitugu.

Dosierra: 723-2025

Nori: CEDERNA-GARALUR

Arrazoa: Cederna-Garalur Elkarrekin deialdia egin du Mendialdea eskualdean komunikazioa eta enpresen dinamizazioa lantzeko kontratazioa egiteko: <https://www.cederna.eu/eus/2025/09/mimukai-lan-eskaintza/> Deialdian parte hartzeko hizkuntza-gaitasuna: "Euskalduna izatea (B2 maila egiaztatu edo baliokiderekin, C1 hobe)". Leitza eta Larraunaldean eskualdean horrelako lan bat

egiteko ezinbestekoa da izangaiek euskarazko gaitasun egokia izatea. Eta hori, C1 mailari dagokion gaitasunak bermatzen du, bermatzekotan. Bide batez, elkarteko webgunea euskaraz ireki dadin ere eskatu nahi diet: <https://www.cederna.eu/> Eta azkenik, beharrezko hizkuntza-irizpideak ezar ditzala eskatu nahi diet, eta kartelak euskaraz eta ele biz argitara ditzala, eta ez bata euskaraz eta bestea gaztelania hutsez.

Dosierra: 787-2025

Nori: 42 URDULIZ

Arrazoa: Barakaldoko D ereduko Beurko instituto publikoko ikasleak urriaren 16an hezkuntza formakuntza eskaintzen duen entitate pribatu bat bisitatzera eraman dituzte. Jarduera oso osorik gaztelaniaz izan da. Honako hau da beraien web helbidea: <https://www.42urduliz.com/> Entitatearen web orria bisitatu dudanean harrituta ikusi dut euskarazko webgunerik ere ez dutela. "Eu" aukeratuta ere, gaztelaniazko bertsiora zaramatza. Webgunean gainera Bizkaiko Foru Aldundiaren logotipoa agertzen da. Erabat harrituta nago Bizkaiko Foru Aldundiaren logotipoa hezkuntza entitate pribatu baten webgunean ikusteaz. Ze erlazio du Bizkaiko Foru Aldundiak herritarren gutxieneko hizkuntza eskubideak ere errespetatzen ez dituen entitate batekin? Edozein kasutan larria litzateke, baina hezkuntzarekin lotutako entitate bat izanik onartezina eta ulertezina egiten zait. Umeak ingurune erdaldun baten euskaraz hezi dituen ama bezala erabat atsekabetuta eta galduta sentitzen naiz. Kexa nori eta nola bideratu ez dakidala.

ELIKADURA/OSTALARITZA/MERKATARITZA TXIKIA (47)

Dosierra: 10-2025

Nori: PERRO CHICO TABERNA

Arrazoia: abenduaren 21 gauean Bilboko alde zaharreko Perro Chico tabernan gertatutakoa salatu nahiko nuke. Bertara garagardo batzuk hartzera sartu ginan eta euskaraz eskatzerakoan, zerbitzariak ez zidan kasurik egin. Orduan, nire atzetik beste bezero bat etorri zan, eskatu egin zuen eta bera zerbitzatzzen hasi ziren. Gure atzetik zegoena kolatu egin zela konturatuzen, parkamena eskatu eta zerbitzariari esan zion kolatu egin zela eta guri ataratzeko. Zerbitzariak ez zion kasurik egin eta berari tragoak atera eta kobratu zion. Gure atzetik zegoen bezeroa harrituta, eta berriro ere parkamena eskatuz, joan egin zan. Orduan nik zerbitzariari esan nion, ea zergatik egiten ari zen ez entzunarena, hau dena euskaraz. Momentu horretan, barra atzetik beste pertsona bat etorri zen niri oihukatzen ea zer nahi nuen galdezka. Nere lagun batek beste zerbitzari bati eskatua zion tragoa (erdara hutsean noski) eta ondorioz esan nion ez genuela ezer behar. Mutila barra atzetik irten egin zan niri oihukatuz kalera irteteko ausartzen banintzan elkar jo egingo ginala, dana erdaraz. Oso forma txarretan esan zidan ez nintzala hain ausarta erdaraz egiten etab. Nik galdetu egin nion ea bera nor zan eta erantzuna izan zen jabea zela, orduan esan nion ea bezeroak tratatzeko modua zen hori. Ni lasai egon nintzenez, zorionez, ez zan ezer gertatu. Geroago, momentu horretan komunean egon zan lagun bat ur baso bat eskatzera joan zan eta ez zioten atera. Beste pertsona batek eskatu behar izan zuen erderaz. Hori dena Euskaraldiko "Ahobizi" eta "Belarriprest" pegatinak dauzkan taberna batean.

Dosierra: 49-2025

Nori: CAFÉS BAQUÉ S.L.U.

Arrazoia: Mantzanilla infusioa eskatu dut Bilboko taberna baten. Argazkietan ageri den bilgarriaren barruan dago piramide delakoa. Den-dena erdara hutsean dago, gainera, enpresa lurretakoa izanik. Zeinen tristea euskaldun herritarroi sekulan ere inongo begirunerik ez izatea, 2025ean. Tira azukre-zorrotxoan behintzat testua alde batean euskaraz eta bestean erdaraz ageri da; behar bezala.

Dosierra: 51-2025

Nori: KAIKU KORPORACION ALIMENTARIA SL.

Arrazoia: "Esne litro baten atzean" diote, aspalditik, Euskal Telebistan ematen duten Kaikuren iragarki baten. Mesedez, zuzendu.

Dosierra: 54-2025

Nori: IZARRA TABERNA

Arrazoia: Zizurkilgo Izarra tabernak duen eskaintza (Kebaba, Duruma, platerak... eta horien prezioak) gaztelania hutsez bidali du etxeko postontzietara. Etxerako zerbitzua ere eskaintzen du taberna honek eta banaketa egunak, ordutegia, kostu gehigarriak... ere zehazten ditu iragarkiak. Herenegun (25-1-20) edo atzo (25-1-21) jaso nuen nire postontzian. Taberna hau ez da ireki berria, eta ez da lehen aldia bere eskaintza etxera bidaltzen duena eta gaztelaniaz. Izarra taberna Zizurkilen badago ere, inguruko herrietara zabaldu duela dirudi; izan ere, ni Villabonan bizi naiz.

Dosierra: 60-2025

Nori: AMA JATETXEA

Arrazoia: Tolosako AMA jatetxe ezagunean bi lagunentzako otordu bat opari nahi izan diet gurasoei. Webgunean sartu naiz, eta bi hizkuntzatan daukaten arren, erreserba egiteko orrialdea gaztelera dago. Pentsatzen dut hori kanpo-zerbitzu bidez izango dela, eta ulertzen dut. Halere, baliteke hori ere euskaratu ahal izatea, hori proposamen modura. Kexaren arrazoia beste bat da, ordea. Ordainketa amaitu dut eta gonbidapen txartelak izenburua edo lehen irudia euskaraz dauka, bai; baina gainerako guztia gaztelera hutsean dago. Uste dut gutxien gutxienez bi hizkuntzetan joan behar duela. Nik gurasoei Tolosako jatetxe bateko oparia gazteleraz oparitzea, ez da oso zentzuzkoa. Beraz, horixe eskatu nahi diet AMAkoei: oparia euskaraz egiteko aukera ematea, ez dut uste-eta hori horren zaila izango denik.

Dosierra: 128-2025

Nori: LA VIÑA DEL ENSANCHE SL

Arrazoa: kartelak, web orria... oro har, informazio guztia gaztelaniaz eta ingelesez, bertakoa eta ofiziala den hizkuntzaren arrastorik ere ez. Euskal hiztunekin begirunez jokatzeko eskatzen diot.

Dosierra: 134-2025

Nori: PANADERIA MARIAJE OKINDEGIA

Arrazoa: Mariaje herriko okindegian gertatu zen. Bada ia urte bete okindegi berri hau ireki zutenetik. Bertako langilea kanpotarra da, baina euskaraz hitz egiteko saiakera oso gutxi egin du. Beste prioritate batzuk izango ditu ziurrenik (ulergarria puntu bat arte). Kontua da, egun honetan "Egun on, egunkaria, mesedez" esan niola. Ez zuen ulertzeko ahaleginik ere egin. Aurpegi arraroa jarri eta berari gaztelaniaz egiteko eskatu zidan. Ez da lehenengo aldia hau gertatzen dena. Herri euskaldun bat izanik Idiazabal, okindegian "egunkaria" zer den ulertu beharko lukeela uste dut. Ogia erostean ere antzekoa gertatzen da.

Dosierra: 146-2025

Nori: PANADERIA ASUA BERRI OKINDEGIA

Arrazoa: Algortako Arenezpi kalea, 4 helbidean dagoen ASUABERRI kafetegian euskaraz aritzen garen bezero askori erantzun txarra ematen digute. Oso modu oldarkorrean agintzen digute gazteleraz aritzeko. Arratsaldeetan izaten da. Egoera berez da larria, baina are larriagoa da kontuan izanda San Nikolas ikastolaren parean dagoela kafetegia, eta guraso eta langile asko umeekin joaten garela bertara. Atzokoa ez zen kontu isolatua izan, hainbat herritarri gertatu izan zaigu.

Erantzuna:

Okindegiaren nagusia: Ez dut uste kafetegi honetan bezeroei erantzun txarrik eman edo gaizki hitz egiten zaionik euskaraz hitz egin digutelako. Nik ez dakit euskaraz (Bilbokoa naiz eta zertxobait ulertzen dut) eta bertan aritzen diren neskak Honduraskoak dira. Inoiz ez diogu inori erantzun txar bat eman edo modu txarrean hitz egin euskaraz mintzatzeagatik. Jakin nahi nuke nork jarri duen erreklamazioa. Mundu guztiak ez du euskara ezagutzen baina bezero guztiek dakite gaztelania. Guk euskaraz ez dakigula jakinda, guri euskaraz hitz egitea, gureganako errespeturik ez izatea da. Kexa egin duenak ego izugarria du eta denok euskaraz jakin behar dugula uste du.

Dosierra: 206-2025

Nori: HAIZEA TABERNA - HOTEL PALACIO DE AYETE -

Arrazoa: Kafetegian euskaraz eskatzean aurpegi desatsegina jarri digute, eta azkenean galdetu diogu kamarerari ea ez dakien euskaraz "ya te he dicho que no sé euskera" erantzun digu. Guk hori ez digula hitzez esan adierazi diogu, eta mesedez, errespetua eskatzen dugula. "Tú eres la que no tiene respeto" erantzun digu. Saiatu gara esaten hitzez esanez gero ez dakiela euskaraz, gazteleraz hitz egingo diogula, baina ez da modurik egon. Erreklamazio orria bete dugu. Kopia ematerakoan, sukaldeko langileak esan digu "pues yo también voy a poner una reclamación por racismo". (biak migranteak dira). Ze pena, gure hizkuntzaz hitz egitean erantzun hau jasotzea... Ez gara itzuliko, eta hori gure familia ia egunero joaten dela bertara... Hoteleko harrerako langilearekin hitz egin dugu eta hark errespetu handiz jaso gaitu.

Dosierra: 217-2025

Nori: GALLETAS ARTIACH SAU

Arrazoa: Txikilin gailen iragarki hau ikusi dut Bilbon Sarriko auzoko markesina batean. Euskaraz esaldi txiki bat bakarrik agertzen da eta bera gaizki (gaztelaniatik gaizki itzulita). Euskarari eta euskaldun bezeroei errespetuz euskarazko iragarkiak ezartzea eskatu nahi diot Artiach enpresari.

Erantzuna:

Kontsumitzaileari Arreta: Jakinarazten dizuegu zure kexa honen ardura duen departamentura helarazi dugula kontuan har dezaten gure produktuei buruz etorkizunean egingo dituzten publizitate-kanpainetan.

Dosierra: 222-2025

Nori: DUPLA KAFETEGIA

Arrazoa: Honako honen bidez adierazi nahi dizuet Areatzan ireki berri duten kafetegi moduko batean (Dupla) kanpoko letreroak ingelesez baino ez daudela, ez gaztelaniaz ez euskaraz. Uste dut legeaz kanpoko delatzen, ezta? Barruko gehiena ere ingelesez. Argazkiak eranstean dizkizuet. Zentzugabeko honi konponbidea emango diozuelakoan, ondo

Dosierra: 255-2025

Nori: IURRETAKO BATZOKIA

Arrazoa: Iurretako batzokian tabernariak aldatu dira, baina denak segitzen du berdin: erdarazko egunkariak baino ez; menuak eta abarrak erdara hutsean; eta "egun on" esaten duenari "buenos días" erantzuten zaio.

Dosierra: 267-2025

Nori: FUSION CAFE PANADERIA

Arrazoa: GERTAERAK Martxoaren 30a, igandea. Goizeko 10etan, Donostiako Trueba kalean, FUSION Kafe-okindegira joan nintzen gosaltzeko asmotan. Txanda tokatu zitzaidanean 1 Zerbitzariak: ¿Qué desea? Nik: harbelera zuzenduz eta behatzekin, 3a adierazi nion. 1 Zerbitzariak: ¿algo más? Nik: Kafesnea, Coleche con leche de soja. 1 Zerbitzariak: Ella te cobra (beste neska bat indikatuz. (zerbitzatu aurretik ordaindu behar baita) Honeraino arazorik gabe. Kaxa beste zerbitzari batek ireki zuen, zeinek geroago "jefa" zela esan zidan. Hortik aurrerako elkarrizketa: Kaxakoak: Número de mesa? Nik: Behatzekin 10 adierazi nion. Kaxakoak: ¿Qué quieres tomar? Nik: Harbela eta, behatzekin berriro, 3a. Kaxakoak: ¿Tostada? Nik: Bai. Eta kafesnea. Coleche con leche de soja. Kaxakoak: ¿No sabes castellano? Nik: No. Eta kroasana (behatzakin erakutsiz) Tiketa egin bitartean esan zidan: Kaxakoak: ¿qué raro que no hables castellano?! Nik: Hablo las dos lenguas oficiales y elijo cual hablar. Y tu tendrías que entender porque no he necesitado palabras para hacerme entender. Bitartean, tiketa eman zidan eta nik ordaindu Kaxakoak: Yo no tengo ninguna obligación. Además me parece de mala voluntad lo que estás haciendo. Si no hablas castellano, aquí no te podemos atender. Nik: Descuida que no volveré. Debieras tratar con el debido respeto a quien te está dando el pan. Kaxakoak: (bere onetik aterata) A mi nadie me da el pan. Estoy sacando ésto adelante con mi esfuerzo. Además te devuelvo el dinero y no se te sirve. Nik: No. He pagado y voy a la mesa. Mahaian exeri nintzen. Berehala, Kaxakoa mahaira etorri eta dirua mahai gainean utzi zidan. Altxatu, mostradorera joan eta Kaxakoari esan nion jefakin hitz egin nahi nuela edo bestela, erreklamazio orria emateko. Kaxakoak: Yo soy la jefa. Ahora te traigo la hoja de reclamación. Kontsumobide jartzen zuen orria eman zidan (3 orri). Leku txikia idazteko eta gertatua laburtu egin nuen euskaraz idatziz. Zati bat jefak bete behar zuenez, ez zuela ulertzen, norbait topatu behar zuela

itzultzeko eta astelehenean joateko bila esan zidan. Nik: Esperaré. A mi no me importa que escribas en cualquier lengua. Jefak: No entiendo euskera y tengo que saber lo que has escrito. Para mañana estará. Astelehen arratsaldean joan nintzen eta goizez bakarrik egoten zela esan zidaten. Astearte goizean joan nintzen. Ez ninduen ezagutu, edo... Jefak: ¿qué deseas? Nik: He venido a recoger la hoja de reclamaciones. Jefak: Ah, me dijo el gestor que no tengo obligación de saber euskera y que no procedía darte la hoja de reclamación. Nik: El problema no fue ese, sino que, tu actitud. Jefak: No, no. Tu nos exigiste saber euskera al personal y a mí. Nik: Mientes. Me hice entender sin palabras hasta que tu me preguntaste si no sabía castellano. Jefak: Nos exigiste. Así que... (eskuarekin kanpora ateratzeko keinua eginez). Nik: Vale! Procederé de otra forma. Guzti hori zain zegoen jendearen aurrean, inungo pribatutasunik gabe. Ez dakit ezertarako balio dezakeen, baina tiketa badaukat. Esan nahi det, kobratu bazidan, zer nahi nuen komunikatu niola.

Dosierra: 270-2025

Nori: ARAMARK SERVICIOS DE CATERING SL

Arrazoa: Usansoloko ospitaleko (Osakidetza) kafetegian (Aramark Servicios de Catering S.L.U.) erdara hutsean erantzuten digute euskaldunoi. Eta tiketak erdara hutsean ematen dituzte.

Dosierra: 299-2025

Nori: OBRADOR JA ARGIÑANO

Arrazoa: Gaur Joseba Argiñanoren webgunean sartu naiz eskaera bat egiteko asmoz eta guztia españolez bakarrik dagoela konturatu naiz eta ez duela aukerarik eskaintzen euskaraz informazioa jaso ahal izateko. Ezinbestekoa iruditzen zait euskaraz informazioa jaso ahal izatea.

Dosierra: 311-2025

Nori: KRAKENEAT SL

Arrazoa: Elantxobeko Krakeneaten panel handi batzuetan idatzita dute karta. Erdara hutsez. Web orrialdean ere, ez dute euskaraz.

Dosierra: 312-2025

Nori: CUATRO Y MEDIO

Arrazoia: Gernikako Cuatro Y Medio tabernan ez gaituzte euskaraz artatu. Karta ez dute euskaraz.

Dosierra: 314-2025

Nori: EPERRA TABERNA

Arrazoia: Azpeitiko EPERRA tabernan kanpoko zerbitzari berria jarri dute. Atzo 21:00etan lagun batzuk joan ginen zerbait hartzera, eta berandu zenez zerbitzariari galdetu nion ea ixten ari ziren. Tonu zakarrean, erantzun zidan: "háblame en castellano". Berriz galdetu nion, poliki eta ondo ahoskatuz, ea ixten ari ziren. Berriz ere modu zakarrean erantzun zidan kastellanoz hitz egiteko. "Ez al dakizu euskaraz?" galdetu nionean, kasurik ez eta beste alde batera begiratu zuen. Hori ikustean, tabernatik alde egin genuen, ezer hartu gabe. Gero eta ohikoagoa da Azpeitiko tabernetan zerbitzari erdaldunak kontratatzea, eta gehienek jarrera oso negatiboa dute euskararekiko. Ez dute inongo begirunerik, salbuespenak salbuespen, gure hizkuntzarekiko. Uste dut asnasgune bateko taberna batean lan egiteko gutxienez 3 hilabeteko oinarritzko euskarazko ikastaro bat egin beharko luketeela.

Dosierra: 356-2025

Nori: BERTIZ OKINDEGIA -Basauri -

Arrazoia: Basauriko Bertiz gozotegira sartzerakoan (ez zegoen bezero gehiagorik eta bi saltzaile zeuden saltokian), euskaraz galdera bat egin nien, ea opilak barruan zer zeukan eta saltzaileetako batek zerikusirik ez zuen galdera batekin erantzun zidan erderaz: "para comer aqui, o para llevar?" orduan, nik galdera bera errepikatu nuen eta saltzailea barrezka hasi zen txunditu aurpegia jarriz eta ostean bere lankideari begira, barrezka jarraituz. Orduan, nik, jokamolde hori errespetu falta handia iruditzen zitzaidala adierazi nuenean, ordurarte nirekin aritu etzen saltzaileak, "es que tu le tienes que hablar en español" impositu zidan modu larderiatsuan.

Dosierra: 365-2025

Nori: GASTRONORTE ALIMENTACION SL

Arrazoia: Gastronorte enpresak Bermeoko Arrain Azokan jarritako postuan kartelak gazteleraz bakarrik

Dosierra: 404-2025

Nori: CAFETERIA JULIA GOZOTEGIA

Arrazoia: Doneztebeko Julia "pasteleria"n ez dut karta euskaraz eskuratzerik izan. Horrez gain, sare sozial eta webgunean berdina gertatzen da.

Dosierra: 502-2025

Nori: CAFE BIZITZA SL

Arrazoia: Larunbat gaua, gaurko 00:00ak inguru. 3 lagun Bilboko alde zaharreko taberna mitiko honetara joan ginen zerbait hartzera. Zerbitzariari (ile luzeko emakume gazte bat) "hiru kaña" eskatu genizkion. "Cuatro?" bere erantzuna. "Hiru" eta atzamarrekin keinua guk. "Dos?" berak. "Hiru" guk berriz. Haserretu egin zen eta mespretxuz adierazi zigun ez zuela ulertzen "si hay un idioma que entendemos todos para qué me hablas en euskera". Egoera nahiko deserosoa bihurtzen ari zela esan genion eta ez genuela bere erantzuna ulertzen, 3 kaña soilik eskatu genizkiola. Bere erantzuna "pues yo no voy a perder el tiempo en responderte ni en aprender un idioma que no me sirve para nada". Bere lankideak bestalde, arrazoia eman zion. Kañak ordaindu, kanpora atera eta alde egin genuen.

Dosierra: 515-2025

Nori: HAZIBERRI TABERNA

Arrazoia: Iruñean taberna bat dago, San Nicolas plazan, Hazia @haziaberri izeneko. Tabernako karta gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez kontsultatu daiteke, baina ez dago euskaraz erabiltzerik.

Dosierra: 516-2025

Nori: LOS BURGOS taberna

Arrazoia: Iruñeko Los Burgos tabernako karta hainbat hizkuntzetan dago, euskara ez da inon ageri. Bertakoa den hizkuntzaren hitzunak ez dira existitzen. Ez dute tabernetan kontsumitzen ala?

Dosierra: 542-2025

Nori: "MUGAN", IRUNGO MERKATARIEN ELKARTEA/"MUGAN", ASOCIACIÓN DE COMERCIO Y HOSTELERIA EN IRUN

Arrazoa: "Mugan" Irungo Merkatarien elkarteak web orria eta informazio guztia gaztelaniaz baino ez du eskaintzen. Aurtengo egutegia bera ere erdara hutsean dago.

Dosierra: 599-2025

Nori: SIDRAS SAIZAR SL -EUSKAL SAGARDOA -

Arrazoa: Lantzean behin "euskal sagardoa" erosten dut, latatan. Gaur artean, baina, ez dut ikusi Red Bay markakoa. Esku artean izan dut Zornotzako Eroski baten, eta ikusirik euskaldunok ez gaituela kontuan hartzen, zegoen lekuan utzi dut, bertan behera. Erosi ditut erosi ohi dudak markakoak. Eta ikusi dut beste marka bat, gaur arte ere ezezaguna niretako, euskaldunok begirunez tratatzen gaituena. Badut aukerarik. Argi dago zein ez dudak erosiko. Bestalde, uste dut Euskal Sagardoa delako markaren ardura daukatenek ere ez liekeela utzi behar "Euskal Sagardoa" zigilua erabiltzen euskaldunok errespetatzen ez gaituztenei.

Dosierra: 601-2025

Nori: ETXEGANA HOTELA-SPA

Arrazoa: Zeanuriko Etxegana ostatuak, Durangoko markesinetan erdara hutsean ipini du iragarkia.

Dosierra: 646-2025

Nori: KAI ALDE KAFETEGIA

Arrazoa: Hondarribiako Kai-alde kafetegian langile batek aurre egin zidan euskaraz jardun nintzelako. Eskariak, aldiro, euskaraz egin nituen eta, segidan, baita gaztelaniaz ere langileak ez zuelako guztiz argi : bi txokolate (bi atzamar erakutsita), garagardo bat (cerveza). Ordura arte ez zen arazorik izan, baina baso bat ur eskatuta, eta zalantzarik izanez gero gaztelaniaz esateko prest banengoen ere, alboan zegoen beste langileak aurre egin zidan esanaz ohartu nintzela ez zidala ukertzen, ea zergatik jarraitzen nuen euskaraz. Esan nion ordura arte ez zela arazorik izan, eta gaztelaniaz azaldu nizkiola eskatutakoak. Komeni zitzaizela

euskaraz ikastea, zenbakiak eta zenbait hitz bada ere, bezeroen mesedetan. Gogorarazi nion gure hizkuntza dela, eta jarrera oldarkorra izan zuela nirekin. Gutxiesteaz gain, erantzun zuen bera lanean zegoela.

Dosierra: 649-2025

Nori: ELORRIOKO BATZOKIA

Arrazoa: Elorrioko batzokiaren (EAJ) webgunea erdara hutsean dago. Eskerrak alderdi abertzale baten tabernarena den... Nahiz euskaldunok errespetatzeko ez dago zertan abertzale izan, nahikoa behar luke demokrata izatearekin. <https://batzokielorrio.es/>

Dosierra: 677-2025

Nori: BIDE LUZE TABERNA DONOSTIA

Arrazoa: Donostiako Gipuzkoa plazan dagoen Bideluze tabernan ez dago karta euskaraz jarrita. Hizkuntza ezberdinetan eman digute, baina euskaraz eskatu dugunean ez dutela esan digute

Dosierra: 687-2025

Nori: DAMM SA

Arrazoa: Voll Damm-ek iragarki kanpaina berria egin du EAerako. Lotsagarria da "Euskadi" zer den adieraztea hizkuntza bat dugula esanez baina euskara inondik agertu gabe, are gehiago gure herriko hizkuntza ofiziala denean. Iragarkiko bideoan zein kaleko iragarkietan gaztelania baino ez dut ikusi. Voll Damm-i iragarki hauetan zein etorkizunekoetan hizkuntza eskubideak errespetatzeko eskatzen diot. <https://youtu.be/ft7Xlzn7fL8?feature=shared>

Dosierra: 693-2025

Nori: BURGER KAIZOKU TABERNA

Arrazoa: Astigarraga, Kaizoku taberna, dena gaztelaraz: sare sozialak, kartelak, menua (eskatuz gero euskaraz badutela diote, izkutuan). Nik 2025/09/20ean beraien instagramera mezu bat bidali, beraiek erantzun. 2025eko otsailean beste bat Google Mapsen. Nik egindakoa: 1.- Otsailean Google Mapsen iruzkin bat jarri karta euskaraz faltan bota nuela esanez (irudietan atxikirik); erantzuna, eskatuz gero badutela. 2.- 2025/09/20ean sare sozialetan dena erdera hutsean dutela

ikusita mezu pribatu bat idatzi euskara noizbehinka ikustea ondo legokela esanez (irudietan atxikirik). Beraien erantzuna: 1.- Pertsonan bertaratu eta nire iritzia emateko eskatu. 2.- Beraiek eskubideak dituztela. 3.-Jendeari mezuak bidaltzen ez dakitela zer lortu nahi dudan (beraiei pribatuan idatzi diet besterik gabe baita GoogleMapsen ere). 4.- Nire jarrera eta eskakizuna inozoa eta zentzurik gabekoa dela. 5.- Koakzionatzen ditudala. 6.- Sare sozialak gehienbat erdaldunek erabiltzen dituztenez, errazagoa dela hizkuntza hau bakarrik erabiltzea. 7.- Euskarak oso bide motza duela eta algoritmorik ez duela erakusten. 8.- Karta frantsesez gehiago eskatzen dutela. Berriro diot, egin dudan bakarra izan da mezu pribatu bat bidali idatziz euskara tarteka ikustea ondo legokela esanez, eta horrelako erantzunak jaso.

Dosierra: 703-2025

Nori: ETXEBERRIA TABERNA

Arrazoiak: Hondarribiko Etxebarria tabernako zerbitzariari (mutil gazte bat) "ebaki bat eta koka kola bat" eskatu dizkiogu. Ez digu ulertu, orduan azaltzen saiatu gara "ebaki" "cortado" dela eta "bat" "uno". Bere erantzuna "en castellano mejor que asi nos entendemos todos".

Dosierra: 772-2025

Nori: FRINSA DEL NOROESTE S.A.

Arrazoiak: Frinsa kontserben kateak denda du Gasteizko "Postas" kalean. Dendako kartel guztiak gaztelaniaz daude eta sarreran ingelesez ere jartzen dute bat. Bilbon ere denda duen kontserba kate garrantzitsua da, Galizakoak izanik gainera hizkuntza gutxiagotuak eta bertoko bezeroak kontuan hartuko gintuztela uste nuen, tamalez ez dute ezertxo euskaraz.

Dosierra: 776-2025

Nori: TORINO BERRIA - LABA -

Arrazoiak: Iruñeko Torino Berria tabernan izan naiz. Eman didaten tiketa ez dago euskaraz. Gosarien karta eta Barrako karta erdaraz dago lehentasunez.

Dosierra: 789-2025

Nori: BURGER KAIZOKU TABERNA

Arrazoiak: 2025-10-19an, 18:30ak aldera, Astigarragao Kaizoku tabernan kafesnea eta ebakia eskatu eta "en español por favor" erantzun zidan zerbitzariak. Nik "kafesne eta ebaki bat errepikatu nion. Zerbitzariak "en español, por favor" berriro. Orduan hasi nintzaion esaten "kafesne es café con leche y ebaki, cortado". "En español" berriro ere berak. Ez zuen nire azalpenik entzun ere egin nahi izan. Nik hizketan uzteko esan nion eta harek "en español por favor" eta "si no me pides en español no te atiende". Jira eta beste bezero bat atenditzen hasi zen. Bezero honek "bi zurito" esan zion eskuarekin bi markatuz. Pertsona honekin ere jarrera bera izan zuen. Zerbitzariari erreklamazio orria eskatu eta "ahora mismo" esan zidan, baina bertan geratu zen beste bezeroak atenditen, erreklamazio orrien bila joan gabe. Jarraian bigarren zerbitzari bati erreklamazio orria eskatu nion. Atzera eta aurrera hasi zen, erreklamazio orrien bila. 20 minutu egin nituen orrien zain. Tartean 2. zerbitzariari "kafesne bat eta ebaki bat" esan nion. Honek "kafesne es cafe con leche verdad" esan zidan. Nik baietz eta zerbitzatu ninduen. Erreklamazio orria bete eta kopien gaia nola zioan galdetu nion 2. zerbitzariari. Ez zekien oso ondo jatorrizkoa eta kopiatiboak nola ziren. Azkenean neroni ibili nintzen antolatzen. Kontsumobideko erreklamazio orria bete eta sinatu egin genuen (bigarren zerbitzariak sinatu zuen; erreklamazio zenbakia 320436). Hori guztia gertatu zen bitartean 1. zerbitzariak inolako jaramonik ez zuen egin eta beste bezero batzuk atenditzen aritu zen. Bezero eta euskaldun gisa taberna honek gaizki tratatu ninduen eta ez zituen nire hizkuntz eskubideak errespetatu. Euskaldunok pazientzia ikaragarria dugu eta zerbitzari batek euskaraz ez dakienean pazientzia handiz saiatzen gara "ebaki bat" esaldia uler dezan. Elkarriketa hori edukitzeko eta gisa horretako zerbitzu bat egiteko (kafe bat, ebaki bat, kaña bat, pintxo bat...) ez da euskaltegira egunero bi ordu joan behar. Aski da jarrera egokia eta arreta pixka bat jartzea. Kaizoku tabernari eskatzen diot ez dadila berriro horrelakorik gertatu eta har ditzala neurriak hizkuntzak egoki kudeatzeko eta bezero euskaldunak begirunez tratatzeko. Halaber, tabernaren hizkuntza paisaia, webgunea eta abar euskaraz ere jartzeko eskatzen diot (webgunea ez dago osorik euskaraz; euskaraz menuen atala dago soilik).

Erantzuna:

Kaizoku taberna: Zerbitzarien defentsan esan behar da zerbitzariak kolonbiarrak direla, duela 2 urte herrialdera iritsi zirela. Azalpenak eskatzerakoan hori kontuan izatea ez legoke soberan, erreklamazio-orriak idazten duen pertsonaren iritzia edo kontakizuna bakarrik jasotzen baitu, eta inoiz ez beste aldearena. Zerbitzariak azaldu zion ez zuela euskara ulertzen, oso normala zela kolonbiatik zetorrela jakinda, eta ez zuela euskararen ideiarik, eta gaztelaniaz esateko eskatu zion, Espainian komunikatzeko beste aukera logiko eta normal bat zela, lurraldean hizkuntza ofiziala izaten jarraitzen zuena. Gure aldetik, Euskal Herrian gaudela jakinda, Euskararen gure aukerako erabilera egiten dugu, ez baikara erakunde publikoa, eta ez dugu hura erabiltzeko betebeharririk, nahiz eta hizkuntza horretan komunikatzen garen egoki deritzogunean. Ez dut ikusten hizkuntzarekiko inolako errespetu faltarik egiten dugunik, ez baita behar ez bezala erabiltzen, edo isekarik egiten, baina estatuko lehen hizkuntza ofiziala erabiltzea komeni dela uste dugu, askoz ere irismen handiagoa baitu eta, gainera, negozioaren esparru guztietan euskara erabiltzeko baliabide guztiak baititugu, eskatzen bazaigu. Lantaldeko kide guztiek ez dute hizkuntza ezagutzen, baina saiatzen ari gara irakasten, negozioaren eta gure bezeroek euskaraz izan ditzaketen eskaera arruntenen oinarria izaten. Egia esan, uste dut gure negozioaren aurkako konfliktoren bat dagoela herrian, inbidiak oso txarrak baitira, eta inguruan lan gehien egiten duen negozioetako bat denez, gure lana hondoratzen saiatzen ari dira.

Dosierra: 790-2025

Nori: INSTITUTO DEL PINTXO DE DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN - DONOSTIAKO PINTXOAREN INSTITUTUA

Arrazoiak: Donostiako Pintxoaren Institutuaren eskuorri bat jaso nuen taberna batean. Donostia Turismo erakunde publikoa, Donostiako Udalaren Turismo atala eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren turismo atala dira institutu honen sustatzaileak. Bertan egiten den hizkuntzaren erabilerak ez ditu erakunde horiek onartuta dituzten erabilera-irizpideak betetzen, ez baitie lehenetsasuna ematen euskarazko testuei. Testuak hainbat hizkuntzatan agertzen direnean euskarazkoak ez daude lehenengo, ordenean. Erakunde horren irudi koporatiboko logoan ere, ez da euskara ageri, ez bada Pintxo hitzaren TX horretan eta Donostia / San Sebastián hiriaren izen ofizialean. Webgunea begiratuta, lau hizkuntzatan badago ere, hizkuntzak hautatzeko menuan euskara bigarren aukera da.

Erantzuna:

Herritarrentzako Arreta Zerbitzua: Donostia Turismoarekin harremanetan jarri gara, eta haiek esan digute ez dutela parte hartu kexan aipatzen den eskuorriaren ekimenean, ez laguntzaile gisa ez inola. Egia da Pintxoaren Institutua Donostia Turismoko bazkidea dela eta Donostia Turismoarekin elkarlanean zenbait ekimen egin izan dituztela azken urteetan, baina harreman hori oso puntuala izan da. Donostia Turismoa sozietate mistoa da, Donostiako Udalak parte hartutako enpresa da baina sektoreko eragileek ere sozietatean parte hartzen dute, bazkide gisa. Bazkideek zenbait betebeharrak dituzte, besteak beste, Donostia Turismoko bazkide-kolaboratzaile direla jakinaraztea (hitzez hitz ?DSSTaren bazkide izaera ezagutzera ematea?), eta arrazoi horregatik jartzen dute Donostia Turismoaren logoa beren komunikazioetan. Hala ere, gure asmoa da, lanketa egitea Donostia Turismoarekin Udalaren hizkuntza irizpideak betetzea bazkideen betebeharra izan dadin. Era berean, Donostiako Pintxoaren Institutuarekin harremanetan jarri gara kexaren berri emateko eta komunikazioetan bete beharreko hizkuntza irizpideen inguruko proposamena egiteko.

Dosierra: 800-2025

Nori: PIZZERIA TOTÓ -SOPELA-

Arrazoiak: Pizzeria Toto euskaraz zerbitzua emateagatik, rotuloak eta dena erderaz izan arren, euskaraz zerbitzua emateko gai dira eta prest egon ziren guri euskaraz zerbitzatzeko.

Dosierra: 808-2025

Nori: MAGORA BAKERY

Arrazoiak: Gernika-Lumoko urriko azken asteleheneko azokan jarritako postuan dena gaztelaraz bakarrik.

Dosierra: 827-2025

Nori: PATATAS SARRIEGUI

Arrazoiak: Patatas Sarriegui produktuen izenek eta paketeen azalek ez dute euskararen arrastorik, gaztelera eta ingeles hutsean jarri dituzte.

Dosierra: 884-2025

Nori: SERENDIPIA JATETXEEA

Arrazoia: Toki edo negozio pribatuetan ere errespetuzko jarrera eta irudia eska liteke euskararen presentzia edo ikusgarritasun kontua dela eta... agian (denon?) Erakunde Publikoek zertxobait gehiago egin lezakete horrela izan dadin! Horra min ematen duten kasu horietako bat. Barakaldoko BEC inguruko jatetxe horretako jabe/arduradunen ustez, euskara kanpoko hizkuntza da argi eta garbi! Esan gabe doa atari / erakusleihoetan ere, noski, plaka horrek adierazten duen jarrera bera islatzen dela!

Dosierra: 939-2025

Nori: LA CUEVA DEL POLLO JATETXEA

Arrazoia: Donostiako "La Cueva del Pollo" jatetxera joan eta oilasko bat eskatzean, "en castellano" modu zatarrean erantzun didate gaur. Saltzen duten gauza bakarra oilaskoa dela jakinda, oilasko=pollo dela esan eta "no me interesa aprender" erantzun dit modu zatarrean oraingoan ere. Lotsagarria izan duten jarrera.

Erantzuna:

La Cueva del Pollo: Lehenengoz barkamena eskatu nahi nioke bezeroari gertaturiko arengatik, negoziaren nagusi bezala 25 urte daramatzat eta lehenengo aldiz gertatu zait horrelako egoera desatsegina pasatzea. Urte guzti hauetan beti zaindu det euskararen presentzia negoziaren arlo guztietan, ni euskalduna izanik garrantzi handia ematen bait diot eta bereziki minduta sentitu naiz egoera honekin. Nahiz eta langileak atzeritarrak izan, beti argi utzi diet nun dauden eta zein den euskararen garrantzia eta naiz eta ez hitz egin, minimoak jakin atenditzeko eta beti errespetuz zuzendu bezeroei. Kasu honetan bertan zegoen langilearekin hitz egin det eta helarazi diot jasotako kexa, berriro gertatu ez dadin. Besterik gabe agurtzen naiz eta edozer zalantza gehiago argitzeko prest.

Dosierra: 966-2025

Nori: YOLA BERRI JATETXEA

Arrazoia: Hondarribiko Yola Berri ostatu honetako menuaren karta gazteleraz eta frantsesez, soilik, daukate. Erreklamazio orri bat eskatu genuen, eta ez ziguten eman ez zekitelako non zeuden.

Dosierra: 976-2025

Nori: ZURETZAT TABERNA

Arrazoia: Bilboko Guggenheim inguruan multinazional baten jabetza ez zen ostatu baten bila genbiltzan, aukeran euskara kontuan hartzen zuen taberna baten bila. Han barrena 20 minutuz ibili eta gero, 'Euskaraz//' biribil gorria zuen ostatu batean sartu ginen pozik. 'Zuretzat' izena zuen. Kanpoko menua gaztelaniaz, ingelesez eta frantsesez zeukaten, baina barruan hainbat ikurriña eta Joxan Artzeren esaldia zuten: 'Hizkuntza bat ez da galtzen...', Tira, bi tabernari zeuden barran, eta haietako bati zera eskatu nion: 'bi sanwitx, mesedez'. Beste tabernariak buelta eman, eta zera esan zidan: 'Erdaraz'. Batetik, pentsatzen dut euskaraz ez zekien tabernariak ulertu izan ez banindu, umilki esango zidala ez zuela ulertu. Bestetik, nire buruari galdetzen diot ingelesez aritu izan bagina berdina gertatuko ote zen. Euskalduna zen langilearengandik aginterazko tonoa 'erdaraz' hori jasotzea mingarria izan zen. Euskaldun gisa ez nintzen batere ongi jaso sentitu zuen ostatuan, alderantziz. 'Euskaraz barra-barra' bezalako ikurren helburua zera da: "Euskaraz barra-barrak kontsumitzailea erdigunean jarri eta espazioak identifikatuko ditu euskara egunero eroso eta lasai erabili ahal izateko eta bizipen eroso eta positiboak bizitzeko." Espero dut aurrerantzean euskaldunok merezi dugun tratua jasoko dugula 'Zuretzat' ostatuan. Azkenik, 'Euskaraz//' kudeatzen dutenei ere bideratu nahiko nieke mezu hau, egiten duten lanketan sentsibilizazioa indar dezaten eta ikurraren helburuak berma daitezen, alegia, gure hizkuntza-eskubideak.

Dosierra: 982-2025

Nori: PETRITEGI SAGARDOTEGIA

Arrazoia: Astigarragako Petritegi sagardotegiak gaztelania hutsean egiten ditu Instagrameko publikazio gehienak. Elebiz egiten dituztenean, gaztelaniari lehentasuna ematen diote. "Euskal sagardoa" bezala saltzen duten produktuak gutxi dauka "euskal"-etik, gure hizkuntzari (eta beren etxeko eta arbasoen hizkuntzari) begirunerik ez badiote. Ongi dago mundura zabaldu nahi izatea, baina errespetu pixka bat, arren, Euskal Herrian dituzuen bezeroei. Lotsagarria da eta jarrera hori aldatzeko eskatzen diogu Petritegiaren buru den familia euskaldun eta jatorrari. Guk zaintzen ez badugu, nork zainduko du gure hizkuntza? Hori ez da sagardotegien esentzia...

ENERGIA HORNITZAILEAK (12)

Dosierra: 103-2025

Nori: TOTAL ENERGIES S.L.U.

Arrazoa: Konturatu berri naiz, Matienean (Laubideta kalea, Abadiño), San Blas ostatuaren parean ibilgailuak kargatzeko zera ipini duela Total Energies etxeak. Dena erdara hutsean dago: (1) ez aparkatzeko bide-seinaleak dio, gaztelania hutsean, "EXCEPTO VEHÍCULOS ELÉCTRICOS EN SITUACIÓN DE CARGA"; (2) kargagailuan berean diren jarraibideak gaztelaniaz eta ingelesez daude: Recárgate fácilmente / Easy charging (1) Con tarjeta TotalEnergies o tarjeta de movilidad eléctrica / With a TotalEnergies or third-party mobility card Coloca tu tarjeta en el lector de tarjetas durante unos segundos / Swipe your mobility card in front of the reader for a few seconds Sigue las instrucciones de la pantalla y conecta tu coche eléctrico / Follow the instructions on the screen then plug in your vehicle Detén tu sesión de recarga colocando de nuevo tu tarjeta de movilidad en tu lector, antes de desconectar tu coche / End the session by swiping your mobility card again before unplugging the connector Con una tarjeta bancaria en la aplicación/web con el código QR / With the bank card to pay online using a QR code (1) Escanea el código QR que aparece en el cargador / Scan the QR code on the charger (2) Sigue las instrucciones desde tu móvil y conecta tu coche eléctrico / Follow the instructions on your phone then plug in your vehicle (3) Detén tu sesión de recarga desde tu móvil, volviendo a la aplicación o al sitio web, antes de desconectar tu coche / End the session from your phone before unplugging the connector ¿Necesitas ayuda? / Do you need help? Llama [a] nuestro centro de atención al cliente 24/7 / Please call our hotline: +34828008154 De acuerdo con la directiva 2015/849 de 20/Mayo/2015, relativa a la prevención de la utilización del sistema financiero para el blanqueo de capitales y la financiación del terrorismo, nuestro socio de pago en línea requiere ciertos datos personales que no serán conservados ni registrados por TotalEnergies en ningún caso, salvo que desees crear tu cuenta

Dosierra: 137-2025

Nori: BM PETROZALAIN SL

Arrazoa: Berako BP Petrozalain gasolindegian kartel eta ohar guztiak gaztelaniaz daude, euskararen arrastorik ere ez. Euskaraz jar ditzatela eskatu nahi diet.

Dosierra: 207-2025

Nori: I-DE REDES ELECTRICAS INTELIGENTES SAU -GRUPO IBERDROLA-

Arrazoa: Elektrizitatea Goiener enpresarekin dugu, baina Iberdrolaren gutuna jaso dugu, gaztelania hutsean, esateko diru zati txiki bat ez digutela kobratuko, argi barik egon ginelako tarte batez. Horrelako komunikazioak ere euskaraz jaso nahi ditugu, Goienerrek egiten duen bezala.

Dosierra: 400-2025

Nori: RED ELECTRICA ESPAÑOLA S.A.U.

Arrazoa: Asteon ondoko iragarkia agertu da prentsan, erdara hutsean ---erantsita duzue argazkia---: AVISO DE OCUPACION TEMPORAL DE CALZADA Ubicación: carretera Foral BI-3709 Larrakoetxe a Boteola (Loiu-Gatika), entre los PK 16+000 y 16+800, en ambas márgenes, tramo no urbano, zona de dominio público en el término municipal de Gatika. Periodo: del 27 de mayo al 27 de septiembre de 2025. Motivo: obras de la reordenación de acceso a la Estación Conversora de Gatika. Interconexión eléctrica España-Francia por el Golfo de Bizkaia. Impacto: cierre parcial de un carril, señalización de tráfico alternativo mediante semáforos. Se recomienda a los conductores, que tengan en cuenta este aviso y tomen precauciones adicionales al circular por la zona. Red Eléctrica / Una empresa de Redeia

Dosierra: 417-2025

Nori: NORTEGAS ENERGIA DISTRIBUCIÓN S.A.U.

Arrazoa: Nortegasera deitu dut (900907442, gaur bigarren aldiz) gaurko egin behar zidaten errebisioa atzeratzeko. Nortegas omen da hau egin behar didana, nahiz eta nik haiekin kontraturik izan ez. Aurrekoan deitu nuen eta Sonia izeneko operadoreak "no te entiendo" erantzun eta oso zakar aritu zen. Esan nion euskaraz nahi nuela artatua izan eta norbaitek deituko zidala esan zidan. Gaur, errebisioa pasa behar duten egunean, berriro deitu eta oso jarrera aurkakoa izan du. Berriro "no te entiendo" esan eta behintzat beste jarrera bat izateko esan diot. Moztu egin du deia! Kontuak kontu, ez dakit zer egin nire errebisioa egiteko.

Erantzuna:

Bezzeroarentzako arreta zerbitzuko burua: Nortegas Energía Distribución enpresatik hau eman nahi dugu aditzera: •Lehenik eta behin, jakinarazten dizuegu beste hitzordu bat adostu dugula eskaeran hizpide den gas-instalazioaren aldizkako ikuskapena egiteko. Ikuskapena ekainaren 25ean egingo da, goizeko 09:00etan. Telefono bidezko arreta euskaraz eman dugu. •Aurkeztutako kexaren harira, bulego teknikoarekin kontsultatu ondoren, jakinarazi digute litekeena dela gaizki-ulertua egon zela deiaren hartzailearen jarrerari dagokionez, eta horrek eragozpena eragin ziola bezeroari. Bulegoak esan digunez, arreta euskaraz emateaz arduratzen zen lankidea ez zegoen deia egin zenean. Egoera horren aurrean, arreta-emaileak jakinarazi zuen berriz deituko zutela hitzordua euskaraz egiteko. Informazio hori eman eta elkarriketa amaitu ostean, deia eseki zen, baina ez dago argi bat-batean eseki zenik. Era berean, adierazi digute erabilitako hizkera zuzena izan zela une oro. Benetan sentitzen dugu hala iruditzen ez izana. •Bide batez, berretsi nahi dugu Nortegasek konpromiso sendoa eta etengabea duela euskara sustatzeko, bai gure komunikazioetan, bai bezeroei ematen dizkiegun zerbitzuetan. •Azkenik, benetan eskertu nahi dugu Euskararen Behatokiak euskararen erabilera gizartearen eremu guztietan bultzatu eta normalizatzeko egiten duen lana.

Dosierra: 522-2025

Nori: NORTEGAS ENERGIA DISTRIBUCIÓN S.A.U.

Arrazoiak: Nortegasen eskutitz bat jaso dut, bertan deitzeko eskatu didate, ikuskapen hitzordua hartzearen. 900814170 zenbakira deitu dut 15:48an, gaztelaraz erantzun dit andre batek eta nik euskaraz egitean, gaztelaraz hitz egiteko eskatu dit, zalantza izan dut nik eta euskaraz nahiko nukeela erantzun diot eta orduan berak esan dit ea horren zaila egiten zitzaidan gaztelaniaz egitea, nik berriz deituko dudala esan diot. Moztu eta deitu egin dut 15:53tan, andre batek hartu dit, aurreko berbera zen berak esan baitit gaztelaraz hitz egin ezean ezin genuela aurrera egin eta moztu egin dit arratsalde ona opatuz. Moztu eta deitu egin dut 15:55tan, andre berdinak zirudien eta euskaraz hitz egitean "¿En serio? ¿de nuevo con esto? Mira, que tengas buena tarde" eta moztu egin dit. Orduan 946445746 zenbakira deitu dut, baina bertan 15:00ak arteko ordutegia zutela erantzun dit makinak. Orduan eskutitzean agertzen zen hirugarren zenbaki batera deitu dut 900902933 eta "sakatu ezazu 2 zenbakia euskaraz egin nahi baduzu" esan du zenbaki honetan lokuzioak eta hala egin dut eta berriz ere, beste 900 zenbakian

aurreko hiruretan erantzun didan andreak hartu du, nik euskaraz egin dut eta "mira, así no, tú sigue llamando que yo estaré todo el día" eta moztu egin dit. Azken honetan nik dagoeneko euskaraz egiteko aukeratua nuen, honetan sarrerako lokuzioak aukeratzeko eskatu baitit. Hitzordua ondo dagoen eskatu behar dut, bestela gasa moztuko didala esan baitit Nortegasek eta ez dakit euskaraz lortuko dudana.

Erantzuna:

Bezzeroarentzako Arretaren Arduraduna: Aurkeztutako kexari dagokionez, hornitzaileari kontsulta egin ondoren, esan digu hitz egin duela bi telefono-zenbakiei erantzun zien pertsonarekin eta azaldu diola ez zela modu egokian aritu. Hark ulertu du okerreko jokabidea izan zuela, eta barkamena eskatzen dizue. Hornitzailearen arabera, bost pertsonak ematen dute arreta telefono-zenbakiotan, eta pertsona horietatik, batek bakarrik ez daki euskaraz, zehazki, deiak hartu zituenak.

Dosierra: 617-2025

Nori: MOEVE RETAIL OPERATIONS SA

Arrazoiak: Oiartzunen, AP-8 bideko 8,3 KPN eta Biriatu norabidean dagoen zerbitzuguneko gasolindegiko (jabea: Moeve Retail Operations SAU) kartelak eta bestelakoak berriro dituzte, eta berrietan nabarmena da euskara bigarren mailan (behean eta letra askoz txikiagoa) utzi dutela. Era berean, ordaintzeko gailuetan euskara aukera dezakegun arren, gaztelania modu lehenetsian aukeratuta dago; horren harira, nahiz eta euskara aukeratu, tiketak gaztelaniaz inprimatzen dituzte gailuek. Hori guztia gutxi balitz, Euskal Herrian gasolindegia dituen arren, webgunea (<https://www.moeve.es/es/particular>) gaztelaniaz eta ingelesez baino ez dauka.

Dosierra: 641-2025

Nori: MOEVE RETAIL OPERATIONS SA

Arrazoiak: Euskal Herrian gasolindegia dituen arren, Moeve enpresak webgunea (<https://www.moeve.es/es/particular>) gaztelaniaz eta ingelesez baino ez dauka.

Dosierra: 805-2025**Nori:** SHELL ESPAÑA SA -Bezzeroaren Arreta Zerbitzua-

Arrazoa: Mugiroko Shell gasolindegian kartel, ohar eta seinale guzti-guztiak gaztelania hutsez daude. Gainera, herriaren izena 'Muguiro' idatzita daukate, Mugiro beharrean. Eskaera egiten diet herriaren izena modu egokian jar dezaten, euskara aintzat har dezaten eta idatzizko elementuetan euskara ere erabil dezaten. Era berean, eskaera luzatu nahi diot Larraungo Udalari ere, ahal den neurrian, beharrezko neurriak har ditzan bailarako gasolindegian ere euskara erabiltzen dela bermatzeko.

Dosierra: 840-2025**Nori:** I-DE REDES ELECTRICAS INTELIGENTES SAU -GRUPO IBERDROLA-

Arrazoa: Gaur Bermeo erdia argirik gabe egon denez i-DEk (Iberdrola taldearen parte dana) bi sms bidali dizkigu jakinarazpen modura; gazteleraz bakarrik. Euren web gunea ere gazteleraz bakarrik dago: <https://www.i-de.es/mapa?p=48&m=170006&ct=200601930>

Dosierra: 887-2025**Nori:** IBERDROLA SAU - CLIENTES -

Arrazoa: Iberdrolak iragarki berriak egin ditu eta leku askotan daude ikusgai. Horien arean Metro Bilbaon eta Euskotranen. Iragarkiak Metro Bilbaoko Bilboko geltoki guztietan daude, sarreretan baita nasetan ere eta den-denak daude gaztelaniaz. Euskotranen ere bada iragarki hori baina tranbieten itsatsita, kanpoaldean. Tranbiak oso-osorik dabilta iragarki berarekin estalita eta hau ere gaztelania hutsean beti. Bilboko kaleetan ere ikusi dut iragarki bera, beti gaztelaniaz.

Dosierra: 915-2025**Nori:** I-DE REDES ELECTRICAS INTELIGENTES SAU -GRUPO IBERDROLA-

Arrazoa: Iberdrolak hornidura elektrikoan matxuraren eta intzidentziaren bukaeraren berri emanez bidali dituen emailak gaztelania hutsean daude. Horrelako abisuak euskaraz ere bidal behar zenituzkete, kontsumitzaileok eskubidea baitugu horien berri euskaraz izateko.

ERAGILEAK/MUNDU ASOZIATIBOA (6)

Dosierra: 124-2025

Nori: ASOCIACIÓN BARAKALDO DE COMERCIO, HOSTELERIA Y SERVICIOS -ABK-

Arrazoa: ABK-k "Asociación Barakaldo de Comercio, Hostelería y Servicios" eurek esaten duten bezala, 64 orriko aldizkaria argitaratu du. Oker ez banago, Gabonak aldera argitaratu zuten. Bada, herrian paperean banatu dituzten aldizkari guzti-guztiak erdara hutsezkoak izan dira. Euskaraz nahi izanez gero, Internetera jo behar duzu, QR kodea jaitsi behar duzu, eta horrela euskaraz irakurri ahal da, baita ingeleseraz ere. Aldizkari honek, Udalaren laguntza dauka.

Dosierra: 205-2025

Nori: BIZKAIKO TOKI ADMINISTRAZIOKO IDAZKARI, KONTU-HARTZAILE ETA DIRUZAINEN ELKARGO OFIZIALA

Arrazoa: Bizkaiko Toki Administrazioako Idazkari, Kontu-hartzaile eta Diruzainen elkargoak webgunea ez du euskaraz eta informazio guztia gaztelaniaz baino ez du eskaintzen. Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako entitatea izanik (Bilbon du egoitza), bertoko hizkuntza ofizialean informazioa eskuratzeko eskubidea bermatu beharko luke.

Dosierra: 376-2025

Nori: ONCE - ORGANIZACION NACIONAL DE CIEGOS ESPAÑOLES -

Arrazoa: Once-k webgune berri bi jarri ditu martxan. -Txakur gidarien fundazioko webgunea: <https://perrosguia.once.es/> Euskaraz ezin daiteke kontsultatu. -Museo Tifologikoarena: <https://museo.once.es/> Euskaraz kontsultatzeko aukera ematen duen arren, museoaren inguruko laburpen bat baino ez da, gainerako informazio guztia gaztelaniaz dago. Baliabide guztiak gure hizkuntzan kontsultatzeko eta erabiltzeko aukera izan beharko genuke.

Dosierra: 741-2025

Nori: NAFARROAKO ELIKAGAIEN BANKUA

Arrazoa: Eskatera egin nahi diot Nafarroako Elikagaien Bankuaren Fundazioari bere webgunea euskaraz ere eskura jar dezan: <https://bancoalimentosnavarra.org/>

Dosierra: 803-2025

Nori: FEVAS -Plena inclusión Euskadi-

Arrazoa: FEVAS Plena inclusión Euskadi izeneko erakundeak 2025eko kode etikoa argitaratu du. Euskarazkoa eskatu nien eta gaztelaraz soilik dutela erantzun didate. Pentsatzen dut erakunde horrek diru-laguntzak jasotzen dituela (ez dut konprobatu). Ez lukete euskaraz argitaratu beharko ere? Gainera, kontuan izanda inklusioa xede duen erakunde bat dela...

Erantzuna:

Zuzendaria: Argitu nahi genuke dokumentu hori egiteko eta argitaratzeko ardura duen erakundea estatu mailakoa dela, eta, beraz, gaztelaniaz eman dela erakunde horren eskumen-eremuari dagokiolako. Horri dagokionez, FEVAS Plena inclusión Euskadik ez du Plena Inclusiónen ordezkari gisa jarduten, eskumen propioak eta bereiziak dituen eta adimen-desgaitasuna duten pertsonen eta haien familien elkarteekin Euskadiko erreferentziazko erakunde gisa baizik. Gaur egun, FEVASen ekoizpen propioko argitalpen guztiak bi hizkuntzetan argitaratzen dira. Hala ere, zure oharra baloratzen eta eskertzen dugu, gure erakundearen printzipioekin bat baitator. Ildo horretan, Euskadin onartu ondoren aipatutako dokumentua euskaratzeko konpromisoa hartzen dugu.

Dosierra: 933-2025

Nori: ASOCIACIÓN BARAKALDO DE COMERCIO, HOSTELERIA Y SERVICIOS -ABK-

Arrazoa: ABK Asociación Barakaldo de Comercio, Hostelería y Servicios delakoak, Santo Tomas dela eta, herriko kaleetan ipini dituzten kartel guztiak erdera hutsez daude idatzita.

FINANTZAK/ASEGURU ETXEAK (19)

Dosierra: 17-2025

Nori: KUTXABANK - BEZEROARENTZAKO ARRETA ZERBITZUA

Arrazoia: Bigarren aldiz, Kutxabankek gaztelania hutsez idatzitako gutuna bidali dit, euskaraz idatzitako erreklamazio bati erantzuteko. 2024ko ekainean gauza bera gertatu zen. Kexa jarri nuen, eta ordukoa akatsa izan zela adierazi zidaten, eta euren hizkuntza irizpidea dela euskaraz eskatutakoari euskaraz erantzutea. Baina, itxuraz, hipoteka-klausulen erreklamazioen kasuan behintzat, gaztelania hutsezko gutun estandarrak bidaltzea da Kutxabanken hizkuntza-irizpide bakarra. Kutxabankera idatzi dut zuzenean, hemen kexa adierazteaz gain.

Erantzuna:

Hizkuntza kudeaketa: Gertatutakoagatik barkamena eskatzeko idazten dizugu, eta bide batez, mezuagatik eskerrak emateko ere bai, horrelakoei esker hobetzen baitugu gure zerbitzuaren kalitatea. Garai berean, gai beragatik beste erreklamazio bat jaso genuenez, zuzenketa eskaera egin genuen berehala, eta Bezeroen Arretarako arduradunak berak erantzun zigun biharamunean, bezeroari mezua euskaraz eta barkamena eskatuz bidali ziola jakinarazteko. Hizkuntza Kudeaketatik ere dagoeneko erantzun diogu kexa jarri duenari. Bezeroen Arreta Zerbitzuko lankideen lan prozesuetan, gaiak ohartarazteko balio izan du idatzi honek ere, eta mezua hartzaileetan jarri ditugu, aurrerantzean, arreta eta ardura handiagoz jardutea dagokigula gogoratzeko.

Dosierra: 88-2025

Nori: KUTXABANK - BEZEROARENTZAKO ARRETA ZERBITZUA

Arrazoia: Kutxabank aseguruaren telefonora deitu dut azken egunetan bi aldiz. Euskaraz artatzeko 1 zenbakiari emateko esaten du, baina, ondoren ez dago euskaraz dakien langilerik. Bi deietan langilez langile ibili naute, euskaraz artatuko nauen norbaitekin jarriko nautela aginduz, baina, inoiz ez zen egia. Lehenengo deian ezer lortu gabe moztu nuen hirugarren langileak euskarazko lankideari pasako ziola agindu ondoren, zain jarri eta minutu batzuz inork hartzen ez zuelako. Bigarren deian 10 minutu ondoren esan diet nabarmena dela ez dagoela euskaraz dakien inor, eta gaztelera egin behar izan dut azkenean gaia itxi ahal izateko.

Dosierra: 91-2025

Nori: KUTXABANK - BEZEROARENTZAKO ARRETA ZERBITZUA

Arrazoia: Kutxabankek bezero guztioi eta baita haur zein gazteei eskaintzen dien kontratu eta kontu laburpenaean zein mugimenduenean ez du euskara errespetatzen eta informazio aldagarri eta interesgarri guztia gaztelera hutsez eskaintzen du 2025ean ere. Ikus atxikitutako adibidea, ohiko eta egunerokoa da jardun hau.

Dosierra: 122-2025

Nori: KUTXABANK - BEZEROARENTZAKO ARRETA ZERBITZUA

Arrazoia: Astrabuduko 'Bankubanken' (Kutxabank) bulegoan euskaraz egiten dugunoi zergatik erantzuten digute batu hutsean (erdara batuan)? Aldian-aldean langile berriak eta gazteak ipintzen dituzte mostradorean, eta ohikoa da egoera hau. Behintzat ez digute espainolez egiteko esaten. Pozik egon behar dugu? Gero esango dute euskaldunok pribilegiadunak garela. Zergatik ez gaituzte 2025ean, behingoa, erdaldunak bezain ondo atenditzen?

Dosierra: 140-2025

Nori: LABORAL KUTXA - BEZEROAREN ARRETARAKO ZERBITZUA

Arrazoia: Honako mezu honen bitartez berretsi egiten dut 2024-12-13an bidali nuen kexa (1159-2024): Zabalburu plazako (Bilbo) Laboral Kutxaren bulegoan zergatik dituzte kartelak erdara hutsean? HORARIO DE CAJA A PARTIR DEL 02/01/2023 8:30 A 12:00 / (Mayores de 65 años y personas con discapacidad 8:30 a 14:00) / HORARIO PARA INGRESO DE EFECTIVO EN CUENTAS AJENAS 8:30 A 10:00 HORARIO CAJA NO CLIENTES / TODOS LOS DÍAS DE 8:30-10:00 Behean duzue. Atxikirik duzue gaurko bertako argazkia.

Dosierra: 224-2025

Nori: KUTXABANK - BEZEROARENTZAKO ARRETA ZERBITZUA

Arrazoia: El Correo egunkariko gaurko aleak hurrengoak dakar Kutxabankeko Presidenteari egindako elkarrizketa baten gainean: "Anton Arriola advierte de que el euskera es un «factor limitante» para atraer profesionales del extranjero" Kargutik kentzeko moduko hitzak direla deritzot.

Erantzuna:

Bezeroentzako Arreta Zerbitzua: Bilboko Merkataritza Ganberan Kutxabanken presidentek egin zituen adierazpenen oihartzunaren haritik, hurrengo puntuak argitu nahi genizkizuke: - Bere adierazpenetan argi utzi zuen gure hezkuntzako komunikazio-hizkuntza euskara dela, eta izan behar dela ("compatibilizar nuestro modelo de educación con el euskera como lengua vehicular con..."). - Gehitu zuen, kasu hipotetiko bat erabiliz, uste duela ingelesez dauzkagun hezkuntza-aukeretan sakondu behar dugula (gure enpresek behar dituzten kanpoko profesionalen etorrera erraztu nahian). - Esaldi horren amaieran "limitante" hitza erabili zuen, ingelesez dauzkagun hizkuntza-aukeren urritasunari buruz hitz eginez, eta ez euskarari buruz. Hitz hori polemikaren ardatz nagusia izan da, hainbat kasutan haren esaldiaren esanahia erabat aldatu da eta, "limitante" (oztopo-lez itzulita) hitza euskararekin lotuz, eta ez ingelesezko hezkuntza-aukeren urritasunarekin. Euskara gure bihotzetik gertu-gertu dago eta beti defendituko dugu. Honenbestez, Kutxabanken konpromisoa berriro ere helarazi nahi dizugu. Benetan sentitzen dugu sortutako eztabaida.

Dosierra: 308-2025

Nori: KUTXABANK - BEZEROARENTZAKO ARRETA ZERBITZUA

Arrazoiak: Apirilaren 10ean, goizean, Barakaldoko San Bizente kaleko bulegoan leihatilan eragiketa erraza egitera joan nintzenean ez dute nire hizkuntz eskubidea errespetatu eta behin eta berriz eta oihuka "NO ENTIENDO EUSKARA, DIMELO EN CASTELLANO" erantzun dit horko langileak. Errespetu handiz erreklamazio orria eskatu diodanean bere erantzuna izan da: "VES ESO SI LO HE ENTENDIDO, ERREKLAMAZIOA" eta orria luzatzearekin batera bukatzeko betetzen beste leku batean eta joateko handik berak lanean jarraitzeko gaineratu du. Zuzendariari azaldu eta erreklamazioa eman diot. Azken horrek langilearekin hitz egindakoan, ez didala txarto erantzun bere hitz egiteko modua eta tonoa dela ... Tamalez, ez da bulego horretan nire hizkuntza hautaketa dela eta gorabehera izan dudana lehenengo aldia. Orain dela hilabete luze euskaraz aritzeagatik leihatilatik mahaletara bidali ninduten, bertan euskalduna omen zegoen eta. Hitzordurik ez nuenez, beste bezerorik ez egon arren, itxoiteko eskatu zidan. Zain nengoela beste bezero bat hitzordurik gabe heldu zen kontsulta bat egitera eta, harrigarria, langileak kontsulta nolabait argitu eta esertzeraz gonbidatu zuen guztiz

konpontzeko. Kexatu nintzenean lehenago ni artatu behar ninduela esan nionean, bere kriterioa erabilita bere erabakia zela bestea ni baino lehenago pasatzea. Une hartan oraindik ez zekien inork bulegoan neuk zer behar nuen, soilik zekien euskaraz aritzeko solaskidearen bila nabilela. Beste bezeroarekin amaitu zuenean pasatzeko esan zidan baina nahiago izan nuen zuzendariarekin hitz egin berak nire hasierako kontsulta erantzun dezan eta gertatutakoaren berri emateko. Lehiatilarako ilaran nengoela 10:30ak ziren eta hiru ordu eta erdi beranduago, zuzendaria libre geratu zenean, 20 segundu eman behar izan zuen nire kontsultari erantzuna emateko: BAI, ONLINE ERAKITA EGIN AHAL NUEN. Kexaren nondik norakoak entzuteko, barkamena eskatzeko eta idatzizko kexa nola bete eta non topatu ahal nuen azaltzeko 20 minutu. Ordu biak eta 20 minutu pasatxo irten nintzen handik. Bezero euskaldunetik enpatia eta profesionaltasun falta nabariak, eskubide urraketak eta aurrekoan zuzendariarekin izandako elkarriketaren eraginkortasun ezak niregan suertatutako atsekabea handia da; izan ere, iraingarria da. Barkamena eskatu bai, baina argi dago zurikeria zela; oraingoan, ezta hori ere ez omen da beharrezkoa. Ez dakit zuen protokoloen arabera nolako jokabidea izan behar duzuen euskaldunetik baina, guztion hobe beharrez, buelta bat eman beharko zenikete protokoloari ala aurrera eramateko moduari.

Erantzuna:

Hizkuntza kudeaketa: Barakaldoko bulegoan gertatutakoaren ondorioz helarazitako kexagatik erantzuteko idazten dugu, gertatutakoagatik barkamena eskatzeko, eta bide batez, mezuagatik eskerrak emateko ere bai. Barakaldoko bulegoko zuzendariari eta eskualdeburuei helarazi diegu kexa, gertatutakoaren berri emanez, Kutxabank barruan horrelako portaerek lekurik ez dutenez, berriro gerta ez dadin, beharrezko neurri zuzentzaileak har ditzaten. Honenbestez, mezuagatik eskerrak emateko probesten dugu, gertatutakoaren berri helarazteak gure jarduna berrikusi, eta zerbitzuaren kalitatea etengabe hobetzen laguntzen digute eta.

Dosierra: 324-2025

Nori: LAGUN ARO - BEZEROARENTZAKO ARRETA ZERBITZUA

Arrazoiak: Lagun Aro seguru etxera deitu (900380838) eta ez du aukerarik ematen euskaraz zerbitzua jasotzeko. Pertsona batekin hitz egin aurretik, azalpen guztiak gazteleraz dira. Azkenik, telefonoz pertsona batekin hitz egiteko aukera dagoenean, ez da bermatzen euskaraz dakienik.

Dosierra: 344-2025

Nori: BANCO SANTANDER S.A.

Arrazoia: Santander banketxearen web orrian ezin da euskaraz nabigatu. Ezta web orritik egin daitezkeen eragiketak euskaraz egin (mugikorrean bai). Web orria euskaratzea eta eragiketak euskaraz egin ahal izate eskatzen dut.

Dosierra: 453-2025

Nori: KUTXABANK - BEZEROARENTZAKO ARRETA ZERBITZUA

Arrazoia: Kutxabankek emailaz bidalitako komunikatu batean, sustapen batean izen emateko aukera eskaitzen du. Gauza bera bere web orritik online bankuan sartzean. Bi kasutan, helburu duen orria gaztelera hutsez dago, gainera euskaraz jartzeko inongo aukerarik gabe.

Dosierra: 488-2025

Nori: CAIXABANK zentrala

Arrazoia: Altsasuko Caixabanken bulegoan euskarazko aurrez aurreko arretarik ez.

Dosierra: 549-2025

Nori: KUTXABANK - BEZEROARENTZAKO ARRETA ZERBITZUA

Arrazoia: Kutxabankeko bulegoan, karteldegia erdara hutsez dago. Eta euskaraz dagoen dokumentazioa bigarren maila batean dago jarrita, gaztelera lehenetsiz. Eskuorri guztiak ere gazteleraazko aldea goruntz dutela zeuden itxaron gelako mahaian.

Erantzuna:

Hizkuntza kudeaketa: Eskerrik asko, gertatzen ari denaren berri jakinarazteagatik, zurea bezalako mezuek, gure zerbitzuaren kalitatea hobetzen laguntzen digutelako. Horregatik beragatik, Bulego Sareko arduradunak jakinaren gainean jarri ditugu, zuzendu beharrekoak lehenbailehen zuzen ditzaten, eta berriro errepika ez dadin beharrezko neurriak har ditzaten. Honenbestez, eragindako eragozpenengatik barkamena eskatzea dagokigu; izan ere, Kutxabanken ahalegintzen gara gure Hizkuntza Politikaren arabera jarduten, baina aitortzea dagokigu, zer hobetua badugula oraindik.

Dosierra: 675-2025

Nori: KUTXABANK - BEZEROARENTZAKO ARRETA ZERBITZUA

Arrazoia: Beste behin ere, Kutxabank asegurueta deitu eta: 1-Lokuzio osoa gaztelera hutsez. 2-Telefonoaren betaldean daudenek gaztelera besterik ez dute hitz egiten. 5 aldiz saiaturia ere, bostak gaztelera. Euskaldun batek deitzea nahiko nukeen galdetzen dute baina orduak edo egunak itxoitea suposatzen du horrek. Edo dei hori inoiz ez jasotzea.

Dosierra: 755-2025

Nori: LABORAL KUTXA - BEZEROAREN ARRETARAKO ZERBITZUA

Arrazoia: Laboral Kutxatik erdara hutsean jaso dut sms-a: "Se cargaran en tu cuenta recibos de X por primera vez por un total de Xa . Si no estas de acuerdo devuelvelos desde la Banca Online".

Erantzuna:

Bezeroen Arreta Zerbitzua: Mezu hauen bidalketa bezeroak gure datu basean jasota daukan hizkuntzan bidaltzen dira. Hau da, bezeroak bere komunikaziotarako euskara hizkuntza eskatuz gero Laboral Kutxak bidaliko dizkion ohar edo mezuak euskaraz izango dira, alderantziz berriz, gaztelaniaz eskatuz gero. Kexa aurkeztu duenari eragozpenak sortu badizkio gertaera horrek, benetan sentitzen dugu. Hau horrela, eskertuko nioke Laboral Kutxako sukurtsaletik pasa eta datu basean hizkuntza aldaketa egitea, horrela etorkizunean komunikazioak euskaraz jasotzeko. Herriarraren erantzuna: Irakurri berri dut Laboral Kutxak zer erantzun duen 755-2025 kexaz. Ez du zentzurik, euskara hautatua dut eta. Gainera, gogoratu dut lehenago ere kexatu izan naizela (ikus iazko 1090-2024 kexa), arrazoi beragatik, euskara hautatua dugun bezeroak hainbat sms erdaraz jasotzen ditugula. Ea oraingoan konpontzen duten. Zeren 2024koan tartean zegoen, besteak beste, 755-2025 kexako sms-aren antzekoa edo berdina: "Se cargarán en tu cuenta recibos de XXXXXXXX por primera vez por un total de 00,00€. Si no estás de acuerdo devuelvelos desde la Banca Online".

Dosierra: 810-2025

Nori: KUTXABANK - BEZEROARENTZAKO ARRETA ZERBITZUA

Arrazoa: Kutxabankek erreklamazio bat egiteko inprimakia gaztelania hutsean bidali zidan etxera nik hala eskatuta. Nik erreklamazio orria euskaraz bete nuen eta nik egindako erreklamazioari gaztelaniaz eman dio erantzuna.

Erantzuna:

Bezeroen Arreta Saila: Gure Hizkuntza Politikaren arabera, bezeroak eskubidea dauka arreta berak nahi duen hizkuntza ofizialean jasotzeko. Beraz, arazoa dagokion arduradunari jakinarazi diogu horrelakorik berriro gerta ez dadin. Eskerrik asko zuzendu diguzun erreklamazioagatik, ditugun hutsuneak ikusten eta konpontzea errazten laguntzen baitugu.

Dosierra: 825-2025

Nori: BANCO SANTANDER S.A.

Arrazoa: Banco Santanderren APP-a euskaraz erabili dut, transferentzia bat egiteko agindua eman dut eta argazkian bidaltzen ditudan xehetasunak agertzen zaizkit, hitz batzuk gaztelaniaz daude eta transferentzia egin gabe dagoela adierazteko gaztelaniazko "pendiente" itzuli eta belarritako jarri dute (egiteke dagoela adierazi beharrean, belarrietan jartzeko bitxia bezala itzuli da). Banco Santanderri euskarazko bertsioen zuzentasuna zaintzeko eta kontzeptu guztiak euskaraz ere ezartzeko eskatzen diot.

Dosierra: 844-2025

Nori: LABORAL KUTXA - BEZEROAREN ARRETARAKO ZERBITZUA

Arrazoa: Laboral Kutxaren eposta bat jaso dugu gure entitatearen datuen eguneraketa egin behar dugula jakinaraziz. Mezua gaztelania hutsean dago, ezta agurrik ere euskaraz.

Dosierra: 892-2025

Nori: LABORAL KUTXA - BEZEROAREN ARRETARAKO ZERBITZUA

Arrazoa: VIAT gailuan aldaketa bat egin dut. Aldaketaren kontratua gaztelaniaz helarazi dit Laboral Kutxak.

Dosierra: 914-2025

Nori: LABORAL KUTXA - BEZEROAREN ARRETARAKO ZERBITZUA

Arrazoa: Asteon Laboral Kutxatik ondoko e-maila jaso dut, sartu nadin app-era edo on-line bankara dokumentu bat igo didatela eta. "Dokumentua" da atxikitakoa. Euskaldunoi 'normaltasunez'/sistematikoki egiten digutena egiten ausartuko ote lirateke egiten bezero erdaldun/hispanoei. Begirunea eskatzen dut. Franco aspaldi hil zen eta ia 2026an gaude.

GARRAIO ZERBITZUAK (9)

Dosierra: 135-2025

Nori: BIP&DRIVE, E.D.E., SA

Arrazoia: Telepeaje edo ViaT delakoaren webgunea hizkuntza desberdinetan dago (gaztelaniaz, ingelesez, katalanez eta galegoz), euskaraz aldiz, ez. Erabiltzaile euskaldunok ez dugu euskaraz erabiltzeko aukerarik. <https://www.bipdrive.com> webgunea eta bezeroaren gunea euskaraz ere erabilgarri izan daitezen eskatu nahi dut.

Dosierra: 285-2025

Nori: AVANZA SPAIN SLU - Gipuzkoa -

Arrazoia: Avanza taldearen web orrian txartelak hartzeko garaian, defektuz beti gaztelerazko web orria ateratzen da. <https://online.pesa.net/index.asp?id=es> Behin euskarara aldatuta, ordainketa egin ondoren, berriz ere gazteleraz azaltzen da web orria, eta baieztapena gazteleraz bidaltzen dute. Berriz ere euskara hautatu beharra dago baieztapena euskaraz jasotzeko. Bigarren txartel bat hartzeko, berriz gazteleraz, euskarara pasa beharra bitan... Eta horrela txartel bakoitzarekin. Bestalde, euskarazko bertsioan ere, hilabete eta egunak gazteleraz ateratzen dira data aukeratzean. Ondorioz, euskaraz erabiltzeko zailtasun izugarriak daudela eta Gipuzkoako Foru Aldundiak babestu eta diruz lagunduko zerbitzu batzuek ari gara.

Erantzunak:

Bezeroen Arreta Saila: Lehenengo eta behin, eskerrak eman nahi dizkizugu gure erakundearekin harremanetan jarri izanagatik. Bide batez, barkamena eskatzen dizugu, zinez, gorabehera horrek eragozpenik sortu badizu. 6/2003 Legearen 4. artikuluan ezartzen den moduan, kontsumitzaileak bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko eskubidea du. Izan ere, hizkuntza-eskubideak Legearen VII. kapituluaren garatuta daude. Adierazi beharra dago gure erakundeak 38.2 artikuluko a, b, c eta d apartatuaren ezarritakoa betetzen duela, interes orokorreko erakundea den aldetik, jendeari zuzendutako jakinarazpenei, inprimaki eta/edo eredu ofizialei, kontratu, komunikazio eta abarri dagokienez, nahiz eta enpresa handitzat jotzen ez den. Web-orria, ordea, hasiera batean gaztelaniaz konfiguratuta dago. Beraz, informazio zehatza eskuratzeko eta bidaia-txartelak erosteko, aldatzeko edo ezeztatzeko, bakoitzak nahi duen hizkuntza hautatu behar du. Ulertzen dugu

horrek eragozpenak sor diezazkiekeela gure bezeroei, baina, esan dugun moduan, web-orriaren konfigurazioaren ondorioz gertatzen da hori. Hori dela eta, barkamena eskatzen dugu zinez.

Herriarraren erantzuna: Irakurri dut Avanzaren erantzuna eta onartezina iruditzen zait. Hainbat zehaztapen: -Web orria nabigatzaileak lehenetsia duen hizkuntzan egoteko baliabide teknikoak badira. - Aurrekoa egiten ez bada, behin euskara hautatuta, onartezina iruditzen zait hurrengo pausoan, berriz ere, hizkuntza hautatu behar izatea”.

Dosierra: 320-2025

Nori: GRUPO MRW

Arrazoia: MRW enpresako web-orrialdeak ez du euskara hautatzeko aukerarik ematen, katalana hautatzeko aukera ematen du adibidez. Nire herrian euskara ofiziala da baina bezeroek ezin ditugu zerbitzuak euskaraz jaso.

Dosierra: 642-2025

Nori: VINCI AUTOROUTES

Arrazoia: Autoroutes du Sud de la France (Vinci enpresa-taldea) sozietateak kudeatzen duen A-63 autobideko seinale gehienak frantses hutsean daude eta gutxi batzuk (lehen irteera eta herrien izenak dituztenak) baino ez daude euskaraz. Hau da, ezin dugu euskaraz irakurri beste guztiek erakusten duten informazioa. Horrekin batera, mezu aldakorrek paneletan ere frantsesez baino ez dituzte mezuak idazten.

Dosierra: 644-2025

Nori: VINCI AUTOROUTES

Arrazoia: Autoroutes du Sud de la France (Vinci enpresa-taldea) sozietateak kudeatzen duen A-63 autobideko ordainleketan afixak eta seinaleak ez daude euskaraz, eta ordainketa-gailuetan ezin euskara aukeratu.

Dosierra: 728-2025

Nori: VUELING AIRLINES S.A.

Arrazoia: Bizkaitik Lanzaroterako Vueling-en VY3280 hegaldian izan naiz gaur [irailaren 29an]. Segurtasun-arau eta aholkuak gaztelaniaz eta ingelesez esan

dizkigute. Gainontzean ere euskaraz hitz bat ere ez. Ez dut uste hain gaitza denik euskaldun bidaiari eta herritarrok errespetatzea.

Dosierra: 765-2025

Nori: E PARK BILBAO

Arrazoiak: Loiuko aireportuan autoa aparkatzeko eparkbilbao enpresak euskaraz dauka webgunea (<https://www.eparkbilbao.com/index-eu.php>), zoriontzeko modukoa. Telefonoz deituz gero ere, aukera ematen dizu euskaraz jarraitzeko. Hala ere, euskarazko aukera hautatu ostean ez du euskaraz egiten, ez dakit zein hizkuntza den, ez da gaztelania, frantsesa ez ingelesa. Ondorioz, ezinezkoa da telefonoz ezer euskaraz egitea.

Dosierra: 855-2025

Nori: GURUTZETAKO APARKALEKUA -SOCIEDAD CONCESIONARIA DEL PARKING DE CRUCES SA

Arrazoiak: Gurutzetako aparkaleku estaliko hizkuntza paisaia zuzendu dezatela eta euskaldunok errespetatzeko eskatzen dut. Adibidez, "motos" besterik ez dago idatzita aparkaleku osoan; igogailua non dagoen adierazteko errotuloetan "Igogailu" dute idatzita; eta igogailuetako botoiak erdara hutsean daude. Agerian uzten nituen bezala, bestelakoak ere erdara hutsean daude.

Erantzuna:

Gurutzetako parkina: Gurutzetako parkineko zuzendaritza euskalduna izateaz gain, hizkuntza guztiak, euskara bereziki, errespetatu eta egunerokotasunean erabiltzen dugula adierazi nahi dizuegu. Bestalde, Behatokiak adierazten du "herritarrak aitortuak dituzten eskubidean ez direla behar bezala kontuan hartu", hori zuzena ez dela azaltzen dugu. Parkineko errotulu, ohar eta abarrekoak euskaraz eta gaztelaraz daude. Are gehiago, kutzazain automatiko guztietan hasierako pantailetan azaltzen den hizkuntza, euskara da. Beraz, jasotako kexan errotuluak erdara hutsean dauden adierazpena gezurra dela argi utzi nahi dugu.

Dosierra: 909-2025

Nori: AVANZA SPAIN SLU - Gipuzkoa -

Arrazoiak: Pesa zena, orain Avanza Euskadi deitzen dena, euskarazko webgunean aurrera jarraitzeko lotura gaztelaniaz du. Berdin dio euskaraz aukeratzea, behin

"Ados" botoian sakatuta gaztelaniazko webgunera eramango gaitu, eta berriro aldatu behar dugu, euskaraz jarraituz nahi izanez gero. <https://gipuzkoa.avanzagrupa.com/eu/tarifas-y-bonos/compra-tus-billetes> horko "Ados" botoiak <https://online.pesa.net/index.asp?id=es> helbidera garamatza, hau da [?id=es](https://online.pesa.net/index.asp?id=es) horrek esaten dio gaztelaniaz jarraitzeko. Euskara berriro hautatuta ere, amaieran jasotzen den posta gaztelania hutsez dago.

Erantzunak:

Bezeroari Arreta Saila: Barkamena eskatzen dizugu, zinez, gorabehera horrek eragozpenik sortu badizu. Web-orria hasiera batean gaztelaniaz konfiguratuta dago. Beraz, informazio zehatza eskuratzeko eta bidaia-txartelak erosteko, aldatzeko edo ezeztatzeko, bakoitzak nahi duen hizkuntza hautatu behar du. Ulertzen dugu horrek eragozpenak sor diezazkiekeela gure bezeroei, baina, esan dugun moduan, web-orriaren konfigurazioaren ondorioz gertatzen da hori. Hori dela eta, barkamena eskatzen dugu zinez.

Herritarraren erantzuna: Beraz, legea urratzen ari dira, eta gainera behin konfigurazioa hautatuta ez dute hori errespetatzen? Bi aldiz gaizki? Ez dakit zein izango den hurrengo urratsa, baina erantzuna berak okertzen du euren egoera.

HEDABIDEAK (14)

Dosierra: 144-2025

Nori: BERRIA (EUSKAL EDITORIA SM)

Arrazoa: Berria egunkariari eskatzen diot kazetaritza-testuak ez ezik, gainontzekoak ere zaintzeko. Euskaldunok ez dugu beste egunkaririk. Mila esker. Erantsita doakizue "otsailak 18a" astakeriaren argazkia.

Erantzuna:

BERRIA taldea: Jaso dugu ohartarazpena, eta kontuan hartuko dugula esateko idazten dizuegu. Akatsaz ohartu gara, eta hartu beharreko neurriak hartu ditugu horrelakorik berriro errepika ez dadin. Esan gabe doa BERRIArentzat ezinbestekoa dela kalitatezko egunkaria egitea, eta, nola ez, hori hizkuntzari ere badagokio. Hori horrela, argitaratu aurretik zuzentzaileek lan fina egiten dute gure edukietan horrelakoak topatu eta zuzentzeko, hala kazetaritzako testuetan nola gainontzeko edukietan.

Dosierra: 155-2025

Nori: GARA -BAIGORRI ARGITALETXEA-

Arrazoa: Naiz atarian eskalatzailer bat erreskatatu dutelako albistea argitaratu dute eta "Untzillaitz" erabili dute Untzillatxi esateko. Bada, Atxarte darabilte, ondo, albiste berean; eta ez "Haitzarte". Eskatzen dut Untzillatx eta Udalatx izenak, adibidez, ondo erabiltzea.
<https://www.naiz.eus/es/info/noticia/20250223/rescatada-una-escaladora-enriscada-en-la-gran-diagonal-de-la-cumbre-del-untzillaitz>

Dosierra: 157-2025

Nori: DOT - DURANGALDEA (Inmediobai SL)

Arrazoa: Estimatu nuke Durangaldekoa bertakoa den Dotb.eus hedabideak Untzillaitz [sic] asmakeria ez erabiltzea, eta toponimoa (Untzillatx) errespetatzea. Albiste berean ondo darabilte, bada, Atxarte izena, "Haitzarte" bezalakorik zertan berreraikitzen-edo ibili barik. Bide batez, eta badaezpada: Astxiki eta Udalatx dira inguruko beste mendi batzuen izenak; eta ez Aitz-Txiki edo Udalaitz.
<https://dotb.eus/rescatan-a-una-escaladora-enriscada-en-la-gran-diagonal-en-untzillaitz/>

Dosierra: 160-2025

Nori: DEIA

Arrazoa: Gaurko Deian argitaratu dute Untzillatxen mendizale bat erreskatatu dutela, baina Untzillatxi "Untzillaitz" esanez. Bada, Jaizkibeli "Haitz Gibel" edo halakorik esango ez lioketen moduan, Untzillatx da eta ez "Untzillaitz". "Atxarte" darabilte, bada, eta ondo erabilirik, albiste berean, eta ez "Haitzarte". Orduan, zer dela-eta "Untzillaitz" asmakeria? Bide batez eta badaezpada: Udalatx da inguruko beste mendi baten izena, eta ez "Udalaitz". Toponimia zaindu, mesedez.
<https://www.deia.eus/sucesos/2025/02/23/rescatan-escaladora-podia-avanzar-gran-9313393.html>

Dosierra: 258-2025

Nori: IKUSPUNTU - ALDE ZAHARRA ALDIZKARIA -

Arrazoa: Iruñeko Alde Zaharreko, "Alde Zaharra" 44.zbk aldizkaria erdaraz da nagusiki (orrialde bakarra euskaraz, 30 orrialde ditu). Hiru hilabetekaria da, doakoa, eta bizilagun guztien postontzietan uzten da.

Erantzuna:

Ikuspuntu: Hiru hilean behin Alde Zaharreko postontzietan doan banatzen den aldizkariaren editorea naiz. Proiektu pertsonal bat da, 2014ko martxoan hasi nuena; zehazki, duela 11 urte. Horregatik, agian argitu beharko nuke argitalpen hau ez dagoela administrazioaren esku, eta ez duela diru-laguntzarik jasotzen administrazioetik. Bestalde, uste dut nahiko erraza dela nirekin harremanetan jartzea. Horregatik ez dut ulertzen pertsona horrek zuen erakundearen bidez, are gehiago anonimotasunetik, jarritako salaketaren helburua. 11 urte hauetan zehar nire onena ematen saiatu naiz argitaratutako aldizkari bakoitzean. Beraz, azken zenbakia zure gustukoa izan ez bada, barkamena eskatzea besterik ez zait geratzen.

Dosierra: 334-2025

Nori: GARA -BAIGORRI ARGITALETXEA-

Arrazoa: Gararen Gaur8 gehigarrian zapatuan "Mantenurako itxita" idatzi zuten erreportaje baten, lerroburuan bertan, eta testu barruan ere bai, behin eta berriro. Ba ote dakite zer esan gura duen "mantenu" berbak?

Dosierra: 347-2025

Nori: EL DIARIO VASCO

Arrazoa: San Sebastian Moda Festival/ Larunbat arratsaldeko desfileak eta sari banaketa. Hiru desfile izan ziren. Desfile bakoitza bukatzen denean, ikusleek kanpora atera behar dute, hurrengo desfilearen ordua iritsi arte. Hortaz, desfile bakoitzaren aurretik ikusleak agurtu eta aurkezpena egin zuten; gero, arropa erakutsi; erakusten bukatu ondoren, diseinatzaile bakoitzak bere kolekzioaren azalpenak eman zituen; eta, ostera ere, aurkezleak hitz egin zuen desfile bakoitza ixteko. Hau da: aurkezle+desfile+diseinatzaile+aurkezle. 1. Desfilea, Skunk Funk - Diseinatzaileak desfileari buruzko azalpenak euskaraz eman zituen, eta pixka bat gaztelaniaz. - Aurkezleak, ordea, aurkezpenean agurra euskaraz egin zuen eta gainerako guztia gaztelaniaz. Eta itxiera guztia gaztelaniaz egin zuen, eta ez zuen ezta "agur" ere esan. 2 eta 3 desfileetan, guzti-guztia gaztelaniaz egin zuen aurkezleak, ezta "kaixo" ere (eta diseinatzaileek ere bai). Hortaz, kexa hau antolakuntzarentzat da.

Erantzuna:

Donostiako Udala: Moda jaialdia Diario Vascok antolatzen du, hainbat erakunderen babesarekin, tartean Donostiako Sustapenarena. Euskara Zerbitzua aipatu erakundearekin harremanetan jarri da, baina beraiek STMko desfilean ez dutela parte hartzen erantzun digute. Edonola ere, desfilean parte hartzen duten Sshope elkartearekin hitzarmena dute eta bertan jasotako hizkuntza klausulak gogorarazi eta betearazteko haiekin hitz egingo dutela adierazi digute.

Dosierra: 533-2025

Nori: GARA -BAIGORRI ARGITALETXEA-

Arrazoa: Gara egunkariak zergatik esaten dio ---egunero esan ere--- Bilboko Areatzari ---euskaraz esan ere--- Arenal (gaztelaniazko toponimoa) euskarazko testu baten? Gainera, egunkari honen ohiko jokamoldea da euskarazko toponimoak euskarazko testuetan ez ezik, gaztelaniazkoetan (testurik gehienak dira espainolez) ere erabiltzea (ez, ostera, frantsesezkoetan; testu bakanak). Orduan, are ulergaitzagoa da gaztelaniazko toponimoa erabiltzea euskarazko testuetan. Segi dezatela, gura badute, euskarazko toponimoak erabiltzen gaztelaniazko testuetan ---nahiz neure ustez zentzurik ez izan, eta euskaltzaileen

helburuetarako kalteak ekarri---; baina, euskarazko testuetan euskarazko toponimoak erabili, mesedez, arren, otoi eta faborez. Gutxienez azken hau izan dezaten/dezagun argi eta eztaba daezin.

Dosierra: 568-2025

Nori: BERRIA (EUSKAL EDITORIA SM)

Arrazoa: Berria egunkariari eskatzen diot kazetaritza-testuak ez ezik gainontzekoak ere zaintzeko. Berria da gure territorio libre bakarra eta hala izaten segitzea nahi dut. Bada, egunero argitaratzen ari den iragarkian ---udako Berria--- iragartzeko "irailaren 7 arte" ageri da beti. Ez ote da idatzi eta esan behar "irailaren 7a arte" edo "irailaren 7ra arte"? Bestalde, egunero, egunkariaren datu legalak dakartzan orrialdean, honela argitaratzen da egoitza nagusiaren helbidea: "Gudarien Etorbidea".

Dosierra: 587-2025

Nori: DEIA

Arrazoa: Deia egunkarian erabili ohi dituzte "ayuntamiento iurretarra" eta "consistorio sestaotarra" moduko moldeak, erdarazko testuetan. Bada, hobeto luke hedabide horrek euskara benetan erabiltzea eta zabaltzen dituzten euskarazko testu apurrak (asteen behingo zutabegileen testuak, esate baterako) behintzat zaintzea, erraztea, zuzentzea... Ea, gura dut hedabide honi jakinaraztea sestaoarrak Sestaoko herritarrek direla eta ez udaletxea; eta, era berean, iurretarrak direla iurretako herritarrek, eta ez udala. Euskarazko berbak erdarazko testuetan tartekatzeak ---gainera eta honetan--- ez dakar ezer onik. Euskararen erabilera sinboliko, folklorikokeriazko eta kaltegarria besterik ez da.

Dosierra: 651-2025

Nori: EL CORREO DIGITAL S.L.U.

Arrazoa: Gaurko (2025-09-07) Corroen argitaratu dute eskalatzaile bat erreskatatu dutela "Untzillaitz" [sic] mendian. Eskatzen dut toponimia zaindu dezatela. Mendi horrek Untzillatx du-eta izena. Igual balio diezaioke Corroeri behin lagun erdaldun batzuei bidali nien oharra: "[...] Cuando has dicho Udalaiz, te he dicho Udalatx. Luego a T. también le he oído Udalaitz. Está muy extendido eso de Udalaitz pero es erróneo, el nombre correcto es Udalatx. Se trata de una hipercorrección, algo similar

a usar bacalado por bacalao, mal creyendo que siempre lo correcto son las palabras acabadas en -ado y no en -ao. Ocurre lo mismo con el monte Untzillatx, se lee y oye mucho el erróneo Untzillaitz. También ocurre algo similar con el Aizkorri: mucha gente usa, mal, Aitzgorri o Aizgorri. Por supuesto que los componentes son aitz + gorri, pero es Aizkorri y no hay que descomponer el nombre... [...]"

Dosierra: 652-2025

Nori: DEIA

Arrazoia: Gaur, irailaren 7an, Deian argitaratu dute ertzainek atzo eskalatzaile bat erreskatatu zutela "Untzillaitz" [sic] mendian. Ea! Mendiaren izena Untzillatx da. Euskararik apenas argitaratzen da egunkari ustez euskal nazionalista horretan, eta argitaratzen den apur-apurra (euskarazko zutabe eta albiste bakanak; eta euskarazko berbak eta toponimoak erdal testuetan) hala?! Lehenago ere jakin eragin nuen 160-2025 dosierreko kexaren bitartez kontu bera

Dosierra: 751-2025

Nori: GARA -BAIGORRI ARGITALETXEA-

Arrazoia: Garan egunkarian segitzen dute "artikuloa" idazten, "artikulua" beharrian

Dosierra: 820-2025

Nori: EL CORREO

Arrazoia: Erantsitako argazkian ikusi daiteke Erandiogoikoaz gaurko Corroen zer azaldu den. Honela idatzi dute auzoaren izena: Erandio Goikoa.

HEZKUNTZA (5)

Dosierra: 175-2025

Nori: DEUSTUKO UNIBERTSITATEA - DOKTOREGO ESKOLA

Arrazoia: Jadanik 2 kexa jarri ditut gai honen inguruan: 1043-2024 eta 962-2024. Deustuko Unibertsitateko doktoradutza eskolatik (DIRS) mezu elektronikoak gaztelaraz eta ingelesez besterik ez dituzte bidaltzen. Martxoak 3an mezu berri bat jaso nuen eta bertan 1. gaztelera erabili dute eta ondoren ingelesa.

Dosierra: 307-2025

Nori: GASTEIZKO ARTE ETA LANBIDE ESKOLA

Arrazoia: Ikasturte honetan Gasteizko Lanbide Eskolaren urteurrena izan da, ikasturte berezi honetan ez da euskarazko jarduerarik prestatu. Euskaraldia ere laster dugu ate joka, beraz, ikastetxeko arduradunei hurrengo ikasturteari begira neurriak hartzea eskatzen diot. 2025-26 ikasturteko eskaintza ere argitaratu berri da eta hizkuntzari dagokionez, itxuraz, ez da aldaketarik somatzen.

Dosierra: 366-2025

Nori: SAN ANTONIO IKASTETXEA

Arrazoia: Uste dut ikastetxe batek jakin behar lukeela datak euskaraz zelan erabili, sintaxia eta ortografia zaintzen eta abar. Eta ez modu sistematikoan euskara itxura duen hizkera --baina ez dena-- erabili. "Ekainak 23tik" bezalakoak ez dira euskara. Eta "11rarte" euskara izan liteke, baina euskarak ez du ortografiarik? Espero dut kontuan hartzea, mesedez. Ohiko akatsak dira ez soilik ikastetxe honetan, baizik eta oro har, eta ikastetxeek ez badute eredugarri jokatzeko, jai dugu.

Dosierra: 427-2025

Nori: NARAU SCHOOL

Arrazoia: Orioko herrian, udalerrri euskalduna eta UEMAko kide den honetan, hizkuntza akademia bakarra dago: Narau. Hizkuntza-paisaiari eta komunikazio panelei dagokienez, haren hizkuntza politika lotsagarria/iraingarria da, euskaldunon hizkuntza-eskubideen eta bertako hizkuntzaren -euskararen- aurkakoa. Esaterako, akademiaren kanpoaldean hainbat hizkuntzatan daude idatzita agurrak eta esamoldeak: euskaraz bat ere ez. Matrikulazio kanpainak eta

gainerakoak ere, erdara hutsean egiten dituzte (gaztelania bereziki, ingelesarekin nahasian maiz); baita hurrei zuzendutako ikastaroenak ere. Azkenekoaren argazki pare bat atxiki dizkizuet. ekainaren 3koak.

Dosierra: 957-2025

Nori: SANTA RAFAELA MARIA FUNDAZIOA - Esclavas del Sagrado Corazón -

Arrazoia: Santa Rafaela Maria Heziketa Fundazioak Olentzeroaren ekitaldiko kartel hau zabaldu du (abenduarien 14an egin zuten jarduerak). Esaldi bakarra euskaraz eta gainerako informazio guztia eta izenburua ere gaztelaniaz. Hizkuntza hirueleduna eskaintzen duela suposatzen da, baina argi dago bertoko hizkuntza (eta Olentzerorena) bigarren mailan uzten dituela. Mesedez hurrengo urterako euskarari behar duen tokia eman eta haurren eskubideak kontuan izateko eskatu nahi diot ikastetxeari.

MERKATRITZAGUNE HANDIAK/KATEAK (66)

Dosierra: 6-2025

Nori: EROSKI -BEZEROAREN ARRETARAKO ZERBITZUA

Arrazoia: Urtarrilaren 3an, eguerdi aldera, Bermeoko Dolariagako Eroskin, kutxazainari bezero-txartel zenbakia euskaraz esan nion. Espainolez esateko eskatu zidan berak, eta nik, ezetz. “Bada, orduan ez dizut pasatuko txartela” bota zidan. Nik arduraduna etortzeko eskatu nion, eta berak erantzun zidan “no sé euskera, no te entiendo, no te paso la tarjeta”. Ilaran zegoen bezero batek itzuli zion arduraduna nahi nuela. Orduan, langileak bezero horri eskatu zion zenbakiak itzultzeko, bitartean esaka “no entiendo el problema para decir los números en castellano, no sé euskera...” Zoritxarrez ez da Eroski denda horretan daukadan lehen arazoa kutxako langile batekin. Herri euskaldun baten egin beharko lukete euskaraz, baina nik ez diet inoiz halakorik eskatu ere. Eskatzen dudana gauza bakarra da ni ez nazatela behartu erdaraz egiten. Eroskiren erantzukizuna da hori bermatzea.

Erantzuna:

Bezeroen Arreta Saila: Ezer baino lehen, eskerrak ematen dizkizut gurekin harremanetan jartzeagatik; horrela, bezeroekiko arreta hobetuko dugulako. Aldez aurretik barkamenak eskatu nahi dizkiogu bezeroari bizitako egoeragatik. Gure helburua euskaraz hitz egiten dakien langilea kontratatzea da, berezoket hala eskatuz gero, arreta euskaraz jaso ahal izateko. Bezeroaren erreklamazioa kontuan hartu eta ardunadunei bidaliko diegu, kontuan har dezaten.

Dosierra: 44-2025

Nori: EROSKI -BEZEROAREN ARRETARAKO ZERBITZUA

Arrazoia: Joan den larunbatean, hilak 11, Donostiako Garbera Eroskin txanda makinak erabili nituen, arrandegian eta urdaitegian. Makinak erdaraz lehenetsiak daude. Eroskiri eskatzen diot makinak euskaraz lehenetsi ditzan, Arrasaten eta Abadiñon diren bezala.

Erantzuna:

Bezeroen Arreta Saila: Bezeroak aipatutako arazoari dagokionez, jakinarazi nahi dugu hasiera batean makina horiek ezarri zirenean hizkuntza-preferentzia euskara zela. Hala ere, denborarekin, hainbat bezero erdaldunek eta frantses hiztunek

egindako kexak direla eta, gaztelania lehenetsi zen. Gure bezeroen gehiengo erdalduna eta frantsesa denez, erabaki hori hartu genuen. Dena den, bezeroaren kexa ulertzen dugu eta barkamena eskatzen diogu eragindako eragozpenengatik. Gure sistema elebiduna da eta euskara aukera gisa eskaintzen du. Hala ere, bezeroaren eskaera kontuan hartuko dugu eta gure zerbitzua hobetzeko aukera guztiak aztertuko ditugu.

Dosierra: 53-2025

Nori: EROSKI -BEZEROAREN ARRETARAKO ZERBITZUA

Arrazoia: Donostiako Amara Zaharreko Eroski berrian, norberak ordaintzeko makinak gazteleraz daude aurrekonfiguratuta eta euskaraz erabiltzeko Espainiako banderarineman eta ikurriña hautatu beharra dago bakoitzean. “Bertako” hitza hainbeste erabili eta gero euskaldunoi gure hizkuntza aukeratzeko zailtasunak jartzen. Euskaraz lehenetsita nahi dugu!

Dosierra: 55-2025

Nori: INSIDE -TOLOSA- (LIWE ESPAÑOLA, S.A)

Arrazoia: Tolosako Inside dendako erakusleihoan, karteldegia gaztelania hutsean jarri dute.

Dosierra: 63-2025

Nori: DECATHLON DONOSTIA

Arrazoia: Donostiako Decthlonen izan naiz eta paisaia linguistiko guztia erdara hutsean dago. Erreklamazio orria sartu dut. Bertako langileak esan dit Espainiar Estatuan soilik Katalunian egiten dutela bi hizkuntzetan, hango legeak behartzen duelako

Erantzuna:

Bezeroarentzako arretan aditua: Lehenik eta behin, eskertzen dizugu Decathlonengan jarri duzun konfiantza. Zure kontsultari dagokionez, ez diegu erantzuten euskarazko kontsultei. Zure ondoeza sentitzen dugu. Agur bero bat.

Dosierra: 73-2025

Nori: EROSKI -BEZEROAREN ARRETARAKO ZERBITZUA

Arrazoa: Etxarri Aranazko Eroski City dendak 2025eko urtarrilaren 24 eta 25eko promozioaren eskaintza egiteko publizitatea gaztelania hutsean banatu du herriko buzoietan.

Erantzuna:

Bezeroen Arreta Saila: Lehenik eta behin, barkamena eskatu nahi dugu Eroski City dendak urtarrilaren 24 eta 25eko promozioaren eskaintza egiteko publizitatea gaztelania hutsean banatu izanagatik. Azpimarratu nahi dugu gure asmoa beti izan dela publizitatea ele bitan banatzea, euskaraz eta gaztelaniaz, eta kasu honetan akats bat gertatu zela. Urtarrilan, inprimategiak publizitatea gaztelaniaz bakarrik inprimatu zuen, eta bezeroaren kexaren bidez jakin genuen. Horregatik, barkamena eskatu eta akats hau ez errepikatzeko konpromisoa hartzen dugu. Otsailean, publizitatea euskaraz eta gaztelaniaz bidali zen, eta denda honek 600 aleko tirada du, 300 euskaraz eta 300 gaztelaniaz. Publizitateak testu asko duenez, ezin dugu orri bakar batean elebitan egin (ez delako sartzen). Horrenbestez, orri desberdinetan banatzen da. Baliteke kasualitatez gaztelaniazko flyer bat buzoian sartu izana. Argi utzi nahi dugu publizitatea beti bi hizkuntzetan egiten dela, euskaraz eta gaztelaniaz, eta buzoian bi hizkuntzetan inprimatutako orriak sartzeko agindua ematen dela. Hala ere, aurretik adierazitako akatsak gerta daitezke. Hori dela eta, aurrerantzean kontu handiagoarekin ibiliko gara.

Dosierra: 78-2025

Nori: JUST EAT SPAIN SL

Arrazoa: Just Eat aplikazioa ezin dugu euskaraz erabili. Era berean, enpresaren mezuak erdaraz jasotzen ditugu.

Dosierra: 107-2025

Nori: CARREFOUR SA - BEZEROARENTZAKO ARRETA ZERBITZUA

Arrazoa: Carrefour merkatalguneko gasolindegian norberak ordaintzeko makinetan, euskaraz artatua izateko espreski adierazi behar da, berez gaztelaraz egiten baitute makinek. Hori aldatzea eskatzen dut lehenik. Bestalde, behin euskara aukeratuta, bideoan entzun daitekeen euskara traketsa egiten du makinak. Aurpegiara barre egiten digute.

Dosierra: 112-2025

Nori: DECATHLON España (Bezeraari arreta)

Arrazoa: Duela aste pare bat Durangoko Decathlonen erosi nituen arropa batzuk. Kutxan gaztelania ---bandera espainola--- dago berez aukeraturik; eta dendariak, ohi bezala, gura izaten du bezeroa 'lagundu' pantaila horretan beste hizkuntzarik aukeratzen ibili barik, edo inori aukeratzen uzten ibili barik. Aldi honetan bizkor ibili nintzen eta nik neuk ekin nion pantailan eragiketak egiteari, lehen-lehenik ikurrina sakatuz, asmoa izanik makina euskaraz erabili ahal izatea. Bada, ikurrina sakaturik ere den-dena erdara hutsean zegoen. Euskaldunok arrotz nahinon. Supremazismoaz higuindurik nago. Gainera geuri leporatzen digute supremazismoa supremazismoan cum laude dutenek.

Dosierra: 117-2025

Nori: ALCAMPO SA - BEZEROARENTZAKO ARRETA -

Arrazoa: Txingudiko Alcampon, larunbatean eguardian kajetato langile batí, ordaindu ondoren, Kutxabankeko kajeroa mesedez? Galdetu nion eta “No entiendo” erantzun zidan, harridura aurpegiarekin errepikatu nion, “Kutxabank kajeroa”, eta “No entiendo “ berririo, jarraian “Junto a Información, y porqué si entiende castellano no me habla en español” esan zidan. Hau larunbatean, otsailak 8; 13:41tan gertatu zen egindako erosketak ordaindu ondoren kutxako langilearekin.

Dosierra: 151-2025

Nori: EROSKI -BEZEROAREN ARRETARAKO ZERBITZUA

Arrazoa: Eroski bidalitako e-posta bat jaso berri dut, euskaraz, non promozio baten eskaintza egiten didaten. Baldintzak ezagutzeko, haien webgunean sartzeko esaten didate; weborrian sartu, eta, hara non, gaztelania hutsean dagoen, eta ez du aukerarik ematen euskaraz jartzeko; beraz, badirudi euskaldunok ez daukagula promozio horretaz baliatzeko aukerarik. Hauxe da aipatu weborria: https://www.eroski.es/inspire/blog-eroski/te-regalamos-en-tu-compra/?utm_campaign=0225_pr_avm20_promo&utm_medium=email&utm_source=20250220_S08_Email_Newsletter_512_EU&utm_term=CTA&utm_content=1739

Dosierra: 152-2025

Nori: OGI BERRI - Andoain -

Arrazoa: Andoaingo Bastero Kulturgune aurreko Ogiberrian 3 ebaki euskaraz eskatu eta gaztelaraz eskatzeko esan dit. Nik hiru tres dela adierazi eta gaztelaniaz ez badiot eskatzen ez didala zerbitzatuko esan dit. Erreklamazio orriak eskatu eta ez dizkidala emango esan dit.

Dosierra: 166-2025

Nori: EROSKI -BEZEROAREN ARRETARAKO ZERBITZUA

Arrazoa: Tolosako Eroskin ogia erosten baduzu, ogiaren ticketa jartzeko pisu moduko batean atera behar duzu pegatina bat. Pisu horretan lehentsitako hizkuntza gaztelania da. Horrez gain, behin pegatina hori ateratzen denean, bertan idatzita dagoen guztia gaztelania hutsez dago (ikusi ernaksina).

Erantzuna:

Bezeroen Arreta Saila: Kexa honetan aipatzen den arazoa konpontzeko, gure sistemetan garapen batzuk egin beharko genituzke. Gaur egun, etiketetan agertzen den informazioa Gredisa sistematik ateratzen da, eta Ibarnabarro enpresak hornitzen du. Informazio hori gaztelaniaz bakarrik dago eskuragarri, eta erreferentzia bidez egiten da. Gainera, lau hizkuntza ez dira sartzen. Bezeroak elikagaiak pisatzeko makinan hizkuntza aukeratu ahal izatea aztertuko dugu. Hala ere, horrek erreferentzia guztia itzultzea eta sistemak gaitzea eskatuko luke, izendapenak hizkuntza desberdinetan mantentzeko eta sistemek elkarrekin komunikatzeko. Momentuz, etiketa gaztelaniaz ateratzen jarraituko luke. Hala ere, beharrezko azterketak eta garapenak egingo ditugu ahal den neurrian.

Dosierra: 182-2025

Nori: LEROY MERLIN Barakaldoko Megapark

Arrazoa: Erosketak jasotzeko sailean derrigorrez erabili beharreko pantaila gauzak jasotzeko gaztelaraz bakarrik dago.

Dosierra: 210-2025

Nori: H&M HENNES&MAURITZ, SL

Arrazoa: Gasteizko Boulevard merkataritza guneko HM markaren dendan autobruetako makinetara bideratu ninduen langile batek ordainketa egiteko. Makina horiek gaztelania, ingelesa eta katalana hautatzeko aukera ematen dute, euskara ez. Langileari galdetu nion ea ez zen euskaraz ordainketa egiteko aukerarik eta kurioa zela baina ezetz erantzun zidan. Bezero bezala HMko arduradunei eskatu nahi diet autobruetako makinak eta dendetako paisaia linguistikoan bertoko hizkuntza txertatzeko.

Dosierra: 211-2025

Nori: AMAZON SPAIN SERVICES SL

Arrazoa: Amazonen 'locker' direlakoak ezin dira euskaraz erabili.

Dosierra: 223-2025

Nori: EROSKI -BEZEROAREN ARRETARAKO ZERBITZUA

Arrazoa: Leioako Eroskiko gasolindegian ez dago aukera euskaraz gasolina hartzeko

Erantzuna:

Bezeroen Arreta Saila: Eroskin, euskaraz bai gaztelaniaz bezeroei arreta emateko langileak ditugu. Une jakin batean euskarazko arreta ematea ezinezkoa balitz, bezeroek beti izango dute eskura autozerbitzuko makinak, hainbat hizkuntzatan, tartean euskaraz, zerbitzua jasotzeko aukera ematen dutenak. Gainera, atxikitutako argazkian ikus daitekeenez, gure gasolindegiko autozerbitzuko makinak euskaraz zerbitzua jasotzeko aukera eskaintzen dute. Horrela, bezeroaren hizkuntza-eskubideak bermatuta daude. Ez dakigu zer gertatu den euskarazko zerbitzua ez jasotzeko, baina berriz ere gertatuko balitz, eskertuko genuke berehala jakinaraztea.

Dosierra: 232-2025

Nori: DECATHLON DONOSTIA

Arrazoa: Donostiako Belartza industriagunean dagoen Decathlon dendan karteldegia berria jarri dute eta dena erdara hutsean dago. Bertan ere sartu duhu kexa.

Dosierra: 240-2025**Nori:** CARREFOUR Esp. egoitza zentrala

Arrazoa: Tolosako Carrefour supermerkatuan sartu eta agerian dauden idatzi nagusi gehienak bi hizkuntzetan daude, eta ondo zainduta daukate hizkuntza-paisaia orokorra. Baina idatzi txikiagoetan eta maizago aldatzen diren beste zenbait idatzietan euskarak geroz eta presentzia txikiagoa dauka. Apalategietan egoten diren etiketak gaztelera hutsean daude, den-denak, baita bezeroak erakartzeko atalategietan dauden eskaintzak ere. Horrez gain, beste zenbait idatzi ere gaztelera hutsean daude. Esaterako: eskilara mekanikoetako oharra, edo natura zaintzeko Carrefourrek berak ateratako ohartarazpen idatzia.

Erantzuna:

Erreklamazioen Saila: Barkamena eskatzen dizugu, Carrefourren izenean, Carrefour Market Tolosa dendan gertatutako gorabeheragatik. Zure iruzkinak eskertzen ditugu. CARREFOUR-en erabateko konpromisoa dugu araudia eta gure bezero guztien hizkuntza-eskubideak betetzeko. Zure gertakaria kontutan hartu dugu eta sail arduradunei bidali diegu azter dezaten. Mila esker.

Dosierra: 257-2025**Nori:** EROSKI -BEZEROAREN ARRETARAKO ZERBITZUA

Arrazoa: Elorrioko Eroskin eskeintza kartel denak gaztelera hutsean daude. Mesedez, gure hizkuntza eskubideak errespetatu

Erantzuna:

Bezeroen Arreta Saila: Jakinarazitako egoera sentitzen dugu. Gure hizkuntza eskubideak bermatzen saiatzen gara beti, eta kasu honetan huts egin dugula onartzen dugu. Baieztatzen dizugu, zentroarekin egoera hau berrikusiko dugula eta beharrezko neurriak hartuko ditugula berriro gerta ez dadin. Bezeroen hizkuntza eskubideak errespetatzea gure lehentasun nagusietako bat da, eta bezeroaren iradokizuna kontuan hartuko dugu.

Dosierra: 279-2025**Nori:** UVESCO GRUPO S.A. (BM supermerkatuak)

Arrazoa: BM saltokiak bezeroentzat promozio orri bat eskura jarri zuen Villabonan. Esku-orri hori gaztelera soilik dago. Euskaraz ez dago informaziorik. Iratxe

Dosierra: 280-2025**Nori:** JUST EAT SPAIN SL

Arrazoa: Zuen aplikazioa ezin dugu euskaraz erabili; euskaldunok asko eskertuko genuke euskaraz erabiltzeko aukera izatea. Era berean, zuen mezuak euskaraz jaso nahiko genituzke eta, jakina, eskubide osoa daukagu euskaraz idazteko. Bide batez, zuen lehiakide batzuek dagoeneko aplikazioa euskaraz daukate.

Dosierra: 303-2025**Nori:** CENTRO COMERCIAL LA MOREA

Arrazoa: Iruñeko "Morea" merkataritza zentroarentzat bertoko hizkuntza eta euskaraz bizi garen bezeroak ikusezinak gara.

Dosierra: 315-2025**Nori:** EROSKI -BEZEROAREN ARRETARAKO ZERBITZUA

Arrazoa: Hondarribiko Eroski supermerkatuko kutzazain bati duela egun gutxi esan nion 0-9 arteko zenbakiak euskaraz ikasteko, eroski-txarteleko aurrezkiak kobratzeko nortasun agiriko zenbakia euskaraz esan ahal nitzan. Gaur, arratsaldeko 15:15 aldera, kutzazain horri erdaraz galdetu diot ea ikasi dituen (ez zen beste kutzazainik). Berak erantzun du hau Espainia dela eta ez duela zertan euskara ikasi.

Erantzuna:

Bezeroen Arreta Saila: Bezeroaren kexa jaso ondoren, dendako arduradunarekin harremanetan jarri gara bezeroari barkamena eskatzeko eta gure konpromisoa berresteko: gure zentroan beti dago euskaraz artatzeko prest dagoen langileren bat, bezeroak hala nahi badu. Izan ere, aipatutako egunean bertan, bezeroak bere desadostasuna adierazi zuenean, langile euskaldun batek artatu zuen berehala. Horrez gain, hasiera batean bezeroa artatu zuen langilearekin hitz egiteko aukera ere izan dugu, eta azaldu diogu guretzat euskarak duen balioa eta garrantzia, hizkuntza ofiziala den heinean. Nabarmendu diogu ez dela onargarria euskararekiko gutxiespenik adieraztea, eta bezeroari eragin zion sentimendu mingarria saihestu behar dela etorkizunean. Gure helburua da bezero guztiek errespetuzko eta hizkuntza-eskubideak bermatzen dituen arreta jasotzea. Horretan lanean jarraituko dugu. Eskerrik asko eta barkatu eragozpenak.

Dosierra: 329-2025

Nori: KIABI ESPAÑA

Arrazoa: Barakaldoko Megaparken Kiabik daukan dendako letreroak gazteleraz baino ez daude.

Dosierra: 330-2025

Nori: MEDIA MARKT - Barakaldo

Arrazoa: Media Marktek Megaparken daukan dendako letreroak gazteleraz baino ez daude.

Erantzunak:

Bezeroen Arreta Saila: Egia da erdiko kartelak gaztelaniaz baino ez daudela, baina linean eta albokoen kartel guztiak bi hizkuntzetan daude. Hala ere, egindako errekerimendua betez, Media Marktek 4/2023 Legea betez, kartel nagusiak zuzendu ditu, baina gainerako kartelak bi hizkuntzetan zeudenez, ez da beharrezkoa horiek aldatzea. Alde honek adierazi nahi du biziki eskertzen dugula euskara zaintzeko guregana jo izana. Media Markt Barakaldon, hizkuntza eskubideak betetzen ditugu. Euskaraz arreta jaso nahi duen edozein bezerori emango zaio arreta. Zorionez, lagunak ditugu AHOBIZI eta BELARRIPREST identifikazioarekin. Aurrekoa esanda, argi utzi nahi dugu dena bezero batek hasi zuela, haserre produktu bat itzultzea onartu ez ziotelako, atzera egiteko baldintzak betetzen ez zituelako. Kontsumitzaile hori gaztelaniaz hitz egiten aritu zen une oro, eta une horretan hasi zen, eta ez lehenago, arreta ematen ari zitzaion lankideari euskaraz hitz egiten. Lankide horrek, ez zuen ulertzen kontsumitzailea sortzen ari zen egoera, eta, gainera, ez du euskaraz hitz egiten, eta euskaraz hitz egiten zuen beste lankide bati eskatu zion pozik ez zegoen bezeroari arreta emateko. Guztien harridurarako, kontsumitzaileak, une horretan, mehatxuzko tonuan, Behatokian lan egiten zuela eta berriak izango genituela adierazi zuen. Gure ustez Behatokiarenean langile horren jardunak gairitu egiten ditu bere gaitasun profesionalak, eta argi eta garbi lekuz kanpo dago. Media Markt erabat emana dago euskararen hizkuntza-eskubideak babestera, eta biziki eskertzen du jasotako abisua, hobetu ahal izateko eta horretan lanean jarraitzeko.

Herritarraren erantzuna: lagun bat laguntzera sartu nintzen, baina, nik ez nuen Media Markten ezer erosi eta ez nuen bertako langile batekin hitz bakar bat ere

gurutatu. Gaztelaniaz zeuden kartelei argazkia atera nien, bai, Hortaz, ez dira egia Media Markten bere erantzunean esaten dituenak.

Dosierra: 331-2025

Nori: MEDIA MARKT - Donostia

Arrazoa: Garberako Media Markt dendako Xiaomi markako langileak lehen hitza egin ta "en español" erantzunda, hizkuntzaz aldatuarazi digu, eta jarraian gure aldetik "euskaraz hitz egiten ikasi beharko duzu" esanda "lo se pero no quiero que me hablen en euskera" esan digu. Kexa sartuko genuela esatean oldartu egin da eta denda osoan ez genuela euskaraz hitz egingo zuen pertsonarik harrapatuko "txuleatzen" hasi da oso jarrera oldarkorrean. Langilearen izena Mikaela da.

Erantzuna:

Bezeroen Arreta Saila: Lehenik eta behin, adierazi nahi dugu erabat errespetatzen ditugula indarrean dagoen esparru juridikoan aitortutako hizkuntza-eskubideak, eta konpromiso sendoa dugula euskara sustatzeko eta erabiltzeko jendaurreko gune guztietan Hala ere, kasu zehatz honetan, ordutegi-tarte jakin batean gertatu zen egoera; izan ere, antolamendu-arazoak eta langileen txandak zirela medio, sail espezifiko horretan ez zegoen bezeroari behar bezalako arreta emateko behar besteko gaitasuna zuen langilerik. Aipatu behar da gure ordutegia egunean 12 ordukoa dela, eta txanda guztietan langile euskaldunak izaten saiatzen garen arren, une jakin batzuetan gerta daiteke hori ezinezkoa izatea Azpimarratu nahi dugu euskaraz hitz egiten duten langileen ehuneko handi bat daukagula, eta deskribatutako egoeretan baliabide guztiak jartzen ditugu bezeroarengana euskaraz joan daitekeen beste atal bateko lankide bat berehala aurkitzeko, gure ohiko praktika den bezala. Benetan sentitzen dugu oraingo honetan laguntza hori behar bezain azkar kudeatu ez bazen Euskarazko zerbitzua benetakoa, eraginkorra eta eskuragarria izango dela bermatzeko lanean jarraitzeko konpromisoa berretsi nahi dugu, beharrezkoa denean, hizkuntza-prestakuntza eta barne-koordinazioa indartuz, gure bezero euskaldunen eskariari erantzuteko.

Dosierra: 364-2025

Nori: EROSKI -BEZEROAREN ARRETARAKO ZERBITZUA

Arrazoa: Herriko Eroskin ez dago inor euskaraz artatzeko. Lotsagarria iruditzen zait Villabona bezalako herri euskaldun bateko supermerkatuan gazteleraz bakarrik

egin ahal izatea, ezta agurrak euskaraz. Lehen bazeuden ulertzen zizutenak gutxienez, baina orain ezin da euskaraz egin.

Erantzuna:

Bezeroen Arreta Saila: Ezer baino lehen, eskerrak ematen dizkizut gurekin harremanetan jartzeagatik; horrela, bezeroekiko arreta hobetuko dugulako. Bezeroaren kexa jaso ondoren, gaia argitu dugu Villabonako dendako langileekin. Adierazi digute langile gehienak herrikoak direla eta, nahiz eta denek ez hitz egin euskaraz, gehienek ulertzen dutela. Horregatik, bezeroari gonbidapena luzatu diogu aurrerantzean ere euskaraz hitz egiten jarraitzeko, gustura erantzungo diotela adieraziz, ahal duten neurrian. Gaur egun, egia da Villabonako plantilla osoak ez duela euskaraz artatzeko gaitasunik, baina ohikoa da beti egotea euskaraz artatzeko gai den norbait, bezeroak euskarazko zerbitzua eskatzen badu.

Dosierra: 401-2025

Nori: 4x4 WOMAN

Arrazoia: Zenbait dendarik Euskararekiko duten errespetu faltaz ari naiz oraingoan. Donostiako Hernani Kaleko 1.n dagoen 4 x 4 arropa dendari buruz ari naiz. Atxikita duzue bertako leihoan atzo ateratako argazkia.

Erantzunak:

4x4: Aipatutako erreklamazioari dagokionez, honako puntu hauek argitu nahi ditugu. - Euskal enpresa familiarra gara. - Gure hizkuntza maite dugu eta ez dugu onartzen esatea euskararekiko errespetu falta dugula. - Kartelak euskaraz eta gaztelaniaz daude beti. Argazkian agertzen den kartela ere euskaraz zegoen, baina erakuslehotik kentzeko agindu genuenean, Hernani kaleko saltzaileak horietako bat bakarrik kendu zuen akats baten ondorioz. Euskaraz zegoen kartela kentzea kasualitatez izan zen. Donostiako gainerako dendek biak kendu zituzten. Zalantzak argitu izana espero dugu.

Herritarraren erantzuna: Harriduraz hartu dut dendariaren erantzuna, batez ere langile batengan iragarkia kentzearen ardura (kasualitatez euskarazkoa kendu izana...) jartzea ez baizait jokabide zuzena iruditzen. Enpresa honen web orrian bakarrik gaztelera eta ingelesa azaltzen dira. Argazkia atxikitzen dizuet"

Dosierra: 402-2025

Nori: PRIMARK -Garbera-

Arrazoia: Garbera merkatalguneko Primark dendan gaztelaniaz hitz egin dit kutxazaineko langile batek. Nik euskaraz segi dut eta oso modu txarretan eta hasperenka erantzun dit ulertzen ez nuen hizkuntza batean. Euskaldunon hizkuntza eskubideak urratzeaz gain, burlaiez tratatu naute. Nahikoa da!

Dosierra: 438-2025

Nori: EROSKI -BEZEROAREN ARRETARAKO ZERBITZUA

Arrazoia: Hondarribiko Damarri kaleko Eroski Centerren, ezin izan ditut kobratu nire Eroski txartelean pilatuta dauzkadan aurrezkiak, kutxazainak ez zituelako euskaraz ulertzen 0tik 9rako zenbakiak. Ez dit espainieraz esatea beste aukerarik eskaini. Gertaera 16:10ean izan da. Eroskiren webgunean erreklamazioa idatzi dut, baina ez dit aukerarik eman kopiarik gordetzeko.

Dosierra: 439-2025

Nori: BRICO DEPÔT Berriozar

Arrazoia: Atzo arratsaldean (ekainak 16) Iruñeko Brico Depot dendara joan nintzen erosketa bat egitera. Kutxako langileak kendu dituzte eta ordaintzeko modu bakarra makinetan eskaini zidaten. Argazkian ikusten den bezala makina horiek atzerriko hainbat hizkuntzetan konfiguratuak daude baina euskaraz (hiri honetako hizkuntzan) ez. Brico Depot-eko arduradunei bertoko hizkuntzan erosketa egiteko aukera ezarri dezaten eskatu nahi diet, neurririk hartzen ez badute gurekiko eta gure hizkuntzarekiko jarrera hobea duen establezimendu batetara joko dut hurrengoan nire erosketak egiterakoan.

Dosierra: 491-2025

Nori: MEDIA MARKT - Gasteiz

Arrazoia: Gasteizko MediaMarkten dena aldatu dute, errotulu berriak ipini dituzte, bakar bat ere ez euskaraz.

Dosierra: 498-2025

Nori: DECATHLON DURANGO

Arrazoia: Durangoko Decathlon denean salerosketa euskaraz egin gura izatea eta ezin ahal izatea. Neskak ez zuela ulertzen eta bigarren bat agertu denean, euskalduna izango zelakoan ezezko borobila esan dit. Ez duela zertan jakin

beharrik, eta nazka ematen diotela nik bezalakoek baina gutxi garela barre eginez. Oso jarrera matoiarekin. Salaketa Kontsumobideren bidez eta Decathlon bidez egiteaz gain, ahalik eta zabalgunek handiena izatea gura dut, honelako langileak ez baitira onargarriak eta are gutxiago ia erdiak euskaldunak garen eremu batetan.

Dosierra: 531-2025

Nori: RENAULT ESPAÑA COMERCIAL S.A.

Arrazoia: Behin eta berriro ari naiz e-mailak jasotzen, erdara hutsean, *YourOpinion@reputation.dacia.com* helbidetik, gogobetetze inkesta bat bete dezadan. Hain da eskasa gogobetzea (inkestari eta e-mailari buruz) ze, euskaraz jaso artean ez dudana ezertxo ere erantzutze.

Dosierra: 544-2025

Nori: CONFORAMA BARAKALDO

Arrazoia: Barakaldoko dendako kartel guzti-guztiak gaztelaraz bakarrik daude.

Dosierra: 553-2025

Nori: IKEA IRUÑEA

Arrazoia: Ikea enpresari Iruñeko dendan euskarazko mezua neurri berdinean eta zuzen idazteko eskatu nahi diot, Iruñeko berezko hizkuntza da euskara eta bezero euskaldunok begirune berbera merezi dugu.

Dosierra: 578-2025

Nori: DECATHLON DONOSTIA

Arrazoia: Kexa jarri nahiko nuke, DECATHLON Donostian EZ direlako hizkuntza eskubide eta betebeharrak minimoak betetzen (helbide zehatza: Fernando Mugica Kalea, 2, 20018 Donostia, Gipuzkoa). Karteldegia eta panel informatibo GUZTI-GUZTIAK espainolez eta, txikiagoan, ingelesez daude soilik.

Erantzuna:

Bezeroen Arreta Saila: Guretzat bezeroei arreta eta pertsona guztien hizkuntza-eskubideekiko errespetua lehentasuna dira. Zure idazkian adierazitako puntuak aztertutako ditugu, eta, behar izanez gero, neurri egokiak hartuko ditugu.

Dosierra: 583-2025

Nori: ZARA Donostia

Arrazoia: Garbera merkatal guneko Zara dendan autoordainketako zonako makinan ordainketa egin eta gero berriz euskaraz jartzeagatik ardura hartu didate justifikatuz eta gaztelaniaz, bertara jende asko joaten dela kanpoko eta gaztelaraz jartzeko eta ez egiteko hori. Makinak noski gaztelaraz daude modu predeterminatuan eta badute euskaraz jartzeko aukera.

Dosierra: 591-2025

Nori: DECATHLON España (Bezeroari arreta)

Arrazoia: Berangoko Decathlonera joan gara. Duela gutxi berrikuntzak egin dituzte, baina errotulazioa erabat gaztelaniaz dago. Hitz bakar bat ere ez euskaraz. Gu eskualde horretakoak gara, inguruko gazte euskaldun asko doaz Decathlonera, baina enpresa honentzat euskaldunok ez gara existitzen. Murtzian daudela uste dute, langile eta bezero ugari euskaldunak izan arren. Kontsumilatzaile eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideen legeari muzin egiten diote.

Dosierra: 594-2025

Nori: EROSKI -BEZEROAREN ARRETARAKO ZERBITZUA

Arrazoia: Beherapenetan gaztelaniaz "ultimo remate" dena "errematea azken" bihurtu dute Portugaleteko Eroski Ballontin.

Erantzuna:

Bezeroen Arreta Saila: Barkamena eskatzen dizugu kartelak informazio okerra zuelako sortutako eragozpenagatik. Egoera aztertutako dugu eta gertakaria dagokion departamendura helarazi dugu, akatsa kontuan har dezaten eta berriro gerta ez dadin beharrezko neurriak ezar ditzaten.

Dosierra: 596-2025

Nori: COSTCO WHOLESALE -SLU- Bizkaia

Arrazoia: Sestaoko Costco dendako letreroak gaztelaraz bakarrik

Dosierra: 598-2025

Nori: FNAC Donostia

Arrazoia: Euskeraren itzulpen eskasa, salmenta guneko haundi baten, San Martin merkatuan (Powerbank / Botere Bankua)

Dosierra: 621-2025

Nori: DECATHLON España (Bezeroari arreta)

Arrazoia: Durangoko Decathlonen kartel guztiak gaztelara hutsean daude. Eskari bat jasotzera joan nintzen eta neska batek euskaraz atenditu baninduen ere,, lehenengo hitz gaztelaraz egin zuen eta beste batek ez zekien euskaraz.

Erantzuna:

Bezeroen Arreta Saila: Guretzat, bezeroari arreta eta pertsona guztien hizkuntza-eskubideekiko errespetua lehentasuna dira. Zure idazkian adierazitako puntuak aztertu ditugu, eta, behar izanez gero, neurri egokiak hartuko ditugu.

Dosierra: 628-2025

Nori: DECATHLON España (Bezeroari arreta)

Arrazoia: Decathlon merkatalgunean errotulu guztiak gaztelara hutsean daude.

Dosierra: 631-2025

Nori: DECATHLON España (Bezeroari arreta)

Arrazoia: Decathlon dendetako errotulazio guztia gaztelara hutsean dago. Euskararen arrastorik ez. Ordaintzeko makina automatikoetan, aldiz, euskaraz ordaintzeko aukera badago.

Dosierra: 633-2025

Nori: EROSKI -BEZEROAREN ARRETARAKO ZERBITZUA

Arrazoia: Eroskiko online erosketen arreta zerbitzu telefonoan (944050514) grabaketa guztiak gaztelania hutsez dira, eta operadore batek hartu eta euskaraz hasi natzaionean "esta es la atencion en castellano", aurretik ez zaidanean aukeraketa hori egiteko aukera ere eman. Operadoreak euskal hiztun batekin pasatzeko aukera eman dit baina berezko erderazko harrera salatu nahiko nuke.

Dosierra: 655-2025

Nori: EROSKI -BEZEROAREN ARRETARAKO ZERBITZUA

Arrazoia: Iruñeko Garcia Najera kalean, Gotorleku kalean eta Iturrama kaleetan dituen dendetan ez dago Consumer eta Eroski aldizkariak euskaraz eskuratzetik. Bazkidea naiz eta aldizkari horiek denda guztietan bezeroen eskura jartzeko eskatzen diot Eroskiri.

Dosierra: 670-2025

Nori: FORUM SPORT S.A. - Egoitza Nagusia

Arrazoia: Forum Sport dendetako Bizkaiko Zentralera deitu dut gaur irailaren 11n 13:50 aldera. 3 tekla sakatu ditut euskaraz atenditu nazaten. Artatu nauen pertsona erdalduna izan da. Eskatu dut euskalduna izan zedin eta esan dit orduan ez zegoela euskaldunik libre ni artatzeko. Nahi banuen geroago deitzeko. Espainieraz jarraitu dut eta amaitu egin behar nuen erreklamazioa. Momentu horretan ezin izan dut euskaraz egin. Nire eskubideak urratuak izan dira. Amaieran, jakinarazi diet nire egoneza, ezin izan dudala euskaraz artatua izan.

Erantzuna:

Bezeroen Arreta Saila: Eskertzen dugu zure ulermena eta jakinarazi nahi dizugu gure sisteman egindako azken aldaketaren ondorioz, une honetan ezinezkoa dela deiak automatikoki euskarazko arreta emateko eskuragarri dagoen agente bati bideratzea. Badakigu bezeroek nahi duten hizkuntzan arreta jasotzea zein garrantzitsua den, eta arazo hau lehenbailehen konpontzeko lanean ari gara. Kasu honetan, egokiena zuri guk deituko genizula jakinaraztea izango zen, eta ez zu zeure kabuz deitzea eskatzea. Hala ere, ulertzen dugu zerbitzua berehalakoan jasotzeko beharrak egoera baldintzatu zuela. Barkamena eskatzen dizugu sortu daitezkeen eragozpenengatik, eta ziurtatzen dizugu antzeko egoeretan arreta esperientzia hobetzeko neurriak hartzen ari garela.

Dosierra: 701-2025

Nori: MAKRO Erandio

Arrazoia: Makro dendako kartelak gaztelaraz bakarrik daude.

Dosierra: 737-2025

Nori: EROSKI -BEZEROAREN ARRETARAKO ZERBITZUA

Arrazoia: Berangoko dendako balantzak eta prezio-etiketak berriztatzen dabiltza. Balantzek orain pantaila dute eta hainbat hizkuntzatan erabiltzeko ikurrak ere bai.

Lehentasunez gaztelaniaz agertzen da eta euskaraz erabiltzeko sakatzerakoan orduan aldatzen da. Behin etiketa inprimatuta, berriz ere agertzen da dena gaztelaniaz. Gainera etiketak ere berriak dira eta gaztelaniaz bakarrik agertzen da informazioa. Prezio-etiketak ere elektronikoak dira orain, baina, hala ere, gaztelaniaz baino ez dituzte ezarri produktuen izenak eta informazioa. Dena digitala eta pantaila bidezkoa izanda aukera paregabea galdu dute Eroskin gauza guztiak ele bietan ager daitezen. Halaber, okindegian, alergenoen informazio-kartela gaztelaniaz bakarrik dago.

Erantzuna:

Bezeroen Arreta Saila: Ezer baino lehen, eskerrak ematen dizkizut gurekin harremanetan jartzeagatik; horrela, bezeroekiko arreta hobetuko dugulako. Erreklamazioari dagokionez, adierazi behar da proba pilotu batean gaudela frutagintzako balantza berriekin, eta oraindik ez digula denborarik eman pantaila nagusia euskaraz jartzeko. Gorabehera sail arduradunari jakinarazi diogu, eta ahalik eta lasterren aldatuko dute. Sentitzen ditugu sortzen ari diren eragozpenak.

Dosierra: 743-2025

Nori: EROSKI -BEZEROAREN ARRETARAKO ZERBITZUA

Arrazoia: Berangoko Eroski dendako fruta dendako makinak berritu dituzte eta lehen pantaila gazteleraz soilik dago, BIENVENIDO, COLOQUE EL PRODUCTO esanez. Ondoren, fruta saskian ipintzean hizkuntza euskarara, eta abar alda liteke, baina hasierako pantaila nagusia ezin liteke euskarara aldatu eta gazteleraz soilik dago.

Dosierra: 744-2025

Nori: EROSKI -BEZEROAREN ARRETARAKO ZERBITZUA

Arrazoia: Eroskiren bezeroen arretara euskaraz idatzi dut, eta nire mezua jaso dutela adieraziz, gaztelerazko mezua soilik bidali didate. Topatu dudana kontaktu emaila hau izan da eta hona idatzi dut, euskarazko baliokiderik ez dut topatu: *atencionalconsumidor@eroski.es*

Dosierra: 750-2025

Nori: AMAZON SPAIN SERVICES SL

Arrazoia: Bermeon dagoen Petronorreko gasolindegian Amazonen "locker" bat dago, izenez; Ion. Ezin da euskaraz erabili. Kanpoaldeko testuak ere gazteleraz bakarrik daude

Dosierra: 809-2025

Nori: EROSKI -BEZEROAREN ARRETARAKO ZERBITZUA

Arrazoia: Pasaden ostiralean Iruñeko Maxi Eroskian egin nituen erosketak. Beti bezala Osasunaren partidetarako zozketarako txartelak eta kartelak gaztelania hutsean zeuden. Duela denbora beste zozketa baten ohartarazpena ere egin nuen eta elebitan jarriko zituztela erantzun zidaten. Osasuna Fundazioarekin batera antolatutako zozketa denez, nire eskaria bi entitateei doakie behingoz euskararen presentzia bermatu dezaten. Iruñeko berezko hizkuntza da euskara eta euskaraz bizi garen bezeroak hainbat gara, gure eskubideak aintzat hartzea eskatzen dut.

Dosierra: 814-2025

Nori: CLAREL - (BEAUTY BY DIA, S.A.U)

Arrazoia: Bermeoko denda itxuraz aldatu badute ere, jarritako letrero guztiak gazteleraz bakarrik daude.

Dosierra: 819-2025

Nori: EROSKI -BEZEROAREN ARRETARAKO ZERBITZUA

Arrazoia: "Eroski Iruña" denda beheko solairuko aparkalekutik igotzean dauden karteletan ez da euskaraz. Eroskiri kartel guztiak euskaraz ere ezarri ditzan eskatzen diot.

Erantzuna:

Bezeroen Arreta Saila: Beheko solairuko aparkalekutik igotzeko jarraibidea adierazten duen kartelari dagokionez, jakinarazten dizugu kartela euskaraz ere jarri dela. Horrela, hemendik aurrera kartela elebiduna izango da (euskara eta gaztelania), komunikazio inklusiboagoa eta egokiagoa bermatuz.

Dosierra: 830-2025

Nori: EROSKI -BEZEROAREN ARRETARAKO ZERBITZUA

Arrazoia: Urriaren 28 an "pedido on line" egin gendun eta eskaera ailegatzerakoan etxera konturatu ginen falta zela priduktu bat.. Hurrengo egunean, urriaren 29an,

BEZERO ZENBAKIRA deitu nuen, EUSKERAZ BERBA EGITERAKOAN ESAN ZIDAN EZ ZUELA ULERTZEN; MOMENTU HORRETAM ESKEINTZEN ZUTELA AUKERA GALEGOZ; KATALANEZ I; INGLESEZ EDO ERDERAZ BERBA EGITEKO. Hau guztia, modu txarrean esan zidan nire harri durako. Handik 10 minutua deitu nien berriro, eta BERRIRO ESAN ZIDAN EZ ZEGOELA INOR EUSKERAZ BERBA EGITEKO, baina nire telefonoa emotea ta euskaldun bat zegoenean kontaktuan jarriko zirela nirekin. Azkenik lortu nuen euskaldun batez berba egitea (hirugarren deia eta ordu erdi ondoren) eta erreklamazioa egin nion falta zitzaidan produktua eskatutako eskaeran. Nire haserrea ere helarazi nion eta gertatutakoa salatuko nuela :Atxikita bidaltzen dizuet " AITOR ARANA" delakoan erantzuna. Aste honetan EROSKI-tik ezabatuko gara (urteetan hilero diru mordo bat gastatu dugu) izan duten mespretxua gure hizkuntzarekiko.

Erantzunak:

Bezeroen Arreta Saila: Barkamena eskatu nahi dizugu 2025eko urriaren 29an gertatutakoagatik, orduan gurekin harremanetan jarri zinela eta hasiera batean ez zegoelako zu euskaraz artatzeko agenterik. Une horretan, beste hizkuntza batean komunikatzeko aukera eskaini zitzaizun, eta uste dugu aukera hori ez zela egokia. Benetan sentitzen dugu gutxietsia sentitu izana, gure asmoa ez baitzen, inola ere, arreta euskaraz jasotzeko eskubidea urratzea, ezta zerbitzu txikiagoa eskaintzea ere. Dagoeneko hainbat neurri hartu ditugu antzeko egoerak errepika ez daitezen. Euskara baliozko hizkuntza da guretzat, eta hizkuntza horretan duen arreta egokia gure erakundearen konpromiso sendoa da. Eskertzen dizugu zure ulermena, eta espero dugu zuk merezi duzun kalitatearekin berriro euskaraz artatzea.

Herriarraren erantzuna: Honen ondorioz EROSKItik urten ta ez dogu erosiko sekulan bez ezebe.

Dosierra: 837-2025

Nori: UVESCO GRUPO S.A. (BM supermerkatuak)

Arrazoiak: BM supermerkatua salatzen dut goitik behera. Kutxan, azkenaldi luze honetan, erdaldunak eta zenbakirik ere ulertzen ez dutenak dira gehien-gehinak Beasainen, Senperen duten supermerkatuan. Bezeroen artean nagusiki beasaindar, lazkaotar eta ataundarrak, euskaldun asko eta denok espainierara derrigortuak eta bortxatuak. Euskaraz hasi eta "en castellano" erantzuten dute, "en

cristiano" esatea bakarrik falta zaie. Nire salaketarik gogorrena BM enpresarentzat horiei denei kutxan euskaraz lan egiteko adia ez irakasteagatik. Beste salaketa bat enpresa berari. Interneteko webgunea espainiera hutsean dauka eta lotsarik ez du Euskal Herrian hori eskaintzearekin "Fresco eta super fresco" dio bere propagandak baina hizkuntzan zeharo ihartuta dabil. Azkenik, "fresco" horren propaganda erdalduna espainieraz gehien bat entzutearekin nazkatuta gaude euskaldunok. Supermerkatua Beasaingo Senpere kaleko 7an dago.

Dosierra: 849-2025

Nori: EROSKI -BEZEROAREN ARRETARAKO ZERBITZUA

Arrazoiak: Hernaniko erdigunean dagoen Elcano kaleko EROSKI city, elikagaien izenak gaztelera hutsean jarrita daudela eta euskaraz jartzeko eskaera egin nuen irailaren 12an (argazkiak atera nituen mobilarekin). Urria aldera berriro joan nintzenean euskaratu gabe zeudela eta bertan zegoen arduadunari esan nion eta baietz esan zutela baina Eroskiko Bezeroen Arretara deitzeko esan zidan. Ez nuen deitu. Gaur, azaroak 12, erosketak egitera joan naizenean (ez bainaiz maiz joaten zentro horretara) gaztelera zeudela ikusi dut. Zegoen kutxazain bakarrak atenditu nauenean erosketak kobratzeko, nik euskaraz egiten nion, baina berak nonbait ez zidan ezer ulertzen eta esan dit "me hablas en castellano, por favor, que te estoy todo el rato hablando y tu sigues" nik erantzun diot, "claro, es que yo quiero hablar en euskera" eta orduan berak esan dit "pues si quieres que te atiendan en euskara espera a que venga mi compañera", nik "vale, pero además quiero la hoja de reclamaciones", txartelen erreklamazioa egiteko; "lo que faltaba" berak. Beno, gero bere lankide erdi euskalduna hurbildu da, eta berak bazekien erreklamazioarena, aurreko bietan esan nuenean bera zegoelako. Erreklamazio orririk ez dutela baina Bezeroaren Arreta telefonora 944943444 deitzeko berriro. Deitu dut telefonora eta erantzungailua GAZTELERA HUTSEAN, euskaraz atenditua izan nahi nuela esan dut eta orduan 2 sakatzeko erantzun dit, 2 sakatu dut, eta gaztelera atenditu didate; euskaraz hitz egin nahi nuela esan diot, eta telefono zenbakia uzteko deituko zidatela. Bi ordu pasa dira eta ez du inork deitu. Berriro deitu dut, pertsona berak atenditu dit gaztelera. Deitu didate gaztelera atenditzen, esan diet euskaraz nahi nuela, 5 minutuz eduki naute musikatxo entzuten zain... Bi ordu pasa ditut...eta ez dut lortu nire erreklamazioa euskaraz inori helaraztea. Euskaldunekiko EROSKIren jarrera salatu nahi dut: - Txartel guztiak

gaztelera hutsean daude - "Atención al cliente" telefonoan, gaztelera hutsean dago erantzungailua, eta ez dut lortu euskaraz atenditzea. - Ez dute bermatzen kutzazainen gutxieneko euskara maila.

Dosierra: 901-2025

Nori: EROSKI -BEZEROAREN ARRETARAKO ZERBITZUA

Arrazoia: Eroski Garberako kutzazain automatikoak gaztelera daude defektuz. Euskaraz jartzeko, espreski, Espainiako bandera sakatu eta euskara aukeratu behar da. Euskaldunok bigarren mailan gaudela dirudi saltoki honetan ere. Gainera, euskaraz hautatu arren esaldi batzuk gaztelera azaltzen dira eta eskudirutan ordaindu nahi izanez gero, makina hori gaztelera hutsez dago. Noiz arte?

Dosierra: 907-2025

Nori: ARTEA MERKATARITZA-GUNEA

Arrazoia: Leioako Arte Merkataritza gunearen webgunean, euskara hautatu arren, gabonetako ekintzen informazioa eta beste hainbat eduki gaztelaniaz baino ez dituzte.

Erantzuna:

Gerentzia: Asko sentitzen dugu sortutako ondoeza, eta barkamena eskatzen dizugu. Badakigu oso garrantzitsua dela gure edukiak bi hizkuntzetan eskaintzea, eta dagokion sailari emango diogu iradokizunaren berri. Eskertzen dugu emandako denbora eta ematen diguten informazioa, ARTEA merkataritza-gunearen kudeaketa zuzendu eta hobetu ahal izateko, gure bezero eta langileen mesedetan.

Dosierra: 908-2025

Nori: BALLONTI MERKATARITZA GUNEA

Arrazoia: Ballonti Portugaleteko merkatal zentroaren webgunean euskararen arrastorik ez dago inon, ez du hizkuntza aldatzeko aukerarik ere ematen.

Dosierra: 919-2025

Nori: LEGO SA

Arrazoia: Lego multinazionalak sukurtsala zabaldu zuen abuztuan Bilbon. Irekiera iragartzeko kartelak jarri zituzten autobus-markesinetan, eta denak zeuden gaztelania hutsean. Helbide honetan ikus daiteke kartela:

<https://x.com/calonsonet/status/1951191730188927357> Batez ere umeentzako produktuak izanda, eta baliabideak dituen multinazionala izanda, ez dute batere enpatiarik, kontzientziarik, sentsibilitaterik eta errespeturik izan euskararekiko.

Dosierra: 963-2025

Nori: MEDIA MARKT - Barakaldo

Arrazoia: Megaparkeko Media Marketen dendako kartelak gaztelera bakarrik daude. Txanda hartzeko jarritako pantaila berrietan ere ez dago euskara aukeratzerik; gaztelera daude.

OSASUN ZERBITZUAK (13)

Dosierra: 34-2025

Nori: IMQ ZORROTZAURRE KLINIKA

Arrazoa: Urtarrilaren 5ean IMQren Zorrozaurreko osasun etxean izan ginen urgentzietan. Seinalitika finko gutxi batzuk izan ezik gainerako kartel eta ohar guztiak gaztelania hutsean daude.

Erantzuna:

Zuzendari ekonomikoa: Argitu nahi dizugu aipatutako kartelak aldi baterako kartelak direla, eta profesionalak jartzen dituztela jende asko ibiltzen den garaietan, gripe garaian esaterako, eta pazienteentzako mezuak indartu behar diren egoera zehatzetarako, bai eta gaztelaniaz jarri diren kasuetan ere, nahiz eta kartel finkoak euskaraz eta gaztelaniaz egon. Kasu honetan, iruzkinak eta iradokizunak asko eskertzen ditugu, eta horietan oinarrituta aldaketak egingo ditugu.

Dosierra: 94-2025

Nori: MEDICAL OPTICA egoitza nagusia

Arrazoa: SMS mezu hau bidali didate Medical Opticatik, erdara hutsean, ohi bezala: AHORRA con tu PACK DE LENTILLAS + LIQUIDOS MEDIFRESH 3.0 al mejor precio en Medical Optica Audicion. ¡Hazte con el! <https://clk.mk/3bFiHG> NoPubli946941269

Dosierra: 120-2025

Nori: IMQ ZORROTZAURRE KLINIKA

Arrazoa: IMQ Zorrotzaurre, gaur senitarteko bat ingresatuta dagoela eta goiza pasatzera joan naiz IMQ Zorrotzaurre ta, Deusto-Bilbo. Euskeraz entzutea zaila oso zaila, egunon esateko ere gaitasunik bez. 13:00 inguruan bertaratze ziurtagiria eskatzera joan naiz eta harreran zegoen mutilari euskeraz galdetu diot eta nola lortu dezakedan ziurtagiria, begietara mespretsuz begiratu eta "en castellano" esan dit, inolako errespeturik barik, lotsabakokeria hutsagaz. Lotsagarria

Erantzuna:

Zuzendari ekonomikoa: Lehenik eta behin barkamena egoerak eragindako pertsonari sortu ahal izan dizkion eragozpenengatik. Jakinarazten dizugu

adierazitako egoeraren berri eman diogula klinikado zuzendaritza-organoei hizkuntza-eskubideen inguruan erakunde horrek hartutako konpromisoak indartzeko. Era berean jakinarazten dizugu klinikarentzat lehentasuna dela pazienteari informazioa eta arreta emateko postuetan bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan arreta emateko gaitasuna duten langileak egotea. Horregatik, eta beti langile kualifikatuak aurkitzea erraza ez den arren, euskararen ezagutza lehenesten ari da klinikako plantillan profesional berriak sartzean. Ildo horretan, jakinarazten da antolakuntza-arrazoiengatik beharrezkoa izan dela harrerako lanpostua aldi baterako betetzea gaur egun euskarazko gaitasunik ez duen langile batekin. Gure erakundean euskararen erabilera normalizatzeko prozesuan aurrera egiten jarraitzeko aukera izan dugulako eskertuta.

Dosierra: 158-2025

Nori: PAUSOZ PAUSO ELKARTEA

Arrazoa: Inor ez harritzeko modukoa. 2025ean izanik ere. Kartelak eta zerbitzua eta abarrak erdara hutsean dira edo euskararik ageri baldin bada, dena zabarkeriak josirik. Hau da hau! Zulo beltz-beltza da osasun-arloa paziente eta herritar euskaldunondako. Kartel iraingarri hau Usansoloko ospitalean ikusi dut. Pausoz Pauso boluntario elkarteak, EHUK eta Bizkaiko Medikuen Elkargoak antolatutako jardunaldien gainekoa da eta izenburutik bertatik da lotsagarria: "Minbizi Gaixotasuna duen pazienteen aho-ahotz zaintzariburuzko jardunaldia. Gauregun aurrerapenak" / "2025 ko martxoaren 5an" / "Lersundi Kalea" / "Kontzientziak" / "Interbentzioa goizarra" / "Jardunaldiaren." / "17:05 -etatik - 18:00 -etara" / "Saioa Informatiboa" / "Hizlariak" / "Saioak praktikoa" / "Odontología Doctorea" / "Irakasle Lanbide internista. Estomatología Sailak" ['Prof. laboral interino. Dpto. Estomatología'] / "Irakasle Elkartea" ['profesor asociado' gaztelaniaz] / "Euskadiko Odontología Ikasleen Elkartean / Odontologo Berriak-en lankidetzarekin eta part-Hartzearekin" [Con la colaboración y participación de la Asociación Vasca de Estudiantes de Odontología/Odontólogo Berriak]. "Jornada sobre Cuidados Bucodentales en paciente con patología oncológica. Avances en la actualidad" <https://osasunif.cmb.eus/cursos/jornada-sobre-cuidados-bucodentales-en-paciente-con-patologia-oncologica-avances-en-actualidad#>

Erantzunak:

Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako errektoreordea: Harremanetan jarri gara Medikuntza eta Erizaintza Fakultateko Dekanoarekin eta Komunikazioa, Euskara eta Eleaniztasun Dekanordearekin. Haiek ere jaso dute kexa, eta berehala aztertu dituzte kartel horren nondik-norakoak. Hasteko, jakinarazi digute jardunaldiei buruz ikastegitik zabaldutako informazio ofiziala Medikuntza eta Erizaintza Fakultateko webgunean agertzen dela eta horren hizkuntza-kalitateak ez duela zerikusirik kexan ageri den kartelarenarekin. Esteka honetan ikus daiteke Fakultatearen webgunean ageri den informazioa: <https://www.ehu.eus/eu/web/medikuntza-erizaintza-fakultatea/-/paziente-onkologikoarengan-aho-eta-hortz-zainketei-buruzko-jardunaldia> Bestalde, Komunikazioa, Euskara eta Eleaniztasun Dekanordeak antolatzaileei eskatu die ospitalean zintzilikatutako kartela euskara zuzena erabiltzen duen kartelarekin ordezkatzeko. Espero dugu aurrera eramandako ekintzek laguntzea etorkizunean honelako egoerarik berriro ere ez gertatzeko.

Idazkaria: Jardunaldiaren iragarkiaren itzulpeneko akatsek eragin dezaketen deserosotasuna sentitzen dugu. BEMtik egunero saiatzeko gara alderdi honetan hobetzen eta gure asmoa euskararen erabilera zaintzen jarraitzea da.

Dosierra: 256-2025

Nori: IMQ - ERRESONANTZIA MAGNETIKOA BILBO -

Arrazoia: Osakidetzaaren bitartez proba bat egitekoa nintzen, IMQtik General Egia kalea 22 Bilbo) jaso nuen dei bat, erderaz. Data eman zidaten proba egiteko, gerturatu eta aukerarik ez euskeraz egiteko, proba egiteko baimena eman behar nuen idatziz, erdera hutsean eta hortik aurrera eta bertatik alde egin arte beste hizkuntzarik ez zegoen.

Dosierra: 305-2025

Nori: IMQ PREVENCIÓN S.L.

Arrazoia: Joan den astean, enpresaren azterketa medikua izan nuen IMQren Donostiko prebentzio zentroan. Urtero bezala, mediku azterketa euskaraz izatea eskatzen dut. Txanda tokatu zitzaidanean, medikuak esan zidan berak ulertzen zuela eta saiaturiko zela, baino ez zuela ulertzen jarrera hori. Dena erdaraz egin behar izan nuen. Kexa bat jarri nuen IMQn bertan eta ondorengo erantzuna eman zidaten: "2025/04/14an helarazi zenigun keza zuzen jaso genuen, eta kexa hori

aztertu dugu bere arrazoia argitzeko. Azterketa hori egin ondoren, jakinarazi nahi dizugu sentitzen dugula egoera urtero berdina izatea. Zoritxarrez, oso zaila da osasun-langileak kontratatzea, eta, gure hautaketa-prozesuetan hala eskatu arren, ia ezinezkoa da euskaraz hitz egiten duten langileak aurkitzea". IMQri profesionalekin hizkuntzarekiko jarrera lantzeaz gaindi, profesionalen euskalduntzea sustatzeko neurriak hartzea eskatu nahi diot eta bitartean euskarazko arreta bermatu ahal izateko langileen artean zirkuitoak ezartzea, zentro bakoitzean nahi duen bezeroak euskarazko arreta jaso dezan bermatzeko.

Dosierra: 426-2025

Nori: GENERAL OPTICA - Donostia -

Arrazoia: Donostiako erdigunean dagoen General Opticaren dendan, zehazki Hondarribia kaleko 18. an dagoenean, ez dago euskaraz atendituko nauen inor. Bizitza guztiko bezeroa naiz eta egoera bestelakoa zen lehen. Azken hamarkadan, ordea, langile euskaldun bakarra dago. Hortaz, langile horrexek artatzea eskatu izan dut, ezinbestean. Orain, nonbait, hainbat hilabeterako baja medikua dela eta, ez da dendan egongo. Enpresak ez du beste langile euskaldunik jarri haren orde. Atean eta mostradorean, ordea, "euskaraz barra barra" pegatina daukate; ez dute kendu.

Erantzuna:

Bezeroen Arreta Saila: Lehenik eta behin, jakinarazten dizugu GENERAL OPTICA, S.A.k betetzen duela hizkuntza-araudia. Hizkuntzen koofizialtasuna duten autonomia-erkidegoetan aplikatu behar da. Zentzu horretan, denetan EAEko gure establezimenduetan egiten diren dokumentazio, kartel eta bezeroentzako komunikazio guztiak gaztelaniaz eta euskaraz egiten dira, eta bezeroak euskaraz artatuak izan daitezke, hala nahi izanez gero. Zoritxarrez, 2025eko ekainaren 10ean, aldi baterako eta une jakin batean, bezero bati ezin izan zitzaion zerbitzua euskaraz eman gure optika-zentroan (Hondarribia kalea, 18, Donostia), zuzendariaren baja medikua dela eta, Optika-zentro horretan, hizkuntza ezagutzen duen eta euskaraz artatua izan nahi duen bezeroen ardura duen pertsona da. Bere baja, ezin izan zen berehala ordezkatu, eta espero dugu luze baino lehen konponduko dugula egoera.

Dosierra: 441-2025

Nori: ADONA - Nafarroako odol emaileen elkarte

Arrazoa: Adona, Nafarroako odol emaileen elkarteak, Elizondon kartel handi bat paratu du. Euskarazko itzulpena, lotsamangarria.

Dosierra: 660-2025

Nori: LABORATOIRE DE BIOLOGIE MÉDICALE - CERBALLIANCE -

Arrazoa: Maiz ibiltzen naiz toki hortan eta aldi oro gaizki sentitzen naiz ez beldurra gatik baizik Euskarak ez duelako tokirik etxe hortan. Den-dena frantsesez da afixak, ongi etorria, gelak eta abar ematen du nunbaiteko departamendu bat kanpoko aldean etxearen izena frantsesez hutsean. Harreran bixta da frantsesa dela bakarrik. Erizain bat izan liteke euskara dakiena, baina frantsesez mintzatu ginen. Alta, hor ibiltzen diren gehienak euskara dakitenak dira; Saratik, Senperetik edo berdin Azkaindik eta geltokian euskaraz mintzo gira. Arrotz sentitzen gira gure herrian, pentsatzen dut ez naizela bakarra.

Dosierra: 756-2025

Nori: U10 HORTZ-KLINIKA

Arrazoa: Hernanin dagoen U10 hortz klinikan bezeroen arreta eta artatzea euskaraz egiten dute, beraz, alde horretatik oso ongi eta zoriontzekoa. Baina, idatziz eskaintzen duten dokumentazioa (urrekontuak, fakturak eta beste) erdara hutsez ematen dute. Bezero gisa, dokumentazio hori euskaraz ere egon dadin eskatu zaie, ez baita gainera gauza konplikatu eta hamaika enpresetan horrela egiten dute. Ondoren adierazi didatenaren arabera, kudeaketa eramateko erabiltzen duten plataformarekin harremanetan jarri dira eta oraingoz ezezkoa eman omen diete, programa euskarara itzultzeko.

Dosierra: 865-2025

Nori: OPTICALIA - IRUN -

Arrazoa: Opticalia empresatik gutun komertzial bat jaso dut Irunen gaztelania hutsean. Eta ez euskaraz, edo elebidun.

Dosierra: 896-2025

Nori: AMBULANCIAS GIPUZKOA S. Coop

Arrazoa: Azaroaren 10ean Gipuzkoako Anbulantzietara euskaraz deitu eta "por favor, en castellano" erantzun zidaten.

Dosierra: 898-2025

Nori: FARMACIA MERTXE GARCIA MARTINEZ

Arrazoa: Argazkia ikusten bezalaxe, Irungo Nafarroako etorbidea 1ean dagoen botikan ez dituzte euskaldunon hizkuntza eskubidek errespetatzen. Aski da!! Euskara ofiziala!! Irun euskalduna eraiki!! Bidasoaldea Euskalduna eraiki!!

PROFESIONALAK ETA ZERBITZUAK (26)

Dosierra: 24-2025

Nori: SQUARE HABITAT - BAYONNE -

Arrazoa: Baionan ere plantatua den SQUARE HABITAT higiezin agentziaren webgunea (<https://www.squarehabitat.fr/square-habitat-pyrenees-gascogne/nos-agences-immobiliieres/pyrenees-atlantiques/bayonne-64100/agence/square-habitat-bayonne>) eta harreta zerbitzua osoki frantsesez dira. Euskara eta gaskoina Baionako jatorrizko hizkuntzak izanki, domaia da tokiko bezeroei zerbitzua hizkuntza horietan ez eskaintzeak, eta euskara zein gaskoina estimu handiagoan hartzen duten agentziengana joateko gogoa ematen dio bezeroari.

Dosierra: 50-2025

Nori: ORONA CORPORACIÓN - Euskara Planaren arduraduna-

Arrazoa: Oronak honako kartel informatiboa jarri digu igogailuan Antsoaingo JM Jimeno Jurio kaleko 11n. Ez dago euskaraz.

Erantzuna:

Araba-Nafarroa-Errioxa Areako Zuzendaria: Bertan jasotako erreklamazioa aztertu ondoren, adierazi nahi dizuegu akats baten ondorioz gertatu dela egoera hori eta konponbidea eman diogula. Konponketak egiteaz arduratzen diren lankideei gertatutakoaren berri eman diegu, eta jarraibideak gogorarazi dizkiegu. Dakizuen bezala, gure eguneroko jardunean euskararen erabilera arautzeko eta euskararen normalizazioa sustatzeko ezarrita ditugu hizkuntza-irizpideak eta horiek betetzea da gure nahia. Gure erabiltzaileen beharrak asebetetzeko lanean jarraitzea da gure helburua, eta sentitzen dugu gertakari honek sortutako eragozpenak.

Dosierra: 89-2025

Nori: AUROLA PSIKOTEKNIKOA SL

Arrazoa: Honako gutun hau jaso nuen Azpeitiko "Aurola Psikoteknikoa" zentrotik (Artubia hiribidea, 31 behe), dena gaztelania hutsean. Ez, atzeko aldean ez du euskarazko bertsiorik. Euskararen arnagune handienean, gure hizkuntzari lehentasuna ematek urrun, oraindik ere badira komunikaziorako gaztelania soilik erabiltzen dutenak.

Dosierra: 164-2025

Nori: INMOBILIARIA UDARITZ

Arrazoa: Bermeoko Udaritz inbiliararen webgunea gaztelera bakarrik

Dosierra: 193-2025

Nori: SOLITIUM SL

Arrazoa: Zaragozako Solitium enpresak Bilboko Lankidego enpresa erosi zuen baina, nahiz eta jakinarazi euskerazko zerbitzua eskaini behar duela, hemengo hizkuntza legeria betetzeko, jarraitzen du agiri asko gaztelera hutsean bidaltzen. Euskeraz egiten duena: faktura, komertzial euskaldunarekiko harremana, teknikari gazte bat euskalduna. Gaztelera egiten duena bat: gainerako guztia (aurrekontuak, jakinarazpen teknikoak, toner eskaerak...) Hemen, arazo teknikoei buruzko jakinarazpen bat, adibidez. Zinez eskertzen diogu egiten duena baina oso urrun dago legea betetzetik.

Dosierra: 286-2025

Nori: TELLERIA GESTION

Arrazoa: Gure bizilagun komunitateak administratzailea (abokatua ere bada) ordaintzen du administrazio kontuak eramateko. Hori horrela, edozein jakinarazpen edo gorabeheraren berri estutitz bidez jakinarazten digu. Azkena duela bi aste inguru jaso genuen jakinarazpena. Bada, guztia gaztelania hutsean zegoen. Uste dut bi hizkuntzatan egin beharko luketela.

Dosierra: 298-2025

Nori: VINTED UAB

Arrazoa: Vinted aplikazioa ezin da euskaraz bistaratu.

Dosierra: 310-2025

Nori: METAPOSTA S.A.

Arrazoa: IT Txartela ezagutza informatikoa akreditatzeko zerbitzua da, eta Irungo liburutegian ere (CBA) ematen da KZGunean. IT Txartelan proba bat egin eta gero, erabiltzailea (ni) Metapostan aktibatzen zaituzte. Bada, bertara bidaltzen diren mezuak hasieratik espainiera garbian dira hasieratik. Kontuan, interfazea erabat

espainieraz dago, eta ongi arakatzuz bakarrik aurki daiteke hizkuntza aukera (euskara), berehala aktibatzen ez dena. Ongietorri mezuak Metapostara eta erreferentziazko helbide elektroniko pertsonalera heltzen dira. Biak ere espainiera hutsez. Sistema honetan, euskaldunak erabat arrotzak gara, nahiz eta ahalegina eginez gero hizkuntza aukera aktibatu egiten den interfazerako, baina mezua argia da (IT txarteletan ikusitakoarekin bat etorriz, bestalde): "hemen, euskaraz egin nahi baduzu, esfortzu gehigarri bat egin beharko duzu".

Erantzuna:

Zuzendaria: Lehenik eta behin, eskerrak eman nahi dizkizugu zure kezka bidaltzeagatik. Metapostarentzat lehentasunezkoa da erabiltzaileek eroso sentitzen diren hizkuntzan erabili ahal izatea zerbitzua, euskaraz edo gaztelaniaz, eta errespetu handienarekin tratatzen dugu esparru honekin lotutako edozein erreklamazio. Metapostako postontzi baten altak, erabiltzaileak ongi azaldu duen moduan, posta elektronikoz jasotzen diren hainbat mezuen aktibatzea eta postontziaren hizkuntzaren konfigurazioa dakar. Erakunde igorleak postontzia sortzean bai postontziaren bai mezu elektronikoen hizkuntza aukeratzen du. Entitateak hizkuntzarik adierazi ezean, sistemak gaztelaniaz konfiguratzen ditu postontziak. Izan ere, Metapostan Estatu osoko erakundeei zerbitzua ematen diegu, eta euskararen erabilera entitateak espresuki hautatu behar duen aukera bat da. Hala ere, gurekin lan egiten duten erakunde euskaldun askok postontziak euskaraz konfiguratzen dituzte, zerbitzua hasieratik euskaraz eskainiz, eta haien euskara planak betez. Horretaz gain, edonork bere kontu pertsonaletik edozein unetan alda dezake bere postontziaren hizkuntza, baita telefono, txat edo posta elektronikoen bidez gure arreta zerbitzua euskaraz erabili ere. Edonola ere, eta kexa zehatz honi erantzunez, postontzian hizkuntza aldatzeko prozesua hobetzea erabaki dugu, pertsona bakoitzak zerbitzua berak aukeratutako hizkuntzan modu errazean erabili ahal izateko. Azkenik, dagokion erakundearekin (IT Txartela) harremanetan jarri gara, erabiltzaileen lehentasunezko hizkuntza eskatzeko eta postontziak sortzean, hizkuntza aldetik, behar bezala konfiguratzeko. Haiekin lan egingo dugu hobekuntza hori ahalik eta azkarren aplikatzeko.

Dosierra: 378-2025

Nori: BILBOFINCAS

Arrazoia: Garajeetako jabeen emailtara Bilbofincas kudeatzaileak bidalita, APP baten berri eman digute espainieraz zein ingelesez. Erantsitako argazkian ikusgai.

Dosierra: 405-2025

Nori: COSAS DE CASA (SANTESTEBAN INTERIORISMO)

Arrazoia: Enpresa pribatu honek sare sozial eta webgunean duen informazio guztia espainolez du, ez dago aukerarik euskeraz irakurtzeko deus ere.

Dosierra: 406-2025

Nori: LEURTZA APARTAMENTUA

Arrazoia: Doneztebeko Leurtza apartamentos izeneko apartamentuak, bere sare sozialetan espainola erabiltzen du hizkuntza bakar gisa.

Dosierra: 449-2025

Nori: GANBARA HOSTEL BILBAO

Arrazoia: Senpereko ikastegi bateko langilea naiz; eta datorren ikasturterako ikasleekin egin nahi dugun ateraldiaren prestaketetan, lo egiteko lekua bilatzen hasi nintzen Bilbon. Ekainaren 11an Ganbara Hostel Bilbao aterpetxearen harremanetan sartu nintzen. Telefonoz deitu nuen informazio eske (euskaraz) eta erderaz erantzun ninduten. Euskaraz ba ote zekien galdegin nion eta ezetz; beraz, elkarrizketa espainolez iragan zen. Datu guztiekin emaila bidaltzea eskatu zidan eta hala egin nuen; euskaraz, prefosta. Egun berean erantzun zidaten informazioa emanez eta erdara hutsean. Biharamunean erantzun nien, bi emailtan, euskaraz. Erantzuna ukan nuen eta mezu horretan hau gehitu zuen: "Estoy traduciendo tus mensajes con el un traductor, ya que ninguno en la oficina hablamos en Euskera, puede que alguna cosa no se haya traducido correctamente o yo no la haya terminado de entender, te agradecería que para que la comunicación sea lo más clara posible, tus futuras comunicaciones sean en castellano." Biharamunean, ekainaren 13an, euskaraz idatzi nien aurrekontua igortzeko: "Egun on, izaten ahalko genuke aurrekontu ofizial bat soilik lo egiteko? Mila esker eta pasa egun on, Helena" Ez nuen gehiago erantzunik izan, eta geroztik deika aritu naiz. Batean neska erdaldun batek erantzun zidan eta bidaliko zuela erran. Egunak pasa eta mezurik ez. Ondoko egun batetan berriz deitu eta lehendabiziko aldiko neskak erantzun zidan. Aurrekontua bidaltzeko erran nion, ikasturtea bukatzen ari ginela

eta ahal bezain fite behar genuela. Orduan erran zidan erdaraz idazteko eskatua ninduela eta ez nuela hala egin. Nik erantzun nion nire emailak zuzendaria eta talde pedagogikoarekin partekatzen nituela, gure ikastegia Lapurdin zela, hemen euskaraz eta frantsesez mintzo ginela, eta proiektu honetan ni nintzela espainolez egiten zuen bakarra; eta gehitu nion, ea posible izanen zen proforma faktura hori euskaraz edo frantsesez izatea; eta ezezkoa eman zidan. Hala ere bidaltzeko erran nion. Ondoko egunetan berririk ez; eta gaur berriz deitu dut bihar azken kurtso eguna baitugu. Neska berak erantzun nau eta erantzuna emailaz igortzekotan zela erran dit: espainolez mintzatzen ez ginenez, ez gintuztela beren hotelean hartuko. Zur eta lur. Eztabaida izan dugu; ean bakarrik espainolez mintzo den jendea hartzen duten galdetu diot, ean gure haurrek espainola jakin behar zuten hor aterpetuak izateko....eta berak, komunikazioa ezin zela ziurtatu, haiek ez zekitela euskeraz eta guk espainolerik ez. Nik espainolez egiten dudala erantzun diot, baina ez zuen aski, bertze helduek ere jakin beharra zuten! Bilboz ari ginela erran diot, ean nola egiten zuten japoniarrekin, alemaniarrekin, poloniarrekin.....ean denek espainola jakin behar zuten; eta hark ezetz, horiekin ingelesez egiten zutela. Guri ez digula galdetu ean ingelesez egiten genuenik, ean nola suposatzen zuen ez ginela ingelesdunak...; eta behin eta berriz errepikatzen zuen elgarren arteko komunikazioa ez zela ziurtatua, eta erdaraz aritzeko eskatu zidala eta ez nuela egin. Berriz azaldu diot nire emailak talde pedagogikoan partekatu behar ditudala, beraz euskaraz, eta gaur egun badirela itzultzaileak. Bilborat idazten nuela, ez Pekinerat, eta Bilbon euskara hizkuntza ofiziala dela. Berak erran du haiena empresa pribatua dela eta beren legeak aplikatzen zituztela. Eztabaida gogorra izan da eta moztu diot argi ikusi baitut bigarren mailako bezeroak bezala tratatzen ari gintuztela euskaldunak ginelako, gure hizkuntzari eta gure eskubideei tinko lotua ginelako gertatzen ari zela hau dena. Proforma hori eta erantzuna idatziz igortzeko eskatu diot eta nagusiekin mintzatu ondotik erantzunen zidala erran du. Hala egin du, instant baten buruan idatzizko erantzuna ukan baitut: “Hola Helena, Después de nuestra conversación telefónica, he consultado con mis superiores y volvemos a la misma conclusión, no podemos tener problemas de comunicación con un grupo grande que viene al hostel. Hay muchos detalles que concretar, varios puntos económicos a comentar y no es positivo ni para nosotros, ni tampoco para vosotros que haya malos entendidos. Como bien mencionas, el euskera es un idioma cooficial en el País Vasco y seguro que hay varios establecimientos hoteleros que van estar

encantados de comunicarse con vosotros en ese idioma, pero lamentándolo mucho, desde esta oficina no sabemos hablar en Euskera, ni en Francés. Os hemos pedido por favor comunicarnos en otro idioma que pudiese ser castellano o inglés, pero vuestras comunicaciones han seguido siendo en un idioma, que ya os hemos comentado que no entendemos. Preferimos no confirmar esta reserva y así evitar, como ya os he comentado, tener futuros malos entendidos. Esperamos que podáis comprenderlo, y os deseamos que encontréis un Hostel que se adapte mejor a vuestras necesidades. Horra; gure salaketa honi segida emanen diozuelakoan, har itzazue Kattalin Elizalde ikastegitik gure agurrik beroenak. Helena Xurio Arburua Un saludo!”

Dosierra: 478-2025

Nori: GURELUR SAN ISIDRO KOOPERATIBA

Arrazoia: Mungiaiko San Isidro kooperatibara telefonoz deituz gero, erantzungailuaren mezua gaztelania hutsean dago. Euskaraz ere paratze eskatzen dut.

Erantzuna:

Gerentea: Eginda dago. Ez gara empresa publikoa, pribatua baizik, ez dugu legez inongo obligaziorik, baina proaktiboak gara euskerarekin. Ahobizi eta belarriprest. Iradokizunak entzun, aintzat hartu eta balioetsi egiten dugu. Baina beti errespetuz eta oihurik egin gabe.

Dosierra: 479-2025

Nori: EUSKADIKO AUTOESKOLEN FEDERAKUNTZA

Arrazoia: Gidabaimena euskaraz egiteko oztopoak. Nire semeak gidabaimena ateratzeko asmoa du eta gidabaimenaeuskaraz.eus web gunean ateratzen diren autoeskola guztietan ez dago azterketa euskaraz egiteko aukera. Gure kasuan, lehenik, Elorrioko Solozabal autoeskola jo genuen eta bertan euskaraz egiteko aukerarik ez zegoela esan ziguten hasieratik. Gero, Durangoko Urkoiz autoeskola jo genuen, eta bertako langileak ez zekien nola bideratu gaia, gu lehenengo kasua garela eta gazteleraz egitea gomendatu ziguten. Azkenean semea app baten aktibatu zuten (uste dut app hori Jaurilaritzarena dela) eta horko testak egiteko sarbidea eman zioten eta liburu bat. Baina gero azterketa egunean, bertan ez zeuden galderak jarri zizkioten, ondorioz ez du gainditu. Nola da posible gaur egun

horrela ibiltzea? Kasu honetan ere itxurakeria asko baina errealitatera etorrira aukera gutxi, euskaldunak gaztelerakoekiko desabantailan agertzen gara. Orain hurrengo azterketarako ze liburutik ikasi beharko du.

Dosierra: 500-2025

Nori: IDEALISTA S.A.U.

Arrazoa: Idealista appa ezin da euskaraz erabili; webgunea ere ez

Dosierra: 527-2025

Nori: ARPE ASESORES

Arrazoa: Hondarribiko Errekabea auzoko igerilekuetako kartelak, ordutegiak, arauak eta bestelako abisuak gaztelania hutsean daude, euskararen presentzia hutsaren hurrengoa da. Administrazioa daraman enpresak jartzen ditu, Irungo Arpe Asesores enpresak. administrazioa daraman enpresak jartzen ditu, Kartelak, arauak eta bestelako abisuak administrazioa daraman enpresak jartzen ditu, Irungo Arpe Asesores enpresak. Guztia gaztelania hutsean dago, ordutegiak, abisuak, arauak... Euskararen presentzia hutsaren hurrengoa da. Atxikita bidaltzen ditut argazkiak. Ekaina erdian ireki zirenetik, Errekabea auzoko igerilekuaren sarreran dagoen ordutegiaren kartela gaztelania hutsean idatzita dago.

Dosierra: 604-2025

Nori: INPOST SPAIN SL

Arrazoa: Bermeoko Landabaso B poligonoan dagon DIA supermerkatuan Inpost enpresako "Locker" bat dago ez duena euskara hautatzeko aukera pantailan. Kartelak ere gazteleraz bakarrik daude.

Dosierra: 608-2025

Nori: INMOBILIARIA UDARITZ

Arrazoa: Udaritz inmobiliariaren web gunea gazteleraz bakarrik dago.

Dosierra: 818-2025

Nori: INMOBILIARIA UDARITZ

Arrazoa: Bermeoko Udaritz inmobiliariaren web gunea gazteleraz bakarrik dago

Dosierra: 846-2025

Nori: ASCENSORES ENINTER S.L.

Arrazoa: ENINTER igogailuen mantenimenduaren enpresaren portaera linguistikoa salatu nahi nuke. Gure bizilagunen komunitatearen igogailuan argibide berriak jarri dituzte, pegatina, pantaila eta ahotsa, dena erdara hutsez eta euskara baztertuz. Telefonoz deitu diet nire ezinegona eta bizilagun askorena ere azalduz, eta erdaraz esan didate ez dutela zerbitzu hori euskaraz ematen (katalanez bai, antza)

Erantzuna:

Kalitatea, ingurumena eta segurtasuna: Zure erreklamazioa kontuan hartu dugula jakinarazten dizugu, eta gure audio guztiak euskarara eguneratzeko eskatu dugula. Aurreikuspenen arabera, hilabetez ezarriko da. Arren eskatzen dizugu tarte hori guri emateko, arazoa konpondu ahal izateko.

Dosierra: 904-2025

Nori: MOONZ, S.L

Arrazoa: Etxean (Donostia) Moonz haginlariaren eskuorria jaso dugu gaztelania hutsean.

Dosierra: 969-2025

Nori: GLS SPAIN Logistics Systems Spain

Arrazoa: GLSek euren zebitzua baloratzeko bidaltzen duten e-maila hiru hizkuntzatan egin daiteke, baina; euskaraz ez.

Dosierra: 970-2025

Nori: ITV-IAT BEASAIN ITEVELESA

Arrazoa: Abenduaren 29an egon nintzen eta harrerako langileak ez daki euskaraz.

Dosierra: 978-2025

Nori: INPOST SPAIN SL

Arrazoa: Barakaldoko Eroski-Bide Oneran dagoen "Inpost" bidalketa enpresaren armairuaren makina ez dago euskaraz, soilik gaztelaniaz eta ingelesez. Gure herrian 30.000 euskaldun inguru gaude, non geratzen dira gure eskubideak?

TELEKOMUNIKAZIO ENPRESAK (14)

Dosierra: 32-2025

Nori: EUSKALTEL S.A. - EUSKARAREN HIZKUNTZ KALITATEA

Arrazoia: Euskaltelek bezeroen arretarako 1717 telefonoa du. Bertara deitu dut intzidentzia baten berri emateko, eta erantzun automatikoak gaztelania hutsez egiten du. Ez du euskarazkoa eskaini ere egiten.

Dosierra: 41-2025

Nori: MAFER TELECOMUNICACIONES SL

Arrazoia: Bilboko gure etxean (Juan de la Cosa 28an), ahots edo audio mezua jarri dute atarian. Honako entzun daiteke atera irekitzean: "puerta abierta, cierre la puerta después de entrar". Administrariarekin hitz egin ondoren, euskaraz ere jarri omen dute, baina ahots baxuagoz eta "ate ireki" baino ez du esaten. Bietan berdin egotea eskatzen dut, eta euskarari lehentasuna emanez.

Dosierra: 159-2025

Nori: GUUK TELECOM, S.A

Arrazoia: Otsailaren 18an telefonoz deitu ziguten, hasieratik erderaz. Titularra ez zegoen etxean eta nik erantzun nuen. "Me imagino que usted es el marido de la titular..." Hasiera mundiala. Nik (neutro): "euskaraz". Deitzaileak: "A, bale, entonces digo a un compañero que le devuelva la llamada"- Gaur arte. GUUK, bai. Merkaturatze kanpainatik hasita "hemengoak gara" (zer izango da "hemengoak"?) eta "zure hizkuntza hitz egiten dugu" bezalako publizitate esaldi-amuak erabiltzen z(d)ituena.

Erantzuna:

Bezeroen Arreta Saila: Euskadin eta Nafarroan zerbitzua ematen duen telekomunikazio-operadore gisa, Guuk-en oso serio hartzen dugu euskararekin eta gure bezeroekin dugun konpromisoa, eta gure zerbitzuei buruzko informazioaren % 100 euskaraz zein gaztelaniaz ematen dugu. GUUKen, gure zerbitzuak kontratatzean pertsona bakoitzak aukeratzen duen lehentasunezko hizkuntzan gauzatzen da gure bezeroekiko komunikazioa. Gertatutakoa aztertzen ari gara, dagozkion neurri zuzentzaileak hartzeko. Kasua aztertu dugu, eta ez dugu

identifikatu idatzian aipatzen denaren antzeko deirik. Horregatik, eskertuko genizuke beste daturen bat bidaltzea, hala nola deitzailearen telefono-zenbakia (deiaren jatorria), helburuko telefonoa edo GUUKen kontratuaren identifikatzailea. Informazio horrekin, kasua aztertzen jarraitu ahal izango dugu, eta, hala, jakingo dugu gure arreta-prozeduran akatsen bat egin ote dugun.

Dosierra: 194-2025

Nori: EUSKALTEL S.A. - EUSKARAREN HIZKUNTZ KALITATEA

Arrazoia: Tolosako Euskaltelen saltokian zenbait kartel gaztelera hutsean daude. Ikusten da EUSKALTEL goitik datozen idatziak bi hizkuntzatan datozela, kartel bat euskaraz eta gaztelera bestea, baina badirudi dendan bertan sortzen diren edukietan ez dutela euskara kontuan hartzen.

Erantzuna:

Bezeroentzako arreta-zerbitzua.: Hasi ginenetik, nahi duten hizkuntzan ematen diegu arreta gure bezeroei. Bai telefonoz, bai fakturan eta bai jasotzen dituzten komunikazioetan, bezeroek erabakitzen dute zein hizkuntzatan jarri nahi duten harremanetan gurekin. Zoritxarrez, helburu hori ez dugu beti ehuneko ehunean betetzen. Argi dago azaldu diguten kasuan ez gurela ondo egin. Honen bidez, adierazi nahi dizugu sailera bidali dugula deskribatzen dituzten egoerak berriro ez errepikatzea saihestu behar dela. Eskerrak eman nahi dizkizugu zure interesagatik; izan ere, akuilu egokia da guretzat hobetzeko eta gure bezeroei gero eta zerbitzu hobea eskaintzeko.

Dosierra: 235-2025

Nori: VODAFONE ESPAÑA Departamento de Atención al Cliente

Arrazoia: Vodafonetik deitu didate (zbkia 602484584). Gazteleraz hasi zaizkit, eta esan diot "sentitzen dut, ez dizut ulertzen". Erantzuna:"ah, no entiendes pero yo no hablo taca-taca".

Erantzuna:

Bezeroen Arreta Zerbitzua: Sentitzen dugu, baina ezin izan dugu zure kasua baliozkotu, ez baitiguzu daturik ematen gertatutakoa identifikatzeko. Guretzat garrantzitsua da gure bezeroen datuen babesa eta segurtasuna. Beraz, zerbitzuaren titularraren IFZ/IFK/AIZ/Pasaportea eta izen osoa adierazi behar dizkizugu. Horrez gain, jakinarazten dizugu kanal honek gaztelaniaz bakarrik

dauden eskaerei erantzuten diela, eta arreta beste hizkuntza batean jaso nahi baduzu, 22123 edo 607123000 arreta-linearekin harremanetan jartzeraz gonbidatzen zaitugu, eta han adieraziko dizkizute zein hizkuntza dauden erabilgarri, aholkulari batekin hitz egin nahi duzunean zure sarrera konfiguratu ahal izateko.

Dosierra: 237-2025

Nori: EUSKALTEL S.A. - EUSKARAREN HIZKUNTZ KALITATEA

Arrazoia: Gaur bi dei izan ditu telefono ezezagun batetik (656941302). Ohartu naizenean, neuk deitu diet, atzo ere deitu baizidaten. Neuk nor naizen esan gabe identifikatu naute. Euskaltelen izenean ari zitzaidala azaldu dit emakume batek, adeitsu. Gazteleraz jarraitzen zuela ikusita, ea euskaraz artatuko ninduten galdetu diot, gazteleraz (hitzez hitz: "Me podría atender en euskara, por favor?"). Erantzuna garbia izan da: "no". Barkamena eskatu diot eten egingo nuela esateko eta halaxe amaitu da solasaldia. Enpresak aukera eman zidanean nirekin harreman-hizkuntza zein izango zen, euskara aukeratu nuen eta halaxe dago jaso nire profilean. Euskaltelek, bere aldetik, honela dio orrialde berean: "Hizkuntzak ez luke oztopo izan behar. Horregatik, aukera daukazu zurekin harremanetan jarri behar dugunean zer hizkuntza erabiltzea nahi duzun esateko". Bere hitza jan ez ezik, nire hizkuntza eskubideak urratu ditu Euskaltelek.

Dosierra: 355-2025

Nori: EUSKALTEL S.A. - EUSKARAREN HIZKUNTZ KALITATEA

Arrazoia: Euskalteli esana diot beraiekin hartu-emana euskaraz izatea nahi dudala, nahiz eta euskaraz hitz egingo ez didan batekin aritu, nik euskaraz hitz egiteko bidea ziurtatzeko eskatu diot. Bada, azken hiru aste hauetan hainbatetan deitu didate eta dei guztietan gaztelaniaz mintzatu zaizkit. Arreta euskaraz nahi dudala esan diodanean, oharra hartu eta euskaraz dakien pertsona batek deituko didala esan didate. Gaur deitu didate berriro, eta aurrekoetan bezala, oraingoa ere gaztelaniaz. Euskaraz jarduteko eskaera egina dudala esan diodanean, haserre esan dit ea ez dudan informazioa gaztelaniaz jaso nahi. Errespetu falta itzela iruditzen zait Euskaltelen aldetik. Nire hizkuntza hautua errespetatzeko eskatzen diot.

Dosierra: 371-2025

Nori: EUSKALTEL S.A. - EUSKARAREN HIZKUNTZ KALITATEA

Arrazoia: Dei galdu bat neukan 946560190 telefono zenbakitik. Deitu dut eta telefonoa hartu didanak gaztelaniaz hitz egin dit. Arreta euskaraz nahi dudala esan diot eta, orduan berriro deituko didatela esan dit. Berriro deitu didatenean gaztelaniaz zuzendu zaizkit eta arreta euskaraz nahi dudala esan diodanean eskegi egin dit.

Dosierra: 418-2025

Nori: EUSKALTEL S.A. - EUSKARAREN HIZKUNTZ KALITATEA

Arrazoia: Euskaltelera deitu eta baja bat emateko, bajaren lokuzioa gazteleraz irakurtzera derrigortuta daudela esan dute eta, halabeharrez, hala egin behar izan dut.

Dosierra: 555-2025

Nori: EUSKALTEL S.A. - EUSKARAREN HIZKUNTZ KALITATEA

Arrazoia: Bizpahiru aldiz deitu dut azkeneko egun hauetan Euskaltelera. Arreta euskaraz eskatu eta, momentu horretan posible ez zela esanda, deituko didatela adierazi zidaten. Oraindik zain nago. Bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan berdintasunez eskaini beharko lukete arreta. Zenbatgarren mailako herritarrak gara?

Dosierra: 769-2025

Nori: EUSKALTEL S.A. - EUSKARAREN HIZKUNTZ KALITATEA

Arrazoia: 1. Gaur, 2025ko urriaren 14an 16:02tan mugikorrean jaso dugun mezua ADI! Oso GARRANTZITSUA da zurekin harremanetan jartzea. Zuntz-sarea modernizatu dugu, baina zu falta zara! Sartu hemen > <https://ekts.org/s/dZaSM2> zure ekipoak doan berritzeko eta Zuntza MAX berria eskuratzeko. Bestela, Euskaltelekin dituzun zerbitzuek funtzionatzeari utziko diote. Eskerrik asko. 2. 1717ra deitu dut 21:20 inguruan -mezua jaso gurela ohartu naizenean- eta: 2.1 Euskaltelek berriaz bidalitako mezua ote zen berresteko eskatu dut eta hala dela berretsi dit bestaldekoak. Ni euskaraz ari nintzen, bera gaztelaniaz. 2.2 Arazoa azaldu dut: enpresa instalatzaileak (zeinak gaztelaniaz egin izan didan, "kanpokoak" direla argudiatuz, Euskaltel gisa aurkeztu ostean eta nik

“Euskaltelekoa bazara zergatik ez zatzaizkit zerbitzua euskaraz ematen ari?” aurpegiatu diodanean, “kanpoko enpresa gara” argudiatu didate) bitan deitu dit, eta nik etortzeko esan diet, baina “etxeko instalakuntzetarako sarrera beharko dugu” gaineratzean, hori ezin dudala orain egin erantzun diet, eta mesedez, giltzak eskatu ditzakedanean deitzeko berriz. Hitzordua azaroan emateko eskatu diedanean “ezinezkoa da, hitzorduak bi astetarako gehienez eman ditzakegu” erantzun didate eta hala, ezin izan dut hitzordurik adostu haiekin. 1717an zegoen telefonoz bestaldekoak esan dit orduan, gaztelaniaz, “ez dizut ondo ulertu zer esan nahi izan duzun”. Berriz azaldu diot, laburrago, eta orduan berak, “euskaraz ez dakit horren ondo diozuna jarraitzeko, gaztelaniaz azal diezadakezu?”. Nik orduan: “euskaraz jarraitu nahiko nuke”. Berak orduan: “euskaraz egiten duena okupatua egongo zen eta horregatik bideratu didate niri deia”. Nik orduan: “ba bihar goizean deituko dut eta euskaraz azalduko dut arazoa zein den”. Guzti hau idatziz ekarrita, salaketa egin nahi dut: ezin izan dudala nire zalantza euskaraz argitu ahal izan. Euskaltelek argudiatuko du ea bezero izanik EUSKARA dudana hautatua, eta hala egingo duela aurreikusiz, bai, euskara dut.

Dosierra: 926-2025

Nori: EUSKALTEL S.A. - EUSKARAREN HIZKUNTZA KALITATEA

Arrazoiak: Zuntz optikoa hobetzeko eskaintza bat egin zidan Euskaltelek azaroan. Ondotik 1717 telefonora deitu nuen ea eskaintzak fakturan gorabeheraren bat izango nuen galdetuz. Telefonoz bestaldekoa gaztelaniaz mintzatu zenez, arreta euskaraz jaso nahi nuela adierazi nion. Hori horrela, deituko zidatela jakinarazi zidan. Deirik jasotzen ez nuenez, watshap pare bat idatzi nizkien eta hauen erantzunaren arrastorik ez. Orduan eposta bidez jarri nintzen harremanetan Euskaltelekin eta eposta helbide hori ez zegoela erabilgarri erantzun zidaten. Berritoki watshapez idatzi eta mutua, erantzunik ez. Azkenean auzoko Euskaltelen dendara joan nintzen eta han telefonoak saldu baino ez zituztela egiten eta 1717ra deitzeko aholkatu zidaten. Zer egin behar da Euskaltelekin idatzizko zein ahozko harremanak euskaraz jasotzeko? Hilabete pasa zuekin harremanetan jarri nahi dudala eta ez dut lortu. 1717 telefonora deitzen dudanean eta arreta euskaraz jaso nahi dudala eskatu, akabo! moztu egiten da edo itxaroteko esaten didate... Eta gaur arte. Euskalduna naiz, Euskal Herrian gaude. Askok eskatzen al dut? Harreman guztiak, bai idatziz bai telefonoz euskaraz nahi ditut.

Dosierra: 942-2025

Nori: TELEFONICA - Bilbo-

Arrazoiak: TELEFONICA dendara (Hurtado Amezaga kalea), kontsulta bat egitera joan nintzenean harrerakoa euskalduna, baina, mahaikoak esaterakoan EUSKERAZ nahi nuela, bere erantzuna "ni se el euskera, ni lo quiero saber"..., erantzun zidan. Eta dendan bertan dagoen propaganda dana ERDERA HUTSEZ

Dosierra: 962-2025

Nori: SAMSUNG ELECTRONICS IBERIA - ESPAÑA

Arrazoiak: Bilboko El Corte Inglesen barruan aurkitzen den Samsungeko bezeroentzako arreta zerbitzuak dena du gaztelera bakarrik. Txanda hartzeko pantailak ere, adibidez, gaztelera edo ingelera hautatu daiteke. Euskaraz ezer ez.

BESTERIK (9)

Dosierra: 26-2025

Nori: BIHAR - L'ORGANISME D'ÉCO-FORMATION DU PAYS BASQUE

Arrazoa: "Bihar" formakuntza institutuak webguneko informazio guztia frantses hutsean eskaintzen du, formazioak ere ez dira euskaraz.

Dosierra: 95-2025

Nori: CANTERAS SISTIAGA

Arrazoa: Loiolako Gozarte etxetik gorantz doan bidean, harrobia baino lehenxeago, gaztelania hutsez ageri dira bi seinale: "Salida de camiones" eta "Atención-peligro voladuras". Udalarekin harremanetan jarri gara, eta adierazi digute ez dela beren ardura bide hori. Aldundiak edo Guardia Zibilak jarritako kartelak izan daitezkeela esan digute.

Dosierra: 129-2025

Nori: CENTRO DE INVESTIGACION COOPERATIVA EN BIOCENCIAS (CIC bioGUNE)

Arrazoa: Bizkaiko CIC BioGUNE lan egiten dut eta enpresatik jasotzen ditugun eposta guztietan euskaraz ez du batere lekuri. Enpresa honek diru publikoaren finantzazioa ere badu (Eusko Jaurlaritza eta Bizkaiko Foru Aldundia) eta, gainera, bertakoa da. Errespetu gutxikoa iruditzen zait enpresak langileei bidaltzen dizkien mezuetan soilik ingelesa eta gaztelania erabiltzea. Ulertzen dut langileen arteko komunikazioa eurek nahi duten hizkuntzan egin ahal izatea, baina enpresa mezuetan euskera ere erabili beharko litzateke. Duela gutxi "Sagardogune" izeneko ekitaldi baten mezua iritsi zitzaigun. Ekimenaren ardatzetako bat euskal kultura bultzatzea zen, baina, mezua soilik ingelesez eta gaztelaniaz jaso genuen... Ezin sinetsi gelditu nintzen....

Dosierra: 136-2025

Nori: BRUNITE PINARES SL

Arrazoa: BEC! antolatutako "Feria Outlet Bilbao" dala eta, erabilitako iragarki zein bitarteko guztiak, fisikoak zein digitalak, gaztelaraz bakarrik.

Dosierra: 301-2025

Nori: BILBOKO SANTIAGO KATEDRALA

Arrazoa: Gaur goizean, 13.00ak aldera, Santiagoko Katedralera sartu naiz lagun batekin, bertara sartzeko ordaindu behar genuenaz galdezka. Bertan zeuden bi langileetatik batek ere ez zekien euskaraz. Gainera, haietako bat bereiziki desatsegina izan da nik ia langileen artean inork euskaraz ez ote zekien galdetu dudanean. Kokoteraino nago leku turistikoetako langileek munduko herri zapaltzaileen hizkuntzak ezagutzeaz, gure herriko hizkuntza propioa ezagutzen ez duten bitartean.

Dosierra: 436-2025

Nori: ONDARROAKO PORTUKO ALTURAKO ARRANTZAKO EKOIZLEEN ERAKUNDEA - Organización: Productores Pesca Altura Puerto del Puerto de Ondárroa (OPPAO)

Arrazoa: Gaur OPPAO-k antolatuta (Ondarroako Portuko Alturako Arrantzako Ekoizleen Erakundea), lehorratzeko betebeharrari buruzko jardunaldi teknikoa egin da. Jardunaldiko kartelak eta euskarri guztiak gaztelania hutsean jarri dituzte (Eusko Jaurlaritzaen zigilu ta guzti).Instagramen azalpen testuak elebitan jarri dituzten arren, kartelak gaztelaniaz eta erakundearen webgunea zein bertan agertzen zen programa ere gaztelaniaz daude. Horrelako erakunde batek euskararen presentzia hobe zaindu eta bermatu beharko luke. Bertan parte hartu dute besteak beste Eusko Jaurlaritza Sailburuorde eta zuzendariak eta Ondarruko alkateak ere, beraz erakunde publikoen babesa izan du. Kanpoko erakunde edo enpresen presentzia izateak ez luke behar gure hizkuntza zokoratzeko aitzakia.

Dosierra: 561-2025

Nori: BCBL - BASQUE CENTER ON COGNITION BRAIN ADN LANGUAGE

Arrazoa: mezu bat jaso dut BCBL ikerketa zentrotik garatzen ari den ikerketa batean parte hartzeko gonbita eginez. Interesgarria iruditzen zait ikusmen gabezia sakon aztertzea zientziaren arlo desberdinetatik. Beraz, niri dagokidanez, probak egiteko prest nagoela adierazi diet. Probak euskaraz ere egin ahal izango diran eta, baita ere, ikerketen emaitzak plazaratutakoan eskuratzeko zein aukera egongo den galdetu diet. Erantzun didatenez probak erderaz dira eta ez dago euskaraz egiteko aukerarik, partaide guztiek estimulu berberak erabili behar dituztelako eta zenbait partaidek euskaraz ez dakitelako. Bestalde, ikerketaren emaitzak plazaratzea

lortzen badute (ez baita beti posible) partaideei bidaliko zaie emaitzen berri. Ezin ulertua eragiten dit Euskal Herrian euskal herritar batek proba batzuk euskaraz ezin egin ahal izatea, ezin dut konprenitu nola ez den euskara beste hizkuntzak bezain pertinentea zientzian erabiltzeko.

Erantzunak:

BCBL: Kexaren xede den ikerketaren kasuan, parte hartzen duten pertsona guztiek hizkuntza-estimulu berak jaso behar dituzte. Horietako batzuek euskaraz ulertzen ez dutenez, ezinbestekoa izan da hizkuntza bakarra erabiltzea esperimentuaren baldintza zientifikoak bete ahal izateko. Oraingoan, gaztelania izan da aukeratutako hizkuntza. Horrek ez du esan nahi euskarak gure jardunean garrantzirik ez duenik. Alderantziz, ahal den guztietan ikerketak euskaraz garatzeko moduak bilatzen ditugu, eta azken urteetan hainbat azterketa egin ditugu euskaraz. Hala ere, diseinu esperimental jakin batzuek mugak dituzte, eta muga horiek, kasu honetan, metodologikoki eragotzi dute proba euskaraz eskaintzea. Bestalde, parte hartzen duten pertsona guztiei ikerketaren emaitzen berri emateko konpromiso irmoa mantentzen dugu, betiere emaitza horiek zientifikoki argitaratzen badira. Eskertzen dugu helarazi digun iradokizuna, eta lanean jarraituko dugu gure ikerketetan euskararen presentzia indartzeko, betiere zorroztasun zientifikoarekin bateragarria bada.

Ekonomia eta Proiektu Estrategikoetako Departamentua: Foru erakunde honek, jasotako eskaera aintzat hartuta, nabarmendu nahi du departamentuarentzat euskara lehentasunezko ardatz estrategikoa dela, eta haren sustapena zein erabileraren bermea gure jardura instituzionalaren zutabe nagusietako bat direla. Konpromiso horrek gidatzen du gure egiteko modua, eta, horrenbestez, gure partaidetzapean dauden erakundeei ere hizkuntza ofizialen erabileran erantzukizunez eta begirunez jardutea eskatzen diegu. Edonola ere, kasu zehatz honetan, BCBL zentroak azaldu bezala, azterketa gaztelaniaz soilik egin izanaren arrazoa irizpide metodologiko eta zientifikoetan oinarritu da. Horrenbestez, erabaki hori ez da inolaz ere euskararekiko konpromiso eskasaren ondorio, baizik eta ikerketa-prozesuaren fidagarritasun zientifikoa bermatzeko beharraren emaitza. Adieraziko diogu, dena den, BCBLri, bizi garen lurraldeko bi hizkuntzetan ikerketak egitea hobesten dugula eta hurrengorako kontuan hartzea eskertuko genukeela.

Dosierra: 783-2025

Nori: AZTI FUNDAZIOA

Arrazoa: Gaur AZTIk Aldaketarako Marea ekimenaren baitan ateak ireki ditu. Bertan, nire kasuan behintzat, egon diren 5 aurkezpenak gaztelania hutsean izan dira. Aipatu behar da hasieran elebidun izaten saiatu diren arren, inertiarengatik, bisita gidatua gaztelania hutsean izatera pasa dela. Hori euskaraz zekien eta ez zekien publikoa nahasteagatik izan da. Etorkizunera begira, hizkuntzen kudeaketa egokia egiteko, komenigarria izango litzateke taldeak hizkuntzaren arabera banatzea, edota ordu jakin bakoitzean bisita gidatua hizkuntza batean izatea. Bestetik, positiboa umeei ziren jarduerak euskaraz izan direla.

Erantzunak:

Komunikazio arduraduna: Eskerrik asko zure mezua bidaltzeagatik eta gure jardueretan euskararen erabilerarekiko erakutsitako arretagatik. Euskararen normalizazioarekin konprometituta gauden heinean, ulertzen eta partekatzen dugu herritar honek helarazitako kezka. Egia da, oraingoan, ate irekien jardunaldietan egindako bisita batzuk soilik gaztelaniaz egin zirela. Zoritxarrez, jendeari harrera egiten aritu ziren pertsona askok ez dute euskaraz hitz egiteko gaitasunik. Ekitaldia larunbatean izan zenez, eta parte hartu zuen ikertzaile-taldearen parte-hartzea guztiz boluntarioa izan zenez, ez genuen izan aukera talde guztietan euskaldun nahikorik bermatzeko. Hala ere, gure esku zegoen guztian ahalegin handia egin genuen ekitaldiaren izaera elebiduna mantentzeko: . Bideoak guztiz elebidunak izan ziren. . Hasierako harrera, egin ahal izan genuen kasuetan (jendearen kopuru handiak aurreikuspenak gaingitu baitzituen eta eskuetatik apur bat joan zitzaigun), euskaraz eta gaztelaniaz eskaini genuen. . Talde txikiagotan, ikusita parte-hartzaileak euskaldunak zirela, lankide batzuek azalpena euskaraz eman zuten osorik. . Barruan egon ziren kartelak ele bietan prestatu genituen. Ez gara jendaurreko ekitaldi irekiak antolatzen trebatutako profesionalak, eta, nahiz eta ahalegin handia egin, badakigu badaudela hobetu beharreko alderdiak. Zinez sentitzen dugu norbait egoerarekin deseroso edo haserre sentitu bazen —pozik entzungo genuen momentuan jakinarazi izan baligute, berehala konpontzen saiatuko baikinake— . Gure barkamena eskatzen diogu. Iruzkina kontuan hartzen dugu, eta hurrengo edizioak antolatzerakoan denboraz eta hobeto planifikatzeko konpromisoa hartzen dugu, euskararen erabilera jardura guztietan bermatu ahal

izateko. Eskerrik asko berriro zure mezua bidaltzeagatik; guretzat aukera bat da hobetzen jarraitzeko.

Dosierra: 967-2025

Nori: LOTERIAS PATXI BERMEO

Arrazoia: Administrazioaren web gunean ezin da euskaraz erabili. Gazteleraz eta ingeleraz bakarrik. <https://www.loteriapatxibermeo.es/>

ZORIONTZEAK
ETA ESKER
ONAK



3

Zoriontzeak (46)

Dosierra: 11-2025

Nori: HOBEA ARRAUTZAK

Arrazoa: Produktua erosteagatik, euskaraz zoriontzen zaitu.

Dosierra: 16-2025

Nori: ALIMENTACIÓN ZORTZI

Arrazoa: Zortzi fruta-dendan egon naiz gaur eta euskaraz artatu naute.

Dosierra: 23-2025

Nori: XIXTROAK SAS

Arrazoa: Xixtroak etxaldean kolektiboa zoriondu nahi nuke haien webgunea (www.xixtroak.com) euskaraz ere ukaiteagatik eta bezeroekiko harreta ere euskaraz eskaintzeagatik.

Dosierra: 46-2025

Nori: AIALDE BERRI SAGARDOTEGIA

Arrazoa: Aialde Berri sagardotegian egon gara eta euskaraz artatu gaituzte.

Dosierra: 47-2025

Nori: ADONA - Nafarroako odol emaileen elkarte

Arrazoa: ADONA Nafarroako Odol Emaileen elkarte zoriondu nahi dut. Eskerrak eman nahi dizkiot publizitatea euskaraz (ere) egiteagatik.

Dosierra: 52-2025

Nori: TODOLUFE SL

Arrazoa: Gure etxe berria janzteko lanetan ibili gara eta Aizarnazabalgo Muebles Lufera deitu dugu behin baino gehiagotan. Guztietan izan dugu euskaraz jarduteko aukera, nahiz eta hasiera batean arreta eskaini digun langilea euskalduna ez izan berehala eskaini digu euskaraz artatuko gaituen kidearekin harremanetan jartzea. Eskerrak eman nahi dizkiogu beren jarreragatik. Horrekin batera, baina, web orria gaztelaniaz baino ez dute <https://muebleslufe.com/>. Bertan informazioa euskaraz jasotzeko aukera eskaintzea eskatu nahi diet.

Dosierra: 115-2025

Nori: FATI TABERNA

Arrazoa: Zestoako Fati tabernan egon gara eta Euskaraz artatu gaituzte. Karta euskaraz ere badago.

Erantzuna:

Arduraduna: Zure zorion-eskutitza jaso dugu eta honen bidez gure esker ona helarazi nahi dizugu. Guretzat egunerokoa eta naturala dela euskaraz mintzatzea, gure ama hizkuntza baita. Ez digu inongo esfortzurik eskatzen. Geu izaten gara lehenak euskaraz hitz egitea nahi izaten dugunak. Zestoako edozein taberna, denda edo zerbitzutan arreta bera jasoko duzu, EUSKARAZkoa. Eskerrik asko!!!

Dosierra: 118-2025

Nori: MAÑEKO S.Coop

Arrazoa: Zestoako Mañeko okindegian egon gara eta euskaraz artatu gaituzte.

Dosierra: 169-2025

Nori: TRANSGOURMET IBERICA SA

Arrazoa: Honako mezu honen bitartez Transgourmet etxea zoriontzeko eskatzen dizuet; izan ere, Durangoko taberna batean darabiltzaten azukre-zorroetan euskaldun herritarrok kontuan hartzen gaituztelako atsegina sentitu dut. Zorrotxoak Transgourmet Ibéricarenak dira eta idatzi guztiak ageri ditu gaztelaniaz, katalanez eta euskaraz. Milesker!

Dosierra: 172-2025

Nori: JAUREGI BORDA HOTEL RURALA

Arrazoa: Euskaraz artatu gaituzte Jauregi Borda Hoteleko tabernan.

Dosierra: 174-2025

Nori: MENDI OSTATUA

Arrazoa: Elizondoko Mendi taberna zoriondu nahi dut euskaraz artatu gaituztelako. Karta ere euskaraz kontsultatzeko moduan paratzeko eskatzen diet.

Dosierra: 200-2025

Nori: CICLOS OLABARRIETA

Arrazoia: Ciclos Olabarrietako bi langileak euskaldunak dira. Zoriondu nahi ditut horrek euren lan bikainari balio erantsia ematen diolako.

Dosierra: 246-2025

Nori: ZURE ZIUR SL

Arrazoia: Zorionak Zornotzako Zure Ziur tailerrari, langile guztiek euskaraz erantzuteagatik.

Dosierra: 253-2025

Nori: MAIRA KAFETEGIA JATETXEA

Arrazoia: Gaur Iruñeko Maira kafetegian egon naiz eta euskaraz artatu naute.

Dosierra: 278-2025

Nori: INTERMARCHE Hendaia

Arrazoia: Hendaiaiko Intermarché-n, erosketen ordainketa euskaraz egiteko aukera izan dut kutxazain euskaldun batekin.

Dosierra: 293-2025

Nori: ASTEASUARRA TABERANA

Arrazoia: Tolosako Asteasuarrak tabernak lehendabizikoz afaltzeko menua euskaraz jarri du.

Dosierra: 323-2025

Nori: KASINO TABERNA

Arrazoia: Añorbeko Kasino tabernan egon naiz eta euskaraz artatu naute.

Dosierra: 354-2025

Nori: BAR ALAMEDA TABERNA

Arrazoia: Indautxuko Alameda tabernara joan naiz. Langile bakarra dutela uste dut, eta euskalduna da. Eskertu egiten da euskararen oasi bat egotea gaztelaniaren basamortuan. Hemendik aurrerako kafeak, hor.

Dosierra: 377-2025

Nori: VIVA GYM (GYM IBERIA S.L.U.)

Arrazoia: Gasteizko San Prudentzio kaleko VivaGym gimnasioa iragartzen duen horman, euskara lehenesten duen irudi handi bat dago. Testua perfektua ez den arren, zoriontzekoa iruditzen zait publizitatean bertako hizkuntza aintzat hartzen duen enpresaren erabakia. Txalo bat haientzat.

Dosierra: 393-2025

Nori: VIVA GYM (GYM IBERIA S.L.U.)

Arrazoia: VIVA GYM gimnasioko paisaia linguistikoa euskaraz jartzea pozgarria iruditu zait. Zoriontzeko moduko ekimena iruditu zait.

Dosierra: 395-2025

Nori: VIVA GYM (GYM IBERIA S.L.U.)

Arrazoia: Gasteizko VIVA GYM gimnasio ireki berrietan (bi daude) kartel eta mezu guztiak euskaraz jarri dituzte eta presentzia izugarria du txoko guztietan. Zoriontzekoa.

Dosierra: 397-2025

Nori: VIVA GYM (GYM IBERIA S.L.U.)

Arrazoia: VIVA GYM gimnasioko paisaia linguistikoa euskararen mesedetan, asko zaindu dute. Zoriontzeko da euskararen alde egindako ahalegina. Bezero naizen neurrian, asko poztu nau euskararen trataerak.

Dosierra: 573-2025

Nori: SANTIAGO NIETO PODOLOGOIA

Arrazoia: Oso zaila da Barakaldo bezalako herrietan zerbitzua euskaraz (ere) ematen duten enpresa edo erakunde pribatuak topatzea. Esan beharrik ez, geuk euskaldunok ere saiatu behar dugu konplexurik gabe eskatzen! Eredu bat nabarmenduko dut oraingoan alor horretan: -Aste honetan bertan SANTIAGO NIETO KLINIKA PODOLOGIKOAn eman didaten arreta serio eta profesionala. Horrelako enpresek jende gehiago zoriontsuago bizitzen laguntzen dute. Nire esker ona helaraztea nahi diet!!!

Dosierra: 577-2025

Nori: FISYOS GARNACHO KLINIKA

Arrazoaia: Oso zaila da Barakaldo bezalako herrietan zerbitzua euskaraz (ere) ematen duten enpresa edo erakunde pribatuak topatzea. Esan beharrik ez, geuk euskaldunok ere saiatsu behar dugu konplexurik gabe eskatzen! Eredu bat nabarmenduko dut oraingoan alor horretan: -Aspalditik zerbitzu bikaina euskaraz ere ematen duen FISYOS GARNACHO FISIOTERAPIA KLINIKA (webgunea bera euskaraz dute!) Horrelako enpresek jende gehiago zoriontsuago bizitzen laguntzen dute. Nire esker ona helaraztea nahi diet!!!

Dosierra: 595-2025

Nori: LEPANTO TABERNA

Arrazoaia: Lepanto tabernan, Bilbon, Egilior plazan, kamarero guztiak euskaldunak, arreta euskaraz ziurtatzen dute. Eskerrik asko.

Dosierra: 613-2025

Nori: KNEECAP MUSIKA TALDEA

Arrazoaia: Euskaldunon esker ona helarazi nahi diot Kneecap talde irlandarrari. Agertu berri zait taldearen iragarki euskara hutsezkoa Facebooken: <https://www.facebook.com/share/v/1B1d1N9qvC/> Bejondeiela!

Dosierra: 618-2025

Nori: ADARA ILEAPAINDEGIA

Arrazoaia: Iruñeko Adara ileapaindegian euskaraz artatu gaitu ileapantzaileak.

Dosierra: 627-2025

Nori: KITXO PIZZERIA - Orio -

Arrazoaia: Orioko Kitxo pizzerian euskaraz artatu naute.

Dosierra: 632-2025

Nori: BOGA-BOGA TABERNA -ORIO-

Arrazoaia: Orioko Boba boga tabernan euskaraz artatu gaituzte. Karta ere euskaraz dago.

Dosierra: 635-2025

Nori: AKTING INGENIERITZA SL

Arrazoaia: Bibe.me sarreraren salerosketarako atariari eta Akting Ingeniaritza enpresari, webgunea eta arreta euskaraz eskaintzeagatik.

Dosierra: 676-2025

Nori: IKATZ OKINDEGIA GOZOTEGIA

Arrazoaia: Donostiako Narrika kalean dagoen Ikatz okindegian euskaldunok behar bezela artatzen gaituzte. Bertako jabea, belarriprest da eta euskaraz egiten saiatzen da. Gainera, produktuen izenak elebitan edo euskara hutsez daude. Auzoa eta hizkuntza zaintzen jarraitzea animatu nahi dugu. Eskerrik asko!

Dosierra: 714-2025

Nori: LA TAHONA - DONOSTIA (Altza) -

Arrazoaia: Altzako La Tahona gozotegian langileak euskaraz artatzeko ahalegina egin du, ikasten ari dela adierazita.

Dosierra: 757-2025

Nori: ASTELENA JATETXEA

Arrazoaia: Donostiako Astelena Jatetxean bazkaldu genuen uztailaren 17an. Sarreran guk euskaraz agurtu eta harrera halaxe egin ziguten, euskaraz. Ondoren, jada mahaian, oso profesionala eta atsegina izan zen zerbitzariarekin harreman osoa euskaraz egin ahal izan genuen, lasaitasun eta naturaltasun osoz. Eta horrek asko balio du, tarte atsegin bat igaro asmoz halako jatetxe batera bazkaltzera zoazenean euskaldun izateagatik estres linguistikoa jasan behar ez izatea eta lasai gozatuz bazkaldu ahal izatea, asko balio du! Alde horretatik zoriontzekoa da Astelena jatetxea, espero dugu bide beretik jarraitzea! Eta, horrekin batera, web-orria euskaraz irakurtzeko moduan jarriko balu, borobila!

Dosierra: 793-2025

Nori: PAYVI TABERNA

Arrazoaia: Iruñeko Payvi tabernan euskaraz artatu naute. Hamaiketakoan karta euskaraz dago ere.

Dosierra: 796-2025

Nori: LA TAHONA - IRUÑEA -

Arrazoaia: Iruñeko Santa Luzia paseoko La Tahonan, euskaraz eskatu dut. Langileak ez daki euskaraz baina erran dit ulertzen duela.

Dosierra: 826-2025

Nori: GARAI BREWING

Arrazoaia: "Garai" garagardo eta kontserba ekoizleak zoriondu nahi ditut, etiketak guztiz euskaraz jartzeagatik.

Dosierra: 861-2025

Nori: KIZKURRA GASTROBAR

Arrazoaia: Berribeiteko Kizkurra tabernan euskaraz artatu naute.

Dosierra: 877-2025

Nori: ESTEPAKO POLBOROIAK (J.J. Robles Borrego S.L.)

Arrazoaia: Honako mezu honen bitartez eskatzen dizuet zoriortzeko edota eskertzeko Estepako (Sevilla) El Patriarca etxea (J.L. Robles Borrego, S.L.). Izan ere, lankide bati erosi dizkiot polboroiak (gaztetxoen ikasbidaia baterako edo) eta kutxak euskaldunok hartzen gaitu kontuan, idatziak euskaraz baitakartza.

Dosierra: 880-2025

Nori: CGT-LKN Nafarroa

Arrazoaia: Nafarroako CGT sindikatua zoriondu nahi dut Iruñean azaroaren 25aren harira jarritako kartel hau euskara hutsean jartzeagatik. Eskerrik asko euskararen alde ekitatez jarduteagatik.

Dosierra: 883-2025

Nori: LA VINOTEKA DE LOREN

Arrazoaia: Barakaldon denda zabaldu zutenetik: arreta bikaina, euskaraz ere bai! Jabea eta langilea, atseginak eta adituak. Kanpoko erakusleihoetan, posible zaienean, euskara ere ikusgarri.

Dosierra: 899-2025

Nori: JUANARENA ESTANKOA

Arrazoaia: Mendillorriko Juanarena estankoan euskaraz artatu naute.

Dosierra: 911-2025

Nori: KRACK ZAPATERIAS SL

Arrazoaia: Atzo Iruñeko Karlos III. etorbideko Krack zapata-dendan egon nintzen eta euskaraz artatu ninduten.

Dosierra: 920-2025

Nori: JAZMINOS JATETXEA

Arrazoaia: Bilboko Jazminos jatetxeak webgunea euskaraz ere badu: <https://jazminos.com/eu/> Eskertzekoa eta txalotzekoa keinu hori egin izana.

Dosierra: 961-2025

Nori: BIZCOCHOS NOEL - GALLETAS JESÚS ANGULO ORTEGA S.L

Arrazoaia: Lermako (Burgos) Noel bizkotxoen etiketetan informazioa euskaraz dago.

Dosierra: 965-2025

Nori: KAFE BOTANIKAK

Arrazoaia: Donostiako Botanika jatetxean euskaraz artatu gintuzten eta horregatik zoriondu nahi ditugu. Dena den, webean informazio osoa espainolez dute eta euskaraz jartzera animatu nahi ditugu, euskaldunok informazioa euskaraz jaso dezagun.

Dosierra: 981-2025

Nori: ASADOR DONIBANE ERRETEGIA

Arrazoaia: Eskerrak eman nahi dizkiot bazkaltzen genuen bitartean Barakaldoko Donibane erretegian artatu gintuen mutil gazteari. Ez zekien euskaraz baina ahalegin handiak egin zituen euskara ulertzeko eta hitz batzuk ikasteko. Mila esker, primerako zerbitzaria zara!.

Esker onak (23)

Dosierra: 3-2025

Nori: GARESKO UDALA - TURISMO BULEGOA

Arrazoa: Garesko Turismo Bulegoan izan ginen eta euskaraz artatu gintuzten, eta emandako eskuorriak euskaraz edo euskaraz eta espainieraz zeuden. Zorionak eta bide horretan segi dezatela, euskaraz artatuz eta informazioa eman.

Dosierra: 109-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - EKAIN FUNDAZIOA

Arrazoa: Euskaraz artatu gaituzte eta euskaraz izan da bisita gidatua eta tailertxo.

Dosierra: 167-2025

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - OSASUNBIDEA - ALDE ZAHARREKO OSASUN ZENTROA

Arrazoa: Iruñeko Alde Zaharreko osasun-etxeko psikologoak arreta euskaraz ematen du nahi izanez gero. Atean karteltxo batekin adierazita dauka. Benetan eskertzekoa da!

Dosierra: 178-2025

Nori: GENERALITAT DE CATALUNYA - DEPARTAMENT d'INTERIOR - KATALUNIAKO GENERALITATEA, HERRIZAINGO SAILA

Arrazoa: Kataluniako Generalitatearen 112 zerbitzuak euskarazko arreta eskaintzea jaso zuen kontratazio-pleguetan.

Dosierra: 226-2025

Nori: IRUÑEKO UDALA - GAIARRE ANTZOKIA UDAL FUNDAZIOA

Arrazoa: Gayarre antzokian La Pamploñesaren kontzertuko programa euskaraz ere idatzi dute, oso modu egokian eta ulergarria.

Dosierra: 266-2025

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - OSASUNBIDEA - HERRITARREN HARRERARAKO ETA ARRETARAKO ZERBITZUA

Arrazoa: Oraingoan sentazio positiboa emateko idazten dut. Bitan izan naiz Osasunbideako traumatologian, bata helduenean (hitzordua eta xehetasunak ez ditut gordeta eta ez ditut gogoratzen), bestea haurren sailean alabarekin, apirilaren 2an, 10:10ean Bianako printzeraren osasun etxean (002 kontsulta). Bietan izan dugu traumatologoarekin euskaraz komunikatzeko aukera. Gaineratu nahi dut, haur traumatologoa izan zela lehenengo hitza euskaraz egin zuena, Badakigu erreakzio hori ez dela sistemak eragindakoa, baina bada herritarron partetik konpromisoa behintzat eta hori, paziente gisa goazenean eskertzen da. Finkotasuna izan bezate biek ere.

Dosierra: 567-2025

Nori: ZUGARRAMURDIKO UDALA

Arrazoa: Zugarramurdiko Herriko Etxeak herriko errotulazioa erdara hutsetik eskuara hutserat aldatu du.

Dosierra: 610-2025

Nori: NUKF - NAFARROAKO UDAL ETA KONTZEJUEN FEDERAZIOA

Arrazoa: NUKF zoriondu nahi nuke lehen aldiz hautetsiei begirako berdintasunari buruzko online ikastaroak euskaraz ere eskaintzeagatik. <https://www.fnmc.es/eu/eventos/hautetsiei-zuzenduriko-berdintasun-arloko-ikastaroak-euskaraz/> Zoriontzarekin batera, bere ikastaro eskaintza iraunkorrean euskarari tokia egiten jarrai dezan eskatu nahi diot, urratsak eman ditzan toki-entitateetako langileon trebakuntza euskaraz jasotzeko eskubidea bermatzeko.

Dosierra: 656-2025

Nori: AINHOAKO HERRIKO ETXEA - TURISMO BULEGOA -

Arrazoa: Abuztuaren 8an Ainhoako turismo bulegoan izan ginen eta informazioa euskaraz jaso genuen. Era berean, bideoa euskaraz ikusi ahal izan genuen. Horregatik Ainhoako turismo bulegoa zoriontzaren dugu.

Dosierra: 671-2025

Nori: UZTARITZEKO HERRIKO ETXEA

Arrazoa: Uztaritzeko Herriko Etxeak lehentasuna euskarari ematen dio seinaletika publiko honetan eta lan abisu pankarta hauetan. Ez dakit noiztik hori egiten duen baina lehen aldia da hori ikusten dudala Iparraldeko herri batean.

Dosierra: 673-2025

Nori: EUSKAL HIRIGUNE ELKARGOA - EUSKAL ELKARGOKO TURISMO BULEGOA - Mauleko Gaztelua -

Arrazoa: Mauleko Gaztelura joan gara. Sarreran zegoen langileak euskeraz zekien. Bertako informazio-panelak euskeraz eta frantsesez zeuden.

Dosierra: 740-2025

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - OSASUNBIDEA - NAFARROAKO OSPITALE UNIBERTSITARIOKO KUDEATZAILEA

Arrazoa: Nafarroako ospitaleko urgentzietan zenbakia emateko papera euskara hutsez eman didate. Ze plazera!

Dosierra: 859-2025

Nori: GIPUZKOAKO GARRAIOAREN LURRALDE AGINTARITZA - LURRALDEBUS -

Arrazoa: Lurraldebusek euskara hutsean jarri ditu autobusetako gidariaren alboko atetik atera ezin dela adierazten duten karteltxoak.

Dosierra: 873-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - GOIERRI-UROLA GARAİKO ESI

Arrazoa: Azaroaren 12ko arratsaldeko lauetan Zumarragako ospitaleko larrialdietan sartu nintzen eta handik pediatriara, eta plaka bat egitera bideratu gintuzten. Kasu guztietan euskaraz artatu gintuzten, beraz, zorionak Zumarragako ospitaleari. Osasun terminologia erabiltzean euskaraz egiteko animatzen ditut bertako profesionalak, gaisook ere terminologia horretara ohitu gaitezen.

Erantzuna:

Goierrri-Urola Garaiko ESI-ko zuzendari-gerentea: Eskerrak eman nahi dizkizugu gure Larrialdietako profesionalei zuzenduta bidali berri duzun eskertzagatik. Zure hitzak oso baliotsuak dira guretzat, eta gure paziente guztiei kalitatezko arreta emateko konpromisoa indartzen dute.

Dosierra: 928-2025

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - CORREOS - Gerencia de Productos y Servicios (Area Norte - José Pablo García Junco)

Arrazoa: Euskaraz artatu naute Berriozarreko Correos-eko bulegoan (arratsalde).

Dosierra: 37-2025

Nori: MANGO -GARBERA-

Arrazoa: Zorionak eta eskerrak ematea, gaur goizean, urtarrilak 11n, Donostiako Garbera salguneko Mango dendako kutxan lanean ari zen emakume betaurrekodun eta maitasun langileari. Lehendabiziko hitza euskaraz eskaini du (baita ere aurreko bikoteari galdetu txartelik ote zuten, euskaraz). Nik deboluzioa egin eta gero, eskerrak eman dizkiot. Hala ere, zuei ere jakinarazi nahi dizuet.

Dosierra: 187-2025

Nori: AUTOBUSES COOPER CARS

Arrazoa: Eskerrik asko Alex autobus gidariari eta Barakaldoko Cooper Cars enpresari euskarazko zerbitzua eskaintzeagatik. Zuhaitzak landatzera joateko txango bat antolatu genuen eta Alexek euskaraz artatu gintuen momentu guztietan.

Dosierra: 284-2025

Nori: NIKE WELL COLLECTIVE -Donostia-

Arrazoa: Pasa den den ostiralean, Garbera Merkataritza Zentroko Nike dendan, jantzien neurri eta ezaugarriei buruzko gomendioak euskaraz aurkitu genituen. Eskerrak eman nahi dizkiet dendako arduradunei bezero euskaldunak kontuan hartzeagatik.

Dosierra: 328-2025

Nori: IMQ PREVENCIÓN S.L.

Arrazoa: Enpresak eskaintzen digun urteroko azterketa medikoa egin berri dut, IMQ Prevención Bilboko Rekalde Zumarkalean duen lokalean. 6 langilerekin egon naiz eta horietako 4k euskaraz egin didate: harrerako mutilak, odola atera didan emakumeak, erizainak (Maitane) eta medikuak (Paula). Beste bi langileek ere (bista

eta entzumena aztertzen dutenak) euskaraz agurtu naute hasieran eta amaieran. Eta langile euskaldunak egotea bezain aipagarria izan da euskarazko zerbitzuaren eskaintza aktiboa egin didatela; hau da, nik eskatu gabe, zein lanpostu dudan ikusita akaso, txandak eta profesional euskaldunak antolatu dituzte niri euskarazko zerbitzua emateko. Adibidez, erizain eta mediku hori ez dira egoten elkarrekin (haiek esan didate), baina biak euskaldunak direnez, nire azterketa egiteko elkartu dituzte. Gainera, medikua nire fitxa medikoa euskaratzen egon da ordenagailuan. Praktika eredugarria da hori, eta txalotzeko eta zabaltzeko modukoa. Beraz, zorionak eta eskerrik asko, segi horrela!

Dosierra: 700-2025

Nori: MEDIA MARKT - Barakaldo

Arrazoia: Mediamarkt-eko TB saileko neska saltzailea denbora osoan artatu zigun euskaraz. Zoriontzekoa da langilea.

Dosierra: 722-2025

Nori: SOCIEDAD ANÓNIMA DEPORTES Y ESPECTÁCULOS (SADE)

Arrazoia: Azkenik, Donostiako Sade Zinemek webgunea euskaratu dute. Hala ere, <https://sadecines.com/> webgunea gaztelaniaz irekitzen da, eta ES agertzen da goian eskuinean. Honek erabat ikusezina egiten du euskararen aukera. Onena litzateke webgunea zuzenean euskaraz irekitzea, dena den, gaztelaniazko bertsioan, EU jarri beharko luke.

Dosierra: 872-2025

Nori: CARREFOUR SA - BEZEROARENTZAKO ARRETA ZERBITZUA

Arrazoia: Goierriko Carrefour zoriondu nahiko nuke (ez dakit gainerako Carrefour guztientan ere horrela ote den eta) gabonetako jostailuen katalogoko azalean eta kontra azalean informazio guztia elebiz jartzeagatik, lehentasuna euskarari emanda. Ez da ohikoa eta eskertzekoa da. Barruan gaztelaniaz bakarrik agertzen da informazioa, baina gutxienez haurrei zuzendutako horrelako katalogo batean euskarak ere presentzia izatea eskertzen da. Esan bezala zoritxarrez ez da ohikoa.

Erantzuna:

Bezeroarentzako Arreta Zerbitzua: Lehenik eta behin, eskerrik asko gurekin harremanetan jartzeagatik. Zure iritzia eskertzen dugu eta etorkizuneko erosketetarako zerbitzurik onena eskaintzeko lanean jarraitzen dugu.

Dosierra: 980-2025

Nori: YELMO CINES

Arrazoia: Eskerrik asko "Gaua" filma euskaraz jartzeagatik. Euskaldun asko gara pelikulak gure hizkuntzan ikusi nahi ditugunak. Ea hemendik aurrera film gehiago jartzen dituzuen euskaraz, Bilboko Golemen egiten duten bezala. Eskerrik asko!

**IRADOKIZUNAK
ETA
OHARTARAZPENAK**



4

Irakizunak (9)

Dosierra: 18-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - MIMETIZ BHI

Arrazoa: Nire zalantza aurkeztu nahi dizuet: Zallako Mimetiz eskolako kontseiluko aukeratu naute gurasoen partetik. Lehenengo bilera azaldu diet partaideei bilerak euskaraz egin behar direla. D ereduko ikastetxea izanik euskara lehentsi behar dela eta erdera bigarren planoan uztea. Zuzendaritzaren partetik esan didate hori babes juridikorik ez daukala eta azalpenak erderaz egin behar dute ere, dena den kontsultatuko dute. Galdera da ia nire jarrera babes juridikorik duen nahiz eta hori da gutxien inporta zaidana. Zer esanik ez gehiengo euskalduna dela baina pertsona pare bat erdaldunak direla.

Dosierra: 228-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - IES JULIO CARO BAROJA BHI

Arrazoa: J. C. Baroja institututik beheko mezua jaso dugu, ikusten denez goiko testua gaztelaniaz dago eta behekoa euskaraz. Irizpide horrek ez ditu betetzen Eusko Jaurlaritzak dauzkan hizkuntzei buruzko irizpideak, izan ere, Eusko Jaurlaritzaren irizpide horietan esaten da euskarak izan behar duela lehentasun espaziala eta tipografikoa. Gainera, mezuaren izenburua (Salida a Utopian) erdara hutsez etorri zitzaigun. Eskerrik asko zuen laguntzagatik. Puente Vivanco, Maria (2025/03/22 10:43:57) Estimados padres y madres. El profesorado de 1º ESO de la asignatura de Lengua Castellana ha organizado una salida al teatro. La actividad se titula "Despierta, África Mágica" y la realizaremos en Utopian Getxo, que se encuentra en el Polígono Industrial Errotaxu. No se necesita transporte público. El día de la salida es el 25 de marzo a las 9:00. Saldremos sobre las 8:30 y volveremos para las 12:25. Es una actividad gratuita. Les saluda atentamente Profesorado de Lengua Castellana Guraso agurgarriak, 1. DBHko Gaztelania irakasgaiko irakasleek antzerkirako irteera antolatu dute. Jardueraren izenburua "Despierta, África Mágica" da eta Errotaxu industrialdean dagoen Utopian Getxon antzezten da. Ez da garraio publikorik behar. Irteeraren eguna martxoaren 25a da, 9:00etan. 8:30ak aldera irtengo gara eta 12:25erako itzuliko gara. Ez da ezer ordaindu behar. Adeitasunez agurtzen zaituzte Gaztelaniako irakasleak.

Dosierra: 238-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - LARRIALDIEI AURRE EGITEKO ETA METEOROLOGIAKO ZUZENDARITZA -

Arrazoa: Gaurko gobernu-kontseiluan, EJK hainbat erabaki hartu ditu. Besteak beste, hitzarmen bat sinatzea VOST elkartearekin (Euskadiko Boluntario Digitalen Elkarte), "larrialdi-egoerei buruzko informazio ofiziala herritarrei sare sozialen bidez helarazteko". Nola bermatuko du Eusko Jaurlaritzak zerbitzu hori euskaraz duintasunez emango dela (euskara lehenetsiz eta ez itzulpenen bidez), ikusirik elkarte horren webgunea eta sare sozialen erabilera gaztelaniaz egiten dela? Hitzarmenaren xedea komunikazioarekin eta dibulgazioarekin estu-estu lotua dagoenez, are garrantzitsuagoa da euskaraz lan egiten duen zerbitzua izatea.

Erantzuna:

Euskadiko Larrialdiak Koordinatzeko Zentroa: EAEko administrazio orokorrak, Segurtasun Sailaren bidez, eta VOST Euskadi elkarteak (Euskadiko boluntario digitalen elkarteak) sinatu dute duela gutxi larrialdien eta babes zibilaren alorrean lankidetzat hitzarmena. Hitzarmen honen xedea larrialdi-egoeretan sare sozialen bidezko informazioaren erabilera da. VOST Euskadirekin harremanetan jarri gara eta EAEn hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak gogoratu dizkiogu, euskal herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko eta komunikazioetan hizkuntza-berdintasun eraginkorra lortzeko. Hitzarmenak Jarraipen Batzorde Mistoa eratzen du eta, honetan, hitzarmenaren aplikazioa bermatuko da, besteak beste, hizkuntza-irizpideen erabileraren jarraipena egingo da.

Dosierra: 295-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - EITB - ZUZENDARITZA

Arrazoa: EITB Nahieran eta Primeran plataformen hainbat programa ezin ditugu ikusi iparraldetik. Izan ere, dretxo kontuak direla eta, ez dizkigute ikusten uzten (Adib.: Dragoi bola edo futbol partidak). Euskal telebista euskaldun guztion telebista izan behar du eta azken honetan iduritzen zait bigarren mailako herritarrak garela iparraldean. Lagunduko gaituzuelakoan. Ongi segi.

Erantzuna:

Estrategia eta Komunikazio zuzendaria: Ulertzen dugu EITBren ikus-entzuleak ezinezona iparraldetik gure plataformetako eduki batzuetan sartzerik ez

izateagatik. EITBren %100en jabetza diren edukien kasuan, ez dugu mugarik mundu osoan eskuragarri egoteko. Hala ere, eskuratutako edukien kasuan, hala nola Dragoi Bola eta kirol-ekitaldi batzuk, lurralde-mugak ditu, eta horrek eragotzi egiten digu Frantziako estatuan edatzea, eskubide horiek lurralde horietako beste plataforma batzuen esku baitaude. Gure ekoizpen propioko edukiekin katalogo zabalarari eduki berriak gehitzeko lanean ari gara egunez egun, mundu guztiak gure plataformetan gogobetetzeko moduko edukiak aurki ditzan.

Dosierra: 300-2025

Nori: IRUÑEKO UDALA - HERRITARREN PARTAIDETZAKO ALORRA

Arrazoia: Iruñeko Udaleko partaidetzako prestakuntza ikastaroetako arduradunei eskaera luzatu nahi diet lauhilero euskarazko gutxieneko eskaintza bat egon dadin, eta Iruñean partaidetza euskaraz ere indartzeko urratsak ematen jarrai dezagun. Bestetik, prestakuntza eskaintzan ikastaroen hizkuntza ere zehaztu dezaten eskatu nahi diet, bai webgunean eta baita eskuorrietan ere ematen duten informazioarekin batera: Webgunea: <https://participa.pamplona.es/eu/prestakuntza-ikastaroak-2025ko-maiatza-ekaina/> Eskuorria euskaraz: <https://participa.pamplona.es/wp-content/uploads/2025/04/Partaidetza-Prestakuntza-Ikastaroak-FOLLETO-eus-ONLINE.pdf> Eskuorria gaztelaniaz: <https://participa.pamplona.es/wp-content/uploads/2025/04/Cursos-de-Formacion-en-Participacion-FOLLETO-Primavera-ONLINE.pdf> Eskaintza biziki interesgarria eta baliotsua egiten da, ia guztia gaztelaniaz izan arren. Euskaraz ere eskaini izan da ikastaroen bat, eta horrelakoetan argi komunikatu da euskaraz izanen zela. Gaztelaniaz eskaintzen direnean ere, hala direla informatzea litzateke normalena. Azken proposamen bat ere egin nahi nuke: 'Elkarteen jarduna ele biz edo euskaraz izateko tresnak' ikastaroa oso beharrezkoa litzatekeela uste dut eta. (hizkuntza eskubideak zer diren, nola lan egin ele biz, itzulpen tresnak, hizkuntza-irizpideak, praktika onak...) Milesker zuen lanagatik, segi dezagun Iruñean partaidetza indartzen! ;)

Dosierra: 321-2025

Nori: IRUÑEKO UDALA - TXANTREKO LIBURUTEGI PUBLIKOA

Arrazoia: Txantreako liburutegiko maiatzeko egitaraua jaso dut. Jakin nahiko nuke zein hizkuntzatan izango den iragartzen dena. Euskarazko saiorik dagoen iragartzen direnen artean.

Dosierra: 640-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - DONOSTIALDEKO ESI - PAZIENTEAREN ETA ERABILTZAILEAREN ARRETA ZERBITZUA

Arrazoia: Groseko anbulatorioan txanda hartzeko makinak jarri dituzte. Makina horren lehenengo pantaila espainolez dago. Euskaraz jarri egin behar duzu, ez da lehenengo hizkuntza.

Erantzunak:

Donostialdeko ESIko zuzendari-gerentea: Paintailaren goiko eskuineko aldean aukera bat dago zita eskatu eta haren egiaztatzea norberak nahi duen hizkuntzan inprimitzeko; hala, azken erabiltzaileak aukeratutako hizkuntza agertzen da pantailan.

Herritarren erantzuna: Badakigu makinak eskubiko aldean hizkuntza aldatzeko aukera uzten duela, eta hori izango dela hurrengoak erabiliko duena, baina kontuan izanik euskararen egoera zein den, ezin al da lehenengo pantaila hori euskaraz izan dadin bermatu? Donostiako Udalak TAO makinak horrela jarri zituen. 'Harrera' pantailaren lehenengo hizkuntza euskara da".

Dosierra: 817-2025

Nori: DONEZTEBEKO UDALA

Arrazoia: <http://www.doneztebe.eus/klikatu> eta Doneztebeko Udaleko webgunea gaztelaniaz ageri da. Zergatik ez du udalak interneten lehen hitza euskaraz egiten? Itxura exkaxa emateaz gain, herritarrek maiz erabiltzen dugu webgunea agenda, albisteak eta halakoak begiratzeko, eta zoritxarrez, gaztelaniaz erabiltzen akitzen dugu. Hortaz, udaleko ataria euskaraz ireki dadin eskatu nahi dut. Pribatua

Dosierra: 119-2025

Nori: GIPUZKOAKO ATLETISMO FEDERAZIOA

Arrazoa: Zuen web orria euskaratzeko eskaera egin nuen eta egin zenuten, beraz, alde horretatik mila esker. Baina orain beste arazo bat dago. Asteburuko emaitzak begiratzeko garaian, euskara hautatzen dudanean, ezin ditut ikusi, ez da eguneratzen. Eskertuko nizueke akats hori zuzenduko bazenute.

Ohartarazpenak (11)

Dosierra: 242-2025

Nori: EUSKO JAURLARITZA - GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITALA ETA AUTOGOBERNUA- Gobernu Irekia eta Gobernu Onaren Zuzendaria-

Arrazoa: Eusko Jaurlaritzaren webgune GUZTIAK (euskadi.eus domeinupean daudenak) gaztelaniaz daude defektuz azken asteotan. Euskaraz gailuak konfiguratuta ditugunok ere gaztelaniaz ikusten ditugu, bai Eusko Jaurlaritzarena, bai GeoEuskadi, Euskalmet edo Ertzaintzaren webguneak. Eusko Jaurlaritzaren informazioa ematen duen irekia.euskadi.eus ere gaztelaniaz dago defektuz, eta euskara aukeratu behar da, gordetzen ez duen datua.

Erantzuna:

Herritarrak Artatzeko eta Administrazioa Berritzeko zuzendaritza: Euskadi.eus atari sarearen barruan dauden atari guztien lehenetsitako hizkuntza euskara dela berretsi nahi dugu. Horrela, erabiltzaile batek bere lehenengo bisita egiten duenean eta orrialdearen hizkuntza URLan ezarrita ez dagoenean, defektuz ematen den bertsioa euskarazkoa da beti. Adibidez, <https://www.geo.euskadi.eus> helbidea birbidaltzen da <https://www.geo.euskadi.eus/hasiera> helbidera, hau da, euskarazko bertsiora. Behin Euskadi.eus-eko orrialde edo eduki bat erabilita, sistemak “cookie” bat sortzen du erabiltzailearen nabigatzailean, berak atari sarean erabilitako azken hizkuntzarekin, eta hurrengo bisitetan hizkuntza “cookie” horren arabera erakutsiko zaio. Sistemak ez du kontuan hartzen erabiltzailearen nabigatzailearen hizkuntza. Praktika hau ez da oso gomendagarria, nabigatzaile gehienek “gaztelania” baitute lehenetsitako hizkuntza bezala, nahiz eta erabiltzaileak euskarazko eduki edota zerbitzuak kontsumitu. Edozein kasuan, ohartarazpen honen harira bai antzeman ditugula arazoak azaldutako sistemaren funtzionamenduan, eta geure zerbitzu informatikoekin ari gara lanean arazo horiek konpontzeko. Arazo horiek nabigatzaileen konfigurazioarekin lotuta egon ahal dira, eta konpondu ezean lehenetsitako hizkuntza ezartzeko sistema berrikusi beharko dugu, euskarari lehentasuna emateko eta euskarazko eduki eta zerbitzuen eskaintza proaktiboa egiteko helburuarekin. Modu berean, atari guztien konfigurazioa berraztertzen ari gara lehenetsitako hizkuntza euskara dela ziurtatzeko Euskadi.eus atari sarearen barruan.

Dosierra: 282-2025

Nori: GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOA - GIPUZKOAKO URAK

Arrazoa: Gaizki idatzita dago. "Abonatu agurgarriak: " izan beharko luke

Dosierra: 368-2025

Nori: PORTUGALETEKO UDALA

Arrazoa: Portugaleteko Udalak 'Portugalete anitza [sic]' delako kanpaina sortu LGTBIQ+fobiaren aurka ekiteko. Bada, badakit astakeria zabalduetia dena eta oso litekeena dela inork ere inongo jaramonik ez egitea. Baina 'Portugalete anitza' esatearen parekoa da 'Portugalete askoa' esatea.

Dosierra: 572-2025

Nori: ZUHATZUKO KONTZEJUA

Arrazoa: Zuhatzuko jaietako kartel hau jarri dute Sakanako herrietatik. Asteko egunak euskaraz jartzea ez da ba hain zaila.

Dosierra: 659-2025

Nori: DONOSTIAKO UDALA - KULTURA

Arrazoa: Atzo Donostia Kulturako euskarazko ikastaroetan izena emateko epea zabaldu zen arratsaldeko 16:00tan. Ordubetez ibili nintzen ordainketa egiten saiatzen eta beti errorea ematen zuen. Ia 17:00tan gaztelarazko web orri bidez proba egitea okurritu zitzaidan, eta ordainketa arazorik gabe egin ahal izan nuen (3 ikastaroetarako ordainketa bana). Oraingoz kontsulta bezala aurkeztu dut, ez baitakit kasualitatea izan zen edo, nire susmoa den moduan (ohikoa izaten baita), euskarazko web orria ez zegoen ondo. Bide batez, anekdotikoa bada ere, aipatu nahiko nuke izen ematea euskarazko web orritik egiten saiatzeagatik, korrika eta presaka ginen lekutik alde egitea eragin zigula (45 minutu kotxez). DKko plazak agortu egiten dira eta horregatik berehala egin behar izaten da (badaezpada ere) izen ematea. Behin izena emanda, 2 ordu daude ordainketa egiteko. Web orrian ipintzen duenaren arabera, arazoak badaude Kultur Etxe batera joan behar da. Laburbilduz, gaztelaraz egin izan banu, arratsaldea lasai-lasai amaituko genuen ginen lekuan. Aldiz, euskaraz bizi naizenez normaltasun osoz euskaraz egin nuenez,

korrika, presaka eta urduri amaitu genuen ospakizuna. Ea argitzerik duzuen zer gertatu zen.

Erantzuna:

Kultur Ekintzako zuzendaria: Bankuaren ordainketa-pasabidearekin arazo bat izan zen eta ikastaroen matrikulazioa egiten ari ziren pertsonak ezin izan zuten ordainketa egin. Jakina, bai webguneko euskarazko bertsioan, baita gaztelaniazkoan ere. Kexa aurkeztu zuen pertsonak kasualitatez arazoa konponduta zegoenean egin zuen ordainketa, baina arazoa bai euskarazko bertsioan eta baita gaztelaniazkoan ere konponduta zegoen. Matrikulazioetan, norbaitek izena eman ondoren, 2 ordu ditu dagokion ordainketa egiteko. Bankuaren ordainketa-pasabidearekin arazo hori zegoenez, pertsona guztiei 24 ordura luzatu genien ordaintzeko epea, plaza gal ez zezaten eta ordainketa egin zezaten. Baina azkenean bankuak arazo hori konpondu ahal izan zuen eta pertsonak ordainketa egin ahal izan zuten, kexa egin duen pertsonak bezala, bai euskarazko bertsioan, bai gaztelaniazkoan. Donostia Kulturak, kulturaren zerbitzura dagoen erakundea den aldetik, ez ditu alde batera uzten horrelako gaiak, herritarrek oro har ondo dakiten bezala. Izan ere, euskarazko ikastaroen matrikulazioa gaztelaniazkoa baino lehenago egiten da, euskal hiztunak ikastaroetan euskaraz matrikula daitezen bultzatzeko eta sustatzeko.

Dosierra: 259-2025

Nori: HIRUKA ALDIZKARIA

Arrazoa: Ekin diot Hiruka aldizkariaren webgunean ea zer berri den arakatzeari. Denbora gutxian honakoak ikusi ditut lerro buruetan: "Astrabuduako"; "genbilen"...

Erantzuna:

Kudeatzailea: Eskertzen ditugu herritar horren adierazpenak, eta dagoeneko zuzendu ditugula adierazi nahiko genioke baita ere; aldi berean, herritar hori gonbidatu nahiko genuke gurekin harreman zuzena izatera. Azaldu nahiko genioke baita ere Hiruka hedabide oso txiki bat dela, eta, leku guztietan bezala, gizakiak garen heinean, aldiro akatsak egiten ditugula, eta zabalik ditugula ateak gurekin harremanetan jartzeko eta horiek zuzenean adierazteko. Kazetari gutxi gara hemen, zehazki 3, 10 herriren berriak plazaratzeko; aurreko astean, bakarra. Hala ere, esan bezala, eskerrik asko herritar horri.

Dosierra: 367-2025

Nori: SUPERAMARA (GRUPO UVESCO) - Antigua -

Arrazoaia: Antiguako Super Amara supermerkatuan, norberak ordainketa egiteko makinetan hizkuntza bezala Euskara aukeratzen baduzu, bertatik ateratzen den ahotsaren bolumena nabarmen baxuagoa da gaztelania aukeratutakoan baino. Denbora luzea daramaki honek horrela izaten, baina ostegunean jabetu nintzen Behatokiaren aukera hau eskuragarri zegoela.

Dosierra: 763-2025

Nori: ITXARTU TALDEA

Arrazoaia: Gaurko Deian ikusi dut Getxoko Orientazio Ibilbidearen iragarkia argitaratu duela Itxartu Taldea elkarteak. Bada, mesedez, jakin bezate, hurrengo aldietarako behintzat, "Getxotik"-ek ez duela esan gura "por Getxo", "desde Getxo" baizik. "Getxon zehar", "Getxotik zehar", "Getxon barrena", e.a. dira aukerak. Edo "Getxoko" besterik barik. Edo "Getxon". <https://www.itxartu.eus/2025ko-urriaren-19an-kirola-xii-orientazio-ibilbidea-infromazioa-eta-izen-emateak/?lang=eu>

Dosierra: 784-2025

Nori: ZETAK

Arrazoaia: Zetaken Mitoaroa II kontzertuan edariak eta janaria ordaintzeko QR4 aplikazioa ezin da euskaraz erabili eta erdaretako baten erabili behar izan genuen; sistemak bidaltzen zituen mezuak ere erdaraz zeuden.

Dosierra: 845-2025

Nori: LABORAL KUTXA - BEZEROAREN ARRETARAKO ZERBITZUA

Arrazoaia: Laboral Kutxak "zorduketarako zenbatekoa" jartzen du "zorduNketarako" jarri beharrean kutxazainetako tiketetan.

Dosierra: 968-2025

Nori: BERMIBUSA

Arrazoaia: Bermibusaren itxarote denborak kontsultzeko azken atala gazteleraz bakarrik agertzen da, nahiz eta hasieratik euskaraz egon kontsultatzen zerbitzua.

KONTSULTAK



5

Kontsultak (11)

Dosierra: 191-2025

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - DNI TRAMITATZEKO BULEGOA - Eibar

Arrazoia: Nire alabaren NA ateratzera joan naiz Eibarko bulegora. Umearen jaiotze-agiri literala euskaraz eraman dut eta ez didate onartu, gaztelaniaz edo elebitan behar duela Madrilera bidali behar dutelako. Agiria euskaraz onartzea nahi baldin badut Donostiara joan behar dudala, hain itzulpen zerbitzua daukatelako. Hori hala da? Badaukat jaiotze-agiria euskaraz aurkezteko eskubidea?

Dosierra: 57-2025

Nori: None

Arrazoia: Nafarroako Turismoko oposaketa konbokatoriak bidaltzen dizkizuet, euskara ez da eskatzen, atzerriko hizkuntzak bai, zerbait egiten ahal den jakin nahi dut: <https://www.navarra.es/es/tramites/on/-/line/tecnico-de-empresas-y-actividades-turisticas-oposicion-2024> <https://www.navarra.es/es/tramites/on/-/line/oficial-de-actividades-turisticas-oposicion-2024>

Dosierra: 83-2025

Nori: None

Arrazoia: Urte hasierarekin batera, 10 etxebizitzetako atalondo bateko lehendakaria izatea otu zait egunerokoaren kudeaketa aholkularitza batek egin arren. Aholkularitzakoak banketxera, gure portaleko kontu korrontearen baimena eskuratzeko, eramateko agiri bat eman zidan eta zer izango, agiria gaztelania hutsez zegoen. Banketxean egin beharrekoak egin ostean, aholkularitzara joan nintzen eta agiriak elebakar nahi nituela esan nien, noski euskaraz, eta bestela elebidun. Eta hemen nire galdera: aholkularitza behartu dezaket euskaraz agiriak bakarrik bidaltzera? Legez hori nonbaiten agertzen da?

Dosierra: 229-2025

Nori: None

Arrazoia: Kontsulta bat egin nahiko nizueke. Bilboko Udaletxeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako programa batean lan egiten dut (publikoa da). Jakin nahiko nuke, legez eskubidea dudana egiten ditudan txostenak euskaraz soilik egiteko/idazteko.

Kasu honetan, familiarekin esku-hartzea euskaraz izango da eta piskologoa eta gizarte langileak euskaraz dakite ere bai. Esango didazue, ea.

Dosierra: 346-2025

Nori: None

Arrazoia: Euskal Herriko erakunde batetan lan egiten dut, ez gara funtzionarioak, baina gure estatus juridikoa honako hau da: "Corporación de Derecho Público". Zentzu horretan, gure erakundeak euskararekiko dituen erantzukizun eta bete beharrak ezagutu nahi nituzke. Ez dakit ordea halakorik izango den kasu honetan.

Dosierra: 574-2025

Nori: None

Arrazoia: Decathlon denda kateko errotulazioa gaztelera hutsean dago. Hori egokia da edo euskaraz ere egon beharko litzateke?

Dosierra: 576-2025

Nori: None

Arrazoia: Donostiako hiritarra. Epaitegitik zitazio bat jaso det, testigo moduan epaiketa batera joateko. Eskutitza gaztelera hutsean jaso det, nola ez. Jakin nahiko nuke ea nora jo dezakedan informazio eske, jakiteko zeintzuk diren nire hizkuntza eskubideak epaiketa horretan. Testigo moduan nago zitatuta, baina nirekin harremanak eta nire interbentzioak euskaraz izatea nahiko nuke. Ba al daukat hori exijitzeko eskubidea? Nola eskatu dezaket hori?

Dosierra: 691-2025

Nori: None

Arrazoia: Espainiar Gobernuako erakundeetan (Gizarte Segurantzak, Policia, Guardia Zibila...), EAEn aritzen denean, euskararen erabilera arautzen duen legedirik ba al dago? Zehatz mehatz Policia nazionalaren inguruan bilatzen nabil.

Dosierra: 794-2025

Nori: None

Arrazoia: Nafarroako Gobernuako Funtzio Publikoko zuzendari nagusiak 2024ko ekainaren 24an 2478/2024 ebazpena eman zuen Nafarroako Foru Komunitateko

Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko erdi-mailako teknikarien (berdintasuna) 10 lanpostu oposizio bidez betetzeko deialdia onesteko, eta 2024ko uztailaren 29an argitaratu zen Nafarroako Aldizkari Ofizialean 153. zenbakian. 10 plaza horietatik bakarrak euskararen C1 hizkuntza-eskakizuna du. Deialdiaren aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu genuen hainbat berdintasun-teknikarik, genero-berdintasuneko ezagutza espezifikoa edukitzea eskatzeko eta epaimahaian euskara ezagutzen duen norbait egotea bermatzeko. Errekurtso horiek ez ziren aintzat hartu. Pasa den irailaren 20an azterketa teorikoa egin genuen, eta probaren behin-behineko emaitzak argitaratu ziren. Orduan alegazio bat aurkeztu nuen eskatuz ea posible izanen litzatekeen azterketa praktikoa euskaraz egitea, eta urriaren 22an erantzun didate esanez ezin dudala azterketa praktikoa euskaraz egin. Atxikita bidaltzen dizkizuet dokumentu hauek: - Lanpostuen deialdia. - Berdintasun-teknikari batzuk aurkeztu genuen gora jotzeko errekurtsua, euskararen erreferentzia ere sartuz. - Nafarroako Gobernuaren erantzun errekurtsoei. - Epaimahaiaren erantzuna, azterketa praktikoa ezin dudala euskaraz egin adieraziz. Nire hizkuntza-eskubideak urratu direla pentsatzen dut, eta jakin nahiko nuke ea juridikoki zer ibilbide eduki dezakeen errekurtsua aurkezteak. Beste informazioaren bat behar baduzue, eskatu lasai. Zuen erantzunaren zain geratzen naiz. Eskerrik asko aldezturik.

Dosierra: 879-2025

Nori: None

Arrazoiak: Iberdrolak iragarki berriak egin ditu eta leku askotan daude ikusgai. Horien artean Metro Bilbaon eta Euskotranen. Iragarkiak Metro Bilbaoko Bilboko geltoki guztietan daude, sarreretan baita nasetan ere eta den-denak daude gaztelaniaz. Euskotranen ere bada iragarki hori baina tranbietan itsatsita, kanpoaldean. Tranbiak oso-osorik dabilta iragarki berarekin estalita eta hau ere gaztelania hutsean beti. Bilboko kaleetan ere ikusi dut iragarki bera, beti gaztelaniaz. Nire kontsulta zera da: nahiz eta enpresa pribatu batek ez izan iragarkiak euskaraz egiteko legezko beharrik, erakunde eta zerbitzu publikoek ez dute irizpiderik enpresa baten iragarkiak onartzeko, edo horiek euskaraz ere ager daitezen eskatzeko ahalmenik?

Dosierra: 983-2025

Nori: None

Arrazoiak: Oriotik idazten dizuet. Artikulu hau irakurri ondoren pentsatu dut agian ahal didazuela lagundu dudana arazoarekin... https://www.berria.eus/euskal-herria/gizon-batek-salatu-du-bi-isun-ipini-dizkiotela-matrikulan-jartzen-duen-pegatina-edukitzeagatik_2131702_102.html Kontua da, duela astebetetxo niri ere Ertzainek isun bat jarri zidatela EH-ko pegatinak eramateagatik eta artikulu honetan aipatzen da badagoela nonbaiten lege oinarri bat erabili ahal dudana helegitea jartzean baino ez dut inon halakorik aurkitzen... Ahal didazue zuek honekin lagundu ze artikuluaren esaten da ere protagonista zuekin jarri zela harremanetan?